EUSEBIO ERKIAGA

Berbalauaren kulunkan

(Prosa lanak)

EUSEBIO ERKIAGA

Berbalauaren kulunkan

(Prosa lanak)

I

Sarrera eta edizioa: Andres Urrutia

LABAYRU IKASTEGIA
BILBAO BIZKAIA KUTXA FUNDAZIOA
BILBAO
2001

Argitalpen honen moldaketak eta prestakuntzak Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza dau.

© *Argitaraldi honena:* Labayru Ikastegia - Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioa
Aretxabaleta, 1-1.a
48010 BILBAO
Tel.: 94 443 76 84 - Fax: 94 443 77 58
Posta elektronikoa: labayru@labayru.org

Diseinua: Ikeder, S. L.
Fotokonposizioa: Ikur, S. A.
Silutegia: A.G. Rontegui, S.A.L.

Lege Gordailua: BI-404-02
ISBN: 84-89816-69-7

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburu hau osorik edo zatika kopiatzea, ez sistema informatikoekin beronen edukina biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen aldez aurreko eta idatzizko baimen barik.

I

Antzerkia
BIBV
Euskal literatura
Euskararen inguruan
Hitzaurreak

II

Itzulpenak
Kazetaritza
Liburuen kronikak
Narrazioak

Eusebio Erkiaga zanaren lan ederra barriro be euskaldunon eskura jartzeko ahaleginean, adiskide eta lankide izan ditudan Erkiaga-Telleria familia eta Rufo Atxurrarentzat.

AURKIBIDEA

I. TOMOA

***Atarikoa*, Karmelo Etxenagusia** 21

***Eusebio Erkiaga, Berbalauaren kulunkan*, Andres Urrutia** . . . 23
1. Bizitza-zertzeladak 23
2. Liburu honen edukia: hautaketa baten zergatiak 28
3. ERKIAGAren langintza arloz arlo: 31
   3.1. Antzerkia 32
   3.2. Boletín Informativo del Banco de Vizcaya (BIBV) 34
   3.3. Euskal literatura 35
   3.4. Euskararen inguruan 36
   3.5. Hitzaurreak 37
   3.6. Itzulpenak 38
   3.7. Kazetaritza 38
   3.8. Liburuen kronikak 40
   3.9. Narrazioak 41
4. ERKIAGAren pentsamoldea: ezaugarri nagusiak 41
   4.1. Abertzaletasuna gidari 41
   4.2. Euskaltzale nabarmena 42
   4.3. Estetikaren bila 48
   4.4. Euskara, noranahikoa 51
   4.5. Lekeitio eta Bilbo, ERKIAGAren bitasuna 52
   4.6. ERKIAGA, katolikotasunaren bidetik 56
5. ERKIAGA, euskaltzain osoa 58
6. Gure argitalpena 67
7. Eskerrak emotea 69

Eusebio Erkiagari buruzko bibliografia 71
Opera omnia, *Eusebio Erkiaga* 77

ANTZERKIA

1933. Azkatasun bidian (*Euzkadi*, 1933-X-25) 85
1936. Antzerki yayan izan naiz... (*Antzerti: euskel-antzertiaren illerokoa*, 49, 1936) 90
1951. Sinisgogorra (*Argitaratubakoa*, 1951) 94
1952. Sinisgogorra (*Egan*, 2, 1952) 111
1954. Kaia ta Estalpea (*Argitaratubakoa*, 1954) 115
1956. Pake eguna (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, *Argitaratubakoa*, 1956) 134
1957. Nire Senargeia (*Argitaratubakoa*, 1957) 158
1959. Alperrontzi (*Argitaratubakoa*, 1959) 178
1959. Ate-osteko irudiak (*Argitaratubakoa*, 1959) 184
1959. Kanpaien atsekabez (*Euskera*, V, 1960) 200
1960. Oiñazez (*Argitaratubakoa*, 1960) 220
1962. Amandarrikuak (*Argitaratubakoa*, 1962) 275
1966. Erriko Izarra (*Argitaratubakoa*, 1966) 302
1970. Gau batean (*Argitaratubakoa*, 1970) 312
1974. "Gora Arratia" (*Egan*, 1-6, 1974) 338
1985. Tarot argi, Tarot ilun (*Argitaratubakoa*, 1985) 346
1987. Gonaluzeren tarota (*Argitaratubakoa*, 1987) 363
¿?. Alkarrizketa kaixkarra (*Argitaratubakoa*) 380
¿?. Nori, zeri, zeineri? *Argitaratubakoa*) 388

BOLETÍN INFORMATIVO DE LA REVISTA FINANCIERA DEL BANCO DE VIZCAYA (BIBV)

1965. Peter Etxeberria Euskalerrian egon da udabarrian (*BIBV*, 9, 1965) 403
1966. Parisko Sorbonnekoa (*BIBV*, 15, 1966) 408
1967. Euskal-Dantza Barriak (*BIBV*, 17, 1967) 411
1968. Eleder-Sailla (*BIBV*, 23, 1968) 415
1988. Eusebio Erkiaga-ren emoketa Euskaltzaindiari (Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, *Argitaratubakoa*, 1988) 417

EUSKAL LITERATURA

1953. Iparragirre'rekin solasian (*Gernika*, 24, 1953) 421
1957. R. M. Azkue aundiari omena Bilbao'n (*Egan*, X, 1957) . . . 423
1961. Eusebio Maria Dolores Azkue Barrundia (*Olerti*, 1961) . . . 429
1962. Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga (*Olerti*, 1962) 444

1963. Aita Kandido Basabe, S. J. euskal-idazlea (1867-1928) (*Olerti*, 1963) 456
1964. "Belu - Mendu" zintzoari, agur (*Zeruko Argia*, 66, 1964) . 471
1964. Resurreccion Maria Azkue-z ene oroipenak, eta entzunak eta irakurriak (*Egan*, XXIII, 1964) 473
1965. Azkue-Sariak eta Guipuzkoako ta Arabako Diputazioen jokabidea (*Zeruko Argia*, 134, 1965) 490
1965. Izkuntzaren nekazalea (*"Orixe" omenaldi liburua*, 1965) . 492
1966. "Arrugain" ek bere, agur egin deusku (*Zeruko Argia*, 169, 1966) 497
1967. Arrutza ta Egia'tar Mikel (Arrugain) 1890-1966 (*Olerti*, 1967) 499
1968. Bizente Amezaga Aresti (*Euskera*, XIII, 1968) 506
1968. Migel Arrutza Egia (*Euskera*, XIII, 1968) 507
1970. Pablo Fermin Irigaray Goizueta "Larreko" (1869-1969) (*Egan*, XXX, 1970) 508
1972. R. M. Azkue en la literatura (*El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *Suplemento gratuito*, 1972-9-10) 517
1973. «Larreko» gizon. Pablo Fermin Irigaray Goizueta (*Euskera*, XVIII, 1973) 523
1974. Eusebio Maria D. Azkue gizon eta idazle (*Euskera*, XIX, 1974) 529
1976. Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939) bere bizitza eta lanak (*Euskera*, XXI, 1976) 552
1984. R. Mª Azkueren inguruko gorabeheratxuak (*Sustraia*, 49, 1984) 572
1986. Augustin Zubikarai Bedialauneta'ri omenaldia (*Karmel*, 2, 1986) 583
1987. Zubikarai euskal-idazleari gorazarre (*Idatz & Mintz*, 13/14, 1987) 590
1987. Patxi Antxustegi (G. B.) Olerti lanetan (*Karmel*, 4, 1987) . 593
1988. Omenaldiko azken egunean (*Argitaratubakoa*, 1988) 599
1989. Agirre Ondarrutarra (*Ondarroa*, 1989) 607
1989. Aita Lino Akesolo *(Karmel*, 2, 1989 / *Euskerazaintza*, VII, 1989) 609
1990. Euskaltzaindiaren hasieratik urgazle izan zanaren mendeurrena: Migel Arruza Egia (1890-1966) (*Euskera*, 2, 1990) 615
1991. Boltxebikiak, Eguzkitza ta honen saio «gizarte auzia» barriro (*Karmel*, 2, 1991) 621

1992. Ordu onean, Augustin (*Augustin Zubikarai omenaldia*, Ondarroa, 1992 / *Zer*, 169, 1992) 625

EUSKARAREN INGURUAN

1952. Euskeraren hel-oihua (*Gernika*, 18, 1952) 631
1953. Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal (*Gernika*, 22, 1953) 635
1958. Kezkak eta koxkak (*Egan*, XI, 1958) 637
1967. Euskaltzaindiaren deia (*Anaitasuna*, 30, 1967) 641
1971. Euskaltzaindiaren urre-eztaiak, Erkiaga Jaunaren hitzaldia (*Euskera*, XVI, 1971) 643
1973. Euskal-Antropologiazko II gn. astea (*La Gran Enciclopedia Vasca*, 1973) 650
1975. Requiem Altuberen Arauei (*Egan*, 1-6, 1975) 654
1977. Anaforikoak aldez edo moldez (*Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki-bilduma*, III, 1977) 659
1990. Irakurleak bai, idazlerik ez (*Bilbao*, 25, 1990) 670
1992. Zamarripak EU- / AU- adiztaiu aldaera ixila, bere azken gramatikan (*Iker*, 6, 1992) 673

HITZAURREAK

1967. Zizka-mizka atsegiña (*"Atalak" liburuaren hitzaurrea*, 1967) 681
1975. Lan honen agerpena (*"Diez lustros en la villa de Lequeitio, 1925-1974" liburuaren hitzaurrea*, 1975) 683
1990. Gomutak iluntzen diranean (*"Eguna" egunkariaren birrargitalpena*, 1990) 686

II. TOMOA

ITZULPENAK

1952. Platon-en Parmenides edo Eideena (*Argitaratubakoa*, 1952) 699
1963. Papini'k Kristo maitatu zuanekoa (*Zeruko Argia*, 6, 1963) 763
1978. Kiri-sorpeneko biri-antura (*GMB* 75, 1978, 10) 765
1979. Lekeitio uri begikoan egindako bakaldun-egonaldian aipamen zeatza (*GMB* 76, 1979, 5-6) 766

1981. Itunben Ekonomikoaren Legea (*Diputación Foral del Señorío de Vizcaya / Bizkaiko Jau-rerriaren Foru Ahaldundia*, 1981) 767
1984. Eraketa bileraren batzar-agiria -1979- (*Actas de las Juntas Generales de Vizcaya-Bizkaiko Batzar Nagusietako Batzar--agiriak*:1979-1983. *Diputación Foral de Vizcaya / Bizkaiko Foru Aldundia*, 1984) 771
1987. Urdaileko hodi-ehun ugaltzea (*GMB* 84, 1987, 3-4) 775
1990. Sarrera: berdetik gorrira (*Bizkaia-profunda / Bizkaia barru-barrutik*, 1990) 776

KAZETARITZA

1930. Oroipenez (*Bizkaitarra*, VIII, azaroa, 1930) 783
1930. Abertzaletasunatzaz (*Bizkaitarra*, XII, abendua, 1930) . . . 786
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-V-24) 787
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*,1931-VI-26) 788
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VII-4) 789
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VII-10) 791
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VIII-2) 793
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-VIII-20) 794
1931. Ea'n Igandian (*Euzkadi*, 1931-X-15) 796
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-XI-1) 798
1931. ¡Ez asarrerik, anayak! (*Euzkadi*, 1931-XI-26) 800
1931. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1931-XII-31) 801
1932. Izki-Mizki (*Euzkadi*, 1932-II-6) 803
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1932-III-10) 805
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1932-IV-3) 806
1932. Izki-Mizki, udako gatxak (*Euzkadi*, 1932-VI-25) 807
1932. Izki-Mizki, udako gatxak (*Euzkadi*, 1932-VI-29) 810
1932. Euzko-erri jakintza (*Euzkadi*, 1932-VII-2) 813
1932. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1932-VII-4) 814
1932. Izki-Mizki, entzun baña aztu (*Euzkadi*, 1932-VII-10). . . . 816
1932. Iski-Mizki, Andolin Deun Jayak-eta (*Euzkadi*, 1932-IX-16) 818
1932. Igaziriko igandez (*Euzkadi*, 1932-X-20) 820
1932. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1932-XI-18) 822
1932. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1932-XII-17) 823
1932. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1932-XII-31) 825
1933. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-I-5) 826
1933. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-II-25) 827

1933. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-III-16) 828
1933. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-V-12) 829
1933. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1933-V-28) 830
1933. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1933-VI-7) 832
1933. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1933-VI-30) 833
1933. Txakartegi'tar Andolin (G. B.) (*Euzkadi*, 1933-VII-6) 836
1933. Jayak-jai (*Euzkadi*, 1933-IX-22) 838
1933. Izki-Mizki (*Euzkadi*, 1933-X-13) 840
1933. Gero... gerokuak (*Euzkadi*, 1933-XII-6) 842
1933. Euzkerea esituta... eta erderea nun-nai (*Euzkadi*, 1933-XII -30) 843
1934. Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-I-6) 845
1934. Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-I-13) 847
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-I-31) 848
1934. ¡Aratuzte, Iñauteri! (*Euzkadi*, 1934-II-10) 849
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-II-15) 851
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-II-25) 852
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-III-2) 853
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-III-8) 854
1934. Izki-mizki (*Euzkadi*, 1934-III-10) 855
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-III-15) 856
1934. "Euzkerari omena" (*Euzkadi*, 1934-IV-7) 857
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-IV-14) 858
1934. Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-IV-19) 859
1934. Amoroto-Urregarai (*Euzkadi*, 1934-IV-21) 861
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-IV-27) 865
1934. Biar-biarrekua Abertzaletasunaren zabalgundia (*Euzkadi*, 1934-V-4) 867
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-V-5) 868
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-V-24) 869
1934. Euzkerea, euzkoen elia (*Euzkadi*, 1934-V-29) 870
1934. Euzkerea, euzkoen elia (*Euzkadi*, 1934-V-31) 874
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-V-31) 878
1934. Euzkerea, euzkoen elia (*Euzkadi*, 1934-VI-1) 880
1934. Euzkerea, euzkoen elia (*Euzkadi*, 1934-VI-2) 885
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-VI-6) 888
1934. Eztalakuan-baidalakuan (*Euzkadi*, 1934-VI-8) 889
1934. V'gn. Euzko-Olerti Eguna. Bijar, Zarautz'en (*Euzkadi*, 1934-VI-9 / *Ekin*, 123, 1934) 891

1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-VI-10) 893
1934. Ene bijozkadak (*Euzkadi*, 1934-VI-14) 894
1934. Domingo Agirre Euskeltzalia (*Ekin*, 124, 1934) 896
1934. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1934-VI-29) 897
1934. Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-VII-4) 898
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-VII-13) 899
1934. Erri-itzak: "Bizkaitarra" (*Ekin*, 128, 1934) 901
1934. "Kresala" ta "Garoa" (*Euzkadi*, 1934-VII-29) 902
1934. Errijetatik-Lekeitio'tik (*Euzkadi*, 1934-VIII-9) 903
1934. Baserrira abertzaletasunaren ixenian (?) erderea zabalduten (*Euzkadi*, 1934-VIII-28) 904
1934. Euzkel-gaiz (*Euzkadi*, 1934-VIII-31) 905
1934. Perretxikotan (*Euzkadi*, 1934-IX-2 / *Ekin*, 135, 1934) . . . 906
1934. Euzkel-idazliak erdeltzale (?) (*Euzkadi*, 1934-IX-11) 908
1934. Abaroa jaunari gorasarre (*Euzkadi*, 1934-IX-13) 909
1934. Asarre barik (*Euzkadi*, 1934-IX-15) 912
1934. Mixiolari euzkeldunak (*Ekin*, 141, 1934) 914
1935. Udabarrija, itxaropena (*Euzkadi*, 1935-III-27) 916
1935. Erremu-eguna (*Euzkadi*, 1935-IV-14) 918
1935. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1935-V-11) 921
1935. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1935-VI-15) 923
1935. Mendexa'ko jayak (*Euzkadi*, 1935-VIII-4) 924
1935. Sanantoliñak (*Euzkadi*, 1935-VIII-30) 926
1935. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1935-X-24) 928
1936. Lekeitio (*Euzkadi*, 1936-I-17) 929
1936. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1936-II-14) 930
1936. Errijetatik-Lekeitio (*Euzkadi*, 1936-V-28) 931
1936. Lekeitio'ko Olerti-Eguna / Gomuta samurrak (*Euzkadi*, 1936-VII-5) 933
1936. Akarregi'tar Gurutz (G. B.) (*Euzkadi*, 1936-VIII-26) 936
1936. Gomuta samurrak / "Aitzol" biotz-begietan dodala (*Euzkadi*, 1936-XI-6) 937
1937. Len, zer? Gaur, ba-dakusgu.— Gero geuk nai doguna (*Eguna*, 1, 1937-I-2) 939
1937. Karraxika, ota-lore (*Eguna*, 63, 1937-III-14) 941
1937. "Aitzol", olerkari zuzperzalle (*Eguna*, 95, 1937-IV-22) . . . 943
1937. Uskola'tar Errapel (*Eguna*, 124, 1937-V- 27) 945
1959. Ravel, Ziburu-ko seme (*Egan*, XII, 1959) 947

1961. Bizkaiko bertsolariak, nor goragoka (*Karmel*, azilla-lotazilla, 1961) 951
1963. Bilbao'tik (*Zeruko Argia*, 1, 1963) 953
1963. Zinea, zeñek galduko du? (*Zeruko Argia*, 2, 1963) 954
1963. Udaberriaren begira (*Zeruko Argia*, 6, 1963) 956
1964. Lekeitio-ko Azkue-tarrak (*Zeruko Argia*, 76, 1964) 957
1966. Zirikadak eta erantzunak (*Zeruko Argia*, 188, 1966) 960
1967. "Gernikako Arbola" ta Lekeitio (*Egan*, XXVI, 1967) 964
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 156, 1968) 972
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 157, 1968) 975
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 158, 1968) 977
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 159, 1968) 979
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 160, 1968) 982
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 161, 1968) 984
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 162, 1968) 987
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 163, 1968) 989
1968. Zaartzaroaren bildur (*Anaitasuna*, 164, 1968) 992
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 165, 1968) 994
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 166, 1968) 997
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 167, 1968) 1000
1968. Munduko bearrizanak (*Anaitasuna*, 167, 1968) 1002
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 168, 1968) 1004
1968. Itxasalde paregabean (*Anaitasuna*, 169, 1968) 1007
1968. Kaleko gizonak diñoana (*Anaitasuna*, 170, 1968) 1009
1973. Dos centenarios lequeitianos: El del músico Zapirain y del poeta E. Azkue (*El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1973-8-1) 1011
1976. Aritzmendi, baserritar unibertsala (*T.U. Lankide*, 1976) . . 1017
1987. Abade euskaldunak jardunean (*Karmel*, 1, 1987) 1023
1988. Bilbo, barriro Europari adi (*Bilbao*, 5, 1988) 1026
1988. Lekeitio hitzaren jatorriaz (*Lekeitio*, 1, 1988) 1028
1988. Ardaoa ixilpera (*Bilbao*, 8, 1988) 1032
1988. Euskalduna, ontziak nun dituzu (*Bilbao*, 12, 1988) 1035
1989. Bilbo polita eta garbia (*Bilbao*, 15, 1989) 1037
1989. Medikuen agerkaria Bilbon (*Bilbao*, 17, 1989) 1040
1989. Gauza harrigarriak hemen? (*Bilbao*, 20, 1989) 1042

LIBURUEN KRONIKAK

1984. "Azalpenak" - Lauaxeta (*Idatz & Mintz*, 7, 1984) 1047

1985. "Gazigozoak" - Agirre, T. (*Idatz & Mintz*, 9, 1985) 1049
1985. Azkueren zentsurape 1918gn. (*Idatz & Mintz*, 9, 1985) . . . 1052
1985. "Itxastarrak" (*Ondarroa*, 1985) 1057
1987. "Irribarrea galtzen danean" (*Idatz & Mintz*, 15, 1987) . . . 1062
1987. "Uneka-gaba" (*Idatz & Mintz*, 15, 1987) 1065
1989. "Mutiko baserritar baten oroitzapenak" (*Idatz & Mintz*, 18-19, 1989) 1067
1990. Liburuak / Igone Etxebarriaren eskutik Bilbon «Ixtorio-Mixterio» (Jean Barbier, B. M. Garro) (*Bilbao*, 28, 1990) 1069
¿?. "Euskarazko bertsoak"-Eusebio Maria D. Azkue Barrundi (1911-1973) (*Argitaratubakoa)* 1071

NARRAZIOAK

1936. Esnedunak (Neguko goiz batez) (*Argia egutegia*, 1936) . . 1079
1956. Ames-Larreko maitagarria (*Egan*, 5-6, 1956) 1081
1959. Zein ote zan-zera? (*Euzko-Gogoa*, 1-2, 1959) 1084
1960. Baru-aldiak (*Egan*,1, 1960) 1088
1965. Sonia liraiña (*Egan*, 1-6, 1965) 1092
1966. Irugarren gaua (*Egan*, 1-6, 1966) 1097
1970. Ikusi bakarrik (*Karmel*, 1, 1970) 1100
1971. Giltz egokia (*Hegatsez*, 1971) 1103
1984. Gizon totoloa (*IKA* argitaldaria, 1984) 1106
1984. Arpeko Mari (*IKA* argitaldaria, 1984) 1110
1984. Tronpa tartaina (*Zer*, 78, 1984) 1115
1984. Ximin-jendearen biltzarra (*Argitaratubakoa*, 1984) 1119
1985. Basotx (*Argitaratubakoa*, 1985) 1128
1985. Ixilaren ederra (*Argitaratubakoa*, 1985) 1135
1985. Martin Antonen Potina (*Argitaratubakoa*, 1985) 1142
1986. Nik neronek ez (*Argitaratubakoa*, 1986) 1148
1986. Talo ta arraina (*Lore kontu-Kontu lore*, Ondarroako Kultur Etxea, 1986) 1157
1987. Lukasen erakutsi ona (*Zer*, 107, 1987) 1178
1990. Gamistoa, Euskal-edaspena (*Lekeitio*, 2, 1990) 1182
1990. Adiskide bi kontu kontari (*Lekeitio*, 2, 1990) 1189
1990. "Untzorritxu" (*Bilbao hiria ipuinak*, *1980-89*, Bilboko Udala, Kultura eta Turismo Saila, 1990) 1193
1990. Dei egitekoak (*Argitaratubakoa*, 1990) 1208
¿?. Umerik bako atsegiña (*Argitaratubakoa*) 1211

¿?. Txakur zaharra eta gaztea (*Argitaratubakoa*) 1215

Testuen aurkibide kronologikoa 1221
Testuen aurkibide alfabetikoa 1233
Hiztegia 1243

ATARIKOA

Beste behin be, ezin nik ezetzik emon. Alperrik izan dira nire atxakiak: astirik eza, aspaldion holako arloetatik aldenduta nabilela, badala gaur "Atariko" hori nik baino hobeto egin leikeanik... Andres Urrutia adiskidearen eskabideari, azken batean, baiezkoa emon behar izan deutsat. Alde batetik, behinolako ikasle ezin hobeagoaren eskaria zalako; besterik, Eusebio Erkiaga maisu handiaren aspaldiko miresle nazalako.

Laster datoz bederatzi urte gure Bizkaiko Aldundiak, bere Jauregiko gela ederrean, berebiziko omenaldia egin eutsala Erkiagari. Beronen borondatez, neuri eskatu eustan orduan Tomas Uribe-etxebarria Kultura Diputaduak goratzarre-hitzaldia egiteko. Nik esatekoak, orduantxe esan nituan; orain eztot hemen gauza barririk adierazoko. Urrutia euskaltzain argiak, liburu mardul honi egindako sarrera luze mamintsuan ederto baten aurkezten deuskuz Erkiagan bizitzea eta beronen lan ugariak.

Neure bihotz barruko poz handia, horixe bai adierazo gura dot, lan eskerga honen aurrean. Euskaltzale askoren guraria bete deusku, neurri handi baten, Andresek. Hona hemen, halakoren baten, ondo batuta eta egoki aurkeztuta, Erkiagaren berbalauzko lanik gehientsuenak (eleberriak izan ezik). Lekeitioko idazle ugaria euskerearen —batez be, bizkaieraren— gorengo maisutzat dogunontzat, benetan txalogarria Urrutiaren ahalegina. Han-hor-hemen sakabanatuta eta erdi galduta ebiltzan lan asko ta asko, hemen doguz orain danak batean. Beste euskal idazle batzuk izandako zoria dogu gaurkoan Erkiagak... eta beronen irakurle eta aztertzaileak. Bizkaiko Aldundian, omenaldi hitzaldi haren azkenean ni eskari bi egiten ausartu nintzan, omenaldiaren betegarritzat: bata, Erkiagaren

olerki guztiak batu eta argitaratzea; bigarrena, idazle argi honen "azterlan eta hitzaldi ederrak be aldizkarietatik batu eta batean argitaratu daitezela, gure euskal kulturako gizon handiak hobeto ezagutu ahal daiguzan: Azkue aita-semeak, Etxeita, Basabe, Mikel Arruza, Augustin Zubikarai, Tomás Agirre (*Barrensoro*) eta beste batzuk. Omenaldi horretan egon ei zan A. Urrutia, eta nire bigarren eskariari, behintzat, ondo baino hobeto jakin dau erantzun egokia emoten. Txalogarria zure lana, bihotzez eskertzekoa, Andres. Mesedegarri be izango ahal jake euskerearen ondasunak ezagutu nahi dabezanei!

Egia esan, olerkaritzan eta nobelagintzan erakutsi deusku, beste ezertan baino gehiago, bere maisutasuna Erkiagak, baina jorratzen eban edozein arlotan adierazoten zituan bere begi zorrotza, zehaztasuna, olerkari usain gozoa, gure hizkuntza zenbaterainoko eukan aztertuta eta bereganatuta. Nik neuk, behintzat, beste askoren antzera, sarritan autortu izan eta izango dot, ikasleen eta edozeinen aurrean, Erkiaga euskerearen maisu handia dogula, bikaina eredua. "Gaurko idazleen artean goi-maillakotzat dagoala edozeinek daki..." esan eban Lino Akesolok. Eta Gotzon Garatek: "Erkiagaren euskera gu guztiontzat lorategi ederra da... Joskera zuzena, esaldi egokiak, atsotitz jatorrak... Ba dugu non ikasi Bizkaiko euskera bizia, batik-bat".

Gure Eusebiok, bere bizitza luzean egindako lan ugarien artean, berarizko lekua emon eutsen bere jaioterriko euskal idazle nagusiei. Andres Urrutia ezta jaiotzaz lekeitiarra, baina gure bilbotar honek eztau isilean gordeteko Lekeitiori zenbat zor deutsan. Hori dala eta, bere ogibideko zeregin astunen artean beti erdi itota ibili arren, nondik edo handik atara deusku astibitarterik, Erkiagaren prosa lanak batu, aurkeztu eta argitara emoteko, itsas usaina darion izenburuagaz, hatan be: "Berbalauaren kulunkan". Sasoi oneko euskaltzain honek bere ahaleginen frutu eder bat opa deutso gure kultureari. Ezta lehenengoa. Ez ahal da azkena izango!

Karmelo Etxenagusia
Bilboko Gotzain Laguntzailea

EUSEBIO ERKIAGA, BERBALAUAREN KULUNKAN

1. Bizitza zertzeladak

Eusebio Erkiaga Alastra Lekeition jaio zan, 1912. urteko irailaren lauan. Aita lekeitiarra izan eban, Esteban Erkiaga jauna. Ama, ostera, natxituarra, Leonarda Alastra andrea. Lekeition jaiotako ume ha, denporaren eta bizitzaren joan-etorrietan euskal idazle trebe bilakatu jakun eta euskararen lanketa oparoa eskaini eban euskal letren eremuan.

Lekeition gizondu zan Erkiaga. Bertako Mertzedarioetan ikasle ibili ondoren, ikasbidetik bere bostean jarraitu eta merkataritzako ikasketak amaitu zituan. 1936. urte hasieran Bilboratu zan, Banco de Vizcaya izeneko banketxean lan egitekotan. Asmotik ekintzara, banketxe berean izan zan bulegari zaharsaritu arte, hain zuzen be, 1977 urte arte, berak ondotxo gogoratu euskunez: "*Bankuan 1936 otsailetik 1977 irailerarte, orduan zahar-saripe jarri ninduen*"[1].

Lekeition eta Bilbon izan zituan, beraz, Erkiaga lekeitiarrak bizitoki eta jardunlekuak. Salbuespen bakarra, gerra bitartekoa. Neguan Bilbon zanak udaldiak emoten zituan jaioterrian, Lekeition bertan, Elizatik gertu-gertu dagoan Erkiagatarren sortetxean. Hantxe be, ume eta gaztaroko adiskideak barriro aurkitu eta seguru asko, gaur egun beraren izena dauan kale labur bezain aldapatsuan aurpegiikuste alaiak berpiztuko ziran harentzat.

---

[1] Erkiaga, E.: «Eusebio Erkiaga-ren emoketa Euskaltzaindiari», liburu honetako 417. orrialdea.

Bilbon be, Indautxu aldean eban egoitza, auzo zeregintsu horren taupadak ber-bertatik igarteko moduan. Ezkonbarritan joan zen hara, Mertxe Telleria Angulo bilbotarragaz esposatu eta gero, 1943. urteko urriaren 11an. Ezkontza-abade, Jose Maria Arizmendiarrieta, Eusebio Erkiagagaz batera *Eguna* egunkariaren ahaleginetan saiatua. Familia barriaren umeak laukotea osatu: Esther, Francisco Jabier, Sara eta Eloisa.

Bizitzaren amaieran, gizakumeak hiltzea zor dauala zalantzarik be ez dago. Hala gertatu jakon Eusebio Erkiagari be, 1993. urteko maiatzaren hogeita hamaikan, laurogei urte zituala.

Datu zehatz eta lehor horreek, horretara emonak, ez leukie gizon baten aparteko biografiarik osatuko, beraren etxekoentzat zein ingurukoentzat izan ezik. Bai, ostera, Erkiagak ondu eban euskalgintzaren ahalak eta leherrak erakusten deuskuezanak, hortxe dagozalako haren zerak desbardin eta ohartuagoak egiten dabezanak.

Izan be, gerra aurrekoa dogu haren lehendabiziko ekina. Noiz edo noiz Augustin Zubikarai ondarrutar idazle leberrari entzun izan deutsagu idazteko ohitura abadeak sortu eutsiela. Abade euskaltzale hareek ekin eta ekin ibili ziran Augustin moduko abadegai gazteak euren burua euskaraz eta idatziz erakutsi egien. Eusebio Erkiagaren kasuan be, lorratza berbera, euskal abertzaletasunak bultzatua[2].

Bada, beraz, 1930 urterako, Erkiagaren lehen agertzea, EDO izenordea erabilita, *Bizkaitarra* aldizkarian. Gero, arrapaladan, *Euzkadi* egunkariaren euskal orrian, Lauaxeta antolatzaile, herrian herriko albisteak. Lekeitiokoak, zehatz-mehatz, Erkiagaren eskutik datoz, 1931-1936 urte bitartean. Lekeitioko idazle gaztearen lumagintzan nabarmen-nabarmena, olerkigintza ez eze, berbalauaren eragina be.

---

[2] MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995. 144. or: "Bai, han ipinten eben «todos los que quieren colaborar, en euskera o en castellano», ta nik, badakizu, nik ba dotrinea, «catequesis», orduan euskeraz ikasi neban, ta hori izan da geure denborakoen aurrerapena-edo, hori eta gero egunekoa etorten zan hori, ba hortik hasi nintzan ni euskera irakurten. Eta *Euzkadi* hartzen eban etxean aitak, *Euzkadi* egunerokoa, partidukoa, eta han euskera ta, han egoan, Kirikiño ta horreek idazten eben ta hantxe irakurrita ba holantxe, beste barik... «se admitirán», eta bialdu neban eta holan agertu zan, baina beste ezer barik. Euskeraz zer edo zer egiteko... ta tema be, zer, ba Sabino Aranaren ba betikoa, nor izan ta gazterik hil zala, ta dana itxi ebala... besterik ez.".

Gerra dala eta, *Eguna* euskarazko egunkarian, lankide. Bertan, besteak beste, Augustin Zubikarai, Jose Maria Arizmendiarrieta eta Manuel Ziarsolo *Abeletxe*.

Abertzaleen porrota ekarri eban guda galtzeak. Euskalgintza be, horren ondorioz, ezereztua, guztiz azpiratua. Ezari-ezarian, erdi izkutuan, buru jasotze apala eta *Urkixo'tar Jul Elkhargo*ra batu, beste batzuekin batera (Krutwig, Arruza, Garro...). Krutwigen asmotan[3] euskara garandu beharra egoan, goi mailako kultur eroale moduan. Ortografiaz eta gaiaz, Erkiaga be kideko[4]. Horren lekuko, hainbat artikulu eta liburu honetan irakurleak lehenbizikoz irakurgai dauan Platon filosofo grekoaren «Parmenides» haxe be[5].

---

[3] KRUTWIG, F.: «Hitzaldi bat eta bere aurre-historia». *Egan* 5-6 (1986), 13,15: "Azkue jauna hilabethe batzu hilaz geroz, edo ta hil baino lehen Bilbon *Bilboko Athêneu Berria* izeneko kultur-elkharte sortzen ari ginen. Hau zelata' neuk' Athêneu hunen barruan bertze personekin *Julio de Urkijo Kultur ikhertzaplanen Institutua* organizatu nuen. Institutu huntan ba zegoen erderazko saila batzu, bainan orduan neuk' *Euskal Philologiaren* Saila batetan pentsatu nuen, eta hunen egiteko orduan Bilbon zegozen euskalzale ezagutuenak bildu nituen, hauietan orduan' Arrutzatar Mikel, Bernardo Garro eta bertze baztu zegozen. (...)

Aita Berriatuak ikhusten zuen problêmatikêa, ez da soilik interim agertzen zaikuna, aitzitik problêma hau oso sakona da, eta euskaldunen analphabêtismoa da. Eta problêma hau ez dugu zentzaraziko orain dano bezala' euskal eskoletan eta «Unibertsitateetan» (Universitateak izan beharrean) kultur nivela oso aphala den bitartean, lerro hauk irazten dudan mementuan den bezala. Problêma hau' aita Berriatuak oso garbiro ikhusten zuen, beraz bere proposamendua utopikoa zen. Dudarik gabe ba zegoen haren atzean aphez aberzale hunen gogo handia, zeinaren arauera' euskarazko litteratura autoreen izen handiez bethe nahi bait zuen...".

[4] MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995. 150. or: "Euskaltzaindiak bildu egitean, hilean behin edo, ba horixe Krutwig, Villasante, Garro, Aita Lino, Gorostiaga be batzutan, neure burua, ta Arruza be bai, hor batzen ginan ba zeozer egiteko; ta orduan Krutwig-en asmoa zan ba «labortano clásico», lapurtera klasikoari indar ematea."

[5] MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren gerraosteko elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995. 154. or: "Hori Zaitegik esan eustan «hori zelan egin dozu, griegotik?», ze griegotik! Nik ez dakit griegorik! Nik erderatik euskeratu neban. Krutwig-ek esan euskun euskeraz klasikoak ipinteko, han Julio Urquijo zeran, filologiak egiteko, baina nik erderatik...".

ZAITEGI, J.: «Platon euskeratzen». *Euskera* XIX (1974). 360.or: "Bada, izan ere, euskalduntzen. Bein Krutwig-ek esan zidanez, Erkiaga-k Platon-en *Parmenide* elkarrizketa euskeraturik zuela. Etorri ta galdetu nion oni: erantzun ezezkoa eman zidan Erkiaga-k. Nola asi eladerarik iakiteke, eratxiki zidan. Azkarate-k burutu zuena egin gogo zukeen Krutwig-ek: ortan eta beste gauza azkotan enintzen gure Krutwig-ekin irizkide gertatu, naiz-eta luzaroan ia egunero elkar ikusi, ta elkarrekin ari izan."

Euskalgintzaren urak gorantza datoz eta Erkiaga itsasgizon dabil. Olerkigintza dau arlorik kutunena aspalditik. Ez, horratio, aldi horretan plazako bertso-libururik. Garai berean, ordea, horren lumakide, ageri-agerian, elebarri mardulak: *Arranegi* (1958), *Batetik Bestera* (1962) eta *Araibar zalduna* (1962), lehen takadan eta hainbat urteko geraldiaren ondoren, erreskadan, *Jaioko dira* (1984), *Txurio Txoria* (1986), eta *Irribarrea galtzen denean* (1987). Bizitzaren azken boladetan, aor olerki liburuak: *Ez zaitez Gernikara joan*, *Lauaxeta* (1989) eta *Gizonaren aldia* (1990).

Artean, makina bat artikulu, saio, itzulpen, ipuin eta antzerki-lan, aldizkarietan barreiatuak edota, sarri askotan, argitaratubakoak. Izenordeak be, eurrez darabilz: lehen aipaturiko *Edo* ha, eta gero *Endaitz*, *Erkiagarre*, *Eusebi* eta bestelakoak.

Ekintzak be, ezin alboan itxi. Hona hemen Erkiaga euskaltzalearen lanak: Euskaltzaindian urgazle (1952) eta oso (1963)[6], euskarazko eskolak[7],

---

Erkiagak Platonen *Parmenide* hori zein testutik euskaratu eban jakiteko, adierazgarriak izan jakuz testuaren oharrak. Horretara jarrita, gure ustez, Erkiagaren erdarazko iturria, hauxe izan zan: PLATON. *Obras Completas. Diálogos polémicos II.* Espasa-Calpe, Madrid, 1927. Gaztelaniazko itzultzailea: Francisco Gallach Palés.

[6] EUSKALTZAINDIA: «Berriak eta gai laburrak». *Euskera* VII (1962). 357. or: "«Euskaltzain berriak» 1963 urtean izendatuak: R.P. Lino Aquesolo.—Carmelo de Begoña.—Bilbao. Eusebio Erkiaga.—García Rivero, 4, 3ºdcha.—Bilbao. Alfonso Irigoyen.—B. Santiago, 21.—Bilbao. Mr. I'abbé Pierre Larzabal.—Curé de Socoa.—Ciboure (B.P.) (France). José María Satrustegui, Pbro.—Valcarlos (Navarra)."

[7] EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1954-IX-24». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982. 40-41. orr: "La representación de Vizcaya da cuenta de que, durante los dos últimos cursos, se han desarrollado en los que la Academia tiene en Bilbao, clases de euskera con asistencia bastante considerable. Aproximándose el comienzo del curso 1954-55 y pareciendo interesante dar más categoría a las mismas y ampliarlas se presenta un proyecto de fundación de la Cátedra "Resurreción María de Azcue", que abarcaría los siguientes estudios. 1º Curso de literatura para euskaldunes. a) Literatura clásica. b) Literatura actual y directrices literarias. c) Consideraciones gramaticales, filológicas y dialectológicas a través de la literatura. 2º Cursos de enseñanza del idioma. Para los que lo conozcan imperfectamente, utilizando como factor principal en el aprendizaje la literatura. 3º Conferencia mensual. Sería muy de desear poder llevar a cabo la celebración de conferencias mensuales sobre algún tema relacionado con el euskera por algún euskaltzain o euskerólogo que se dispusiese a ello. Sería muy interesante hacerlo en euskera sobre cualquier tema humano. El curso comienza el 1.º de octubre y termina el 31 de mayo. Por ahora las personas dispuestas a llevar a cabo el desarrollo de este programa son las siguientes: Don Xabier Peña, Don Eusebio Erquiaga y Don Alfonso Irigoyen.".

jaiak[8], epaimahaitzakoak[9] eta *Euskerazaleak* alkartearen sortzea[10].

SATRÚSTEGUI, J.M.: «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1953-1954)». *Fontes Linguae Vasconum* 78 (1998), 301: "Con motivo de las clases de euskera que durante dos años se habían venido impartiendo en la sede de la Academia se presentó el proyecto de crear la Cátedra "Resurrección María de Azkue" para iniciar las clases a partir de octubre. Los Sres. Xabier Peña, Eusebio Erquiaga y Alfonso Irigoyen se muestran dispuestos a llevar a cabo la iniciativa."

[8] EUSKALTZAINDIA: «Berriak eta gai laburrak». *Euskera* VIII-IX (1963-64). 495-496. orr: "Ondarrun Euskaltzaindiak batzarre agiri bat egin zuen 1964 maiatzaren 7-an Domingo Agirre jaio zala eungarren urtea ospatzeko, Alameda Zinean, publikoa aurrean zala. Alfonso Irigoyen jaunak eman zion asiera itz batzuekin eta ondoren itzaldiak egin zituzten Eusebio Erkiaga, Nemesio Etxaniz eta Anizeto Zugasti jaunak. Ondarrutar novelagille famatuaren inguruan ibilli ziran itz guztiak.

Ondarrun urtearen barrenean gauza gehiago ere egin ziran: itzaldiak, ume euskaldunei sariak partitzea, Bizkaiko bertsolarien azken txapelketa nagusia, teatro eta lore jokoak, Domingo Agirre-n gorazarretan literatura sariak emanaz".

[9] EUSKALTZAINDIA: «Berriak eta gai laburrak». *Euskera* XIII (1968). 321. or: "Juraduak izendatu dira Domingo Agirre novela sarirako eta Gernika sarietarako. Lendabizikoan sartu dira: Arregi, Arrue eta Erkiaga. Bigarrengoan Zubikarai, Labayen, Aresti, Gereño eta Ziarsolo".

[10] ERKIAGA, E.: «Opera Omnia», liburu honetako 77. orrialdea.

ZUBIRI'TAR INAKI'K: «Gure Alkartearen ekintzak». *Zer* 165 (1992), 22: "Neuri etorri yat "EUSKERAZALEAK"en zidarrezko eztegu onetan, gure alkartearen ekintzen aipamena egitea, baiña asi aurretik, zillegi bekit, emendik, gure erakundeari asiera emon eutsoen sortzailleak, nortzuk ziran aipatzea.

1967 urtea zan, eta euskerearen aldeko giroa egokia ez izanik be, euskaltzaleen talde txiki batek, gure izkuntzeari laguntzea erabagi eban, eta arloari ekin eutsan, aurrean ebazan ostopoai jaramonik egin barik. Illabeteak igaro ziran, talde onen asmoak egi biurtu baiño len, eta jo emen, jo ara, aren burutara emon, euskeraren eskubidea baebala edozein izkuntzak lez bizirik irauteko aldarrikatuz, noizbait, euskal erakunde bateri legezko bizierea emotea jaritsi eben. Gaurtik ikusita, arazo onek gaberdiko auntzaren eztula dirudi, baiña orduko eragozpenak ezagutu ebezenak, orduan egindakoa txalogarritzat eukiko dabe zalantza barik.

Ona emen, euskaltzale arein izenak, eta urrezko izkiakaz, izan be, idatzita geratu bediz betirako, gure alkartearen agirietan.

Jose Maria Olaizola; Carlos Gonzalez Etxegarai; Fernando de Zubizarreta; Jesus Atxa; Jose Antonio Montiano; Jose de Ezpeleta; Luis Bengoa; Castor Uriarte; Jesus de Oleaga; Jose Maria Martinez de Retana; Miguel Angel Astiz; Eusebio Erkiaga; Juliana Berojalbiz; Leopoldo Zugaza; Juan Ramon Urkijo; Adrian Zelaia".

Euskerazaleak alkartearen sorrerarako, ikusi *Zer* aldizkariaren 162 zenbakia. Bertako azalean dugu Eusebio Erkiaga mahaikidea, eratze uneko argazkian.

Euskalgintzaren esparruan, egitez, asmo beteko bizitza dogu ERKIAGArena. Horrexegaitik, bizitzaren azken urteetan batez be, eta aurretiazko lanaren ondorioz, omenaldi ugari jaso zituan harek. Aipagarrienak, besteak beste, Labayru Ikastegiarena, Derion bertan egina (1985), edota Lekeitioko herriarena (1988) hango "seme kutuna" izendazioagaz. Berebat Eusko Jaurlaritzaren saria —Euskal Letren Merezimenduzko saria— (1988), *Eguna* egunerokoaren partaide izatearren, Eusko Alderdi Jeltzalearena (1990), Bizkaiko Foru Aldundiarena (1992) eta Euskaltzaindiaren zilarrezko domina (1993).

2. Liburu honen edukia: hautaketa baten zergatiak

Esan dogu, lehen be, Eusebio Erkiagaren biografian badirala, olerki eta elebarrietatik kanpo, bestelako gaiak eta jorraleku ugariak.

Maisu dogu lekeitiarra horretan. Maisu ezezaguna, harenak ez diralako modu egituratu batean zertu, itxura sakabanatu eta isilekoan baino. Edozein kasutan be, barriro gure esku eta begietara ekartzeko modukoak, berbalauaren ondarea guregandu beharko gendukean garaian.

Izan be:

a) Eusebio Erkiagak berak laburtu eta errotzen ditu, argi eta zoli, Bizkaian euskal letrak izan dituen gorabehera eta bilakaerak, azken hirurogei–hirurogeita hamar urteotan. Errepublikaren aurretxoko garaian lanean hasita, lehen uneko sabindar lerrakera bete haretatik gerra denporako *Eguna* egunkariaren bizimodura doa Erkiaga, bost urte laburren epean. Harrezkero be, gerra ondorengo gaurik baltzenean, Erkiagak eutsi eta oratuten deutso euskalgintzari, isilune eta guzti. Bizkaieraz zein gipuzkeraz dihardu luma autuetan. Ukaezinak, lehen esan legez, eta ildo beretik be, sasoi bateko ahaleginak, orain-tsu hil jakun Krutwig eta beste batzuekin lapurtar klasikoaren euskalkia literatur euskara nagusi legez ezartzeko. Saio horretan, lehen be esana dogu, bidaide dau Erkiagak idazle andana luzea: beste askoren artean Krutwig bera, Irigoien, Garro, Arruza eta abarrekoak, *Urkixo'tar Jul Elkharrgo*ra batuta. Urteak berrogeita hamargarrenak dira, eta orduantxe birloratzen da Eusebio Erkiagaren literatur dohaina. Luze iraungo dau bere jardunean Erkiagak. Luzeagoa, bistan da, haren itzala, gure artean ikusi dogulako langile eta kezkaburu, aspaldiko eukan ospearen zuhaitzari adar barriak gaineratuz.

b) Eusebio Erkiaga da, bere belaunaldiko beste idazle gehientsuenen antzera, *oro–egilea*, gai askotan aditu eta zaletua. Jorraketa lanetara jarria, haren eskuetan dagoz olerkia, elebarria, ipuinak, kazetaritza, saio laburrak, antzerkia, euskaralogia, itzulpenak (hor be, arlo desbardinak jokoan dituala: legea, medikuntza eta abar)... Guztiak ditu egingarri eta eginkizun Lekeitioko idazle errimeak. Egiten errez asmatzen ditu halakoak. Harenak sailkatzen edo ondo bereizten, ostera, neke–izerdiak sortu ikerle eta arakatzailearentzat.

c) Eusebio Erkiaga bada, bestetik be, mendebaldekotasuna zelanbait hausten dauan idazle bizkaitarra. *Hautsi*, ez *eten*. Badauka Erkiagak, egia esan, bere garaiko beste idazle batzuekin (apartera joan barik, Augustin Zubikarai ondarrutarragaz) halako antza eta itxura, hizkuntzari buruzko zein autuen gaineko idatz–jokamoldeetan. Hala eta guztiz be, horreekin batera, Erkiagak agerian ixten dau bere saminik barrukoena, euskararena, hain zuzen be. Hizkuntza ez eze, hizkera be aintzat hartu gura dau. Halaxe jabilku bera be, Lekeitioko mollan San Pedrok ohi dauanez, kulunka bizian, kilin–kala noiz gertatuko, berezko jakon herri hizkeraren eta dotore ikasitako euskal letradunen tankeraren artean.

Hirutan gauzatu da Erkiagaren jorana. Joran horren purian, joan geintekezan haren lana modu xehetsuago baten bidez garanduten. Gutariko edonork badaki, eta ha ezagutu genduanok areago ondino, Eusebio Erkiagaren betiko larrimina olerkiarena izan zala, eta hortik somatzen dogu, tarteka–marteka bada be, lekeitiarraren berbalauko tolestua eta malgua, ederto islatua hainbat testu luze jatorretan.

Esan beharrik ez dago aurreko horren adierazpiderik zuzenekoenak elebarriak ditugula. Sakon, zabal eta artez ikertu dira Erkiagaren nobelak. Baita euskal literaturgintzan egoki lekutu be, garaiz garai eta aldartez aldarte. Haren olerkigintzaren goi-beheak eta ipiapa gehienak be ikerpean jarri dira aspalditik, gai horretarako eraspen bizia erakutsi dabelako betidanik euskal literaturaren azterlari eta irakasleak[11].

---

[11] AKESOLO, L.: «Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984. 7-14. orr. ELORDIETA, A.: *Eusebio Erkiaga*: *1932-1935*. EHUko Euskal Filologia saila. Argitaratubakoa,1991. ETXEBARRIA, I.: «Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*. Labayru Ikas-

Horrexegatik hobesten dira, oraingo honetan, Erkiagaren osterantzeko lanak. Ezezagunak jakuzalakoan, eurok begi-bistan haizetu eta harrotu beharrean gagoz, horreek be argi osotan ipinten dabelako Erkiagaren asmo bikoitza, hau da, irakurleagaz batera testuaren komunikagarritasuna bermatu eta, testuan bertan, estetikaren zorretan, berebiziko maila jadetsi eta eskuratu.

Aurretiaz esandakoaren ondorioz, laster konturatuko gara hona alderatzen diran arloekin: antzerkia, euskal literatura, euskararen ingurukoak, itzulpenak, kazetaritza, liburuen hitzaurreak eta aipamenak eta narrazioak. Guztiotan lortuko ditu Erkiagak, bere bizitzaren azken urteotan batez be, inoizko baten klasikotzat hartu ohi doguzan idazleen edu eta dedu horreek. Ez, ostera, musu truk eta lan merkeagaz, ezpada idazletza heldua eta hizkuntzaren menderakuntza erakutsiz.

Jakina da Eusebio Erkiagak badituala horretarako oinarri sendoak. Hortxe dagoz, beste behin be, harek euskararen baliabideen gainean eukazan ezaupide sakona eta urte askotako lana. Horreek aldean dituala, emoitzak be gorestekoak dira, ederto paperatzen ditualako Erkiagak Euskal Herriko mendebalde inguruan baliagarri izan dakikegun euskara azpiestandar baten formulazioa eta gorpuzketa[12].

Formulazio eta gorpuzketa horreek, halan be, plazaratze lana behar dabe euskal arlo desbardinetan. Horren ariora, Erkiagak Euskaltzaindiaren arauak betetzen ditu (bere belaunaldi eta pentsamolde bereko gehientsuenen kontra) eta euskararen batasunak erakunde ha urratzen dauanean, barruan jarraitzen dau hil arte.

Lexikoa[13] eta joskera[14] ditu begiz jotakoak eta jagon beharrekoak. Lexikoari baino, joskerari deritxa eginbehar premiatsuagoa lekeitiarrak.

---

tegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986. 7-20. orr. KORTAZAR, J.: *Eusebio Erkiaga*. Bidegileak bilduma. Eusko Jaurlaritzako Kultur saila, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1997. MEABE, M. A.: «Eusebio Erkiagaren nobela». *Karmel* 3 (1993), 75-97. MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren Gerraosteko Elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995. SARRIUGARTE, I.: «Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Arranegi*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1993. 7-26. orr.

[12] MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren Gerraosteko Elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995, 37. orrialdea eta jarraipena. Orobat, liburu honetako 47-48. orrialdeak.

[13] Ibidem.

[14] Ikusi testu honetako 47. orrialdea.

Soka horretatik ten egin eta berehalakoan jatorku, zintzilik eta galdezka, aldiotan eguneango ogia dogun euskararen kalitatearena. Auzi galanta, edozelan be. Kalitatea ez ei da hizkuntz zuzentasunean agortzen, hizkuntzaren egokitasunera be zabaltzen dalako. Horrek, hizkuntzaren erregistro eta mailak bereiztu behar ditu, eta testuinguru bakotxean zer dan erabilgarria eta zer ez, egoki zehaztu.

Horra hor, aurreko horren erakusle, guztiontzako ereduak. Mota askotakoak baina, nagusi-nagusiak, idazleak eta ez beti mendebaldeko euskaldunak. Sarritan, teoria lar eta praktika gitxi. Erkiagaren testuak, inon be ez ageri, liburu-dendetan eta egunkarietan erruz eta eztitan begitaratzen jakuzan antologia deduzko eta ohoregarri horreetan.

Ez etsi. Erkiaga, lehen esan legez, *oro-egile* genduan eta, euskarari jagokonez, goi mailakoa, izan be. Horigaitik, ziur asko, baztertua eta ahaztua ikusiko dogu eredu itxurako horreetan, maizegi suertatzen dalako eredugintza horretan diharduena bere kautan dabilela, hur-hurrekoak eta ezagunak jakozanak soil-soilean aintzat hartuta.

Gurean, beraz, argi dago helburua: Erkiagaren emoitza ahalik eta osoen eskaini eta haren burutazio eta gogo sorkuntzak azaldu. Gure honetan idazlea dugu begiko eta xedeko, jakina; askoz jomugagoa, ordea, idazle horrek barruan daroan euskaltzale gihartsua, dala gerra aurreko euskalgintza abertzalean, dala gerra osteko urte hurrenkera ilunetan. Berba batez esateko, puntarengo euskaltzale baten bizitza eta kultura bilakaera, beti be, euskararen zerbitzuko eta morroi.

3. Eusebio Erkiagaren langintza arloz arlo.

Eztabaidapekoa izan daiteke Erkiagaren lana sailkatzeko erabili dogun erizpidea. Danez be, berrehun eta hogeita hamasei atal ekarri ditugu honetara, inoiz Karmelo Etxenagusiak ahoz edo Iñaki Sarriugartek idatziz azaldu dabena aintzat hartua[15]. Asmo berberekoak

---

[15] ETXENAGUSIA, K.: *Eusebio Erkiaga idazleari Bizkaiko Foru Ahaldundiak egindako omenaldian berbaldia*. Argitaratubakoa. Bilbo, 1992, maiatzak 22. "Eta eskari ori gitxi dala, beste au be egingo neuke, amaitzeko: Zuk egindako azterlan eta itzaldi ederrak be aldizkarierako batu eta batean argitaratu daitezela, gure euskal kulturako gizon andiak obeto ezagutu al daiguzan: Azkue aitasemeak, Etxeita, Basabe, Mikel Arruza, Augustin Zubikarai, Tomas Agirre "Barrensoro" ta beste batzuk."

ginan geu be aspalditik, hau da, Erkiagarenak, olerki nahiz elebarriak kenduta be, plazaratzea merezi ebala.

Zazpi arlo nagusi, horretara, lekeitiarraren zergintzan. Lehena, antzerkia; hurrena, euskal literaturaren txokoa, berak gogokoen zituan idazleei lotuta; geroago, euskararen inguruko testuak —gramatika, soziolinguistika,...—; horren ostean, liburuen hitzaurreak eta batez be, kazetaritza, gerra aurrekoa eta ondorengoa, errepublika garaikoari men bereizia eginez, hainbat lekeitiarrentzat guztiz gozagarria izango dalakoan. Azkenean be, liburuen kronika eta erreseinak eta ipuinak eta narrazioak.

Erkiagaren berbalaua, horrenbestez, emona eta azaldua, haren elebarriak salbu. Horreen xehetasunak, dana dala, jarraikoak, banan-banan ekarriak eta arlo bakotxari jagokona albait zehatzen eratuak.

Paperatze honetan ardatz bi izan ditugu erabakigarri esparruaren mugak zedarriztatzeko. Gaiarena lehendabizikoa; argitaratze-datarena, segidakoa. Horreen bidez irakurleak jakin leike, Erkiagarena dala argitaratzen dana eta, harek zer, noiz eta zein arlotatik idatzi eban, modurik errazen eta eskuragarrienean eskainia.

Era berean, baditu irakurleak, liburuaren atzeko aldean, osterantzeko aurkibide bi, dataren eta alfabetoaren arabera eginak, batetik zein bestetik ibiltzeko liburuan zehar.

3.1. Antzerkia

Hauxe litzateke, beharbada, lekeitiarraren esparrurik ezezagunena. Argitaratu be, gitxitan baino egin ez dana eta beste arlotan legez,

---

SARRIUGARTE, I.: «Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Arranegi*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1993. 12. or. "«Kalekoa», «Edo», «Eusebi», «Endaitz», «Erkiagarre», ezizenez izenpeturik, dozenaka artikulu eta idatzi daukaz Erkiagak argitalpen desbardinetan. Guk, halare, Erkiagak egindako hitzaldi eta saiakera-kutsuko artikuluak azpimarratu gura gendukez, lanak euskal idazle edo kultur eragile zenbaiten inguruko informazio txit interesgarria eskeintzen deuskue-eta. Lanotan, Azkuetar aita-semeak, Txomin Agirre, Kirikiño, J.M. Etxeita, Fermin Irigaray, Orixe eta abarri buruzko zertzelada eta eritxi ugari bezain interesgarriak aurkituko ditu eurotara hurreratzen danak. Materiale honegaz edizio modukotxu bat atara ezkero mesede polita egingo geunskio euskal literaturaz arduratuta dabilen euskaldunari."

sekulako jarraitutasuna erakusten dauana. Hasiera dau gerra aurrean, Donostian "Antzerti eguna" zalakoan saritu eutsien *Antzerti yayan izan naiz...* (1936) lanagaz. Bakar-hizketa dogu horren eitea eta tankera. Gero be, *Askatasun bidian* (1933) eraspen abertzaleko teatroa, propaganda politikokoa, *Euzkadi* egunkarian agertu ebana eta aldi haretan Eusko Alderdi Jeltzalearen batzokietan bizirik egoan zabalkunde antzerkiaren erakusle bikaina.[16]

Gerraren etenak egundoko kolpea emon eutsan Erkiagari. Iskilualdiaren ondoko teatro lanak aspaldiko errekatik datoz. Hasiera be, Ipar Euskal Herritik dakargu, hango Mayi Elissagarai (1894-1983) lapurtar anderearen antzerki lan arina bizkaieratu dauala, *Nire Senargeia* (1957). Bestela be, eta garaikoari makur eginez, ohiturazko gaiak, erlijioa eta abar ezagun-ezagunak dira orduko emoitzetan, kasurako *Sinisgogorra*[17] (1952), *Kaia ta Estalpea* (1954) eta *Kanpaien atsekabez* (1960) tituluetan. Erpina, menturaz, Arrasateko norgehiagokoan saritu eutsien *Sinisgogorra* lana izan daiteke, Loramendi olerkariaren omenezko urteurrenean. *Kanpaien atsekabez* izenekoan, baserri eta artzaintza giroko lana, maitemina nabari, lirismoa nonahi. Hor dago betiko Erkiaga, olerkari kutsukoa. Laster baten gizarte auzirako zantzuak igarten jakoz. Horren aurkezle, *Pake eguna* (1956) teatro-lana. Lekeitiarrak ez dau alboratzen, dana dala, antzerkiaren eta musikaren uztarketa, eta euskal letra emoten deusku *Oinazez* (1960) zartzuelan. Esan barik doa, Lekeitioko berbetaren bidezko antzerki arinak be era-erara dituala: *Amandarrikuak* eta *Erriko izarra* (1960). Azkenetariko lan batek, hain zuzen, *Gau batean* dalakoak (1970) Euskal Herriak data horreetan bizi dauan egoera politiko barria erakusten dau. Irri-jolasak diranak be, ez gitxi: *Alkarrizketa kaixkarra* eta *Nori, zeri, zeineri* eta komedia arina *Tarot argi, Tarot ilun* (1985), testu bera batuaz eta bizkaieraz landua.

Egitura klasikodun antzerkia, tankera zuzenekoa, lirismo ikutukoa, garaian garaikoa eta zilegi esatea bada be, maila gorenekoa

---

16 Gerra aurrean Lekeitioko antzerki abertzaleak izan eban eraginaz, berenberegi: LAKA, A. eta GOIOGANA, I.: «Kultur eta politika ekintzak». *Lekeition Euskal abertzaletasuna.* Sabino Arana Kultur Elkargoa, 1998. 29.or.

17 Liburu honetara ekarria jatorrizko testuaz zein argitaraturiko zatiaren moldeaz. Badago batetik besterako egokitzapen nabarmenik hizkuntzaren aldetik.

alkarrizketetan. Azpimarratzekoa, edozelan be, Lekeitioko berbeta bizia, *Amandarrikuak* horretan egoki zertua eta moldatua, *Arranegi* nobelaren iturri berberetik ekarria.

3.2. Boletín Informativo del Banco de Vizcaya (BIBV)

Horixe dogu, Eusebio Erkiagaren langintza luzean, bere eskukorik berezkoena eta zoliena. Horren jatorria be, berak ondo azaltzen dauanez, "Banco de Vizcaya" banketxeak kanpoan ziran euskaldunei bertako barriak bialdu beharra, horreen ezaupide zabala izan egien[18]. Tamalez, Boletin horrek ez eban segidarik izan eta ale guztiak nekez batu ahal zituan berak be. Bestalde, Eusebio Erkiagaren kazetaritza ohiturari jarraituz, hainbat eta hainbat lan sinatu barik datoz bertan eta haren lumarenak dirala sumatu arren, ez dogu horren frogarik. Horrexegatik aukeratu ditugu arlo honetan, soil-soilean, haren sinadura dabenak.

Hamaikatxo lan egin eban harek Boletin horretan, 1964tik 1970ra. Berak be, horren jakitun, Boletin horren sorta emokeran, barru-barruko autortza egiten dau[19]. Estu-estu baebilan be, Boletinak beti lehentasuna. Herri kronikak, artikuluak, alkarrizketak, danak ziran haren egitekoak. Hizkuntzaz euskara ia-ia bakarra eta nagusia, azken zenbakietan ingelesezko artikulua sartu bazan be. Gogoan hartzekoa, laguntzaileen artean, harako Santos Rekalde euskal abadea eta Ameriketako euskaldunei buruzko nobela baten egi-

---

[18] Boletin horren oihartzuna, edozelan be, autortua euskal idazleen aldetik: IBIÑAGABEITIA, A: *Erbestetik barne-minez gutunak 1935-1967*. Susa, Iruñea, 2000. 311. or: "Txintxo bidaltzen didate Bancayatik Idahokoentzat argitaratzen duten *Boletina*. Dagoeneko 14. zenbakira iritxi dira. Egia esan, oso atsegina aurkitzen dut aldizkaritxo ori, errietako berriz gainezka etortzen delako, eta urrutietan bizi geranontzat beti ere atsegin izaten zaigu gure zokoetako berriak jakitea. Bertan ikusten ditut hainbeste berri jakingarri zueneko *Zeruko Argia*n arkitzen ez ditudanak. Euskera errex eta garbia erabat ekartzen du aipatu aldizkariak. Nik uste, Erkiagaren zuzendaritzapean edo arkitzen dela. Nik pozik eta gustora irakurtzen dut."

[19] ERKIAGA, E: «Eusebio Erkiaga-ren emoketa Euskaltzaindiari», liburu honetako 417. orrialdea: "Agerturiko lanik gehienak, euskerara itzuli edo orrazketak egin edo zeharo idatzi, neuk egin nebazan, eta honelan aldizkari honek, bizkai euskalkian halako batasun antzekoa izan egian."

lea[20]. Azpimarratzekoa, testugintza horretan, liburu barruan irakurleak goza leikean Peter Etxebarria iparramerikako politiko euskaldunari egindako galdeketa, ha Bizkaira etorri zanean. Oraintsu hil da, bada, Peter Etxebarria hori. Halaber, Koldo Mitxelenaren bitartez ezagutu eban frantses filologo autortuari egin eutsana. Minard filologia irakasle frantziarra zan ha, Mendexako Kurlutxun udako egoiliarra izaten zana.

3.3. Euskal Literatura

Inon bada grinatsu Erkiaga, euskara eta literatura esparruan da. Lehenari jagokona geroago azalduko dogu. Euskal literaturaren alorrean, ordea, hur-hurrekoak eta apartekoagoak ditu Erkiagak erakusgarri. Alferrik ibiliko gara, dana dala, Erkiagaren baitan Euskal Literaturaren historia orokorra bilatzen. Bai, ostera, tarte preziatuak, autorerik autore garoezanak euskal letretan zehar. Bizkaitarren artean, Azkuetarrak eta Kandido Basabe lekeitiar herrikideak gogokoenak, Arruza edo Etxeita ahaztu barik; kanpokoetan, batez be, Irigarai *Larreko* nafarra, Erkiagaren aspaldiko adiskidea. Artean, Bizente Amezaga, Orixe eta berak gaztetatik ezagutu eban Juan Bautista Eguzkitza lemoarra, urtetan Lekeition abade izan zana.

Eratuta dago hor, Erkiaga katebegia dala, Bizkaiko eta Lekeitioko euskalgintzan sekulako pisua izango dauan kate luzea, Lekeition bertan sortu eta umotua. Kandido Basabe jesuita lekeitiarra, Azkuetarrak (Eusebio eta Resurreccion) eta Eguzkitza. Horreen antzera, Erkiaga be euskalgintzari emona.

---

20 Etxenagusia, K.: *Eusebio Erkiaga idazleari Bizkaiko Foru Ahaldundiak egindako omenaldian berbaldia*. Argitaratubakoa. Bilbo, 1992, maiatzak 22. 3. or.: "Gai arruntez beteriko aldizkari orrek (errietako eguneroko barriak eta, batez be kirolak dira nausi) Erkiagaren euskera txukuna munduko bazter askotara zabaldu eban, hainbeste euskaldun erbestekoren pozerako. Aal danik eta argien, errezen egiten aleginduko jaku, baiña sekula santan euskeraren jatortasunari kalterik egin barik. Eta aldizkari orretan lankide zintzo izan zan Santos Rekalde orrek be euskeraz argitaratu euskun bere nobela bakarra, *DEUNOR*, Ameriketako artzain euskaldunen ganean euskera utsean egin dan bakarra. Egilleak berak autortu eustan, orain dala amabosten bat egun, bera orain bizi dan Granadan, Erkiagak emon eutsala azken orrazketa arin bat bere nobela bitxi orri!".

Ez da horretan agortzen, ezta hurrik emon be, Eusebio Erkiagaren euskal literaturzaletasuna. Kazetaritza arloan nabarmenduko dogunez, Erkiagak laster ondu eban orduko euskal idazleen ezaupidea eta Lizardiren arnasa, berak gipuzkoarra buruz buru ezagutu ez arren, agerian izango dau.[21]

Esan legez, Azkuetarrak eta Basabe herrikideak zituan, Eguzkitza be lekeitiar biztanle eta Arruza Bilbon alkarregaz ibilia. Urruntxuagokoa jako Etxeita, horregaz elebarrigintza eta itsaszaletasuna erkide izan arren.

Autoreak autore, irakurleak errepaso ederra emon dagikeo, Erkiaga gidaria dauala, XIX-XX mende bitarteko Bizkaiko euskalgintzari. Besterik esanda: horra hor, labur-zurrean, orain arte barreiatuta egon dana eta orain liburu-idegi soil batez, euskal irakurleak baturik eta eskuko dauana.

3.4. Euskararen inguruan

Eusebio Erkiagaren arrangura nagusienetarikoa euskara izan zan. Ha eban idazlumaren arima, haxe be mezuaren eroale eta azalgina. Kezka bizi horrek ekarri eban, goiz-goizetik, haren euskal artikulugintzan euskararen babesa oinarri izatea. Babes hori abiapuntutzat hartu eta Eusebio Erkiagaren lanak erakusten deusku euskalgintzaren inguruko bilakaera. Gerra ondoan hasi eta demokrazia giro barria etorri arte jardun eban Erkiagak euskalgintzan.

Ibiltaun erakusten dau bere burua lekeitiarrak. Ibilbide luzekoa, behinik behin. Euskararen ardura be, ez bazterrean itxita. Gerra osteko giro mingotsean, euskarak nondik salbatu eta goi mailakoari oratu eutsien *Urkixo'tar Jul Elkhargo*koak. Aurretiaz esan legez, asmoa eben horreek goi kultura euskaraz lantzea, zabalkunde eragingarria izango ebalakoan pentsamolde horrek euskararen bizimoduan. Krutwig, Arruza eta beste batzuk batu ziran ekimen horretara. Erkiaga be, ez aparte[22]. Xedea hartu eben eleder eta goi mailako sailak euskaraz lan-

---

[21] ENDAITZ: «Karraxika, ota-lore», liburu honetako 941. orrialdea: "Yo zian usai arek goiaren urdiña; geroztik miazkatzen dut utsunaren samiña, iñoan geroxe «Orixe» adizkide maite eta idazle gailenak. Alabearrez, euzko olerkariok, alkarrenganik sakabanatuak gaituzu, oraingoz."

[22] SUDUPE, P.: «Belaunaldi tirabirak 50eko hamarkadan». *Egan* LIV (2001-1/2), 19-38. orr.

tzekoa. Egitekoa gauzatzeko, lapurtar klasikoa aukeratu eben eredutzat, euskara bera euskararen bidez jorratzeko.

Horren erakusgarri, alor honetako jarraikoak: *Euskeraren hel--oihua* eta *Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal.* Aspaldiko etimologiazaleei sekulako jipoia emoten eutsiela, lekeitiarrak eskatu eban egun barra-barra aldarrikatzen dana, hau da, euskara nornahik eta noranahi zabaltzea.

Bada, halan be, denporaren haratonata horretan, Erkiagaren pentsamoldean uste bestelakorik. Eta nonbait jarri behar izango bagendu mugarria, guk geuk behintzat bi lekutan jarriko genduke zedarria. Lehena, aita Villasanteri egin eutsan kritikan, Altuberen inguruko artikuluan —*Requiem Altuberen Arauei*— (1975) eta bigarrena, hain zuzen be, Lekuona zaharraren omenaldi libururako mamitu eban testuan —*Anaforikoak aldez edo moldez*— (1977).

Lehenari leporatu eutsan Altuberen arau nagusia haustea, egun zahartuta emon leikean pentsamendu mota bati eutsita. Egia da ur handiak joanak dirala horren ondorik euskal joskeraren lorratzetik; edozelan be, zail samarra izango jako edonori Eusebio Erkiagarena bezalako esku trebea aurkitzea, euskal joskera zuzen eta erraz erabiltzen, Altuberen legeak bete-betean asmatuta.

Askoz gaurtarragoa emoten dau bigarren horrek, hau da, anaforikoenak. Eusebio Erkiagak somatu egiten dau euskararen aro berria, badaki euskara noranahikoa izango dalako kontua eta gertu-gertutik bizi ditu hainbat euskaltzalek harrezkero pairatu dabezan oztopoak: gain-gaineko premiak, bat-bateko erantzun beharrak, baliabide ezak, eredu faltak... urtenbidea, berak hala dinosku, ezin kanpotik ekarri, euskararen ber-bertatik baino. Horrexegatik egiten dau deiadar ozena euskal gaiztoaren aurka, euskarari berezko jakon estetika horretan sakon murgildu dagian bere burua euskaltzaleak. Ogibidezko euskaltzaleei egiten deutse dei, euskararen etorkizuna hipotekaturik geratu ez daiten arinkeriaren izenean.

3.5. Hitzaurreak

Bada Bizkaian, aita Lino Akesoloren *Atx-osterik Atx-ostera*[23]

---

[23] Akesolo, L.: «Atx-osterik Atx-ostera». *Atalak*, Itxaropena, Zarautz, 1967. 15-25. orr.

sonatu haren ostean, berbaurreko azpimarragarririk. Idazte mota horretan, hirutan ibilia dogu Erkiaga eta hirurotan be, aintzat hartzekoa. Bitaño idazle bizkaitarraren lehen *Atalak* eta Okamika mediku lekeitiarraren Lekeitioko historia, horren adierazgarri; bestetik be, Eusebio bera, gerra denporan eta beste batzuekin batera ondu eban harako egunkari euskaldunaren —*Eguna*— berrargitalpena zala eta, aurkezle zoli eta errimea.

3.6. Itzulpenak

Oro-jakile dan norbait atxikitzea ez da gehiegitan gertatzen mundu honetan. Arloz-arloko ibiltzea saihestezina da eta horren antzera be, batzuen eta besteen egitadak ezezagunak eta izkutukoak, zientzia eta ekintza arlo bakotxaren barruan ez dagozanentzat. Ezagutza sakona, beraz, arlo bakotxarena, arlo horretan zer barruratu eta hori tajuz euskaratu ahal izateko. Horrelakoei bildurrik ez deutsiela argi darakus Erkiagak. *Platon*en lana zelan itzuli eban berak autortu arren[24], bi arlo desbardin dira nagusi honen ekintzetan, medikuntza eta lege arloa. Lehenaren erakusle, urtetan gauzatu zituan Bilboko Academia de Ciencias Médicas agerkariaren testu-laburpenak[25], euskaraz emonak.

Lege arlokoan, Makua jaunak, Bizkaiko Foru Aldundiaren Diputatu Nagusiak bultzatu eban Erkiaga Bizkaiko Batzar Nagusien testuak euskaratzeko. Bide beretik egin eban Euskal Kontzertu Ekonomikoaren euskal testua, Erkiagaren berbetan *egin dauan lanik gatxena*[26].

3.7. Kazetaritza

Gerra aurreko euskal idazleek jorratzen eben lehen saila kazetaritza zan. Areago, *Euzkadi* egunkariko euskal orriak lekukotza ede-

---

[24] ERKIAGA, E.: «Opera omnia», liburu honetako 77. orrialdea: "1950: Platon-en «Parmenides» gaztelaniatik euskeratuta. Lan aldendua." Ikusi 7. oharra.

[25] URRUTIA, A.: «Eusebio Erkiaga, medikuntza arloko itzultzaile: zain tiratu, zain urratu, zaina bere lekuan sartu (I)». *Karmel* 2 (1997), 3-37.

[26] ERKIAGA, E.: «Opera omnia». Liburu honetako 79. orrialdea.

URRUTIA, A.: «Eskribautzaren hiztegi ttipia, Eusebio Erkiagaren eskutik». *Karmel* 1 (2001), 31-49.

rra emon eban, bai ordurako idazle peto-petoak ziranena eta baita, gerora, halakoxeak izango ziranena be. Azken horreen artean Erkiaga, Lekeitioko barriak Bilbora bialdu eta Lauaxetaren eskuetan jarri, honek agertu egiazan *Euzkadi*n. 1930. urtean *Bizkaitarra* aldizkarian hasitako lanak segida ederra izan eban, 1931 urtetik aurrera eta jarraikako urteetan be, *Euzkadi* egunkarian. 1936-1937 urteotan, barriz, euskara hutsezko *Eguna* euskal egunkariaren zutabe dogu Erkiaga, Arizmendiarrieta, Zubikarai eta beste hainbatekin.

Hasiera-hasieratik igarri eutsan Lauaxetak lekeitiarrari esku trebea eta idazkerarako dohaina. Hain zuzen be, honetara idatzi eban, oin-ohar baten bidez, Erkiaga hasibarria zala idazle kontuetan: "*Uarra.— Idazle argi onek lanak, abintza andikuak dira, gastetxu bat da oindikarren eta. Irakurliak esango dau geruago.—L.*"[27].

Berebiziko aurrerakuntza erakusten dau Erkiagaren lanak urte gitxiren barruan. Aise eta erraz doa herriko kronika hutsetik sentimentuz beteriko pasarteetara. Esan daiteke geroko idazleak be hortxe dituala bere lehen esku-erakutsiak. 1936-1937 bitartean, aurreratu dogunez, bete-betean jabilku lekeitiarra prosaz zein olerkiaz. Zoritxarraren zitalak, gerraz jantzita, erro-errotik ebagi eutsozan abaguneak eta aukerak.

Abaguneak eta aukerak dinogu, baina ez adorea, gerra ondorengo *Ixilaldi alper* haretan be[28], berak hala esanda, ekin eta ekin jarraitu ebalako Erkiagak euskararen deman.

Orduko kazetaritzak, halandabe, ez deutso zirrikiturik eskaintzen beraren burua euskaraz erakusteko. Erbestean, *Gernika* eta *Euzko Gogoa* dira euskal aldizkari gailenenak eta ia-ia bakarrak. Hara doaz Erkiagaren lanak[29]. Gero, ezari-ezarian eta orpoz-orpo, Euskal Herriaren barruan be, halako berbiztaldi apala, kuku mugatutxoa eta *Egan*, *Karmel*, *Zeruko Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan ditugu horren adierazbideak, berrogeita hamar, hirurogei eta hirurogeita hamarreko urteetan.

Hamarkadaz hamarkada datoz Erkiagaren lanak eta laurogeietan Eusebio Erkiaga zaharsaritua Bilbon eta Lekeition bizi da aldika. Bilboko eta Lekeitioko udal aldizkariak hartuko dabez haren lan gozotsu eta arinak.

---

[27] ENDAITZ: «Izki-mizki», liburu honetako 804. orrialdea.

[28] ERKIAGA, E.: «Opera Omnia», liburu honetako 77. orrialdea.

[29] IZTUETA, P.: *Erbesteko euskal pentsamendua*, Utriusque Vasconiae, Donostia, 2001, 124, 229. orr. eta jarraikoak.

Norbaitek galdetu leike ea Eusebio Erkiagak erdaraz idatzi ete eban. Bi aztarna aurkitu doguz horren errekaztotik. Bi-biak, jakina, kazetaritza eredukoak eta lekeitiarren ingurukoak (Resurrecion M. Azkue, Zapirain eta Eusebio M. Azkue). Adibide bakarrak eta bakartuak, Eusebio Erkiagaren langintzan ildo jarraitu baten itxaropena idoroten ez dabenak.

3.8. Liburuen kronikak

Liburu honen aurkibidea hartuta, badirudi Eusebio Erkiagaren literatur kritika edo erreseinak berantiar samarrak dirala. Izan be, beluko izate horrek ez deusku ostendu behar Eusebiok behin baino gehiagotan gogorazoten deuskuna, hau da, euskal idazleen irakurle asperrezina izan zala bizitza osoan. Adinez aurreraturik ezagutu ei ebazan Axular[29] eta Aita Kandido Basabe[30].

Gazteagorik be, Agirre ondarrutarra eta Lizardi zarauztarra. Euskal idazleen batzarretan be sarritan ibilia dogu. Garramura eta sua baditu, beraz, Erkiagaren literatur zaletasunak. Horreei bidea erraztu eutsien *Idatz* & *Mintz* literatur aldizkariak eta horren gerizpean eta arrimuan, ditxolari oso, Erkiaga, autore ezagunen eta ezezagunen argitalpenak eta berrargitalpenak azaltzen, iradokizun zehatz, albiste jakingarri eta ohar baliotsuekin.

---

[29] MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren Gerraosteko Elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995, 146. or: "Gero, saltoka eginez, ez dakit zenbat urte, ba berrogeita... orduan ezagutu neban Axular. Axular nik ez nekian zer zan edo nor zan, ta Krutwig-ek, Federico Krutwig, harek itxi liburua berrogeita hamarrean edo, eta orduan ezagutu neban Axular, gerraostean izan zan hau. Bata hogeitabi urte ta bestea berrogei urte nituenean.".

[30] E. ERKIAGA: «Aita Kandido Basabe, S.J. euskal-idazlea (1867-1928)», liburu honetako 456. orrialdea: "Orain illabete batzuk, jazoera bakan batek eskuetara euskun aren liburuetatik txikarrena. Axe izan zan guretzat ustekabeko zera! Mundu traskil onetan, gure erruz edota besteren griñaz, ara ta ona sakabanaturik, euskaldun askori leenaren aria sarri askotan eten egin yaku. «Eleiz-liburutxua» guregandu, ta, euskaltzale lez eta lekeitiar lez, zor andi bat idoro genduan guregan, eta bapatean asmo bat otu yakun: Aita Basabe zenaren gomuteari ta aren euskal-lanen nekearen saritzat, merezi izan dauanaren ordain apur au eskeintzea.".

3.9. Narrazioak

Idazlea, edozelan be, beti idazle, beti sortzaile. Besteen lanez badiharduala be, lantzean behin, zirikalari, norberarena erakusguran, harrokeriaz baino, literaturaren hobe beharrez. Halakoxea dogu Erkiaga. Egile eta eragile, sortzaile eta iradokizun asmatzaile. Egiletza horretan seinalatuak izan dira euskal letretan haren elebarriak. Ez horrenbeste narrazioak edo ipuinak. Eta horretarako harenak batu behar, orrialdeotan egin dogun moduan.

Ezaugarririk ba al dogu ipuin edo narrazio horreetan? Halakorik bilatu nahi izanez gero, hiruzpalau azaleratuko gendukez: lehendaurrekoa, umore fina, narrazioetan nonahi sumatzen dana eta «Untzorritxu» (1990) lan luzetxoan ironia zorrotza bihurtzen dana; hurrengoa, arlo eta literatur mota bestelakoak aldikatzea, herri-girokotik hasita [«Esnedunak» (1936), «Talo ta arraina» (1986), eta abar] abstrakzio maila goragokoetara joateko, amodio («Sonia Liraina» 1965) eta gizarte arazoak («Giltz egokia» 1971) barruan hartu arte. Azkenengoa be, bazterrean itxiezina, narrazio horreetan zirriborratzen diralako, sarri askotan, geroenean elebarri bete-beteak izango ziranak.

4. Erkiagaren pentsamoldea: ezaugarri nagusiak

4.1. Abertzaletasuna gidari

Aukera hori lehendabizikoz jartzeak badau zeresan handia Eusebio Erkiagaren baitan. Izan be, horretan aurkitzen dau Eusebio Erkiagak abiapuntu trinkoa, non eutsi zabal eta sendoa.

Lehen be esana dogu Eusebio Erkiagaren hasierako lana abertzaletasunak eragindako lana dala. Hain zuzen be, gerra aurreko *Bizkaitarra* aldizkarian Sabino Aranari buruz biribildu eban lehen idaztinoaren bidez. Arana gogoan dau. Ederretsi ez eze, goraldu eta jaso be egiten dau maisuarena:

> "dana zan berton erderia, errijetan egozan gixon agindudun gustijak ziran erdeldunak, eta geure euzkera ederrari guda gogorra egiten eutsen. Emenguak be, asi ziran euren (gaztelaren) izkuntzagaz pozik (zoritxarrez gaur be geyenak orretan dagoz, batez be, emakumiak) eta euzkeria, lenengo erdi eta gero ija oso aztu jaken.

[...]

Abertzaliak: jarratu daigun Sabin'ek irakatsi euskun biderik zintzo–zintzo; bera artu daigun eredutzat, eta lan egin daigun gogoz bape gogatu barik; ¡Jel aldez beti! ¡Ekin, bildurtu barik Euzkadi osasunez beterik agertu daiten egun zoriontsu baten…"[31]

Lehena izanda be, ez azkena, horratio, Eusebio Erkiagaren testugintzan. Gerra aurreko giroan mamitu da Erkiagaren abertzaletasuna. Aldi horri zor deutsaz ezaugarri nagusiak. Azaldu eta kanporatu be, halaxe egiten dau lekeitiarrak. Haren testuetan baten bat aukeratu beharrean egonez gero, 1934. urtean *Euzko Gaztedi* dalakoan emondako berbaldia aukeratuko genduke, testu horretara batzen ditualako Erkiagak bere ideiarik pisuzkoenak euskararen inguruan.

Euzkadi egunerokoan argitaratu eban testu hori, 1934. urteko maiatzaren 29 eta 30an eta ekainaren 1ean. Titulua bera, adierazkorra, hurrean be, lerroetan zehar horrek eskaini behar euskunarena: *Euzkerea, euzkoen elia.* Handik gurera zer alderatu eta hona hemen gure kontua:

"Izkuntza galdu–orde–gogua, alegija–iadetsiriko azkatasuna, garestijegija ez ete? ("Irular"). Ixan be; iñoren goguaz, arrotz–goguaz ¿zetarako azkatasuna?

Eztaigun aztu; abertzale ixatia oñaziak–oñaze jasatia da. Maitasuna da; buru–eskaña, lorra, nekia, egunoroko lan asperbagia. Abertzaletasuna ezta barriketia, ezta nagikerija."[32]

Pentsalmolde bereko jarraitu eban Erkiagak bere bizitza guztian, eta halakoxe be hil zan. Horrek ez eban baztertu, zorionez, euskara ahalik eta tankera sustartsuen eta zentzuzkoenagaz lan egitetik, ganorabako eritxikerietan jausi barik.

4.2. Euskaltzale nabarmena

Ideologiaren tengadaz, eta abertzaletasunaren hegalpean, badoa Erkiaga euskararengana. Euskara dau helmuga, euskal nortasunaren oinarria. Ez edozelako euskara, edozertarako euskara baino.

---

[31] Erkiaga, E.: «Oroipenez», liburu honetako 784. orrialdea.

[32] Erkiaga, E.: «Euzkerea, euzkoen elia», liburu honetako 883-884. orrialdeak.

Gerra aurreko Erkiaga sutsuari entzun deutsagu Sabino Aranaren egina goraltzea eta, bide beretik be, euskarak aberriaren birrosaketan euki behar dauan egitekoa miatu eta zehaztea. Sutsu jarraitu arren, gerra osteko Erkiaga baratzago ikusten dogu euskararen gintzan. Aurrean dauka ezinbestekoa, gizarte egoera aldrebesa eta euskararentzako soka latz itogarria.

Horren ardura lehena euskararena da. Euskara zinez landu beharrarena. Etimologiakeriak bazter itxi, teorizazio larregizkoak kareletik bota eta hizkuntza egunerokotasunik egunerokotasunenean ikusi nahi dau Erkiagak, ondotxo dakialako bihurtze gaitz horretan dagoala haren salbamendua:

> "Unerik larrienen dugu gure mintzaira, euskaldunok, eta ezta aski ahalegin theorizkoetan aritzea. Erabiltzeke, eztugu euskara aintzen ahal, eta gauk landu ezik, bertzek egingo eztu."[33]

Hortik jabilku Erkiaga. Bidaide ditu gerra osteko boladetan, eta lehen esan legez, Krutwig eta abarrekoak, berak hala autortua:

> "Horixe dugu bide bakhar, Krutwig jaunak adiarazi duenez berriki, lehen bertze batzuek errana: "euskara kultur hizkuntza bihur dezagun; aitzitik, laster hilen da".[34]

Erkiagak, edozelan be, pekataritzat hartzen dau bere burua, hurhurretik igarten daualako bat-bateko aldakuntzak ez jakozala komeni estu eta larri bizi dan euskara moduko hizkuntza bati:

> "Bertze okherdura handirik ere ukhan dugu: hizkuntza, bustina bai litzen eskuetan hartu dugu, eta bakhoitzaren nahimen–ariz taiutu eta moldatu gura izan dugu; erabaterako neologismu egarria, aditzak ere batbatean berrizkatu beharra, goizetik gauerako garbikeria kaltegarria, euskalkitargo gordinegia, eta syntaxis edo ioskerari buruzko arhinkeria ta axolarik eza. Lehenari irau–azi

---

[33] ERKIAGA, E.: «Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal», liburu honetako 636. orrialdea.

[34] ERKIAGA, E.: «Euskararen hel–oihua», liburu honetako 634. orrialdea.

> orde, berrikeria minak iorik ibiltzea. Eta gai huntan "Ni bekhataria" erran beharrik eztuena, zorioneko bedi..."[35]

Behar dau, premiazko deritxa lekeitiarrak noranahiko euskarari. Hainbat arlo jorratzeko, hizkera zorroztua behar dau izan euskarak. Zorrozte lana, ezbairik bage, hiru ageriko adar: ortografia, lexikoa eta joskera.

Lehena ortografiarena bada, Eusebio Erkiagarena ohartzeko modukoa dala azpimarratu behar. Bizitzan zehar laupabost ortografia desbardin erabili zituan Erkiagak. Ortografia mota horreek ez zituan, alabaino, batera erabili, idatz-aldia edo idatz-generoa zein dan kontuan hartuta, ezpada modu jarraiko batean, bata bestearen ondotik, garai eta toki bakotxaren eskakizunei men eginda.

Hasierako ortografia sabindarrak bidea egingo deutso, gerra ostean, *Urkixo'tar Jul Elkharrgoa*ren saioari, «h» eta guzti, Iparraldeko usantzara, euskaldun ororentzat baliagarri izan daitekean goi mailako euskara baten peskizan. Badator, halan be, Erkiagaren olatu bitxi hori itsas bazterrera eta baretzen doa, denporaren indarrez, Euskaltzaindiaren Arantzazuko Kongresuak —1968— ekarri eban aldaketaren ostean. Barealdi horretan ibiliko da hortik aurrera, bizitzaren azken hondarrak desagertu arte.

Ortografia hutsa ez da, bestalde be, Eusebioren inkesa bakarra. Inzirika dabil 1953. urtean:

> "Esate baterako, guk orain darabilzkigun letrak euskaldunak ezpaitira, ez othe datorkio gure mintzairari errezpide tipi xumea bederik, erre eta elle gangurdunen ordez, rr eta ll erabiltzetik? Hortik eztugu ezer ez euskarago, ez eta ezago ere. Errazago, bai noski."[36]

Lexikoak eta joskerak dakarre haren kezka. Joskera gaietan, beren-beregikoa dau eginbeharra, gerra aurrean zein ostean.

Euzkadi egunkarian, honetara dihardu guda lehenean (1934):

> "Gaurko euzkel–idazle geyenok erdel–jokeraz kutsutuegijak gagoz. Au esatiaz kontu barririk eztiñogu. Gure euzkel-idazlane-

---

[35] ERKIAGA, E.: «Euskararen hel–oihua», liburu honetako 632. orrialdea.
[36] ERKIAGA, E.: «Iparragirre'kin solasian», liburu honetako 421. orrialdea.

tan geruago ta erdera–sunda aundijago darabilgu. Geuk eztakigula, igarri be egin barik.

Bai ba; erderaz irakurten dogu egunero euzkeraz baño ariago; etxian erderarik entzuten eztogunok juan edonora, ta erderea ugari, parra-parra entzun biar.

Dana dala, okerrena auxe dala uste dogu guk. Erdera–usaña, joskerea, parra-parra erabili idazliok eta euzkera jatorrez, garbiz idazten dogula uste izatia. Ez, ez, ezta ori ondo. Zuurtu gaitezan."[37]

[...]

"EUZKADI'ren euzkel-atal onetako lankide geyenok, larregizko erdel-joskeraz idazten diardugu. Zuurtu gaitezan, idazlekide maitiok, bide ontaz oker, oso oker goaz-ta. Eztaigun idatzi itsumustuan, onetara eginda erdel-lurriñez bai-gabiltz."[38]

Arrazoi berbera gerra ostean be. 1975. urtean, hau da, berrogei urte geroago, bereari eutsi eta ekinean dogu Erkiaga. Horren froga, *Requiem Altuberen arauei* idazkia. Orduko baieztapenak egun be gogoangarriak:

"Behera elementu inkiridua!
—Behera betiko!
—Gramatikeriak duen infernuko ondarrataraiño!!!

Eta Altube maixua zenarekin batean, oni burua argitu ta bidea erakutsi zion Azkue bera ere, galdera–erantzun taxua klarki ikusi ta exponitu zuena ere: ta Txomin Agirre garbizalea, Arrue maisu giputza, Eguskitza purista, «Orixe» urduria, Orkaiztegi gotorra, «Otxolua» estilista euskalduna, Zinkunegi miriku ta orazio subordinatuen masoia, argiña... Oiek zuten kopeta! Altubek dei eta aren aurretik eta ostetik, lege estuok guri, urrengo txorikumeoi ezarteko izan zuten ausardiagatik. Iñorante izugarriak, ainbat eta ainbat izkribatzaillek erabilli ez zuten erreminta ta artu ez zuten bideez barna jardun beharreko izandako gizon garun ttipikook!

Aize berria naro betor gure birietara, askatasuna adimenera, aukeramena egatsetara. Elementu Inkiridu ori zerraldo bilakatu baita, ondarea banatzeko tenorean gagoz. Luma zaharrek luma

[37] ERKIAGA, E.: «Euzkel–gaiz», liburu honetako 905. orrialdea.
[38] ERKIAGA, E.: «Euzkel–idazliak erdeltzale», liburu honetako 908. orrialdea.

bezain arin bihur bitez, pixurik gabe; itzak aiña libro ta airos. Ez da legerik pentsatze–orduan; ez da legerik ez trabarik ordena kontuan ere, idazte–orduan. Laissez faire, lassez passer, le monde va de lui même."[39]

Azaletik baino, sakon aztertu ditu halakoak Erkiagak. Baita Mendebaldeko euskal idazleengan zertu be. Eredugarri ditu batzuk, eta bildur barik dakar argira horreentzat daukan miresmena. Besteak beste, Eguzkitza eta Akesolo.

EGUSKITZA

"Bestalde, itz lauari dagokonez, jatorra, behar bezelako prosa, ur garbiaren iduriko daitekeala. Prosa argia, ulerterreza ez ete zan Eguskitzarena, gero ta areago? Gurean ez zan gaia ekarri eban arlora, gizarte–eztabai ta asmoen agerpen eta burrukak. Izatez, periodista taxuko lanak, artikulu laburrak izan ziran, asteroko aretan agertuak. Gero, barriz, ez aren gogara iñoren esanari amore–emotearren baiño, liburu eran osotuak. Itzaurrekoan dirausku. Langille ta erri arruntarentzat egiñak, baserritarrentzat bereziki, behar bada, artikulo motzok.

Prosa ariña ta erreza da orkoa, gero ta errikoiago; esaldi labur samarrak eta erdalitzak be, iñoiz baiño ugariago. Orrelakoxea izan zeitekean arrezkero aren idaztemodua, jazo zana jazo izan ez balitz. Gerrateak euskal–literaturan egin euskun urratualdi negargarria, besteak beste.

[...]

Frase luze ala labur, saillean, errezto, trabarik bage asi ta amaitu. Ez ekian arek, orduan eta gaur dan egunean nabarmenago, batzuek darabillen ezpan–arteko esturarik eta totel–motelik; makulu bitartez mintzamodu aspergarri ta berbartuan diarduenen antzik, ez eban, ez, Eguskitzak.

Aditz–sintetiku–zale ba zan, baiña urri erabilli ohi eban, eta formarik arruntenak, gehienbat. Anaforikurik ez eban astindu. Berbetan ez eban behar izan; idazte–orduan, buruak emon be ez. Ohitura kontua da. Usaten ez dauanak, premiñarik be ez. Geurez be, ba dakigu ori.

Radikalizatua ete zan don Juan? Orrelan balitz, 80 urte lehenago modan egona dogu, orrezkero; ajornamentuz. Kontamiñazi-

[39] ERKIAGA, E.: «Requiem Altuberen arauei», liburu honetako 655. orrialdea.

ño bildurrak jo ez gaitu ba orain, orko, ango ta emengo? Lehen orduko euskaltzaiñak, orren kontrako kezkaz egozan eta jardunean, bide garbizalea ta garbitzaillea artu eben."[40]

AKESOLO

"Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan doana. Harako Demostenes totel–motel edo berbartuak bere hizkerea trebe bihurtu nahirik, ahoan harri koskorrak sartzen bazituan be, Akesolok bere hizkerea, mintzatua edo idatzia jasean erabilteko, ez dau harri koskor anaforikoen beharrizanik, bere pentsakera iturburua euskalduna dalako, ez itzulpenekoa, ez ekarria, etorria baino. Beraz, Linoren prosa, ezaguna da, beste inorenagaz nahastagatxa, zinez. Soinua maite dauanez, hizneurtuak be landu ditu, berenez edo itzulpenez."[41]

Hitzurrena. Horra hor gakoa. Horren izenean nonahi dabiltzan hizkuntza okerrak eta makurrak salatu behar. Lekeitiarra da nagusi, 1967. urtean, Euskaltzaindiaren aginduz eta manuz, horri buruzko mezua barreiatzeko orduan.

"Labur: itzurrena zaitu behar dugu, joskera arauak eta atzizkiak orobat, eta aditzaren formak. Osterontzean izkeraren indarra, izakera, moteldu, illundu, ta nahasmendu biurtuko dugu. Eta jakiña, konpreni eziña ditekean izkera ez du iñortxok ere ezertarako nahi izanen."[42]

Zelan azaldu hobeto, Mendebaldetik esana, aspaldiko buru–haustea eta auzia? Ikusten danez, euskararen kalitatea antzinatik dago jokoan.

Kalitatearen kalitateaz, euskararen izatean beste habe eta lokarri premiazkoa da lexikogintza. Horren inguruko gehiegikerietan kritikari gogorra dogu Erkiaga:

---

[40] ERKIAGA, E.: «Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875–1939) bere bizitza eta lanak», liburu honetako 563-565. orrialdeak.

[41] ERKIAGA, E.: «Aita Lino Akesolo», liburu honetako 611. orrialdea.

[42] ERKIAGA, E.: «Euskaltzaindiaren deia», liburu honetako 642. orrialdea.

> "Orain, zer bat dogu uka eziña; zera, bai orduan, bai gaur, gure berbakuntza au itz ugariren premiña gorrian dogula. Bestengandik beretuko ditu batzuk, asko behar bada; beretik be, orraitio, bere narrutik be, ugelak eta edeak atera leiz. Ta premiñea ez dogu itzena, soillik. Aurrizkirik urri dogu. Atzizkiak eurrezago; alan be, ostera, beste batzuen eskariz daukagu izkuntzea. Gure "Lemoarrak" sozialismu ordezko berbea "gizartekeria" eratu ebanean, premiña eban sufijo egokia, doi doia, euskeraren barrutian aurkitu ez ebalako ez ete zan, nahiz eta arek, beste errezoimodurik azaldu lan orretan? Baietz uste dogu."[43]

Berbak jakoz ardura Erkiagari. Berbak, soilean; berbak, ondo ehotuak hiztunen berbaro eta jario etenbakoan. Euskarak euskal prosodia behar dau, euskara izaten jarraitu nahi badau behintzat:

> "Betoz prestamuak preminea danean, baina prosodia lorrinduten badogu, akabo artoak! Euskerea, latinaren antzean, paperetan soilik geratuko."[44]

4.3. Estetikaren bila

Ideologiaren bultzadaz eta hizkuntzaren minaz, Erkiagaren lorratza harantzago doa, estetika baten pentzudan dabilelako.

Estetika dau iturburu; horretarako emon dau izena lekeitiarrak euskal letretan. Tolesbakoa da hori autortzean:

> "Literaturarako batipat erabillia izan den izkera, jakite eta eder arlo edozeiñetarako trebatzea, erantzupen goreneko zeregiña dela aitortu beharko. Ortografia arazoa eta lexikoarena ere alderako dabiltzan arren, liztor izan orde erle maratz izatez gero, zubigilleak izan daitekez gure artean, geroko geroan mesiasi begira loak artzeke."[45]

Poetaren zeregina be, tentuz zirriborratzen dau Erkiagak, Eusebio M. Azkuek emoten deutsan egokieraz baliatuta. Testuaren lehorreria-

---

[43] ERKIAGA, E.: «Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875–1939) bere bizitza eta lanak», liburu honetako 565. orrialdea.

[44] ERKIAGA, E.: «Boltxebikiak, Eguzkitza ta honen saio barriro», liburu honetako 624. orrialdea.

[45] ERKIAGA, E.: «Anaforikoak aldez edo moldez», liburu honetako 662. orrialdea.

tik baino, poetaren ibilbidea beste nonbaitetik zuzendu behar. Estetika behar dau olerkariak, espirituko gauzak ditualako gogogai. Haren ustez, poeta, agertzaile eta iragarle izan behar da:

> "Gizon eta olerkari aitatu dogu lehen, baiña gaur dan egunean, ezta zertan banandu bata besteagandik. Ez. Gizona da olerkaria, poeta dalakoa; eta olerkari gizon dalako (ala emakume dalako) da. Ez ditugu beraz, bi; bakar bat baiño.
>
> Olerkari danari, berez datorkio alako goi–arnasa, asmo, intuiziño, begikaldi ala bihozkadea. Lehenagoko gauzak, jazoerak, lagun urko ta urrunekoak, joanak eta oraingoak: aldiko kezka, burruka, maitetasun ta gurariak; gerorako ames, joera, asmo… zerok guztiok, salduezíña dauan bakartade santuan batu eta josiko ditu, ta bere griñaz ta barruko eragiñez, poema deritxan ederlana eratuko deusku.
>
> Olerkaria, besteentzat bitarteko izango da, agertzaille; sarri askotan, iragarle. Ez orraitio gauzen asmatzaille, erakusle baiño. Mundu onetan agirian egon arren, besteentzat ostendurik edo laiñopean illun samar dabiltzan sentipen eta izaerak erakutsiko deuskuz, eta betiro, ain zuzen, izkuntzaren bidez.
>
> Izpiritu–gauzak eta begien aurreko egoera–izaerak batuko ditu olerkariak. Ez arean bere, arek aiñako ezaguerarik eta minberatasunik beste edozeiñek ez daualako, ez. Bai ostera, poeta deritxanak gauzak argiago ta zoragarriago esateko, berezko dohaia daukalako baiño.
>
> Filosofuak zehatz, esan daroa esatekoa, baiña otz samar. Olerkariak, barriz, aitatu, burutaratu baiña bero–giroz, sentipenez, garretan bihotza, joranez arimea. Norbaitek esana da, olerkariak iñork itandu bako zeren erantzuna emoten deuskula. Eta olantxe ez ete da? Kantau gura dogunean, zer kantauko dogu? Barrua zabaldu ala miñak arinduteko, zer abestuko dogu? Poeta batek emon deuskun eskatubako erantzuna: poema, kanta, abestia. Zer kantauko leukee gazteek, umeek, erriek, olerkaririk ez baldin balitz, eta izan ez baldin balitz?
>
> Makiñeri ta kimika–mundu barri onetan Olertia behin betiko galdu ez ete dan, itandu izan dabe. Baita zera be! Poesia, mundua mundu deiño izango da; bizitzea ta eriotzea direno."[46]

---

[46] Erkiaga, E.: «Eusebio Maria D. Azkue gizon eta idazle», liburu honetako 533-534. orrialdeak.

Baieztapen horreen aldera, Erkiagak berebiziko nekea hartzen dau euskararen erabilpen egokia bermaturik geratu daiten. Honetara dino berak:

> "Esaterako, irrati–esale batek euskerarik ez baldin badaki, itz bakarka jakiteak ez dio, borondate ona gorabehera, euskeraz mintzatzeko eskubiderik ematen toki aretarik, erriari begira. Aurki, kalte egiten dio, nabarmen ari den bakoitzean. Eta ohar au bego izlari, idazle, irakasle eta andereiñoentzat ere; zera, euskeraz arlote xamar ari baldin badira, ez direla iñor jendaurren akats eta makets agertzaille izateko. Beste izkuntzenganako aiña errespetu eskatzen dugu euskararentzat ere."[47]

Badaki horrek, egunotako eta mendeotako iturria daukala euskarak itzulpen zeretan. Axular bera, itzultzaile prestutzat ederresten dau. Halako ederkaturak kenduta be, bete-betean asmatu eban Erkiagak, orain dala hogei ta zenbait urte, honako honeek idaztean:

> "Oker ez baldin bagagoz, itzulpen zeregin ugari izanen da emendik gorakoan, beste belaunaldi iñoizkoetan ez bezala. Lege, arautegi, agindu eta erabakiak, agintari maillan eta norbaitezkoan ere. Zabalkunde zeretan, alderdien eta taldeen agerpen eta komunikabideetan, ots, eguneroko prentsan, irratian eta abar; eta bestalde, irakaskuntzako zenbait arlotan, testu aldatze lana, itzuleen nekea, luze, astun eta maizenik, presaka egin beharreko izanen da. Ez oraiñarte bezala, eserita eta agian liburu mordoak eskuar izanik; sarri askotan zutik, telefonoz eta irrati–gelan berpertan eman beharrekoak ere susmatzen bait ditugu."[48]

Baiezkor dogu lekeitiar idazlea, gaztelaniaren eta euskararen arteko egitura desbardintasunak gorabehera, euskal itzulpenaren geroa epaitzean. Harentzat geldiunerik bage lan bera egin ebaneko gogoratze hutsa da hori. *Eguna* egunkariaren aldiak jatorkoz burura:

---

[47] ERKIAGA, E.: «Anaforikoak aldez edo moldez», liburu honetako 661. orrialdea.

[48] ERKIAGA, E.: «Anaforikoak aldez edo moldez», liburu honetako 662. orrialdea.

> "Euskaldunek irakur zezaketen, euskaldun jaioak idazten zuten; au da, ez zuten eskurik sartu egunkari aretan euskaldun berriek, eta izkeraren gidaritzan ere ez; bestek oker usterik izan ez dezan diñogu. Ba dirudi aldi aretako norbaitzuen kexu–itzak jasoak izan zirela. Altube eta "Ibar" ditugu orain gomutan; erri–idazle soillen gain laga bait zuten jabeek. "Eguna" bizkaieraz eta gipuzkeraz argitaratzen zen, errez eta berezko bidez, fonetismuak gehienbat uxatuz. Irakurleek atsegiñez artu ta irakurten zuten, "argiagoa" bait zen."[49]

Tartean, zeresanik ez, aholku praktikoen bat be, aparte joan barik:

> "Jainkoak argi ta arnas, itzule esturaz ximurtuari, eta gustu ta eder–ukitu puxka, euskararenganako amodioz, egin gogo duen lanari estetika igurtzia ere, eman diezaion".

4.4. Euskara, noranahikoa

Eusebio Erkiaga etsipenaz jota dabil, goi mailako euskaldunak euskarari erakutsi deutsien ardurabakokeria dala eta ez dala.

> "Beste letradun asko, ibiltariak, itxasgizonak, aundikiak batez bere, iñoiz agertu al izan dira euskararen aldeko lanetan? Gurasoen berbeteari ez deutsie jaramonik egin; iretargiak txakurren zaunkai ainbat. Literaturaz prestaerarik izan ez dabela, aurki?"[50]

Goizetik somatu dau euskara landu beharra:

> "Bainan, jaingoikoarren, aski dugu etimologiari buruzko erdal–lanik! Espezialistak, teknikaren zorrozkeriaz eta lankailuen laguntasunaz ari diren artean, bada, eria, osasun osoaren behar den eria —¡euskara gaisoa!— osatzen ahal ezpaita."[51]

---

[49] ERKIAGA, E.: «Anaforikoak aldez edo moldez», liburu honetako 664. orrialdea.

[50] ERKIAGA, E.: «Jose Manuel Etxeita eta Luzarraga», liburu honetako 452. orrialdea.

[51] ERKIAGA, E.: «Erabiltzeke, eztugu euskara lantzen ahal», liburu honetako 636. orrialdea.

Lanketa horrek, urte erreskada eroateaz kanpo be, behe-behetik euskara hartu eta gora egitea eskatzen dau. Hortxe ipintzen dau berak norberaren euskara, tokian tokiko eta aldian aldiko horri lehentasuna emonda euskararen bizibidean:

> "Bizkaierea gal dadinean —kalean be urterik urtera galduz galduz doa, ez gaitezen kirtenak izan, umeak eta gaztetxuak euskaldun urietan han frantses, hemen gaztelaniaz dihardue ta—, gure euskalki hau gal dadinean, Euskerearen mendebaldeko mugea Zumaia, Azkoiti, Azpeiti, Zegama, Segura… eta hortik sartalderuntz… dana gure Enkarterri bezala?
>
> Giputzei mendeen mendetan zeinek gorde ta zaindu dautse mendebaldeko saihetsa Bizkaiak eta bizkaiereak baino?
>
> Beste ohar bat, horraitio. Mintzaira mugaz ganetik be, goitik datorkioz euskereari itobeharrak eta esturak. Galtzen dana, Euskereak galtzen dau. Eta bizirik dirauanari ez laguntzea, zer da?"[52]

4.5. Lekeitio eta Bilbo, Erkiagaren bitasuna

Erkiagaren lotuneak, dagoaneko ohartu danez, jatorri askotakoak dira. Bi dira, halandabe, bizitzaren zertzeladak hainbatean zipristinduko deutsazanak. Kronologiari bagayakoz, Lekeitio jaioterria da lehena eta Bilbo bizitokia bigarrena. Bi-biok jakingarri haren biografian.

Lekeitiogazko uztardurak ume eta gaztarokoak dira, idazlearen gomutetan gogokoenak. Hango gertaerak eta gertalixkiak ugari dira Erkiagaren langintzan. Izan be, arlo guztietan dau harek present sorterria.

Erkiagaren bizitzak ahalbidetu dau amodio eta maitasun hori kaleratzeko aukera zabala eta aparta. Gazterik nahiz adinekorik, Erkiagak beti Lekeitio ezpanetan eta lumaren zirriborroetan. Horren testigantzaren eskuratu behar bada, hona hemen hiru ebaki, bizitzaldi bakotxetik bereiztuak eta Lekeitiokotasun hori begitaratzen deuskuezanak.

Lehena, gaztaroari jagoko. Erkiaga umekondoa baino, gazte urduri eta euskaltzalea dogu. Lekeitioko albistetzan dihardu, euskara kezkaburu. Inguruko herrietara badoa be, euskararena beti jomu-

---

[52] Erkiaga, E.: «Itxastarrak», liburu honetako 1059. orrialdea.

gan. Ondarruratu da, hango Batzokiaren idegiera dala eta. Handik itzultzean euskararenak dardarrean jarri dau:

> "Neure errikidiakana batu naz belbileratuteko. Eta ¡au laskagarrija! euretariko askok erderaz eta erderaz diardube. Eta itzaldijak entzuten eta txalotuten egongo zeranik zer–esanik bez. Onetzaz, urrengo baten idatziko dogu argijago, zorrotzago eta zertzelada gayagogaz. Baña lotsagarrikeri au ezin geinke ixildu. Entzundako itzaldijetatik ori baño onura obia ataraten ez baldin ba'dogu, ez uste ixan egingo dogunik ezer, len baño lotuago geratu eta galdubago egin baño. Ezta ori bide ona. Maketuen aurka egitia errez da, geu gara gu naikua maketo esango ba'geunke, guzurrik andirik ez genduke esango. Gau au bego urrengo baterako. Oargarrija dalako.
>
> Agur, ondarroatarrak: lagun asko bildu zan or igandez. Guk 28 ikurrin zenbatu genduzan. Sapailoetan iñun ez ainbat oyal eder ikusi genduzan. Jai ederra, egun goguangarrija igandekua.
>
> Zorijonak orko aberkide guztijoi; bijotz–bijotzez ¡zorijonak!..."[53]

Ondorioak be atara ditu Erkiagak. Badaki Lekeitio moduko herri euskal mintzodunetan hainbat erdaldunek euren burua euskaldun bihurtu leikeana. Aor haren berbak:

> "Udatzale abertzalia; zeuk euzkeraz ezpa'dakixu be, zeure umiak ikasi dagijela aberrijak eskatzen dautzu. Eta orretarako, ¿zer gauza errezagorik uritxubetara zatortzenian zeben semetxubak euren odolari yagokan izkuntzea ikastia baño? Alegindu zaiteze ba, aurtengo uda onetatik aurrera zeben umiak euzkeraz ikasi dagijen. Errijetako ume euzkeldunakaz errez–errez, igarri barik ikasiko dautzube euzkeraz. Eta gure umiak be, alantxe biar gaurkuan–eta, eurekaz erdera ikasiko dabe biar dabenetarako jakin dagijen, baña euren izkuntzeaz aztu barik.
>
> Aberkide udatzale: zebek zarie guretzat "veraneante"–rik begikuenak. Zatorzte uritxu euzkeldunetara, euzkeldundu zaitezen, zebek bixi zarien Euzkadi'ko erdel–urijak be euzkeldundu daitezantzat, zebek egiten zarenez batera egingo dira–ta."[54]

---

53 Erkiaga, E.: «Errijetatik-Lekeitiotik», liburu honetako 835. orrialdea.

54 Erkiaga, E.: «Izki-Mizki, udako gatxak», liburu honetako 811-812. orrialdeak.

Aurreko autuak guztiz ilunduta egozan, barriz, gerra ostean. Lekeition be, salbuespenik ez. Urte latz horreetan argitaratu dau Erkiagak *Arranegi* (1958) elebarria. Horren bidetik, lehen esan ditugun *Amandarrikuak* (1962) be. Kazetaritza gorabeheratan, Erkiaga esatari artegatsu, Lekeitioko euskara dala eta:

> "Aste betean egon naiz neure jaioterrian eta orixe susmatu dot. Alperrik da, oraindio bere, erririk euskaldunenetarikoa dala nasai-nasai esatea. Gu geu, gazteak garela esatea beste da. Lillura, txakur-amesa.
>
> Mutikoak, eta batez bere neskatoak erdera parra-parra egiten dabe kalean. Leentxuago jazoten ez zana.
>
> Batxiller egiteko komeni ei yake. Egia orixe be. Baiña 10-16 urte bitartean erdereari gustoa artu ezkero, nok gero euskaldundu barriro? "Lizardi" gurea, txit maitagarria bera, erderaren gogortasunpean ibili izan zan betiro, euskera egosgogorra sarri askotan eskeiñiaz guri. Bere bikaintasun eta bakantasun jatorrak gorabehera.
>
> Orixe da gure min sor eta larria. Orain 30urte Lekeition, 95 % -euneko larogeta bost- izango zan euskerea. Gaur dan egunean, 50 % inguru. Euskera ugari entzun leitekela an? Bai, guztia errelatibua baldin bada, an, gaur, nik neuk, gaztelania franku entzun dot aste orretan; eta artean frantsesak eta abar aldegiñik egon dira.
>
> Ez da nahikoa jakitea. Egin egin bear da euskeraz. Bestela... marrut."[55]

> "Ez dau oraindiño galdu ez lorrindu bere taiua ta gatza gure jaioterri onek. Kresalak ba dauka euki, gaur be, bere gazi-neurri berezia, aparteko, inguruko gauzak eta personak jasez ta ganoraz orniduteko.
>
> Iñoiz egon izan da garbiago, egia esan, gure sorterri maite au. Errietako udalak orain, sakelestu bizi dira, eskuarte neurtuakaz; eta urritasuna dan tokian, ez da aberastasunik.
>
> Dana dala, ortik edo andik lortu bear izango dabe udaleko gizonak, urbide aundiagoak eta saneamentuko zerak egiteko dirua. Premiña gordiñeko lanak ditue ta.

---

[55] Erkiaga, E.: «Zirikadak eta erantzunak», liburu honetako 961. orrialdea.

Bearkunetarako bagara, eskubideetarako be, izan egin bear dogu."[56]

Goragoko urteetan sartuta be, harako "hirugarren adin" horretan, Erkiagaren ardura gitxitu beharrean, areagotu eta zabaldu egiten da. Lekeitioren herriminaz dabil Erkiaga, etimologia jardueretan:

"Etimologiari euskeraz hitzorkuna berbea asmau deutsoe. Dana dala, gure uri honen izenaz iruzkin laburra egin gura dogu. Hainbatek astindu daben arazoa da, hain zuzen be.

Paperetan erdal–grafia Lequeitio agiri da. Orainarte beti bardin. Uriaren lehenengo izena hauxe berau ete zan? Izen zehatza, izen osoa ete zan? Nun ete egoan lehenengo Lekeitio eta zelakoa ete zan?"[57]

Eusebio Erkiagak, zergura be, ez eban Lekeitio jaioterrian bere euskalduntasuna agortu. Baeban harek, bizilekuaz nahiz familiaz, bestelako habiatokirik. Hain zuzen be, Bizkaiko uriburua, Bilbo. Horrek emon eutsan arnasa *Araibar zalduna* elebarria idazteko. Horrek be, kazetaritza sail luzea ekarri deutso, gerra osteko euskalgintzaren ahalak eta leherrak birrartuta, bertako ekimenetan parte hartzeko.

Bilboko euskaldun izaerak estuasunik sortu eutsalako dudarik be ez dago. Irakurri bediz, bestela, testu honeek:

"Euskaltegi bateko ikasleak dirala, dinoe, BILBAO–ren 19 g. zenbakian, eskutitzen atalean. Benetan pozagarria —dinoe— baina benetan ez pozgarria esangura izan dabela uste dogu, arean, 36 orrialde dituan aldizkari baten euskerazko lanak 2 bakarrik agertzea.

EUSKERAZKO irakurgaiak gura dozuezala? Arduradunak zer erantzungo deutsuen, ez dakigu. Elebidunak dinozue? Ez, maiteok. Diglosia itzelak zapalduta bizi gara. Bilbon bizi izateko ez da euskeraren preminarik. Euskeraz idazten dakien idazle askorik ez da hemen. Eta eurotarik batzuek, gaztelaniaz gustorago egiten

---

[56] ERKIAGA, E.: «Itsasalde paregabean», liburu honetako 1007. orrialdea.
[57] ERKIAGA, E.: «Lekeitio hitzaren jatorriaz», liburu honetako 1028. orrialdea.

dabe. Hor da arazoa. Untzea ta kakoa. Hori gorabehera, zuok ikasi ta ikasi. Aurrera mutilak."[58]

4.6. Erkiaga, katolikotasunaren bidetik

Aurreko ezaugarriak gorabehera, lehendabiziko begirada azkarrean be somatzen da Erkiagaren katolikotasuna. Abertzaletasun katoliko batetik norabidetuta, lekeitiarrak harako *euskaldun fededun* lelopean dihardu gazte-gaztetik, erlijioari —*uzkurtza* esango deutso berak, hizparriaren erabilera hobetsiz— jagokona aintzat hartuta.

Lelo horren aitamen biak —*euskaldun* eta *fededun*— ez dira harentzat azalutsak edo huskeriak, barru-barrukoak baino. Baita, bide beretik, bi-biak batera bizitzeko ahaleginak be. Gerra aurreko testu esanguratsuen artean, honako hau, gazte abertzaleak garizuma aurreko aratuzteak eta mozorroak zirala eta, zelango jokabidea izan behar eben zehazteko:

> "Ta luditarren arteko gure ixen ona ezer be ezta, gure gogo ta arimiaren ikusijan. Au irakurririk barre–purrustadea egingo dabenak be, ixango dira, aurki. Baña eztago barriketarik. Edota katoliko ixan oso–osuan —beintzat aal–giñuan— edo–ta, kokomarro ixan, eta azke, nai dan lez ibili.
>
> Aberrija osotu biar dogula oitura ta ekandu txarrak baztertuaz, eta ¿abertzaliak ixango ete gara marmorik marmuenak?
>
> ¡Jolastu, jolastu bedi euzko–gastedija aurpegija estaldu barik! Jolastu bedi, antxiñakuen antzera, egun argitan, zindo eta garbi.
>
> Benetako alaitasuna garbitasuna da–ta.
>
> Lekeitio'tik."[59]

Esku-eskura ditu pentsamolde orretako ereduak. Buruen-buruenik, *Jaungoiko-zale* bazkuneko abade euskaldunak eta horreen artean, hur-hurrekoa, Juan Bautista Eguzkitza, berak autortua eta haren berbak jasoak, abade euskaltzaleak euskal kulturazko zergintza azaltzean:

---

[58] ERKIAGA, E.: «Gauza harrigarriak hemen?», liburu honetako 1043-1044. orrialdeak.

[59] ERKIAGA, E.: «¡Aratuzte, Iñauteri...!», liburu honetako 850. orrialdea.

"Abadeak euskereari kalte egin deutsoela iñoiz esan izan dala ta, puntu orrezaz Donezteben ziñoan: "Baña gure aurretiko idazlerik bikañenak Axular ta Mendiburu, Gerriko ta Agirre, Añibarro ta Mogel, apezak ez al ziran? Bai, noski. Eta gure izkuntza zâr ontan oyen idaztiak baño ederragorik, nork egin du? Guk dakigunez, iñork ere ez. Au oroituz, erraten nuan: euskararen galtzea apezen obena, nola izan daiteke?"[60]

Fedea eta euskara, edo hobe esanda, fedea euskaraz. Horixe dau jokabidea Erkiagak eta horri egin eutsan men bizitza osoan zear. Begoz, orren argigarri, batetik gaztaroko testua, erlijio kontuak euskaraz zelan bizi ziran ikusteko (1936) eta bestetik be, hainbeste urteren buruan (1963), garizuma barriro hizpidea dauala, garizuma bera Bilbon euskaraz emoteko aukera bideratzen deuskuen berba multzoa:

"EUZKEL–ALDE.— Noizik beñian zerbait egiten da–ta, tira, bapez baño oba da. Orainguan egin dana emen, auxe dozu, irakurle: ilero bananduten izan dituen "San Prantzixkuen paperak" orañarte, erderazkuak izan dira. Ta orixe dala–ta, irugarrendar batzuk "boikota" eztautzue egin ba? Gora zeuek! Auri dok lekitar izatia! Eta orain euzkerazko orrijak ikusi doguz.

Zenbat arazotan beste orrenbeste egin giñeiken!"[61]

"Sartu-sarturik gagoz eta eliza guztietan itzaldi, gogo-iñarkunak eta sermoiak ugari ditugu. Aita jesulagunak sermolari guztizkoa ekarri deuskue Indautxu-ko elizara.

Euskaldunak bere izan ditue aurten eta izango ditue aukera egokiak, sermoiak euskeraz entzuteko. Karmengo elizan eta Doniane-koan izan ditue Bilbo-ko euskal-gogo iñarkunak, Aita Alustiza, prantsizkotarra eta Aita Genaro, kalmeldarra iztun izanik, bakoizka.

Aprillaren lenengo egunean asita, gabeko 8-retan, Eliz-erradioz izango dira geisoentzako ejertziuak, aste osoan.

Orrez ganera, Eliz-erradio orren bitartez, domeketan, ordu bi eta laurenetan ebangelioa adierazoten dabe euskeraz; Larruzea abade agurgarriak dauka bere gain zeregin txalogarri ori. Eta

---

60 Erkiaga, E.: «Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875-1939) bere bizitza eta lanak», liburu honetako 565-566. orrialdeak.

61 Erkiaga, E.: «Lekeitio», liburu honetako 929. orrialdea.

sapatu arratsaldetan, 4 1/2 -tan, gure erriko ekonomi eta kirol eta dantzen agerpen polita egiten dabe geure berbetan."[62]

Uztarketa jakinekoak ez, gaurko egunean, euskara eta fede katolikoa. Bai, horratio, eta azaldu dan legez, Erkiagaren jardunean. Haren bizitzaren azken birundetan be, temati, lehenengo autu bera gomutetan hartu eta abade euskaldunen eginak goratu, abade euskaltzale hareek zer ondu eben plazaratzeko gertu. Hona hemen, beste behin be, betiko Erkiaga:

> "Gure Bizkai maite honetan Kapanaga, Mikoleta, Zabala, Añibarro, Uriarte, Prai Bartolo, Olaetxea. Eta gure sentimentua bero samarrago jarririk aitatzen doguzan Tx. Agirre, R.M. Azkue, Zamarripa, Eguskiza, Gabriel Manterola, Ibargutxi Juan, Artzubiaga eta ahaztu ezineko Mikel Zarate... Eta arabar langile errime Aita Olabide. Ia guztiok hilak, gizon bakotxaren biziak muga laburra ta halabeharrekoa daualako. Parka begiskue izentatzeko geratu diran euskal-langileak.
>
> Antzena egoki biribildu guran, barriro esan dagigun Euskerearen eusle zintzoenak eleiz-gizon batzuk izan dirala. Ai, guztiak izan balira! Ai, euskaldun guztiak euskaltzale izan balira! Katuaren amesak, ostera! Eleiz-gizonak, euskerearen kalbarioran lagun ixil eta egikorrenak. Eleiz-gizon ez diranek oraindik gora, gure berbetearen alde egin izango dabena, geroak esango.
>
> Baiña gure esker ona bego, euskal-nekazale joandakoen izen onaren ganean, sari erakusle dan koroe antzera."[63]

5. Erkiaga, euskaltzain osoa

Eusebio Erkiagaren biografiak laburbiltzen baditu, esan legez, Bizkaiko euskalgintzaren azken hirurogei-hirurogeita hamar urte, ezin ahazturik itxi, urtez eta ekinez luze joan dan biografia horretan, zeresan apartekoa izan dauan erakundea, hain zuzen be, Euskaltzaindia.

Gerra aurrean atondua, Euskaltzaindiak bidea egina eban Eusebio Erkiaga Bilbora etorri orduko (1936). Azkue lekeitiarra —Erkia-

---

[62] ERKIAGA, E.: «Udaberriaren begira», liburu honetako 956. orrialdea.

[63] ERKIAGA, E.: «Abade euskaldunak jardunean», liburu honetako 1025. orrialdea.

garen herrikidea, beraz— eban buru Hego Euskal Herriko Foru Aldundiak 1919. urtean sorturiko erakundeak. Halan da guztiz be, ez dirudi Erkiagak zuzeneko hartu-emonik izan ebala garai haretan euskararen Akademiagaz.

Gerra ostean, egin-eginean be, Eusebio Erkiaga hurreratu egin zan Euskaltzaindira. Sarreragina eta akuilaria Mikel Arruza idazle bizkaitarra izan ei zan eta gertaera berrogeita hamarreko urteetan emon zan[64].

Orduko giroaren giltzarri eta ardatzak azalduak izan dira aspalditik. Ez horrenbeste, Erkiagaren jokabidea. Izan be, Erkiagak berak idatzitako biobibliografiari jaramon eginez gero, berehala idoroko dogu 1951 urte inguru haretan hasi zala barriro euskal ekinean, harako *Isilaldia*, *alper* haren ostean.

Isilaldia, esan beharrik ez dago, halabeharrezkoa, euskararen zapalketa zala eta ez, ostera, borondatezkoa edo gogokoa.

Gogoz kontrako horretan burua jasotzen lehena Krutwig izan zan. Azkueren eta Euskaltzaindia ahularen alde jarri eta Euskaltzaindia berrindartzeko egitasmoa biribildu eban 1949. urtean. Horrek, nonbait, onarpena ekarri eban baina baita polemika eta eztabaida be[65].

---

[64] EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1955-I-29». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982. 46. or: "Bilbon, milla bederatzireun eta berrogeitabost arren urteko Urtarrilla. Ilbeltzaren ogeitabederatzian Euskaltzaindiaren etxean egiten dau Euskaltzaindiak egun orretako deitutako batzarra.

Mahaipuru: Irigarai jauna. Batzarkide: Mitxelena, Villasante ta Oleaga, euskaltzainak, Lojendio ta Arrue euskaltzain-ordeak, eta Arrutza, Garro ta Erkiaga urgazleak. Etxaide jaunak urrutidazki biotztun baten bidez bere ezin etorria jakin erazo dau.".

[65] SATRÚSTEGUI, J.M.: «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1951)». *Fontes Linguae Vasconum* 75 (1997), 241-242: "El resurgimiento institucional y consiguiente expansión social tuvo su principal mentor en el espíritu inquieto y creativo del académico Federico Krutwig, que abordó con valentía el obligado proceso de renovación estructural. Exponía en cada sesión el texto de sus comunicaciones, bien sobre cuestiones lingüísticas, o lo que era realmente más práctico, sobre la estrategia de actuaciones concretas en la dinámica de promocionar la lengua y cultura vascas con proyección de futuro. Propuso la incorporación de nuevos miembros para suplir las limitaciones conyunturales del momento. El riguroso control policial de los puestos fronterizos dificultaba la asistencia de los académicos de nacionalidad francesa a las reuniones ordinarias y varios titulares no acudían para diversas circunstancias. La sugerencia de Krutwig iba encaminada a renovar los esquemas de la Academia, por considerar que el funcionamiento vigente aportaba poco beneficio a la lengua vasca.

Bestalde, Krutwig, Arruza, Garro eta beste batzuk (Erkiaga be hurhurrean) *Urkixo'tar Jul Elkhargo*aren kide ziran ordurako eta asmotan jarriak, bertako *Euskal Philologiaren Sail*ean[66].

La iniciativa tuvo favorable acogida por parte de los cinco asistentes a la sesión, quienes encomendaron al inquieto académico bilbaino la formulación de un informe por escrito con la exposición de motivos y el consiguiente avance del borrador para la preceptiva modificación del artículo correspondiente. El documento fue presentado el día 30 de septiembre del mismo año, en presencia de once de los doce titulares existentes, y proponía básicamente la ampliación del número de componentes de la Academia a dieciocho miembros, lo que suponía un refuerzo adicional del cincuenta por cien de los efectivos personales. La moción fue aprobada por unanimidad".

EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1949-VI-25». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982: "Krutwig jaunak dino bere eritxiz Euskaltzaindia zelanbaiten barriztu bear litakela, orain dagoan ta dabilen lez jarraitu ezkero, euskerarentzat onura gitxi datorrela".

EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak 1949-IX-30». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982: "Urrengo Krutwig jaunak, lenaurreko batzarrean bere gain utzitako txostena gertu dabela dino ta berau irakurten dau, itzez azalpen ta geigarri batzuk ezarriaz. Arreta aundiz entzun da bere lan goragarri ori ta berton agertzen dituan asmoak arduraz ta zeazki azterurik, oraingoz ta aobatez auxe erabagiten da: Aurrerantzean, euskaltzainak hamazortzi izan daitezela (...)."

KRUTWIG, F.: «Sobre la reorganización de la Academia de la Lengua Vasca». *Gernika* 12 (1950). 43-44.

[66] KRUTWIG, F.: «Hitzaldi bat eta bere aurre-historia». *Egan* 5-6 (1986), 15: "Nire plana euskera zegoen herstualdetik atheratzekotz, Athênuan bezala Euskaltzaindian ere 'aurreratzeko asmoaz antolatu nuen. Lehen urrhatsa izan zen Seminario de Rojas, faxista baina erdizka euskalzale zen periodiko baten direktorea sartzea, zeren haren bidez, edo behintzat haren itzalaren España faxista eta euskal gauzen etsai handiak gatik aphaila bait ginitiroken. Haur eginaz geroz, bigarren urrhatsa zen, Euskal Akadêmiaren berr-organizatzea, zeren eta orduan euskalzain batzu atzeherrian' bait zegozen, faxisten ordenetara heien lekhua desert deklaratu bait zen. Dirudienez Akadêmiaren berr-organizatzeko agindua Areiltza jaunak eman zeraukon Azkueri, bainan agindu hori soilik verbala izan zen, eta nehoiz ere ez zen iratzi. Orduan Azkueren konseiluaz niri Akadêmiaren birr-organizatzeko enkargua eman zerautaten. Neuk' lehen lehenik bilhatu behar nituen aspaldidanik barraiaturik zegotzan euskalzainak, zeren eta askotan bizirik ere zegotzenz ez bait genekien. Hilabete baztu iraganaz geroz' euskalzain zahar guztiei neure planoa jakin arazi nerauen. Lehena nola Areiltzak emanikako agindua, verbala baizik ez bait zen, hura ignoratuko genuela eta euskalzain zaharren lekhua konfirmatzea, bigarrena nola Bilbon eta Donostian biltzeko diffikultateak bait geneduzkan, bi gauza egin: a) euskalzain osoen arithmia 12-tik 18-ra goratzea, eta b) bilkurak gehienetan Donostian egitea.".

Hara batu ziran Aita Villasante eta Aita Berriatua eta Euskaltzaindia aurrera eroateko egitasmoa moldatu eben.

Aita Villasanteren Euskaltzaindian sarrera hitzaldia zala eta, Krutwig erantzule. Sekulakoak esan ei zituan Krutwigek eta orduko agintariak atzetik joan jakozan. Alde egin behar izan eban, eta horren ondorioz, bide hori zapuzturik geratu zan. Erkiagarena, edozelan be, lekukotza hurbila, Villasanteren sarrera hitzaldian aretoko lehen ilaretan jesarrita[67]. Erkiaga ez horrexegaitik etsitu, ezpada arnasguratu eta jardunean jarraitu.

Emoitzok, oraintxe ikusiko dogunez, laster azaldu ziran. Euskaltzaindiaren agirietan, 1953. urtean, hain justu be, Eusebio Erkiaga euskaltzain urgazle dogu. Hala agertu da 1955. urtean Euskaltzaindiaren batzarretan.

Idatz-lehiaketetan parte hartu eta luze baino lehen, Txomin Agirre saria irabazi dau, bitan irabazi be. 1959. urtean, *Araibar Zalduna* da elebarri lehen saritua. Bigarrena *Peru Leartzakoa*, Txillardegirena. Lekuona zaharrak, zeresana izan eban liburu horri buruz, hizkuntzaz zein mamiaz. Gordinegi eta gipuzkoar usainekorik ez, euskal jakintsu harentzat, lekeitiar urgazlearen testua[68]. Txomin Agirre saria

---

[67] ARANA MARTIJA, J.A.: «Luis Villasanteren bio-bibliografia». *Iker* 6-separata, Euskaltzaindia, Bilbo, 1992. 27-28. orr.: "Bizkaiko Diputazioan irakurri zuen Luis Villasantek Euskaltzaindian sarrera hitzaldia 1952.eko maiatzaren 23an. Gernikan, jaioterrian, nahi izan zuen hitzaldi hori irakurri, baina Krutwigek Bilbon egin behar zela sarrera eginkizuna proposatu zuen, Euskaltzaindiak lortu behar zuen itzalagatik. Hala egin zen, Diputazioko Bibliotekan. Mahain zeudenak: Hilario Bilbao (Esteban Bilbaoren anaia), Fernando Etxegarai (Karmeloren semea), Manuel Lekuona (Inazio Maria Etxaide euskaltzainburuaren ordez), Ignacio Urquijo, Nazario Oleaga Euskaltzainaren idazkaria (orduan zadorlaria deitua) eta Federiko Krutwig. Entzuleen artean honako hauek ikusten ziren: Eusebio Erkiaga, Pedro Aranguren, garai hartan Arantzazuko guardiana, Pablo Lete, hau ere frantziskotarra, biak komentutik etorriak, Josefina Ibarrola, senitartekoa, Aulestitik etorria, eta abar. Luis Villasantek gai honetan irakurri zuen bere sarrera hitzaldia: *Literatur euskera laphurtarr klasikoaren gain eratua*, luzea eta mamitsua. Erantzuna Krutwig-ek eman zion, elizak eta orduko erregimen politikoak euskeraren aurka zeukaten jarrera salatuz. Jendea txalo beroka hasi zen, baina Krutwig-en hitzek bestelako ondorio bat izan zuten batzuren baitan. Jose Migel Seminario de Rojas, euskaltzain «politikoak», honako hau esan omen zuen: «Ese judío nos va a enseñar lo que tenemos que hacer!» Erne zegoen polizia Krutwigen bila joan zen, baina ordurako ihes eginda zegoen."

[68] EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1960-IV-29». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982. 99. or: "Lekuona jaunak idatzirik emon dauen "Araibar zalduna" Erkiaga jaunaren novelearen eretxia argitaratu baiño

bigarrenez be jaso eban Erkiagak *Batetik bestera* elebarriagaz (1961).

Gerora be, Erkiagak parte hartzen dau Euskaltzaindiaren egitekoetan, haren parte hartzea esanguratsuenetarikoa dala be. 1961. urtean, *Euskaltzaindiaren laguntzaileak* auzia dala eta, Arruza adiskidearen jokabidea zuritzen dau[69]. 1963. urtean, ostera, Krutwig eta Gorostiaga euskaltzain osoak proposatu eta apirilaren bostean euskaltzain oso izendatu dabe enparauko euskaltzainak[70].

Harik aurrera, eta berehalakoan, Erkiaga zuzendaritzakoa da, diruzaintza karguduna, ausaz, eguneroko zereginean eban banke-

---

leen. Diño: Bizkaitar batek gipuzkoeraz egindako gauza bezela, ba'ditu zenbait utsegite; zuzendu bear bait-zaizkio, nik uste. Ala berean, beste alde batetik, gauza gordin askoak askotxo ditu; uste bait-nuke, egilleari berari eman bear zaiola bere lana, zenbait gordinkeri kendu bear ote zaizkion ikusi dezan. Ori gabe nik ez nioke bere botorik emango Euskaltzaindiaren izenean argitaldua izan dedin. Andoainen 1960gn. otsaillaren 29'an. Lekuonak. Au dala-ta eretxi batzuk azaldu dira, Irigaray jaunak onen gaiñean berari zuzendu deutsan karta Erkiaga jaunak batetik atal batzuk irakurri ditu eta dirudianez prest dago entzuteko zuzendu bear dituen akatsok. Mitxelenak diño al dala modu onean beragaz konpondu bear litzakeala, baiña aurrerantzerako oiñarrietan bere eritxiz eztala imini bear moral eta dogma kontukorik ezer. Oleaga jaunak berba egin begi Erkiaga jaunagaz ia Lekuona jaunaren ta berak alkar artu leien.".

[69] EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1961-XII-21». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982. 141. or: "Arruza jaunak egin dauen deskargua irakurri da. Gorostiaga, Ibargutxi, Manterola, Peña, Onaindia, eta Erquiaga jaunak deskarguaren ostean firmea ipiñi dabe Arruza-k agertzen dauen guztia onarturik." *Euskaltzaindiaren Laguntzaileak* auzia dala eta, ikusi daitekez: SATRÚSTEGUI, J.M.: «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1959-1961)». *Fontes Linguae Vasconum* 82 (1999), 459-465 eta "Euskaltzaindiaren Laguntzailleak (1959-1963)", *Euskera* 37, (1992,1), 558-571.

[70] EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1963-I-25». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982. 158-159. or: "F. Krutwig jaunaren karta bat irakurri da. Eusebio Erkiaga eta Jon Etxaide jaunak euskaltzain izendatuaren proposiziñoa egiten dau (...).

Loidi jaunak karta bat irakurri dau Gorostiaga eta Altube jaunak berari egiña. Gorostiaga-k diñotso Eusebio Erkiaga jauna euskaltzain eta Kastor Uriarte eta Anai Balentin Berriotxoa euskaltzain ordezko izentau bear litzakezala bere ustez. Altube jaunak: Ambrosio Zaratain, Kastor Uriarte eta Jokin Zaitegi jaunak omenezko euskaltzain "Académicos de honor, bienhechores (ongille)".

Aita Villasante-k diño Alfontso Irigoyen jaunagaz Euskaltzaindiak zor aundia daukala eta bertan dagoela izentetako persona egoki bat. Orduan Irigoyen jaunak batzarretik urten egin dau. Erabagi batzuk artu dira eta geroago dei egin deutsie.

txegintzatik abiatuta. Trumoiak berehala iragarri ziran Euskaltzaindiaren bizimoduan eta gatazkatsu gertatu ziran ordukoak. Desadostasunak baretzeko, San Martin eta Zubikaraik mezulariarena egin[71] eta horra hor, etenik bage, Erkiaga diruzain 1963. urteko urriaren hogeitabostetik[72] 1978. urteko azaroaren hogeitalau arte. Hamabost urte luze, beraz, Euskaltzaindiaren zuzendaritza arduratan.

Artean, hamaikatxo lan biribildu ditu Eusebio Erkiagak Euskaltzaindiaren barruan. Sari emote, ospakizun, hitzaldiak eta abar, han-

---

Erabagi dana da, Pierre Larzabal, Jose Maria Satrustegi, Eusebio Erkiaga eta Alfonso Irigoyen euskaltzain izentatea. Alfonso Irigoyen ordezkoa izango dan ala ez urrengo batzarrean erabagiteko itxi da. Ago batez artu da erabagia."

EUSKALTZAINDIA: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1963-IV-5». *Euskera 1937-1953*. Sendoa, Donostia, 1982. 162. or: "Bizkaiko euskaltzaiñen utsuneak betetzeaz luze itzegin ondoren, erabaki au artu da: Urtarrillean egindako bilkuraren agiria ezeztatu egin da; Otsaillekoan, berriz, nola etzan naiko lagun batu, legezko batzarrik etzala egin erabaki da.

Eskabideak aurkeztu dira iru jaun auen alde, Alfonso Irigoien, Eusebio Erkiaga eta Aita Lino Akesolo karmeldarra, euskaltzain izendatu ditezen eskatuaz. Irigoien jaunaren izendapena erabaki aurretik zerbait zuritu bearra dagoela esan da, eta ala urrengo batzarrean erabakitzeko gelditu da. Erkiagaren eta Akesoloren aldeko eskabidea ontzat eman da, eta jaun oiek euskaltzain izendaturik gelditu dira."

ARANA MARTIJA, J.A.: «Euskaltzaindiko aulkien historiaz hurbiltze bat». *Euskera* XXXV (1989), 29: "Erkiagak Oleagaren 10.a bete bait zuen. Nere hipotesi batetan sartzen da ondorengotze guzti hau, agirietan ez baita esaten nor noren ondoko izendatua izan zen."

[71] «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1965-II-26». *Euskera* XIII (1968), 301: San Martin'ek, berak eta Zubikarai'k azken batzarreko erabakia betea Gorostiaga, Erkiaga eta Aita Lino Akesolorekin mintzatu ondoan, esandakoa onela agertu dio Euskaltzaindiari:

(...) 3. Erkiaga gertu dago, San Martin'ek eta Zubikarai'k egin zioten gogoraldiagatik batipat, euskaltzain izateko; oraingoz, ordea, ezin ar dezake ezertariko kargurik.

(...) 5. Erkiaga'k eta Akesolo'k eskatzen diote Euskaltzaindiari beren izendape agiria, araudia beteaz, izkribuz bidal dakien.

Itz oek agirian agertzea ao batez erabaki da: esaera bat edo beste leundurik, emen dauden bezala, ordea, eta iru Euskaltzain orien baiezkoarekin.

[72] SATRÚSTEGUI, J.M.: «Información magisterial en la correspondencia de Holmer y Mitxelena (1962-1963)». *Fontes Linguae Vasconum* 83 (2000), 85: "Mitxelena fue reelegido secretario en octubre, y vicesecretario Irigoyen. Erkiaga asumió el cargo de tesorero, y otro refuerzo de la última hornada, Lino Akesolo, se hizo cargo de la biblioteca, si bien renunció luego a la condición de académico a través de un escrito presentado en el último pleno del año.

hemenka, batez be Bizkaian. Beti, hori bai, diru kontu-arrazoiak mugonez, garbi eta zehatz eskainiak, erakundearen agirietan jasoak[73].

Haren lanik azpimarragarrienak zeintzuk eta hona hemen, gure eritxira, aukerakoenak:

a) Euskaltzaindiaren urre-ezteietan egindako hitzaldia (1968). Horra eroan zituan Erkiagak Azkue lekeitiarraren ahalak eta leherrak, Euskaltzaindia sortu eta bideratzekoak[74].
b) Eusebio M. Azkueri buruzko azterketa luzea, haren *Parnasorako bidea* egoki zertua emoten deuskuna (1974). Hauxe izan zan Erkiagaren hitzaldi sarrera, Euskaltzaindiaren araudiak beteaz egin ebana Lekeitioko udal aretoan[75].
c) Juan Bautista Eguzkitza euskaltzain osoaren ohorez eginiko jardunaldietan Lemoan bertan (1975) emon eban hitzaldi ederra, euskaraz inoiz idatzi dan soziologia liburu lehendabizikoaren egilea goraipatuz. Abade ha, lemoarra izanda be, urte askotan Lekeition bizi izana[76], lehen esan legez.

La resistencia a asumir cargos de responsabilidad en la Euskaltzaindia obedecía a las circunstancias políticas y sociales del momento. Creaba situaciones realmente comprometidas cualquier actuación en la defensa y promoción política del momento. La primera generación de la posguerra asumió la iniciativa con ideales neo-románticos, lo que suponía dedicar tiempo, soportar vigilancia policial e inspecciones y cargar con el dispendio que originaban los desplazamientos —hoy se diría la movida—, a cambio de nada. Esta actuación resultaba particularmente vidriosa para los profesionales de notable prestigio en la sociedad.".

[73] Besteak beste, adibidez, honako hau: «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1967-V-26». *Euskera* XIII, 1968. 328.or: "Erkiaga jaunak eman du Epailleko ta Jorrailleko diru-gorabeeren argitasuna: Bilboko Kutxetan eta Bankuetan zegoana, 37.316,17; geitua, 107.634,17; urritua, 28.723,71; dagoana, 116.226,63. Zertzeladarik aipagarrienak: geituetan, Bizkaiko Diputazioaren urteko emaitza (1967-koa) 100.000 (1/2 Azkueren iztegi-alde); Espasa-Calpe S. A.-gandik, Azkue zenaren eskubideagaitik, Euskalerriaren Yakintza-zkoa, 3.464. Urrituetan, Irigoyen jaunari ta Larrañaga andereñoari, bi illabete oietako eskupekoak 14.000, «Xenpelar Saria», bertso-papereri (1966 urtekoa), 5.000."

Euskaltzaindiaren eragile ekonomikoa dan Juanjo Zearretak be, ekintza horren barri behin baino gehiagotan emon deusku. Erkiagarengana joan Banketxera, hangoak atondu eta harengandik ikusi eta ikasi Euskaltzaindiaren diru-zertzeladak.

[74] Erkiaga, E.: «Euskaltzaindiaren urre–eztaiak, Erkiaga Jaunaren hitzaldia» liburu honetako 643. eta hurrengo orrialdeak.

[75] Erkiaga, E.: «Eusebio Maria de Azkue gizon eta idazle», liburu honetako 529. eta hurrengo orrialdeak.

[76] Erkiaga, E.: «Eguskitza Meabe, Juan Bautista (1875–1939) bere bizitza eta lanak», liburu honetako 552. eta hurrengo orrialdeak.

d) Nafarroa aldera be jo eban Erkiagak, gerra aurretik ezagun jakon Pablo Fermin Iriagarai, *Larreko*, idazle nafarraren deduz eginiko berbaldi mamitsuagaz[77].

Kanpora begira egindako lanaz aparte, barrurako be zer ekarria euki eban lekeitiarrak. Literatura lehiaketan maiz-sarri epaile, hainbat batzordetan kide eta guztiaren gainetik, kezkatsu eta grinatsu euskara eta euskararen ingurukoak zelan atondu eta moldatu horretan. Gramatika, joskera eta abar dira Erkiagaren erostak. *Idazlea zelakoa*, *hitzurrena be halakoa*, izan daiteke haren lelo asperrezina. Era berean, euskararen bizimoduak. Erkiaga, adi-adi, *Burtsa* hiztegiaren tarteko (1991)[78]. Premia berriei beraz, irtenbide egokiak emon behar eta horretarako prest, Erkiaga bera.

Aurretiaz idatzitakook, halandabe, ez leukie oso-osorik hartuko Erkiagaren jorana Euskararen Akademian. Euskararen batasuna eban erakunde horrek helburu haste-hastetik. Hasian hasi, luze joan jakon (ahaleginak ahalegin) akademiari horretan murgiltzea.

1968. urtea dogu horren erpina eta Arantzazuko bilkura zeregin horren urtenaldia. Erkiagak, guk dakigula, ez eban parte hartu bilkura horretan, mahaiburu izateko izendatuta baegoan be[79]. Ondorio eragingarriak ekarri zituan bilera harek euskalgintzan eta euskararen munduan.

---

[77] Erkiaga, E.: «Pablo Fermin Irigaray Goizueta "Larreko" (1869–1969)» liburu honetako 508. eta hurrengo orrialdeak.

[78] Arana Martija, J.A.:«Burtsako hiztegia». *Euskera* 3 (1991), 1149-1150: "Euskaltzaindiak maiatzaren 31an Baionan egin zuen osoen bilkuran, Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina izendatu zuen gai hau burutzeko arduradun, eta bileraren agirian agertzen denez, "E. Erkiaga eta X. Gereño gai horietan ikasiak direnez, beren esku utzi da eginkizun hau". Bileratik kanpo, eta batzordeño suntsikor hau osotzeko, Gurutz Ansola, burtsa-gaietan jakitun den jauna ere proposatu zuen Arana Martija jaunak, Zuzendaritzak izendapena onartu zuelarik."

[79] «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1968-VIII-30». *Euskera* XVI, 1971. 189.or: "Idazkariak, billeretarako gertatu dan araudiaren berri eman du. Ondorean, izlari ta gaien izenak: M. Lekuona, sarrerako itzaldia, batasuna zegaitik eta zertarako, batzorde teknikoaren lana adieraziz; Mitxelena, ortografiari buruz; Villasante, itzen formak zelan autatu eta zelan erabili; Zatarain, itz berriak zelan jarri eta erabili; S. Garmendia, deklinazioari buruz. Biltzarren maiburuko: M. Lekuona, Haritschelhar, Irigaray, Erkiaga, Lafitte, Larzabal, Irigoyen, Labayen eta Satrustegi jaunak, eta beretariko norbaitek uts egitera, bertara joaten diran euskaltzaiñak beteko dute."

Erkiagak beti maite eban horretan erdibidea[80]. Erakundearen erabakiei lotsa eta begirunea erakutsi eutsien eta haustura mingarrien aurrean erakundea izan eban beti barruan Erkiagak.

Hamar urte geroago be, 1978. urtean, Bergarako Biltzarra, ordu artekoari buruz gogoeta egiteko eta ausnarketaren ondorioak plazaratzeko. Balantze egiteko tertzioan Erkiagak, beste euskaltzain oso batzuekin batera[81], txosten berezia aurkeztu eban, bilkuraren ostean,

---

[80] «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1970-II-28». *Euskera* XVII, 1972. 228.or: "Erkiagak dio, Bizkaiko euskaltzalerik gehienak *H*-ren kontra daudela. Baina beste bizkaitar batzuek irten dira ezetz esanez. Iritziak ebakita daudela argi ikusten da."

ERKIAGA, E.: «Euskal-Antropologiazko II gn. astea», liburu honetako 650. eta hurrengo orrialdeak.

[81] «Euskaltzaindiaren Batzar Agiriak, 1978-X-27». *Euskera*: "A. Irigaray, E. Erkiaga, J. Gorostiaga, J.M. Lojendio, M. Lekuona, A. Iraizoz, A. Intza eta A. Labaien euskaltzain jaunen txostenaren berri eman da. irakurleen artean euskara idatziari buruzko inkesta egitearen aldeko azalduaz Bergarako Biltzarretarako izendatu zen estadistika batzordekoekin bilera batera dei egitea da, gai hontaz arduratu ziren ezkero, azterketa nola hobetu estudiatu ditzaten."

IRIAGARAY, A.: «L'Euskera "batua"». *Haize Garbia*. 2e trimestre (1979). 4-5. "Il y a un peu plus de deux ans, une de ces propositions fut présentée par des écrivains et académiciens de grande réputation (tels que Aquesolo, Barandiaran, Basarri, Carmelo Echenagusia, Erquiaga, Iriagaray, P. Iraizoz, Xavier Lete, Onaindia, A. Zubicaray, etc., Il s'agissait, concrètement, des points suivants qui leur paraissaient indispensables pour éviter les dissensions et les heurts des écrivains actuels: 1º Recommander le basque littéraire régional, loursqu'il y est en usage, dans les classes enfantines et primaires, de façon à pouvoir passer au «batua» lorsque la lecture et l'écriture régionales sont bien assimilées; 2º Accepter, pour le moment, l'orthographe dialectale traditionnelle et celle du «batua». Les Académies bretonne, gasconne, flamande, comportent les duex formes d'écriture. Cette liberté d'orthographe serait obligatoire, surtout dans les concours littéraires et pour les examens de futurs enseignants et andereños. Parmi ceux-ci, nombreux sont ceux qui connaissent le dialecte parfaitement, mais non le «batua». Ce serait une erreur de les exclure de l'enseignement. 3º Limiter l'usage de la lettre «H» aux cas recommandés à l'Assemblée de 1968, à Aranzazu, c'est-à-dire seulement dans les cas de rupture de césure, comme dans «aho», «ohe», «bihur», «zuhur», «zahar», «nahiz», etc., qui, dans plusieurs dialectes alternent l'occlusive; devant les démonstratifs comme «hau», «hori», «hura», ou d'adverbes «hemen», «hor», «han», qui présentent cette alternance dans certains dialectes comme le «aezcoano», le «salacenco», et le «roncalés» («gau», «gori», «kemen», «kor», «kan»). Accepter la palatalisation de «L», «N», comme le «Y», dont il y a de nombreux exemples tant au Nord qu'au Sud. Exemples: «Urruña», «Bithiriñe», «Aiñarbe», «Pollita», «Peillen», «Urdiñabe», de même que «Yuye», «Yayo», «Eya», «Iya», «Mayi», etc. Bien entendu, les prémisses mentionnées

Euskaltzaindiak aintzat hartu egian idazki haren edukia. Ez eban aurrerabiderik izan.

Harrezkero, Erkiagaren ibilbidea Euskaltzaindian moteldu egin zan. Bestetik be, pausatu egin zan. Makalaldiak jatorkoz. Badau, edozelan be, indar nahikorik Paulo Zamarripa euskal idazleaz jarduteko, Aita Villasanterentzako omenaldi liburuan[82].

Euskaltzaindiak zilarrezko domina emon eutsan. Berori jaso 1993. urteko maiatzaren 26an eta berehala harrapatu eban heriotzak bere atzaparretan, urte eta hil bereko 31an.

Villasante euskaltzainburu ohiak opa eutsan ohar nekrologikoak itxi eban bizien arteko Erkiagaren egina Euskararen Akademian[83]. Ez, jakina, haren itzal luzea eta, zalantza barik, eredugarria.

6. Gure argitalpena

Zaila da Eusebio Erkiagaren lanak argitaratzeko tenorean jarrita, zeri egin jaramonik. Lehenengo berberari, hau da, berak emon eban eduari eutsi ala ikutuak egin, hur-hurrekora ekarri eta itxuraldaturik emoteko harek aspaldian idatzi ebana. Bi-biok erkatu ditugu eta ebatzia, bistan da, lehenengoari oratzea izan da. Ez guztiz eta oso-osorik, aldakuntza txiki batzuk zilegi begitandu jakuz eta.

Horrexegatik gorde dogu haren idazkera moldea. Badira horretarako arrazoiak; besteak beste, Erkiaga XX. mendeko idazlea izatea edota euskararen euskalki desbardinetan jardutea sarri-sarri, garaian garaikoak bete zituala be ahaztu barik.

---

ci-dessus concernent exclusivement les écrivains de Sud. Ceux du Nord, qui recommandaient beaucoup de prudence en la matière, ont changé d'opinion. Avant, ils demandaient que l'on ne modifie pas l'écriture dans la partie Sud. Maitenant, ils ne pensent pas aux difficultés que vont éprouver de nombreux lecteurs et écrivains traditionnels qui, sauf exception, n'employaient pas et n'emploient pas le «H» aspiré. Il serait difficile, mais bénéfique et désirable, d'unir les deux orthographes, mais il est un peu tôt pour le faire."

[82] Erkiaga, E.: «Zamarripak eu—/au— adiztaiu aldaera ixila, bere azken gramatikan», liburu honetako 673. eta hurrengo orrialdeak.

[83] Villasante, L.: «Eusebio Erkiaga Alastra (1912-1993)». *Euskera* 38 (1993). 377-379.

Gerra ostekoa, beraz, dagoan-dagoanean doa, ezelako eskusartzerik bage. Gerra aurrekoan egin ditugun aldakuntza bakarrak eta txikitxoak bi motatakoak izan dira: *r̄/rr; l̄/il; t̄/it.*

Aditzak be eurenetan dituzu. Hiztegigintzaren gorabeheratan erabilgarriagoa eritxi deutsagu liburuaren azken aldean goitik beherako zerrenda emoteari, banan-banan eta oin-oharretan zehazteka. Oin-oharrak eurak be, izartxodunak izan ezik, Erkiagarenak dira, jatorrizko testuan datozen modu berberean.

Erkiagaren idazluma aberatsa izan danik ezin izkuta. Aberastasun horretan, barroko tankera be azpimarratzeko modukoa[84]. Horri men eginda eta Erkiagak eban euskara ezagutza aintzat harturik, liburuaren azkenaldean dator gorago esandako hiztegi txikia, hiztegiñoa, hain zuzen be, haren berba urtenenak eta bakanagoak erakutsiak eta erraztuak euki dagiazan irakurleak. Helburua irakurleari lagungarri izatea da; ez, ostera, Eusebio Erkiaga zanaren hiztegi osoa emotea.

Bestelako erizpide zehatza be erabili dogu Erkiagaren letragintzan. Jakin badakigu haren lumatik lan gehiago be izan dirana, sinadurarik bagekoak eta haren nortasuna agerian ez dala. Soil-soilean batu ditugu berak izenpeturikoak, izenaz nahiz izenordeaz. Horregaz bermaturik dogu, besterik ezpada, egilearen jatorrizkoa. Horri emon deutsagu lehentasuna, alferreko kopurutza eta orohartzailetza barik.

Data be, sarri askotan, desbardina; bateko, egitada noiz gertatu eta besteko, horren lekukotza idatzia noizko argitaratu. Begien bistakoa da etena hitzaldiak argitaratzean. Gurean, esan dagigun zehatz, argitaratze data da beti zedarriztatzailea. Argitaratze ezaugarririk aurkitu ezinean ibili garenean *¿?* ikurra jarri dogu, kasu horreek nabarmentzeko.

Jakin badakigu be bazterren bat arakatuz gero, hor nonbait harrotuko dala hona batu bageko lanik. Erkiagarenak izanik, ondo etorriak izan daitezan lanok eta berebat bazter-astintzaileok be. Guk,

---

[84] ETXENAGUSIA, K.: *Euskal Idazleak Bizkaieraz.* Labayru ikastegia, Bilbo, 1980. 204. or: "Beste euskalki batzuk ere maisuki landu ditu gure lekeitiar onek, baiña Bizkaiko euskerea zeatz, aberats, zuzen erabilten gutxi lakoa dogu: iztegiz ondo ornidua —orniduegia?—, joskeraz eta morfologiaz zuzen beti, literatura mota asko landu izan ditu, eta, bere lanetan jaioterriak berarizko leku kutun bat dauka".

ordea, itxiak baino, idegiak doguz, oraindik be, Erkiagarenak, eurak oso-osorik agortu ez ditugulakoan.

Erkiaga zanak be, inoizko baten bere burua erakusteko premina izan ebanean, zer noiz egin eta nondik bideratu tajuz azaldu eban eta zerrendaratu. Bueltan-bueltan Lekeitioko Udalak eskaini eutsan omenaldia zala eta, aurkitu eban harek horretarako abagadune aproposa. Orduantxe ondu eban *Opera Omnia*, biobibliografia hornidua (1988). Berori eraldatu dogu hona, argigarri gisa eta harek mamitu eban molde berean.

Irakurle jakinguratsuak, aldiz, berebiziko zirrara euki leike haren aztarnak eta hil osteko geroaldiak ezagutzeko. Horren erantzuna da argitalpen honetarako prestatu dogun Eusebio Erkiagari buruzko bibliografia. Hor dira Erkiagari buruz nork zer idatzi dauan. Liburu honetara batu danaz kanpo be badau horrek, Erkiagaren emoitza osoa hartzen daualako bere barruan. Izan bekio lagungarri berori erabiltzeko beharra dauanari.

Begoz, baita be, hiru aurkibideok, gaia, data eta alfabetoaren arabera eginak. Horreei buruz gorago esan doguna ez dogu barriro azalduko. Hortxe ditu irakurleak Erkiaga zanaren langintza goitik behera sailkatua, hiru irizpide desbardinetan.

7. Eskerrak emotea

Eskerrak emotea be zilegi bekigu. Lehendaurrez Eusebio Erkiaga zanaren familiakoei: Mertxe Telleria Angulo alarguna eta Esther, Francisco Jabier, Eloisa eta Sara seme-alabei; gero, Rufo Atxurra —harako *Urrupo laguntzarra*, Erkiagaren berbetan— adiskide lekeitiarrari. Euren laguntza barik liburu hau egundo be ez genduan kalean ikusiko. Geuk be, Erkiaga zanaz eta Lekeitioagaz baditugu gure zorrak eta lorrak. Horreek, zati baten sikeran, kitatu ditugulakoan gagoz. Ez, beharbada, lagun talde bategaz ditugunak. Lekeitioko *Abarketa* koadrilakoei, beraz, eskerrak taldekide izan garan —eta garan— aldetik. Hemen diran hainbat ideia eta kontu, Lekeition bertan garandu izan dira, kalerik kale eta auturik autu, gu guztion artean. Hi heu be, Gogenola, horren errudun, behinolako zirikada euskaldun haregaz biztu henduanak ekarri daualako gerogarreneko hau.

Ezin alboan itxi gure maisua, literaturaren hainbat alorretan eta honako be ekarri zorrotza egin dauana. Eskerrak eta besarkada beroa Karmelo Etxenagusia gure artzainarentzat.

Bide batez, Labayru Ikastegiko Adolfo Arejita eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskara zuzendaria dan Gotzon Loberari be, eskerrak emon behar, liburu honen argitaratzea bideratu dabelako. Beti adeitsu eta abegikor hartu gaituen Euskaltzaindiaren AZKUE Bibliotekako Nerea eta Josuneri eta Derioko Labayru Bibliotekari berebiziko aitamena. IRALE eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Biblioteka gomutan euki behar, eskerrik gogokoenak eskaintzeko orduan.

Bada, edozelan be, liburu honetan laguntzaile apartekoa. Izena dau Aitziber Urkiza. Izana, euskal filologian aditua eta euskalgintzako lanetan ibilia. Izena eta izana bat datozelakoan, bera izan da hainbat ordenagailu-lan, bilaketa eta abar gauzatzeko garaian, era-erara izan dogun esku trebe, gogaitezina eta adiskidetsua. Ezin Gotzon Isasi eta Itziar Garamendi alboratu, eurena izan zalako lan honetarako lehen laguntza eta eragina. Cesar Gallastegi, Esther Urrutia eta euskaltzainkide dodan Jose Antonio Arana Martijari be goresmenak, testua atontzeko eskaini deustien laguntzagaitik.

Familiakoak be aintzat hartu behar, euroi ostutako orduak tartean izan diralako. Josefina biak, Itziar eta Ane, bihotz-bihotzez, eskerrik asko.

Andres Urrutia

EUSEBIO ERKIAGARI BURUZKO BIBLIOGRAFIA*

A. N.: «Eusebio Erkiaga idazle eta euskaltzaina hil da». *Deia*, 1993-VI-2.

AKESOLO, L.: «Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Jaioko dira*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1984. 7-14. orr.

AMEZAGA, E.: *Autores vascos* III. Bilboko Udala, Bilbao,1988. 262. orr.

APAT-ETXEBARNE: «Txomin Agirre nobela-saria Erkiaga jaunarentzat». *Egan* 5-6 (1959), 184.

AREJITA, A.: «Jaun Eusebio gogoan». *Egunkaria*, 1993-VI-9.

ARGUELLO, X. Gª.: «E. Erkiaga: "Zaharretan zaila da birziklaia"». *Hemen*, 1988-III-18.

ARMAÑANZAS, E.: «Eusebio Erkiaga, medio siglo de creación en euskera». *Deia*, 1988-II-20.

ATXAGA, M: «Eusebio Erkiaga Alastra (1912-1993)». *EAJ eta euskara, ehun urteko bide malkartsua*. Sabino Arana Kultur Elkargoa, Bilbo, 1996. 70-72. orr.

—«Eusebio Erkiaga». *Deia*, 1993-VI-2.

AULESTIA, G.: «Un siglo de literatura vasca (I, II, III)». *Sancho el Sabio* 7 (1997), 58-60.

---

* Obra osoaren titulua emoten da bertan Erkiagari buruzko aipamena orokorra danean. Aldiz, Erkiagaren inguruko kontua beren-beregi emoten danean, aipamen eta obra osoaren oharrak be emoten dira. Berebat aldizkari eta egunkarietako gorabeheratan.

—*Escritores Vascos, Cuadernos "Sancho el Sabio"*. Fundación Caja Vital Kutxa, Gasteiz, 1996. 35. or.
—*Euskal Idazleak, "Sancho el Sabio" koadernoak*. Fundación Caja Vital Kutxa, Gasteiz, 1996. 35. or.
AUÑAMENDI: *Enciclopedia General ilustrada del País Vasco, Literatura*, IV. Auñamendi, San Sebastian. 212. orr.
AUÑAMENDI: *Enciclopedia General ilustrada del País Vasco, Diccionario Enciclopedico Vasco*, Cuerpo A, XI. Auñamendi, San Sebastian, 1980. 146. or.
AUZMENDI, L.; BIGURI, K: «Itunben ekonomikoaren legea-Eusebio Erkiaga». *Itzulpen Antologia I*. Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea, Zarautz, 1996. 191. or.
BADIOLA, M. P.; LÓPEZ, J.: *La literatura en la lengua vasca*. Ed. Cincel, Madrid, 1981. 69. or.
BILBAO, J.: *Enciclopedia General ilustrada del País Vasco, Bibliografía*, III. Auñamendi, San Sebastian. 161. or.
EGIN: «Eusebio Erkiaga euskaltzaina hil zaigu». *Egin*, 1993-VI-2.
ELORDIETA, A.: *Eusebio Erkiaga: 1932-1935*. EHUko Euskal Filologia saila. Argitaratubakoa,1991.
ETXARRI, J.: «Eusebio Erkiaga: "Idazleak jantzia behar du izan"». *Deia*, 1988-III-17.
ETXEBARRIA, A.: «Eusebio Erkiaga: Bere idazlanen ikuspegi orokorra». Argitaratubakoa, 1988-V-17.
ETXEBARRIA, I.: «Eusebio Erkiaga Olerkari». *Karmel* 3 (1993), 53-73.
—«Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Txurio Txoria*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1986. 7-20. orr.
ETXENAGUSIA, K.: *Euskal Idazleak Bizkaieraz*. Labayru ikastegia, Bilbo, 1980. 204. orr.
—*Eusebio Erkiaga idazleari Bizkaiko Foru Ahaldundiak egindako omenaldian berbaldia*. Argitaratubakoa. Bilbo, 1992, maiatzak 22.
Euskal Hiztegi Entziklopedikoa. Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia, 1995. 999. or.
GARATE, G.: «Eusebio Erkiaga». *Deia*, 1981-XI-21.
Hiztegi Entziklopedikoa. Elhuyar Kultur Elkartea, Usurbil, 1993. 483-484. orr.
Harluxet Hiztegi Entziklopedikoa. Klaudio Harluxet Fundazioa, Donostia, 1998. 490. or.

IEKOA (URRUTIA, A.): «Erkiaga Alastra, Bitor eta Eusebio (G.B.)». *Zer* 192 (1995), 7.
J. A.: «Araibar zalduna». *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de amigos del País* 2 (1962), 214.
JUARISTI, J.: *Literatura vasca*. Ed. Taurus, Madrid, 1987. 115. or.
KAMINO, I.: «Eusebio Erkiaga Alastra (Endaitz)». *Argia*, 1982-XII-26.
KORTAZAR, J.: «Bide ezagunak sakontzen». *Eguna*, 1987-VII-9.
—«Eusebio Erkiagaren lana *Euzkerea* aldizkarian». EHUko Euskal Filologia saila. Argitaratubakoa, 1990.
—«Eusebio Erkiagaren lana *Yakintza* aldizkarian». EHUko Euskal Filologia saila. Argitaratubakoa, 1990.
—«Ohiturazale, baina erabateko lirismoaz». *Deia*, 1993-VI-2.
—«Olerkari gazteak, Onaindia, Erkiaga». *Euzkerea eta Yakintza aldizkarietako olerkigintza*. Labayru Ikastegia, Zornotzako Udala, Bilbo, 1995. 115-124. orr.
—*Eusebio Erkiaga*. Bidegileak bilduma. Eusko Jaurlaritzako Kultur saila, Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, Gasteiz, 1997.
—*Literatura Vasca Siglo XX*. Etor, Donostia, 1990. 116. orr.
—*Euskal Literatura XX. mendean*. Prames, Zaragoza, 2000. 137-138. orr.
Lur Hiztegi Entziklopedikoa. Lur argitaletxea S.A., Donostia, 1991. 53-54. orr.
MEABE, M. A.: «Eusebio Erkiagaren nobela». *Karmel* 3 (1993), 75-97.
MEABE, M. A. eta beste batzuk: «Ez daukagun itsas-hiztegi baterako zenbait hitz». *Hegats* 28 (2000), 12-14.
MENDIZABAL, F.: «Eusebio Erkiaga jaunari Domingo Aguirre sariaren ematea». *Euskera* V (1960), 421-424.
MENDIZABAL, J. M.: «Bizkaiko Aldundiaren euskal sariak idazle "zahar" trebeen eskuetara». *Deia*, 1987-III-5.
MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren Gerraosteko Elaberrigintza (1958-1964)*. Labayru Ikastegia-Zornotzako Udala, Bilbo, 1995.
MINTEGI, L.: «Eusebio Erkiaga: Berrogeitamabost urtez idazle». *Argia*, 1986-XI-16.
MITXELENA, K.: «Arranegi». *Egan* 1-2 (1958), 102-105.
—«Eusebio Erkiaga. *Batetik bestera. Galdu-gordeko ibillerak*». *Egan* 4-6 (1962), 303.

—*Historia de la literatura vasca*. Erein, Donostia, 1988. 148, 159. orr.
OCAMICA y GOITISOLO, F.: «Benefactores e hijos destacados de la villa». *La villa de Lequeitio*. Diputación de Vizcaya, Bilbo, 1966. 250-252. orr.
ONAINDIA, S.: *Euskal Elertia*. Ibaizabal, Euba (Zornotza), 1978. 213. orr.
—*Mila Euskal-Olerki Eder*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1976. 707. or.
—«Eusebio Erkiaga olerkari». *Zer* 68 (1983), 14-15.
—«Eusebio Erkiaga, olerkari». *Zer* 119 (1988), 8-9.
—*Bizkaiko Olerkariak*. Igarri, Bilbo, 1990. 263. or.
—*Euskal Literatura* VI. Etor, Donostia, 1990. 212-216. orr.
RESURRECCION Mª de AZKUE IKASTOLA: Eusebio Erkiaga (Ispiluan) bideoa. *Anteron Txamarrotia*, 1991.
SAN MARTIN, J.; BASAURI, S.: «Eusebio Erkiaga». *Hegatsez*. Itxaropena, Zarautz, 1971. 140. or.
SAN MARTIN, J.: *Escritores euskéricos*. La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbo, 1968. 80. or.
SAN SEBASTIÁN, K.: «Cuando se pierde la esperanza». *Deia*, 1987-III-5.
SARASOLA, I.: *Historia social de la Literatura Vasca*. Akal, Madrid, 1982. 158. or.
—*Euskal literaturaren historia*. Lur, Donostia, 1971. 60, 76 eta 131. orr.
—*Gerra ondoko Euskal-Poesiaren antologia (1945-1964)*. Lur, Donostia, 1973. 41, 105, 115 eta 153. orr.
SARRIUGARTE, I.: «Erkiagaren giroa eta bere nobelagintza» in Eusebio Erkiaga: *Batetik bestera*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1985. 7-41. orr.
—«Eusebio Erkiaga Alastra». *Bilbao, Pérgola, suplemento cultural* 21 (1993), IV. or.
—«Sarrera» in Eusebio Erkiaga: *Arranegi*. Labayru Ikastegia-Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo, 1993. 7-26. orr.
TORREALDAI, J.M.: *Euskal Idazleak, gaur*. Jakin, Oñati, 1977. 77, 152, 187, 310, 405, 450, 519, 580 eta 584. orr.
—*Euskal kultura gaur*. Jakin, Oñati, 1997. 324, 458, 465, 687 eta 700. orr.

—*XX. Mendeko euskal liburen katalogoa (1900-1992)*. Gipuzkoako Foru Aldundia, 1993. 514. or.
UGALDE, M.; ISUNTZA, «El lekeitiarra Eusebio Erkiaga lleva 60 años de "militancia en el euskera"». *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, 1988-V-28.
UGALDE, M.: «Eusebio Erkiaga». *Egunkaria*, 1993-VI-8.
URKIZA, J.: «Eusebio Erkiagaren olerkien bibliografia aldizkari eta egunkarietan». *Karmel* 3 (1993), 27-32.
—«Eusebio Erkiaga-Santi Onaindia aurten sarituak. Alkarrizketa». *Karmel* 3 (1988), 82-89.
—*Aldizkari eta egunkarietako euskal bertso eta olerkien bibliografia*. Karmel sorta-11, Markina-Xemein, 1999. 312. or.
URKIZU, P.: *Historia de la Literatura Vasca*. UNED, Madrid, 2000. 507, 526 eta 587. orr.
URRUTIA, A.: «Arranegitik Arranondora». *Karmel*, 3 (1993), 3-25.
—«Berbalauaren kulunkan: Eusebio Erkiaga». *Euskalkien lekua literaturan*. Mendebaldeko Kultur Elkartea, Bilbo, 1999. 57-75. orr.
—«Eusebio Erkiaga, medikuntza arloko itzultzaile: zain tiratu, zain urratu, zaina bere lekuan sartu (I)». *Karmel* 2 (1997), 3-37.
—«Eskribautzaren hiztegi ttipia, Eusebio Erkiagaren eskutik». *Karmel* 1 (2001), 31-49.
VILLASANTE, L.: «Eusebio Erkiaga Alastra (1912-1993)». *Euskera* 38, (1993, 1), 377-379.
—*Literatura vasca. Tesoro breve de las letras hispánicas. Serie mosaico español I*. E.M.E.S.A., Madrid, 1972. 318. orr.
XX. «Eusebio Erkiaga-k irabazi du 1958'garren urteko "Domingo Agirre" novela-saria». *Euskera*, IV, (1959), 242-243.
—«Eusebio Erkiaga-k irabazi du Domingo Agirre novela-saria». *Karmel*, 185, (1961). 185.
ZABALA, E.: *Euskal Literatura*. Pax, Lazkao, 1979. 217. or.
ZABALA, J.L.: «Adiskide ona eta abertzale handia». *Egunkaria*, 1993-VI-2.
—«Eusebio Erkiaga idazlea hil da». *Egunkaria*, 1993-VI-2.
ZALAKAIN, J.M.: «J.M. Zalakainek puntua jarrita». *Eguna*, 1989-XII-3.
ZARATE, M.: *Bizkaiko Euskal Idazleak*. Derioko Seminario-Ikastetxea, Bilbo, 1970. 258. or.
ZUBIKARAI, A.: «Erkiaga». *Deia*, 1988-V-30.

—«Eusebio Erkiaga idazlea omendu zuen atzo Bizkaiko Foru Aldundiak». *Deia*, 1992-V-23.
—«Eusebio Erkiaga». Argitaratubakoa, 1987-V-17.
—«Bizkaiko antzertia. Egiliak eta lanak». *Gerra osteko literatura*. Labayru Ikastegia, Bilbo, 1989. 67. or.
—«Eusebio Erkiaga». *Karmel* 3 (1993), 102-108.
—«Gogoeta mintsuak». *Deia*, 1993-VI-2.

OPERA OMNIA 88*

1930 azaroan Lehenengoko prosa lana, euskeraz, astekari baten. *Edo* izenordea. Harrezkero, *Euzkadi* egunkarian, *Ekin* astekarian olerkiak eta idaztelanak. Eta olerkiak, baita Donostiako *Yakintzan*, eta Bilboko *Euzkerea*n be. Izenorde barria, *Endaitz*.

1933 Getxoko Euzkel-Egunerako "Olerti guduan" 2 g. SARIA, "Abenda irrintzia" olerkiaren izena.

1934 Ondarroako Euzkeltzale-Bazkunak eraturiko Santa Iagedaren koplak batzaldian, 2 g. Saria.

1936 Lekeition, bagillaren 28-an, VII Olerti Eguna. Olerti Aipagarria: bere "Lora gorriak".

1936 azaro-abenduan, Bilbon, Augustin Zubikarai lagun ebala, "Euzkadi" egunerokoan atal barria: "Guda-otsak".

1937 Bilbon, urtarrilaren hasieratik bagillaren erdirarte, *Eguna* egunkari euskaldun bakar haretako erredaktore, bost hilabete ta erdian.

Ixilaldia, alper

1950 Donostian *Egan* aldizkaria sortu ebenean, 2g. zenbakian Sei Olerki argitaratu, "Ixil-ondoko olerkiak".

1950 Platon-en *Parmenides* gaztelaniatik euskeraratu. Lan aldendua.

1950 Donostian "Educación y Descanso" zelakoak eleder-batzaldia, eta olerkietan 2 g. Saria *Nekazariarena*. Lehenengo olerki saria hutsik laga eben.

---

* Biobibliografia hau Eusebio Erkiagak berak egina da 1988. urtean, Lekeitioko herriak egin eutson omenaldiaren erakusketarako.

1951 Barriro be, Donostian, "Educación y Descanso"-ren batzaldian, Teatru lanean Lehenengo Saria, *Sinisgogorra* antzerkiari. Eta olerkian 2 g. Saria "Azkueren heriotzan".

1955 Euskaltzaindiak, eleder-batzaldia, nobela originalak edo itzuliak, 3 g. SARIA. Euskeraturiko lana, Georges Simenon-en *Aspaldiko Maigret*. Lan hau be, aldendu dabe Eibarren.

1956 Lapurdiko Saran, lehenbiziko Saria. Olerkiaren izena: *Axular haundiari ohore.*

1958 *Arranegi* nobelea argitaratu, 1950 g. idatzirikoa. Zarautzeko Itxaropenak, Kulixka sortan agertu eban. Bizkaiko Junta de Cultura-k, bizkaitarrak egiñiko lanei goralpena, eta 5 g. Saria emon eutsoen.

1958 Euskaltzaindia-ren batzaldian, "Txomin Agirre Saria" giputz idatzi eban *Araibar zalduna* nobeleari.

1959 Aretxabaletan, *Loramendi* zanari omena. Teatro lehenengo SARIA, *Kanpaien atsekabez* lanari.

1960 Lekeitioko Antiguako Amaren koronaziñorako ereserkiaren letrea, "Elorri zuri ganeko Andra zoragarria..."

1961 Barriro be, Euskantzaindia-ren nobela batzaldian, "Txomin Agirre Saria". Eleberria: *Batetik bestera.*

1962 Euskaltzaindiak antolaturik geratu eta zozketea egin ebalako epai-mahaiak. "Illobi izengabea" olerkiaren izena. *Egan*-en argitaratu eben.

1965 Euskal Kanta III g. Jaialdian, Bilbon, boskarren saria, "Lekeitio" abestia. Musikea ta letrea, Erkiagarenak. ..."Itsasondoan medien oinetan dagoan herri txiki zoragarria. Ene sehaska, neure Lekeitio, herri guztietan maitiena..."

1969 Donostiako Agora-ren batzaldian, Gipuzko Olerti Saria bere poesia honeri, "Aritz jeikian". Nobela alorrean, bere *Irrizuri* finalista geratu zan.

1971 Arrasaten "Kanta Berri Jaialdian" Lehenengo Saria bere letrea "Guria": "Guria, Guria, goizaldeko argia..."

1984 Bilboko Udalaren Ipuinen sariketan, 1 go. Saria. Ipuiñaren izena "Untzorritxu".

1984 *Jaioko dira* nobelea argitaratu Bilboko Labayru Ikastegiak[1].

---

[1] Sarrerea aita Lino Akesolok.

1986 Bizkaiko Aldundiaren Lehenengo Saria. Nobelea, "Irribarrea galtzen danean". Nobela hori 1987 urtean agertua.
1985 Ondarroako Kultur Etxeak "Taloa ta arraiña" ipuiñari Lehenengo Saria.
1985 *Batetik bestera* elebarria, barriro argitaratu Bilboko Labayru Ikastegiak. Sarrera, Iñaki Sarriurgartek.
1986 *Txurio Txoria* nobela barria argitaratu Bilboko Labayru Ikastegiak. Sarrera, Igone Etxebarriak.

Ba dira beste ipuin batzuk, Euban IKA-k argitaratuak.

1964-1970 bitartean, euskeraz agertzen zan aldizkaria, *Boletín Informativo del Banco de Vizcaya* horren euskal ardura osoa eta itzulpenak erderara zentsurarako. 28 zenbaki agertu ziran. Ameriketako ta Australiako euskaldunei bialtzen jaken, dubarik, papel biblian egiña.
... Bilboko *Anaitasuna* aldizkarian artikulu batzuk, Kalekoa izenez.
1978 G. Arestiren omenez, haren heriotzan egin eben liburuan, "Kanpaiak ere behar ditugu" olerkia, beste 36 lan artean.
1979-83 Bizkaiko Batzar Nagusietako *Agiriak* euskeraz ipini zituan.
1981 Concierto Económico, Ituben Ekonomikoaren testu osoa euskerara itzuli eban. Egin dauan lanik gatxena.
1988 Balentin Berrio-Otxoa santu egingo daben unean, Erroman abestuteko Himno barriren letrea egin dau: "Euskaldunen lurrean jaiorik, joan zinan urrunera..."
1952 Euskaltzaindiko Urgazle izentau eben.
1963 Euskaltzain Oso. Euskaltzain osoak 24 dira Euskalerrian.
1968 Bilboko "Euskerazaleak" eratu zanean, bigarren bazkide sortzaillea.
1976 Bilboko Labayru Ikastegiak "Miembro de Honor" izentau eban.
1987 Euskal Telebistan "Euskaldunek hitza" sailean, 13 lagunetarik bat.

Euskal-epaikari lanetan

Bizkaiko Bertsolarien Txapelketetan lau urtetan epaile, herririk herri. Zornotzako Larrako Olerti-Egunetan, 17 urtetan epaikide.

Laukinizen, "Lauaxeta" Olerti Sariketa, 4 bidar epaile.
Bilbo Kutxako "Azkue Sarietan", 13 urtetan epaikide.
Eta Euskaltzaindiko Sariketa batzuetakoa.

Lan gehiago argitaratu:
Donostiako *Zeruko Argia*-n.
Larrako *Olerti* aldizkarian.
Larrako *Karmel* aldizkarian.
Guatemalako *Euzko-Gogoa*-n olerki batzuk.
Arenginako *Gernika* aldizkarian, prosa ta bertso. *Erkiagarre* izenordeaz.
Bilboko Labayru Ikastegiko *Idatz* & *Mintz* aldizkarian lan batzuk.
Idatz & *Mintz* horretan argitaratzeko da aurten, kantu biko poema hauxe: *Ez zaitez Gernikara joan*, *Lauxeta.* Orain urte bi idatzia.
Beste poema bat, hamasei kantukoa darabil eskuartean, epika eredukoa.

Abestien euskal-letrak

Anton Larrauri-ren hainbat musika lani: *Ezpatadantza*, *Dirdiz*, *Zaintsu*, *Portu-errota*, *Itzali ezina*, *Orain eta beti*
Fluctuante = *Hauxe da lur arrotza!...* (1969)
Venecia-rako, Musika aurrerakoirako lan berezia Illun, euskal-letraz (1977).
Rafael Ruiz de Lejarzari, bere zortzikoen euskal-letrak: "Baserriko kanpaiak", "Santimamiñe", "Gernika apurtu da".
Patxi Bengoari, hainbat abesti euskeraz eta zarzuela osoa, Oiñazez.
Aita Ruperto Iruarrizagari, abesti batzuk.
Komentuko Dominikentzat, 600 urteurrenean, abestia, musika ta letrea: "Lumentxa barrenean..."
Iñazio Aretxabaletaren kanta batzuei, euskal letrak.
Gure San Antolin, Jagoleari be bai, kanta baten letrea.
"El ciego y el capitán" maixio zarzuelako kantaldietarako, euskeraz. P. José Julio Mar idazlearen erdal-lana.

Euskereari edo literatureari buruzko hitzaldiak

1935 Ondarroan, Txomin Agirreren omenez.

1964 eta 1977, barriro Ondarroan, Txomin Agirreri buruz.
1964 R.M. Azkueren jaiotzako ehunurtegarrenean, "Gora-Buru" antzokian.
1965 Donostian, "R. M. Azkuez nik entzunak eta irakurriak", Udaletxe zaharreko areto nagusian.
1966 Mañarin, "Kirikiño" zanaren omenez, plazan.
1960 Zornotzako Larrako komentuan, Olerti-jaian, "Eusebio Mª Azkuez".
1961 Zornotzako Larrako komentuan, Olerti-jaian, "Juan Manuel Etxeita nobelagille mundekarraz".
1962 Zornotzako Larrako komentuan, Olerti-jaian, "Aita Kandido Basabe, lekeitiar idazleaz".

(Hiru hitzaldiok, *Olerti*-n argitaratuak).

Hitzaldiak Euskaltzaindiko jaikundeetan

1969 Bilbon, Aldundegian, Euskaltzaindiaren Urre-ezteguetan.
1973 Nafarroako Auritz (Burguete)-n, Fermin Irigarai *Larreko* euskal idazle eta zirujau ospatuaren omenez.
1973 Lekeition, Akademiko Sarrera hitzaldia, "Eusebio Maria Azkue, gizon eta idazle poeta".
1975 Lemonan, Juan Bautista Eguskiza Meabe zanaren omenez, haren jaiotzako ehunurte buruan. Gure artean hainbat urtean bizi izan zan eta lan egin eban Eguskiza abade on ta jakintsua.

Lau Hitzaldiok Euskaltzaindiko *Euskera*-n argitaratuak.

1984 eta 1987, Bilbon, IRALE-ko irakasleei hitzaldi bi; lehenengoan, "Bizkaiko idazle batzuei buruz", eta bigarrenean, "Euskera batuaren istorio laburra".
1977 Kardaberaz Bazkunak egindako liburu batzuetan, don Manuel Lekuonari bizi zala omena, artikulua III bilduman: "Anaforikoak aldez edo moldez".
1985 Bizkaiko Aldundegian, Augustin Zubikarairen omenez hitzaldia.
1987 Bizkaiko Aldundegian, *Irribarrea galtzen denean* liburuaren agerpena. *Idatz & Mintz*-en argitaratua, 15 g. zenbakian.

Antzerki-lanak

1934 *Antzerki-jaian izan naiz*, bakarrizketa, Tolosako *Antzerti* errebisteak saritua.
1936 *Askatasun-bidean* (estanpa antzekoa, Estatutoaren aldekoa). Lekeition agertu genduan, eta *Euzkadi* egunkarian argitaratua.
1951 "Sinisgogorra", ekitaldi bakarrekoa. Donostian 1951 urtean Lehenengo Saria. Geroago, 3 ekitaldira hedatua.
1954 *Kaia ta estalpea* Andra Mariaren omenez. Ekitaldi bakarrekoa.
1956 *Bake-eguna* Gabon giroko lantxua. Ekitaldi bakar.
1959 *Ate-osteko irudiak* Antziduri irrizkoa. Ekitaldi bakar.
1959 *Kanpaien atsekabez* Aretxabaletan sari Lehenengoa. Lau uneko lantxua.
1959 *Alperrontzi* lan guztiz laburra, irrizkoa. Hiru-lau lagunek antzeztutekoa. "Txinparta" taldearentzat idatzia.
1962 *Amandarrikuak* estanpak, Lekeition agertu ebezenak. Txomin San Sebastian-en eskariz egiñak baiña *Arranegi* nobelan dabez oinarriak.
1968 *Oiñazez*, zarzuela erakoa, hiru ekitaldita. Musikea, Patxi Bengoak idatzia.
1970 *Gau batean*, hiru ekitaldikoa. Gizarte-burruka kutsuko.
1986 *Tarot argi, Tarot illun.* Jolas-hariko lantxua.

Olerki luzeagoak (laburrak hainbat eta hainbat dira)

1952 Barcelonako Eukaristi Batzarrerako bialdua, ez da hain luzea. "Eucharistia, bake-oturuntz".
1959 Bizkaiko Erromantzea. Bilboko Lore Jokoetarako idatzia.
1961 "Guraria".
1964 "Zelai bizi". Poema luzea. Itsasoa bera da kantagai.
1965 "Saiets-ezurretan"
1967 "Bilbori agurra".
1969 "Aritz jekian", Donostia, Gipuzko Olerti SARIA.
1970 "Gizona, itz ona".
1973 "Isillak jan ditu". (Burgosen 1970 g. epaipetuak gomutan izanik)
1977 "Garaiz" ("Xalbador Sarirako" bialdua. Alperrik)

ANTZERKIA

AZKATASUN BIDIAN*

(Antzerkiño laburra)
Antzez – notiñak
EUZKADI, emakume bat, euzko-baserritar jantzija.
EUZKOTARRA, gixon bat baserritar jantzija.
ESKUMATARRAK, erri-gixon talde bat, Iru edo lau.
ESKERTARRAK, erri-gixon talde bat. Iru edo lau.

ANTZEZTOKIJA: Gernika'ko Aretxa dagon tokija: Aretxa: goi-buru: Gurutza. Esker-aldetik, Batzar-Etxia (iduriz, margoztu bage). Eskumaldetik, kalia.

Egintza bakarra

LENENGO ANTZEZKIJA

EUZKADI.— (Zutunik). ¿Zelako semiak nire semiak! Neu ixan euren ama, eta eznabe maite. Gitxi batzuk maite nabe, beste batzuk enabe amatzat ezagutu gura. Ba-dira gorrotua dausten semiak be. Eta neure semiak ixan ez arren, neure etxian pozez artu nebazan arrotzak be, amurrua besterik ez dabe niretzat. ¿Seme gaiztuak! Neuk lagunduriko atzerritarrak be, ¡Arrotz esker-bakuak!
¿Noiz-arte ibiliko dira nire semiak eta etxian daukadazanak nire aurka? Neu naz euzkotarren Ama, (Bijozki) Neu naz Euzkadi... eta semiak ilten nai nabe itxi!... (Jezarten da Zugazpeko bakaulkijan).

BIGARREN ANTZEZKIJA
"Euzkadi" eta "Euzkotarra"

EUZKO.— (Seme bijoztsuba esker-aldetik sartzen da eta Ama'ri diñotso maitez eta adorez). Etzara ilgo, Ama, etzara ilgo.
EUZKADI.— (Laztanki). Zeu zara, seme maitia? Itxaropena dakadazu.

---

* *Euzkadi*, 1933-X-25.

EUZKO.— Maitasuna dakartzut, Ama, maitasuna.

EUZKADI.— Askok esaten dauste maite nabela.

EUZKO.— Eta zure ixena mingañian erabilten dabe.

EUZKADI.— Baña *bijotzian* ez, ene seme.

EUZKO.— Bai. Ama. Baña oraingo aldi onetan amaitu biarko dira guzurrok. Egun gitxi barru, maite zaitubezanak maitasunez erantzungo dautse zeure deiyari eta maite etzaitubenak, zeure deyari entzungor eta ez-entzun egingo dautse.

EUZKADI.— Benetan diñozu, seme maite orrek, benetan diñozu? (Pozez).

EUZKO.— Bai, eztago ba, beste biderik. Edo ezetsi, edo maitatu. (Ama jagiten da). Geure zeuganako maitasun au, zeure seme eta geure anaya gustijen bijotzetan sartu arte, ezkara lan orretan aspertuko. Ezkara nagituko.

EUZKADI.— Ai! Orrelako maitasuna balebe nire seme eta etxeko gustijak... nire zoritxarra laster amaituko litzake. (Beyua geldiro esker-aldetik urrengo itzok entzutiaz irribarre dagijala).

EUZKO.— Bai, Aberri ama, laster amaituko da!...

IRUGARREN ANTZEZKIJA

"Euzkotarra", gero "Eskumatarrak"

EUZKO.— (Abestu baga, naiz abestuaz)

¡Erri gaxua!
¿Jayo nintzan ni
zeure il-orduban
eltzeko?
¿Zergatik, ama,
zeure semiok
eztira itxartzen
oindiño?
¿Ama, ilgo zara
motzen azpijan?
¿Ilgo zara zeu
betiko?
¿Itxaron, Ama,
jarijon biot
neure odolau
lenago!...

(Eskumaldetik sartu bediz "Eskumatarrak")

ESKUMA.— Agur, euzkaldun zintzua, fuero-zale jatorra...

EUZKO.— Agur, zeberi be ¿Zer nai ete dozube?

ESKUMA.— Ba-dakixu urrian, geure laterrijau sendatu eta barriztau biar dogula. Orretarakoxe dei-egin dauskube erritar gustijoi.

EUZKO.— Alantxe da bai. Eta ¿zelan jokatu biar dala deritxazube?

ESKUMA.— ¡Eskuma-aldetik! España olantxe gaizkatu eta onduko da-ta...

EUZKO.— Eta ¿Euzkadi? ¿Euzkelerrija?

ESKUMA.— Euzkelerrija be bai, España'ren zati bat danezkero.

EUZKO.— Oker zagoze. ¿Ta ezteritzazube zebek be, obeto dala lenengo geure etxia, geure Aberrija gaizkatu eta gero bestiena?...

ESKUMA.— Bai, baña...

EUZKO.— Argi itz-egixube. Oraingo aldijau bestiak ez lakua da. Zeuek eta ni anayak gara, Ama bat dogu, Euzkadi, eta beronen deyari erantzun biar dautsagu seme onak lez. Maitasun-orduba da oraingua. Zubek nai dozuben batasunik ezin neike ontzat emon. Gure batasun benetakoa auxe da: Areitz deun onen azpijan euzkotarrak eta Euzkadin bixi garian gustijok batutia. Eztago beste batasunik.

ESKUMA.— Olan ba, ¿ezatoz gugana?

EUZKO.— Ez, eziña da. Esan dautzubet Ama'ren gurarija.

ESKUMA.— ¿Ori da zure azkenengo itza?

EUZKO.— Bai, batasuna nai ba'dozube ementxe, zugazpian batuko gara.

ESKUMA.— (Eskumaldetik beyuaz). Gaitz deritxagu. Agur.

LAUGARREN ANTZEZKIJA

"Euzko" ta "Eskertarrak"

EUZKO.— Itsuturik dabez euron adimenok; okerreko bidetik dabiltzaz bakiaren bila. ¿Osoro legortuko ete yake bijotza? (Ixilunia). Ona nun datozan beste batzuk be; ¿Zetara, ostera?
(Eskumaldetik sartzen da eskertar taldia.)

ESKER.— Agur, euzkotar errizale eta azkatasun-zale-zalia...

EUZKO.— Agur, zeueri be, ¿Zer dala-ta zatozte onuntz?

ESKER.— Zeure laguntasun-bila gatoz, langile-langilia zarialako. ¿Nai ete dozu geugaz etorri errija barriztautera? ¿Nausikerijak baztertutera, langiliak jasotera?

EUZKO.— Asmo bikañak orixek. Baña orretarako oñarrija, ¿zein ete dozube?

ESKER.— Gure oñarrija zuzentasuna ta azkatasuna da. Gure bidia esker-aldekua.

EUZKO.— Bide okerra orixe. Ba-dogu bide obia be...

ESKER.— ¿Zein?

EUZKO.— Ona emen oñarrija; (atzaparragaz): Euzkotarron Aretxa. Eta beorrek argituten dauan bidia, euzkotarron zorijonerako bide bakarra. Areitz deun onen adarpian batasunik ederrena euzkotar guztijok; eskuma, esker, eta erdiko.

ESKER.— Eta beste errijak?

EUZKO.— Beste errijak aztu barik, geuria lenen-lenengo. Orra anayok Ama'k diñoskuna.

ESKER.— Ama'k?

EUZKO.— Bai, Euzkadik, Euzkalerrija'k.

ESKER.— Eta batasuna...

EUZKO.— Euzkotar eta emen bixi garanon gustijona, oraingo egunotan nai-ta-nayezkua... edo galdubak gara!

ESKER.— Ezara gure adizkide, euzko seme ori?

EUZKO.— Adizkide bai, eta areizpe onetan lagun eta anaya.

ESKER.— (Beyuaz geldiro, eskumaldetik urteteko). Azkatasun eta zuzentasun-bila gabiltz...

EUZKO.— Azkatasuna, ementxe; zuzentasuna, ementxe. Bila zabiltzaze, baña ¿nora billa, ementxe ba'dago gure zorijona?...

BOSKARREN ANTZEZKIJA
"Euzkotarra", "Euzkadi"; gero Errija
(Eskumar-Eskertar)

EUZKADI.— (Esker aldetik sartzen da geldika eta aundiro, erregiña bailitzan, eskoi-eskuban euzko-ikurriña, gurutz bikotxa zabalik dakar). ¡Seme maitia! Berotasun barri bat dot bijotzian. (Jezarten da bakaulkijan).

¡Neure onduan gura dodaz ixan nire seme gustijak! ¡Bixi gura naz...! Zoyaz anayen bila!

(Euzkotarrak eskumaldetik beyua.)

Neuganatu bediz nire seme eta etxeko gustijak! Azken-deya egin biar dautset. Maitasun egarri naz... Zorijona nai dot, zorijona...

("Euzkotarrak" eta errijak pozez sartzen dira eskumaldetik)

EUZKADI.— Aspaldijon ikusi bako seme maite-maitiok!...

GUSTIJAK.—(Bijotzez-bijotzez) ¡Ama!...

EUZKADI.— Bai, zeben ama naz. Deitu egidazube orain neure ixenez.

GUSTIJAK.—¡Euzkadi! ¡Ama Euzkadi...! (Euzkadi'ri negarra darijo; zapijaz legortuten dau. Bitartian ixil-ixilik begoz gustijak).

EUZKADI.— (Irribarrez). Seme laztanok: aunexek ixan bediz nire azkenengo negarrak. Maite nozubela diñostazube. ¡A, maitasun ederra...!

Egun gitxi barru, datorren ilaren boskarrenean, uste dot atarauko daustazubezala ene bijotzeko arantzak. ¡Bixi gura dot! ¿Jokatuko dozube neure alde?

GUSTIJAK.—Bai, Ama Euzkadi!!

EUZKADI.— (Atsegintsu). Amatau dira egun baltzak. Maitasuna dozube bijotzetan eta itxaropenak bixitza indartuten daust.

(Yoranez). Zoritxarra amaituko da; iluntasunak alde-egingo dabe. Aretxau barriro orlegitu, apaindu eta orri ederrez jantziko da.

Nire bekokijan argi zoragarrija agertuko da, eta Areitz deun onen azpijan ixango dozube euzkotarrok len zenduben azkatasuna eta zorijona...

"Azkatasun- eguzkija
basotik urten da,
bere argija edonun
arin zabaltzen da"...

AMAYA
ENDAITZ'ek atonduba.

Azken-itzakaz batera atara begije lagun bik "cartel" bat diñuana: Euzko-araudi alde, emon egixu zeure autarkija eta "Votad el Estatuto Vasco".

Uarra.— Antzerkiño au Lekeitio'n "Gora–Buru" antzerkijan antzeztu zan lenengoz. Egilia.

ANTZERTI YAYAN IZAN NAIZ...*

BAKARRIZKETA
(Gizonezkoarentzat)

ANTZEZ-NOTINA: Leodegari, berrogeitamar urteko mutil zaar, lodi samarra, alaiberaa ta ona, baita zerbait malmutza bere. Polito yantzia.

IRUDITEGIA: Txaki bat, erdian maitxua, ganean lorontzi bat dauala. Baranuan, bost-sei aulki. Ate bi ala iru.
Ostatu-iskiko txakia da. Ostatu onetan bizi da Leodegari.

ALDIA: Gaba da. Amabiak yoko dabe.

* * *

Leodegsri.— (*Atzeko atetik agertu bedi)* Jaunok, jaunok! (*Arnats--putzka)* Antzerji yayan izan naiz... Teatroa ikustera...
Ta sekulakoan aspertu eragin dauste, ez an agertokian jardun dabenak, ikusi eta entzun egitea baño beste zeregiñik izan eztabenak baizik.
Ai, aek bai ikusleak! Ba-dakizue, gure erri au lako erritxoetan zelako publikoa izan oi dan. Baña niri iguin emoten dauste onelangoak. Naskagarri iataz.
Niri? (*Barre-karkaxa egiñaz eta alai jarriaz)* Ja, ja, ja! Niri!... Baña orreik eztakie ni nor naizen. Ai, ba'lekie jakin...!
Ni ikusten nabenetan "or doia mutil zaarra" esan oi dabe, irribarre egiñaz. Niri ostera, bost ardura!...
Ostatu onetantxe bizi naz ni. Jan, ederto egiten dot; lo, ez ainbat txartoago. Jantzi bere, (*Bere soñari begiratuaz)* ez itxusi. Ba-dakit nik, nire antzera, askotxuk jantzi nai izango leukiena.
Ta dirua?... Oi, dirua! (*Ezkerreko begiari keñu eragiñaz)* Eztago dirua bezelako apaingarririk. Nire sakeletan ogerleko bat, bi, iru... beti utsik egin bage. Nire sakeleko soñua baño oberik eztago egon bere.

---

* *Antzerti: Euskel antzertiaren illerokoa*, 49, 1936.

Alperrik esango dabe birigarroak eta kardantxiloak eta urretxindorrak ederto abestuten dabela. Eztago diruaren "txintxina" lango urretxindor kantaririk!
Ondotxo daki jakin auzoko Gergore'k. Ai, alako neskatilla ederrik ezta gure etxean sortu! (*Entzuleai):* Ta zuek, ni lango mutil-zaar bat ogetabost urtek "kabeliña" txairoaren albistak esaten asi dalako barre egingo ete dozube, ba?
Egin barre, nai ba'dozue, baña egia da. Bai, bai, bai! Lengo baten ba-niñoian kale-zear, eta irrizko eztul bigun gozo bat entzun neban,... eta etxeko atetan (*atadian)* Gergore ederra neuri irribarreka gozo-gozo, eneban ikusi, ba?...
(*Biotz-ukituz)* Ta aren begiak... ai...! Eztiaz egiñiko kandela ixiotuak zirudien. Aen dirdira, ta aen samurtasuna! Une aretan, ostera, erlearen eztenkada zorrotzaren miña artu neban biotzaren erdian.
Begirakune lotsabaga bat egin, barre-kirkira zaratatsua yaurti, eta bizkor aldendu zan ene begien aurretik Gergore zoragarria!
Arrezkero, ai! (*Zinkurin egiñaz)* Larri dago mutil zaarraren biotza. (*Biotzari oratu nairik)*
Ut, ut, ut ortatik! Ni enaz itzal eta erostaka bizitekoa, ez! (*Barriren barri alaituaz)* Ni... ondo bizi naz.
Gaur bere, aparitxua ederto jan ondoren akeitetxera joan naiz, "kafetxua" ta abar artzera. Txokor eder bat ezpañetan jarri, ixetu eta iruzpalau bidar txurgatu eta keia dariola ipiñi dodanean. (*Txalo bi jo begiz)*, txalo bi jo ditut eta "Iñese" didar egin dot.
Nire esku-zarta otsetara an agertu da panpoxa Iñese, akeitetxeko neskatilea. "Ia Iñese polit ori, zorrak zuritu bear ditut" esan dautsat ogerlekoa emonaz.
Ta berak (*Emakume mintzoz)*: "Eztakit polita nazan, baña, zeu bai, ba-zara ederra bere"...
Nik orduan egin dodan barre-algarea andia izan da, antza, inguruko guztiak neuri begi-begira jarri eta maxiatzen asi dira-ta.
"I, Leodegari, (onelaxen da, ba, nire izena), oraintxe bere, neskatxekin diarduk, maxiatzale beti-gazte orrek!" — oyu egin daust ezagun batek.
"Oraindaño bere orretan, Leodegari? — ots egin dau an bazter baten erdi-lo egon, agure zimelak.

Eta nik orduan (*Ziñuak egiñaz)* arro-arro jarriaz, onelan esan eta yaulki dautsat: "Zer bada, eu bezela or zokondoan sartuta egon? Emen naukak eu baizen bizkorrago ta dotoretxuago. Ezkongei, gaztegin... eta burugin.
An izan da izateko barre-purruztada! Iru edo lau sabelari eldu (*Pariztak egiñaz)* eta eztandu egin bearrena ikusi ditut. Beste aldean gizon-gizen batek jaurti dauan karkara ozenaz eta egin dauan zirkinkadeaz aulkiari krak! eragin... eta an yoiak eperdiz gora gizon biribila!
Eztozue iñoiz alako komerik ikusi. Baldin apariak on egingo ba'-dautsa, edarietxeko nagusiak, mesedez, isilduteko eskatu daust, eta geienak barreari ezin eutsirik laga, eta etxalderantz egin dodanean, agure zimelak pozez didar egin daust:
"Urte on askotan, Leodegari. Aspaldion etxuat onenbeste barrerik egin. Eskerrik asko", eta au esan bitartean bere aboko agin bakar luze zorrotza agiri izan dau...
Baña, onezkero, belu izango da. Lotara bere, juan bear neuke-ta... Ze ordu ete da?
Esan bear neutzuena baña, eztot esan, eta agindua zorra izan. Teatruko kontuak esaten asi nayatzue, eta aztu egin yat. Ai, nire burua!... Kanpa-torre zaarrean lo dagoan orduariaren antzean dabil, urrean...!
Joan naz, ba, antzokira, eta txartela erosi ta naz. Antzokia beterik zegoan. Hamaika lotsabaga ba-da munduan! Neure iartokian iñor eztot aurkitu ba? Andra txipristin bat nasai-nasai neure aulkian! Zelan edo alan, betondo galantaz, bialdu dot neure lekutik.
Orra ba. Ainbeste lanen ondoren, neure aulkian patxadaz yezarri, ta alangoren baten jaso dabe zapia, teloia.
Zapia jasoarren, jentea berriketan. Iruditegian alako txerpolari bat agertu danean, asi dira barreka, eta ezer entzun ezin nik. Noizbait bere zerbait isildu dira. Baña antzezlariak zerbait barregarria egin orduko, barriro bere, guztiak barre-algaraka.
Zer barregarria gero? "Drama" ituna garai negargarrienera eldu danean bere, barreka eztira asi ba, batzuk?
Tiro-otsa entzun, eta barre. "Neure semea erail dabe"— amak esan... eta entzuleak barre. Aita, biotzeko miñaren erasoaz, lurrera yausi, eta barre!...

Danari barre, eta edozeri barre. Txor-txor-txor andik, mur-mur-mur emendik. Kir-kir-kir, eta beste zarata gehiago bere bai beste nunbaitetik. Alako iskanbilik! Ango zaparradarik!
Oi! Eta *koloejioetan edukaziñoia arturiko* (?) *señoritak*, andereñoak, norbait agertu orduko berriketan, besteak au edo ori yasean egin eztaualako ji-ji-ji... Burua bere, nastua eragin dauste. Ia ezer bere entzuten utzi ez. Eta noiz onenean, ezer ulertu bage gelditu...! Onelakoak etxean gelditu bear lirake, ta ez iñori kalte egitera joan antzokira. (*Amabiak jotzen dabe torrean astiro)* Zuek, bere, entzuleok, albokoari ondo entzuten galazotera eziñen etorriko, ezta? Ni bere, enaz etorri ba, zuei aspertu eragitera. Beraz gabon jaun eta andreok ondo lo-egin.

ZAPIA

SINISGOGORRA*

Ekitaldi bakarreko Drama

ANTZEZTOKIA: areto edo ari aski apaiña, "burges" baten etxea baita. Egontokia (Estar), bere besaulki, aulkitto eta maitxo eta abar. Barren aldean, iraganbide zabaltxoa, eskaratz edo "hall" bezala. "Hall" ontatik aretora bitartean uztai edo arku edatsua.

NOTIÑAK: Garden, ogei urteko neskatxa liraiña.
Nikol, aren aita, etxeko jauna.
Anton, Garden senargeia.
Nabar, Nikol-en maitalea.
Izeba, Garden-en izeba.
Poli, Garden-en lengusiña.
Lore, Garden-en lengusiña.
Neskamea, Garden-en lengusiña.
Zarki, Nikol-en ogipeko xoroxka.
Zorduna, Nikol-i zor dion gizon bat.
Esneduna, neskatxa bat.

ALDIA, oraingoa, XX garren mende gerria.
TOKIA, Donostia izan leiteke.

EKITALDI BAKARRA.
I. begirakizuna.

NESKAMEA ETA ESNEDUNA.
(Barne aldeko atarian, eskumatik ezkerrerontz izketan bioaz)

Neskamea.— Ai, enetxoa! Zuk ezpa zenekian ere, gaur egun aundia izango degu etxe ontan.
Esneduna.— Ez nekian nik ezertxo ere.

---

* *Argitaratubakoa*, 1951.

Nesk.— Bai. Gaur, etxeko andereñoaren eguna da, baiñan beste zerbait ere badegu: senargeia etxean sartzea degu, aurkeztutzea delakoa, alegia...

Esn.— Eta nor da senargei ori?

Nesk.— Donostiarra da izan, baiñan aspaldion kanpoan ibili da, oraingo aurrerakuntzak ikasten.

Esn.— Orduan, lanik asko izango dezu.

Nesk.— Noski.

Esn.— Eta bazkari luze.

Nesk.— Iakiña, ba.

Esn.— Laguntasun bearrik baldin ba dezu...

Nesk.— Gure andereñoa bera da laguntzailerik bikaiñena; eztu ark beiñere alper usaiñik.

Esn.— Badakizu bada, ezer nai izan ezkero...

Nesk.— Eskerrik asko, neska. Eta orren xaloa baitzera, goxo zerbait gordeko dizut bigarko.

Esn.— Tira, ba! Eta ea beste onenbesteko bat noiz izaten degun... (BIOA)

II

NESKAME; LORE ETA POLI; GERO, GARDEN.

Nesk.— Orrelako zoria izan! Ez litzateke gaizki. Ainbestekoa izan ezta ere, ni pozik egongo nintzake. (IENDEARI BEGIRA) Gure "señorita" au, ordea, otza baiño otzago ikusten det. Neroni, ereti ortan pozak txoratuta nengoke, eta ez orren isil, orren geldi. Senargai gazte ederra lenengoz etxera sartu bear, eta gure etxekandrearen aldetik ezta emen gorabera andirik ikusten!

Etxeko iaunak bai, onek beste asmo ta gogorik agertzen du gaurko festarako.

(ATEKO TXIRRIÑAK IOTZEN DU)

Nesk.— Ene bada! Nor ote da? Noan aguro!

(BIOA TA ATEA IDEKI BEZA, EZKER ALDEAN)

Poli eta Lore.— (SARTUAZ) Egunon, Pantxike!

Nesk.— Orrelan dakartela.

Pol.— Etxean al da gure lengusiña?

Nesk.— Bai, elizan izan da, baiñan itzuli da. Bereala dei egingo det.
(BIOA, ESKUI ALDETIK BARNERA)

Lor.— Gure aitona zenaren etxe ontara sartzen naizen bakoitzean, alako zirrara egiten dit barnemuiñetan guzti au ikusteak.

Pol.— Bai, etxe au beti bezela dago egoki ta txukun; baiñan batez ere, areto nagusia eta andik ikusten diranak gauz ederrak dira, alazaiña.

Lor.— Or dator etorri gure lengusiña.

Garden.— (AGERTUAZ; eta IRURAK ELKAR LAZTANDU BITEZ) Lore, eder ori! Poli, ene maite! Ezin egokiago zatozkidate.

Pol.— Zorion, Garden!

Lor.— Zorion! Eta bi aldiz!

Gard.— Zorion, bai, baiñan... eztakit nola zuei esan barrenean dedan atsekabea.

Lor.— Zerbaiten berri badegu; gauzak, ordea, zuzenduko dira.

Pol.— Goiz ontan zure alde otoi berorik egin degu.

Gard.— Eskerrik asko, maiteok. Orain, entzun: Anton oraintxen da etortzeko, eta nire ordez, zuek ioango zerate geltoki edo estaziora areri itxedon eta ongi etorria ematera. Nai al dezue?

Pol.— Nai ez? Orixe bai, Garden.

Lor.— Gero ezpaitegu betarik izango, esan ezakiguzu, enetxo: zalantza eta duda guziak kendu al dituzu?

Gard.— Ai, Lore! Badakizu Anton baiño senargei oberik ezagutu eztedana; alaz ere, egun au nik nai baiñon aguroago eldu zait.

Pol.— Ez al zaude, ordea, pozik, Anton-eri zeure ezkontza itza emateko?

Gard.— Bai, ezin uka. Ori baiño leen, ordea, kolkoan dedan guduaren berri adirazi bearko diot, eta nire barneko asmo ta gurariak naspildurik dauzkat. Nola bear bezala esan, atzekoz aurrera ez jakin-arazteko?

Lor.— Ezer eragozpen berririk arkitzen al dezu? Ez al du Anton-ek zintzo iokatu? Ez al zera zu ere, aren urrutiratze aldian leial izan?

Gard.— Baietz uste det, eta arenganik oztoporik eztela izango, esango nuke.

Pol.— Elkar maite baldin ba-dezute, beste eragozpenak autsiko dituzue, eta beaztopoak baztertuko eta okerrak zuzenduko.

Gard.— Olaxen bear luke izan; alarik ere, nire barrena ezta lasai gelduko; zimikoz ari izango zait, nire aita ori bide oneratu baiño

leen, bakarrik uzten ba-det. Ai, nire ama bizi izan ba litz! Gaurkoa bai, egun bozkariozkoa!

Lor.— Garden gaiso ori! Umezurtz zeranez gero, aita zoroko bategatik orrenbeste iasan bearrekoa!

Gard.— Gauden, ordea, isilik ortaz. Eten dezagun solas au, berriketan arituaz ezer ezpaitegu zuzentzen. Eta, onezkero, ordua laister baita, zoazte geltokira, laztanok. Eta zatote Anton-ekin onik eta zintzorik.

Lor.— Laister arte, bada. Eta argiune ta barealdi izango al dezu, zure naspil oriek aiseki erabitzeko.

Gard.— Ongi zoazte, eta gero arte! (BIOAZ LORE eta POLI)

III
GARDEN.

Gard.— Auxen da lana! Egunak ioan, egunak etorri, eldu da noizbait aspaldi nai nuen aldia; eta orain, ordea, atzeratu ta geroratu gura nukeena. Anton! Ene maite ori! Nire buru biotzak betetzen dituen irudi begikoa! Zuk batere errurik eztezu; aitzitik, arrera ta begitarte argia besterik merezi eztezu! Alarik ere, aspaldi ontan edaten ari naizen oiñaze-ontziño onen ondarrak bedere, zure ezpaiñetara bear dituela agintzen dit barrenak.

Nire egin bearraren mingotsa! Ez nuke nai nik, ziñez, zuri ezer garratzik eskeiñi...! Burua, naasi; biotza, makal; belaunak ikara eta ezpaiñak dardar egiten didate. Ai, Iaun andi! Argi egidazu, indazu arnas korapillo nardagarri ori askatzeko! Nire aita zorigabearen etorkizuna ondu dedin, iritxi urren dedan zoriona ere, eskeiñi nai nizuke!...

IV
GARDEN ETA NIKOL.

Nikol.— (EZKERRALDEKO LENENGO ATETIK AGERTUAZ). Bakarrik al zaude? Itz otsa entzun dedala-ta nago.

Gard.— Bai, bakarrik nago. Alarik ere, itz otsa entzun izango zenuen, bear bada.

Nik.— (ASARRE ANTZEAN) Utsari izketan ari al ziñan? Azkenerako ere, lortuko dezu billa zabiltzana: burutik egitea. Pozik egotea besterik etzenukeena!

Gard.— (PAR-MURRITZ) Buru galdu!... Nork ote du burua arindurik?

Nik.— (ABOTS GOGORREZ). Gaur izango da itz ori aotik aizkenengoz entzun dezadana. Alaba ezigabea! Ez al dezu aitaren esana bertatik egin bear? Oraindiño gazte zera, neure mende zagoz, eta nire itza zuretzat agindu estua da.

Gard.— (ASTIRO ITZ EGIÑEZ) Alaba ezigabea!... Obe litzeke alaba zorigabea esan. Urteak dira zure menpean oiñazeak iasaten eta atsekabeak eramaten ikasi nuela, eta onezkero, bear dan guzia iasango det.

Nik.— Uste dudanez, pozik eskeiñiko zaitut gaur eta gazte orren menpe laister izango zera, zuk nai dezun bezela. Eta oraindaiño ere, aita gaiztotzat al dadukazu, nik zure ona besterik nai ezta?

Gard.— Eztadukazu aazturik nire ama kutun zenak ain ederki kantatzen zuena; "Aita, saldu nauzu idi bat bezala..."

Nik.— Baiñan, Anton ez al dezu maite?

Nik.— Maite det, bai, eta eztizut ukatzen. Gazte naiz oraindino, ordea, eta egun au eta ezkontza garaia ere zuk aurrerazi dituzu eztezazula aantzi.

Nik.— Badakizu zure onarren egiten dedana.

Gard.— Ai, noraño doan maitakeri baten itsutasuna. Eztet nik amarik, nire zorigaitz aundian; baiñan aitarik ere dedanentz, eztakit. (BEROKIRO) Zer nolako aita eskeiñi dezakioket nire senargeiari? Sinismena, galdu egin omen dezula diozu; eta emazte onaren utsunea sainduki gorde bearrean, andre likits bat iarri dezu aren tokian...

Nik.— (SUMIN) Isil zaite, bestelan ilko zaitut!

Gard.— (NEGARRARI EMANEZ) Isildu, beti isildu... (BERBETAN, KEMENTSU DARRAI) Baiñan, ez! Aski da. ontzia bete da, eta eroapenak gaiñez egin du. Egia zirti-zarta, argi ta zeatz adirazi bear diot nire senar izan nai duenari. Iakin dezala bein eta betiko nolako aitagiñerraba izango duen. Alargun delarik andrea duena; sinismena galdu egin duela-ta eleizara eztana; alaba bakarraren ezkontzara ioateko ere lotsa izango dena...

Nik.— (ZEMAITUAZ) Isiltzen ezpa-zera isildu eskeiñitako ondasun guztiak zuri ezertxo ere eman gabe, neretzat gordeko ditut.

Gard.— Diruokaitik axolarik ez litzakit nik artu ezarren zure animaren galtzeko izango ezpalira.

Nik.— Anima! Apaizen gauza! Betiko itz sakona! (IRRIZ). Animari bakarrik begiratu ezkero, ez lukean zure aitak dadukan beste diru izango.

Gard.— Ta dirua, zer da? Anima bat erosteko dirurik ba ote dela uste al dezu? (SAMURKIRO) Ez, aitatxo! Bein anima galdu ezkeroz, munduko diru guztiak biltzea eta eskeintzea ere alperrik litzeke. Dirua, eralgi arren ere, berriro irabazi eta eskuratu liteke. Anima galdu ezkero, ordea, kitu betikotz!

Nik.— Aski da berriketarik! Betiko lelo ori entzuten aspertua nadukazu. Etxeko gauzak antolatzea obe litzakizu.

Gard.— (BEREKIKO) Egundoko geien entzun dit gaur. Baiñan, orren biotza gogor dago, elkor dago, antzu dago. (AITARI) Etxeko gauzak gerturik dagoz; etxekoak, ez ainbat, ordea! (ITZOK ESANIK, AITAREN BILDUR BEZALA, BIZKOR ALDEGITEN DU ESKUIALDERANTZ).

V

NIKOL, ZARKI eta gero, ZORDUNA.

Nikol.— (BAKARRIK) Burruka bat det nik barrenean; gudu bat ene erraietan. Pakean uzten eztidan zerbait dabilkit atximurka. Zimiko geldiezinak dantzarazten dit biozpea. Eta artega nago. (ESERIAZ) Dirubilla aritu izan naiz aspaldi ontan, eta mordoxka ederrik egin det. Zizkuak bete ditut eta kutxak mukur ere ezagutu izan ditut.

Baiñan, gizonaren asmorik asko eztira betetzen, eta gure kolkoan degun leia eta guraria iñoiz ere ez asetzen. (IEIKIAZ) Orain nire alaba bakar au ongi ornidua ipiniko det. Alabatxo maitea!... Nik ainbat maite dedan arren, —aita bait-naiz!!— arengandik zerbaitek banandutzen nau, eta urrunduarazten nau. Utsune bat, leze bat dago idikia aren izakera bakun zintzoaren eta nire biotzaren bitartean. Utsune ori ken al baneza! Baiñan... (ATE TXIRRIÑAK OTS) Utsune ori, zerak... betetzen baitu! Nola liteke, ordea, aita baten biotza beste kanpoko gauzek betetzea?

(NESKAMEA ATEA IDEKI ETA ZARKI AGERTZEN DA)

Zarki.— (SARTUAZ). Egunon, Nikol iauna.

Nik.— (GARRATZ SAMAR) Zer berri dakarkidazu goizeon?

Zar.— (ZURIKERIAZ ETA BILDUR ANTZEAN) Ona, bada, ene iaun ori. Zuk aginduriko tokian izandu nintzen bart, eta zure zordun arengandik ezer irixtea zail izan zitzaidan.

Nik.— Eta zer? Ez al zenion onera lenbailen etortzeko agindu?

Zar.— Bai, iauna: zuk adirazi bezela, gogor artu nuen, eta besterik

ezean, gaur goizean goiz, oneratzeko esan nion eta or dago, atean, zure esanera.

Nik.— Sartu dedilla bereala.

Zar.— Oraintxen, iauna. (BIOA ATERA eta ZORDUNA LAGUN DUELA, SAR BEDI)

Nik.— Bearren dedan orduan batzuek uts egin didate. (ZORDUNARI, GOGORKI) Zergatik eztituzu zure zorrak ordaintzen? Noiz arte itxedon bear ote det nire diruak iasotzeko? Ez al dezu epea, larregian ere, bete?

Zord.— (BILDURREZ) Bai, ziñez; baiñan oker aundi bat izan degu gure garatzetan eta eztezakegu oraingoz zureganako zorrik ordaindu.

Nik.— Zer oker ta oker ondo! Itza eman, eta itza ian egiten duena ezta gizon; oillo edo zapo baizik.

Zord.— Eztet orrenbesteko gizon doillor geranik iñoz uste izan.

Nik.— Zaude isillik, eta azken itza esan ezazu: dirua bear det nik, neure dirua, eta bi ilabete baiño leen itzuliko dizkidazu nik emana eta irabaziak euneko bi geituaz, edota bestela auzira zaramaztet, eta an epailariek larrutuko zaituzte.

Zord.— Ai, urriki zaite gerran seme biak galdu dituen aita gaixo ontaz!

Nik.— Eztago urrikaririk, ni ezpainaiz gizon beratza. Diruak eztu odolik, ez zizkuak biotzik. Zortzi aste baiño leen, naiz eta ondasun gabe gelditu, nire eskuetan utzi bearko dituzu aipaturiko zorrak. Badakizu, bada, eta zoazte azkar emendik!

Zord.— Al deguna egingo degu.

Zar.— Agur, ene iaun! (BIOAZ ZARKI eta ZORDUN)

VI
NIKOL ETA NESKAMEA.

Nik.— Gizon orrek lana besterik ematen ez dit! Ordu gaiztoan eman nizkion txanponak. Beste zordun asko ere, ordea, isilik ditut. Lan eta lan egin det nik, eta geroztik, eztakit nire irabaziak nondik nora iges egiten duten.

Nik.— (MAIGAIÑEKO TXIRRIÑAZ DEI EGITEN DIO NESKAMEARI) Zarki madarikatu ori, ere, nora arraio ioan ete zait! Kalera ioan eta etorri egiteko, Aizkorri tontorrera baiño luzeroagoko iarduna du.

Nesk.— Iauna, dei egin al du?

Nik.— Bai, dei egin aunat. Etxean egonda ezpaitira arazoak arbiltzen, kanpora noa; eta iñor nire galdez baldin ba-letor, enagola etxean esan egiezu, eta urrengo batean itzultzeko; entzun?

Nesk.— Bai, iauna; zure esana beteko det. (GINBAILA ARTU ETA BIOA NIKOL)

VII

NESKAMEA; POLI, LORE eta ANTON; gero, GARDEN.

Neskamea.— (ASTIRO MINTZATUAZ) Gure ugazaba ezagutzea ezta gauza erreza. Goizean goizik, pozik zegoan; pozik... tira! aspaldian poz antzeko arpegirik agertzen eztuen arren. Kopetillun egoten da maizenik etxean, betozkoz, bakarti, zokozale. Buruauste gogorretan edo... Alabaren eztei aldia ere urbiltzenago baitdegu, nik eztakit bada, zer begiez ikusten duen.

Ene! Oraintxen da iskanbilla malladian. Gure iaun gaztea eta lengusiñak izango dira, noski. (ATERUNTZ BIOA AGURO; AIPATURIKO IRURAK AGERTZEN DIRA)

Lor.— (NESKAMEARI) Andereñoari adiraz egiozu emen gagozela.

Nesk.— Bereala, anderetxo. (BIOA, ESKUMALDERANTZ, BARNETIK)

Pol.— Bestelako poza artuko du Garden-ek zu ikusteaz bakarrik.

Ant.— (PARREIRRIZ) Horrela bear luke. Bai pollita dena etxe onen izakera!

Lor.— Bai, ezta arritzeko ere. Orain aipatu dezakegu arako erran zaar ura: "Edozein txoriri eder bere kabia", naiz eta zurea ezten, zure maiteñoarena baita.

Ant.— Eskerrik asko, Lore. Eder zaizkit benetan etxe ontako pakea, bertokoen izakera eta zuen lagunartea. Baiñan, zer dakust! Or baidator ene Garden.

Poli.— Zaude bada, zu, berarekin, zer esanik anitz izango dezue-ta. Mintza zaitezte lasai, gu beste gizategitxo ortan egongo baitgera.

Garden.— (AGERTUZ) Anton!!... Poli, Lore.

Anton.— (ESKU BIAK ERTSIAK) Gardentxu, nola zaude?

Lore.— Or konpon, potxoluok! Gu bagoaz eta zuek deitu. (LORE TA POLI, BARNERA)

Gard.— Ez, zagozte emen! Etxeko baitzerate...!

VIII
ANTON eta GARDEN.

Anton.— Zer diozu, eder orrek? Baiñan... zurbil samar zaude, orixka dezu begitartea. Ez al zaude ongi?

Garden.— Ez, ezta ezer. Eseri gaitean. Ta nola ibili zera atzerri aldean? Asko ikusi eta ikasiko zenuen, nonbait.

Ant.— Ongi diozu, asko ikusi beiñipein, bai. Nire gogoa, orraitio, zure berriak ikasteko irrikitzen zegoan, eta nire begiok, zure musu gorritxuria, zure irudia noiz ikusiko izan dute egarri ase eziña. Noizbait ere, ordea, zuregana naiz, eta emen gagoz, aurrez aur, bekoz beko, begiz begi...

Gard.— Bai, Antton, zerbaiten zain dago beti gure naimena, eta amestua iritxi orduan, eragozpen berriren batek badaki egertzen...

Ant.— Zer eragozpen, gero? Izketa ortaz, kezkatsu jarten nozu. Ezer berririk esan bear al didazu? Nire iokabidez zalantzan ote dezu?

Gard.— Ez orrelakorik. Barkatu, Anton.

Ant.— Zergatik bada, larritu? Zer dela-ta estutu? Nire zureganako maitetasunak eztu ezertariko urraturik ez etenik izan.

Gard.— Diozun guztia sinistu nai dizut; zure asmoak alabaiña, luzapide-bearreko ote diran derizkiot, eta eztakit noiz arte.

Ant.— Luzapidea? Eta zergatik? Burua ere naastu egiten didazu.

Gard.— Bai... bada, ni... gaixo nago-ta.

Ant.— Gaixo? Eri zaudela diozu? Noizdanik, ordea? Ezpaitdidazu beiñere ezertxo iakinarazi. Osagilleak ikusi al zaitu?

Gard.— Ez, osagilleak ez nau oraindiño ikusi, baiñan...

Ant.— Zer baiñan, ordea? Eztakit zer diozun: egitan ere eztet argi ezer ikusten. Iñoiz etzera gaixo egon; zure lengusiña begikoek ere, eztidate ezer ager-arazi, eta zuk, orain, betbetan, eri zagozela siñistarazi nai al didazu? Tira, tira! etzazula orrelakorik asmatu ere egin.

Gard.— Zul al dakizu nire gorputzaren berri, iragan urte betean ikusi ez nazularik?

Ant.— Aski det zalantza eta burunaspillik, Garden. Egia esan egidazu, egia osoa. A!... bear ba' da, gaixo zaude, baiña ezta zure soiña, apika, eri dagoena zure gogoa baizik.

Gard.— Ai, nola adierazi baneki! Baiña, barkatu egidazu barriz ere, arren, nik orain zuri atsekabe eman bearra. Etzitzaidan zilegi luza-

roagoan isillik gorderik edukitzea. Ona, entzun: egun au eldu aurretik, zure ta nire ingurko gauza oker batzuk aldatu gogo izan ditudan arren, nire alegiñok alperrekoak izan dirala aitortzen dizut.

Ant.— Zer oriek zeure zeureak ezpaldin ba'dira, neri zer axola?

Gard.— Zure itz erdi aski det ene barrena lasaitzeko. Nire aitarekikoa da diodan zer ori.

Ant.— Zure aitarekikoa? Zer du, gero, zure aitak? Makal al dago? Preso ote? Dirugabetu egin ote da?

Gard.— Guzti oriek baiño gaizkiago dena.

Ant.— Iges egin al du? Il egin nai al dute?

Gard.— Ez, Anton. Gizon batek sinismena galtzea, eriotza gutxi dela uste al dezu? Bekatu bideetan barna ezertariko kezka gabe ibiltzea? (NEGARRARI EMANAZ)

Ant.— Oraintxen ulertzen dizut.

Gard.— Eta nik, ez nuke aita horrela utzi nai, ni aren ondotik aldendutzean gero ta okerrago izan ezedin. Orain nire agirian orren makurki dabillelarik, zer izango ote da geroztik, aita ori etxean bakarrik gelditzean?

Ant.— Ta zergaitik azaldu eztidazu lehenago zure kezka ori? Baretu zaite, alere.

Gard.— Zer erantzungo ote zenidan arrenkuratan baitnengoen.

Ant.— Baiñan ni zeurekin ezkontzen naizela etzazula aantzi.

Gard.— Bai, olantxen diteke; ezkontze-aldian, ordea, eztira senar--emazteak soilik elkartzen; aien senideak ere elkartzen baitira zelanbait.

(ATEKO TXIRRIÑAK OTS EGITEN DAU)

Ant.— Eztet leen orrelakorik asko pentsatu; alarik ere... (IRRIPAR EGIÑAZ) dena dela, gogoan bear det zure oar ori.

Gard.— Parre egiten dezu; ta nola nik aita bakarri utzi?

IX
LENGOAK ETA IZEBA, POLI ETA LORE.

Ant.— Ta Iruñara bizitzen ioan gabe, ementxen gelldituko ba'giña?

Gard.— Nola, ordea?

Ant.— Nola? An, naiz emen, badet lanean nun asia, zorionez. Baliteke, orraitik, an, emen baiño obekixeago egotea.

Gard.— Zer diozu? Emen geldi gaitezkela? (NESKAMEAK ATEA IDEKI ETA IZEBA SARTZEN DA, ETA BERE ALABEKIN BAT EGITEN DU. IRUROK AGER BITEZ ARETORA.)

Izeba.— Garden! Zorion, zorion anitz! (LAZTANDUAZ)

Gard.— Izeba maite! Ona emen nire senargeia.

Izeba.— (ANTONERI ESKUA ERTSIAZ) Nola zaude? Andia da nire poza zurekin mintzatzeaz, ezagutu, aspaldi ezagutzen bait-zaitut.

Ant.— Eskerrik asko. Ni ere eztitan nago Garden-en senide on-onak ezagutzeaz.

Izeba.— (IOLAS ANTZEAN) Ta, pake zantzuan ote zagozte? Nere illobatxo ori, pozkidaz eta arrenkuraz zegoan egun au irixtean, uts egingo ote zenuen...

Gard.— Ai, izeba gaizto!... Baiñan emen baiño gizategi andian obeki egongo gera, eta goazen aruntz. (BIOAZ)

X

NESKAMEA ETA ZARKI; gero NIKOL.

Neskamea.— (AUTSAK KENTZEKO ZATAR BAT ESKUETAN DUELA, KANTARI AGER BEDI).

"Mendian zoin den eder eper zanko gorri,
ene maiteak ere, bertzeak iduri;
eni itzeman eta gibelaz itzuli".

(ATEKO TXIRRIÑOTSA)

Ene! Nor ote dator orain ere? Ideki dezaiodan. (ATERA BIOA, eta IDEKI)

Zar.— (ATEAN) Emen naiz berriro. Etxeko iauna?

Nesk.— Leen atera da, eta ez bide da oraiñarte itzuli.

Zar.— Ainbat obe. Horrela arnas apur bat artzeko aukera izango det. Naikoa ibili egin diagu, eta ez litzakit gaizki alki bigun ortan kabi egitea. (ESERIAZ)

Nesk.— Orren nekatua al zagoz kalean lasai ibili ta besterik gabe?

Zar.— Bai, aspertua nago iende artean ibiltzen. Zure ondoan egoten, ordea, ez nintzake beiñere aspertuko.

Nesk.— Badakizu gauza pollitik esaten.

Zar.— Pollitik? Oraindino ez naiz asi. Ba al dakizu zu bezelako neskatxarik eztedala uri ontan ezagutzen? Neskame ordez, etxekandere egingo zinduzket zuk nai izango ba'zenu, behintzat.

Nesk.— Ai, ai! Ikusten al dezu agure pottoloa! (ISEKAZ) Zu niretako gaztetxoegia ez ote zera oraindino?

Zar.— Ta zuk ez al dakizu gizonak berrogei urtetik gora direla atsegiñen eta begikoen?

Nesk.— Noizko berrogei, ordea? Mende osoz, ere, or nunbait ganean dezu-ta!

Zar.— Ai, eder orrek nai al dezu igande arratsaldean nirekin dantzatu?

Nesk.— (PARRE ALGARA EGIÑAZ) Agurekume oni udaberria eldu ote zaio ezurretara?

Zar.— Zure adiskide zan Madalen Panpox ere, beti arro ta buru iritzia, norekin ezkondu al zan azkenen buruan? Nere aitarekin!!...

Nesk.— Ikusten dezu? Egitan ere: pena litzake onelako aukera bizirik uztea. Entzun ezazu: zer irabazpide dezun, zenbat urte dituzun eta zenbat dukat gorderik daduzkatzun adirazoko ba'zenit...

Zar.— Eztago orain dukatik, baiñan nire gorputzak goserik ezagutu eztuela, iakin ezazu bein betiko.

Nesk.— Ta guztia sinisten du, berriz, gaztetxo onek! Biotz biguna duela esango nuke.

Zar.— Nire biotza? Gaueko elurtea bezin garbi ta ukigabea dezu. Ogei urtetan bezin txori eta alai det nik barrena. Badakizu gizonaren biotza zaartzen eztela...

Nesk.— Eta emakumearena bai, ala? Nire biotza zurearen pare ipintzeko, ogeitamar bat urte gaztetu bearko zenuke.

Zar.— Ai, txotxongillo pertxenta! Ni bezelako galaiarekin arro asko ioango eziñakeala aldare aurrera! badet nik nire aitaren errian basetxe bat, maizter eta guzti, eta emen nerekin ere...

Nesk.— Alperrik ari zera gezurrak ialkitzen.

Zar.— Zenbat bidar ez ote du gezurrak egia irten?

Nesk.— Baliteke; baiñan axari zaarrak oilo gaztea nai, eta nik berriz...

Zar.— Zuk gazte zoro bat naiago! Baiñan ez, eztizut orrelako ezbearrik egiten utziko. Esan egidazu, beraz: maitetasun eske dituzun begi beltz eder oiekin, nirekin nai dezunentz... (URBILDUAZ)

Nesk.— Agure urdin ori! Zaude geldirik, soiñeko galtzak kentzeko ere, iñoren bear dezu-ta! (NIKOL SARTZEN DA, KALETIK)

Nik.— (ZARKI-ri) Emen al zaude? Tira; ederki. Badet zuretzako lana. (NAI ALA KUTXATIK PAPER BATZUK ATEREAZ, ETA ZARKIRI EMANAZ)

Eraman egizkiozu paper auek legegizonari, ikertu ta ikasi ditzan, eta gero etzaitez illunabarrerarte agertu.

Zar.— Ondo da, iauna. (BIOA KALERA)

Nik.— Etorri al da iñor?

Nesk.— Bai iauna. Anton iauna eldu da eta izeba Saloe ta Lore ta Poli andereñoak ere emen dagoz. Gizategi nagusian bildurik daude, eta etxekandereñoa ere an dago.

Nik.— Ongi da. (BEREKIKO) Izeba Salome ori, maiz etortzen ari da gurera. (NESKAMEARI) Eta beste iñortxo ere ez?

Nesk.— Ez, iauna; ezta besterik iñor agertu izan.

Nik.— (ARNAS ANDI EGIÑAZ, BEREKIKO) Tira! Goiz ontan etorri ezpaldin ba'da, onezkero eztatorke. (NESKAMEARI) Zer ordu degu?

Nesk.— Eguerdi inguru, iauna. (ATETXIRRIN LUZEA)

Nik.— Madarikatua!... Baiñan bildur nintzan-ta! Bera ez ote da? Ez etortzeko agindu-ta! (NESKAMEAK ATEA IDEKI, eta NABAR SARTZEN DA)

XI
NIKOL eta NABAR.

Nik.— (ATEALDERA IOANAZ) Zetara zatorz onera? (NESKAMEA BIOA BARNERAT) Zer adirazi nizun? Zertara zatorz?

Nabar.— (LOTSAGABEKI) Zertara? Zortzi egunean zu ez agertzeko, zer gertatu ote zaitzun iakin nai izan det.

Nik.— Ez al nizun igande arratsaldera arte an egoteko agindu?

Nab.— An egon, beti an egon. Iru urte auetan nirekin ibili-ta gero, nire lotsaz al zaude orain?

Nik.— Zoaz emendik! Alde egin ezazu bertatik!

Nab.— Alde, nora alde? Ni zurea baldin ba'naiz, arroki eta ergelki esan oi dezun bezela, zure etxea nerea ere ez al da?

Nik.— Zu bai, nerea edo neretzakotzat zaduzkat, zorionez ala zoritxarrez. Baiña ni ez naiz zure.

Nab.— Noiztikan etzera zu nire maitale?

Ni.— Isilik zaude, bestela...! Zertan diozu olako itzik? Ez al dakizu gaur nire alaba eta senide guztiak ere etxean daudena?

Nab.— Ta niri, bost axola! Etxape ontan zerorrek ez al dezu agintzen, ala orain oilo itzuli al zera zure alabaren aurrean? Nire izen ona galdu zenuenean, zure alaba garbiaren oroipen aundirik etzenuen, orraitio!...

Nik.— Aski da. Aste ontan beste eginbarrik izango nuela gaztigatu nizun, eta iganderarte itxedoteko.

Nab.— Bai, beti apukoz eta aitzakiz ari zera, ta gero ta areago, ta gero ta zikoitzenago.

Nik.— Nork kendu zizun aldean zenuen etengabeko gosea neronek ez-ta? Nork iantzi zinduzen nire diruak baizik?

Nab.— Etxebizitza bat nere-neretako eskeiñi zenidala badira bi urte, eta orain diru urri, eskuarte eskas dezula adierazi didazu.

Nik.— Bai, eta olaxen da.

Nab.— Ez orraitio, zure alabarendako. Irian diren gauzarik ederrenak, altzari bikaiñenak, bitxirik apiñenak, oialik onenak erosten ari omen zera, eta gero ez al didazu berarekin iges egingo ni etxe bakar urrutiko artan azturik utzita?

Nik.— Baiñan, nork esan dizu oinbeste gezurrik? Andre makurra! Egiazki esaten dute maitale bat emazte ona baiño gehiago bearreko dela.

Nab.— Ni ez naiz besteren iopu ta otsein izateko eskeiñi. Alabaiña, olakorik uste baldin badezu, eman ezadazu dirua mordoka, ez aleka. Aitzitik, gure artu-emana bukatu da.

Nik.— Isil zaite, ete zoaz! Biar ikusiko zaitut.

Nab.— Ez, zatoz oraintxen; goazen elkarrekin, eta emen itzegiterik nai eztezulako, kalean itzegingo degu eroso ta lasai.

Nik.— Ez, ezin det orain, iñolaz ere. Zoaz bada!

Nab.— Ez orixe, zerbait ematen ezpa'didazu.

Nik.— Zenbat nai dezu orain: milla?

Nab.— Milla? Ametsetan al zaude? Iru milla ere zor ditut-eta, eman egizkidatzu bost bat.

Nik.— Doillorra! (SAKELETIK ARIN ATERA ETA EMANAZ) Tori, eta zoaz emendik, madarikatu ori. Ordu gaiztoko gonadun makur ori!

Nab.— (DIRUA ARTU ETA PARREZ) Ezta ain gaizki. Bota, bota zuk lore politak, baiñan zabaldu eskua!... Eta orain etorri nai ezbaldin badezu, dirua baitdet, ioango naiz bakarrik ere, eta ederki, alegia.

Nik.— Damutuxe nago zu noizbait ezagutua ere.

Nab.— Amaikatxo bider enztun dizut lelo ori. Badakit nik, ordea, gizonen barne erkiñaren berri.

Nik.— (ATEA IDEKI, eta NABAR KANPORA BULTZATUAZ) Tira, zoaz! Oiñotsak dira.

Nab.— Agur, artobero! Eguzki eder! Laister arte! (NABAR BIOA)

Nik.— Bai, bigar arte!

XII

NIKOL, IZEBA, ANTON, GARDEN, POLI eta LORE.

Nikol.— Noizbait ere biali det begien aurretik. Ai nendi andre onengandik iaregiña eta askatua! Gizon utsaren makalkeria: andi gera eta ezerez, arean. Eizera ioan oi gera, eta eizean atzemanak geu izaten gera. Baiñan... nola bertan bera utzi orain, aspaldi artutako griñabide okerra? (PAPER BATZUK IKUSTEN DIARDU)

Izeba.—(ANTON albotik duela AGERTZEN DA; ATZETIK, GARDEN, POLI ETA LORE) Ona emen gure etxeko iauna.

Anton.— Nire aita izango dena?

Nik.— (ZUTITUAZ) Nola zaude?

Ant.— Ongi; eskerrik asko. Pozkidaz nago Garden-en aita ezagutzeaz eta bere etxean sartzeaz.

Izeb.— Nire illobarentzat bidelagun zintzoa degula iakiteaz, izeba legezko eginbearra bukatu dedala uste det.

Gard.— Ez, izeba, oraindik ere zure laguntasuna bearko det, nire amaren utsunea norbaitek betetzea nai nukelako. (GUZTIAK ESERI BITEZ: NIKOL ETA ANTON ALDE BATEAN, ETA BESTEAN EMAKUMEAK ORO.)

Pol.— Garden laztana, zuk zure bidea autetsi dezu; guk, ordea, eztakigu zein zidor artuko degun.

Izeb.— Bide asko dire minduko ibiltaldi ontan, eta bakoitzarena izendaturik daduka egun eta urteen Egilleak.

Gard.— Egia, izeba; biarko eguna non eta nola izango degun ezpaitakigu.

Nik.— (ANTON-eri) Garden-ek esan dizunentz eztakit, baiñan alaba bakarra baitet, eta merezi ere alaxen du, opari eta esku-erakutsi on bat egin nai nioke, eta emendik aldegingo dezuen ezkeroz...

Ant.— Eztakigu oraindiño, ordea, nun antolatuko degun gure kabia.

Nik.— (ARRITU KEÑUA EGIÑAZ) Nola diozu? Emendik kanpora ioango ote ziñaten ulertu nuen-ta.

Ant.— Bai, leen olaxen adirazi nion Garden-eri; alarik ere, orain berriki emengo ola bateko buru izateko eskeintza iaso bai-tet, eta erbestean baiño errian naiago izaten baitute emakumeak...

Nik.— (ZURITU NAIRIK) Leen esandako lantegi ura ez al litzakizu egokiago izango? Nik baietz uste det, eta gaiñera...

Ant.— Bai, baliteke, baiñan...

Nik.— Gaiñera, diot, lantegi ori eta beste asko obeak dituzte baltzu edo enpresa ortan, eta geroari ere begiratu bear zaio-ta.

Ant.— Zuzenki diozu: geroari ere begiratu bear zaio, ta ez arinkeriaz, alegia.

Gard.— (IZEBA TA LENGUSIÑERI) Nik nukean penarik andiena etxetik, eta batez ere gure txoko ontatik irten bearra da; baiñan orain, nork daki!

Izeb.— Nire gogorik biziena zu aitaren urbil ikustea da.

Lor.— Bai gure poza ere.

Gard.— Alarik ere, gizonarena iritzia, eta Jainkoarena erabakia. (TXIRRIÑOTS LUZE LUZEA ENTZUTEN DA)

Gard.— Nor ote da? Emen bait-gaude guztiok.

Nik.— Eztakit nor izan liteken! (NESKAMEA ATEA IDEKI BEZA)

XIII
LENGOAK eta ZARKI.

Zarki.— (ATEAN AGERTUAZ BATERA, ERSTURAK) Etxean al da iauna?

Nesk.— Bai, etxean da, baiñan sendi osoa bildurik dago-ta...

Zar.— (ARETORA URBILDUAZ) Bertatik itz egin bearra det.

Nesk.— (NIKOL-ERI ITZ EGIÑAZ) Iaun ori, Zarkik zurekin itz egin nai du.

Nik.— (ASARRE, ALKITIK IEIKIAZ) Zer nai dezu berriz ere? (NESKAMEA BIOA)

Zar.— Eztakit nola esan, ala urrengo batean... obeki adierazi...

Nik.— Zurekiko ala nerekiko arloa al da, soilik?

Zar.— Nerekikoa ez da behintzat.

Nik.— Esan ezazu bada!

Zar.— Or, beste kale ortan, ni onuntz nentorrelarik, gurdiarin batek norbait zapaldu du, eta esan dutenez, zerraldo gelditu da, illotzik iaso dut eta... ezaguna nuen; baita zuk ere... andre gazte bat,... badakizu... zera.

Nik.— Ene, ene! (ALKIAN ERORIAZ) Larritzen asi naiz. Au illuntasuna...! Aizea, aizea! (GUZTIAK NIKOL-en INGURURA BITEZ)

Gard.— Iainko maitea! Zer dezu, aitatxo nerea, zer dezu?

Ant.— (ZARKI-RI) Andre ori, denok dakigun andre ura al zan?

Zar.— Bai, iauna: uraxe.

Ant.— (KEMENEZ) Tira, Garden, ez estutu. Nun dezue telefonua osagilleari dei egin degiodan?

Lor.— Ementxe, Anton. (BIOA ANTON ETA LORE; BESTEAK AIZEGITEN NIKOL-ERI)

Izeba.— Zirkin zerbait egiten du berriro. Ixo! Lore; betor neskamea! Poli: edari gogor apur bat ekar ezazu! Garden: etzaiteala lur iota gelditu.

Ant.— (ITZULIAZ) Otsegin diogu osagilleari, eta laister datorke.

Izeba.— Kordegabe egon da, baiña bere seneratuko dela esan diteke.

Gard.— Au esturaren andia! Ez nekian zer egin ere!

Zar.— (IZUTURIK) Atadira jetsiko naiz osagilearen zain egoteko. (BIOA)

Gard.— (GOXOKI) Aita, aitatxo! Nola zaude?

Nik.— (BEGIAK IDEKIAZ) Zer gertatu zait? Au nekearen andia!...

Nesk.— Andereño, emen dezu piztugarria.

Gard.— Tori, aitta, edan egizu, piztugarria baita!

Nik.— (EDANAZ) Orain,... obekixeago nago.

Ant.— Deitu degu, eta laister emen izango da zure osagillea.

Nik.— Bai, ongi da, egoki da. (ARNAS ANDI EGIÑAZ) Enztun ezazute, enetxuok: ordu larrietan gauza gogorrak esaten dira... eta une auxe, bear ba'da,... bakarra izan da nire bizitzaldian. Arekin ioan ba'nintz, nork daki...

Gard.— Atseden zaite; etzaite neka!

Nik.— Ene alabatxo maite: zuk leenik barkatu egidazu nire erokeria ta ergelkeria; eta berdin beste guztiok ere.

Ant.— Barkaturik zaude, ta zure agindu onak entzun nairik gauzkatzu.

Nik.— Agindu onak!... Bai, bator osagillea, baiñan animarena ere betor, anima? illotzik den tokian, gorputza lurreko arra besterik ezpaita.

Gard.— (BIOTZ PILPIRAZ) Apaiz bat, aitatxo? Nor, ordea...?

Nik.— Urbillen dena, bekataria neu bait-naiz, ta ez ura...

Gard.— Arantzazuko Ama! Egun aundi ontan, zure esker aundiagoa egin didazu?

Nik.— Eskerrak, Iainko andi! Aski beitezu unetxo bat gizonaren biotza zureganatzeko!...

AMAIA

ERKIAGA'TAR EUSEBIO

SINISGOGORRA*

Donostian, 1952'gn. urtheko I LiteraturaBatzaldian Theatro--sailean lehen saria irabazi zuen lana. Orduan atal bakarreko zena, orain, bere egileak hirur atalez osotu du.

Euskal-Theatru zaleen ederragaitik atal leheneko ikhuskizun bi agertzen ditugu EGAN aldizkari hunen orrialdetan.

IV
GARDEN ETA NIKOL

NIKOL.—(*Agertuaz*). Bakarrik ahal zagoz? Hitzotsa entzun dedala-ta nago.

GARDEN.—Bai, bakarrik nago. Halarik ere, hitzotsa entzun izango zenuen behar ba da.

NIK. —(*Asarre iduriz.*) Hutsari hizketan ari ahal ziñan? Azkeneko ere lortuko duzu, ardietsiren duzu bilha zabiltzana: burutik egitea. Bozkarioz egotea bertzerik etzenukeena.

GAR.—(*Par murritz*). Burutik egin!... Nork othe du burua arindurik?

NIK.—(*Ahots gogorrez)*. Egun izanen da hitz hori zure ahotik azkenez entzun dezakedana. Alhaba hezigabea! Ez ahal duzu aitaren errana bertatik bethe behar? Oraindano gaztea zara, nire mende zagoz, eta nire hitza zuretzat agindu herstua da.

GAR.—(*Astiro mintzatuz*). Alhaba hezigabea! Obe lizateke alhaba zorigabea erran. Urtheak dira zure mende, oinhazeak iasaiten eta atsekabeak eramaiten ikasi nuela, eta geroztik, behar den guztia iasanen dut.

NIK:—Uste dudanez, pozik eskeiniko zaitut egun, eta gazte horren mende laster izanen zara, zuk nahi duzun bezala. Eta oraindano ere, aita gaiztotzat ahal nadukazu? Nik zure ona bertzerik nahi ez-ta?

---

* *Egan*, 2, 1952.

GAR:–Eztadukazu ahantzirik nire ama kuttun zenak hain ederki kantatzen zuena: "Aita, saldu nauzu idi bat bezala..."

NIK.—Bainan, Anton ez ahal duzu maite?

GAR.—Maite dut bai, eta ezterautzut ukhatzen. Gazte naiz bizkitartean, ordea, eta egun eder hau eta ezkontza garaia ere zuk aitzinarazi dituzuna eztezazula ahatz.

NIK.—Badakizu zure onarren egiten dudana.

GAR:—Ai, noragino doan maitakeri baten itsukeria! Eztut amarik, nire zorigaitz handian; bainan aitarik ere dudanentz, eztakit. (*Berokiro*). Zer nolako aita eskeini dezakioket nire senargaiari? Sinismena, galdu omen duzula diozu; eta emazte onaren hutsunea sainduki gorde bearrean, andere likits bat iarri duzu haren tokian...!

NIK.—Isil zaite, bertzenaz hilen zaitut!

GAR:—(*Negarrari emanaz*). Isildu, bethi isildu... (*Berbetan kementsu darrai*). Bainan, ez! Aski da. Ontzia bete da, eta eroapenak gainez egin du. Egia zirti-zarta, argi ta zehatz adiraz behar deraukot nire senhar izan nahi duenari. Iakin beza behin eta bethiko nolako aitaginarreba ukhanen duen. Alhargun delarik andre duena; sinismena galdu egin duela-ta elizara eztoana; alhaba bakharraren ezkontzara ioaiteko ere ahalkez izango dena...

NIK.—(*Zemaituaz*). Isiltzen ezpa'zara isildu, eskeini ondasun guztiak zuri ezertto ere eman gabe, niretzat gordeko ditut.

GAR.—Diruokaitik axolarik elitzakit, nik hartu ezaren zure animaren galtzeko izanen ezpa'lira.

NIK.—Anima! Aphezen gauza!! Bethiko hitz sakona! (*Irriz*). Animari bakharrik behatuz gero, elukean zure aitak dadukan bertze diru izanen.

GAR.—Ta dirua, zer da? Anima bat erosteko dirurik ba othe dela uste duzu? (*Aldatuaz eta samurki*). Ez, aitatto! Behin anima galduez geroz, munduko diru guztiak biltzea eta eskeintzea ere alpherrik litzateke. Dirua, eralgi arren ere, berriro irabaz eta eskura liteke. Anima galduez geroz, ordea, kito bethierekotz!

NIK.—Aski da berriketarik! Bethiko lelo hori entzuten aspertua nadukazu. Etxeko gauzak antolatzea obe litzakizu.

GAR.—(*Berekiko*). Egundoko gehien entzun deraut egun. Bainan, hunen bihotza gogor dago, elkhor dago, antzu dago. (*Aitari*). Etxeko gauzak gerturik dagoz; etxekoak ez hainbat, ordean! (*Bizkor aldegiten du*).

VIII
ANTON ETA GARDEN

ANTON.—Zer diozu, eder horrek? Bainan... zurbil xamar zagoz, orixka duzu begitartea. Ez ahal zagoz ongi?

GAR.—Ez, ezta ezer. Eseri gaiten. Eta nola ibili zara atzerri aldean? Anhitz ikhusi eta ikasiko zenuen, nonbait.

ANT.—Ontsa diozu; anhitz ikhusi behintzat bai. Nire gogoa, orraitino, zure berriak ikasteko irrikitzen zegoan, eta nire begiok zure musu txurigorria, zure irudia noiz ikhusiko izan dute egarri ase-ezina. Nozbait ere, ordea, zuregana naiz, eta hemen gagoz, aurrez aur, bekhoz bekho, begiz begi...

GAR.—Bai, Anton, zerbaiten zain dago bethi gure naimena, eta amestua ardietsi orduan, eragozpen berriren batek badaki agertzen...

ANT.—Zer eragozpen, gero? Hizketa hortaz kezkatsu iarten nauzu. Ezer bertzerik erran ahal derautazu, ala nire iokabideaz zalantza othe duzu?

GAR.—Ez, horrelakorik.

ANT.—Zergatik, bada, larritu? Zer dala-ta herstutu? Nire zureganako maitetasunak eztu ezertariko urra-ethenik ukhan.

GAR.—Gure egungo asmuak, alabaina, luzapidekor othe diren derizkiot, eta noiz arte ez iakin.

ANT.—Luzapidea? Eta zergatik? Burua nahasten derautazu.

GAR.—Bai... bada... ni... gaiso nago-ta.

ANT.—Gaiso? Eri zagozala diozu? Noizdanik, ordea? Ezpaiterautazu behinere ezer iakinarazi. Osagileak ikhusi ahal zaitu?

GAR.—Ez, osagileak enau oraindano ikhusi, bainan...

ANT.—Zer bainan, ordea? Eztakit zer diozun: egitan ere eztut argi ezer ikhusten. Nehoiz etzara gaiso egon; zure lengusina begiko eta xaloek ere, eztarautate deus ere agerrarazi eta zuk, orain, bet-beteean, eri zagozala sinistarazi ahal derautazu? Tira! Tira! Etzazula horrelakorik asmatu ere egin.

GAR.—Zuk ahal dakizu nire gorputzaren berri, iragan urthe bethean ikhusi ere egin enauzularik?

ANT.—Aski dut zalantza eta buru-nahasmendurik, Garden. Egia erran egidazu, egia osoa. Aaaa!... behar ba da, eri zagoz, bainan ezta zure soina, apika, eri dagoena, zure gogoa baizik.

GAR.—Ai, nola adieraz ba neki! Bainan, barkatu egidazu, othoi, nik orain zuri atsekabe eman beharra. Etzizaidan zilhegi luzaroagoz isilik edukitzea. Huna, bada, erran: egun hau bainon lehen zure ta nire inguruko gauza makhurrak aldatu nahi izan ditudan arren, ahaleginok alpherreko izan ditudala aitortu behar derautzut.

ANT.—Zer hauiek zeure zeureak ezpaldin ba dira, zeri axola?

GAR.—Zure hitzerdi aski dut barnea lasaitzeko. Diodan hori ene aitarekikoa da, ordea.

ANT.—Zure aitarekikoa, zeer? Makal, eri ahal dago zure aita iauna? Preso othe? Ala, dirugabe gelditu othe da?

GAR.—Guzti hoik baino gaizkiago dena du harek.

ANT.—Ihes egin ahal du? Hil egin nahi dutea?

GAR.—Ez, Anton. Gizon batek sinismena galtzea, heriotze guti dela uste duzuna? Bekhatu bideetan barna ezertariko kezka gabe ibiltzea? (*Nigarrari emanaz*).

ANT.—Oraintxen hulertzen derautzut argi eta garbi.

GAR.—Eta nik, enuke aita hunela utzi nahi, ni haren ondotik aldendutzean gero ta okherrago izan eztadintzat. Orain, nire agirian hunen makhurki ari delarik, zer izango othe lizateke geroztik, ene aita hori etxean bakharrik gelditzean?

ANT.—Ta zergatik azaldu ezterautazu lehenago zure korapilo hori? Baretu zaite, alaere, baretu.

GAR.—Zer erantzungo othe zenerautan arrankuratan bainengoen.

ANT.—Nik, ordea, zurekin ezkondu gura nukeena, etzazula ahantz.

GAR.—Bai, ontsa dakit hori, ustez behintzat. Halabaina, ezkontzaldian, eztira senhar-emaztekiak soilik elkhartzen; ezkonberrien ahaideak ere, nolabaiteko elkhar-behar bat izanen dutena gogoan idukitea dagokizu.

ANT.—(*Irripar eginaz. Ateko txirriñak hotsegiten du*). Eztut arranotan horrelakorik asko pentsatu! Halarik ere, gogoan behar dut, bai, zure oraingo ohar hori.

GAR.—Parre egin zazu; bainan, nola nahi duzu nik aita bakharrik uztea?

KAIA TA ESTALPEA*

(Atal bakarreko antzerkia)

Yarduleak:

MARTIN, 21 urteko mutil gazte lerdena.
ISIDOR, aren anai gazteagoa, 16 bat urte; itsua da.
AMALE anderea, bion ama, alarguna da.
OLABE yauna, Amaleren senarra zenaren adiskide mamia.
ANTON, Isidor-en adiskidetxoa, 15 bat urte.
NESKAME bat.

(AMALE eta NESKAME-ren ordez, AITA eta MORROE bat izan ditezke, itzak zerbait aldaturik, gizonezkoak bakarrik egitekotan)

Oraingo aldia.
Agerlekua: etxe nahikoa eratsuko yangu edo yantokia. Erdian, maia, eta aulkiak inguru.

I. agerrunea
MARTIN.

Martin.— (Etxeko yantziz, zamarra gabe edo alkandora utsik. Alkigañean dagon maleta batean gauzak sartu ateraka, yanzkiak eta abar)
(Kantatuaz:)

Binbilo bonbolo sendalo,
Akerra Frantzin ba lego...

(Itzez:)
Egun luze auek ere bukatu urren dira, eta astelenean, ba noake emendik aske ta libre, txoria bezela.
(Kantatuaz:)

Akerrak kanta,
Idiak dantza...

---

* *Argitaratubakoa*, 1954.

(Itzez:)

A zer nolako dantza gozoak egingo dituan emen dagon Martin-ek arako Ezpain-ezti arekin urrengo igandean, eta lehenago ere bai.

Illabete laister da ikusi ez dedala... soiñez. Baiñan iduriz, irudimenez? Egunero; zer gero egunero? Orduero, uneoro, beti, beti, ikusten ari naiz aren arpegi borobilla, aren begi dizdizuak, aren ille beltz beltza, aren ao... Ene, nagon isilik! Aren aoa abaraska yarioa da-ta!

Orren urruti ezpaldin ba lego! Egun osoko bidean eta gehiago...

(Sakeletik fotografia atera, ta begiraka diardu, eta aurpegirantz urbiltzen du, baiñan batbatean urruntzen eta maigaiñean uzten du)

Ez! Au paper zati bat besterik ezta! Paperik ezta aski andre bat maitatzeko. Norberagandik urrun dan gauzarik ezin diteke maitatu, eta orregatik, banoa, banoa laster, etzi, etzi bertan... biar naiago nuke baiña.

(Argazkia gorde beza sakelean)

Iri artara eldu bezin laster yoango naiz aren galde. Ikasle arazoak begoz! Soldaduzka baimenaren azken-egunak an emango ditut, emen etxeon asperturik nago-ta! Nor ez aspertu beti gauza berdiñak entzuten! Bateko amaren sermoiak dirala, besteko nire anaiaren santu—zaletasunak. Oiek eztakite noski, munduko berri.

II. agerrunea
MARTIN eta ISIDOR.

Martin. — Ene ba! Ta bera dator oraintxe. Gaixoa! Itsurik dago, ta onek eztu ezeren ezauerarik.

Isidor.— (Aztamuka ari da, eskuekin alkiak arkitu nairik) Iñor al dago emen?

Mart.— Bai, Isidortxo, neu nago emen. Ezer nai al duzu?

Isi.— Bai eta ez. Zurekin egon nai nuke batetik, baiñan bestetik bildur naiz beti bezela eztabaidaka asiko ote garen, eta azkenengo egun auetan ez nuke nai, bada —sinista zazu— zurekin aserretu, iñoiz bezela.

Mar.— Ori zure esku dago. Niri paketan uzten baldin ba didazu eztugu, agian, aserrebiderik izango.

Isi.— Orduan, horrela ba da, galdera bat egingo dizut. Noiz yoan bear duzu?
Mar.— Etzi yoango naiz, biar igandea delako eta amak zerbait esan ez dezan.
Isi.— Bestela gaur yoango al ziñake?
Mar.— Bai; edo atzo obe gaiñera...!
Isi.— Etxea baiño ezer maiteagorik ba al duzu munduan?
Mar.— Umetan ez, baiñan geroago...
Isi.— Umearoa noiz bukatzen ote?
Mar.— Norbera andi egitean.
Isi.— Adibide, noiz?
Mar.— Noiz, ba... ni orain bezala, hogei urte ezkero gizon naiz.
Isi.— Gizon? Eta zer da gizon izatea?
Mar.— Gizon izatea? Bai galdera polita! Gizonaren gauzak egitea.
Isi.— Eta zeintzuk dira gizonen gauzak?
Mar.— (BEREKIKO: Zer esango diot nik oni?) Zera... lan egitea..., gizonartean eta gizartean norbere kontura ibiltzea, eta horrela...
Isi.— Orduan, zu eta ni ume gara oraindiño, bada zuk, nik bezela, eztezu lanik egiten, eztezu irabazten eta...
Mar.— Badakizu soldadutzea egiten ari naizela, ta... ikasten ere bai.
Isi.— Bai, nik arestian esana, oraindiño zu ta ni ume garela, eta umeak etxea ta gurasoak bear dituala maiteen izan.
Mar.— Nik eztut ordea, etxekoen aurka itzegin.
Isi.— Itzik eztakit, orra ba! baiñan egiñak...
Mar.— Tira tira! Onez onean amaitu dezagun itz-aspertu au, baiña zuk munduko berririk ezertxo ere eztakizula sinistuko ba zenu, obe.
Isi.— Bai, eta zuk asko, nunbait. Zure aldeko ezten zerbait entzun diot amari, ain zuzen.
Mar.— Amari? Zer esan dizu amak nire kaltezkorik?
Isi.— Kaltezkorik ez; onak eztiran gorabera batzuek bai ordea.
Mar.— Andren esanak!
Isi.— Aizazu, Martin! Eztezula amagatik andre esango!...
Mar.— Ama ez al da bada, andre?
Isi.— Gezurra dirudi seme zintzo batek horrela itzegitea. Ama itz bakarra da munduan, amak eztu itzulpenik, ez zear ingururik. Ama, ama da, eta kito!
Mar.— Nori entzuten dizkiozu orrelako gogoeta txukunak? Eztiot egia eztenik, baiña...

Isi.— Egia baldin ba da, alperrik duzu ukatzea.
Mar.— Bai, nik ordea, ezagutzen ditut egia zaarrak eta berriak ere bai.
Isi.— Egia berriren batek gezur ez al dizu irtengo?
Mar.— Mintzo ezkutu ortan zer adirazi nai didazu?
Isi.— Atzo ta erenegun esan nizuna bera. Ezin dut sinistu nire anai Martin zarenik. Etxetik yoan ziñanean, orai zortzi illabete, hamaika gauza eder zugandik ikasirik nuen. Gehiago ta gehiago ikasteko irrikiten nengoen zu noiz etorriko, eta orra ba! leenego gauzak ere nik gogoan eta zuk azturik-edo dituzu...
Mar.— Leen ere esan dizut ni gizon egin naizela.
Isi.— Esan bai, egin duzu; agerbide edo pruebarik eman ez, berriz.
Mar.— Setatsua zara, Isidor, eta berriro ere aserretu egin bearko.
Isi.— Arako Katoliko Ekintzan izlari agertzen ziñanean, eta apostoluaren itzak esatean: Egoki denean, eta are egoki eztanean ere...
Mar.— Umearen zentzuna, etxean entzuna!
Isi.— Eta urte erdian egin al zara gizon? Enekian orren motzean egiten zanik gizon-karrera!
Mar.— Aspaldian ezaitut yo, baiña bide ematen ba dezu...
Isi.— Indarraren legea! Lege madarikatua! Bada yakin ezazu indar guztiak bukatu egiten direla, eta egia beti dela berdin, beti aldakaitz, beti bat, Kristo bezela.
Mar.— Sermolari izan bear al duzu?
Isi.— Orixe izatera elduko ba nintz! Zer zenuke ezer bikañagorik betiko lanetan aritzea baiño? Uzta ugaria da, ta uzta-biltzailleak gutxi.
Mar.— Aspertu egiten nauzu ario ortaz.
Isi.— Leen eziñan aspertzen ba.
Mar.— Beti ez gara berdiñak.
Isi.— Ai, ai, ai, ai!... Auxe bai zoritxarra!
Mar.— Zuk nire anaia ordez arreba dirudizu, horrela zinkuriñez ari izateko.
Isi.— Gizonek ere bear dute zinkurin egin garaia denean. Gizonaren arima eta emakumearena, berdiñak ez ote dira, ba?
Mar.— Gizona sendoa da, eta emakumea makala.
Isi.— Beti ordea?
Mar.— Beti.
Isi.— Zu gizona al zara?

Mar.— Baietz esan dizut, zazpi bider ere. (GEROAGO TA MINTZO GOGORRAGOZ).
Isi.— Orain ille asko eztela, ama makalak sendotu ta indartu ta adoretu zinduzan ba!
Mar.— Noiz izan da ori?
Isi.— Noiz? Orain aguro yoan nai duzun iri ortara lenbizikoz yoan bear izan zenuanean.
Mar.— Etxetik irtengabea nintzelako.
Isi.— Eta orain, etxetik irtenegia zarelako.
Mar.— Gero, Isidor, astinduko zaitut (ESKUA YASO TA ZEMAI EGIÑAZ)
Isi.— Egia da, ta enaiz isilduko.

III. agerrunea.
LENGOAK ETA AMALE.

Amale (ATZEKO ATETIK AGER BEDI). Zer iskanbilla darabiltzute? Berriz ere alkarren asarrez zagozte? Nor asi da orain ere?
Mar.— Ori asi da.
Isi.— Bai, ni asi naiz,... galdera bat egiñaz.
Mar.— Eta eztabaida sortuaz. Baiña etxeko kutuna dalako... beti nagusi, beti errazoia.
Ama.— Ez zaite lotsagabea izan.
Mar.— Leen nire esanak ongi ematen zuten; orain berriz...
Isi.— Beti ez garela berdiñak esan duzu-ta.
Mar.— Isidor au ondo umetu duzute behintzat. Yakiña, etxean aur bat bakarra dagoenean arentzat dira palagu ta txerak, arentzat laztan guztiak, arentzat sariak...
Ama.— Isidor zintxoaz zuk itz oiek esan bearra! Agian, neu naiz errudun zure ibillerak obeki zaitu ez ditudalako. Ene ba, umea nola okertu litekean...!
Isi.— Amaren itzalik gabe.
Mar.— Seme umezurtz oso egin al nauzu? Eztut uste nik amarik ukatu dudanik.
Isi.— Ai, Martintxo, zorionez emen dugu munduko ama, bikaiñ yakin ezazu beste AMA bat ere bearreko duguna!
Mar.— Ona emen berriro ere Aita Bartolo!...
Ama.— Eztuzula orrelakorik esaten!
Mar.— Isil bedi bada, Isidor, niri min eman besterik egiten ezpaitu.

Isi.— (BEYOA EZKER ALDEKO ATETIK): Arian arian, zetzen da burnia.
Mar.— Biarkoa ezkero, ni ere yoango naiz, bai! (BEYOA ESKUMALDEKO ATETIK)

IV. agerrunea.
AMALE, bakarrik

Amale.— Biotza oso naasia ta mindua dut. Ai, Yauna! Badakit orain seme Martinen biotzean zer gertatzen dan, aren barrenean zer dabillen. Etxetik gazteak lenengoz ateratzea, bildurgarria izaten omen da. Ta orixe du gure mutillak.
Ango norbaitekin naastu da, neskatxa zororen batez maitemindurik dago, eta etxean eztu pozik aurkitzen, leengo oiturak astun eta latz egiten zaizka.
(MALETA BARRUA AZTERTUAZ)
Bai, emen izango du irudiren bat, agian. Ez diot ordea, beiñere aurkitu. Nolakoa ote da neska ori? Irudia bera ere, zer moduz egiña ote da? Badira orain irudi erdi billoizak ere...
Alperreko lana! Emen eztagoz soiñekoak besterik.
Ai, lehenago berdin berdiñak ziran seme bi, ona emen elkarren aurrez aurre. Bata txintxoa, Isidor gaixoa; eta beste au, doakabea, begi argia duena, baiña animaz itsutuberri duguna!... Zer egingo nuke nik mutil au emen geldiarazteko?

V. agerrunea
AMALE, NESKAMEA eta OLABE YAUNA.

Neskamea.— (ATZEKO ATETIK AGERTUAZ) Ugazabandre, emen duzu yaun bat; Olabe yauna omen da.
Ama.— Sartu dedilla lenbailen.
Nesk.— Ondo da. Bereala, ugazabandre. (BEYOA)
Ama.— Lehenago batean itzegin genuan, eta aren berriak yakin nai nituke.
Olabe.— (AGERTUAZ) Arratsaldeon, andre Amale! Nola zabiltz?
Ama.— Guzitara, Olabe yauna. Pozgarriak baiño negargarriak ditugu gehiago bee ontan.
Ola.— Beste berri txarren bat al duzu?
Ama.— Bai, ba. Egia esan, ezta gaurkoa berri ori. Eta badakizu, egunsenti bakoitzak itxaropen izpia eman oi digun antzera, illuna-

bar bakoitzak ere, alako samin-tanto mardula utzi oi digu ezpaiñetan.

Ola.— Ezpaiñetan bakarrik baiño ezpada, tira...

Ama.— Ezpaiñetan barrena irrist egiten du, ordea, biotzeraiño.

Ola.— Ondo diozu, Amale. Alare, gauzak aldebatetik bakarrik ez dituzu artu bear-ta... Goizean mintzatu naiz berriro ere Donostiako miriku orrekin, Isidor txintxoari buruz.

Ama.— Eta zer dio?

Ola.— Itsuen arazo ontan ere, aurrerapen andiak egin dituztela eta, nik dakit ba... Or, Katalunia aldean ba omen da bat, ospatsua, ikusmengabetuak argitu dituana.

Ama.— Ene ba!... Zer diozu? Ai, olakoxe bat!...

Ola.— Lendabizi behintzat Donostiara yoan bera dugu, miriku aren ikasle izandako gazte onengana, ta esaten diguna entzun bear; mutilla ikusi ondoren, yakiña!

Ama.— Gauza arrigarria izango litzateke!

Ola.— Biar, igandea da. Etzi astelena ere bai, ta, beti ibilten da lagun gehiago batera eta bestera. Etzidamu yoan gintezke Donostiara. Zer derizkiozu?

Ama.— Asteartean? Bai, ongi da. Astelena egun illuna izango dut, noski, baiñan astartea pozgarria ba litz...

Ola.— Astelenean zer duzu bada?

Ama.— Martin doa berriz ere iri andi ortara, bere soldaduzka yarraitzera, eta osoro galduko ez ote dan bildur naiz.

Ola.— Zer ordea?

Ama.— Andik etorri zaigu mutilla, eta elizara yoatea nekagarri zaio, ta barruko bizitzaz mintzatzea, aspergarri...

Ola.— Eta zuk uste duzu...

Ama.— Bai, ba! lokarriren bat duala iri artan, neskatx purtzillen bat. Hamaika bider esan diot aren irudiren bat erakusteko ba, nik ere ezagutu dezadan... beti alperrik.

Ola.— Zergaitik orain arte niri ez esan gauza oiek?

Ama.— Ez, orixe ez! Naikoa lan ematen dizut txikiaren aldeko gorabeera oiekin ere.

Ola.— Etzazula orrelakorik uste. Eta aizazu, Zaragoza-n dagola gudari ez al didazu iñoiz esan?

Ama.— Bai, iri ortan. Badakizu esaera: Zoro guztiak ez dagoz Zaragoza-n. An ere, berak nai dituen ikasketak egiteko errezago zuela-ta, bertaratzea iritxi genduan. Zorigaiztoan, ordea...

Ola.— Nork daki... Zeinbat illabetez egon bear du oraindio?

Ama.— Asko, beste urte bete edo.

Ola.— Ta zerbait lortu al ba geneza? Alegia, mutilla Donostiratzea edo...

Ama.— Ai, Olabe yaun maite ori! Ametsa ez ote zure gurari eder ori?

Ola.— Ametsa? Ez yakin ba. Almena duten gizonek, gauza andiak egiten dituztela badakizu-ta! (PARRE ANTZEAN) Ez gero uste izan, almen aundiko gizon ori ni naizenik!

Ama.— Zuri eskerrak, oraiñarte arlorik asko zuzendu ditut bizitza ontan.

Ola.— Esan bezela, ni ez, baiñan almeneko gizonak ba ditut adiskide zintzo. Esaterako... zera... Urdiaran-en alaba-ta orain emen direla uste dut, eta aren senarra ta orren aita ere, militar aundi dituzu, au batez ere... Gaur berton Urdiaran-i itzegingo diot. Ezagutzen al duzu?

Ama.— Urdiaran, tolosarra agian, ez ote? Intxauspetarretakoa...

Ola.— Berbera. Nik artu-eman aundia dut onekin, eta mesede ori eztuala ukatuko etsi etsia nago. Ederki, tira ba! Gaur ez baldin ba nator, berandu dalako edo, biar agertuko naiz.

Ama.— Olako gizon doatsurik!

Ola.— Isil, isilik, olakorik esan gabe. Agur, bada, eta gero arte edo biar arte! (BIOA)

Ama.— Zoaz ondo, eta Arantzazuko Amak onetsi baitza zure ibillerak. Nork daki...! Gurasoen aurrean ere, umeak okertu ditezke, baiñan zenbat errazago galdu aurrak amaren magaletik urruti!... Eta Isidor-i, ere, nola esango diot Olabe-k esana? Itxaropena eman, sinistarazi agian, eta gero, beraren begi argigabeetaz azken onik izango ezpa genu?

(ATZEKO ATETIK BIOA)

VI. agerrunea.
ISIDOR, bakarrik. Geroago, ANTON.

Isidor.— (ESKERRALDEKO ATETIK AGERTUAZ) Iñor ba al dago emen?... Isilik, guztiak isilik, ni ikasten ari naizen olerkiak dion bezala. Iñor eztagola dirudi, eta orrela ezker esan dezadan Amari eskeiñi diodan poematxo atsegingarri au:

(GOZARO TA ASTIRO OGUZI BEZA)

Nun da Zeruko Ama?
gaur galdegin dut nik,
nun da izar ederra
dirdiraz beterik?
Illargiak ez dizu
olako ederrik
ez eguzkiak ere
izpi betikorik.
Nire galderak eztu
izan erantzunik;
Lurra isilik dago,
Zerua isilik,
Ama goraipatzeko
Ezpaitute itzik.
Ortarako duin dira
Aingeruak soillik!...

Anton.— (AGER BEDI BERTSUOK BUKATU BAIÑO LEEN) (TXALOKA ERASOTEN DIO) Ederki, Ederki, Isidor! Entzun dizut azkena. Andre Mariaz ari al ziñan?...

Isi.— Bai, Ama Birjiñari eskeiñitakoa duzu neurtitz ori.

Ant.— Zuk asmatu al duzu?

Isi.—... Bai, ba!

Ant.— Ene ba! Bai pollita dela! Noiz asmatu?

Isi.— Arestian, nire gelan egon naiz eta pentsatzen asi, eta bertsuok leuntzeko bi aldiz alegin egin dut, eta orra, gero poliki irten du. Nai al duzu idatzi aztu ez dakidan?

Ant.— Bai, noski! Mentxe dut papertxo bat eta baita lapiz koxkor bat ere,

(ANTON ESERI BEDI, ETA IDAZTEN ASI. BITARTEAN, "PLAKA" BAT ENTZUN-ARAZI BARRENEN; Ave Maria-REN BAT. IDATZI ONDOREAN, ELKARRI BEGIRA BEZELA BEGOZ, ERESIA ENTZUTEN.)

Isi.— Ene ba! Munduan eztu musika eta neurtitza baiño ezer bikaiñagorik!

Ant.— Orregaitik esaten dute zerutarrak eta yainkotiarrak direla!

Isi.— Nola dakizu ori?

Ant.— Literatura ikasten ari gara orain, eta an, beti edo maiz beiñipein, musikari buruz "divino arte" esan oi dute, eta olerti edo poesia, berriz, au ere zerutiar bezelakotzat yoten dute.
Isi.— Ai, noiz yarraitu al izango dut orain bi urte utzi nuen lana! Ikasi, bai gauza ederra ikasi ta ikasi aritzea!
Ant.— Iñork eztaki laister zer egingo dezun...
Isi.— Eztizut ulertzen, eta parkatu.
Ant.— Bai, txoritxo batek esan dit neri zerbait...
Isi.— Zertaz, ordea? Ez nazazula artegatu...
Ant.— Esango dizut ba. Olabe yauna ezagutzen?
Isi.— Bai, aspaldi luzaz gaiñera.
Ant.— Donostiara zoaztela berarekin, esan dit, osatzaillearengana.
Isi.— Bai ori esan du beti Olabe yaunak; ez genukela etsi bear...
Ant.— Bada, oraingoan, zerbait itxaropen omen du, an adirazi diotenez.
Isi.— (ANTON-EN ESKUAK BILLATU NAIRIK; AZTAMUKA) Amatxo, ezin dut sinistu orlako gauzik! Ene! Burua zorabiatzen zait...
Ant.— Baretu zaite, baretu! Zertarako esan dizut baiñan, isilik eukiteko agindu dit-eta!
Isi.— Ai, egia ba litz! Lourdes-era yoango giñake. Zu ere bai, Anton.
Ant.— (ARRITUTA) Lourdes-a? Ene, bai urrun ere!
Isi.— Ez ba, orain eztago urrun. Ba al dakizu nor dagon an?
Ant.— Ez oba! Lourdesko Andre Mari.
Isi.— Et ea al dakizu eliza orren istorio ederra?
Ant.— Bai, Ama Birjina agertu zala.
Isi.— Ongi diozu. Alabaiña, zerbait berezia du agerkera orrek, beste toki askotan ere agertu izan baita zeruko Erregiña.
Ant.— Zer gauza berezi, ordea?
Isi.— Euskaldun yatorriko neskatxa bati, nunbait, agertu zitzaion, Bernartetxo Zubitarrari alegia, eta egundo ark entzun gabeko itzok esan: "SORKUNDE GARBIA, KUTSUTUGABEA NAIZ NI..."
Ant.— Orduan, orregaitik esaten dugu noski, Andre Maria guztiz garbia...
Isi.— Yakiña ba!
Ant.— Oraintxen bai ederki ulertzen dudala Andre Mariaren garbitasun paregabea!
Isi.— Argi ta garbi dagon gauza da ori! Berberak esan zuan-ta...!
Ant.— Aurten yai aundi bat egin bear dugula adirazi digu irakasle nagusiak. Erriko mutillik geienak an bilduko emen gara. Zuk ere,

oso polliki egingo zenuke bada, orrelakoxe bertsu gozoak esan edo...

Isi.— Amak ez lidake utziko, pena ematen dio-ta.

Ant.— Orduan,... agertu gabe, barrutik esango zenuke olerkiren bat, orixe edo. Bai, Isidor, bai. (POZ POZIK) Esango diot bai, gure apaiz gazteari, esango diot...

Isi.— Eztezazula orrelakorik egin, Anton! Bestela urrengoan eztizut esango nik dakizkidan ipuietarik asko.

Ant.— Oraintxe azalduko didazu lenbizikoa.

Isi.— Amaika gabetako ipuiak irakurten ditu goiko Txomiñ-ek, eta neguko gau luzeetan kontatzen dizkit batzuek, ikaragarriak. Itsu ez nintzanean, ikusiak ditut irudiak ere. Baiñan orain ez ditut ongi bururatzen. Ango zeru urdiñak zuen edertasuna! Zuk agian, irudiz ikusi zenitzake ango koloreak, apaiñak oso. Nire begiak ordea, beti illuna, beti beltza baiño eztakusate. Txikitan etxean gauez batbatean argi gabe gelditzen giñanean bezela, alaxen illunpean nago ni beti.

Ant.— (ZUZPERTU ARAZI NAIRIK) Arestian, ordea,... eguzkiaren izpiak eta illargiaren edertasuna aipatu dituzu...

Isi.— Ori bai. Nire etengabeko gau ontan, gaztetxotandik dut barren--barrenean orain ere, nire logelan daukadan kuadru maitagarriaren irudi garbia. Murilloren laurka omen da, ta Miren Neskutsa agiri da. Orrek ematen dit alako poz berezia niri.

Ant.— Beste sinismendun batzuek ordea, ez omen dute Andre Maria maitatzen ez goraipatzen.

Isi.— Bestelako umezurtzak! Oiek eztakite pekatari aundienak ere, gizon zaar eta biotz gogorrenak ere, Andre Mariarengana yoten dutela erruki billa, laguntza eske, beren bizitzan itsasoa bete pekatu egin ondorean...

Ant.— Oroipen ona duzu, orraatik!...

Isi.— Entzuten dudan guztia gelditzen zait buruan, eta orra ba...

VII. agerrunea.
LEENGOAK eta AMALE.

Amale.— (ATZEKO ATETIK AGERTUAZ) Ba nengoan ba, izketan nortzuk ziarduten-ta! Ona emen gure gizontxo biok! Zertzuk kontu ote dituzte beren artean?

Isi.— Antontxo asi da yai bat egingo dutela-ta, nik bertsu batzuek esateko-ta...
Ant.— Politak gero! Xenpelar-enak baiño laburragoak agian, baiñan oso egokiak.
Isi.— Anton-ek beste zerbait ere esan dit.
Ama.— Zer gero?
Ant.— Zera bada... Olabe yaunak adirazi didana.
Ama.— Zer esa dizula, orde, Olabe yaun ongilleak?
Ant.— (ESKUAZ ISIDOR IZENDATZEN DU) Norbait Donostiara yoan bearreko dela, eta bear bada barri on onak izango dituala.
Ama.— Zeruko Ama errukitsuak lagunduko al digu, edota egonarri ta eroapena gugan isuri.
Isi.— Otoi egin dezagun,uste ta itxaropenez beterik.
Ama.— Bai, gaur bertan bederatzi-urren bat asiko dugu, eskerrak emateko eta eskatzeko ere bai.
Ant.— Nire izebak ere atzo bukatu du, eta amaitu baiño leen, nai zuena, iritxi omen du.
Ama.— Bai, dena dela, ezertxo ezta gizona otoi egin ezik. Gure almena deus ezpaita.
Ant.— Barkatu bada, andre Amale, baiñan yoan bearra dut, onezkero gure ama nire galdez asiko zan-ta.
Ama.— Zorionekoak gurasoak, seme-alabak txintxo ta esanekoak diren artean. Gero, azitakoan ordea,... zaarrago ta txarrago!
Isi.— Agur, ba, Anton! Biar igandea baita, zortziretako mezatara, ezta?
Ant.— Bai, Yainkoak nai baldi badu. Agur, ba, eta gabon! (BIOA)
Amale ta Isi.— Agur, gabon, bai! (IXILUNEA) (GEROXEAGO:)
Isi.— Ama, or al zagoz oraindio?
Ama.— Bai, maite, ementxe nago zuri begira, zuk igarri ez arren. Laztan bat eman nai dizut.
Isi.— Zergaitik, ama?
Ama.— Maite zaitudalako.
Isi.— Zer da maitetasuna, amatxo?
Ama.— Zerbait edota norbait maite izatea, gura izatea.
Isi.— Eta zer maitatzen dugu?
Ama.— Gauza asko, enetxo. Baiñan aldakorrak garenezkero, zer ikusi ta uraxe iritxi nai izaten dugu.
Isi.— Nik entzutea dudanez, ezagutzen duguna maitatzen dugu.

Ama.— Alarik ere, maiz okerreko gauza asko ezagutzen ditugu edo ez ditugu ongi ezagutzen, eta orrela gaur maitatu eta biar gorrotatu egin oi ditugu.

Isi.— Eta orain, gure Martiñi buruz, zer esaten yarduten duzu?

Ama.— Orrek, ere, ene semetxo, norbait ezagutu duela erri aundian, eta neskatxa ori dirudianez, eztela gure antzekoa, eztakit zergaitik baiña...

Isi.— Badakizu goizean ere eztabaida izan duguna.

Ama.— Bai, baiñan zuri ez dizu yaramonik egiten, gazte zarelako noski.

Isi.— Eta zuri ere ez, amatxo, zaarrago zarelako nunbait.

Ama.— Parregura ematen didazu. Alaz ere ederki esana. Gazte zoroa da bai, baiñan egunen batean, agian nigar agingo duan egun beltz artan, oroituko da ziñez zutaz eta nitaz. Emengo zorion-mozkor egunak laburrak baitira, alabearrez!

Isi.— Oiñotsak dira! Martin ote? Banoa ni.

Ama.— Bai, zoaz sukaldera. Martiñi itzegin bear diot argi ta garbi.

Isi.— Biotzean ukituko al diozu! (ATZEKO ATETIK BIOA). (AMALE ERE BAI, EZKERREKO ATETIK)

VIII. agerrunea
MARTIN; geroxeago AMALE.

Martin.— (ESKOI ALDEKO ATETIK AGER BEDI) Aspergarria, eta aspergarria! Gaur ere onezkero eztut kartarik. Neske zuntzun orrek zer uste du? Kartatxo bat ere egin ez niri! Astartean, an agertuko natzaio, ta... ikusiko dugu. (ZIGARROA ISIOTZEN DU)

Emakume batek onela lilluratuta lezakela ni bezelako mutil bat! Baiña, tira, tira!!... Beti or elizan sartuta egotea ere, ez duk niretzat egiten dena. Gaiñera zer? Zertarako daude gizonak, eta andrak eta... neskatxak...?

Orduan, ba!... Zertako bazter batean aztuta utzi bear? Etzi, ara eldu bezin laster, telefonuz itzegingo diot, eta biaramonean, illunabarrean... (BEGIAK GRIÑATSU DIRDIZKA)... besoz beso yoango gara, elkarren aldamenean, gerok dakigun txoko artara, eta...

Ama.— (AGER BEDI) Emen al zagoz? Onela obe. Bestela oraintxen otsegingo nizun, zurekin itzegin bear dudalako.

Mar.— (MUTIRI) Zer nai duzu, bada?

Ama.— Zer nai dudan? Ez al dakizu ondo ta geiegi ere, nik nai nukena? Nire semeen zori ona lendabizi.

Isi.— Bai, badakit. Ezin asmatu dut ordea, zertaz ari zaren.

Ama.— Ai, ene! Zu etzera noski gure Martin.

Mar.— Orraitio, auzoko mutillen bat ote naiz bada?

Ama.— Etzazula amarekin orrelako irtenaldirik!

Mar.— Ama, badakizu gauzak horrela artu bear eztirana! Zer nai zenuan bada, ni beti ume izatea?

Ama.— Ume izatetik gizon egitera alde andia dago. Zu gazte zara oraindio, alegia. Etxera biurtu ziñanetik ordea, beti illun, umore txarrez, eta guztiekin asarreka ari zara.

Mar.— Ta Isidor-ek zertan du zertan niri sermogiñen ekin?

Ama.— Orraitio!... Ezer gauza berririk esan al dizu Isidor-ek oraiñarte ez zekianik?

Mar.— Ez ori ez, baiñan egunero oiloak ere, nazka ematen du!

Ama.— Ara mutillaren esana! Zer nolako neskatxaren bat aurkitu al duzu an, emengoek egin ez zizutena egiteko?

Mar.— (ESTU ANTZEAN) Zer egin dit ordea?

Ama.— Zer egin? Lenbizikoz behintzat, lotsa galarazi. Eta lotsa kendu ezkero, sinismena otzitu. Nola ibilli ote zara zu? Leen ziñan bezin garbi ote zara gaur? Lepoa egingo nuke ezetz!...

Mar.— Baiñan, ama, nork esan dizu...

Ama.— Nire biotzak esan dit, nire senak adirazi dit. Zorigaitzez, berandu samar agian.

Mar.— Etzazula orrelakorik asmatu.

Ama.— Zure aita zintzo zenaren oroimenari laido egin diozu, zure amak irakatsitako bideari narda, ta batez ere gure betiko Yaunaren agindueri ere... Biotza erdibitzen zait!...

Mar.— (ZERBAIT BIGUNDUAZ) Ama, etzazula orrelako itzik aipatu! Nik... eztut uste... iñori kalterik egin diodanik. Larregi estutzen zara...

Ama.— Zure ama naizenez, auxe eskatzen dizut: utzi dezazula artutako bide ori, utzi neskatxa ori eta orren antzekoak ere. (BARETUAZ)

Mar.— Nik ere ez al dut gazte bezala bizi bear?

Ama.— Bizi? Bai orixe bizi gazte bezala, ez ordea pekatuzko bizitzan. Ez al dakizu bide ori gezurrezoa eta atsekabezkoa dena? Ez al dakizu zaarragoen esanak onartzen ere? Zu izan zaren mutilla!...

(IZKERA ALDATUAZ) Zaragozan baiño beste modutan egongo ziñake zu, esaterako Donostia-n edo. Ez Zaragoza toki txarra dalako, Donostia etxetik urbillago dagolako baizik.

Mar.— Ama, ori eziñeko gauza da-ta, ez egizu eziñekorik amestu.

Ama.— Eta al ba litz ere, nai izango al zenuke onuntz etorri?

Mar.— (ZALANTZAZ) An oso ongi gagoz egon, yaten ondo, nik ofizinan lan gutxi, ta gaiñera ikasi ere bai...

Ama.— Eta nai bezala ibilteko kaleak libre eta bazterrak illun!

Mar.— Baiñan iri aundi ura basamortua dala uste al duzu?

Ama.— Ez hainbeste, enetxo! Alaz ere, pizti gaiztoak ugari izango dirana badakit, eta oietako bat aski eta naikoa da zu bide galduratzeko.

Mar.— Ekin beti, errotari bezala!

Ama.— Lotsagabea! Gauza on bat esan nai zuri, baiña zuk uzten ez, eta orain baterez. Ez dizut esango. Orra zitalari egiten zaiona.

Mar.— (ARRETAZ) Zer, ama zer? Esan egidazu, esan. Leen eztuzu orrelakorik aipatu-ta.

IX. agerrunea
LEENGOAK eta NESKAMEA

Neskamea.— (ATZEKO ATETIK AGER BEDI, KARTA BAT ESKUAN) Ene nagusiok: karta bat eldu da.

Ama.— (NESKAMEARI KARTA ESKUTIK BIZIRO KENDUAZ) Ekatzu ona! (ARTZEN DU).

Nesk.— Ene ba! Martin zaldunarentzat izan da-ta!...

Mar.— Orduan, ama, emaidazu, niretzat da-ta.

Ama.— Oraintxen emango dizut, gizona. (NESKAMEARI) Zoaz, eta Isidor-i onera etortzeko!

(BIOA NESKAMEA)

Mar.— (KARTA AMARI ESKUTIK KENTZEN ALGINDUAZ. AMAK ESKURA DARABIL KARTA SEMEAK KENDU EZ DAKION) Ekatzu, ama, ekatzu! Neurea da-ta!... Eztuzu eskubiderik besteren karta idekitzeko! Ekarri, ekarri!!!... Eztakit, bestela, zer egingo dudan!...

Ama.— Orixe gauza pollita! Itz gozoak dituzu zure amarentzat.

Mar.— (AMORRUZ) Ekarri, eman! Puxkatu egingo dut, bederik, eta onela ezta iñorentzat ere izango!

Ama.— (OSO BARE) Ikusten, ikusten...? Lotsarik baldin ba duzu, oraintxe bertan utziko diozu burruka orri.

(AMAK KOLKOAN SARTZEN DU KARTA. MARTIN, UNE BATEZ KONKORTUTA GELDI BEGO. GERO, BAZTERRERANTZ YOANGO DA, ITZ EGIN EZIÑIK; AMORRUZ. ORMARA BEGIRA BEGO; BIZKARRA EMONAZ)

Ama.— Ai, semak azi itzazu!... gero beren ama yoteko ere gertu ikusteko. (SAMURKIRO) Ezin, ordea, amak semeekin burrukatu! Ama da beti galtzeko, ama barkatzeko, Ama aztutzeko...! (ARNAS AUNDI EGIÑAZ) Eta orain, zurekin tratu egin nai nuke. Karta au zuk irakurriko duzu lendabizi, baiñan aurretiaz nik ikusi bear dut nork egiña dan, noren izenpea duen, nundik datorren...

Onartzen al duzu, seme?

(MARTIN-ek ORAIN BIRA EGIN ETA AMARI BEATZEN DIO)

Mar.— Bai, onartzen dut. Zerorrek ere ulertu duzu karta niretzat dena.

Ama.— Isilik, bada, eta beiñere ez dezagula onelako ikuskizun lotsagarrik izan gure artean.

(AMAK KARTA KOLKOTIK ATERATZEN DU ETA IRAKURTEN ASI:)

"Martin Zelaiaranaga" Eta atzetik "Zaragoza"

(MARTIN-EK, EZIN EGONEZ BEGIAK ZORROZTUAZ)

Mar.— Nor dio? Ekazu, ezin dezu irakurri ta...

Ama.— Itxoin!... Ezta ordea, emakumeren letra, gizonezkoarena baizik. "Manu Zal.....

Mar.— (POZKIDAZ, LARRITASUNA UXATUTA) Manu Zalduondo izango da, alegia. Ekatzu orain ama.

Ama.— Ai, ai, ai! Orain bai pozik zagozala, e? Zure mantar zikiñak agertuko eztiralakoan.

Mar.— (BEREKIKO) Au bai poza! Naspillak guztien aurrean agertu eztiranean, yo ta kea!

(KARTA AZALA URRATU, ETA IRAKURTEN ASI BEDI)

"Aizak, Martin:

Aspaldi natxeok iri idaztekotan, baiñan, badakit ba, zorioneko alperkeria...!

Gure artean gauza berdin samar zegok, eta nola-ala denbora eman bear eta... Ba al dakit lengoan nora yoan ituan gureetako batzuek? Esaten ere, lotsatu egiten nauk,eta isilik eukiko nian, beste gorabera lotsagarriago bat... eorri adirazi bearra ezpa nikek.

Ba al dakik nor ikusi zuten tegi edo ikuillu artan? Zutik baldin ba ago, eseri adi lenbizi, bestela lurrera eroriko aiz-ta!...

¡¡Ire maite ezpaingorri begi beltz ura!!... Perla edo txirlarri ederra, egitan...!

(IRAKURTEARI UTZI, ETA OYUKA)

Gezurra, gezur borobilla!

(KARTA BOTATZEN DU LURRERA; ZAPALDU NAI DU, AMAK ERAGOZTEN; ORDEA. ONEK BIGUINKIRO YASO TA EGONARRI AUNDIZ IRAKUR BEZA:)

Ama.— Nun utzi duzu?..."...begi beltz ura!! Perla ederra, egitan!!

"Izenez Enkarni, uste diat. Ik eztuk sinista nai izango, baiñan egia duk, mutil, egia egia. Or zegoztek "Txuspin", "Konkorrandi" eta "Txorimalo" lekukotzat. Aiei galdetu, nik etzekiat besterik eta...!

Ez diat gaiago miñik sortarazi nai. I berriz onera itzuli baiño leen, yakitun ipinten izan duk nire borondatea. Aurki arte, adiskide maite, eta ez estutu, poztu baizik. Zorion-zorionak lupu ortaz libre gelditu izelako. Zure zurea, MANU ZALDUONDO."

X. agerrunea
LEENGOAK eta ISIDOR.

Isidor.— (ATZEKO ATEAN AGERTU ORDUKO, EKIN BEKIO KANTARI, OSO ZIRIKALARI:)

Madalen Busturiko:
gabean gabean
(AGER BEDI) errondari dabiltza
zure portalean.
Ai, Madalen Madalen,
ai, Madalen...!
zure billa nenbilen
orain baiño len...

(ARTEAN, MARTIN, ESERITA BEGO, BURUA MAIAN ESKU ARTEAN GORDERIK)

Ama.— Amaika amaika ta erdiko!!! Zuzen diozu, Isidor, orain ere Madalen zikin oietakoak ugari dira-ta!

Isi.— Zer gertatu da, ba? Bakarrik al zagoz, amatxo?

Ama.— Ez, seme, zure anaia ere ementxe dago.

Isi.— Nik ez nuke nai, ba, berarekin geiago asarretu. Martin, nire adiskide izango?

Ama.— Orain pentsatzen ari da, baiñan gure Martin lengo Martin izatera elduko dala sinisten asi bear dugu.

Isi.— Ene ba! Nolakoa izan da ba zuen elkar izketa? "Conferencia de la Paz" edo orrelakoren bat, alegia!!...

Ama.— Nigarretik parrera bide laburra omen, maitetasunetik gorrotora bezala.

Isi.— Bai, bai, bai. Zer diozu bada zuk, Martintxo maite? Gure ama gezurrez ari al da, niri adarra yoten edo?

Ama.— Ez, mutil, iñungo amak eztaki semeeri gezurrik esaten.

Isi.— Banekian nik ori, baiñan Martiñeri itz eragin nai, eta alperrik... Ni ere... zapuztu egingo naiz! Eta or konpon! Leen itsua eta orain mutua, mintzula izango naiz zuretzat. Orra esan!!

Ama.— (ISIDOR LAZTANDUAZ) Ai, gure txiki maitagarri laztana!...

XI. agerrunea
LEENGOAK eta NESKAMEA eta OLABE YAUNA.

Neskamea.— (AGER BEDI ATZETIK) Ene nagusiok: Olabe yauna dugu emen berriro ere.

Ama.— Aurrera, aurrera! (OLABE AGER BEDI ATZETIK)

Aurrera, Olabe yauna! Zure etxean zaude-ta... Emen ari gara guztion bakea eta elkar maitetasuna ospatzen. (NESKAMEA BIOA)

Ola.— (ARRITURIK) E, zer egitan al diozu? Martin ere emen al dago? Nik artu dudan lenbiziko poza ere adieraztera natorkizute; eta batez ere, Martin-entzat da nik orain dakardan berri on ona.

Mar.— (ARRITUAGO AU, ZUTIK YARTZEN DA; ETA BEGI ZABAL DAGOKIO OLABE YAUNARI) Zer, zer? Nola diozu, ordea?

Ola.— (PATXADAZ) Bai, bada. Gauza bat okertzen denenan, besteak ere okertzen omen dira. Eta gaurkoan gauzak zuzendu, arteztu eta landu egingo ditugula uste dut, burnia su galdatan bezela.

Isi.— Aspaldi ikasi nuan nik: arian arian, zetzen da burnia...

Mar.— Gaiztoa ezpestena! Au beti txantxetan, ordea!

Ola.— Zure amak ezer esan al dizu Martin?
Ama.— Ezer esan? Goxoa zegoan mutilla, izketa nik nai nuan aritik eramaten ez dit utzi-ta...
Ola.— Alere, pakea egin duzute, nunbait!
Mar.— Ori bai.
Ola.— Tira ba, gizona. Konortegabe zeundela uste nuan eta...
Ama.— Itzegin al diozu...?
Ola.— Bai, Urdiaran yaunari eta Koronelari ere bai.
Mar.— (LARRI ANTZEAN) Ene ba!
Ola.— Ez estutu, gizona. Noiz yoan bear al duzu Zaragozara?
Mar.— Yoan bear, yoan bear...aste bete barru, baiñan etzi yoateko asmoa nuen leen.
Ola.— Olako soldau zintzorik! Nik eztut beiñere ikusi gudaririk epea bete baiño leen etxetik iges egiten. Entzun, ordea, nire agindua: Aragoiko uri ortara yoan bearrik eztuzula izango!
Mar.— Eta nola ba?
Ola.— Donostiara yoango zara zu, gauzak laister antolatuko dituguta.
Isi.— (POZEZ ZORATURIK) Aufiiii...Gora gu ta gutarrak! Martin, niri besarkada ez emango?
Mar.— Bai, eta biok ere geure ama laztanari.
Ama.— Zatozte bai, antziñan bezela nire besoetra (IRURAK ELKAR BESARKATUAZ)
Mar.— Eskerrak nola eman eztakit, Olabe yauna!
Ola.— Zuen poza, nire poza da, egitan. Nire begiok zoraturik atsegiñez beterik. Eta zu ere, Isidor txintxo, gertu Donostiara yoateko astartean.
Isi.— Zeruko Ama laztanak edozer al du.
Ama.— Bera bedi betiere gure KAIA TA ESTALPEA...!!!

AMAIA

PAKE EGUNA*

I
NEKANE, KONTXESI eta AITONA.

(NEKANE ta AITONA, eserita)

Kontxesi.— Aitona gaur zein egun dan niri galdetu ezetz?

Aitona.— Ba al dakizu zuk egunak bereixten? Zuretzat beti da igande, edota larunbata. Astegunak alako narda edo nagia ematen dizute zuri.

Kontxe.— Ba nik ondotxo dakit gaur eztala ez igande ta ez larunbata.

Aiton (PARREZ).— Astelena izango da orduan.

Kontxe.— Ez, gaur ezta ezertxore. Gaur... eeee, zera da... Gabon-gaba.

Aiton.—Gaua oraindio, nexka, egunsentia aistian izan da-ta?

Kontxe.— Gaua geroago, aitona, orain goiza baita.

Neka.—Bai, maite, askok itxaroten dauan eguna da gaur.

Kontxe.—Ba al dakizu nik zer jango dudan afaritan?

Aiton.—Zer, Kontxesi? Zer jango duzu zuk afaritan?

Kontxe.— Nik?... Amatxok aspaldi eskeñia. Alegia, oillasko guri guri guri bat. Nik bakarrik gaiñera; bakar bakarrik...

Aiton.—Ai, gaixto! Nik ere ez ba jakin noiz jan izan dudan olako zer goxorik! Eta zuk aitonari ez emango puxkatxo bat oillasko ortarik?

Kontxe.—Aitonari... bai.

Neka.— Eta beste iñori? Esaterako, niri?

Kontxe.— Ta niretzat zer gelditukо? Aitonari puxka bat, nire aizpari beste puxka bat, eta gero, zer? Ni gosez!! Eztut nik edonori eman nai.

Neka.— Ta zuri bestek ematea nai izaten duzu, ezta?

Kontxe.—Ni txikiena naiz-ta...

Neka.— Zatoz, poxpola, zatoz, muxuka jan nai zaitut eta... (BIOA AURRA NEKANERENGANA)

Aiton.—Guk ba dugu bai aingerutxo bat, jaiotza-aurrean ipintzeko! Nola ote du izena aingerutxo orrek?

---

* Euskaltzaindiaren Azkue biblioteka, *Argitaratubakoa*, 1956.

Kontxe.— Kontxesi!! Ni naiz-ta...

Neka.—Aingeruak zerutik etorri baitira, onak izaten dakite... Au ordea, gaixto-xamarra, biurria eta...

Kontxe.—(AIZPARENGANDIK IGES EGIÑAZ) Utzi nazazu utzi, zurekin baiño aitonarekin naiago dut-eta!

Aiton.—Gaurko ipuin ederra nik esatea nai al duzu?

Kontxe.— Bai, aitona, nai ez?

Aiton.— Beiñola, mundua asi eta laisterrean, gizonak gaiztotu egin ziran. Zintzoak izanik, okertu. Esanekoak izanik, arrotu. Eta orduan, Jainkoak esan zien: "Zuek okerbidera jo duzute, eta orregatik lor, neke ta oiñazeak izango dituzute."

Kontxe.— Nork esan zien ori?

Aiton.—Jainkoa-k, maite; Jainkoa-k adirazi zien.

Kontxe.—Eta Jainkoa, nun dago?

Aiton.—Zeruan eta... toki guztietan ere bai.

Kontxe.— Emen ere bai?

Aiton.—Emen ere bai, noski.

Kontxe.— Ta nolakoa ete da?

Aiton.—Ez da gu bezalakoa, ta orregatik ezin genezake ikusi beti.

Kontxe.— Eta Jainkoa, ona al da?

Aiton.—Bai, oso ona.

Kontxe.—Zea... Don Joxe Martin bezalakoa?

Aiton.—Don Joxe Martin ona da, egitan, baiñan Jainkoa askozaz onago. Zera... Don Joxe Martin, Jainkoak laguntzen diolako eta berak ere nai dualako, orregatixe da txit ona.

Kontxe.— Ta nire adiskide ere izango ote litzake Jainkoa?

Aiton.—Bai, ederra, Jainkoak guzion adiskide izan nai luke. Gu ez gara izaten maiz, gu, aren adiskide.

Kontxe.—Ta zergatik ezara izaten, aitona, beti aren adiskide?

Aiton.—Sarritan... oker-xamarrak izaten dakigulako, eta beste batzuetan nagiak eta alperrak izateko zima dugulako.

Kontxe.— Ta... ipuitxoa noiz esango, aitona?

Aiton.—Oraintxe, ta pozik gaiñera. Jainkoa, urtero urtero, aur egiñik zerutik etortzen da lurrera gure artera, pake ta pozezko egunak guri eskeintzera. Gero ta bearrago ditugun pozezko eguntxo batzuek!!

Kontxe.— Ni beti pozik egoten naiz goizetan oetik jaikitzeko.

Aiton.—Eta gauetan, beti negarrez oera joan arte.

Kontxe.— Logale izaten bait-naiz!

Aiton.—Bai, txiki, horrela da izan munduko gure biziera: goizean, umetan, gaztetan poz-egarriz, zorion-moskor; eta illunabarrerantz egitean, asarre, gorroto edo nekepean, pozik gabe...

Neka.— Ikusi al duzu, Kontxesi, auzoko Praixkurenean jarri duten jaiotza polita?

Kontxe.— Bazkaritakoan joateko esan didate.

Aiton.—Andre Mari eta San Jose joan ziran negu-neguan beren erri-rantz. Eta Belen uri txikira eldu ziranean, ostatua aurkitu nai eta ostatugabe gelditu ziran, etxe guztiak jendez beteak zegoztelako. Eta orra, ain zuzen gau artantxe jaio bear zuan Jesus Aurrak.

Neka.— Eta ikuillu beltz zakar batean jaio omen zan.

Aiton.—Gizonak gaiztoak izan arren, Jainkoa errukitsua baita, kupidaz bete zan eta gizonei berriro onak izateko bidea irakasteko norbait bialiko ziela agindu zien, eta Norbait ori Jesus Aur maitagarria izan zan, andik geroetan.

Kontxe.— Eta txikia zanean, zer egiten zuen Jesus-ek?

Neka.— Andre Mariaren esanak egin eta geroxeago San Jose-ri lagundu, ura arotza baitzan.

Aiton.—Esan bezala, gau eder artan, aingeruak agertu zitzaizkien an Belen inguruetan zegozten artzaiei. Oiek, lenbizikoan, bildurrak jota bezala, izu-ikara jarri ziran, gertakizun kaltegarriren bat ote zan edo...

Neka.— Etzan orrelakorik, ezta, aitona?

Aiton.—Bai zera kaltegarririk! Ez du munduak orrelako soiñu ta itz ederrik maiz entzun. "Zoazte, artzaiok, zoazte —zieten aingeruak artzaiei— an, mendiaren maldatxoan ba da ba artzulo batean estalpetxo bat; bada, antxen ikusiko duzute aur polit zoragarria, askatxo apalean etziñik, bere ama ta aita aurrez-aurre dituala, eta inguruan idi zaar bat eta asto beltzeran bat.

Kontxe.— Ura al zan Jesus Aurra?

Aiton.—Berbera! Artzaiak etzuten batere nagirik izan, berri miresgarri ori entzun bezin laister abiatu baitziran buru-belarri Belen alderantz. Batzuek, esne eratsiberria eraman zioten Aurrari; beste batzuek, ezti goxo goxoa; eta bildots txuri-txuriak ere bai.

Neka.— Jesus-ek ori baño gehiago eskatzen zien gizonei, agian.

Aiton.—Bai, neska, olaxen da. Orduan, eta geroago eta beti ere, gauza bat bakarra eskatzen digu Aur jainkotiar arek.

Kontxe.— Zer gauza, aitona?

Aiton.—Gure biotza; maitetasuna. Berarentzat maitetasun aundia eta lagun urkoarentzat, gure antzekoentzat ere bai, elkarrenganako maitetasuna...

Kontxe.— Nik maite maite dut Jesus Aurra.

Aiton.—Ala biz, enetxo; orain eta zeure denpora guzian.

Neka.— Errexa dirudian zer orrek, ba du alegia zailtasunik!

Aiton.—Egia, ume, egia. Gaurko munduak, nik eztakit baiñan, arako dei goragarri aren muiñaz jabetzeko, beiñere baiño nagiago dagola dirudi.

Kontxe.— Zer esaten zien Jesus-ek artzaiei?

Aiton.—Parre egiten zien, irripar goxo goxoa, Ura ikusteko zoria aiek izan baitzuten lendabizi. Ta bitartean, aingeruek, kanta bigun artean, itz xamur auetxek aldarrikatzen zituzten zeruan barna: "Ospe aundi Jainkoari goietan; eta lurraldean pakea gizon zintzo ta biotz garbi direnei."

Kontxe.— Nortzuk ote dira gizon zintzoak?

Aiton.—Guztiok izan nai genuke, noski. Baiñan... berez bear Billabonakoa...

Kontxe.— Aitonatxo: mandatutxo bat esango belarrira?

Aiton.—Bai, maite, esango ez?

(KONTXESI bioa Aitonaren ondora ta belarrira isil itz egin bezaio. Onek, aurraren esana entzun ostean, erdi parrezka:)

Aiton.—Bai, txiki, zu nolatan izango zara ba gaiztoa, gure aingerutxoa izanik?

Neka.— Ederki, ederki! Aitonarekin isileko kontuak eta nirekin ez, e? Ongi dago, ongi, ederki. Gaur ez duzu nirekin lorik egingo!

Kontxe.—Axolik ere ez! Aitonarekin egingo dut-eta...! Ezta, aitona?

Aiton.—Ai, aurrak beti aur ba lira...! Eziñeko ametsa, ordea.

(AITONA-k burua igurzten dio aurrari; NEKANE agerrune ontan josten ari izan da, eta olan jarraitu ere egingo du.)

II
LENGOAK ETA AMA.

Ama.— (SUKALDETIK AGER BEDI). Ona emen iru lagun elkarri begira. Zertaz ari ote dira oiek kontu kontari?

Aiton.—Emen ari gara Kontxesiri Belen-eko gertaera bikain ura irakatsi bearrez.

Ama.— Aizu, Kontxesi; ba al dakizu auzoko amonatxok zer esan didan?

Kontxe.— Bai, ama. Baiñan beste gauzatxo bat ere esan nai nizun nik. Zea... oillaskoa ekarriko al duzu niretzat afaritan jateko? Zeuk esan zenidan-ta!...

Ama.— Aur onen idurimena! Nik esan? Noiz, ordea?

Kontxe.— Bai, bai, zuk, zuk esan, ama. Aspaldi gaiñera. Ez oroitzen?

Ama.— Ara, kutuntxo; aitak esango dizkizu afaritarako zer ekarriko dugun. Ba dakizu lan billa joan dela gaur berriro, eta nik etxean, ba, diru gitxi dut eta...

Kontxe.— Orixe da...!

Aiton.—Kontxesi: lana ta pakea iritxiko al ditu gaur aitatxok, bearrekoen zaizkigun gauzak.

Ama.— Nekane, entzun. Beste urteetan bezala, leen ere esan dizut eta, Andre Mikolasarenera joan zaite; orain bertan obe, nik uste. Etxean gorabeera ta zeregin ugari izango dituzte-ta, zoaz aguro, gabera arte.

Neka.— Soiñeko au bukatu nai nuen ta...

Ama.— Nik egingo dizut. Andre Mikolasarekin oraiñarte ere ongi konpondu gara, bai, eta naiz-ta aitak beste gauzarik uste izan, guk ekin gureari.

Neka.— Joango natzaizu ba, ama. Onez onean sarri askotan ez da ezer lortzen baiñan...

Aiton.—Zuk ere aitaren itzak ikasi al dituzu?

Neka.— Ikasi? Bearrak eragin. Bearrak ortaratu.

Ama.— Orduak aurrera dijoaz eta... Onezkero aita berriro artu ote dute lanean? Nire buruera au horrela balitz!

Neka.— (LANA UTZIAZ) Tira, ba, ama. Jantzi onen barrenak dituzu bukatzeko, eta besoen muturrak. Botoiak eta, nik ipiniko ditut. Ba duzu emen josteko ari naikoa. Bereala naiz nagusiaren etxean.

Ama.— Poz emango didazu horrela. Emakumeak ere zerbait egin bear dugu mundu au antolatzeko.

Kontxe.— (BAT BATEAN) Autsi zait jostaillua, ama, autsi zait! Noiz puxkatuko zedukan burua eta... orra! burugabe gelditu zait. Ikusten, ama? Ikusten, aitona? Nekane, zuk konponduko aistian bezala?

Neka.— Orain joan egin bear dut. Entzun duzu amaren agindua.

Kontxe.— Ortaz, aitonak egingo?

Aiton.—Bai, laister konponduko, gaiñera. Goazen sukalderantz, an ari edo lokarri egokiren bat arkituko dugu-ta.

(AITONA ta KONTXESI BIOAZ, ezkerraldeko atean barna.)

Ama.— Zuk ez txintik ere atera, gero, aitaren gora-beera ortaz, Andre Mikolasak berak ezer aipatzen ez baldin ba dizu!

Aiton.—Eta nire bearrizanik ez dutela adirazten baldin ba didate?

Ama.— Ba... etxera itzuli eta kitu.

III
NEKANE, AMA eta AITA

Aita.— (ETXERA SAR BEDI, KALEALDETIK). ¡Alperreko joan etorria!!... Gizonak gizonen eizean! Pake-eguna zala-ta joan naiz ni goizean goiz, batzuek oe biguiñean patxadaz lasai asko zeuden bitartean... Gauza, erabakia ote zalakoan eta... Tokitan zeok! Ez gizon, ez adiskide, ez... Zertarako dira berriketak!

Ama.— Baretu zaite, Gergorio!

Aita.— Baretu... ezta errez. Beekoak onak izan ditezela, otxanak, apalak, isillak,... astoak edo ardiak bezela. Eta goikoak... goikoak, bapo! Nai dutena esan; egin, gogo dutena egin; besteen gain beti, eta ¡kaixo moteill! Ekin aurrera idurikeri ta gezurkeri oietan.

Aiton.—Ezetz esan al dizute berriz ere?

Aita.— (BURUAZ BAIETZ)... Zaude bi illabetez itxedoten berriro lan egin nairik; zoaz apal ta buru makur lantegira, eta...

Ama.— Lanik ez dute izango bear ba da guzientzat eta...

Aita.— Ez, lanik ezta falta... batzuentzat.

Ama.— Gure alabak orain joan bear du Andre Mikolasarengana, eta... nai al duzu ni ere ara...

Aita.— Ez, zu ez behintzat, zu ez zara joango. Andre biotz mengelak eta itz labanak ez dute ezer erabakiko bear bezela.

Ama.— Berriz ere, ez zaite, Gergorio, jardun oietan asi.

Aita.— (MINGOTS) Xe!... Jakin ezazute beste biderik ez dagola, onean ezer ezin iritxi danean. Goseak ez du parkatzen. "Etxe utsa, gerra utsa"...

Ama.— Zerbait ba dugu oindiño esku artean. Mikel ere zertan edo artan ari da. Alabak ere, ekartzen digu batzuetan saria etxera...

Aita.— Ez nuan ori adirazi nai. Bi illabete daramazkit ezer irabazi gabe,... nire betiko langintzan, behintzat.

Ama.— Nola edo ala antolatuko du Jainkoak egoera garratz au.

Aita.— Jainkoak!... Jainkoaren lege ederrak!... Nork betetzen ditu, ordea? Nork? Beekoak, beekoak diralako, eta besteak?... Goikoak, bitarteko gizonak, dirudunak, olajabeak eta... nola ari dira! Bortxaz eta zemaiz eta bildurra sar-araziz jokatzen dute ereti guzietan, eta oiei, eredu berdiñez, bortxaz, indarrez eraso bear! Alperreko lillura da bestelan!...

Ama.— Zuk entzuten dituzun berriketak eta irakurten dituzun paperak ortara zaramazte. Beti Elizaren esanen kontra, beti...

Aita.— (ETENAZ) Ez itzazu sail bereixiak naasi. Ez diot nik hainbeste.

Ama.— Bai, urte oietan urduri-min batek joa bezala zabiltz.

Aita.— Jakiña! Lan egin eta bizi ezin... Ta beste batzuek, diruz gizentzen. Guk gehiago bear, ta gehiago eskatzen dugulako, lenbiziko aukeran... lantegitik kalera, kale gorrira, alajaiña!

Ama.— Baketsuekin zergatik biltzen etzara, ta ez biurri okerrekin?

Aita.— Ori norbere jitak eta zimak egiñarazten duana da. Ez gara guztiok berdiñak. Ni ere leen...

Ama.— Ona ta zintzoa ziñan zu, nik ezagutu zindudanean.

Aita.— Ta orain ez ote naiz ona?

Ama.— Ona bai... baiñan zalapartarien lagun bezela jokatzen duzu; asaldarik iñun baldin ba da, an da gure Gergorio.

Neka.— Ori egia da, aita. Ni bidurrez egoten naiz ezer iskanbilarik danean, zu an tarteko izango ote zaralakoan. Eta zerbait okerrik gertatu ote zaizun, batez ere.

Ama.— Badakizu zure alabak ere nik bezala maite zaituela.

Aita.— Nik ere, zuenganako maitetasunarren eta zuzentasunari zor diodan lotsa zaitzearren jokatu nai izaten dut, itsu itsuan, zintzo, egiaren alde.

Ama.— Besteak zergaitik ez dute bularra agertzen ta ez bizkarra eman? Beti zu eta beste zenbaitzuek izendatuak ao-mingaiñetan!

Aita.— Makalak ez diote beiñere aurrerapiderik emango gizonen gurari zindoei ta munduko gauzen ibilpideari.

Ama.— Ta onura baiño kalte gehiago irixten baldin ba duzu?

Aita.— Kokilduta bizi danak ez du irabaziko ez lurrik, ez... zerurik ere.

Neka.— ¡Aita!!... Noizean bein bederik zerua itza entzuteko aukera dugunean ere!

Ama.— Hamaika otoitz egiten dut nik, aitak lana aldizka galdu arren ere, behintzat sari nagusia —betikoa— galdu ez dezan.

Aita.— (ZERBAIT BIOTZ UKITUA, ETA SOLAS-JOERA ALDATU NAIRIK) Zera... ba... Bordagoieneko Martin-ekin eta Arbaizuko Paulorekin itzegin bear dut geroago.

Ama.— Aizazu, Gergorio; gure aurrak duen korapilloa gaur afaritan zer jango duen-ta!...

Aita.— (SAMUR) Zer dio Kontxesi-k, bada?

Ama.— Oillaskotxo baten galdez ari da. Nik noizbait eskeiñia omen gabon-afaritarako...

Aita.—(NEGAR TANTOAK LEGORTUAZ) Aurtxo errugabea! Zein egun latzetan eldu zaren mundu gezurti ontara!... (GELARA SAR BEDI)

Neka.— Etxeko zerok gertatuko ditut, geroago zure agindua betetzera joan nadin.

Ama.— Bai, alaba. Nik ere sukaldean zer dugun ikusi bear dut, zerbait bereixi gaur, bearko dugu erosi-ta. Mikel ere laister agertuko zaigu onezkero.

(SUKALDERANTZ BIOAZ)

IV
IÑOR GABE. GERO, KONTXESI. ESKALE.

(ANTZEZTOKIA IÑOR GABE GELDI BEDI UNETXO BATEZ. Idikia dagon leiotik MUTIL BATEK begiratzen du, eta iñor eztagola ikusirik, Gabon-otarretxo edo saskia uzten du etxe barruan: edari-bonbil, goxo-gai ta egaztiaren bat ere bai. Isilik, alde egiten du).

(GEROXEAGO, KONTXESI ager bedi sukaldeko atetik, eskuetan bere andrakilla edo joataillua duelarik).

Kontxe.— Ene! Zer ikusten dut? Zer agiri da or ate ondoan? Bai otarre polita ere! A zer nolako kirten luze borobilla duen! (URBILTZEN DA OTARRARENGANA) Ta oillaskoa ere bai! Aufiii!... Baiñan nik amari esan, gaur zer jan nai nukean afaritan!...

(Jauzika ta saltoka asten da. Jostaillua lurrera erortzen zaio, ta ariñeketan eta zalapartan bioa sukalderantz).

¡Ama!!... Aitona!...

ESKALE.— (ESKALE ZARPAILTSUA kalean zear igaroaz, leiotik begiratzen du onek ere, ta janari-edariak-eta ikusirik, ta etxean iñor ez dala oartuaz, etxean sartu, ta saskia ostuta artuaz, aguro baiñon aguroago igesi joan bedi).

KONTXESI.— (AGER GABE OINDIÑO) Bai, benetan da, benetan; ez naiz ni txantxetan ari. (AGER BEDI, eta bere jarraian, AMA, AITONA, eta NEKANE)

Ortxe dago ate-inguruan, ortxe... antxe... antxe... an...

(ATE ONDORA BEGIRATZEN DU, ETA EZER EZ IKUSTEAN MINTZUL, ITZIK GABE LOTZEN DA, ETA BEIN ATEONDORA, URRENA AMARI, GERO AIZPARI, TA AZKENIK AITONARI SO-EGIÑAZ, IZU-ITXURAZ JARTZEN DA, AO ZABALIK. BEREALAKOAN):

Ezta gezurra! Ezta gezurra! Nik ikusi dut saskia! Nik ikusi dut oillaskoa! Nik i...! Ai, ai!... (AMARENGANA BIOA NEGAR BATEAN) Amatxo!...

Ama.— Ez negarrik egin, gure erregintxoa, ez negarrik orregatik. Sorgin gaiztoren bat izango zan! Iratxoren bat, Olentzaroren zomorroren bat.

Kontxe.— Ez, amatxo, ez zan iratxoa, oillasko gandur gorri gorria zan-ta!... Ai!...

Ama.— Bada, orduan, axari mutur zikiñ-ek jan izango zuan, zu sukaldera joan bitartean.

(AMA-k LAZTANKA TA IGURTZIKA DARABIL AURRA)

(AMA, AITONA ta NEKANE, ITZIK EGIN GABE, ZIÑUZ MINTZA BITEZ, GERO SORBALDAK JASOAZ TA BESOAK TA ESKUAK ZABALDUAZ, BEGIAK ARA-ONAKATUAZ. GERO, BIOAZ SUKALDERA GUZTIOK)

V
ANE ta KAROLE. NEKANE. BIDAIGIZON

(ANTZEZTOKIA IÑOR GABE DAGOLARIK, AGER BITEZ KALETIK, Ane TA Karole, NESKATXA GAZTEAK, Nekane-ren ADISKIDEAK. ETXERA SAR BITEZ, ETA ITXEDONAZ:)

Ane.— Nik beste era bateko tela erosiko dut, soiñeko lodia egiteko. Leen, marragabea dut, lisoa, alegia; orain, ordea, Gales lerroduna nereganatuko dut. Ta ba al dakizu zein koloretakoa? Ereñotzaren

ostoak ba du ba kolore itsagoa azpikaldean? Ba, orrelakoxe kolorekoa. (DEI EGIÑAZ:) Nekane! Nekanetxo!!

Karole.— Nik ez. Nik... urdiña erosiko dut, urdiña... ubel-antxa duena. Atzo, Erdimerdiñeko dendan jarri zuten ba eskaparate nagusian andrexur edo maniki liraña? Aretxek duan oiala gustatzen zait. Egitan!

Ane.— Ta buruan ezer ipiniko al duzu?

Karole.— Buruan... larruzko edo astrakanezko eltze-iduriko kapelatxo oiek? Ez! Aski dut nire zaldi-buztan ille au.

Ane.— Nire aizpak orain ere Marlon-erara dagola polikien dio.

Karo.— Zure aizpak nun ikasi zuan josten? (DEI EGIÑAZ) Nekaneee!...

Ane.— Nire aizpak bi tokitan. Lendabizi, emen errian, Marixabelenean, eta gero, Tolosan, Perlatxo-nean.

Karo.— Nor da, gero, Perlatxo?

Ane.— Perlatxo? Paris-en bizi izandako Irungo alaba. Jostun oso bikaña.

NEKANE.— (ETXEBARRENDIK AGER BEDI) Aspaldi al zeudeten emen?

Karo.— Ez denpora luxez. Biarko zer asmo? Ba alduzu planik? Peillo...

Neka.— Eztakit biar zer egingo duan, bere errian bertan goxo ala onera itzuli illuntzean.

Ane.— Orduan... Zera, entzun: zu gauerdiko mezatara joango?

Neka.—Nai nuke. Ez dakit ordea, nola zertuko naizen. Andre Mikolasarenera joan bearra baitut, bestetan bezala, eta... etxean ere, badakizute, aitari gaur ere ez diote lanik eman-ta, guztiok larri ta...

Ane.— Gergorio zintzoa!

Neka.— Zintzoa bai, baiñan naspilla denetan sartu bearreko gizona.

Karo.— Errazoia duela uste izaten baldin badu... Gure osabak ere, ba daki esaten, zazpi bidar gutxienez bota dutela bera kalera, eta beste ainbestetan berri-berriki berak dei egin diotela.

Neka.— Zure osabak, lengusuaren olan egiten du, ordea.

Karo.— Bai, baiñan... diru-batzarretan ezta seniderik izaten.

Neka.— Eta gaiñera...

(BIDAIZAIÑA AGER BEDI KALEAN, ATEAN, KARTAZ BETERIK)

BIDAIGIZON.— Mundu guztiko nekeak emen dituzute nire bizkar! Kopatxo bat artzeko astirik ere ez dut zuzenduko. Jas! Ene, ene! Zenbat neskatxa eder emen nire begi nekatuen aurrean!

Neka.— Guretzat ezer onik bai ote?

Bidaig.— Ointxen, ointxen! Betaurreko gabe nola arraio ikusi aal!

Karo.— Sari eguna ere, laister da ta...

Bidai.— Zer sari, sari! Urte osoan itoa ibilita gero! Sari ta sari-ondo!

Ane.— Tira! Erriko neska guztien kontuak zuk bakarrik dakizkizu-ta!...

Bidai.— Nik? Ja, ja, jai! Nik baiñon obeki dakizki, arranopola, bikarioaren neskameak. Arek bai eramaten duala kontua ongi, arek!

Karo.— Apustua egingo nuke zuk baiño zeatzago ezetz!

Bidai.— Zeatz meatz... iñoiz bai. Orain, ordea, zaartuxe ere egin gara-ta.

(ANARTEAN, BETAURREKOAK IPINI ETA KARTAK IKUS-MIKUS ARI ONDOREN EZER EZ AURKITZEAN, NESKATXAK POZTU-ARAZI NAIRIK, ARRO ARRO TA OZENKI ESAN BEZA GELDIRO)

Nekane Zaldunbide neskatxari, bere... zera... Peillo Begi-goxo-k!

Karole Goizueta-ri, bere... Damian Lepogizen-ek!

Ane Basagaiña-ri, bere... Mikel... Mikel... um! Um!...

Ane.— Gaizto alena! Beti ziztaketan! Agure petrala...!

Bidai.— Oraingo neskak! Isilleko ta agiriko gauzak berak bakarrik dakizkitela uste dute. Nire begi nekatu oiek, zertarako ditut nik ba Jainkoak emanak? Ikusteko! Jakiña ba!

Karo.— Zuk Damian Lepogizen ezagutu ere ez duzu egiten-ta!

Bidai.— Zuk aiñean ez nonbait Karole. Baiñan aren adiskide barrukoena nire seme gaztea bai-ta... Orra nik isilekoak ere jakin.

Neka.— Beraz, ez duzu egitan ezertxo ere guretzat! Ori ere bada ba!

Bidai.— Ez maiteok; bear ere ez.

Ane.— Nola bear ere ez?

Bidai.— Alegia, kartak ez dute ez begirik, ez ezpañik... ez eskurik.

Ane.— Lenbestean uzten gaituzu.

Bidai.— Bai, zera! Karole-k badaki nire itzen esan-naia, ziur asko.

Karo.— Nik, ain zuzen? Ezertxore ez.

Bidai.— (BELARRI ONDORA, BAIÑAN AOTS ANDIZ) Obe dala karta eskuetan artzea baiño... illunabarrean norbaitek gerrialdea eskuekin estutzea! (ALDEGIÑAZ AGURO) Ez ote, Karole?

Karo.— Agure biurri!! Eskerrak zu baiño gazteago garela, osterontzean zure denboran,... gaizki ibiliko ziran neskatxak.

Bidai.— (ATE KANPOTIK) Gaizki bai! Pozik alere! Pooozik!... (BIOA)
Neka.— Ikusiko dut. Aal baldin ba dut! Eta gabon zoriontsu, neskak!

VI
NEKANE. MIKEL

Neka.— Ez dakit zer egin! Etxe ortara joan... gure aita kalera bota izan duten ola-jabearen etxera, gure ama na neskame izan zalako. Auxe bai naspilla! Andra Mikolasak gure ama maite izan du; gure aita, aren senar Jausorozaarrek, lantegitik egotzi dute. Andre Mikolasak landerrei ta ezeukiei laguntasuna ta limosna ugari--xamar ematen die. Andra Mikolasaren senar jaunak, maiteen dituen gauzak, numeruak omen dira. Euneko onenbeste irabazia, emen; euneko orrenbeste onura, or; euneko hainbeste emaitz, an.

Egia esan, Jausorozaar ezta bera bakarrik lantegi aundi oien jabe. Bilbon, Donostian, Iruñan, Gasteizen, eta Madrillen eta Parisen ere ba omen dira or dirua ipiñitakoak, eta oiek,... oiek ez dituzte beren langizonak ezagutzen, ezta nor diran ere ez zer egiten duten ere.

Mikel.— (KALETIK) Eup! Nekane! Zer berri? Nola zaudete, arreba? (ESKUETAN PARDEL EDO LARRUZKO KARPETA OIEK DITUALA. ESERI TA ZIGARROTXO BAT ISIOTU BEZA.)

Neka.— Ondo, eta... ez guziz ondo ere.

Mikel.— Iñor makalik, agian?

Neka.— Ez, makalik, ez zorionetan. Gaur etxean gelditukо zara, ez?

Mikel.— Gaur, biar, eta etzi ere bai.

Neka.— Aitaren arazo ori, oraindio ere. Ez dute berriro artu fabrikan. Oporretako lagunik geienak joan dira; asko berriro sartu dituzte, eta Komiteko ziranekoetarik batere ez. Oien artean sartzen dute aita ere.

Mikel.— Aitak etzuan ortan nagusitasunik izan.

Neka.— Berak ere, ala esaten du.

Mikel.— Aita baiño beroago ta aserreago beste batzuek ari izan ziran.

Neka.— Bai, ba dakit.

Mikel.— Zure senargaia Peillo ere, oien artekoa zan.

Neka.— Arrazoiaz gaiñera!

Mikel.— Nik, ez dizut ezetzik esaten. Baiñan, arrezkero, eztakit nik zer gertatu izan dan. Ala, buruzagitzakoak bi taldetan banandu

ziran edota banandu zituzten. Agian, esaera zaarrak dionez: "Banandu itzazu etsaiak, eta garaitza zurea izanen da".

Neka.— Bera, Peillo nireak gaizki jokatu duela uste al duzu?

Mikel.— Ori ez jakin ba, ezpaiditut ikusi neronez gertakari oriek.

Neka.— (ALDATUAZ) Aizu, emen egon dira leentxeago Ane-ta.

Mikel.— Ta nor?

Neka.— Ta Karole. Ba al dakizu norekin ikusi duten Karole?

Mikel.— Ez nik.

Neka.— Zera... Damian ba dakizu ba, Lepondonekoa!

Mikel.— Zeiñek esan?

Neka.— Karteru zaarrak.

Mikel.— (PARREZ) Xinpo-k? Ori da satorra, ori!

Neka.— Satorra?

Mikel.— Bai, noski. Beti ari da bere begi nekatuak ezer ikusterik ez dutela-ta... Eta au, ori, ta bestea. Sugeak bezin zorrotz ez al dute ikusten ordea orren begiak!

Neka.— Zurea ere, adirazi dio; obeki esan, Ane-ri berari aipatu dio.

Mikel.— Xinpo arraio parregarria!

Neka.— Baiñan, jatorra gero, iñor baldin ba da!

Mikel.— Berriro aitaz pentsatuaz,... zerbait bururatzen zait.

Neka.— Zer, ba, Mikel?

Mikel.— Ni ere, orain, ongi dakizu, neronez ari naizela. Eta, alegia, lan egin nai duan gizona, eztala gosez ilko. Gogo txarreko ogi ugari jan baiño obe dala uste dut, gogo oneko ogitxoa jan.

Neka.— Andra Mikolasarengana joateko gaur, esan dit amak, afaria maneatzen laguntzera, ta zer egin ez dakidala nago.

Mikel.— Amak nai al du ori? Bai; ama txintxoak on-bearrez ori uste izango du. Baiñan, ez.

Neka.— Laguna franku, aaide geienak bilduko dirala-ta.

Mikel.— Bildu ditezela. Or konpon, Mari Anton. Onelako garaian, bakoitza bere kabian. Zer kontu da ori, ordea? Aita lanik gabe, eta alaba mirabe toki berean? Utikan!

Neka.— Amak zer esango du?

Mikel.— Etxean al da? Mintzatuko natzaio. Triste al dago amatxo?

Neka.— Bai, oso larri dago gaur. Goizean itxaropenez zegoan ta...

Mikel.— Dana dala. Gogoa jaso ta aurpegiak argitu. Egun aundiegiak ditugu oiñazez egoteko. Eguberriak noski.

Neka.— Zu zara amaren kutuna-ta, eman zaiozu pozbideren bat.

Mikel.— Bai, ta laister gaiñera, naiz-ta gezurra izan. Orain unetxo batez, telegrafuetara joan bear dut agindu batzuek emateko. Eraman itzazu maletatxo oiek berrenera. Negarri egin al du amak?

Neka.— Oparo egin du bai.

Mikel.— Amari esan... geio negarrik ez egiteko, lan-kontu ortaz batez ere. Nik emango diodala berritxo on bat. Bereala natorke. Agur, Nekane. Kontxesi-ri... ixi!!

Neka.— Gero arte. Zatoz leenbailen.

(NEKANE, PARDELTXOAK ARTU TA BIOA SUKALDERANTZ)

VII
KONTXESI. Don JOXE MARTIN

Kontxesi.— (SUKALDETIK ZALAPARTAN) Mikel! Mikel!!... Nora joan ote zara? Nora?... (NORANAI BEGIRAKA) Etxera etorri gabe aspaldian kanpoan ibili, eta orra, berriz iges egin. Zure gelara joan naiz, eta pardelak iriki eta gauza guzti guzti guztiak arakatu ditut. Zer ekarri duzu niretzat? Txikle kolorezkoak, alegia? Eta kromoak, nexka poxpolen eta mutiko potoloen kromoak...?

D. JOXE MARTIN.— (KALE ATEAN AGER BEDI). Egun on eta berri on! (SARTUAZ) Ona emen gure etxekandre pertxenta. Nola bizi, Kontxesitxo?

Kontxe.— Egunon. Nik esan dut ba leen ere...

D. Joxe.— Zer esan zuk, txiki?

Kontxe.— Nik esan dut... ba... Don Joxe Martin nire adiskidea dala, eta...

D. Joxe.— Eta zer gehiago?

Kontxe.— Eta don Joxe Martin... ona dala.

D. Joxe.— Nork asmatu dizu orrelako berririk?

Kontxe.— Aitonak ere esaten baitu...

D. Joxé.— Eta aita, aitatxo etxean al da?

Kontxe.— Bai. Asarreka bezala jardun izan du amatxorekin.

D. Joxe.— Eta, aitak zer esaten zuan?

Kontxe.— Gizon gaiztoak ez diola berari lanik eskeiñi nai.

D. Joxe.— Ta aitak nai zuan lan egin, ezta?

Kontxe.— Aitatxok bai, nai izan du. Nik entzun diot. Eta orregaitik, nik ezin afaritan oillaskorik jan. Amatxok esan zidan aspaldi, eta gaur aitatxok dirurik ekarri eztualako, amatxok batere ez... oillaskoa erosteko.

D. Joxe.—Gaur ezpada, biar jango duzu, Kontxesitxo! Nai?

Kontxe.— Ta ori, nik ementxen ikusi dudala oillasko gorria, saskitxo batean. Eta gero... ezereztu egin da, urtu edo.

D. Joxe.— Gabon-saskia alegia? Ostu egin ote dute ba?

Kontxe.— Ostu edo, ez dakit nik. Amak dio sorgiñen batek eraman izango zuala.

D. Joxe.— Biar nerekin joango zara, eta jango duzu, goxo goxoa gaiñera?

Kontxe.— Lotsatu egiten naiz!

D. Joxe.— Lotsatu, zergaitik?

Kontxe.— Bildurtu egiten naiz.

D. Joxe.— Bildurtu,zergaitik? (IZKETA BAT BATEAN LAGA, ETA Kontxesik IGES EGITEN DU SUKALDERANTZ)

Kontxesi, atoz onera! Kontxesitxo! Emen nik, zuretzat zer dudan... (BAKARRIK ETA BEREKIKO ESANAZ:) Jainko maite! Ardi galduen billa nabillen ereti ontan, argiak izan ditezela nire itzak, maitetasunezkoak ere bai. Ta nire biotz makal indargabetu onek, bear duan kemena, indarra, adorea, oraiñartean bezala. Zure esker aundiz. Amen!

VIII
DON JOXE MARTIN. AMA. AITA.

Ama.—(SUKALDETIK AGER BEDI) Don Joxe Martin! Nolatan du gure etxe apal onek berorren agerraldia merezi? Eseri bedi eseri. (AULKIA ESKAIÑIAZ)

D. Joxe.— Nire lanbide ta zeregiñak narakar orain zuen bizitoki baketsu onetara.

Ama.— Ai, jauna, baketsu ba litz! Badugu, ordea, aspaldi ta gaur batez ere, pakearen premiña bizi-bizia. Jakingo du berorrek, nola ez ba, gure Gergorio alperrik joan dana lantegira goizena.

D. Joxe.— Bai, zerbait jakin dut. Baiñan berbere itzak entzun nai nituke zeatz-meatz. Etxean al da? Nai izango ote di nirekin itzegin?

Ama.— Bai, etxean da, baiñan... Badaki noski berorrek, bi illabete oietan elizara joaten ez dana, eta...

D. Joxe.— Olaxen da, zoritxarrez.

Ama.— Ezin ba nik esan berorrek egon nai izango duen ala ez. Oker--xamar dabil aspaldi ontan, lagunik biurrienekin bat egiñik.

D. Joxe.— Onelako gertaeretan errua norena dan adiraztea, ezta errez. Errudunak, asko, bear ba da.

Ama.— Elkar ulertu eziñak dakarzki matxinada oiek.

D. Joxe.—Ederki esana, andre Bizenta. Ortik datorzkizu, ziñe, oker guztiak.

Ama.— Jakin eragingo ote diot ba Gergorio-ri berori emen dagona? Bear ez diran itzak ez ote dizkio berorri esango, zor zaion lotsa gorde gabe...?

D. Joxe.— Gure Irakaslearen arabera, Ark ikusi zituanen pare, guk ere egonarri apur ba bederik bear genduke izan.

Ama.— Hamaika badaezpadako itz entzun izango ditu berorrek gu bezelakoen artean. Dana dala, adiraziko diot, eta... barkatu bezakigu, ordea, oraindanik.

D. Joxe.— Barkatua dago. (BAKARRIK) "Guk gure zordunei barkatzen diegun bezela"... Zer asmo izango ote du gizon onek? Bide ona betikoz utziko al du?

Ama.— (ATEONDOAN, EZKUTATU GABE) Gergorio!! Gergo!!... Zatoz onera, gizon on bat eldu baitzaigu gurera, pakezko itzez.

Aita.— (AGERTU GABE) Erriko seme al da, ala errian bizi dana?

Ama.— Erriko seme, ez ain zuzen; baiñan gurekin lan egiten duana; gurekin batean nekez ta lorrez betetzen dana. Zatoz, arren, zatoz pake-soiñuan zu ere!

Aita.— (AGERTUAZ, ETA ARRITUA BEZELA) A! Don Joxe Martin gurean! E... Eztut aitzen! Ezin asmatu dut zer esan.

D. Joxe.— (JEIKIAZ) Aspaldiko gizona! Kaixo, Gergorio! Ekatzu bosteko ori! (ESTUTUAZ)

Aita.— (MUKER XAMAR, LOTSA ANTZEAN) Eskerrik asko, baiñan izango da esames ederrik biar erri osoan.

D. Joxe.— Erri osoan, apaiz ezerez au zuenera eldu dalako? Bai zera!

Ama.— Etzara asarretuko noski, Gergorio. Zurekin itzegin nai dualata agertu baitzaigu.

Aita.— Nirekin?... Noren izenean nirekin mintzatu?

D. Joxe.— Neure izenean. Bearrak onera bai narakar, zuzentasunaren alde zerbait egin nairik.

Aita.— Zuzentasuna!... Itz ederra zan beiñola; orain ordea... Baiñan, eseri bedi, don Joxe Martin, mesedez.

D. Joxe.— Eskerrik asko. (ESERIAZ) Gurez, geronez ezin dezakegu sarritan ezer iritxi. Eskatu egin bear izaten dugu, eskatu.

Aita.— Eskatu? Ederki eman ere! Goiz ontan eskatu dut lana, leengo nire lanbide berbera. Eta zer lortu du Gergori-k? Ezetza: ezetz borobilla.

D. Joxe.— Eskatu... Alegia, galdetu, otoi egin, ain zuzen ere...

Ama.— Orixen esak aritzen naiz ni gure senarrari.

Aita.— Otoi egin... (ISEKA) Goikoek otoi egiten al dute? Zer eskatzen ote dute oiek? Diru gehiago, alegia? Agintaritza, ote? Munduko ospe ta erosotasun guztiak, apika? Oiek guztiak api-apa ba dituzte-ta...

D. Joxe.— Zure iritziz gauz oiek guztiok ba omen dituzte. Baiñan... ezta iñortxo ere, nai duan guztia duenik. Ezta urrik eman ere!

Aita.— Ori ere ezta gezurra.

D. Joxe.— Sarri askotan jarduten dugu onela, gauzak aurretiaz eta beraizik antolatzen. Esaterako: goikoak beti ongi, goikoak beti osasuntsu, beti agintzen edo erdi-agintzen, beti diru-jario... beti nagusi. Eta beekoa, beti ezeuki, beartsu, indargabe, nekez josita, lanez gaiñezka, zapalduta, morroi. Eta aizu, erdikoak ere ba dira, e?

Aita.— Erdikoak? Oiek ere, goikoen laguntzaille noiznai.

D. Joxe.— Ezta egia.

Aita.— Erdikoak geienetan goikoen maillara jotzen dute.

D. Joxe.— Beren lanez baldinba da... Eta, are gehiago. Beekoek ere, batzuek behintzat, igon oi dira mailla nagusietara, e? Eta ain zuzen ere, au ere esan nai nuan: beekoak, maiz, eztietela beren betebearrari buru-ematen; laneko orduetan nagi ta zabarkeriaz ari izaten dira batzu batzuk, eta orduan, zuzentasunak eskatzen du...

Aita.— (ETENAZ) Alperren artekoan nortzuk diran azaldu nai izan du berorrek, noski.

D. Joxe.—Olaxen da. Oraingo naspil oietan ere, zuen artean badirala norbaitzuek belar txarren iduriko direnak.

Aita.— Eta nik gaizki jokatu...

D. Joxe.— Ez, Gergorio, itxaron ezazu mesedez, apur batean. Belar txarrak, nun nai ere, kalte besterik ez du egiten, eta zuei ere, oraingoan, kalte egin dizue.

Aita.— Orduan, bada, aiek arrazoi osoa ote dute?

D. Joxe.— Ez, gizon, ez. Aiek, aiek ez dute arrazoi beterik, orixe ez! Iñork ez duan bezela, maizenik. Zuek ere, guztiok batean artuta, ez duzute arrazoi bete beterik. Langille zaretenok, ainbestean, noski; baiñan alper xamarrak... ez ainbestean, jakiña. Ulertzen, adiskide?

Aita.— Une ontan obeki ulertzen dut, berori aien alde osoro ez dagola oartzen baitut.

D. Joxe.— Ba du bai bere nekea egiaren ta zuzentasunaren muga aurkitzetik. Entzun: zein ordutan itzuli zara etxera, Gergorio?

Aita.— Amaikak baiñon leen, nunbait ere.

D. Joxe.— Zuri, zeatz eta garbi, zer esan dizute?

Aita.— Ez al daki berorrek? Ez al dio besteak adirazi?

D. Joxe.— Ez, ez dut beste ori gaur ikusi.

Aita.— Atzo bai, agian?

D. Joxe.— Atzo, bai.

Aita.— Ba... nire zera oraindio erabaki gabe dagola, esan dit arek. Nik, ontan, galdetu diot: "Ta noiz arte egon bearko dut onela, ez ara ez onera?" Eta arek orduan: "Jakiñeraziko zaizu"- garratz garratz. Ta ori jaurti, ta aldegin du. Beste batzuei laneratzeko, agindu die. Ni bezela, Manu Tupiki, Untzalu Erreka ta Aingeru Motx, maisu-maillako garanok, berdin geratu gara. Ta azkenik badaki berorrek, Antonio Xoxope-ri ta... libre daudela esan die.

D. Joxe.— Xoxope ta oiek zintzoak ba lira, orraitio!... Eta geroago, beste iñorekin itzegin al duzu?

Aita.— Ez, ez dut beste itzik entzun ez esan.

D. Joxe.— Atzo arte, jo ta su ari izan naiz egoera zital au burubide onera bearrez. Ez dut lortu. Agian, bear ainbatean ez naiz nekatu eta saiatu!

Aita.— (ZITALKI) Alperrik dira apaiz banaka batzuen lanak!

Ama.— Zagoz isilik, Gergorio, destaiñarik aipatu gabe!

D. Joxe.— Batzuen eta besteen erdia, elkartasuna, artu-eman zintzoa, nola erdietsi?

Ama.— Barka bezakigu, Don Joxe Martin.

D. Joxe.— (JAIKIAZ) Jakin nuana jakin dut, eta une ontan ezin besterik ezer burutu. Geroago itzuli nai nuke zuengana, onera. Gero arte, Jainkoak nai baldin badu. (BIOA)

Aita.— Ez dakit nola jokatu dudan. Ez diot nik egia osoa esan apaizari!

Ama.— Egia osoa ez esan apaizari?

Aita.— Zera... nire lantokia, lendabiziko makiñako maisutasuna, beste batentzat izango dala gaurtik. Onezkero, or nunbait jakingo du maisu berriak bere kargua.

Ama.— Eta zuk ba al dakizu nor dan zure ordezko ori?

Aita.— Bai.
Ama.— Ezaguna ote?
Aita.— Bai, oso.
Ama.— Nor, ba?
Aita.— Peillo.
Ama.— Gure alabaren senargeia?
Aita.— Berbera!
Ama.— Eta zuk...
Aita.— Nik... irentsi egin bear jokaera ori, senide arteko pakea ere autsi-urren jartzen duan jokaera.
Ama.— Zergatik egin ote dute ori? Onez? Ala gaiztoz?
Aita.— Nire buruak ez du batere argitasunik. Naasia dut arras!
Ama.— Oartu al duzu Don Joxe Martin ere erori xamar dagona? Badakizu biotza makal-antxik duena, eta naspil oiek...
Aita.— Ez naiz arritzen. Zintzo jokatu nai duenak beti ta beti ere izango ditu bereak eta bost!

(BIOAZ SUKALDERA)

IX
PEILLO. NEKANE. AITA.AMA

Peillo.— (KALETIK AGER BEDI) Eup! Egunon! Ez al da iñor etxean? Nekaneee!...
Neka.— (AGERTUAZ; KALERAKO JANTZIZ) Ene! Peillo! Asko da zu emen ordu ontan agertzea! (ELKARRI ESKU BIAK EMANAZ) Poz ematen didazu!
Peillo.— Bai, maite, sinisten dizut. (AURPEGIA IGURTZIAZ MAITEKIRO) Ezta kontu goxoa, ordea. Aita etxean al da? Itzegin al duzu berarekin?
Neka.— Ezer onik al dakartzu arentzat? Deituko al diot Peillotxo?
Peillo.— Nik zurekin egoten naien, ongi dakizunez; baiñan, gaurko une ontan, ostera... arekin egon bearra dut, leenbaileen.
Neka.— Deituko diot, ba. ¡Aita!!...
Peillo.— Aren lekuan... beste bat jarri dute, lendabiziko makiña-maisu.
Neka.— Ez dut ezer jaso. Gure aita betiko bazterreratua, alegia?
Peillo.— Ba liteke. Maisu berri orrek, ordea, kargu ura utzi egiten duela adirazi die.
Aita.— (SUKALDETIK AGER BEDI) Nork dei egin du orain ere? A!... Peillo!...

Peillo.— (XAMUR) A... aaita! Ezin izan dut, ezin...
Aita.— Zer diozu, Peillo?
Peillo.— Alde egin dudala lendabiziko makiñatik.
Neka.— (ARRITUAZ) Zu izan al zara maisu berria?
Peillo.— Bai, ba. Ez al zenekian? Ez al dizu aitak...
Neka.— Ez, aitak ere ez daki-ta!
Aita.— Nik bai, ba nekian.
Neka.— Ta nola agertu ez diguzu, aitatxo?
Aita.— Ez nuan nai zuen artean nire itzez, asarrebide koixkorrenik ere sortu.
Neka.— (AITA LAZTANDUAZ, TA NEGAR-ANTXA) Aita! Aitatxo!! Nork esan du zu gaiztoa zarela? Nork esan orrelako iraiñik?...
Aita.— Baretu zaite, Nekane, zu ere.
Neka.— Peillo: zuk ere zintzo jokatu duzu nire aitaren alde!
Ama.— (AGER BEDI SUKALDETIK) Entzun dizuet dana. Eta, zer egingo dugu orain guztiok berdin, Peillo?
Aita.— (LARRITURIK) Ta don Joxe Martin-ek ez daki egia osoa? Gaizki portatu naiz! Nik ez diot gauza bear bezala adirazi-ta!
Peillo.— Bai, ba daki. Guztia daki, dan aiñean. Ortxe bertan, kale kalean topez egin dut eta ari izan gara jardunean. Zuk isildutako zera ere... esan dit. Arek ba zekian jakin, baiñan, aita, zu gehiago ez mindutearren, ez dizu aurpegira bota.
Ama.— Ori da gizona, ori! Eta ez al da batere asarratu don Joxe Martin?
Peillo.— Bai zera! Al baldin ba du, itzuliko dala onera entzun diot.
Aita.— Ta ori nik egia zeatz agertu gabe!
Peillo.— Ni ere joan bear naiz, norbaitekin itzegitera-ta... Gero arte, ba. Agur, Nekanetxo, laister naiz berriro. Ikusiko dugu... geroaren musua. Auek ixtilluak! (BIOA) (AITA TA AMA ERE, BIOAZ SUKALDERANTZ)
Neka.— Nai duzun arte, Peillo.
Ama.— (EZKUTATU ORDUKO) Bizkaiko seme zintzo orrek urrezkoa du biotza, alegia!

X

NEKANE. BIDAIGIZON.

Nekane.— Au egoera! Aita, lanik gabe; nire senargeia, berdin, aitaren lekuaz jabetu nai izan ez dualako. Ta ni nola orain joan Andre Mikolasarengana? Nai ere ez du izango ta! Zorionean eldu xuxen-

-xuxen Peillo; osterontzean bestelako parragarri bide izango nintzakean!

Bidai.— (AGERTUAZ) Aizu, Nekane! Au aukera ederra, ereti paregabea! Ezta txantxetan, eta entzun ezazu: Jausorozaarrenean izan naiz eta ango etxakandreak auxe adirazi dit: "Badakizu ba Nekane, Gergorio-ren alaba". Bai noski, erantzun diot. "Beste urteetan bezala, bere premiña dugula, eta leenbaileen etorriko balitz gurera, afaritara-ordurarte." Eta gero, bi aldiz esan dit: "Aguro etortzeko, al baldin ba du, ezer pentsatu gabe, aditzen? Ezer pentsatu gabe..."

Neka.— Zeiñek esan dizu ori?

Bidai.— Niri? (ARROKI ETA ASTIRO) Andre Doña Mikolasak berberak. Badakizu, ba. Eta joan aguro, nire zeregiña bete dedala oartu dezan. (BIOA)

Neka.— Auxen bai dala komeria! Komeria larria, gaiñera! Zer egin bear? Joan? Ez joan?... Ezer pentsatu gabe, alaz ere! Aitari esan bear diot; eta amari; eta Peillori; eta Mikel neure anaiari, eta... Ederra kontua! Auxen da auxen! Izugarrizko korapilloa, alajaiña! (GOGOETA EGIÑAZ) Eta... Mikolasak ere, zertxobait adirazi nai du, ba... Dana dala, or konpon. Ba noa eta kitu. Gizonak ezin duena, agian andrak lezakete! (BIOA AZKAR ETA TXUT).

XI
AMA. AITA

Ama.— (AGERTUAZ) Nekane, joan ote da? Bai noski, ez da agiri eta joan izango zan. Ikusiko duzu nolako txera egiten dioten. Nire asmoz joan da-ta... betoz egurrak nire bizkarrera.

Aita.— (AGERTUGABE) Ezer nai al duzu, Bizenta?

Ama.— Ez ba; errezatzen ari nintzan.

Aita.— Mikel eldu dala esan duzu leen. Eta nun da?

Ama.— Bai, errian da. Arek ere ba daki... erdia.

Aita.— Erdia?

Ama.— Bai, zuk adirazi duzunez, ez duzu osoa esan-ta!

Aita.— Nirekin asarre al zara?

Ama.— Asarre izanik ez dugu ezer irabazten. Alere, Don Joxe Martiñi ori egin bearra!

Aita.— Nire barruko zera zan-ta.

Ama.— Orrek galtzen gaitu sarrita. Bakoitzaren barruko zer orrek!

XII
LENGOAK ETA DON JOXE MARTIN

D. Joxe.— (KALETIK BETOR) Oles, oles, etxekoak! Ondo aurkituak!

Ama.— Ondo etorria, Don Joxe Martin.

Aita.— Zea... Don Joxe... Itzik egin baiño leen, nire berorrenganako jokabide makurra aitortu nai dut. Jendeak uste du guk ez dugula biotzik, baiñan...

D. Joxe.— (POZTUAZ) Guztiok dugu biotza, Gergorio.

Aita.— Guk gogor xamarra, ordea.

D. Joxe.— Utzi dezagun arlo ori. Emen ari naiz langabe guztien izenak biltzen. Lan egin nai dutenenak dira izenok, noski. Lanerako gogo gutxiko direnena ere, egin nai nuke. Geroxeago, ordea.

Aita.— Leengo tokietan lan egiteko, apika?

D. Joxe.— Ba liteke; egia esan, ez dakit ainbesterik... Eta orain, zera, azkenengo erabaki ziran lan-sariak ontzat artzen al dituzu, adibidez, zuk, Gergorio?

Aita.— Nortzuek erabakitako sariak dira oiek?

D. Joxe.— Udabarrian ugazabak eta langilleak, edota bien ordezkoak aintzat artu zituztenak; egoki bezala, orduan behintzat.

Aita.— Aldi ontan, alabaiña, deusik ez da merkeago, garestiago baizik.

D. Joxe.— Egia da ori, eta ez dut azturik, iñolaz ere. Gutxienaz, euneko... berrogei; laburtxo ez baldin ba nabil.

Aita.— Orrelakoren bat, batez beste. Ez da gaizki esana.

D. Joxe.—Izenkada au, nik neronentzat egiña dut, gero. Nik jakiteko eta... (ERLOJUARI BEGIRATURIK; ESKUBITURREKOARI, ALEGIA) Ugazabak oraintxen bilduko dira alkatearekin, eta langileen ordezkoak ere, bai. Olajaunak zer agertuko duten gaur, ez dakit tutik ere.

XIII
LEENGOAK ETA JAUSOROZAAR. KONTXESI TA AITONA.

Jausoro.— (KALETIK) Egunon! Sartu al naiteke?

Aita.— Aurrera!!

Jauso.— (ARRITUAZ) Zu emen, Don Joxe Martin? Nolatan...?

D. Joxe.— Ikusten duzuenez, Jausorozaar jauna, emen ere bai. Bearrak arazita.

Ama.— Eseri bedi, jauna!

Jauso.— (GOGORTXO, BETI ZUTIK) Eskerrak ematen dizkizut. Don Joxe Martin, ezin isilik egon nindeke. Zuk ematen diezu su, su, oiei, eta gero gar eta gar jartzen dira, bazterrak erretzeko itxuran.

D. Joxe.— Ori dala egia uste al duzu?

Aita.— Orixe nai lukete goikoek; norbaiti errua egotzi. Edota apaiz guztiak erosi.

D. Joxe.— Apaizak ez dute merkataririk, Jainkoa besterik! Ari saldurik gaude, Gergorio.

Jauso.— Eta... (URDURI) zer egiten ari ziñan ba eman, Don Joxe Martin? Nai al dute pakerik oiek?

D. Joxe.— Zer egiten? Auxen gertatu bearra! Zu ere onean eldu zara, ni bezela. Erantzungo dizut, Jausorozaar jauna. Pakea, pake ederra, pake zindoa, guziok nai izaten dugu maiz; ez beti, ordea.

Jauso.— Gergorio: zure suingeiak goiz ontan egin duana, arranopola, ez da joko garbia izan. Gora jaso, ta erdeiñu eman; toki onean jarri, ta aldegin, arrokeriaz!

D. Joxe.— Peillok gaur, bere barrenari jaramon egin dio, eta orra.

Jauso.— Asperturik nago hainbeste bigunkeriz eta arrazoi legunez.

D. Joxe.—Ni ere bai sarritan aspertu egiten naiz, aspertu, hainbeste estadistika eta hainbeste balantze eta hainbeste kontu-liburu ikustez... Ulertzen didazu, noski.

Jauso.— Nola nai duzute apaizok ekonomia zuzendu ta erabili? Galduaz? Irabazi gabe?

D. Joxe.— Ekonomia gauza bearra da. Ez ordea, bakarra.

Jaus.— Betiko leloa!!

D. Joxe.— Badakit, betiko aginduak bezela, beti berdiñak beren muiñean.

Aita.— Ederki botea!

Jaus.— Zuk zer aipatu bear duzu, Gergorio, elizara joan ere etzara joaten-ta!

Aita.— Asko joaten dira eleizara ta... Banekian nik arako parabola edo berdintze polit askoa. Orain ez oroitzen, ostera.

Jaus.— Lotsagabea! Langilleen artean alperrik da gauzak argi esatea!... Oker artzen dituzte.

D. Joxe.— Ez ditzagun, Jausorozaar jauna, gure inguruko lagun guztiak neurri berdiñez zertu.

Jaus.— Naikoa dugu ipuirik. Don Joxe Martin: oraintxen dugu batzarra. Joan egin bear dut. Etorri zaitez nerekin, kaleraiño bederik, komeni zaitzu-ta.

D. Joxe.— (PATXADAZ) Ba al dakit nik aspaldi zer komeni zaidan? Berdin da, nire eginbearra nire gain artu nuen beiñola, eta aurrera ekingo diot; Goiko ugazaba aren menpean langille sartu bai nintzan betikoz! Batzuek, ara joatea nai dute; besteak, or uri andian egotea eskeiñiak dira; adiskide ta etsai artean, ekin!

Jauso.— Itz oiek nire barrena samurtu ta beratu dute, eta,... Langilleak obeak, gizon pakezaleagoak ba lira... zerbait egin al ba geneza...

D. Joxe.— Ongi litzateke. Nik neronez asmotxo bat burutu nai nike, ta bereala, gaiñera.

Jausoro.— Zer asmo diozu?

D. Joxe.— Olajabe askok ba dute naikoa ondasun erri ontan. Olajabe-kideak geitu ta ugaritu nai nituke. Gaur bertan Kooperatiba delako bat sortu nai nik!!...

Jaus.— Gure kaltetan ari zera, Don Joxe Martin!

D. Joxe.—Gizon dirudunari, auzokoak ere dirua irabazteak, ez dezaioke kalterik egin, horrela ez dio eskatuko-ta.

Jauso.— Au duk au! Jaunak, eta alare ta bat!!... (ESKUEKIN BURUARI EUSTEN DIO) Gure arrokeriaren zigortzat edo biali izango du, nonbait, gizon au gure Jainkoak!

D. Joxe.— (APALKIRO) Munduko zer oiek guztiak purtzilkeriak besterik ez dira, betikotasunaz konturtazen baldin ba gara. Oroitu arako itzak: "Nire txikiei egiten diezuna, neri egindakotzat izango dut". Eta gure arimatxoa, ondasun aundiegia ta bikaiñegia dala, emen beeko ondasuntxoekin batean galtzeko.

(KONTXESI ETA AITONA AGER BITEZ, ETA AGERTOKI MUTURREAN JARRI)

Jauso.— (SENTIMENDUZ GAIÑEZKA, AOTS DARDARATIAZ) Ba noa batzarrera. Baiñon, leenbizi, guk pakeak egin ditzagun emen, an ere egin al izateko. Agur, ba, Gergorio; agur, Bizenta. Zuen alaba Nekane an dago gurean... eta arek ekarriko dizute gaurko pakeafaria. Gabon eta berri on guztioi: olaxen opaldu bezakigu Jesus Aurrak. (ITZ MOTELEZ) Emen baidugu dagoneko, Belen-go aingerua:... Don Joxe Martin...!

Kontxe.— Aitona, entzun? Nire aizpak ekarriko, oillaskoa niretzat!

Aiton.—Ara, ara, gaurko ipuinaren egiazko mamia, ez-paita ipuia: Goratzapena Jainkoari zeruetan, eta emen beean, pakea, gizon zintzoei!

AMAIA

1956, udazkenean

ENE GIZON GEA*[1]

Grachiana.
Katicha, auzoa.
Ichtefana, ama.
Maia, dendaria.
Yakobe.

EUSKAL-HERRIKO SUKALDE BAT
GRACHIANA bera

GRACHIANA.— Hara, izkiriatu dut ene gizon geari; ene gizon gea... ba, badut gizon gea, bainan nehorek ez daki, nik baizik... eta harek bichtan da. Nolakoa othe da? ez dut ezagutzen oraino. Zernahi gisaz ez da nornahi... Zer erranen othe du amak, jakinen duenean? emanen ahal dio, estakuru. Bainan zer dakite chaharrek? Heiek deneri lotsa, gazteak aldiz jeuseiri, beraz jo aitzina. Khantuak ere ez dauka erraiten: (*Kantuz*): «Ez egin kasurik atsoen erraneri».

GRACHIANA eta KATIXA

KATICHA.— Omore ona duchu Grachiana.
GRACHIANA.— To, zu zinena, Katicha, sar zite.
KATICHA.— Eta?... prest ditutchua?...
GRACHIANA.— Zer?
KATICHA.— Zer?... ene phorru-landareak.
GRACHIANA.— Ah! arrunt ahantziak nintuen; badut bertzerik gogoan.
KATICHA.— Eta itchuren arabera jeus gaichtorik ez.
GRACHIANA.— Arraz ez, gogoan dutana ona da, biziki ona, ezin hobea.
KATICHA.— Gizon gei bat?...
GRACHIANA.— Han zira: gizon gea eta nolakoa!
KATICHA.— Kuriosegi ez baniz, nor duchu?

---

* *Gure Herria*, 29 (1957).

[1] Bi testu emoten doguz, jatorrizkoa eta Eusebio Erkiagaren bizkaieratzea, irakurleari bi-biak argigarri izango jakozalakoan.

NIRE SENARGEIA*

Mayi Elissagaray-ren "Ene gizon gea". Ekitaldi bateko antzerki polita. Eusebio Erkiagak, 1957n bizkaieraz jarria.

GRAXI
KATIXA, auzokoa
IXTEFANI, ama
MARIXAN, adiskidea
MAIA, dendaria
YAKOB, gizon bat.

Euskalerriko sukalde batean.

GRAXI. Gero, KATIXA.

Graxi.— Ara, idatzi deutsat ene senargeiari; ene senargeia... ba, ba dot gizongeia, baiña iñok be eztaki, neuk baiño, eta berak, bistan dago. Zelakoa ete da? Eztot ezagutzen oraindiño. Dana dala, ezta edonor... Zer esango ete deust amak, jakiten daianean? Emongo ete deutsa atxakiren bat? Baiña... zer dakie zaarrak? Aek edozeri lotsa ta begirapena; gazteak barriz... Dana dala, jo aurrera. Kantuak be, ez al deusku esaten, (ABESTUAZ) "Ez egin kasurik atsoen esanari"
Katixa.— (AGER BEDI) Umore ona dozu; Graxi.
Gra.— Ene, zu al ziñan? Kati, sar zaitez.
Kati.— Eta... prest al dituzu?
Gra.— Zeeer?
Kati.— Zer?... nire porru-landarak.
Gra.— A...! Azturik nituan guztiz. Ba dot besterik gogoan.
Kati.— Eta agiri danez, ezer txarrik ez.
Gra.— Benetan, ez. Gogoan dodana ona da, txit ona, ezin obea.
Kati.— Senargeiren bat...?
Gra.— Ortxe zagoz: senargeia, eta zelakoa!
Kati.— Jakinguratxuegi ezpa nintz, nor dozu?

---

* *Argitaratubakoa*, 1957.

GRACHIANA.— Ez dakit chuchen.

KATICHA.— Ez dakin... eta nungoa da? zer ofizio du?

GRACHIANA.— Horiek oro laster jakinen ditut; ez dut oraino chehetasunik.

KATICHA.— Gaicho haurra! Zer deasazu? (burua hunkiz). Ez duchu ba sukarrik?

GRACHIANA.— Ez, ez, Katicha, zaude gostuan; burua fresko dut, bihotza dut bero.

KATICHA.— Aah.

GRACHIANA.— Yar zite, erranendauzut nola gertatu den. Horra, irakurtu dut berriketari batean hauchet: «Gizon oraino gazte, familia haundi, arranda on, eta idaratz-dun pollitak nahi luke ezkondu neskato ez lotsakor eta bihotz-dunarekin». Ihardetsi diot: «Ez naiz batere lotsakorra, bihotz handia ere badut eta zuri idekiko dautzut zabal-zabala». Orduan igorri daut «laster jinen niz zure ezagutzaren egiterat esposa giten lehen bai lehen».

KATICHA.— Zer den jakitea!... orai ezkontzak ere berriketarietarik egiten dira.

GRACHIANA.— Eta zer ezkontza?...

KATICHA.— Ba, haundia; hola izkiriatzen ari direnak ez dituchu segur nor-nahi.

GRACHIANA.— Nik ere hori bere egiten dut.

KATICHA.— Gure denboran ez zuchun holakorik, ez duchu haundi mutchurdin egon baniz. Irakurtzen doi-doa zakichut, izkiriatzen batere. Chu bezalakoek, ni mutchurdin egon nizan tokian, kausituko zichien hamar gizon gei.

GRACHIANA.— Badakite aise.

KATICHA.— Zer den jakitea!...

GRACHIANA.— Yakitate horri esker, orai bihotza bozkariotan dut; ez bakaharrik bizia, bainan gauza guziak ederragoak ikhusten ditut: zerua urdinago, phentzeak pherdeago, loreak, aphainduago, chorien kantua cheragarriago, denak, hots!

KATICHA.— Zoin ederki mintzo chiren, on chira, on chira, jaun aberatsarekin ezkontzeko. Jakitatea gauza ederra... Juhan nuchu; ez ahatz ene phorru-landareak.

GRACHIANA.— Entseatuko niz.

Gra.— Ez dakit zuzen.

Kati.— Ez dakizu... eta nungoa da? zer bizibide dauka?

Gra.— Orreik guztiok laister jakingo ditut; eztoz oindiño zerzeladarik

Kati.— Ume gaixoa! (BURUAN IKUTUAZ) Zelan zagoz?

Gra.— Burua fresko dot; biotza dot bero.

Kati.— Aaa!

Gra.— Jesasrri zaitez, eta esango deutsut zelan jazo dan. Orra! Egunkari batean auxe irakurri dot: "Gizon oindiño gaztea, famili aundi, etorri oneko, irabazi politak; ezkondu egin nai leuke neskato ez lotsakor eta boitzdunagaz". Eta nik, baita erantzun be; "Enaiz bape lotsakorra, biotz andia be badot, eta zuri edegiko deutsut zabal-zabal". Eta orduan, erantzun deust arek: "laster joango naiatzu zu ezagutzen, lenbailen ezkondu gaitezan".

Kati.— Ai, jakitea zer dan! Orain ezkontzak be, paperetatik egiten dira.

Gra.— Eta zelako ezkontzea, gero!

Kati.— Bai, aundia. Orrelan idazten dabenak ez dituzu seguru edonor.

Gra.— Neuk be, orixe berori egiten dot.

Kati.— Gure denporan ez genduan olakorik eta ezta arritzeko ni neu mutxurdiña aundi izaterik. Irakurten, doi-doi dakit, eta idazten, bapez. Zu lakoak, ni mutxurdiña egon nintzan tokian, topauko zenduezan amar senargei.

Gra.— Ba leiteke errez.

Kati.— Ai, jakitea zen dan!

Gra.— Jakite orreri eskerrak, orain biotza pozetan daukat. Ez bakarrik bizia, gauza guztak be ederragoak ikusten ditut: zerua, urdiñago; zelaiak berdeago; lorak apainduago, txorien kantak zoragarriago; danak, egia esan, danak!

Kati.— Bai ederto be berba egin dozuna! Ona zara, ona zara, jaun aberatsagaz ezkontzeko. Jakitea gauza ederra!... Tira, ba noia. Ta ez aztu nire porru-landarak.

Gra.— Aleginduko naiz. Orain joan bear naiz bizkor-bizkor, amak ikusi barik, lerro oneik bialtzen (BARRIRO BE, KANTUZ, SOIÑEKOA JANTZIAZ)

"Segi, segi, segi
gure bizimoduari..."

GRACHIANA bera

Orai juan behar niz zalhu-zalhua, amak ikhusi gabe, bi lerro hauien heltzerat (*berriz ere khantuz soinekoa jauntziz)* «Segi, segi gure bizi moldeari».

GRACHIANA eta ICHTEFANA

ICHTEFANA.— Norat ari haiz, Grachiana?

GRACHIANA (*duruduzatua)*.— Ori... harat... eta... erranen duta? Frantchinari dozena bat arroltzeren heltzerat.

ICHTEFANA.— Orai? Tenore huntan? Juanen haiz sarri, ilhuntzean.

GRACHIANA.— Ez, ez; zonbait egun hauetan galdeginak dauzkit. Heldu niz laster (*jalitzen da*).

ICHTEFANA bakharrik

Zer du haur hunek egun haukietan? Arras khanbiatua da: laneko funtsik ez, usu hara hunat eta bethi kantuz... Nik uste, etzi lehen auzoaren espos lagun behar delakotz, da holakatua. Gaztek guti aski alegeratzeko.

ICHTEFANA eta MARICHAN

MARICHAN.— Hor hiza, Grachiana?

ICHTEFANA.— Zato aitzina, Marichan.

MARICHAN.— Bakharrik zirea, Ichtefana?

ICHTEFANA.— Grachiana orai-orai jalia da, ez duzirea elgar ikhusi?

MARICHAN.— Ez; ni baratzeko jelatik sartu niz.

ICHTEFANA.— Eta hura aitzineko athetik jali; bainan jar zite, jinen da laster.

MARICHAN.— Ez, ez dut aizinarik; egun hauetan bada egiteko hanitz gure etchen.

ICHTEFANA.— Alabainan, espos-bezperagoak egun kargatuak dire... bainan gero phausatuko zira. Izanen duzue langile bat ona, gehiago.

MARICHAN.— Ba, egia duzu Kayet gizon azkarra da eta burutakoa; atsegin dut etchearen segida holako lagunarekin hartzea.

ICHTEFANA.— Sinhesten dut, Kanpohandiko horiek oro biziki plantakoak dira... Uste nien Kayet etcheko zela.

GRAXI, eta IXTEFANA

Ixtefana.— (AGER BEDI) Nora oa, Graxi?
Gra.— (DURDUZAZ) Ori... zera... ba, esango ete dot? Pantxikeri dozena bat arrautza eroaten.
Ixt.— Orain, sasoi onetan? Laster joango zara, illuntzean.
Gra.— Ez, ez; egunotan ainbat bidar eskatu deustaz. Laster biurtuko naiz. (BEIOA)

IXTEFANA, gero MARIXAN.

Ixt.— Zer darabil ume onek egunotan? Osa aldatuta dabil. Lanerako ganorarik ez, arin batera, arin bestera, eta beti kantuan... Nik uste, etzi auzoko neskatillearen aialdekoa izango dalako aren ezkontzan, orretxegaitik izango dala. Gazteak gitxi bear ba, poztuteko...!
Mari.— Or zagoz, Graxi?
Ixt.— Zatoz aurrera, Marixan.
Mari.— Bakarrik al zagoz, Ixtefana?
Ixt.— Graxi ointxe-ointxe joana da; ez al dozue alkar ikusi?
Mari.— Ez, ni baratzeko zeretik sartu naiz.
Ixt.— Eta a, aurreko atetik joan. Baiña, jesarri zaitez, beingoan biurtuko da.
Mari.— Ez, eskerrik asko.
Ixt.— Ala ta be, ezkontzegun — bezperak egun zerak dira... baiña gero, elduko yatzue barealdia. Langille on bat gehiago izango dozue.
Mari.— Bai, egia diñozu. Kaiet gizon azkarra da eta burutsua; atsegin yat etxearen jarraipena olako lagunagaz artzea.
Ixt.— Siñustuten deutsut. Kanpoandiko orreik guztiz zerak dira, izan be. Nik uste neban... Kaiet txerako zala.
Mari.— Bai baiña olantxe gertatu da, eta Xalbat da etxerako.
Ixt.— A bera be, bai mutil begikoa!
Mari.— Eta langillea, eta ekiñekoa! Eztau etxea errekaratuko. Arek ba, nai leuke orain laguna artu.
Ixt.— Eztot errukituko aukeratuko dauana.
Mari.— Orixe ba, esan bear deutsuduna. Badakizu arek nor daukan begiz jota?
Ixt.— Nor?

MARICHAN.— Untsalaz ba; bainan hola gertatu da eta Chalbat da etcheko.

ICHTEFANA.— Hura ere, zer mutiko karana!

MARICHAN.— Eta langilea! Eta jarraikia! Ez du etchea errekaratuko. Harek ere nahi luke orai laguna hartu.

ICHTEFANA.— Ez dut urrikari izanen hautatuko diena.

MARICHAN.— Ori, behar dautzut erran. Badakizu, nor dien begiz joa?

ICHTEFANA.— Nor?

MARICHAN.— Zien Grachiana.

ICHTEFANA.— Gure Grachiana Kanpohandiko etcheko andere? baditakea?

MARICHAN.— Ba, Chalbatek arras gogan du; eta ene espos egunean elgarren lagun izanen baitira, nahi nuke Grachiana ere delibera dadin.

ICHTEFANA.— Ez ahal du dudarik izanen.

MARICHAN.— Atsegin haundi nuke nik ere koinatzat banu. Ni haur bakharra, ahizpa egiazkoa bezain maite nuke.

ICHTEFANA.— Harrek ere ba segur; jadanik ere aski elgarri atchikiak zirezte bi lehen auzoak.

MARICHAN.— Aipha zakozu beraz.

ICHTEFANA.— Zaude gostuan, eta fida niz denak untsa joanen direla.

MARICHAN.— Hobe, beraz bihar arte, Ichefana!

ICHTEFANA.— Ba, gaicho Marichan, Jainkoak nahi badu.

ICHEFANA bera

Gure Grachiana Kanpohandiko etcheko andere! Baditakea' Ez dut asmatu holako etchean sar zitakela... Zer erranen du hori jakitearekin? Behar bada Chalbatek jadanik zerbait erakusterat emana dio; hartako da nik aste egun hauetan holako bozkalentzian... segur segura.

ICHTEFANA eta GRACHIANA

ICHTEFANA.— Hor hiza, Grachiana? Ikhusi duna Frantchina?

GRACHIANA.— Ez, atheratua zen.

ICHTEFANA.— Eta arroltzeak?

GRACHIANA.— Gibelerat ekharri ditut.

ICHTEFANA.— Batere behar gabe izan hiz. Ez dakin nor huts egin dunan?

Mari.— Zeuen Graxi.
Ixt.— Gure Graxi Kanpoandiko etxekandre? Ene bada! Ba leiteke ori?
Mari.— Ba... Xalbat-ek gogo-gogoan dau, eta gure ezkontza-egunean alkarren lagun izango dira-ta, nai neuke ordurako erabagia izan daian Grazi-k.
Ixt.— Ez al dau dudarik be izango!
Mari.— Atsegin aundia izango neuke nik be, koiñatatzat ba neu. Aizta egiazkoa baizen maite izango neuke.
Ixt.— Arek be, seguru asko; orain bere naikoa alkarganatuak zarie urren auzuok.
Mari.— Zuk esaiozu, ba.
Ixt.— Zagoz nasai; eta zerak ondo joango dirala uste dot nik.
Mari.— Oba. Beraz, bihar-arte, Ixtefana!
Ixt.— Bai, Marixan gaixo, Jaungoikoak nai ba dau. (MARIXAN BEIOA)
Mari.— Gure Graxi, Kanpoandiko etxekandre!... Ba al leiteke? Ez yat bururatu be egin, olako etxean sartu zeitekeanik... Zer esango ete dau ori jakiteaz? Bear bada... Xalbat-ek berak onezkero zeozer adierazoko eutsan edo... Orixe izango da aren poza egunotan... bai! seguru seguru.

IXTEFANA eta GRAXI

Ixt.— Ba zatoz, Graxi? Ikusi al dona Pantxike?
Gra.— Ez ba; urten egin dau.
Ixt.— Eta arrautzak?
Gra.— Atzera ekarri ditut.
Ixt.— Bearrizan barik joan aiz. Ba al dakin nor uts egin donan?
Gra.— Nor?
Ixt.— Marixan izan don, eu ikusi nairik.
Gra.— Zer dau, zerbait nai al eban?
Ixt.— Ez. Ezteguetan, Xalbat izango donala laguntzat, esan nai yonan
Gra.— Ori ba dakit.
Ixt.— Eta, arek be, ba dauala ezkontzeko ustea.
Gra.—...
Ixt.— Ez al don galdetzen nogaz?
Gra.— Bardin yat.

GRACHIANA.— Nor?
ICHTEFANA.— Marichan izan dun hi ikhusi nahiz.
GRACHIANA.— Zer du, zerbait esku-ukhaldi nahi?
ICHTEFANA.— Ez, ez: nahi zaunan erran Chalbat izanen hiela ezteietan laguntzat.
GRACHIANA.— Hori badakit.
ICHTEFANA.— Eta harek ere baduela ezkontzeko chedea.
GRACHIANA.—...
ICHTEFANA.— Ez duna galdatzen norekin?
GRACHIANA.— Berdin zaut.
ICHTEFANA.— Berdin! Jakinen dukanen norekin, ez zaun ez berdin izaren hiri! Phentsatzen din...
GRACHIANA.— Eni?
ICHTEFANA.— Ikhusten dun; ez hien uste?
GRACHIANA.— Ez batere.
ICHTEFANA.— Eta orai, zer dion?
GRACHIANA.— Nik ez dutala haren gutiziarik.
ICHTEFANA.— Zer erraiten dun? Ez haren gutiziarik? Baduna bururik?
GRACHIANA.— Den gutienik! Badut gizon gea, hori ez bezalakoa.
ICHTEFANA.— Hori ez bezalakoa? Behin holakoa... Nor dun gero delako gizon gei famatu hura...?
GRACHIANA.— Familia haundiko norbeit.
ICHTEFANA.— Nun egina dun haren ezagutza?
GRACHIANA.— Ba... ez dut oraino ezagutzen...
ICHTEFANA.— Aah! Eta nungoa da? nola du izena?
GRACHIANA.— Ez dakit oraino chuchen.
ICHTEFANA.— Zer ditun enuchentkeria horiek? Gizon gea ez ezagutzen! ez jakin ez izena, ez nungoa den! Amets egin dun, nik uste!
GRACHIANA.— Ez batere, berriketari batean ikhusirik haren galdea, izkiriati diot; eta jin beharra da laster ene ezagutzaren egiterat, lehen bai lehen esposatzeko.
ICHTEFANA.— Horiek oro finkatu ditun eni hitzik erran gabe?
GRACHIANA.— Ba; egiten bainuen zerbait traba emanen zinuela, ikhusten duzu zuhaurek hala-hala gerthatzen dela.
ICHTEFANA.— Bichtan dun! nola behar dut onhartu, ene alaba ezkont dadin ezagutzen ez dugun nunbaiteko gizon batekin? Jainkoak zakin zer den!
GRACHIANA.— Aberatsa da.

Ixt.— Bardin? Ik jakin daianean nogaz, ez yan berdin izango iri! Aren pentsatzen yon...
Gra.— Niri...?
Ixt.— Ikusten don? ez al oan uste?
Gra.— Ezta bapere.
Ixt.— Eta orain, zer diñon?
Gra.— Nik ez dodala aren gurariri k.
Ixt.— Zer esaten don? Ez aren gurariri k? Ba al dona ik bururik?
Gra.— Bai zera! Ba dot nik gizongeia, ori ez lakoa.
Ixt.— Ori ez lakoa? Oindiño olakorik! Nor don gero, senargei ospatsu ori?
Gra.— Familia aundiko nonor.
Ixt.— Nun egiña don ezaupidea?
Gra.— Ba... eztot oraindiño ezagutzen...
Ixt.— Aaa! Eta nungoa da? Zelan dau izena?
Gra.— Ez dakit oraindiño zuzen.
Ixt.— Zertzuk ditun iñuzentekeriok? Senargeia ez ezagutzen? Ez jakin izena, ez nungoa dan! Ames egin dona, nik uste!
Gra.— Ezta bape. Paper baten aren eskabidea ikusirik, idatzi deutsat. Eta laster da etorteko neu ezagutzen, lenbailen ezkontzeko.
Ixt.— Naste guztiok egin ditun niri ezertxu aitatu barik?
Gra.— Ba, neuk egiten neban, eragozpenen bat ipiniko zenduala-ta, ikusten dozu zeuk olantxe jazoten dala.
Ixt.— Bistakoa! Zelan onartu nei, ezagutzen ez dogun nunbaiteko gizon bategaz nire alabea ezkondu dedin? Jainkoak daki nor dan!
Gra.— Aberatsa da.
Ixt.— Ori ez jakin ba. Paperak, jartzen dauana artzen dau. Eta izanik be, ezta naikoa dirua beste zer batzuk ezpaditu: gizontasuna, siñismena, osasuna eta abar!
Gra.— Etorri dediñean, berak argituko ditu.
Ixt.— Siñistu ete leitekena, arrotz baten esana?
Gra.— Gero eskatuko deutsaguz beste argitasunak.
Ixt.— Eta, arteetan Xalbat galdu! Artuko dau errez zu lako lora bat!... Ai, Graxi!... ez egiña itxi eskuko txoria besterentzat. Eta zelako txoria! Mutiko azkarra, jatorra, langillea, daukana eta zelako abia!; etxe leio eder, bazter zabal, lur gizen, trasta edozetarikoak, bai kanpoan bai barruan lanean errez egiteko! Zelako tokia umeak azteko!... Ez dona, ez, beste olakorik izango.

ICHTEFANA.— Batere ez dakin! Paperak ukhanak hartzen ditin. Eta izanik, ere, ez dun sosa aski, bertze zonbat ez da: gizontasun, errelisione, osagarri eta asko!

GRACHIANA.— Jinen denean berak argituko gitu.

ICHTEFANA.— Fida ditekea arrotz baten erranari?

GRACHIANA.— Gero galdatuko ditugu bertzalde chehetasunak.

ICHTEFANA.— Eta artean Chalbat gal! Hatchemanen din aise hi bezalako lili bat... Ah! Grachiana, ez utz eskuko choria airekoarentzat. Eta zer choria! muthiko propia, azkarra, langilea eta duna eta nolako ohantzea! etche-leiho eder, bazter zabal, lur gizen, tresna mota guziak bai barnean bai kanpoan lanen aise egiteko! Zer haur hazteko tokia!... Ez duz ez, bertze holakorik izanen.

GRACHIANA.— Hor ez bezalako bizia iraganen dut hirian.

ICHTEFANA.— Ago, othoi, ichilik! Han ere ez ditun ez, churi guziak esne. Juan zunan Chopikundeiko Maider ere hirirat, erranez abanteil gaitzak izanen zituela; eta denbora laburrik barne, izkiriatu zinan etcheko bidechka horriez ere orhoitzen zela.

GRACHIANA.— Horrek ez du deusik erran nahi. Bichtan zen, zer-nahi jaliko zinela, ezkontza horren ez onhartzeko.

ICHTEFANA.— Gaicho haurra! Sinhetz nezan, othoi! Nehorek ez hu amak baino hobeki ikhusi nahi... hola mintzo baniz, hire onetan ari nun.

GRACHIANA.— Bainan, zuk zer dakizu oraiko molde berrietan?

ICHTEFANA.— Lehen eta orai, gauza horiek bethi bardin ditun, gaztek ez uste izanik ere. Jar hadi eta adi nezan: ni ere denboran ezkondu nahi izan nindunan muthiko eder ez-deus batekin. Amak erran zautanan edertasuna ez zela ez janhari ez edari, eta hobe niela hartzea Petrukundeiko Manech hire aita. Ama sinhetsi ninan, eta ez zautan behinere dolutu.

GRACHIANA.— Ez da berdin; ez da batere errana, ene hau ez-deusa dela.

ICHTEFANA.— Ez dakin; behar bada, ariagokoa!

GRACHIANA.— Utz nezazu nahi dutanaren egiterat.

ICHTEFANA.— Ez, ez haut utziko... Hik uste ditunan abanteil guziak balitu, kausituko zinan emazte bere ingurietan, berriketarien medioz galderik egin gabe. Ene baia ez dun izanen!

GRACHIANA (*nigarrez*).— Eta nik, ez dut Chalbat hartuko! Ez niz eztaietarat joanen.

ICHTEFANA (*eztiki*).— Ikhusiko diun! Uzten hait ichtant bat; egizkin phensaeketak, nik Elizako itzuli bat egiteko artean (*khartsuki*). Ah. Jainko maitea, emazu othoi zentzu pochi bat ebe haur huni!.

Gra.— Or baiño beste bizimodu izango dot erri aundian.

Ixt.— isilik ago, arren! Han be, ez donaz zuri guztiak esne. Joan zonan Xopikundeiko Maider be erri aundira, kalera, bentaja guztiak izango zituala-ta; eta andik denpora laburrean, idatzi yonan etxeko bide-ziorrak be, gomutan zituala.

Gra.— Orrek eztau ezer esan nai. Bistakoa zan edozer esango zenduana, ezkontza ori ontzat ez artzeko.

Ixt.— Ume gaixoa! Siñistu eidan, arren! Iñok eztau amak baiño obeto ikusi nai... Olan berba egin ba yonat, ire onean egin yonat.

Gra.— Biaña, zuk eztakizu oraingo modu barrien zerik.

Ixt.— Leen eta orain, gauza oneik beti bardin ditun, gazteak ez uste izanik be. Jesarri adi eta entzuidan: ni be, ezkondu nai izan nintzonan mutil eder ezer bako bategaz. Amak esaten yeustanan edertasuna ez zala janari ez edari, eta oba naionala Petrikundeiko Manech ire aita. Amari siñistu naieutsonan eta etxatana bein be damutu.

Gra.— Ezta bardin. Ezta egia, nire au ezereza dana.

Ixt.— Ez dakin; bear bada...

Gra.— Utzi egidazu nai dodana egiten!

Ixt.— Ez, ez, orixe ez. Ez deunat utziko. Ik ez aldon uste, alde guztiak onak ba litu, bere inguruan topauko yonala emaztea, paperetan jarten ibilli barik? Eztona izango nire bairik.

Gra.— (NEGARREZ) Eta nik, eztot Xalbat artuko! Ez naiz beste eztegu orretara be joango.

Ixt.— (GOZARO) Ikusiko dona! Une batean izten aut. Egizana eure buruketak, pentsau egiña ondo, nik elizara ostera bat egin bitartean. (GARTSUKI) A! Jainko maitea, emoiozu, arren, zentzun pixkat ene ume oneri!

Gra.— (NEGARREZ) Orra ama zelakoa dan!... Seguru nengoan onartuko ez eustana ene senargei ori; baiña, arek nai ala ez, artuko dot, bai, artuko dot...

GRAXI eta MAIA

Maia.— (AGER BEDI) Emen dakatzut, Graxi, eztegurako jantzia. Oso polita da; hau soiñean dozula, izango dozu nok begiratu.

Gra.— Eztot bape orren bearrik. Enaiz eztegura joango.

Maia.— Zer dozu ba? Marixan-egaz asarretu al zara?

GRACHIANA bera, nigarrez

Horra ama nolakoa den... Segur nintzan ez ziela onhartuko enegizon gea; baiñan, harek nahi ala ez, hartuko dut.

GRACHIANA eta MAIA

MAIA.— Elkhartzn dauzut Grachiana ezteietako zaia. Biziki polita da; hau soinean, izanen duzu arrakasta.

GRACHIANA.— Ez dut batere horren beharrik. Ez niz ezteietarat joanen.

MAIA.— Zer duzu? Marichanekin samurtu zirea?

GRACHIANA.— Ez, amarekin; ez du onhartu nahi ene gizon gea.

MAIA.— Ah! baduzu gizon gea? Nor duzu?

GRACHIANA (*berriketari kanteil bat sakeletik jaliz*).— Ori irakur azu.

MAIA (*Irakurtuaz ichilik*).— Iduritzen zaut ez dela nor-nahi... Eman duzua segida?

GRACHIANA.— Ba; eta haren beha nago undar chehetasunen ahoz egiteko; bainan amak ez du fritsik aditu nahi.

MAIA.— Zer nahuzu chahar guziena da: deuserik ez jakin, deneri lotsa eta bethi mintzo.

GRACHIANA.— Ni aldiz ez niz lotsakorra; eta, ikhusi duzu, halakoa galdatzen du.

MAIA.— Zertako othe?

GRACHIANA.— Nik uste erabiltzeko airez aire, edo untzi haundietan, itsasoan barna, mundu zabaleko bazterren ikhusten.

MAIA.— Baditake aise; jende haundi horiek ardura pirayan dabiltza.

GRACHIANA.— Eta eni hori gustatzen... Ez duzua bada uste bizi molde hori alegerago izanen dutala, ezin zokho huntan bethi tokiaren gainean.

MAIA.— Denetan badira on-gaitzak; bainan ene kontseiluarekin ez utz parada hori. Ni bethi lotsakor izan niz, hau pisa, hura pisa eta hola denbora juan zaut. Orain baditut berrogoi-ta-bortz urthe eta bakarrik niz. Ez zen bardin izanen, ukhan banitu zonbait haur ene ingurian; bizia alegerago izanen nuen.

Berak eta YAKOBE

YAKOBE.— Barkamenduarekin hau dea Grachiana Petrikudeikoaren etchea?

Gra.— Ez, amagaz. Eztau onartu nai nire senargeia.
Maia.— A! ba dozu senargeia, e? Eta, nor dozu, ba?
Gra.— (EGUNKARI ZATI BAT SAKELETIK ATARAUAZ) Irakurri egizu ori.
Maia.— (ISILIK IRAKURRIAZ) Edonor eztala deritxat. Emon deutsazu erantzuna?
Gra.— Bai; eta aren begira nago zerzelada ondarrak aoz egiteko. Baiña amak eztau nai berbarik entzun be.
Maia.— Zaarren kontua da ori: ezer jakin ez, danari lotsa eta beti berba egin bear.
Gra.— Ni barriz, enaiz lotsorra; eta ikusi dozu, olakoa eskatzen dau.
Maia.— Zertarako ete da?
Gra.— Nik uste... airez-aire erabilteko, edo ontzi aundietan itsasoan zear, mundu zabaleko bazterrak ikusten.
Maia.— Ba leiteke errez. Jenete aundiok sarri bai sarri ibiltaldietan joaten dira.
Gra.— Eta niri, orixe gustaten... Ez al dozu ba, uste, bizimodu ori pozgarriago izango yatala, eta ez beti txoko onetan sartuta.
Maia.— Danetan ba dira alde onak eta txarrak. Baiña nire esanaz, ez utzi aukera ori. Ni beti lotsakor izan naiz, eta olan joan yataz urteak. Orain ba ditut berrogetabost, eta bakarrik nago. Ez zan bardin izango, ume batzuek izan ba nitu ene inguruan; bizia pozgarriago izango neban.

(AGER BEDI)

LENGOAK ETA YAKOB

Yakob.— Parkamenaz, eta... au al da Graxi Petrikundeikoaren etxea?
Gra.— Ba, eta neu naiz Graxi.
Yakob.— Aaa! Zu zara, orduan, egunkariaren bitartez ezkontzeko gertua?
Gra.— Berbera. Ene senargeiak bialtzen al zaitu? Ezagutzen dozu, ezta?
Yakob.— Ezagutzen dot bai, ondo ganera.
Gra.— Olan ba, emon zineidaz zerzeladak.
Yakob.— Nai dituzun guztiak.
Gra.— Oba; naiago ditut lenengotatik jakin. Zelako gizona da?
Yakob.— Gizon ona; aren asmo guztia zeu zoriontsu egitea.

GRACHIANA.— Bas, eta ni niz Grachiana.

YAKOBE.— Aah! Zu zira beraz berriketariaren medioz enkontzerat abiatua.

GRACHIANA.— Hura bera. Zer zaitu ene gizon geak igortzen? Ezagutzen duzu beraz?

YAKOBE.— Ezagutzen dut ba, untsa ezagutzen.

GRACHIANA.— Gisa hortan emanen daitatzu chehetasunak?

YAKOBE.— Nahi dituzun guztiak.

GRACHIANA.— Hobe, naiago ditut aitzinetik jakin. Zer gizon da?

YAKOBE.— Gizon ona, haren chede guzia da zure urus ezartzea.

GRACHIANA.— Ez nien bertzetik pentsatzen; nik ere ene phartetik eginen ditut egin ahal guziak.

YAKOBE.— Beraz denak untsa joanen dira.

GRACHIANA.— Errazu eta... Elizako urhatseri jarraikia da dudarik gabe?

YAKOBE.— Ah! hori ba! fede gaitza.

GRACHIANA.— Osagarriz nola da?

YAKOBE.— Untsa arras untsa, goizetik bethi kanpoan, ofizioak hala nahi duelakotz. Sartzean idarazi guziak alzorat emanen daizkitzu.

GRACHIANA.— Eta familia?

YAKOBE.— Haundia, jadanik aiphatu bezala.

GRACHIANA.— Zure erranen arabera, iduritzen zaut hartzen ahal dutala.

YAKOBE.— Bi begiak hetsirik; ez duzu senhar hoberik kausituko.

GRACHIANA.— Zoin ikusi nahia dutan!... Noiz jinen da ene ezagutzaren egiterat?

YAKOBE.— Hemen da zure aitzinean... Ni naiz.

GRACHIANA.— Zu?

YAKOBE.— Ba; eta ikusten dut zer neskato plantakoa izanen dutan emaztetzat! Gaztechoa, bainan gaitz hortarik egun guziez sendatzen ariko da.

GRACHIANA.— Ni zure emazte?

YAKOBE.— Ez girea hala hitz hartuak?

GRACHIANA.—...

YAKOBE.— Orai artino loriatua zinen. Zer duzu betbetan lotsa hori?

GRACHIANA.—...

YAKOBE.— Alo. Grachiana, errazu zerbait... Ikusiko duzu zer bizi gochoa eginen dautzudan.

GRACHIANA.—...

Gra.— Eneban besterik pentsatzen. Nik be, neure aldetik, egingo ditut alegin guztiak.
Yakob.— Olan ba, ondo ibilliko dira zerak.
Gra.— Entzuizu: eta, elizarakoa izango da duda barik, ezta?
Yakob.— A! Ori bai! Fede sondokoa.
Gra.— Eta, osasunez, zelan?
Yakob.— Ederto. Goizean goizetik beti kanpoan, lanbideak alan eskatuta. Irabazi guztiak altzora emongo deutsuz.
Gra.— Eta, familia?
Yakob.— Aundia, aurretiaz esana dagoan lez.
Gra.— Zure esanen zerean, uste dot artu al izango dodala.
Yakob.— Begi biak itxita; eztozu senar oberik topauko.
Gra.— Bera ikusteko dodan gogoa!... Noiz elduko da ezauerea egiten?
Yakob.— Ementxe dago zeure aurrean... Neu naiz.
Gra.— Zu?
Yakob.— Bai; eta ikusten dot zelako neskatilla jasekoa izango dodan emaztetzat! Gaztetxua, baiñan gatx orretarik egunero ekingo deutsa sendatuten.
Gra.— Ni zure emazte?
Yakob.— Ez al gara orrelan berba egiñak?
Gra.—...
Yakob.— Orain arte pozez egon zara. Zer dozu orain lotsa bildur ori?
Gra.—...
Yakob.— Tira ba. Graxi, esaizu zeozer... Ikusiko dozu egingo deutsudan bizimodu gozoa.
Gra.—...
Yakob.— Eztozu ezer esaten? Muttu egin al zara?
Gra.— Eneban uste olakoa ziñanik.
Yakob.— Zelako ba?
Gra.— Zera... familia aundia aitatuten zenduan-eta...
Yakob.— A, bai!... Alarguna naiz; eta or daukat ene familia, zuri erakusteko ekarria. Pozik nago agertzeko. (KANPORANTZ BEGIRA) Zatozte, zatozte! Orra Margari, Luixa, Gillen, Tote, Beñat eta Katalin. Ez al dot familia polita?
Gra.— Ori zan, bada, aitatuten zenduan familia aundia?
Yakob.— Bai ba; ez al da olantxe? Eta naiko aundia ezpa deritxazu, gero elduko diranak aundiagotuko dabe oraindiño. Tira, umeak! Egin mosu zuen amatxu barriari!

YAKOBE.— Ez duzua deuserik erraiten? Zer zira mututu?

GRACHIANA.— Ez nien uste holakoa zinela.

YAKOBE.— Nolakoa bada?

GRACHIANA.— Aiphatzen zinien familia haundia eta.

YAKOBE.— Ah ba! Alharguna niz; eta hemen dut ene familia, zuri erakusterat ekarria; on dut segurki agertzeko (*kanpoari buruz*). Zatozte, zatozte, horra Margaita, Luicha, Gilen, Ttotte, Benat eta Kattina. Ez duta familia pollita?

GRACHIANA.— Hori zen beraz aiphatzen zinuen familia haundia?

YAKOBE.— Segurki, ez dea hala? eta ez bazaut zu aski handia, gero jinen direnek haundituko dute oraino. Alo! Emazue potta zien ttantta berriari!

GRACHIANA.— Ez, ez, ez niz horien ttantta; ez izanen ere.

YAKOBE.— Zer duzu? gibelerat egiten? Ez zinela lotsakorra, eta jadanik lotsatua... Nun duzu bihotz haundi zabal-zabala idekizten zinautana? Uste nuen han, gu denen tokia izanen zela...

GRACHIANA.—...

YAKOBE.— Alo! Grachiana, behar nuzu lagundu haurño hauekin alchatzen. Nola nahuzu gizon choil batek egin ditzan?

GRACHIANA.— Zuharrek erraiten zinien oichtian, gaztechkoa nintzala. Hala niz hoinbertze haurren amagizun jartzeko.

YAKOBE.— Ez dut beraz menturarik?

GRACHIANA.— Kausituko duzu bertze norbait ni baino gisago.

YAKOBE.— Giza gaiso Yakobe Chorrochtailea! Norat behar hiz berriz apailatu?

MAIA.— Zer zira, Yakobe Chirrich-Chorrotcha, Margaita Buztin zenaren alharguna?

YAKOBE.— Hura bera! Ezagutzen ziniena ene Margaita gaichoa.

MAIA.— Aise! Ene koinataren anearen emaztearen illoba zen.

YAKOBE.— Beraz jenderen jende zinezten.

MAIA.— Ba; eta elgar ikusten ginien artetan ene koinataren anearen etchean. Zer emazte alegera! Ez zien bi sosetan saltzekoa bere Yakobe.

YAKOBE.— Zu, nor zira bada?

MAIA.— Maia dendaria.

YAKOBE.— Badut aditzea. Nor da zure senharra?

MAIA.— Ez niz behinere ezkondu; gazte ez deliberatu, eta denbora juan.

Gra.— Ez, ez; ez naiz ni orrein amatxu: ezta izango be.

Yakob.— Zer dozu? Atzera egiten al dozu? Ez ziñala lotsakorra eta dagoaneko lotsatua... Nun dozu biotz aundia, zabal-zabal edegiten zeustana? Nik uste neban han, gu guztion tokia izango zala...

Gra.—...

Yakob.— Tira, Graxi! Lagundu bear deustazu umetxuok azten. Zelan nai dozu gizon bakar batek egin daian?

Gra.— Zeuk esan dozu lentxuago, gaztetxua nintzala. Olantxe naiz, hainbeste umen amaorde jarteko.

Yakob.— Eztot, orduan, zorionik?

Gra.—Aurkituko dozu beste nonor ni baiño zerago.

Yakob.— Ai, gizarajo Yakob Xorroztailea! Nora jo bear ete dozu, nora?

Maia.— Zer diñozu? Yakob Xirri-Xorrotza, Margari Buztin zanaren alarguna zu?

Yakob.— Berbera. Ezagutzen al zenduan ene Margari gaixoa?

Maia.— Ene ba! Nire koiñataren nebaren emaztearen illoba zan.

Yakob.— Orduan, senitarteko ziñien.

Maia.— Bai; eta alkar ikusten genduan nire koñataren nebaren etxean. Bai emazte pozkarria! Ez eukan txakur bitan saltzeko bere Yakob.

Yakob.— Zu, nor zara ba?

Maia.— Maia dendaria.

Yakob.— Ba dot entzutea. Nor da zure senarra?

Maia.— Enaiz bein be ezkondu. Gaztetan ez erabagi eta denporea joan.

Yakob.— Ori esan. Iñoz ezta, ostera beranduegi on egiteko, eta, nai al dozu alkarregaz egin gaitezan?

Maia.— Bardin; olan alkar konponduko dogu. Lagunduko deutsut umetalde ori azten, eta nik izango dot familia iya azita.

Yakob.— Danok alkarregaz gustora biziko gara. Onein errentea eta nire lanbideagaz eztogu ezeren eskasiarik izango.

Maia.— Ni dendaria naiz-ta, jarriko ditut umetxok dotore baiño dotoreago.

Yakob.—(UMEERI BEGIRA KANPORANTZ) Orain barriz, au izango da zuen ama.

Maia.— Ume gaixoak, zatozte, onezkero goserik egongo zarie. Emongo deutsuet ogi zati bana, eztiz beterik.

YAKOBE.— Ori, ez baita behinere berantegi untsa egiteko, nahi duzua elgarrekin egin gaiten?

MAIA.— Bardin; hola elgar akomatuko dugu; lagunduko zaitut haur multcho hunen alchatzen, eta nik izanen dut familia ina prest.

YAKOBE.— Oro elgarrekin gostutan biziko gira; hauen arranda eta ene ofizioarekin ez dugu deuseren eskasiarik izanen.

MAIA.— Ni dendaria bainiz ezarriko dituut haurño hauk panpinak iduri.

YAKOBE (*haurreri buruz*).— Beraz, orai hori izanen da zien ttantta.

MAIA.— Gaicho haurrak, zatozte, egun goitirik gosetuak zirezte; emanen dauzute moleta handi bat, zafla eder banarekin.

YAKOBE.— Ez dut ene piraya galdu.

MAIA.— Goazen beraz. Ez adiorik, Grachiana! Ez nien pentsatzen sartzean zure gizon-gea enea izanen zela atheratzean!

GRACHIANA.— Ez nik ere bainan denak untsa akabatu dira.

YAKOBE.— Zein hobeki.

GRACHIANA bakarrik

Hauche da gertakaria! Hori behar zen bururatu! Delako familia haundia zer zen? Haur multcho bat; eta arranda azkarra? Haurren arranda... Hortarik nik abanteil guti; berek aise klikatuko dute... Halere ama ez zen hemen! lore izanen zien! Chaharrek ere badute ba, ikhusiaren borchtan zerbait ikasirik... badut beldurra gutiz gehienetan, gazten espantuari nagusi dela den heien zentzua... Hea! Eman dezagun orai behako bat delako zaia pullitari!

GARCHIANA eta ICHTEFANA

ICHTEFANA.— Nun hiz, Grachiana? Haugi hunat! behar dinat erran oarino zonbait gogoeta sarkor.

GRACHIANA.— Ez du balio, ama. Egin ditut pensaketak, eta iduritzen zaut hobe dutala Chabalten hartzea.

ICHTEFANA.— Dudarik batere gabe! Egiten ninan ba, eroriko nintzala amaren erranerat; eta ez zaun dolutuko!

Mayi ELISSAGARAY

Yakob.— Eztot nire osterea alperrik egin.

Maia.— Goazen ba. Eta agur, Graxi! Eneban asko uste sartzean zure senargeia zana, kanporakoan neurea izango zanik!!

Gra.— Ezta nik be. Baiña dana ondo amaitu da

Yakob.— Ezin hobeto (BEIOAZ MAIA ETA YAKOB.)

Gra.— (BAKARRIK) Auxe da auxe! Orixe gertatu bear zan! Arako familia aundia, zer zan? Umetalde bat. Eta errenta azkarra? Umien errentea... Ortatik nik, alde on eskas. Alan be, ama gurea ez zan emen! Egon ba litz egon! Zarrak ba dabe, bai ikusiaren ikusiz, zerbait ikasirik! Bildur naiz geien geienetan, gazteen gorakadak baiño obea dala nagusien zentzuna...! Tira, tira! Ikusi daidan ikusi, neure soiñeko politau...!!!

GRAXI eta IXTEFANA

Ixt.— Nun aiz, Graxi? Ator ona! Bear deunat esan oindiño pentsamentu sarkor batzuk.

Gra.— Eztago bear-izanik, ama. Egin ditut gogoetak, eta Xalbat obe dodala uste dot.

Ixt.— Zer esan bakoa! Egiten neban ba, amaren esanera amoremongo eunala. Eta ez yan damutuko!

AMAIA

Mayi Elissagaray
("Gure Herria", 1957ko urria)

ALPERRONTZI*

Teatru-lan arin laburra
(entremés)
Barragarria

Antzerki laburra (entremés)

LAGUNAK: Anton
Marta
Bartolo

I

MARTA-k eskuetan senarraren prakak daukazala, gelatik urten begi, isilik, oin puntetan. Antzokian eztago beste inor, Marta baiño. Praka-sakelean eskua sartuko dau, dirurik dagoanentz).

Marta.— Nire senar alperraren praka-sakeletan dirurik aurkitu...? Baita zera be!... Ba yagok obarik! Tabaku-ondar zikiñak bai, ori bai! Ia beste sakel onetan ete daukan ezer... (BESTE AZTERTUZ)

Ene!... Dirurik ez, baiña paperen bat ba dago emen. (PAPER ZIKIN BAT ATARAU BEGI, ETA IKUSI TA IKUSI JARDUNGO DAU)

Tira! Zeozer ba dauka euki. (IRRIZ) Dirua ezpa da be, diruaren itxaropena. Loteriako zera da. Alperraren itxaropena: lanik egin barik, ondasunak, zera...arnasa artzeko aizea lez, zerutik duban etortekotan beti! Ara! Eta gaurko da, ganera, gaurko!! Ain zuzen be, ikutu egingo ete deusku ba zorionak? Tokau egingo ete yaku oraingoan?

Gorde dagidan behintzat, bada ezpadan, bai? Eta urteten badau urten, neuk zertuko dot eta neuk gordeko dot, alper galbai orren eskuetan baiño obeto egongo da-ta.

Anton.— (BARRUTIK DEI EGIÑAZ) Andra Martaaaa! Aaaandra Marta! Nire prakak nun dagoz? Nire prakak...!

Marta.— Sasoi oneko kontuak. Emen daukadaz, barrenak konpontzeko. Bizarrez beterik daukazuz barrenak. Ointxe!

---

* *Argitaratubakoa*, 1959.

Anton.— Bardin deust. Ementxe egongo naiz.

Marta.— Bardin dala? Bai zutzat bardin da, alper zar ori. Nagiak ez dozuz zuk beingoan atarauko. Auzokoak aspaldi da laneratu zireana. Eutsi prakok eta listau bizkor. Zugaitik, erloiu guztiak sobre dagoz. Ori da gizonaren ganorea!... Hamaika gose pasau bearko dabe gure umeak, iñoiz umerik izaten baldin ba dogu...

Anton.— (ORTOZIK, PRAKAK SOIÑEAN, ETA ALKANDORA-BOTOIAK LOTUAZ LOTUAZ NASAI AGERTU BEDI).

Ara zera...! Larregi estututen dana, gazterik ilten eta tamala izango litzake baiña, zuri be orixe berori jazoko yatzu, andratxua.

Marta.— Orixe nai zenduke zuk, orixe. Neu gazterik iltea. Adi, gizajo arlote ori! Nok jantziko ete zindukez zu orduan? Nok atondu? Nok jaten emon?...

Anton.— Dirua euki ezkero, jaten emoten dabe.

Marta.— Nun, gero?

Anton.— Osterakoa! Zerean...ostatuan.

Marta.— Bai, pagau ezkero.

Anton.— Baita pagau barik be. Zorrean be bai. Nik neuk e... ez dot zorrik ez izateko bildurrik.

Marta.— Ba... pobreak eztabe zorrik bear.

Anton.— Eta, zeiñek ba? Aberatsak, ala?... Ba, jakin egizu gure ugazabak zor galantak dituala.

Marta.— Zorrak?... Eta nori deutsaz ba zorrak, zuen ugazabak?

Anton.— (SORBALDAK JASOAZ) Askori...!

Marta.— Zuk zer dakizu, ba?

Anton.— Jakin neuk. Bai, zorrak askori. Baiña kontu luzeak dira oneek, goizean goizetik bapatean esateko, eta baraurik esatea ez da erreza. Ez al daukazu ezer, andratxua, baru-austeko? Barko afari ondakiñak nun ete dagoz onezkero? Ainbeste orduan ezer be artu barik...

Marta.— Ogi koskor bat, ba dago emen. Eta esne apurra be bai.

Anton.— Eta, noizkoa ete da ogi ori? Egunekoa, ala atzokoa?

Marta.— Noizkoa? Esatea be...! Zera, neuk jan dodana lakoa. Atzokoa!!

Anton.— Eztot gura.

Marta.— Eguno olakorik! Ene senar onek, bularreko umeak baiño ao samurragoa dauka. (ASARREZ) Ez daukagu txakur txikirik be, gaurko ogia erosteko, eta beste jateko zerentzat, ainbat gitxiago.

Anton.— Esan deutsut zorrean ekarteko, bear dozuna. Gure ugazabak orixe egiten dau. Zer uste dozu ba? Ara: pron-pron-pron--pron-pron, kamiokada burdiñea ekarten dauan bakoitzean, zerari, txoperrari, diru-mordoa eskutik eskura emoten deutsala? Pentsau bez olakorik! Zorrean...!

Marta.— Bai, baiña gero joango yakoz Bankuetxeko zerak, eta letrea zertu bearko dau.

(MARTAK PLATER BATZUK GARBITUKO DITU)

Anton.— Aek bere, dirurik barik joaten dira atzera. Gure ugazabak —zenbat bidar neuk ikusia!— lumea artzen dau eskuan; eta letrearen egal batean zirriborro batzuk egiten ditu, eta, or konpon! Barriro emoten deutso kobradoreari. Baiña, dirurik emon?... Arean bere ez!

Marta.— Ezin dot ulertu. Baiña letrea...

Anton.— Letrea...letrea... neuk bere, ederra daukat euki. (ESKUAZ ZIÑU DOTORE ANTZEKOAK EGIÑAZ) Dirurik, ostera, emoteko ez. Gure ugazabaren antzera.

Marta.— Zu zara izatekoa! Alperra, eta ganera gezurtia.

Anton.— Ta zuk guzurrak siñistu.

Marta.— Nik zure guzurrak siñistu? Ez orixe!

Anton.— Orduan, a... zera, ezkontza-goizean nik esaniko berbak zuk siñistu ezpa zenduz, gu gaur ez giñala emen alkarregaz egongo. Esan bear. Ezta olan?

Marta.— Eztaukagu auturako astirik orain. Tira, tira!! Oiñetakoak jantzi eta zoaz lanera.

Anton.— Orreek dira errazoiak, andratxua! Zoaz, zoaz lanera. Eta beti olantxe, errotako soiñua lez, beti klan-klon, klan-klon. Eta ba diñot nik orain: eta zer dala-ta ezta etorten lana neugana? Bide bardiña egonik! Ori ba!... Lana, lana! Jopuen, morroien eta otseiñen zeregiña da ori. Baiña ni andratxua, ez naiz lanpean bizitzeko jaioa.

Marta.— Ez zera! Zuk lanik eginbarik jango dozu.

Anton.— Sarritan, bai.

Marta.— Egia, izan be. Zuk lako alper batek esateko, ez da larregi be.

Anton.— Eta gaur izango da, bear bada, nik lan egingo dodan azkenengo eguna. Alakoxe satisfaziñoia euki neuk barruan!...

Marta.— Oraiñarte geiegi nekatu zarealako ezta izango, nunbait be.

Anton.— Ez! Lan asko egin dot, baiña neurrian, ganez egin barik. Ez dot gura izan iñoz bere, lanean etenda gelditzerik. Ara: abadeak be, osasuna, zaindu egin bear dogula esaten deuskue. Eta nik, —orixe bai!— esan onak, aintzat artzen ditut beti.

Marta.— Eta zeure zeregiñak ondo beteko, ez al deutsu iñoiz iñok esan?

Anton.— Esan bai, esan deuste. Baiña edonoren esanari jaramon egitea, ez da komeni. Geldi or!!

Marta.— Jakitunari bai, ostera, eginbear yako kasu.

Anton.— Oreen artean bere, ba dira era askotako arraiñak. Or daukazu zera, Don Hipolitto, mediku ona bera. Zer daki orrek edonori esaten? (AOTS LODIAZ) Ez erreteko! Tabakurik urrean bere, ez ikusteko. Eta berak? Ai, arek berak...! Altos Hornos-eko tximini luzeak baiño be ke moltso galantagoak atarauten ditu, bere ao aundia, zabal-zabal jarririk. Ba yagok obarik!...

Marta.— Zure etorriaren ekiña!

Anton.— Ai, andratxua; agindua bat, eta emona bi... aginduaz, kontentu izan adi. (MARTA, PATATAK ZURITUTEN ASI BEDI)

II
LEENGOAK ETA GEROAGO, BARTOLO

Marta.— Tira, tira! Gauko alogerak be urrituko yatzuz, orduak aurrera doaz-ta.

(ZARAMA-BURDIKOEN TURUTA ENTZUN BEDI)

Or dabiltz gizonak, zu baiño goizago jagita, euren arloan, nagi kaltegarriak astindurik.

Anton.— Orrek ez dakie oiak goizean daukan onurarik. Adiskide, ez aztu: "goizago jagi arren, ezta eguna lehenago zabaltzen". Orra or esakera zaarra, eta egi biribilla. Negua izan arren be, luzea da eguna, luzea, lar luzea... bearrean jarduteko. Nire esku ba lego, nire esku, kalendario barria egingo neuke; barri-barria. Eta laster egin be, gero!

Marta.— Zelangoa egingo zenduke, ba?

Anton.— Zelangoa? Ba dakit neuk, ondotxu jakin bere. Esan: jai-egunak sei jarriko neukez astean, sei; eta astegunik bat.

Marta.— Eta zetarako bat bakarrik, astegunik?

Anton.— Gorputza apurtxu bat nekatuteko, eta orrelan, beste egunetan atsedena ta deskantsua gogozago zertzeko. Aundikiak deporteean eta kiroletan, zetarako ibilten direala uste dozu ba?

Marta.— Aundikiak buruauste gogorrak emoten deutsuez zuri behintzat.

Anton.— Ezta gezurra berba ori. Aek emoten deustez bai, burukomiñik latzenak, nekerik aundienak. Eta badakizu zergaitik?

Marta.— Ez dakit nik ba.

Anton.— Ez jakin zuk. Aztu egin yatzu-ta... Nik lan egin bearra, zegaitik dala-ta zagoz ba? Aberatsak egiten ez daben ezkero... ba... ba... neuk egin bear dodalako. Ni ugazaba ba nintz, morroiak eta langilleak egin bearko leukie, bai arranotan! Baiña... nik, aitaren seme onek, ez!...

BARTOLO.— (TURUTA JOAZ, AGER BEDI ATEAN) Tuuuuut!... Tuuuuuut!... Egunon, etxekoak! Emen datoz goizekoak!...

Marta.— Egunon, Bartolo. Zuek gure gizona baiño fiñago zarie.

Barto.— Bearko!!!

Anton.— (NASAIKIRO) Asko balio deutsa fiña izateak, beti zikiñez eta zaramaz beterik, zimaurtzan eta sats artean ibilteko.

Barto.— Orreek onurak dituk, Anton, onurak... landarentzako-ta; solorako-ta...

Anton.— Solorako gauzak jaten gogaituta gagoz ba! Beti patatak eta, indabak eta, azak eta... Ganaduen janariak!!

Marta.— Zu zara zu ganadu ederra.

Anton.— Zera... Bartolo (APARTE XAMAR) Lengo baten ikusi neban nik, ganadu modu barri bat; itxurako bera.

Barto.— Nun? Nun?

Anton.— An, zerean, errotatxikiko etxe koskorrean bizi dira ba senar--emazte batzuk, seme-alabarik bakoak eurak? Ba, angoxe andrearen lobea zala-ta, neskatilla bat ikusi neban ba nik, neskatilla bat...baiña, zelako bera? Itzala, gizona, itzala! Eta nik orduan, zer egin yakin ez-ta, txapela sudurretaraiñño sartu-sartu egin, eta beingoan aldegin neban andik, burura ezer txarrik etorri baiño leen.

(MARTA-K ERRATZA AR BEGI ESKUETAN)

Barto.— (BARREKA) Kontxo! Oindiño be, emakumeak gustauten yatzuz, e?

Marta.— (ADI ADI) Zertzuk diñoez gizon kankailluok? Emakume kontuetan ez ete yataz asi eguzkia agertu baiño leen?

Anton.— Gustau bai, baiña ez edozein.

Marta.— (BESOAK GERRIAN EZARRITA) Zorakerietarako gogoa al daukazue dagoeneko?...

Barto.— Eeeee?... Emakumea, zorakeria al da? Noiztik ona, ostera?

Marta.— Zuek ezkonduta zagoze, eta kittu!

Barto.— Kittu, kittu... ez ainbestean kittu. Ezkondurik egon arren, eztaukagu zetan gure gustoa galdu, batez be gusto ona, andra Marta, eztozu esango, orraitio Mikolasa Zimel eta Mariliñ Morroie bardiñak direanik. Eta ezta Giña Lolo eta Filomena Potolo be!

Anton.— Ori ba, Ja, ja, ja!...

Barto ta Anton.— Ja, ja, ja, ja, ja...! Ja, ja, ja, ja, ja!

(AZKENERAKO BARTOLO EZTULKA ASIKO DA, ETA BEIOA KALERANTZ)

Marta.— (ERRE ERRE) Olako komediarik! Barreka asi eta eztulka amaitu. Jaungoikoaren zigorra, zantarreriak esaten asi dalako! Eta onek dauko, barriz, erru osoa, onetxek. Anton: eutsi otzarea, ta jakea ta zoaz begien bistatik.

Anton.— Sosiuz, andratxua, sosiuz.

Marta.— Sosiuz, oindiñokarren be! Alperrontzi aundi ori. Ointxe emongo deutsut nik zuri, otza kentzeko soiñu polita. Eskoba-kirtenaren soiñu bizkorra

(ANTON-ek jakea ta otzarea artu eta igesiari ekingo deutsa, MARTA-k eskeiñiriko makillakadak artu gura ez-ta).

(ESTALKIA AZKAR BEERA)

AMAIA

Eusebio Erkiaga Bilbao, 1959-II-28

ATE-OSTEKO IRUDIAK*

Antzirudi labur irrizkoa.

NOTIÑAK

ANDRE LUPE	Etxekandrea.
MARIBEL	Alaba
ASUN	Neskamea
IRUSTA JAUNA	Etxeko jauna
GARTZA JAUNA	Goikoaren adiskidea
TIBURTZI	Kristal-garbitzaillea
IMANOL	Zaldun gaztea, ikaslea.
SIMEON	Pitxi-saltzaillea.

TOKIA: Etxeko sarrera-tokia, "hall" dalakoa. Zolan, ate nagusia, kalerakoa. Eskui-aldean, atea. Ezkerraldean, beste ate bat, despatxukoa. Maitxoak; eserlekuak, eta abar.
ALDIA: Oraingoa, 1960 ingurukoa.

I

ASUN.— (ESKUMALDETIK AGER BEDI, ARIÑEKETAN ETA ZOLAKO ATEA EDEGI BEZA) Oraintxe oraintxe dugu aukera alkarrekin egoteko Urtzi-k eta nik. Urtzik, ez ordea, zerukoa; zera... joan dan astean ezagutu nuan Tiburtzio baizik. Ura da mutilla, ura! Donostia osoan, agian, berdiñik ez duana. Dirurik ez du, noski, baiña... ez da dirua guztia.

(ZOLAKO ATETIK BEATU ETA BERRIRO ANTZEZTOKI ERDIRA BETOR)

Gure señorita ere, or dabil beti estu eta larri. Arek berak ba du dirua galanki; tira... berak ez ain zuzen aren aitak baizik.

Alare, Imanol-ek ez omen du. Eta aita eta ama ez omen datoz bat ortan, Maribel-ekin. Ez daude konforme.

---

* *Argitaratubakoa*, 1959.

Imanol bera...ez da txarra. Maribel-i igarri diot nik argi asko mutilla maite duala. (BERRIRO ATE NAGUSITIK BEGIRAKA)

Noiz igongo ote da ene Urtzi? Leiotik seiñaka ari izan naiz eta alako batean ikusi nau, eta antzemen dio zer adierazi nai izan diodan.

II

ASUN.— (ATEAN; TIBURTZI-RI DIOTSA)

Aurrera, gazte. Bakar bakarrik nago etxean. Kanpoan dabil etxekandre ziriña; andereñoa ere kalean da, ta...

TIBUR.— (KANKARRUA ESKUAN) Ez al dira bereala agertuko?

ASUN.— Ez dut uste. Gaiñera... itz-aspertu bat egiteko aiña betik ez al dugu izango?

TIB.— Pena izango litzake zu ikusi eta apurtxo batean bedere, zurekin egon eziña.

ASUN.— (LOTSA KUTSUA) Ba... emen gaude ba.

TIB.— Ba dakit, Asun. Zera... igandean ere, sasoi berdiñean alkar ikusiko ote dugu?

ASUN.— Ala uste dut.

TIB.— Aste osoan egon naiz ni zurekin pentsatzen.

ASUN.— Egitan?

TIB.— Zure belarriak jaso duten bezala. Ez al didazu siñisten?

ASUN.— Bai, bearko siñistu. Baiñan, aristian ezagutu nuan Seledon-ek ere... berdin samar esaten zidan-eta...

TIB.— Zer Seledon ta Seledon-ondo! Ventana ni balcón...!

ASUN.— Eta Markos-ek ere...

TIB.— Markoa? Marko ona baiño, irudi jatorre obe da. Ni ez al naiz ba, Marko aura bezin galanta?

ASUN.— Ez dizut nik olakorik aipatu.

TIB.— Tira, tira! Gauzak pake santura itzuli ditezen, obe egingo zenduke edari apur bat eskeñiko ba zenidake.

ASUN.— Bai, mutil. Zorionez, ba dezaket orain.

TIB.— Nola zorionez?

ASUN.— Bonbilla au, asita dagoelako. Edari gozoa da. Gustatzen al zaizu?

(KOPA BETEKO DIO ETA ESKURA EMAN)

TIB.— Zu aiña ez, baiñan... (EDAN BEZA)

ASUN.— Losintxari!!...

TIB.— Zurrukutun! Birritan zerala goxo esango nizuke.
ASUN.— Zergatik?
TIB.— Lendabizikoz, izan zeralako. Eta bestetik (KOPAKOA ZIÑUZ IZENDATUAZ)
ASUN.— Beste txolkadatxo bat ere nai ba zendu...
TIB.— Nai ez? Obe da orrelakoa beti ere, belarrondokoa baiño.
ASUN.— Emango dizut, ba.
TIB.— Etxekandre -kume tankera ba duzula ikusten dut. Nire agindupean pozik egongo al ziñake?
ASUN.— Ugazaba maitekorra izango ba ziña...
TIB.— Gaiztoaren itxura al dut ba, nik?
ASUN.— Orain ez. Tori beste edari apur bat. (EMAN BEZAIO)
TIBUR.— Zure ta bion osasun zorionetara. (EDAN BITARTEAN, INGURUETARA BEGIRA) Etxea, dotorea da. Jendakiak, ordea, nolakoak dituzu?
ASUN.— Jendakiak, beti bezela, beuren erakoak. Beurak nai dutena egin ezkero, ez dira txarrak.
TIB.— Eta pagatu kontua, nola?
ASUN.— Bai!... ugazabandrea kalendarioaz aztutzen ez danean.
TIB.— Eta urri, ala ugari?
ASUN.— Oraindiño ez da ordua, zuk nire irabazien berri jakin dezazun.
TIB.— Ez, ez. Jakin ezazu ni ez nabillela zurekin interesagatik.
ASUN.— Ez noski. Agian... gure señorita gaztearen senargeia bezela... aren aitaren kapitalagatik!!
TIB.— Ez ordea, orregatik, ezpaiñak zimurtu eta kopeta goibeldu. Laztantxo! Zuk eta nik izango dugun kabitxoa, ez da aundia izango baiñan polita... zeu bezelakoxea!
ASUN.— Biurri!!
TIB.— Gure etxeko txori kantari, zu izango xera.
ASUN.— Ta zu?
TIB.— Ni... txori-jabea. Egunero emango dizun janari, egun sentian.
ASUN.— Goizean lo egitea gustatzen zait, ordea.
TIB.— Oetik jeikitzerakoan esan nai nuan. Ulertzen da, neska.
ASUN.— Ori, besterik da.
TIB.— Jakiña ba! (BEREKIKO) Batek ba daki izango danaren berri! Orduan zein txorik kantatuko duan; orrek ala nik...)
ASUN.— Bada-ezpadan, joan egin bearko duzu onezkero, Tibur.

TIB.— Joan? Ain laister? Eldu bezin aguro, emakumea?

ASUN.— Iñor agertu orduko. Señorita, ala etxekandrea... (TIRRIN - OTSA)

TIB.— Nor ote da?

ASUN.— Ene bada ta bada! Jo duan eraz, señorita gaztea da, iñolaz ere.

TIB.— Zer egin bear dut nik?

ASUN.— (ESTU, BURUARI ELDURIK) Ba... gela ortan sartu zaite orain, eta gero, nik esango dizut noiz, joango zera kanpora.

(EZKERRALDEKO ATETIK SAR BEDI GELARA)

TIBUR.— (ATEAN) Azkar askatu nazazu, gero! (BEIOA)

ASUN.— Bai, al bezin laister. Jainko ona! Auxen da estura! Onik atera nazazu naspil ontatik!

(ETXEKO ATERA BEIOA TA IRIKI BEZA)

III

MARIBEL.— (AGERTUAZ) Oi, Asun! Ederki izan da zu etxean egotea. Giltzik ez bait-dut eraman. Zertan ari zera?

ASUN.— Zertan? Ba... (NAASMENDUAZ) A, bai, patatak txuritzen ari nintzan sukaldean.

MAR.— Ederki. Orduan, jarrai ezazu lanbide ortan. (BEREKIKO: Nik, bitartean... zera... maita-berriketa jardungo dut Imanol-ekin. Batzuek esan oi duten bezela, indi-oilloa lumatzen.)

ASUN.— Bai, anderatxo. Alegia... etxea ez dut, oraindaiño, guztiz zertu. Despatxuko autsak eta, astindugabe daude-ta...

MAR.— Utzi itzazu orain astintze oiek. (BEREKIKO: Ez zait komeni neska au emen urbil egon dadin. Belarriak ditu oso zuurrak, entzumen fiñekoak, eta mingaiña, neskame guztien tajura, askatuegia). (NESKAMEARI) Asun, egin ezazu zintzo nire esana: patatak egokiro txuritu sukaldean.

ASUN.— Bai andereño. Zera... despatxuko leioa zabalik dagoela uste dut eta, aize aundia dabillen ezkero...

MAR.— Neronek itxiko dut leio ori.

ASUN.— Iñolaz ere, señorita. Lan oiek niri dagozkit. (BEREKIKO: Auxen da istillua! Beronek izten ba du itxi, Tiburtzi enea aurkituko du gelan.)

MAR.— Eta zuri zera dagokizu, nagusiaren esana betetzea. Zoaz, ba, sukaldera, tximista bezin aguro!

ASUN.— Joan naiz ba, joango naiz. (LOSINTXAZ ETA GOZARO) Ez al du nai andoreñoak, leio ori nik ertsi dezadan?...

MAR.— Txerrenaren begi gorria! Ezetz ba! Zoaz sukaldera!!

ASUN.— Ondo da. Egingo dut agindua. Zera... berori emen egongo al da?

MAR.— Bai, ez, bai...! Nai dudan tokian egon naiz. Asun: naiko da galderarik. Kontuz ba!

(ASUN BIOA GELDIRO TA NAGI ESKUIKO ATETIK)

IV

MARI.— Olaxen! Bakarrik egongo naiz. Laister izango da Imanol eskailleretan gora, eta zai egongo naiz. Ama gurea etorri baiño leen itzegingo dugu.

TIB.— (ATEA BARATZE IRIKI, BURUA AGERTU TA BAPATEAN IZKUTATU BEDI BERRIRO GELAN)

MAR.— Ate-otsa izan dala esango nuke! Ene! Ez dezala tirriñik jo, bestela neskamea agertuko litzake-ta. Ez du zertan ezer jakin Asun-ek, orain beintzat, etxera nor sartzen danik. (ATE NAGUSIRANTZ JOAN; IRIKI TA IMANOL DATORRELA DAKUSALARIK)

Azkar, Imanol! Bakarrik gagoz. Neskamea dago soillik, or nunbait, sukaldean edo...

IMANOL.— (AGERTUAZ) Ama ez dagoela etxean diozu?

MAR.— Ez ba. Eseri zaite emen.

IMA.— Zure ondotxoan nai nuke.

MAR.— Nik ere bai.

IMA.— Maribel: zurekin egotea gustatzen zaidana ba dakizu; baiña emen, zuen etxean, eta bakarrik...

MAR.— Bakarrik ez. Imanol. Nirekin zaude.

IMA.— Bai, zurekin bakarrik. Eta etxekoen baimenik gabe.

MAR.— Imanol: ez nago pozik egun auetan. Leen esaten ari natzaizu...

IMA.— (NESKARI ESKUTIK ELDUAZ) Aaztu itzazu kontu oiek, Mari. Ikusieziñak sortu ditu olako esanak. Bekaitza, belar ugari ta indartsua da gizonen artean. Eta emakumeen artean, zer esanik ez.

MAR.— Bai, Imanol. Iru egunotan ez dut lorik egin.

IMA.— Nik ere ez.
MAR.— Egitan? (POZTUAZ)
IMA.— Noski ba. Nik, gauez bakarrik egiten dut lo.
MAR.- Gaiztoa! Zu txantxetan ari zara; baiña ni ez. Barriro ez duzula orrelakorik egingo, ementxe zin egidazu.
IMA.— Baiña, neska, zin egitea...
MAR.— Bai, Imanol. Egin bearko didazu, osterantzean zuregazkoa amaitu egingo dut betiko.
IMA.— Tira ba! Egingo dizut juramentua. Nai baldin ba duzu, "Bilintxen"-en letra ta guzti!
MAR.— Okerra zara, gero!
IMA.— Belauniko jarriko naiz zure oiñetan eta...
MAR.— Esango dizkidazu aitorkuntza oiek.
IMA.— Zuk nai dituzun guztiak.
MAR.— Lendabizi, ez duzula gaurgeroz beiñere nire adiskide Loretirekin izketaldi luzerik egingo.
IMA.— Lendabizitik, ez dudala noski, iñoiz ez iñun izketaldi la-bu--rrik egingo zure etsai maitagarri Loreti-rekin.
MAR.— (OARKABEAN) Ederki! Bigarren arau: ez zerala Loreti bizi dan kalean zear igaroko ain sarri.
IMA.— Bigarren oiñarria: ez naizela pasatuko Lorati bizi ez dan kaletik beiñere.
MAR.— Urrena: Ez Loreti-ren eta ez Kontxesi-ren fotorik ez duzula erabilliko patrikeran.
IMA.— Ez Loreti-ren ta ez Kontxesi-ren fotorik ez dudala galduko.
MAR.— Nola? Nola esan duzu?
IMA.— Zuk esan duzun era berean nai nuan berresan. Oker errepetitu baldin ba dut... barkatu.
MAR.— Ori besterik da.
IMA.— Eta laugarrena...
MAR.— Laugarren... laugarren...
IMA.— Laugarren agindua falta da.
MAR.— Ori, zedorrek agertu bear zenduke.
IMA.— Nik? Agertuko dut ba: Laugarrena, gurasoei lotsa ta begiramena izatea.
MAR.— Kirtena ez bestena!
IMA.— Orixe ez al da laugarren agindua?
MAR.— Ai, ai, ai! Ainbeste liburu besapean eta buruan orren jakituria eskasa izatea ere, ba da be, jaunak!

IMA.— Liburu guztiak baiño geiago dakizu zuk, Maribel. Zu bezelako libururik ez dago niretzat.

MAR.— Gezurti garbia! Ba dakit zintzo ikasten duzuna, baiña niretzako itzak, beti dituzu ganoragabeak.

(TIBUR-EK ATEA ERTZIRIKI, BURUA ATERA TA PUTZ EGIN ESTURAZ ETA BESOA LUZATUZ ESKUA KITARRA JOTZEN BEZELA JARDUNGO DU LABURKIRO. GEROAGO BERRIRO IZKUTATU.)

IMA.— (BEREKIKO: Neska onek uste da ni nabillela bere atzean, eta ez da ola). Aizu, Maribel, maite nauzula noiz esan bear didazu?

MAR.— Ene! Ori, gizonezkoak agertu bear du.

IMA.— Leen bai, ala zan. Baiña oraingo aldian, neskatxak, beste "zer" batzuek dakizkite.

MAR.— Orduan...

IMA.— Bai, Maribel. Gustatuko litzakit niri...

MAR.— Zer? Kopatxo bat edatea?

IMA.— Ori ere bai. Ematen dutena, artu egin bear omen da, baldin kaltegarria izan ezik.

MAR.— Zozokume ori!

IMA.— Umea bai, baiñan ez zozoa, gero!

(TIRRIN-OTSA BERRIRO ERE)

MAR.— Jainko maitea! Gure ama al da!

IMA.— Eta ala ba litz, zer ba? Niri zer egitea dagokit orain? Ni ikustea baiño inpernuko barrabasa ikustea naiago du-ta!

MAR.— Zer egin? Sartu zaite... ezkerraldeko gela ortan.

TIBUR.— (ATEA IRIKI ETA BEREKIKO:) Ederki gaude! Ni bakarra geiegi izan, eta orain... sozio berria dugu!

IMA.— Eta zer egingo dut nik barne ortan?

MAR.— Egon, nik agindu arte.

IMA.— (GURUTZEAREN ZIÑUA EGIÑAZ) Ala biz. (BEIOA TIBUR DAGOEN GELARA BERTARA)

MAR.— (ASARREZ; ERDI OIUKA) Gure ama, zazpirak arte ez zala etorriko, eta orra, dagoeneko nun asi dan tinbre-joka!! Neronek irikiko diot atea. Beste ate orren ostean nor dagoen ba leki jakin!...

TIBUR.— (ATEAN KURIKA) Ori esan ba!

V

ASUN.— (AGERTUAZ) Tirriñotsik entzun al du, andereño?

MAR.— Bai, entzun dut zorigaitzez.

ASUN.— Beraz... beioa berori emendik, eta nik egingo dut dagokidan lana.

MAR.— Ez, ez, ez. Ama dala uste dut, eta pozgarri izango zaio noski, atea nik iriki dezaiodan.

ASUN.— Jeeessus! (BEREKIKO: Beste ate orren ostean nor dagoen ba leki!...)

MAR.— Zoaz bada, zure lanetara.

ASUN.— Auxen da egonarria. Bai, señorita. (BEIOA ASUN)

MAR.— Ama baldin ba da, eta ala deritzait, bialiko dut egon-txakira ta ni lotuko naiz emen, Imanol berealakoak kalera bialtzeko.

(ATE NAGUSIA IRIKI MARIBEL-EK, ETA AMA AGERTUKO DA, ARRO ETA ANDIPUTZ)

VI

AMA.— Ene, ene, alaba! Nekatuta nator, nekatuta. Ezin liteke kalean ibilli. Ainbeste lagun zirtzil, ainbeste eskale...! Baiñan, nola zaude onen goiz etxean, Maribel? Ez al zera Institutu frantsesera joan, alaba? Zure eguneroko klasera?

MAR.— Ez, ama; gaur ez naiz joan. Ez uste orraitio, kale-egin dudanik. Irakaslea ez zegoan artarako nunbait, eta ez da etorri izan.

AMA.— Eta... ez al zegoan inguru artan ikasle jator gazterik? Ez al duzu ikusi Errezolatarrik iñor?

MAR.— Zein? Anton esan nai al duzu? Anton-ek ba ditu ni baiño barrenago irudiak.

AMA.— Zeintzuk, ordea? Mukitzuneko Adele? Arruztaiñeko Gergori? Ipurdi gizeneneko Dioni? Oien ondoan, zu beste zerbait zerala pentsatu bear luke Errezolaneko zaldun panparroi orrek!

MAR.— Ala izan bear luke, zure iritzian; baiña, ni, agian, ain polita ez izan eta...

AMA.— Alegiñik ere ez dugu egiten zuk Errezolakeko orren atzetik, zereko... Ima edo Kima biurri ori ezagatu zenduanetik.

MAR.— Imanol, ama, Imanol du izena. Ondo mutil zintzoa ta etxe onekoa.

AMA.— Baiñan ez diruduna. Ta ez abizen distiratsukoa.

MAR.— Alegi... sidolaz garbitu bear al dira abizenak?

AMA.— Lotsagabea izatea ez dagokio ba, aziera oneko neskatxari!

MAR.— Ai, ama! Nekaturik zaudelako nirekin asarreka jardun bear al duzu? Lagunduko dizut nai duzuna egiten, zure gelan, ala egon--txakian ala...

AMA.— Ez, utzi nazazu emen bakarrik egoten. Zoaz zure egikizunetara.

MAR.— Joan? Ementxe egotea otu zait, ordea eta...

AMA.— Emen? Eta zertan?

(AMA-K GAIÑEKO SOIÑEKOA KENTZEN DU, TA ALABARI EMATEN)

Eraman ezazu ene armariora.

MAR.— Berealaxe, amatxo. Ta gero itzuliko naiz onera.

AMA.— Ez, neska. Utzi nazazu bakarrik eta pakean. (ESKUTURREKO ERLOJUARI BEGIRA) Zera... ordua da, ta nire otoitzak egin bear ditut bakarrean.

MAR.— Gure amari eldu dio apostolu-garrak! Nolako otoiak, egin bear ote ditu. Ez jakin ba! (BEIOA MARIBEL)

AMA.— Sasoia da, ta beingoan elduko da ene gizon ori. Zintzoa da, ta... Zer ekarriko ote dit? Senarra kanpoan dudan bitartean alkarrekin ondo konponduko gera. Arek eskatu, nik ukatu; arek eskatu nik eskeiñi... eta olaxe.

(TIRRIN-OTSA BERRIRO)

Or dago gure gizontxoa! Zer ekarriko ote dit berririk, atsegingarririk, gustagarririk? Beti bezela, nik uste. Beti da ura atsegingarri, eta aren gauzak, zer esanik ez

(MARIBEL ETA NESKAMEA AGER BITEZ)

MARI.— Amatxo! Ez al dute otsegin!

ASUN.— Oles-egin dutela-ta nago, andere.

AMA.— Bai, ots-egin dute, eta zer?

ASUN.— Irikiko al dut?

AMA.— Ez, neska. Nik... iriki dut, ata eskale bat izan da, eskale zikin bat, eta besterik ez. Zoazte, ba, bakoitzaten ardurara!

MAR.— Amatxo!

ASU.— Bai, andere, nai duzun bezela.

AMA.— Zer amatxo ta zer andere! Tira aguro, alde emendik biok!!

ASU.— (BEREKIKO: Noiz izango dut nik eretia, nire Tibur gela ortatik ateratzeko, Lezo-ko Kristo jauna!)

MAR.— (BEREKIKO) Gure amaren seta okerra! Nola biali-eraziko dut Imanol libre kalera?

(BEIOAZ MARIBEL ETA ASUN ESKUIALDEKO ATETIK)

AMA.— Neska auen jakin-bearra ta ikusgura itzela. Utikan!!...
(ATE NAGUSIA IRIKIKO DU, TA SIMEON AGER BEDI, MALETA ESKUAN)

VII

AMA.— Ondo etorria, Simeon! Aurrera, aurrera. Isilik!

SIMEON.— Ondo aurkitua, Andre Lupe!

AMA.— Gauza politak izango dituzu noski niretzat, ezta? Zurekin bakarrik egotea, beti da niretzat zoragarri. Etorrera maitatia zurea. Nire barrena betetzen du zure irudiak. Auxen da poza!

SIMEON.— Berdin mintzatzea dagokit zuri buruz, Andre Lupe. Ain zera atsegingarria!

AMA.— Eseri zaite emen, nire aldamenean.

SIM.— Eskerrik asko, andere.

AMA.— Ta? Zer diozu?

SIM.— Azken-uneko zerak biltzen alegindu izan naiz.

AMA.— Ta garesti-merkean, nolako neurriak dituzu? Aspaldi ontan, ba dakizu ba, ezunean gabiltz eta... nire senar jaunaren ziskua ezagunean zimurtu da, kixkortu egin zaio kartera leen biguiña. Eta orain ez du jakin nai ezertxo ero, pitxi-kontu oietaz.

TIB.— (ATETIK BURUA ATEREAZ: Or dago beste bat ere! Leen ba gera sozio, ta onako au, ez al da izango irugarren sozioa, alegia!)

AMA.— Ezer esan al duzu, Simeon?

SIM.— Ez nik, Andre Lupe.

AMA.— Nire belarrion susmo ustela izango zan, beraz.

SIM.— (MALETA IRIKIAZ) Emen ditut eraztunak. Belarritakoak ere bai.

AMA.— Papar-gaiñean jarteko zerik ez al duzu ekarri?

SIM.— Paparreko edergarririk? Berez alaxe duanak, ez du beste edergarririk bear, alajaiña!

AMA.— (IRRIPARRA EGIÑAZ) Je, eskerrik asko. (BAPATEAN BENATSU) Nola, nola esan duzu?

SIM.— Ezer ez. Zera... Eskumutur erako katetxoak ere ba ditut.

AMA.— Ez dut orrelakorik nai.

SIM.— Alabarentzat edo.

AMA.— Alabak orrelakorik ugari dauka.

SIM.— Ama ere, ez da gabe izango.

AMA.— Nik orretarikoak erraz izatea, gauza berezkoa litzake, senarra zikoitza ez-pa litz.

(BIZKITARTEAN, MALETA IRIKIAREN INGURU; ETA AREN BARRUAN PITXIAK IKUSI-ALEAN BEZELA JARDUN BEZATE BIOK)

SIM.— Auxen duzu eraztun polita.

AMA.— Urrezkoa al da?

SIM.— Platinozkoa ere ba da alde ontan.

AMA.— Zafiruak al dira oiek?

SIM.— Batzuek bai. Baiñan emen dituzu bi, bata baiño bestea egokiagoak. Arribeltz dirdaia dute lau ertzetan. Beste onek, diamante txiki bat du oboaren aldertxioan, zil-zillean alegia ata azalka, zafirotxoak.

AMA.— Eta beste... koloretako oiek?

SIM.— Oiek gazteentzako edo, dituzu zerago. Alaere, ikus ezazu auxe: turki gardona da. Edota beste berde auxe, esmeralda xautua, zillarrezko zubian josia.

AMA.— Eta, erloiu fiñik ez al duzu?

SIM.— Piñak ez, andrea? Oiek dituzu ba, nire arlorik garaienak. Piñak, ni aiñakoak.

AMA.— Umore ona ere ba duzu, Simeon jauna.

SIM.— Nolatan bestela saltzaille ona izan, eraman aundia ata umorearen jabe izan ezik? Erosi nai duanak, oietxek eskatzen bait ditu: gauz jatorrak, bikaiñak, eta saltzaille berriketariak eta alaiak.

AMA.— Egitan barriketariak. Onezkero ao bizarra legorturik izango duzu, eta kopakotxo bat eakeintzen dizut.

SIM.— Ez da gaizki esana. Eskerrik asko, etxekandre maratz orri.

(ANDRE LUPE-K KOPA BAT BETETZEN DU, TA ARRITURIK DIO:)

AMA.— Nola? Kopa bi emen zikinik, garbitu gabe? Zertan ote diardu gure neskameak, ainbeste kopa loituta egoteko?

SIM.— (EDATEN ARIAZ) Atsegingarri da onelako bezeruak izatea. Onela, bizimodua aukeran ta patxaraz eraman litekes.

AMA.— Nolatan ba?

SIM.— Drungadaka; txurrutean.

AMA.— Ba dakizu esaera zaarraren itza: al danean al da; ezin daneean, ez da.

SIM.— Noski, noski. (EDAN BITZA ONDARRAK)

AMA.— Ene! Atean norbait ari dala esango nuke, giltza bere zuloan sartzen. Jaun zerukoa!! Nire senarra al da, ene etxeko jauna! Zoaz, Simeon zoaz!...

SIM.— Joan? Nora, baiña, nora? Nora joan bear dut? Esan ezazu!

AMA.— Edonora! Maleta ta guzti, gaiñera. Aguro baiño aguroago. Gela ortara. Buruz aurrera. Azkar, tximista bezela!...

(ANDRE LUPE-K BULTZATURIK, EZKERRALDEKO GELARA BEIOA SIMEON, AIN ZUZEN BESTE GIZONEZKO BIAK GORDETA DAUDEN TOKIRA BERTARA)

AMA.— Ai, auek istilluak! Aipatu duan baiño lehenago ez datorkit ba, senara etxera? Orraitio...!

(ANDRE LUPE-k EZ DAKI ZER EGIN; BATERA TA BESTERA ARI DA, KOPAK ARTU, KOPAK UTZI.)

VIII
(ATE NAGUSIAN AGER BITEZ IRUSTA JAUNA —etxeko jauna— ETA GARTZA JAUNA)

IRUSTA JAUNA.— Zure etxean zagoz. Aurrera, Gartza adiskidea.

GARTZA.— Eskerrik asko, eskerrik asko.

AMA.— Joxe! Biar etortzeko ez ziñan, ba?

IRU.— Emen duzu ene emaztea. Gartza jauna, adiskide zintzo bat.

AMA.— Zera... a, bai, bai! Ondo etorria etxe ontara. Zer moduz zabiltz?

GART.— Ba dakizu, etxekandre. Moduak onak, eta maiñak, leenak.

AMA.— Pozgarri da beti ere, adiskideen agerraldia. (BEREKIKO: Gaurkoa ez ainbestean, ordea; ez da batere goxoa etorrera au).

IRU.— Aspaldi neukan adierazia eta orain eldu da unea ene adiskide Gartza jaunrari, nik dudan zer eder bat erakusteko.

AMA.— Bai, bai noski.

GART.— Geltokian alkar topatu dugu, eta ezin ba, beti ezetzik esan.

AMA.— A, bai, bai; ulertzen dut. (BEREKIKO: Tutik ere, ez dut ulertzen; baiñan berdin da... gela ortan sartzerik ez baldin ba dute. Orrek ematen dit izuikara).

IRU.— Kuadru bat ba dut nik, onek ikusi ez duana ordndiño.

AMA.— A, bai, jantokikoa, ezta?

IRU.— Ene! Ez, jantokikoa ez, alajaiña. Ez ori emaztetxo. Ori ikusia du.

AMA.— Zein, ba?

IRU.— Alegia, itxasoko agerkizuna diot, or despatxuan isekirik dudan "marine" berri ori.

AMA.— (LARRI ANTZEAN) Despatxukoa..? (BEREKIKO: Aingeru zaindaria, Atera nazazu galpide ontatik!)

GAR.— Pinturari orren zenbait kuadru, bikaiñak dira, noski.

IRU.— Au ere bai, alegia. Aguro ibili ezpa nintz, kendu izango zidaten.

AMA.—(GOXO GOXO) Nai al duzu onera ekartzea, Joxe? Neronek ekarriko dut, neronek, eta.. pozik!

IRU.— Onera ekarri? Eginda zaude zu! Orlako buragabekeririk! Arek duan pisua, izerditzeko aiña izango zenduke, emaztexo!

AMA.— Ori bai, baiña...

IRU.— Ez, Lupe, ez. Gu joango gara lasai asko, ezta Gartza jauna?

GAR.— Nai duzuten bezela. Zuen esanetara naukazute.

AMA.— (ERAGOTZI NAIRIK) Zera... ni ere ba nabil ba! Ta Gartza jaunari ez diot kopatxo bat ere eskeiñi-ta...

GART.— Ederki, ederki.

AMA.— Bai, ziur asko, bideko nekeak arintzeko.

IRU.— Utzi ezadazu neri gaurkoz, adiguri izaten, Lupe.

(IRUSTA-K BONBILLA ESKUETAN ARTU ETA KOPA ZIKIÑAK IKUSIAZ)

E! Zer dau au! Nolatan daude txol zikin auek? Gure neskamea ez al da pasatu gaur emen zear? Zer dala-ta kopa auek garbitu gabe?

AMA.— Nik ere orixe esan dut ba.

IRU.— Zer? Zuk ere berdin esan duzula?

AMA.— Alegia... esan nai nukeala

(NESKAMEA AGER BEDI ESKUI ALDEKO ATEAN. JARRAIAN, MARIBEL ERE. GARTZA JAUNAK KOPAKOA EDAN BEZA)

IRU.— Bai gizona! Pintura laurka ori erosi nuanean, gaur baiño azalago genbiltzan, ibili, eskuarte itsaso naastuan. Bai, arraiotan!

GAR.— Bai. Orain, ordea, tratu kontuak zimur samar daudela esan bear. Gure beien errapeak ezagunean urriturik dutela aitortasun naroa.

IX

IRU.— Goazon ba, Gartza jauna, nira despatxu ortara.

(ASI BITEZ EZKERREKO ALDERANTZ IBILTEN GIZON BIAK. ONTAN NESKAMEAK OIU LARRIA EGIN BEZA)

ASUN.— Ai, ai, etxekandre, aiii! Erori egin naiz. Gaizki nago.

AMA.— Eseri zaite or, ba. (ASTUN ESERI BEDI ASUN)

IRU.— Ez da ezer izango. Gu goazen gure zerera.

MARI.— Ai, ai eta ai, amatxo! Ez nago ondo. Kordea galdu urren dut. Lagundu niri ere!

AMA.— Maribeltxo! Zer duzu, laztana? (MARIBEL ERE ESERI BEDI LARRITASUNEZ, NESKAMEA BEZELA)

IRU.— Tira, tira, gazte oiek ez dira ezertarako. Ikusten al duzu, Gartza jauna berealakoan larritzen eta txorabiatzen dira!

AMA.— Oiek zerbait kaltegarri jan ala edan dute. Edena duen zerbait ziur asko. Zer egin bear ote dugu, senarra?

IRU.— Zure kontura geldi bitez.

AMA.— Ezin baiñan nik lagun biri jaramon egin batera. Lagun zakizkit.

IRU.— Goazen itxasoko ugiñak ikustera, beintzat; ea gu ere etxe barruan mareatzen geran...!

GAR.— Ori esan ba!

AMA.— Ai, ai, ai, auxen da larria. Nire burua bira biraka asia dut. Jaunak, zer da au. Larriaren gorria! Erortzeko zorian, arrisku baltzean nago. Zer ote da? Sukaldeko gasa ote da?

(ESERI BEDI ASTUN ASTUN AULKIRIK ZABALENEAN)

IRU.— Zer da au, Jainko maitea!

GAR.— Zerbait txarra dana, barrura izan dute auek. Iru emakume bat-batean larrituta jarri. Auxen da komeria!

TIBUR.— (EZKERREKO ATEAN, BURUA AGERTUAZ.) Benetan komeria, eta ez nolanaikoa!

IRU.— (GARTZA-RI) Ezer esan al duzu?

GAR.— Ez nik ezer esan. Bildurrak joa nago-ta.

(IRUSTA TA GARTZA ANDREAK URGAZI NAIRIK ASI BITEZ)

IMANOL.—(EZKERRALDEKO ATEAN) Bildurrak joa, ni bai, arranotan!

SIMEON.— (AURRENA BEZELA) Eta nik zer esango dut ba! Ez da atarramendua makala!

IRU.— Telefonuz itzegingo diot ene arrebari, or, urbillean bizi bait-da. Zagoz ementxe mesedez, Gartza jauna. Eta barkatu, ez usteko gertaera mingarri au dala-ta.

(ESKUIKO ATEA ZEAR BEIOA IRUSTA GARTZA EMAKUME GEISOAI BEGIRA ARI BEDI ARAKO IRU GIZONEN BIZKAR)

TIB.— Egitan izan ere. Zer esango du gure ugazabak. Zer lan egin dut nik emen ainbeste denporan gatibu? Emendik anka egin bear dut.

IMA.— Eta nik.
SIM.— Eta nik, alajaiña.
TIBUR.— Aurrera ba irurok. Aguro! Ospa...!!!

(BATA BESTEAREN URRENA AGER BITEZ ETA BEIOAZ ATE NAGUSIAN ZEAR: TIBUR, IMANOL ETA SIMEON. ASUN-EK, MARIBEL-EK ETA ANDRE LUPE-K OIU TA INTZIRI BERRIAK EGINGO DITUZTE AIEK IKUSIRIK. GARTZA JAUNA ARRITURIK DAGO AIEI BEGIRA, BAIÑA IRU GIZONOK, ATZAPARRA EZPAIN AURREAN JARRIAZ, BEIOAZ. IRURAK OSTENDU ONDOREN, AGER BEDI IRUSTA JAUNA)

IRU.— Laister datozke ene arreba ta neskamea. Berdin al daude, ala arindu ote zaie gaitza?
GART.— Nik uste dut, laister pasatuko zaiela.
IRU.— Eta irurai uste al duzu!
GAR.— (ASTIROTSU) Bai, bai; irurai; irurai.
IRU.— Onetsia izan bedi gure Jaungoikoa!
GAR.— Alaxen bedi, mendeen mendetan.

(IRU EMAKUMEAK, BATERATSU BAIÑAN BAKOITZAREN GISA, ARNAS AUNDI EGIÑAZ, ANPATU BITZATE BULARRAK)

ASUN.— Ai! Au arintasuna! Niri pasatu zait larria. Izerdi otsa besterik ez dut orain.
MARI.— Niri ere bai ibitu zait astuna! Auxen da lasaitasuna!!
AMA.— Ene! Buru eta biotza, biok izan ditut naastuak! Ikuskizun bakana izan dute nire begiak. Lendabizi, irudi bat. Gero, beste bat. Eta azkenez... irugarrena ta... pakea! Orlako agerkizunik!
GAR.— Ikusgarria izango zan bai. Iru lagun, bata bestearen ondoren.
IRU.— Iru lagun urrenik urrena larritzen eta erortzen!
GAR.— Eta geroago, pixkanaka, bat, bi eta iru, nire begion aurrean pasatzen eta...
IRU.— Pasatzen eta osatzen iruren nekeak.
GAR.— (IRRIZ) Andren komeriak
bai ikusgarriak,
ta etxeko jaunak
itxita begiak.
Kalte-egin al die
Gaurko edariak?
A zer nolakoak
iru irudiak!

AMA.— Ja, ja, ja, ja, ja!
ASUN ETA MARIBEL.— Ja, ja, ja, ja, ja!
IRU.— Ja, ja, ja, ja, ja, ja!
GUZTIAK.— Ja, ja, ja, ja! Ja, ja, ja, ja, ja! Ja, ja, ja, ja, ja!

AMAIA

E. ERKIAGA.
Bilbon, 1959-XII-8

KANPAIEN ATSEKABEZ*

Teatru-lan ariña, lau unekoa
("Garagarzako Mutilla"-ren ele zaarrean errotua)

Egillea: EUSEBIO ERKIAGA

JARDULEAK:

METERI	Garagarzako mutilla
AITONA	Meteri-ren aitona
TXORGORI	Auzoko gizon bat
MORROIA	Etxeko morroia, Saluz bere izena
LAMIÑEA	Meteri-ri begizkoa egin eutsana
TOTA	Meteri-ren ama
MARI	Meteri-ren arrebea
GARAZI	Meteri-ren arrebea
KATALIN	Auzoko neskatilla bat
DOMINIKE	Auzoko neskatilla bat
MAIÑASI	Auzoko neskatilla bat

ALDIA: Ele zaarrarena, orain mende batzuk, aurki.
TOKIA: Arrasate-Mondragoiko Garagarza auzoa ta inguruak.

LENENGO UNEA

(Mendian, Leniz Ibarra gainduaz diran tontor-aldeetarik batean, Meteri-k, artzaintzan diardu. Makillea eskuan, eta abar).

I

METERI.— Eguzkia nagiro, baiña badoia bere oiaren eske. Nekeak, edonor makaldu oi dau, ta nire gerriondok be, nai leuke etzunaldi

* *Euskera*, V, 1960.

ederrik. Orra!... Ta nire txakurrak, nun ete ditu bere zentzunak? Ardiren baten usaiñean, aztarren billa ete dabil? (**Txistu-ots egiñaz**) Ardiak be, lo guraz dagoz, eta nire txakurra, baiña nora joan ete da? (**Alderdietara begira**).

KATALIN.— (**Ager bedi**). Ai, ene! Emen zagozana jakin izan ba neu jakin, kanta polita entzun-erazoko neutsun, ba Meteri. (**Iturrirantz doa, pedarra buruan**).

MET.— (**Ardura eskasez**). Iturrira joateko orduak al dira oneik? Arimen kanpaia noiz joko ez ete dago?

KAT.— Kanpaien ardurea izateko, sakristaua bere, ba al zara ba?

MET.— Ez ainbesterik. Baiña aititaren ipuiñak entzun izan ditut; sarritan ganera, eta illunabarreko urketak iñoiz oker urten dabela jakin be bai.

KAT.— (**Barreka**) Ja, ja, ja, ja!... Ja, ja, ja, ja!...

MET.— Zer, barreak al dira?

KAT.— Ikusten dozu garbi asko.

MET.— Barre zoroak. Ba!... neskatillen barreak.

KAT.— Meteri, zuk neskatillarik bako mundu pitxiren bat egingo al zenduke? Entzuizu: neuri bakarrik eta isillean ¿neskatillen bildur al zara?

MET.— (**Asarretu**). Nik ez dot neskarik bear.

KAT.— Ez dakizu zuk gauz ona zer dan. Ez-jakiña izateak izango ditu, bearbada, bere alderdi zerak. Baiña okerrak be bai, orixe bai! Ta zu, oindiño, koxkol-barruan zagoz; txita baten beste edo dakizu-ta... (**Mutillarengana urreratuaz**) Meteri: jakin bear zenduke inguruko auzoan nonor badagola aspaldi zure begira.

MET.— (**Arriturik**) Nire...?

KAT.— Bai, morrosko bai. Ain lotsorra ezpaziña, esan be esango neuskizu, zure belarriok gozatu nairik.

MET.— (**Itza aldatu itxuraz**) Ardiak batu bear dodaz... eta ez dakit nire txakur zintzoa nora aldendu jatan.

KAT.— (**Mutillarengana urreratuaz**) Tira, Meteri, entzun nai izan egizu, zuri azaldu guraz dodana. (**Eskutik eldu nai deutsa Meteri-ri. Onek, ostera, arek ikutuaz batera, apartera aldegin**). Zenbait bidar egon izan naiz ni, zuri begira ta begira, domeketan elizaratzen zareanetan, apain begi argi, mutil txairoaren antzera, eta... Esan be bai, neure buruari eta adiskidetxuak entzuteko bestean bere: "Ai, Meteri orixe!... Leniz-ko ibarretan ez da orre-

lako mutil gurbil eta apalik. Nok eskuratuko ete dau orren maitetasuna eta amodioa? ¡Ene!... Ta kolore gorriak urten deutse matralletara. Ba!...(**Arro**) Kataliñek ez daki iñoren atzean ibilten. Agur... artaburu!!! (**Beioa**).

MET.— Orra ba. Zeozer esan nai neuskio nik, asarratu ez daiten. Baiña... miiña zimurtuten jat, abarka zaarren narrua lez zertzen jat, eta totel-motel, trabauta jarri. Zegaitik ez ete naiz ni Peru langoa, Matxin-en antzekoa, Baiñat-en taiukoa?...

Orreik dira mutillak, orreik! Domekan be, an tabernan, entzun neutsen kontu zerik bai! Beti dabiltz orreik neskatillekin dantzan, neska-laguntzen, eta mosuketan eta... Ene, ene, ene!... Praille joango ete naizen itaunduten deuste edonoiz.

II

TXORGORRI.— (**Ager bedi**) Iluntzeon, Meteri. Ez al da sasoia ardiak txabolaratzeko?

MET.— Bai ba, bada izan, onezkero ardi maixkarrok ezkortara bidean jarri-erazoteko. Zelaiak idor dagoz, siku, eta illunabarreko ozkirritxua atsegin jake ardiai, barrura baiño leen.

TXOR.— Ez al dogu lortuko sikate zital onen amaitzat, zerutik euri mamintsurik?

MET.— Ulea badabe ardiok, aragirik urri ostera. Beti edo sarriegi diardue beeka, eta bildots guztiak saldu ditugu ezerezean, gosez ilda ikusi orduko.

TXORG.— Mendiok alde batera utzi, ta ibai ondoetako zelaietarantz bear zenduke joan. Dagozela larran toki gizenago areitan. Zuen aititari esango deutsat.

MET.— Bai, baiña emen oituta nago-ta...

TXORG.— (**Ebagiaz**) Ardiak eta emakumeak zainduteko bildurrik ez dau izan bear gizona dan gizonak. Ostantzean, galduak gaituk mutil!

MET.— Olan diñoe baiña...

TXORG.— Diñoe, eta da. Ardiok egin beie marraka ugari. Emakumeak itza ta barriketa. Gizonak barriz, erabagia artu, eta dzart, bete-eragin, orixe bai! Beiñola, nik neuk ikusita, zereko... u... guzurra esan bear dauana ba, olantxe egoten da-ta... Zereko ostatuko Patxi-k, bere andrea isiltzen ez, ta samea biurtutea erabagi eban.

MET.— Eta egin bere...

TXORG.— Egin bere... ai bai. Ostera, errukituta, emaztearen ordez, oillo bateri biurtu eutsan samea, ta... arin asko egin be, gero!

MET.— Kontxo!...

TXORG.— Bai, gizona. Ementxe nagoan onek ikusia. Ezta olgetan ibiltekoa, gero, ostatuko Patxi!

MET.— Zera... Patxi errementaria ez da izango, ezta?

TXORG.— Ez, ori ez. Patxi errementaria, au baiño askozaz gogorragoa zan. Arek, andrak ezezik, sorgiñak eta txerrenak eurak be, aurretik erabilten ei ebazan. Jakiñik izango dozu, bearbada aren ipuiña.

MET.— Ezta, gero, ipuiña bakarrik izango, arranotan.

TXORG.— Bai zera! Ez, mutil. Ipuiñak eztira, arraio-arraioa, asmatutako kontuak. Ipuiñak sarri askotan egiak dira. Ez al dozu iñoiz lamiñarik ikusi bazter oneitan?

MET.— Nik neuk ez.

TXORG.— Ba... nik bai, batez be gaztea nintzanean. (**Buruan atz egiñaz**) A... Urte asko da ordurik ona. Aspaldion ez dot bapere sumau.

MET.— Gizon elduengana edo zertuengana ez al dira lamiñak agertzen?

TXORG.— Zaarkinduengana? Zertarako? Ona ago i, mutil. Amaika bidar kantau izan eban kopla au, Olaiñetako Bentura zanak; arek kantau eta guk ederto dantzan egin trikitixan, artajorran, baiño obeto:

"Sasoian sasokoa,
aurten aurtengoa...
Ama, nik naiago dot
Ogei urtekoa;
Ogei urtekoa ta
Nire gustokoa..."

(**Beioa Txorgori**)

III

METERI.— ... ta nire gustokoa!... Ai, zein dan baneki! Iturrira joan dan Katalin orrek, zerbait esango leuskit, bearbada. Neskatillai, baiña, mutillen bizkar barre-egitea atsegin izaten jake.

Batu daidazan ardi argalok, bape aldendu barik. Oiñotsak barriro be?... Katalin ete da, onantz?

LAMIÑA.— (**Agertuaz**) Ondo aurkitua, mutil eder ori. Aldendu egin naiz, antza, bidetik. Emengo berri ba al dakizu?

MET.— (**Bere kontura**) Ene! Erbestekoa da, ta... polita ganera.

LAMI.— Gorra al zara, mutil? Zetan diarduzu zuk emen sasoi onetan?

MET.— Kanpaiak entzun arte nengoan, etxeratzeko.

LAMI.— Eta, zertarako bear dituzu kanpaiak, gazte? Ez al dozu igarri eguzkiaren azken-agurra, izpi makalen ostean?

MET.— Olantxe da. Baiña, ardi gosekillok asetu eziñik ditut, eta iruntzaren aro ozkirri-beraan, gustora dagozala dirudi, bedarren ezetasun apurra gozatuaz.

LAMI.— Zelan dozu izena zuk?

MET.— Izena nik? Ene ba! Zetarako nai zenduke, ba?

LAMI.— Galduta nenbillen batean, bide zuzenera nok zertu ninduan jakiteko.

MET.— Garagarza-ko bidea nai baldin badozu, ezkerreko orreri jarraitutea besterik ez dozu.

LAMI.— Zuk emen gelditu bear al dozu, oindiño bere?

MET.— (**Berekiko**) Auxe da emkumearen ekiña!... Zera... ez ba; laster joango naiz. Txakurrari dei egingo deutsat, illunpean lotu baiño len.

LAMI.— Buru onik eztozu mutil, Zeure izena nai neban.

MET.— Meteri dot izena nik. Auzokoak badakie, neskatillak be.

LAMI.— Ta asarre al zara, nik galdetu deutsudalako?

MET.— Ez, ori ez.

LAMI.— Ikusten?... Zera... Meteri: bazter oinetan beti ibilten al zara bakarti? (**Mutillarengana urreratuaz**) Eta, inguruko... gonadunetarik, zein dozu begikoen?

MET.— Eztakit ba; Katalin edo...

LAMI.— Katalin? Eta, nigaz ez al dozu nai ezertxu be?

MET.— Nor zarean be, eztakit eta...

LAMI.— Nik bere, ez nekian leentxuago. Baiña, mutil galanta, gizonezko gordiña ikusi zaitut eta, zure izenik jakin ezarren, zeugaz geratu naiz berbetan. Zera... begi politak dituzu, ain zuzen.

MET.— (**Ustegabe**) Zuk bere bai.

LAMI.— Eta matrailla samur beteak.

MET.— Baita zuk bere. (**Lamiñeak munegiten deutsa bekokian**)

LAMI.— Aotxu politaren inguru, ezpan eze ta bigunak...

MET.— Zuk... (**Lamiñeak, arrapaladan, mosu egiten deutsa aoan. Mutilla tutulutua**)... bere bai.

LAMI.— Ta bularrean, ene bularragaz alkartzeko griña-sua dozu.

(**Mutillak lamiñeari eldu nai deutsa gerri-gerritik. Neskeak, ostera, iges; eta esku utsik izten dau mutilla, maitemiñez**)

MET.— Zatoz ona, laztana!

LAMI.— Ez, gazte. (**Apartetxutik**) Zu be, errez berotzen zareana ikusi dot-eta. Nigaz olgau nai badozu, lenago nigaz ezkondu bear dozu.

MET.— (**Ao zabalik**) Ezkondu...!!!

LAMI.— Baaaai. Zelan, ba, nai zenduke nire gorputzaz baliau, aurretiaz zintzotasun-berbea emon barik?

MET.— Ez nekian zetan niarduan. Parkatu...

LAMI.— Parkaturik zagoz. Biar etorriko naiz barriro ta...

MET.— Biar? Eta noiz? Nora? Onaaa?

LAMI.— Illuntzeko azken-kanpaiak amaituta gero. Niri, isiltasuna gustaten jat, isiltasuna... zelai, baso, iturbide ta ibai ondoetan.

MET.— Eta, zeure izena zelan dozu?

LAMI.— Biar esango deutsut, zeure maite-berbea entzun ostean. Batu egizuz, batu, ardi maixkarrok.

MET.— Benetan maixkarrak!

LAMI.— Dana dala, zuk batuizuz. Gure maitetasunak sortuko dauan iruntz gozotzan gizenduko dira, gizenduko dira...

(**Ariñeketan mutillaganatu, barriro laztan egin beio eta igesi joango da lamiñea. Maitagarri-saillaren ballet ariña eratu leiteke, Meteri ta lamiñea motin nagosi izanik**) (**Oiala beera**)

Lenengo unearen amaia

BIGARREN UNEA

(**Lenengo unearen jarrai jazoten da. Tokia, Meteri-ren etxeko sutea edo. Artzaiña etxeratu da, arrituta eta maitemiñez jota**)

I

METERI.— Ama!... Niri pasau barri jatana lakorik! Neskatilla ederra bai axen! Ni, auzoko Peru-k esan eukeanaz, ez naiz iñoiz be zertu

baiña... Ta mosu bero-beroa ez deust egin ba, ezpanetan? Sutan al ditut ezpanok oindiño? (**Ezpanai eskuekin ikutuaz**) Benetan be, benetan be, gozoa da gero, neskatilla gaztearen mosua. Ta nik iñoiz... baiña, baiña... Aleginduko nintzake ni be, aurrerantzean mosu egiten. (**Norbait aurrean baileukean, aprobak egiñaz**) Alegindu, onantxe; Ma!... Maaa!...

TOTA.— (**Agertuaz**) Umeen berbetan asi al zara orain, seme, **ma ta ma** esanaz?

MET.— (**Izututa**) Ai, ama! Ez amatxu! Eniarduan umeen izketan. Maite-izketan, ala ta be.

TOT.— Zer diñozu, seme? Maite-izketan zu? Olakorik!...

MET.— Bai, ama. Zer barriak jazo jataz eta...

TOT.— Zer barriak, seme? Eta nun, edo zelan ba?

MET.— Barruan lotan nituan sentipenak itxartu jataz eta lotsorra izan arren... Berotasuna dot zanetan eta ezpanetan be bai.

TOT.— Berotasuna ezpanetan? Otzikararen bat izango al dozu? Kalenturaz al zagoz?

MET.— Ez jakin ba. Ona ba, ama. Ardiak batzeko nengoala, Katalin ikusi dot, iturrirantz joiala.

TOT.— Berandu-samar ostera.

MET.— Eta neugaz berbetan lotu da. Nire ondoan egon da.

TOT.— Kataliñ-ek zuk baiño geiago daki.

MET.— Olantxe uste dot. Geroago barriz...

TOT.— Berbak baiño geiagorik ez al dozue ezer izan?

MET.— Kataliñ-ek asarre antzean...

TOT.— (**Ebagiaz**) Katalin zure zale dala esango neuke.

MET.— Olan dirudi, beintzat. Baiña ori ez da ezer.

TOT.— Ez al da orretan amaitu guztia?

MET.— Bai zera! Ori... asiera besterik ezta izan.

TOT.— (**Arrituta**) Zelan? Bear eztan zeretan jardun izan al dozue?

MET.— Orra, ba, amatxu. Katalin, esan dodan lez, asarre antzean jarri, ta joan egin da. Gerotxuago, Txorgori be ikusi dot, andik pasaten, eta aregaz be berbetan jardun dot.

TOT.— Eta zer da ba, arritzen zaituana?

MET.— Berealaxe, beste emakume bat agertu jat, ederra bera, ori bai! Ez ezaguna, baiña polita emakumea!

TOT.— Besterik ez lakoa ez zan izango, nunbait be.

MET.— Bai, ama, bestelakoa zan, apartekoa.

TOT.— Zer eukan ba... apartekorik?

MET.— Zelan esan baneki!... Zera ba... berbetea gozoa, begi urdiñak, ule ederra ta...

TOT.— (**Geroago ta arduratsuago**) Eta, zer esan deutsu? Nora joian? Zer nai eban? Zelan jantzita egoan? Zer eukan eskuetan?

MET.— Zenbat galdera egiten deustazu, amatxu?

TOT.— Bearko egin, zuk ezer zeatzik azaltzen ez dozu-ta!

MET.— Jantzita... beste edozein lez, nik uste. Begiak zoragarriak, gero.

TOT.— Zer emon ete deutsa andrakume arek gure mutillari, ain zerbeldurik jartzeko? Entzun, Meteri: esan egizu argi ta garbi zer jazo jatzun.

MET.— (**Liluraz**) Iñoiz be eztot susmau alako gozotasunik iñungo emakumerengan. Neure izena galdetu deust.

TOT.— Izena galdetu? Kontribuziño lanetan al dabil emakume zora-erazle ori?

MET.— Zora-erazle ala ez, ori eztakit nik. Baiña, Aranazko Josepa ederraren entzutea badozu, ba? Axe baizen galanta zan, benetan be.

TOT.— Jaungoikoa-k eroana emon deidala. Zetarako nai eban zure izena?

MET.— Aldenduta ebillelako, ta salbatzaillearen izena jakin nai ebalako.

TOT.— Eta, zu al zaitu salbatzaillea? Elorrioak!... "Jesus, Maria ta Kontze! Nun dago gure auntze?".

MET.— Ardi argal eta galdu-samurrak ditudala be, adierazo deust.

TOT.— Orra osterakoa!... Arek esan orduko be, bagenkian guk ori, zoritxarrez! Arek berak gizenduko al ditu, arranotan?

MET.— Bai, amatxu. Ain zuzen be, orixe esan deust berba oneik esanaz: "Gure maitetasunak sortuko dauan iruntz gozotzan gizenduko dira".

TOT.— Oindiño olakorik! Ikusi ta beste barik, maitetasuna eskeintzen dabillen emakumea, zelako prenda ete da? Ez, ain zuzen be, gure jatorrikoa. Ez benetan be, euskaldun alaba.

MET.— Berbetan polito ekian ba.

TOT.— Ain polito, seguru be, orren errez iñuzentetu zaituan ezkero. Eztakit zer pentsau...

II

AITITA.— (**Ager bedi**) Gabon eta barri on! Ama-semeok jardun luzean ete diarduzuen esango neuke.

TOT.— Eta ezta bapere arritzeko. Esaiozu, Meteri, aititari, agertu nairik zabiltzan ori.

AIT.— Zeeer? Barri onak al ditugu mendi-aldean?

TOT.— Ardi azurtsuok gizenduteko modua aurkitu ei dau gure mutillak. Eta bedarrik barik, ganera, bedarri barik.

AIT.— Eeee? Zeeeelan?

MET.— Aitita... zera... amari esaten niarduan nik be, nai neukeala zera, emakume artu-emona edo...

AIT.— Erromeri ostean izan oi dira, geienbat, orrelako zerak, gazteen artean.

TOT.— Naikoa erromeri izan dau orrek, mendiko bazterren batean.

(**Ama alde batera joan eta bere lanean asi bedi**)

AIT.— Juuuum!... Gero... ez ditugu gauza oneik txantxetan artzeko zerak. Azaldu egidazu, burutik burura, pasau jatzuna.

MET.— Esan dodan lez, andra edo neskatilla bat agertu jat illuntzean, ederra bera!

TOT.— (**Apartetik**) Ekin beti, ederra gora ta ederra beera!

AIT.— Bakarrik al etorren bera?

MET—Bakar-bakarrik.

AIT.— Eta nora joian?

MET.— Aldendurik ebillela-ta, bidea nai eban.

AIT.— Ta zuk erakutsi, jakiña.

MET.— Alan bere, ez eukan beingoan aldegiteko zerik.

AIT.— Gaztea al zan?

MET.— Gaztea, ori bai, ta...

TOT.— (**Apartetik**) Ederra, ganera, aitita; edeeerrrra!

AIT.— Auzoan be, badituzu zuk neskatilla ederrak, orain arte tentel antzean bizi izan zarean arren.

MET.— Ni, be, galanta naizela aitortu deust.

AIT.— Errekontxo! Bai, e?

MET.— Eta begi politak ditudala.

TOT.— (**Apartetik**) Zeure ama naizen onek langoxeak, seme. Je, jakiña!...

AIT.— Eta geiagorik, ezer?
MET.— Matrailla txukunak bere bai, eta bardin aotxua be...
AIT.— Ene, ene! Nik neuk, nire denporan eztot ainbeste pitxikeririk entzun.
MET.— Eta urrena, mun-egin deust bekokian!
AIT.— Bekokian, e?
MET.— Eta gerotxuago... zerean be bai.
TOT.— (**Asaldaurik eta urreratuaz**) Nuuun?...
MET.— Ezpanetan, ao inguruan, ementxen...

(**Aitita eta Tota alkarreri begira arriturik**)

III

AITITA.— Eta gero, zer gertatu da? Adierazo egizu azkar.
MET.— Nik ez dot jakin orduan zer egin eta...
AIT.— (**Irriz**) Ez kontixu, txorimamu orrek, zuk oindiño latiñik eztozu ikasi-ta.
MET.— Neskatilleak iges egin nai izan dau.
AIT.— (**Barreka**) Ta egingo eban iges, jakiña, zu gora-beera! Ja, ja, ja!

(**Mari ta Garazi ager beitez**)

MET.— (**Benetan**) Maite nauala jakin-erazo deust, eta neugaz ezkontzeko gertu legokela.
GARAZI.— Ene ba! Gure nebari zoratu egin ete jako?
MARI.— Amesetan ez al diarduzu?
MET.— Ez da amesetako gauzea, iñundik iñora be, arek niri egin deustan mosu beroa.
GARA.— A, ja, jai!... Nor, eta Meteri gurea neskatillekin mosuka!
MARI.— Ez genkian behintzat, gure mutilla mosu-tratuan ibilten zanik.
GARA.— Ez ete zan, Araba-tik etorren... neskaren bat?
TOT.— Isilik guztiok, arren! Zer bat dot oraintxe buruan eta aititaren esanak izango dau indar berarizkoa. Ez ete da emakume eze ori, lamiñaren bat?
AIT.— Izan be! Baldin iñoiz urrengo ikusterik bazendu, alde onekoa ala parte txarrekoa dan itaundu bearko zeuskio.

TOT.— Bai, eta batez be, orretarako ezaugarri utseziña dana, gogoratuko deutsut. Ain zuzen, aren oinak zelakoak direan ikusiko dituzu. Sarri entzunik dogunez, lamiñak alako mintz bat dauke, beatz guztiak alkarrengana batzen dituana. Kontuz ba, ene seme, ta erne begiok, osoro zoratu-eragin eztaizun.

METE.— Eta oiñak orrelakoak balitu, zeeer?

TOT.— Taiu orretakoa gerta baledi, esaiozu bertatik zuk ez dozula orrelako emakumerik emaztetzat nai, danik eta ederrena izanda be.

MET.— Ta asarretu baledi?

TOT.— Asarretu dedilla. Oba dogu lenengo asarrea, betirako zoritxarra baiño.

MET.— Orduan... ezetz... esan bear deutsat?

AIT.— Berealaxe, ganera, entzun dozun lez, baldin aatearen antzeko, paiten antzeko oiñak baditu.

MET.— Bildurtu egiten naiz, bildurtu.

AIT.— Itxusiak ez dauan alde txarra ei dau andra ederrak. Zuen amama zanagaz ezkondu nintzan ni, ez ederra zalako, gero; suduррa aukeran luzetxua eukan-ta. Ederragaitik baiño ezpada, begoz lamiña guztiak gu-gandik urrun.

MET.— Bildur naiz, amatxu. Bildur, aitita.

(**Barru aldean, koru batek kontau begi doiñu illunez**)

Iñoiz izan da begizko;
alan galdu zan idixko.
Alde txarreko jende gaiztoak
ez dau gauz onik utziko.
Lengoan bazan idixko,
gaurkoan ete, mutiko?
Lamiña orrek ez ete deusku
gazte au miñez josiko?

(**Oiala beera**)

Bigarren unearen amaia

IRUGARREN UNEA

(**Lenengo uneko agertokia: mendian. Eguna amaitu urren da. Meteri eta Morroia, artzaintzan**)

I

MORROIA.— Artizarrak emon deusku bere agerraldiko agurra. Azkenengo jai-egunean badakit nik, artizar ori nundik ikusi neban. Ez nengoan bakarrik. Entzuten al deustazu, Meteri?

MET.— (**Berekiko**) Bart arratseko andra ori, nundikoa ete dot ba? Alde dongako izatezkero, naiago neuke bapere agertuko ezpalitz. Eta ala ta be...

MOR.— Gure maiorazgo au, txolindurik dago, erdi. (**Didar antzean**) Meteri! Norbaitek emoten al deutsu orrenbeste zer pentsau?

MET.— Ene!... Bai ba. Emen atzo lez, azalduko balitzakigu...

MOR.— Datorrela gura badau. Sosegauko dogu, sosegauko, emakume bakar bat baiño ezpada. Zera! Suge-jatekoa direan garau gorri batzuk batuko ditugu, eta arek uraz nastau ezkero, sekulako edari mingotsa egiten da. Berebiziko edaria pizti, sorgin, eta gainetikoak uxatzeko. Orixe emongo deutsagu edaten.

MET.— Eta... edango al dau?

MOR.— Bearko, bion artean edan eragiten baldin badeutsagu. Nik neuk naiago dot, naiago, Eskoriatza-ko Belaurraundiñeko tabernan, kuartillu bete napar edan.

MET.— (**Adierazoaz**) Inguru onetan zan. Neska zoragarri a, parte txarrekoa izatea, bada, gero zori okerra!

MOR.— Okerra edo ez okerra, datorrela nigana neskatilla ori, eta neuk zuzenduko dot. Ez da orrenbeste buruausterik bear andra bategaitik, Meteri. Ugari ditugu neskatilla panpiñak Bizkai-Gipuzkoetan, parte txarreko andra zirin bateri turrit-egin arren. Eta ganera, amaren esana, amarena da. Ezetz!

Ez dogula nai ez sorgiñik ez lamiñarik familian. Ezetz eta ezetz! Eta or konpon, Mari Anton!...

MET.— Errez da esatea.

MOR.— Sorgiña baldin bada, neuk oratuko deutsat ule moltsotik eta ikusiko dituzu Iruñeko zezenketak baiño gauza zeragoak.

MET.— Kontuz gero, mutil. Arek berak eztau sorgin itxurarik. Sorgiñak, geienbat, itxusi, motz eta zakarrak oi dira.

MOR.— Ez uste! Gure aititari agertu jakona, gabaz, etxera joiala, ez ei zan, orraitio, bertan beera uztekoa. Aren arpegian, bape tximurrik ez; zuri-zuria, begi argia, eta bularrak, barriz, zera... euren lekuan ei eukazan.

MET.— Bartkoak bere, orrelaxen zituan.
MOR.— Bai, e? Ez dozu ba ainbesterik kontau.
MET.— Orraitio... lotseak zertuten nau-ta.
MOR.— (**Arduratuaz**) Eta... esan, uleak zelakoak zituan? Laburrak ala luzeak?
MET.— Ez dakit orren barririk, illun-samar egoan-ta.
MOR—Illun-samar, e? Aurreko zerak ikusi zeuntsazan ba!
MET.— Ikusi ez, sentidu baiño.
MOR.— A, bai, bai!! Begira ba! Zu bildur zarean ezkero, eta mosua, diñozunez, gozoa baldin bada, eta gaur orretarako konforme ez baldin bazagoz, truk-egin daigun zoria. Neuk artuko ditut Mari--Zoro aren laztan guztiak, emon ala!! Gero... neuk egingo dot bear dan jorraketea. Kontauko deutsut... (**Pipan erreko dau tabako orria**) ...an, gure auzoan be, udako gau batean garitza aundian ezkutaurik ibilli nintzalako —ez ni bakarrik e?— neskatilla baten aitak sekulako zartadak emon arren, urrengo batean bardin ibilteko gogorik kendu jatanik ez uste izan. Ezta urrik emon be.
MET.— Isillik, zoro galant ori. Zerbaiten zaratea edo sentidu dot. Aztertu daiguzan inguruok.
MOR.— Emen dot nik urretx-makilla sendoa, eta euskaldun naizenez, eztot iñoren bildurrik.
MET.— Ardiai dei egiteko sasoia be, bada-ta.
MOR.— Bertora batuko ditut.
MET.— Ez. Neuk egingo dot lan ori. Toki onek izu ta larri jarten nau; bildur bildurretan. Ikusi nai neuke bera, eta ez ikusi naiago.
MOR.— Tira, ba. Ezer laguntasunik nai bazenu, txistu-egitea baiño ez dozu.

II

MORROIA.— Ori gure Meteri ori! Goizetik gabera, saietsa autsita lez, ez jaku geratu ba? Emakume kontuak! Ori oraintxen arte, zerean egon da... Belen-en. (**Begiraka**) Karatxi!!... Or bide-zidorrean beera datorrena, ezta lamiña txarra. Ori ete zan gure mutil zaldunak ikusi ebana? A, ja, ja! (**Urrengo itzok, oiuka lez esango ditu**) Gure auzoko neskak bere, baditue bai!...
DOMINIKE.— (**Agertuaz**) Zertzuk ditue ba, gure auzoko neskak?
MOR.— Zera... nik bai jakin.

DOM.— Ta niri ez esango?
MOR.— Ez, zerbaiten truke izan ezik.
DOM.— Zer aundia al da, ala txikia?
MOR.— Orretan, bakoitzak berak dau neurria.
DOM.— Tunante-zar orrek ez dakizu gitxi.
MOR.— Esan; ni ostera, ez naiz eskolan ibilli. Zuk, barriz, badakizu eleiz-liburuak irakurtzen.
DOM.— Mezea erazoten badakizu ba.
MOR.— Ba! Buruz ikasirik dot; gure aititari ikasia. Eta orretan sarri saiatu naiz. Mezea laguntzen niñoan.
DOM.— Oitura oso ona da.
MOR.— Ezin ukatu. Baiña neska-laguntzen be, bardin saiatzen naiz, batez be, ordu onetatik gora.
DOM.— Nik ostera, ez izan zuen laguntasun bearrik.
MOR.— Orixe ez dakigu, zer nai zendukean. Ba... ez dakizu ondo, zer galtzen dozun.
DOM.— Galdu, ostera? Tira, tira! Zu baiño galantagoak ibilli dira ugari nire ondoren.
MOR.— Ni neu, ez gero. Indarrez ez nabil ni iñoren atzetik, batez be, iñor ori, neskatxa itxusi samarra izan ezkero.
DOM.— Lotsagabea! Nor da ba, berau, basetxe bateko morroi bat besterik?
MOR.— Aupa, Mari-Bizar!! Neskatillak nik i (**Atzamarrak batuta erakutsiaz**) olantxerik izan oi ditut inguru, olantxerik, mordoka. Ai, ene! Arrasaten dala, Eskoriatzan dala, Aretxabaletan izan, edota Oñatin gertatu, erromeri egunetan batez be. Begien bistako gauzea da, zuk Garagarzako Salus ezagutzen eztozuna. Or jagok ba! (**Intziri antzeko zerak entzun beitez**) Zer dira intziriok? Zuk egin al dozu asperenik, Dominike?
DOM.— Ez nik asperenik. Jei! Zeugatik egingo neukezala eztozu siñistuko, arean.
MOR.— Ara. Ez naiz orain txantxetan asi.
DOM.— Zegatik ba?
MOR.— Inguru onetan bertan, batzuetan izugarrizko zerak jazoten ei dira-ta. Oraingoan be, tira... ezta edozelakoa aurrean dodan zera.
DOM.— Nogaitik diñozu?
MOR.— Jan egingo zindukedaz... jateko baziña! Aaaau!
DOM.— Alde ortik, zikintxu.

MOR.— Zikintxu bai, gure txarrikume biribilla. Baiña ni neu, garbi nago. Ostantzean, itaundu abadeari.

DOM.— Ai, koipe, koipe! Ziri ederra sartzen deutsazu zuk Don Anakleto-ri, elizan santu-usaiñak erabilliaz.

MOR.— Elizan, elizan lez; eta basoan... eta abar, eta abar eta abar.

DOM.— Banoa neure bidean.

MOR.— Bai, zoaz. Eretia ez danean emakume guztiak sobra dagoz nigaitik. Guztiak lupuak jango balitu be, bardin.

DOM.— Azeriak bai maatsari beste hainbeste. Ai, artobero! (**Beioa**)

III

MOR.— Ezta txarra arto beroa, kaiku bete esne guri izan ezkero. Neska buru ariña! Zer dakiala orrek, zer, Garagarza-ko Salus-ek dituan enkantuak...! (**Adi adi**) Barriro be, asperenak eta intziriak sumauten ditut. Meteriiii!... Meeeeteri!... Nora arraio egin ete dau orrek?

(**Unetxu oso labur batean aldegin begi. Violin baten negar--soiñua entzungarri litzake. Berealaxe agertuko da, Meteri-ri gerritik elduta, ibilten lagunduaz**)

MOR.— Larritu egin al zara, Meteri? Kolorga zagoz, zurbil. Goizeko eguzkiaren izpi beroak, kalte egin al deutsue gaberantz?

MET.— (**Motelkiro**) Aaaai!...

MOR.— Makal zagoz. Esarri zaitez lurrean. Ura ekarriko deutsut. Nai al dozu?

MET.— Larri nago.

MOR.— Bazakust. Ezer pasau al jatzu?

MET.— Emakume axe... ikusi dot.

MOR.— Ikusi bakarrik?

MET.— (**Nagiro mintza bedi**) Ikusi... eta... berbegin be nai.

MOR.— Ta, nun dago, nik arrapau daidan? Sorgin barrabana!

MET.— Ezin, ezin.

MOR.— Joan egin al da? Iges egin al deutsu?

MET.— Aari baten ganean egoan jesarrita.

MOR.— Ari baten ganean? Aria eten, jausi eta antxen lertuko da.

MET.— Entzun: aari zaarraren ganean.

MOR.— Kontxo! Gure aari zaarrak ez ditu, ba, emakumeak bere gustoko izaten.

MET.— Ama gureak esaten dauan lez, eta aititak bardin, oiñetara begiratu deutsat eta, zuzen, alakoxe oiñak zituan; aatearenak lakoxeak, ortozik egoan-ta; beatz guztiak mintz samurrez bata bestea alkarrengana zertuak.

MOR.— Madari madaria! Lamiña berbera da orduan!

MET.— Bai!

MOR.— Zenteilla arraioa! Zegaitik ez deustazu didar egin? Nire urretx-zarta onegaz emongo neutsazan ba, emotekoak!

MET.— Onetan, ikusi egin nau. Eta eskuetan eukan urrezko orrazi ederra kolkoan gorde, eta irribarreka urreratu jat, eta mun-egin deust bekokian.

MOR.— Barriro be? Beste modutako lamiñea izan dot nik emen: Pagoeta-ko Dominike. Baiña, ez itxi arek niri ikuturik egiten be!

MER.— Eta gero... berbegin deust. Zera... atzo adierazo eustanaren barri emoteko. Badakizu ba erantzuna.

MOR.— Zer gero? Ezkondu kontua? Orrelako zerak astiroago ta geldiroago bear ditugu. Ezkontzea... buztarria dok, mutil. Eta buztarriak obeak izan ganaduentzat, guretzat baiño. Ezeuntsan, ba, baiezkorik emongo.

MET.— Ezetz esan deutsat, estu ta larri esan be.

MOR.— Ederto. Dagoala neska zar ori nai badau, ta nai ezpadau; oraiñarte be, zu barik konpondu izan da-ta.

MET.— Bigarrenez ta irugarrenez be itaundu deust.

MOR.— Baiña zuk, asteme zaarraren uzkerrai aiña jaramon, ezta?

MET.— Arpegi polita jarri dau orduan!... Aren begirune zorrotza! Aren ezpanen tximur-aldiak! Aren agiñen karrazkada latzak!... Ene ba! Niri begiz-begi egon da luzaroan; sua eriola, nik uste. Orduan, zorabioak artu nau. Konorta noiz galduko. Biotzak eztanda egin bear!

MOR.— Lamiña madarikatua!!... Aurkitzen zaitudan tokian bertan, gerriko azurra ausiko deutsut. (**Meteri-ri**) Badakit zer dozun. Begizkoa egin deutsu; begizkoa nunbaite be. Zazpi ermitetako kanpaiak jo-erazoko ditut gau osoan. Zagoz emen! Basetxera bialduko dot lenengo topauten dodana, burdi-billa, zeu eroateko. Errezau egizu bitartean; errezau Andra-Maria-ri.

(Beioa) (Oiala beera).

Irugarren unearen azkena

LAUGARREN UNEA

(**Garagarza-ko elizearen alboa agiri da, ez ate nagosia. Inguru, zugatz batzuk. Urruntxuago, illerria**)

I

MAIÑASI.— Mutil gizarajoak izan dauan azkena! Oraintsuen, ortxe, Garagarza-ko arte zaar ederraren azpian ikusiko neban Meteri zana. Ezta gauza izan, ganera, oetik jagiteko be, lamiña donga arek begizkoa egin eutsanetik.

DOMINIKE.— Eta egun gitxiren buruan ganera! Ez genduan errez siñistuko gure denporan orrelako zerik! Ta... noiz jakin dozu?

MAI.— Ilbarria? Nik gaur berton. Kanpaiak entzun ostean.

DOM.— Ez aldozu negarrik egin?

MAI.— Nire begiok, iturri emonkorraren antzean jardun izan dabe, eta zapiaren tximurrak, malkoen bustitasunak bigundu ditu.

DOM.— Eta, Kataliñek aregaz zorabiatzen egoala esan bear. Izan be, maitagarria zan Meteri, gazte apal, barru garbi, lotsatia eta guztizko zera.

DOM.— Ez diñozu guzurrik. Kokil samarra zala iñoiz adierazo arren, sekulako senarra izan zeitekean Meteri.

MAI.— Bai, aen etxeko morroia baiño beste era batekoa.

DOM.— Nor, Salus? Onek be, baditu gero, bere alde onak. Au ta Meteri, eguna ta gaba.

MAI.— Ori bai. Jolaserako ezta makala.

DOM.— Olan iñoan arek berak be. Neskatillen artean pleit ikaragarria izaten dauala. Zuk be, ba al zenekian?

MAI.— Bai, bein baiño sarriago ikusi dot bazterretan... badakit nik zelan.

DOM.— Ene! Katalin berebera dator ortxe.

II

KATALIN.— (**Ager bedi. Koiñere baltza buruan, luze, bizkar ta inguru. Baltzez jantzita**) Neskak! Auxen da ezbearra!

DOM.— Zugaz be, gogoratu gara, Katalintxu! Beiñola zeozertxu jakinerazo nai izan zeuntsan Meteri gizarajoari, eta arek orduan biotza garbi izanik, ez zenkian geroago beste badaezpadako pizti orrek egingo eutsana.

KAT.— Bai. Zeozer nik aitatau orduko, lamiña baltz orrek ondatu deusku mutilla.

MAI.— Egonarria, Katalin, etorkizunaren barri eztakigu-ta.

KAT.— Bai, laztana. Goiko arek emongo al deuskuz beste artzain batzuk menditxu onein aldapetan.

MAI.— Ames txar baten itxurea izan dau jazoera onek. Oindiño badiraue gure mendietan eta ibaietan parte txarrekoak.

DOM.— Salus, aen etxeko morroia, erne ta gogotsu ibilli zan zazpi ermitetako kanpaiak jo-eragiten, baiña oraingoan behintzat, alper--alperrik izan da.

MAI.— Olantxe bearko zan-ta.

KAT.— Bai. (**Negar antsika**) Bai!... Goiazan ba, gorpulorrean lagun gakiozan.

(**Maiñasi-k eta Dominike-k be, mantilla baltzak buruan jarri, ta beioz iru nesktillak elizeak atea dauan alderantz**)

III

TXORGORI.— (**Ager bedi**) Or doiaz auzoko ernamin txanbeliñak. Nik gaur elizako zeretan jardun bearra dot. Lendabiziko kanpaiak jo ditut. Biurtzerakoak jo bear ditut orain.

Baiña mutillak egin deuskun egiteko! Il ezta egin ba, emakume lamiña orretariko batek begizkoaz zigortu dauala-ta!...

Eta gero, Don Anakleto gure abade gibel ederrak, esango deusku berriro be: "Ez daizuela, kristiñau maiteok, ez sorgiñik ez lamiñarik dagoanik siñistu. Ez dozuez ipuin orreik barrebide ta uskeri lez baiño artu bear".

Ori esaizu ba! Ikusi doguna ikusita gero! Eta eztago norarik: ezpal bateko lamiñak ez baldin badira... beste ezpalekoak jabetzen dira gugaz. Emen daukagu ejenplu bat:

Meteri gizajoak andrekin traturik bapez edo gitxi, eta orra... lamiña ule urrezkoak galdu dau.

Eta ni, lamiña orrek ez baiña... Maripa Moxubeltzek galdu ninduan... Bera daukat etxeko nagusi. Ez ain zuzen, urrezko orrazi ta guzti, aren buruko uleak, artaburu baten bizarrak aiña be eztiralako, gaur egunean.

Kanpai jotaldia egingo dot, eta gero, elizako argiak izetuten jardungo dot.

(Berealaxe, kanpaien otsa entzun-erazo begi. Barruan, koru batek kantauko dau:)

KORUA.— (**Astiro**) **Dulun, dulun, dulun, dulun!**
Ibarretan laiño ulun...
Dalan dalan, dalan dalan!
Lamiñeak gaiztoz illa.
(**Azkar**) Garagarza-ko mutilla
Negarrez mendi eta aran.
(**Astiro**) Begikoz galdu dau alan
Lamiña zuri zirtzillak?
Dulun! Dalan!
Dulun! Dalan!
Dan!

(Oiartzun luze. Isil beitez ta kanpaiak. Gorpu-lorra, baiñan ikusi bage. Eszenarioan, ertz batean, elizmutilla ta abadea ikus beitez. Bizkarrez jendea ta zerraldoa agertu bage. Isillean errezauko dau. Bereala, beioaz. Orduan ager daiteke jendea, baiñan bazterrean, igaroten edo eleizan sartzen lez. Eszenario erdian ez da iñor egongo.

Onetan, beste aldetik, gorpua azkenez ikusi nairik lez, damuz edo, ager bedi Lamiñea, geldiro, isilik, burua makur samar, baltzez jantzita, ortozik. Bapatean, kanpaiak asten dira, ta oiu egiñaz, beioa igesi. Maiñasi ta Dominike ager beitez leentxuago. Eta Lamiñaren zerak ikusirik, neskatxa biak ukabillak jasoten ditue, zemaiez lez. Barriro, musika bardiñez, isilkiro ta gozo asiaz, koruak:)

KORUA.— (**Astiro**) Dulun, dulun, dulun, dulun!
Gaizkiña bere ez zan urrun.
Dalan dala, dalan, dalan!
(**Azkar**) Garagarza-ko mutilla
parte txarrekoak illa.
Lamiñea ariñeketan
(**Astiro**) Kanpaien atsekabetan
igeska, isil isilla?

Dulun! Dalan!
Dulun! Dalan!
Dan!...

(**Oiartzun luzea, apala**)

AMAIA

OIÑAZEZ*

ANTZERKI MUSIKADUNA
IRU EKITALDITAN

JARDULEAK

Madalen
Katalin, Madalen-en alabea
Iñese,
Elisabete, Jon-en alabea
Maiñasi

Jon
Ander, Jon-en semea
Santi
Txomin
Simon
Julen
Manu
Osagillea

TOKIA: Euskalerriko baso-auzune euskalduna
ALDIA: XX-gn. gizaldi garria.

LENENGO EKITALDIA

Esker-eskumatara, euskal-basetxe bi. Zugatz batzuek.
PRELUDIO dalakoa asiko da. Eta ori amaitu ondoren,

I
ANDER ETA KATALIN. GERO, SANTI

Ander (BAKARRIK).— Eder dirudi gure lurraldeak. Eztira naikoa, ostera, ikusteko begiok. Gorputzeko begiak zoliak izan arren, ezta-

* *Argitaratubakoa*, 1960.

be zearo ikusten; eztakie sakona urratuten. (ASAGORANTZ BEGIRATUAZ) Or dator... Zer ete dauka orrek sarturik nire barruan! Bere arpegia, bere begiak, bere biotza? Eztakit. Geroago ta gitxiago dakit...

Katalin (AGERTUAZ).— (PEDARRA BURUAN, ITURRITIK DATOR-ETA) Berandu nabil eta gure amak... Arratsalde on, Ander!

And.— Olan ekarri, Katalin. Inguruko gauza guztiak atsegingarri agertu ezarren...

Kat.— Asarre al zara norbaitegaz?

And.— Asarre? Eztakit asarrea zer dan. Poza galtzea zer dan, ba dakit, orratio.

Kat.— Poza galdu? Zek galdu-erazoten deutsu, ba?

And.— Ardurea deustan zerbaitek. Zuk ondo jakin bear zenduke.

Kat.— Zeri dira berbok?

And.— Egunetik egunera ikusten dot nigandik urrunduten zabiltzana. Zer dala-ta, Katalin? (ESKUTURRETIK ORATU BEGIO NESKATILLEARI)

Kat.— Zagoz geldi, Ander. Iñok ikusteko bere!

And.— Leen etziñan zu bildur ez lotsa, biok alkarregaz egonarren. Esaidazu, nigaz betiko aztu nai al dozu?

Kat.— Ez.

And.— Ezpanetatik urteten daben berbak ez deuste ardura larregirik emoten. Biotzeko asmoen bildurrez bizi naiz. Agertuidazu bein betiko zure egia: Nor dozu maite leen ni ninduzun baiño areago? Esan, esan!

Kat.— (INDARREZ KENTZEN DEUTSA AREN ESKUA, ESKUTURRETIK) Zelango azalpenak nai ete dituzu? Zure ta nire artean eztago olakorik ezer bere. (PEDARRA JATSI BEGI LURRERA)

And.— Noiztik?

Kat.— Zeure lillurak eta burutasunak izan dira orreek, ta ez besterik ezer.

And.— Ba, zeuk argi ta garbi diñozun ezkero, bardin deust. Gauza bakar bategaitik egon naiz gertu, emen betiko gelditzeko.

Kat.— Nigaitik, ala?

And.— Bai, zeugaitik. Orain... nire arimeak eukan lokarri bakarra eten dan ezkero, nire gogoa aske ta libre joango da emendik edonora.

Kat.— Basetxetik urrun al zoaz?

And.— Bai, later noake, laster atan bere.
Kat.— Ta aita zaarra bakarrik utziko al dozu?
And.— Gure aitaren erruki al zara zu, dakizuna jakin eta gero? Or konpon: bakoitxak jakin begi zer egin. Aita gureak ez gaitu iñoiz maite izan.
Kat.— Dongea al zara? Zergaitik diñozu ori?
And.— Gure amaren gomutaz onaz aspaldi aztu zan. Aren utsunea... aundia izan da. Naikoa ta larregi esan dot. Katalin: egunen baten zure begiak negar egingo dabe, orain artu gura dozun bidetik jarraitu ba dagizu.
Kat.— Zegaitik diraustazuz berba garratzok?
And.— Eztira gauza, emakume baten adimena ta barrua, onelako gauzak ulertzeko.
Kat.— Min emon deuste zure berbok.
And.— Andiago emon deuste zureak. Nire biotz au, urraturik uzti deustazu. Arra sartu yatzu barruan, eta leengo zure biozkera on guztiak ezereztu ditu, ta neure kalterako jarri.
Kat.— Ez dozu eskubiderik orrelan itzegiteko.
And.— Andren gogoa... gaur, zeu; biar... ez zara naikoa! Joango naiz, aldegingo dot eta beste batentzat izango zara. Emakumeen kezkak, andren barruko zerak... dana guzurra!!
Kat.— Zoraturik zagoz, zoraturik!
And.— Zoroak egiak esaten baldin ba ditue... tira ba!
(ERESIA ASI BEDI. ASI TA LASTERREAN Santi AGER BEDI)
(I KANTUA)

And.— Nire txokoan, umezaroan
auzo zu ta ni, Katalin;
hamaika bidar alkarregaz guk
oi genduan jolas egin.
Alabearrez, ikusi dakust
lora barria ernemin...
Ni leengoa izan arren, zuk
ez ezer gura nirekin.

Kata.— Iturritxuak sorpurua dau,
ibaiak bere bidea,
txori batzuek goia nai dabe,
beste batzuek zelaia.

Nire zidorra zein dan ez dakit,
Medarra ala zabala;
emen jaioa naizen ezkero
egon-miñez dot egala.

Santi.— Mendiko lora apain ederra,
Euskalerriko alaba,
ene begiok pozez daukadaz,
pozago barriz, biotza.
Bidean onantz nentorrelarik
ota, sasi eta arantza;
orain ostera, begi-aurrean
atsegiñezko baratza.

Irurok.— Iturritxuak sorpurua dau,
Ibaiak bere bidea;
Txori batzuek goia nai dabe,
Beste batzuek, zelaia.
Nire zidorra zein dan ez dakit
Estua ala zabala

Kata.— Nire barruko txoritxu onek
Atsedenez dau egala...

And.— Ene amesa lorrinduteko
eldu yat alabearra...

Santi.— Mendiko lora apain ederra,
Euskalerriko alaba...

(ANDER-EK ALDEGIN BEGI)

2
KATALIN ETA SANTI

Sant.— Neuk jasoko deutsut pedarra bururaiño, Katalin.

Kat.— Eskerrik asko. Hemendik etxera, besapean eroango dot.

Sant.— Zuen etxea!... Sarri bai sarri ikusten neure burua, basetxe maitagarri onen irudia. Zein izango ete da gure abiatxua?

Kat.— Santi!... Zertzuk esaten dituzu sasoia baiño leen?

Sant.— Ez al da egia? Zertarako da ba, izan bere, gure maitetasuna, alkarrenak izan gaitezan baiño?

Kat.— Lotsatu egiten naiz olakoak entzunda.
Sant.— Bai, maite. Gure banatasun egunak laster amaituko dira, eta batzeko aldi zoragarria aguro ta bizkor elduko da.
Kat.— Ta eragozpenik ba litz?
Sant.— Zeure biotza irabaztea baiño beste eragozpiderik ez da emen egon.
Kat.— Azkenengo berbarik, orraitio, ez deutsat oraiñarte iñori eskeiñi.
Sant.— Zelan ba, gaur orrelako zalantzarik? Ezer esan al deutsu iñok? Norbait al dabil zure barruan kezka-bedar txarrak ereiten?
Kat.— Auzoan ba, ba ditut nik bat edo beste...
Sant.— Nor? Odolberodun gazte ori? Orkoa? Artolazatarra nunbait be, bere buru gogorrez. Orren alderdikoeri ba dakizu guk zer esaten deutsegun? Auxe: (BILDOTSEN ANTZERA EGIÑAZ) Beee!... Beeee! Beee!...
Kat.— Ez orrelan berbarik egin iñogaitik.
Sant.— Ez orren izenik zure aoan, ez orren berbarik zure belarrietan, ez daidazala nik susmau bere egin, gero!
Kat.— Emendik aldegin bear dauala esan deust eta...
Sant.— Ori ondo! Doala ba! Doala urrun, doala lenbailen! Ez dogu emen orren utsunarik igarriko.
Kat.— Gorroto al dozu?
Sant.— Ez dakit.
Kat.— Zegaitik, beraz, destaiñezko zerok?
Sant.— Entzun, Katalin. Ikusi-ezin andia dot nik orregaz. Eta orain, zure atzean dabillela jakiñik... atara kontua! Zu neurea zara, eta neuretzat bakarrik.
Kat.— Isildu zaitez, Santi. (SANTI-k KATALIÑ-I ESKUTIK ELTZEN DEUTSA, MOSU EGIN GURARIK. NESKATILLEAK PEDARRA JARTEN DAU ORI ERAGOZTEKO MODUAN.)
Sant.— Ez naiz isilduko.
Kat.— Zagoz geldi. Zagoz baketan.
Sant.— Eztot gura.
Kat.— Deadar egingo dot.
Sant.— Eztot uste, arean bere.
Kat.— Kendu. Zoaz.
Sant.— Ez zeuri mosu bat egin barik.

(JON-en AOTSA ENTZUTEN DA. SANTI ATZERA BEGIRA JARTEN DA. ORDUAN KATALIN-ek AGURO, IGES EGITEN DEUTSA, ETA EUREN ETXEAN SARTU ARRAPALADAN. SANTI, GOGARO TXARREZ, BEIOA ESKUMALDETIK.)

3
JON ETA ELISABETE

Eli.— (BASETXETIK URTENAZ) Ba noa eleizaldera aita, zerok eroaten.

Jon.— (ONEK BERE, BASETXETIK URTENGO DAU) Atzo baizen berandu ez zaitezala etxeratu, gero!

Eli.— Ez, aita. Ez dira bardiñak illuntze guztiak. Atzokoa... bestelakoa izan zan.

Jon.— Bestelakoa?

Eli.— Bai. Eztegu ondoko lagunak ikusi nituan, an urian, jatetxetik urteten.

Jon.— Bai, ezteguak beti izaten dira pozgarriak, baiña gero...

Eli.— Bai, gero... gerokoak. Dana dala, nik neuk behintzat, ez neuke neskazar gelditu nai. Eta orregaitik artu dot erabagia.

Jon.— Zein erabagi?

Eli.— Iñoiz esan izan deutsut leen bere.

Jon.— Baiña zuk, neure guraria egin bera dozu, aita neu naiz-ta.

Eli.— Urteak joan yataz, eta ez naiz orain umea, aita. Ba ditut neure eskubideak.

Jon.— Indarrez ta asarrean joateko bere, gertu al zagoz?

Eli.— Ez neuke gura. Eretia izan nebanean galerazo ezpa zeust, gaur enintzakean emen egongo eta...

Jon.— Aitaren esanak ez al dau ezer balio?

Eli.— Egin neban orduan, aita zure esana. Baiña ez da bidezkoa beti, norbere gurari ukatu eta iñorenari amoregitea.

(ERESIA. II KANTUA)

Eli.— Aitaren naia egin neban nik
gazte gazte nintzanean,
neke aundi bat barrura yatan
aitagaitik biotzean;
urteen lerro luzeak ba dau
aldatua noizbeiñean.
Aize barria arnastu nai dot
emen ezpa litz, kalean.

Jon.— Alaba bakar,ene Elisabet
Zegaitik zabiltz urduri?
Aitaren etxe txiki onetan

bai leku samur ta guri!
Urrunak berez oi dau lillura,
guzurrak eder-arpegi;
utzi egizuz ames zoroak,
zaitez neugaz emen geldi.

Eli.— Eragozpenak ez dira naiko,
Askatasuna nai dot nik.
Jon.— Emen zeu zara etxekoandre.
Zeu ta iñor ez besterik.
Eli.— Auzoa urre samar egonik
kezka batek nau ni erre
Jon.— Ez dabil zuzen zure burua,
ez naizu jarri aserre.

Eli.— Aitaren naia egin neban nik
Jon.— Aitaren naia egin zenduan

Eli.— gazte gazte nintzanean
Jon.— gazte gazte ziñanean

Eli eta Jon.— Urteen lerro luzeak ba dau
Aldatu noiz beiñean

Eli.— Eragozpenak ez diranaiko,
askatasuna nai dot nik
Jon.— Emen zeu zara etxekoandre
zeugaz gengokez gu onik.
Eli.— Bakotxak dauka bere lillura,
naikoa dogu negarrik.
Jon.— Kendu egizuz ames zoruak
ez nagizu utzi bakarrik.
Eli.— Naikoa dogu negarrik (BIS)
Jon.— Ez nagizu utzi bakarrik (BIS)

(ELI BEIOA ESKUMALDETIK,
OTZAREA BURUAN DAUALARIK).

4
JON ETA MADALEN

Jon.— (MUSIKAGAIN, ESANGO DAU:)
Gaztetasunak iges,
etxekoak auzora
inguruan iñor ez,
nora zoaz, Jon, nora?...
MADALEN.— (BERE ETXETIK URTENAZ)
Ba dabe gazteak astirik
gauza askoz damututeko,
umetan ezin ikasi,
urteak bear jakiteko...

Jon.— Arantza barri dakarte
ene seme-alabok;
bakartadean noiz arte,
zer egin bear ete dot?
(ISIL BEDI MUSIKEA)

Jon.— Samin au ez da txikia, Madalen. Muturretaraiño ozpiñez ta larriz betea. Etxe au utsik ikusteko arriskuak, erraiak lorrinduten deustaz.
Mad.— Ez zara orrenbesteko bakartadean izango.
Jon.— Eskale biurtuko naiz. Eta aterik-ate joango naiz lagun-billa, utsune onen atzaparrak moztuteko. Bakartade onek neu urratu naian baiño leen.
Mad.— Gau baltza besterik al dozu susmauten? Egokieraren bat, bear bada...
Jon.— Egokierea? Poza ta atsekabea, alkarren ondoren ei dira sarritan. Argitasun motel-motel batek, distira-miñak sentidu oi ditu nire barruan iñoiz... gau illunean bidaztiak lez. Ez da gauza barria, Madalen, baiña zure belarriak entzun arren, zure gogoak, ostera...
Mad.— Nire belarriok... nire gogoa?
Jon.— Ezetza, ezetza zuk bere.
Mad.— Niregain al dago babesterik? Nik lagundu al ba neizu, lagundu...
Jon.— Neuk gura neunkean lez izan ezik, alperrik da.

Mad.— Ta nire eskuetan ba lego...

Jon.— Ain zuzen, zure gogoan eta borondatean dago.

Mad.— Ene! Ez, Jon, ez! Bildurgarrizko berbak esan deustazuz.

Jon.— Bai, Madalen; ez daukat beste norarik. Zeu bakarrik izan zeintekez ene egoera onetan, nire eutsigarri ta babesa.

Mad.— Baretu zaitez, Jon... Zorabioz zagoz une onetan.

Jon.— Baretu... Lurralde onetan jaiotako txoriak, euren kabi epela utzi, joan doaz joan, nora ez dakiela, nun gozauko ete diran jakiteke. Inguruko lurrak ezagutu orduko, giro aretan dagozan mirotz eta arerio doillorren menpean estutuak eta beztuak izateko arrisku biziz.

Mad.— Azkenen gobiozkadak geratu-erazoko ditue euren amaren lurraldeetan.

Jon.— Ez. Diruak daroaz. Diruaren pozak. Txintxinaren zolitasunak zoraturik. Ontziak lotzeikiak urratu ditu, eta or doa munduko itsas nastauan barruna, alderdietako orroekin bildurtu nai ezik. Illuntzean, argiak agur egiten dakian orduan, utsunea sentiduko dot neure senean, neure zanetan, etxean, sukaldean, inguru osoan... Atsekabe ta lor aundia izango dabe gure asaben basetxe onen erro ta erraiak.

Oinazez jantziko da mendia, bazter au. Oiñazez negarrez jardungo dabe barriren barri, iturriak. Oiñazez dardar egingo dabe gure endakoak jasotako etxeak, zaindutako basoak, landuriko lurrak...!

Mad.— Zeruko Jaun onak lagun egingo al deusku aurretikoen gauzok zaindu daiguzan!

Jon.— Mundua lokatu egin da bere azur-lokarrietatik. Zatika zatika ondatuko dira gure mendietan bazter, zugazti, solo eta etxeak. Aldegin-miñak jo ditu guretarrak. Emengo lanaren joputza ta buztarria erauzirik, urian jaun antzean biziko ete diraneko lillura utsa.

Mad.— Bai, ango arinkeri ta errez-antzak bigundu ditu gure umeen biotzak. Zer ete dakar biarko egunak, geroak, ume oneentzat? Bai, Jon. Guk geuk, behintzat, leenenan iraungo dogu. Oitura, sinismen eta izkuntza jatorrean jardunaz eta biziaz.

Jon.— Galdumendi guztien ganetik, gozagarri yataz, Madalen, zure esanok. Serbitzari izan nai ezak daroaz, eta mendiko askatasuna galtzen dabena ez dabe oartzen. Diruaren egarriak suminduta, jauntxo gogorren lakirioan jausteko... Madalen: zeu ta neu batu

gaitezan batu. Izan daiguzan ondorengoak geure zentzunekoak, geure odolekoak izan leitekezan aiñean.

Mad.— Ai, ene Jon. Ezin, ezin, orrenbesterik, asmoak senide izan arren...

Jon.— Ez dauka barruak iñoiz etsita egoteko zerik, Madalen, zanetan kemena eta biotzean garra dogun bitartean. Gure erriarenganako maitetasunean, altara ganeko oparia lez artu egizu, nire barruko miña, eta griña zoli ta erabagi sendo au...!

(MUSIKEA. III-gn. KANTUA)

Jon.— Laiñoz bete yakuz
ibar ta mendiak,
aldatzen aldatzen
inguru guztiak.
Bedar txarra erein
dabe soloetan;
diru-gosez dabiltz
gizonak lorretan.
Ez dago bakerik
alderdi onetan:
orra itxulastua
euskal-errietan.

Mad.— Oitura barriz
jantzi nai dabe
guk asiriko semeak,
gure antzean
gura genduzan
erraietako umeak.
Bultzadaz datoz
gero ta geio
kanpoko gogo-aizeak,
bakotxarena
bazterrera, ta
or ditugu bai nasteak.

Jon.— (ZORTZIKOA)
Bakartaderik ez dot
Nik gogoko izan,

Zeu, Madalen, zeintekez
laguna bizitzan.

Mad.— Ez, Jon, ezin negizu
baietzik nik esan;
gaur arte lez, auzoko
zintzoak gaitezan.

Jon.— Laiñoz beterik dot
barru au zearo,
ez dakit nik zelan
aldatu gaitzaro.
Bide bat ba dakust,
usterik baiñan ez;
andra maite onek
amoremon, nekez...

Mad.— Ez egizu galdu
iñoiz itxaropen,
oraingo aldia
illun dagon arren.
Barruko zauria
zolitu baiño len
osagarriren bat
topau daigun emen.

Jon.— Bedar txarra erne
yaku soloetan,
lur-zaleen garra
galdu da benetan.

Mad.— Goratu gogoa
makalaldietan,
sortuko da argia
noizbait bazterretan.

Jon.— Madalen, esaizu
bai, zure ezpanetan

Mad.— Ez zaitez bildurtu
bizi-bideetan (BIS)

Jon.— Beste ispillurik ez
nire begietan

Mad.— Egun-senti barri
izar-dirdizetan...

5
MAIÑASI ETA SIMON

Mai.— (EZKERRALDETIK AGER BEDI. OTZARATXU BAT BESAPEAN). Amar, amaika, amabi, amairu... Ai, ez, ez; orixe ez! Amairu ez, ori zer txarra da, dongea, gaiztoa... Egundo be ez deutsa iñori zori onik ekarri; abea dauko euki. Amairu!... Nik be, amalaugarrena bear dot, ba, numeru biurri ori ezereztuteko. Amairu senargei ez ditu euki ba? Olakorik entzuteko bere! Axaxa!... Motroilluganeko hamalau sorgiñak ba lekie jakin!... Eneeeeei!!...

Sim.— (EZKERRALDETIK AGER BEDI AU BERE. SALGAIAK DAUKAZ: metxa, suarri, pornostiku, eta abar) Nun arraioa aurkituko ete dot billa nabillena? Nok esango ete deust niri Arrupe basetxea zein dan?

Mai.— Orra or beste eulia! Zer ete dakar erdi-agure orrek jardunean?

Sim.— (IÑOR DAGOALA KONTURATUAZ) Ene, or zengozan zu bere? Zera... zuk emongo al zeuskit basetxe baten argitasuna?

Mai.— (ZITAL ETA LABUR) Bai.

Sim.— Ori, baldin ba dakizu izango da, eta ez dakit ba.

Mai.— Ez daukagu ezer esateko!

Sim.— Ba, orduan isilik egon eta kitu!

Mai.— Zeu isildu zaitez, iñori okasiñorik emon baga.

Sim.— Tira, tira, estutu barik. Ondo artu daigun alkar. Andratxua...

Mai.— Ni ez naiz andrea, neskatillea baiño.

Sim.— Bai, orixe! Atzo goizekoa ain zuzen bere.

Mai.— Atzo goizekoa edo arratsaldekoa. Olako eltxorik. Juuuum!

Sim.— (BEREKIKO) Akenen batek edo tabanuren batek aginka egin ete deutsa neskazar orreri, orrelan goiak eta beiak ausi bearrean ibilteko.

Mai.— (ONEK BERE BERETZAT) Zetan dauka zetan etorri onantz, agure ganorabako orrek? Beioa kale-aldera. Ut!

Sim.— (ALDERANTZ) Astia alperrik galtzen nago ta, oba izango da onez onean zerbait adierazotea. (GOZO GOZO) Entzuizu; neskatilla lirain orrek: urrun ete dago emendik Arrupe basetxea? Ariñeko mandatua dakart-eta...

Mai.— Ori besterik da. Bear dan lez berba egin ezkero, kristiñauak alkar ondo artzen dakigu.

Sim.— Urrun al da?

Mai.— Ez ba, ez dago urrun. An (EZKERRALDERA ERAKUTSIAZ? SAKONEAN) arizti zabal aren bealdetxuan baserri bi ba dagoz ba? Ba... aetarik berrenengoa dozu Arrupe.

Sim.— (LAUSENGUZ) Damu dot arin ara joan barra, zu lako laguntxu bategaz unadatxu batean pozik egon neintekean-ta.

Mai.— Ikusten?... Baiña, nik, bai laster esan be ikusi zaitudanaz batera: auxe, gero, ez da edonor.

Sim.— Bai nik bere, laster asko sumau dot emakume jasekoa izan zeintekezana.

Mai.— Eskerrik asko, ba, zaldun gazte... Azaiera onak, iñori kalterik ez.

Sim.— Zuere izena esango ba zeuskit...

Mai.— Esan ez, ostera? Bai pozik bere. Mari Iñasi da nire izena; baiña geienak Maiñasi esaten deuste, eta batzuk, Maiña ere bai.

Sim.— Maiña asko egiten dozulako ete da ba, ori?

Mai.— Maiña eta umekeriak antziña aztu yatazan niri.

Sim.— Ez dirudizu ba orrelakorik; emeretzi urteko babalorea lakoa zagoz-ta... (SIMON-EK ATZIMURKA EGIN NAI DEUTSA BAIÑA MAIÑASI-K ALDE BATERA IGES EGITEN DEUTSA. MUSIKEA ASI BEDI ALAI TA BZIKOR. IV-gn. KANTUA)

Sim.— Amaika bidar zure
irudia nunbait ikusi dodala nik
buruan sartu yat.
Goian, beian,
Urre, urrun...
Ez dakit nun.

Mai.— Ai, ene, nor eta da
mutil sasoko au?
Nirekin dagoneko
atondu gura dau.
amairu bai
ditut batu...
danak galdu.

Sim.— Maiñasi, Maiñasi,
zu lako beste bat
ez dot nik ikusi.

Mai.— Ez da arritzekoa,
inguru onetan
nor da ni lakoa?
Sim.— Urte askotan ni
jo ara ta ona
andrebilla nabil.
Mai.— Errez ez da aurkitzen
oraingo aldian
andre onik emen.
Sim.— (ZORTZIKOA) Polita zara, gero!
Mai.— Ez ainbestekoa.
Sim.— Zerbait esan nai deutsut
Mai.— Bota lenengoa!
Sim.— Norbaiten bearra dot
Mai.— Umezurtz gaixoa!
Sim.— Zu izango ziñakez bai
Mai.— Txit aukerakoa.

Sim.— Txit aukerakoa ta
Mai.— Zuur, egokia
Sim.— Itz bat entzun nai deutsut
Mai.— Gozo ta eztia.
Sim.— Maiñasi eder orrek:
Mai.— Betor eskaria!
Sim.— Senartzat nai al nozu?
Mai.— Au urtenaldia!!

Biak.— (SOIÑU ARIÑAGOZ) Maitetasunak ez dau
Adiñik ez lurrik,
Edonun ta edoniz
Beti da gerturik;
gaztetan ez dauanak
izan maitaririk
gerotxuago behintzat

artu begi pozik.
Alai, pozik,
nozbait bere pozik...
Maitez zoro
alkar ikusirik...!!

(SIMON BEIOA EZKERRALDETIK, MAIÑASIRI AGURKA)

6
MAIÑASI, ELISABETE. GERO, ANDER

Mai.— (BAKARRIK) Ai, ori da gizona, ori! Nun demorrio sarturik bizi izan ete da oraiñarte guztian, geu alkar ezagutu barik onelan banan eta deslai biziteko?... Simon, Simon!! Berandu samar alkar ezagutu, aukeran baiña... maitetasunean ez dago iñoiz belurik. Beti da egunsentia, beti goizeko argia, beti.

Eli.— (EZKERRALDEAN AGER BEDI) Maiñasi! Aspaldiko emakumea! Gaztetu egin zareala dirudi.

Mai.— (BEREKIKO) Ene, ezer entzun ete dau onek? Edota ikusi egin ete gaitu? (ELI-ri) Orixe esan deust gizonezko batek leentxuago.

Eli.— Ez da egia izango!

Mai.— Ez ba! Oraindiño neure belarrietan daukat aren berbeta gozoaren durundia.

Eli.— Bai Zera! Gure barruan izan oi doguzan oiñaze guztiak, danak batean ikusi ba gengiz... gure azkena, gure akabua.

Mai.— Eta arako... Zelan eban berak izena? Zera...

Eli.— Ez, Maiñasi. Erreka beera doazan urak, ez datozke iñoiz barriro goirantz. A, joan zan.

Mai.— Orduan,... barri-barria obea.

Eli.— Olan da esakerea. Izakerea ostera... ezta, ezta...

And.— (SOLOTIK AGERTUAZ) Ona emen Maiñasi gurea. Ta? Barri onik ba al da kalean?

Mai.— Egunik asko da nik kalerik zapaldu ez dodana. Neguan, arean, ez dogu bide onik, gora ta beera sarri ibilteko.

And.— Ori esan ba. Uriko kale zabal garbiak obeak dira izan, mendiko zidor lokatzez beteak baiño.

Mai.— Kalean bere, txakurrak ortozik ibilten dira, gero!

Eli.— Bai, baiña zu bere, kalean egon zara urte batzuetan.

Mai.— (ARRO) Bai, beiñepein. Apur bat dotoretuteko bizi izan nintzan. Ondo gomutan dot! Serbiduten ikasi nebanean, eta etxera biurtzeko kontua lez adierazo neutsenean adierazo, gure señoritua zanak, ez gura ta ez gura itxi etxetik aldegiten iñundik iñora bere. —"Maiñasi"-esaten eustan-, ta gozaro esan bere gero!— "Maiñasi! Zu lako neskame kuriosarik ez dabe gure platerak ezagutu. Apurtu ez daitezeneko arduraz, sarri askotan, garbitu bere egin barik, zikin ta guzti ez dituzuz ekarten ba, maira?..." (BESTEAK BARRE GOZOA EGIN BEIE).

Eli.— Jiesus...! Au Maiñasi lako barreikarririk gitxi izango da, orraitio!

And.— Eta soldata-dirutxuak izango zenduzan ba, zuk?

Mai.— Soldatea, gure izeko Paskasi zanari bialtzen neutsan etxera.

Eli.— Eta arek gorde, polito polito zuloren batean...

Mai.— Bai zereko zuloan! Samako zuloan beera joan yakozan nire lauziriko-lamarikoak.

And.— Bai, txotxo. Gure izekoak... maitale isileko bat eukan, eta arentzat izaten zituan geienbat, nik hainbeste neke ta arduraz batu ta gordeten nituan txanponak.

And.— Kontxo! Olakorik! Ta maitale ori zan...

Mai.— Paittarra, laztana, paittarra! Neskazar gelditu zala, baiña, alargun izatea ez zala etxurea-ta...

Eli.— Paittarrari arek, orduan, astiñaldiak emon, txurrutari...!

Mai.— Ori esaizu ba.

And.— Baiña gaiztoa ez zan izekoa.

Mai.— Gaiztoa? Ez orixe! Ona gaiso aundia. Axe egarberatxua izatea...

7
LEENGOAK ETA SANTI, GEROAGO

And.— (URRUNERA BEGIRA) Orra or nor datorren.

Mai.— Nor da ba?

And.— Gabiri-tar bat. Laster egingo dau euretarrak egin oi dabena: (MURRUSA EGIÑAZ) Muuu! Muuu!

Mai.— Zeu, zetarikoa zara ba, ander?

And.— Ni neu behintzat, ez naiz murrusa egitekoa. Ni, Artolazatarra naiz.

Mai.— Zuei bere, ezarri deutsue ba irrizko soiñua.

And.— Ba, ba dakigu. Ezin giñei uste izan bakoitxa-bere kontra, albokoak eta ingurukoak berbarik egiten ez dabenik. Aurretik ezpaldin ba da, atzetik edonori egiten yako burla ta maixio. Zuri, ta orreri ta niri. Edozeiñeri.

Eli.— Guretarrai Beee! Beee! Esaten deuskue.

Mai.— Ene, zu bere, Artolazatarra orduan?

Eli.— Bai, Maiñasi. Nik neuk, gure nebaren esanak ontzat artzen ditut, beste askok orrelan egin ezarren.

Mai.— Gizonak bere, ba dakie gero, oker egoten.

And.— (IRRI GAIZTOZ) Andrazkoak iñoiz bere ez. Orren azkenengo berbea beti da auxe: "Amen".

Mai.— Ez asarratu orregaitik, mutil.

Sant.— (AGERTUAZ) Kaixio, Maiñasi! Madalen-enean egon al zara?

And.— (APARTETIK) Besteok lurrak iruntsi gaizala!

Eli.— Auxe be, ba da ba, beti baserritar izan gura dabenen azaierea!

Mai.— Ez Santi, ez nator Madalen-enetik. Baiña, ezer gura izan ezkero, emen dituzu aren auzokoak, emen dagozan beste lagunok.

Sant.— Adiskidea ez dana, lagun bere, komeni ez.

And.— Adiskidetasuna nok eteten dauan jakin bear litzateke.

Sant.— Buru gogorren aldetik izango da beti errua.

And.— Edonun dira, ostera, buru gogorrak. Eta gehiago bere, esango deutsut... entzun nai baldin ba dozu.

Sant.— Esaizu ba.

And.— Besteren errazoirik entzuteko bere, arretarik artu gura ez dauana, zeuk esan ziñei zetariko gizona dan.

Sant.— Ez dozu orraitio, ori nigaitik esan nai izango.

And.— Zugaitik ez ain zuzen une onetan. Baiña orrelako gatxak, gorreri orrek, erro sakonak dituala uste dot nik neuk, zuen aldeko askorengan.

Sant.— Guk orrelako okerrak? Eta zuek, baten esanera zagozenok?

And.— Bai zera baten esanera! Ba yagok obarik!

Sant.— Zuen dei-soiñuak berak, olantxe emoten dau emon bere. Ea, entzun: "Beee! Beee!" Ta ganera, orixe entzunaz batera, ta beste barik, edonok daki esaten: "Orra or Artolaza-tarren artaldekoak batzeko deadar baketsu ta makala".

And.— Zuek bere, ba dozue izan, korta-usaiña baiño ez dauan gudadurundi ozena. "Muuu! Muuu! Gabiri: or dituk eun milla idi!"...

Sant.— Kontuz, Ander, lenengoz eta azkenengoz!
Eli.— (BAKETU GURAZ) Zoaz etxera, Ander!
Mai.— Santi: bake baketan egon gara eta ezaitez gehiago ona etorri asarrekuntzarik sortzen.
Sant.— Berori asi da zirika ta naste-guraz.
And.— Nok aitatu ete dau, buru gogor berbea?
Eli.— Tira, naikoa da! Zoaze bakoitxaren bidetik.
Mai.— Bai, naikoa izan dira oraiñartekoak be. Ama gurea zanak ekian esatenbakea, urretan bere, ezin leitekeala ordaindu. Ai, bakea! Gomutauta bere, arako ganboatarrak, ta oiñaztarrak, eta butroietarrak eta, abendaiñotarrak eta...
Eli.— Jesus Maria! Ez dakizu zuk gitxi, Maiñasi.
Mai.— Ai, kutuna, urteak irakatsi, urteak irakatsi...

8
LEENGOAK ETA TXOMIN. GEROAGO, MADALEN, MADALEN, KATALIN, IÑESE.

Txomin.— (ESKUMALDETIK AGERTUAZ) Eeeeep! Zer diñoe oneek, baserritarrok?
Sant.— Zeu nongoa zara ba?
Txo.— Ni neu... zera, baserrikoa ez behintzat. Eta gura bere ez.
Sant.— Ta niri zer deust ba, zure gurariakaitik?
Eli.— Zetan etorririk bere, ez zeukan baserri-aldera.
Txo.— Orra ba. Orain bai ostera, zetan etorria izan dodalako agertu naiz. Ez gustora be, baiña...
Mai.— Guk ez genduan ba olako lagunik gura.
Txo.— (LOTSABAGA) Ba, emen nago ni. Erri aunditik etorrita, ganera.
Mai.— Billa datozan guztiak bere, andixek etorten dira.
Txo.— Entzun ondo, basoko umeok. Zein da Urizar etxea?
And.— Urizarrak, biok dira.
Txo.— Biok? Tira ba! Nik bear dodana... Urizarbarrena da.
Sant.— Zeuk bear dozuna? Baserritar egiten al zatoz etorri?
Mai.— Zetarako bear ete dau gizon burduntzi onek basetxea?
Eli.— Morroi sartu gura al dozu?
Txo.— Kontuz barriketokin! (PAPERAK ATARA TA IKUSIAZ) Bai...! Urizarbarrena. Zein dala esan deustazue?
And.— (ESKUAZ IZENTAU BEGIO)

Txo.— (ZAPIA ATARA TA IZERDIA LEGORTUAZ) Ez da erreza izan oraiñoko bideak egitea. Lekutan dago berau!!

Sant.— Eta jakin eta giñei zetarako dan zer ori?

Txo.— Zetarako? Ori, orko etxekoak jakin bear dabe lenengo, eta jakin naiz jakin ez, gura ta gura ez, guztion begiak ikusi al izango dabe belu baiño leen.

Mai.— Orrek dituk erretolika luzeak!

And.— Etxe ori geure auzoa da. Nai al dozu dei-egitea angoei?

Txo.— Ez, neuk berba egin deutset. Zuek naikoa dozue zeuen bedar--kontuak eta pekorotzen gorabeerak erabiltea.

Sant.— Zeure mandatu ori egin baiño leen, ea gero burutik-beerakoren bat irabazten ez dozun.

Txo.— Ez dozu orrenbesteko ausardirik izango, orraitio!

Eli.— Baretu zaitez, Santi, arroputzen esaera zoroai bapere jaramonik egiteke.

Mai.— (DEI EGIÑAZ) Madalen! Maaaadalen!...

Sant.— Baztarrak orrelan asalduten datozanak, ezin leie gauza onik ekarri.

Eli.— Desteiñarik franku entzun dogu behintzat, unada motxean atan bere.

Mai.— Au erri aundikoa izan? Ez dau erakutsi onek, gure señorituaren fintasunik, arean bere.

Mad.— (ETXE BARRUTIK AZALDUAZ) Nor dabil deiez?

Eli.— Emen yatortzu morroe bat, erriko zaldunguratxu bat.

Txo.— A, xera... Madalen Ariztieta al zara?

Mad.— Berbera, serbiduteko.

Txo.— Ba... Gaillarraga zaldun jaunaren maizterra?

Mad.— Olantxe ba.

Txo.— Etxe au, Urizarbarrena da, ezta?

Mai.— Ezkonduteko bere ez, orrenbeste koplarik.

Txo.— (ASARRE) Zoaze emendik zeuen ikullura!

And.— Entzuiza, gazte. Oraiñarte isilik egon naiz, zure larregikeriak entzun arren. Erremuskadarik eta destaiñarik naikoa ta lar dala deritxat.

Txo.— Madalen Ariztieta: jakin egizu urrengo astean, lurralde batzuetan aldakuntzak izango direala, etxe ta bazter onen jabearen aginduz.

Mad.— Zeintzuk aldakuntza?

Txo.— (ARROTUAZ) Basoak, bat izan ezik, piñu-landaraz beteko ditugu. (KATALIN ETA IÑESE AGER BEITEZ ETXE BARRUTIK)

Mai.— Zer diño berorrek? Piñu-sartzaillea ez al da? Elorrioak!! Baiña neuk esan, burduntzi orrek beremoduko opizioren bat ez ete eban!

Txo.— (GARRATZ) Piñu oneek, jakiña, Gaillarraga jaunarenak izango dira, bai erraldatzean, bai azitakoan.

Mad.— Eta basorik baga gelditu bear al dogu?

Txo.— Bat gelditzen yatzue oraingoz.

Mad.— Bat... eta zein?

Txo.— Zera... Urkitzekoa.

Mad.— Eta errentea, bardin?

Eli.— Bardin, edo... gehiago bear bada.

Txo.— Ez dakigu ba, legeak noraiño lagunduko deuskun kontu orretan.

Mad.— Baiña, legea baiño leen agiri izan da zuen borondatea.

Txo.— Borondatea, edo bear-izana.

Mad.— Besteok ez al dogu bear-izanik?

Kat.— Ama! Ez egizu asarrerik agertu. Konponduko gara guztiok, geu geutara.

Txo.— (AREN EDERTASUNAZ KONTURATURIK) Ene! Zera... zu nor zara ba?

Mad.— Neure alaba bat da au.

Txo.— Bai alaba ederra, izan bere.

Sant.— Zuri ez deutsu bapere ardurarik, ederra izan ala ez.

Txo.— Zegaitik be?

Sant.— Zuretzat ez dagolako egon.

Txo.— Ori... ikusi egin bearko.

Mad.— Ara osterakoa! Modu onak ekarri dituzuz ekarri, orain olako asmoak agertzeko.

Sant.— Alperreko mingain labana dabe kaletarrok.

Txo.— Tira ba! neuk atonduko dot obeto, emon deusten arazo garratz au. (ATSEGIN AUNDIZ, KATALIÑI BEGIRAKA)

Sant.— Ez dago ezer atondu bearrik. Zoaz ainbat lasterren gure begien bistatik. Ostantzean, kontuak izango dituzu.

And.— Itxaron apur bat, Santi; nasaitu.

Sant.— Zu bere, onen alde? Naikoa naiz ba ni neu, guztien kontra egiteko.

Txo.— (SAKELETIK PISTOLEA EDO, ATARATEKO ZILU EGIÑAZ) Ointxe ikusiko dogu, ointxe!!
Kat.— Ai, ene ba da!
Mad.— Jesus milla bidar!!
Eli.— Egundo olako zaparradarik!
Mai.— Ba noa ni, ariñak arin, errotariaren billa. Axe bai mutil morroskoa asarreak baretuteko.
(MAIÑASI BEIOA)
Mad.— Andra Maria maitea!!
Iñe.— Ene ba da ta!!

9

LEENGOAK ETA JON.
(ERESIAK ASI BEDI BAPATEAN, GOGOR TA SENDORO)
(Vgn. KANTUA)

Jon.— (AGERTUAZ) Geldi gizonok, geldi!
Zer da asarre au?
Kat.— Gure bakea ausi da;
egun baltza da gaur.
And.— Mendi ta baserri,
uri ta kale...
alkarren adiskide
izan bear dabe.
Gitxi dira benetan
Emen, bion zale.
Ortik yatorkuz guri
ainbat atsekabe.

Mad.— Gure aitaren aitonak eta
jaso zituen etxeak,
mendi artean mundutik urrun
egindako oatzeak...
Baso ta landa, zelai iturri,
pago, areitz eta arteak...
Emengoxeak jarten zituen
Baserrirako legeak.

(IKUS: 3-gn. "Alaba bakar, ene..."

Sant.— Ezin giñei laketu
kalekoen zigor,
piñupea ugari
zikin eta idor...
Bedar gozorik bage
idi, bei ta txekor...
Baserritar gaixoen
Egoera gogor!

Txo.— Jabearen gogoa
lenen bear beti,
eta dudarik barik
bete bear dot nik.
Jon.— Ez da gauza zuzena
geiagoko barik
baten setakeria
jartea bertatik.
Sant.— Zergaitik aintzat artu
setakeri ori?
Gizonau botau daigun
Lezera zulotik.
And.— Geldi, gazte bero ori!
Mad.— Ai! Zeruko Ama!
Jon.— Bakea dan ederra!
Kat.— Zer dator gugana?
Txo.— Onez ezpa da txarrea
egin egingoa;
orixe dalako izan
gurari sendoa.
And.— Ezin ikusi dot nik
olako nasterik.
Ba noa ni, mendia
betiko utzirik (3 BIDAR)
Mad.— Etxean eta auzoan
auxen dogu miña!
Jon.— Eroapena nai ta
oraingoz eziña.
And.— Agur, basetxe maite!

Kat.— Nora zoaz orain?
Sant.— Beioa beste au be! (TXOMIN-EZAZ)
Txo.— Neu nago danon gain.

And.— Bear bada, kaletik
zainduko ditugu
basetxeen auziak;
iñoiz bere ez, aztu.
Kalean izango dot
askatasun, diru;
orregaitik gura dot
beste bizimodu.
(BEIOA ANDER ETA ONEN JARRAIAN BERE ARREBA ELISABETE)

(KORUA)
Guztiak.— Ezin jasan leikeez
baserri-jenteak
beste batzun aldetik
datozan kaletak.
Txo.— (PIPER) Zelan aldatu dira
nekazari fiñak?
Mad.— Nekearen ondoren
guretzat samiñak.
Guztiak.— Danok jagiko gara
lurrok zainduteko,
antziñakoen lanak
ez ondatuteko.
Sant.— Batzuk joango dira
betoz urrengoak.
Jon.— Nortzuk izango doguz
guk oiñordekoak?...
Guztiak.— Emen ez dogu bear
kaleko arrotzik
lurrean lurrekoak (BIS)
begoz alkarturik.

OYALA

(MUSIKA-GAIN ESANGO DAU URRENGO AU KATALIÑ-EK,
EKITALDI AU FOLKLORE MIÑEZ LUZATU EZKERO)
(SANTA IAGEDAKOAK EDO ESKALEAK AGERTU TA ESCENARIOAN
EGOKI JARRI BEITEZ, OBOAREN ARAUAZ)

Kat.— (MUSIKAGAIN)
Ezin dot nik ezetara
barruko kezka au gorde...
Batzuen naste ta asarrez
besteak emendik alde.
Jazoera baltzen bildur
barrua daukat ikara,
arerioak ugari
datorkiguz arimara.
Mendiko txori maiteak
isildu dabe kantua,
inguruan dogun legez
biotzean be negua...

(DEADAR AUNDIZ) Ander! Eli! Andeeeerrrrr!!!...
(URRUNERA BEGIRA GEL BEGI)
(MUSIKEAK JARRAI BEGI, TA ALDATU EGOKIRO)

Eskaleak.— Eeeeeeeup!!
Batek.— Kantau ala errezau?
Mad.— Kantau.
Koplakari.— Au aizearen epela!
Aidean dabil orbela.
Etxe onetan izan begie
luzarorako bakea.
(GUZTIAK BARRIRO BARDINTSU)
Koplakari.— Mendi bizkarren ezea,
an, or, emen, basetxea;
Lengoan iraunerazoteko
guk bai alegin betea.
(GUZTIAK BARDINTSU)
Koplakari.— Santa Iageda bitarte
ez eizue izan kalte.
Gure asaben gogo ta guna
iraungarri nai litzake.

(GUZTIAK BARDINTSU)

Koplakari.— Au aizearen epela!
Egaka doa orbela.
Martiriaren bidez gau on bat
Danok izan daizuela...!

(GUZTIAK BARDIN)

(BAKE ITZOK ENTZUN ALA, TXOMIN BEIOA, PARIZTA TA ZIÑUAK EGIÑAZ, ANDER ETA ELI JOAN DIREAN ALDETIK. KATALIN, IRURAK JOAN DIRAN BIDEARI BEGIRA TA BEGIRA, SANTI URDURI DAGO KATALIN-I ESKUTURRETIK TIRAKA TA TIRAKA JARDUNAZ, EUREN BIDERA. BIEN BIDERA ERAKARRI NAIRIK. OIALA ASTIRO BEERA.)

LENENGO EKITALDIAREN AMAIA

BIGARREN EKITALDIA

(Mendiko bidaburua edo bidekurtzea. Inguru, zugatzak, orri barik. Gabon arrastia da.)

1
JON ETA MADALEN

KORUA.—

Au aizearen epela.
aidean dabil orbela;
etxe onetan izan begie
luzarorako bakea.

Mendi-bizkarren ezea,
An, or, emen, basetxea;
leengoan iraunazoteko
guk bai alegin betea.
Au aizeran epela
aidean dabil orbela,
Belen aldeko izarrak bekar
luzarorako bakea...

Jon.— Burua odolez bete yat. Bai arratsaldearen lepo luzea! Gabon eguna gaur. Gomutearen mingotzak, aragian bere, min egiten deust. Urte baltza aurtengoa, zoritxarrekoa.

Mad.— (AGERTUAZ) Etxerantz al zoaz, Jon?

Jon.— Bardin deust. Inguruan dabilkidan aizearen otzak, zauriak minbera jarri deustaz ene ariman.

Mad.— Eta gaur, gabon egitera geurera etorriko ba ziñei, zeu ta etxeko neskamea?

Jon.— Eskerrik asko, Madalen. Baiña... zetarako emoten deustazu ostatua zeuen etxean pare bat ordurako, eta zeure biotzean bein bere ez?

Mad.— Argitu egizu buru ori, Jon. Gure neskatillok, ene alabok, asarre ditut, zerbaiten susmoa darabillelako.

Jon.— Zer susmo?

Mad.— Zure ta nire arteko auzokidetasun eta adiskidetasun au, zerbait gehiago ete danekoa uste dabelako. (INGURURA BEGIRA) Aen begiak nire ibilkeren zain dagoz.

Jon.— Alabok euren sasoia dauke, eta gura dabena egin leie.

Mad.— Baiña nire menpean dagozan bitartean...

Jon.— Barriro esatea nai al dozu?

Mad.— Ez, Jon, zure ezpanen esanak ondo gogoan ditut.

Jon.— Nire oiñazea, ostera, ezin deust iñok kendu, zeuk izan ezik.

Mad.— Ainbestekoa, gizon?

Jon.— Bai. Oiñazez bizi naiz, gauza askogaitik. Emazte ona joan yatan; joan ziran izan zituan seme-alabak bere, ta gure aurretikoen bizi-moduari gitxi eritxita, ganera. Igesi zorigaiztokoa! Neure seme Ander zana!... Urira eldu, berak ainbestean amesez jositako urira eldu, eta ba dakizu, beingo batean ezberrak jo, eta an il zan, ola aundiko burdiña bero goriak urtuta doazan erreka irakiñean. Gazte bero, ameslaria, bere aititaren ezpalekoa!...

Mad.— Eta Elisabeteren barririk ba al dozu? Agertuko ete da jaietan?

Jon.— Neska birloratua!... au bere, amesez beterik joan zan Bilbora. (TAMALEZ) Semetxu bat ei dauka. Neure ondora ekarri al ba neiz! Baiña, zetarako edota zergaitik indarrez eratorri, libre ta amesez beterik joan zan txoria?... Eta aren senarra, alperra bera, alper utsa ei da, jokalaria, beste ezetan baiño zurrutean obeto dakiana. Etxekaltea, nagia. Ume errukarria oneen semetxua!

Mad.— Ta zer dala-ta ez parkatu, ta dei egin?

Jon.— Birritan ukatu deust nire esana egitea. Ez eiteala joan, zenbat bidar ez ete neutsan esan? Alperrik guztia. Ez eiteala ezkondu, arren bai arren, beremoduko traskil orregaz...! Alperreko eragona.

Mad.— Umetxua ikusten joan bear zenduke, orraitio.

Jon.— Bai, izan bere, orrek ez dau errurik.

Mad.— Parkamenaren iturriak ur gozoa dau. Jon: zegaitik bere bide egokira ez zertu, niregan bidebaga dozun jita ta joerea?

Jon.— Biotzaren joerak, ez oi dabe aldakuntzarik geienbat.

Mad.— Or ditut nik alaba bi. Egunean eguneango poz eta neke eta kezkea. Alabotarik batak, erdi aukeraturik dauka bidea. Alan bere, aspaldion begiraziñoak arturik edo dabil, Ander-egaz sarri bai sarri gomutauaz. Eta nagusia, norbaiten ordezko izateko ba litz...

Jon.— Zer esan gura deustazu, Madalen?

(MUSIKEA. VII-gn KANTUA)

Jon.— Ume bi nituan
nituan maiteki,
ene biotzean
ain gordeak beti.
Uritzar aundiak
deia egin eta
ara joan ziran
amesez beteta.
Urrunera joan
ta etxe au utsik;
emen ez dot iñor
nik ondorengorik...

Mad.— (ZORTZIKOA)
Egun zaarrak joan
barriak etorri,
izan daigun barruan
itxaropen lodi
Nik eziña dot orain
zugaz ezkontzea,
egindako promesa
nai dot betetea.

Norbaiten bearra zuk
izan ezketiño,
alaba nagusia
gei daukat oindiño.

Jon.— Ezin ba, Madalen
nik barrua aldatu;
zure berba onak
ontzat ditut artu;
baiña guk bakotxak
dogu geure zera,
ta ezin aldatu
goizetik gabera.
Ez al dot izango
zerbait osagarri?
Madalen, zegaitik
ez zu errukari?

Biak.—(ZORTZIKOA)
Egun zaarrak joan
barriak etorri
izan daigun barruan
itxaropen lodi

Jon.— Ez yat atsegin niri
nekez bizitzea

Mad.— Nik eziña dot orain
barriz ezkontzea

Jon.— Zure galde nabil ni (BIS)
jo ta jo atea.

Mad.— Nire eskeintzea nai dot
artez betetea.

2

KATALIN. GERO, IÑESE.

Kat.— (GOMUTA ZAARRAK ASTINDUAZ) Ementxen egoten zan, geienbat, ementxe, itaiak zorroztuten dingi-dingi burdiñazko maillutxuaz. Oilloai sarri askotan ortxe uzten eutsen murko zabala, orez bete betea, janari epela... Ander! (INGURUETARA BEGIRA) Ander! Noiz arte joan ziñan? Ez al zara gaur biurtuko, auzune onetako mutil gazteekin batean? Ez etorriko?

Iñe.— (AGERTUAZ) Iturrira noia, Katalin. Zatoz neugaz, ene aiztatxu, emen bakartadean burutapenetan jardun barik.
Kat.— Ez, Iñese, naiago dot ementxe bidaburu honetan egon. Illuntzean, laster, oi dan lez, gazte asko igaroko dira emen zear.
Iñe.— Tira, zatoz! Zure billa dabillenik ez yatzu gaur elduko-ta.
Kat.— Nor, Santi?
Iñe.— Jakiña ba.
Kat.— Ander-en gomuteaz diardut gaur.
Iñe.— Alde buruera geisoki orrek... eta Santi-gaz zorioneko izan.
Kat.— Ez da neure gogokoa oso, ezta urretan bere.
Iñe.— Aurrera egindako maillak, orain, suzitu egin bear al dituzu?
Kat.— Zegaitik ez ba? Maitetasun kontuan azken-egunekoa da... azkena.
Iñe.— Basetxea sendatzeko, ni Jon-egaz ezkondu ba nintz... entzun deutsat iñoiz ama gureari. Lege zaarrak zainduteko...
Kat.— Legeok gogorrak zirala, esaten ekian Ander-ek.
Iñe.— Gogorrak ala ez, oraiñarte guztian, legeok ain zuzen bere, zaindu ta jagon izan dabe euskaldun basetxea eta eurotako bizimodua, urrengorik urrengo, belaunik belaun.
Kat.— Eta nik bere... nik bere orixe egin bear neukela, ezta? Eta Santi-gaz egin bere.
Iñe.— Orixe siñistuta ez al zara bizi izan aspaldian?
Kat.— Iñoiz bai... gaur, ez dakit. Barruak alako zeozer esaten deust isil isilik.
Iñe.— Jon gizaisoa! Errukia emoten deust.
Kat.— Eta Elisabete? Arek bere, ezkondu bear gogorra izan eta...

3
LEENGOAK ETA TXOMIN ETA JULEN

Julen.— (BIZKARREAN MAKILLAUA) Arratsaldeon, Katalin eta Iñese!
Txomin.— Arratsaldeon, neskak.
Neskatillak.— Alan ekarri, Julen eta...
Kat.— Ene!...
Txo.— Bai, berbera, hainbeste illabete joan eta gero. Txomin naiz ni. Ta zer ba? Orduko oker-antzeko zerak, bete al ziran? Ez. Gaur beste arazo aundi bategaz nator?
Kat.— Besten naste barriren bat ez orraitio!

Jul.— Egunari dagokiona ain zuzen: bakea besterik ez.
Txo.— Zeugaz berba egiteko asmotan, Katalin.
Kat.— Nigaz berba egin? Bai zera!
Iñe.— Santi-k uzten ba deutsu.
Jul.— Orreek or konpon. Zatoz onantz, Iñese.

(IÑESE TA JULEN, ALDE BATEAN, AUTUAN ISILIK)

Txo.— Kartzelan egon naiz, atzo arte.
Kat.— Zuzen dabiltzanen pagua izan oi da, geienbat.
Txo.— Adierazoko deutsut. Jesarri gaitezan emen. (JESARRI BEITEZ BIOK) Santa Iagedetan ni emen egon nintzanean, andik egun gitxiren buruan sartu ninduen ni kaiola baltzean. Egun aetan, ain zuzen, ikusi neban azkenengoz zuen auzoko Ander.
Kat.— Ezagutzen al zenduan?
Txo.— Nik a ezagutu orduko, berak neu ezagutu ninduan. Eta gehiago bere bai. Ander-ek atara ninduan galtzeko arriskutik, eriotzatik bear ba da.
Kat.— Entzun, egun osoan nabil ni gaur Ander-egaz burueretan. Ba nekian nik.
Txo.— Kartzelea zer dan ezagutu dot, oraingo aldian errialde askotakoak ezagutu daben antzera.
Kat.— Ona etorri ziñanean gaizto etorri ziñan-ta...
Txo.— Entzun ba. Gau batean, zuzenago, gau aretan, an, bar aundi bateko baztertxuan, zorioneko eztabaida bat sortu zan. Gabiritarrak... Julen au bere, olakoa da baiña tira, gizon dezentea...
Kat.— Ez litzateke senarra makala izango ori Iñese-rentzat.
Txo.— Eta... ni zuretzat?
Kat.— Zer diñozu?
Txo.— Ba... Gabiritarrak an asi ziran odol bero zale, Artolazatarren kontra iñun diran astakeri biribillenak jaurti ta jaurti.
Kat.— Ta zu geldirik egoteko ez izan, nunbait.
Txo.— Ori da ba! Sekulako ezta-baidea ebillen gero ta gogorrago, gero ta beroago. Amar amabi lagun izango giñan. Etxekandreak an ziarduan Jesus eta Maria-ka. Eriotz arriskuaren zantzua ta dei an inguruan... Onetan, gibelak eguzkitara atarauko euskuezala-ta, estutu nintzan. Eta izan bere! Kutxillo zorrotza ikusi neban morroe baltz baten eskuetan, neure gorputzerantz geroago ta urrerago. Eskura neban neure pistolatxua eta danba! Alperrekoa tiroa. Uts

egin neban! Eta bigarrena egiteko nengoala, gogortu egin yatan neure zera... eta ezin tiratu... Baiña, norbaiten ukabillak sendoa izan, eta an joan zan ankaz gora arako kutxilloduna...!

Kat.— Ta zuri, miñik?

Txo.— Ez orduan. Kutxilloa an egoan lurrean, baiña nik bere, laster mun egin neutsan lurreko autsari, nonok jo ninduan buruan, eta luze joan nintzan. Argiak amatau zituen eta ango zarraparrean, zentzuna erdi-galdurik lotu nintzan.

Iñe.— Zelako nasteak erabilten dituen kaletarrak bere!

Jul.— Baserritarrak baiño ugariago, aurki!

Kat.— Isildu zaiteze. Eta...?

Txo.— Polizien burdi-soiñu zoli ta nekatsua entzun neban. Batzuk kanpora joaten ikusi nituan, igesi. Ander eldu yatan albora, eta miñik artu ete neban, odolik edo, itaundu eustan. Poliziakoak etozala, adierazo eustan. Ni an nengoan jagi eziñik. Pistolea eskatu eustan, eta an lurrean itxi ninduan. Eta agur egitean auxe esan eustan: "Egingo dogu alegin zure alde. Zuk bere, gero, Katalin ondo artu". Orra aren azkenengo berbak.

Kat.— Eta aren geroko barririk ba al dakizu?

Txo.— Bai, entzun. Eldu ziran poliziakoak. Argiak isiotu zituen... eta an gengozan luze iru gazte, bean. Andik, espetxera, saguen bazterrera... Araiñegun arte!

Kat.— Ander zintzoa!.

Txo.— Kartzelan gengozala irakurri genduan an laba gorietan izan zan ezbearra, eta Ander-en eriotza gordiña. Guregandik aldeginda gero emon oi deutsegu askori merezi eben izen ona. Geure denporako gaztea zan, eta batzuk, lengoari lotuta zuzen ala oker diarduen artean, urrengo belaunaldikoak beste asmo ta garra dakarrenean, olantxe jokatu gurako zan Ander.

Kat.— Aren gomuta ona dozula jakiteak, poztu nau.

Txo.— Eta ni beste zerbatek poztu nau. Zuk Ander begiko zendula, eta aren izenean edo etorri naizelarik, ondo bai ondo artu nozulako.

Kat.— Ez dirudizu arean bere, lenengo bidarrez ona etorri ziñan lakoa gaiztoa, Txomin?

Txo.— Zeuk diñozu, eta nahikoa dot. Orduan, beste iru basetxetan egonik nentorren, eta iruretan, jakiña ba, txarto samar artu ninduen-ta, erreta nentorrean.

Kat.— Guretat izan zenduzan setakeri ta berba bada-ezpadakoak.

Txo.— Era barrietako gogorkeriak ikasi barri nintuan-eta... Gero, an barruan, illunpean, eta Ander-egaz gomutaurik eta egia, Katalin, zeugaz gehiago, Gaillarraga jaunari karta bat egin neutsan. Kartzelan asko ikasi dot bizimoduaz. Biotzak obeto ezagutzen ditut orain nik.

Kat.— Kartea esan al dozu?

Txo.— Bai, egin neutsan Gaillarraga jaunari, zuen etxejabeari.

Kat.— An goieneko bizkarrean bakarrik sartu zituen piñu-landarak, eta kalte aundi barik.

Txo.— Orixe adierazo neutsan ain zuzen ugazabari.

Kat.— Eskerrik asko ba.

Iñese.— Katalin, nik iturrira joan bear dot.

Jul.— Neuk lagunduko deutsut, bidean galdu ez zaitezan.

Iñese.— Nai dozun lez.

Kat.— Ori pozik Julen, zugaz joateko.

(BEIOAZ IÑESE TA JULEN)

Txo.— Neure okertzakoa zuzendu arte, arterik artu eziñik egon naiz, eta emen naukazu parka eske, kalterik egin baldin ba neban, orduan. Ni neu naiz damu ona etorriaz.

Kat.— Ba al dakizu Ander-eri ezetza emon neutsana? Eta arek bapere gorrotorik ez.

Txo.— Ezkontzeko zareala entzun dot, Katalin. Egia al da?

(MUSIKEA. VIII.gn KANTUA.)
(JAGI BEITEZ ABESTUTEKO)

Kat.— Ai, auxen da barruko samiña,
zalantzan dagoanean biotza;
bide latzok argitu eziña,
gozo ordezko edari mingotsa...

Txo.— Ai, ene belu eldu bearra!
Nire zadorrok illun daukadaz.
Barruan entzun neban didarra,
bakea egin gura dot zeugaz...
Ezin, ezin
gehiago itxaron:
bide barri
zuregan dagon

jakin nai dot
gaur ziurrago.
Jakin,
Katalin,
neure onerako.

Kat.— Ene, ene!
Nasturik nago:
orain zure
eskari-aro,
zelan ete
naiz konponduko?
Jakin
ai, Txomin,
nor nire alboko?

Txo.— Laiño ta odei, zeru baltzean;
argitasuna nai neuke ikusi,
burruka luze latzen ostean
bakea gura, bakean bizi...

Kat.— Bideburu au zalantzazko dot,
erabagirik ezin nik artu;
berotasunez zain eta odol,
ziur ba neki nor aukeratu!

Biok.— Ai, baiña belu eldu bearra
eztakigu ez
noiz ete dan...
Zeruan gabaz izar ederrak (BIS)
keiñu samurrez
amesetan...

4
KATALIN ETA TXOMIN. GERO, SANTI

(NESKA MUTILLAK JESARRI BEITEZ BARRIRO)

Kat.— Ander-en arimea agertuko yatala uste neban nik, eta bildurra jota nenbillen.

Txo.— Ez, aren adiskide bat agertu yatzu; arena eta zeurea. Aren asmo ta gurariak geuk egi biurtzea, orixe da guri dagokiguna orain.

(SANTI AGER BEDI, BAIÑA ISILIK DAGO BEGIRA TA ENTZUTEN)

Leengoaren jarraipena geu gara, eta gure alkartasunetik etorriko dira ondorengoentzat onura ta obari mamintsuak. Batu gaitezan, ba, Katalin eta atsegiñez biziko gara.

Santi.— (AMURRUZ, BERE KOLKORAKO) Madarikatua! Arako kaletar txankame ori dago egon, neure emaztegeiaren alboan jesarrita, eta kontu-kontari ganera? Nok jasan olango saldukeririk?

(URRERATUAZ eta AOTS GOGORREZ) Katalin!!! Katalin!!!...

Kat.— (IZUTURIK, JAGI BEDI JESARLEKUTIK) Ene bada! Auxen da esturea!

Sant.— Zer egiten diarduzu or iñogaz?

Kat.— Zer egiten? Egin... ezer bere ez. Berba, orixe bakarrik. (SANTI NASTAU GURAZ LEZ) Ez al dozue entzuten Ander-en aotsa, aren esan gozo ta berba garbiak? Ander-en arimea agertuko yatala gaur, et orra or...!

Sant.— Ze Ander ta Ander-ondo! Neu naiz agertu naizana, zuk nai izan ezarren. Neu!!...

Kat.— Eta zer nai dozu orrelan zarataka?

Sant.— Kaletar zirtzil orren albotik beingoan aldegiteko agintzen deutsut.

Kat.— Aldegin? Ezin al dot ba, adiskidearen adiskideaz berbarik egin? (GORANTZ BEGIRA) Bai, Ander, zu orain isilik zagoz, baiña onek adierazo deustaz zure pentsamentuak, zure asmo onak, zure gurariak, kaletar eta menditarren artean adiskidetasun zintzoa gertutako...

Sant.— Ene, zoratu egin yako emakume oneri. Zer egin deutsazula zuk?

Txo.— Nik zer egin? Oker zagoz gazte.

Sant.— Ba, dana dala, zoaz begien biztatik, tximistea baiño ariñago joan be, gero!

Txo.— Zeurea al da mendia? Zeurea bidea? Zeurea osoro Katalin bere?

Sant.— Bai, neurea da; izango ezta ba? Alde aguro, bestela...!

Txo.— (ZUTUNDUAZ) Bestela, zer?

Sant.— Eskuan daukadan kodain onegaz beronegaz garbituko zaitudala...!

Kat.— (INGURATUZ, OIUKA) Erdu lagunok, arren! Erdu ona! Lagundu!!
Sant.— Isildu zaitez, deadarrez ekin barik.
Kat.— Eta zeuk zegaitik diarduzu zitalkeriak esaten?
Sant.— Naikoa da. Zoaz, kaletar ziztrin ori, iñor bitsetan jarri baiño leen.
Kat.— (BARRIO DEIEZ) Erdu, lagundu!! Etorri bizkor!!
Txo.— Besteok bere, ez gara besomotxak, gero!
Sant.— Besomotxak, ganera?
Txo.— Bai entzun dozuna. Kendu egizu erreminta ori, kendu; eta orduan ikusiko ditugu emen ikustekoak. Ezetz?
Txo.— Orduan ez, oraintxe, oraintxe. Txankame bateri autsak astinduteko ez dot iñoren bearrizanik. Errr...!
Kat.— Arin bai arin, lagunok, ona!!
Sant.— Zu bere, isillik ezpa zagoz...
Txo.— Guzurrak urtengo deutsu!

(KATALIN-EK ZERBAIT ALDEGIN BEGI, BARRIRO DEIKA. SANTIK, SORBALDA GAINETIK, BERE KODAIÑA ESKUETARATU DAU ETA TXOMIÑERI ZEMAI EGITEN DEUTSA, JOTERA EGIÑAZ. TXOMIN-EK BESTERIK EZEAZ ESKUKO MAKILLEAZ ZERBAIT EGIN NAI DAU, BERE BURUA JAGOTEKO)

5
LEENGOAK ETA JULEN, IÑESE, JON, SIMON, MADALEN, MAIÑASI.

(ESANDAKUOK, ITSUMUSTUAN AGER BEITEZ. JULEN-EK ETA JON-EK, SANTI-RI ORATU BEGIOE BESOETATIK. SIMON-EK, TXOMIN-I)

Jon.— (GOGOR).— Zer da erronka au emen bakartade onetan?
Mad.— Barriro bere agertu al da ori?
Jul.— Geldi, gizonok, geldi!!
Jon.— Santi: zer jazo da emen? Katalin, zu zoaz amagana.
Kat.— Santi asi da asarreka.
Mad.— Eta geiagoko barik?
Sant.— (SETATSU) Lotsa aundi barik arkitu ditut biok jesarleku orretan, alkarren ondoan, laztanka edo... Madalen: zelako alabea emon gura zeustan?
Mad.— Zeruko Andra Maria! Zer diñozu, Santi?

Kat.— Ez da egia orrek diñoana. Jaungoikoak berak daki gu zer modutan egon garean. Bera ipinten dot lekukotzat. Eta zu, Santi, ez neban asko uste olako doillorra ta biurria ziñanik!!

Jon.— Baiña, zer jazo da, benetan bere?

Txo.— Jaun eta androk, emen ez da ezer bere jazo, Santi ori agertu arte. Gu bakean egon gara, ortxe jesarrita berbetan eta berbetan. Esan begie, ostantzean, Julen-ek eta zerak, Iñese-k.

Sant.— Ez da naikoa zuen berbea. Neuk ikusi dodana ezin leist iñok ukatu.

Jul.— Nik neuk, Txomin-en esana siñistuten dot.

Kat.— Orixe da izan bere, egia. Ointxe il bear ba neu, bere!

Sant.— Orra or neskatilearen galdumendia. Ta guzurra esan ganera!

Txo.— Euskaldun al zara zu, orren petrala izateko? Nun azia zara zeu?

Jon.— Bakea egin daigun. Tira! Bakoitxa bere aldetik beioa. Julen: Zuk ezagutzen al dozu gazte au?

Jul.— Bai, aspaldion ezagutzen dot.

Jon.— Ba, bigarrenez agertu da ona, bazterrak nastauten.

Jul.— Gaur ez ekarren orrek, zintzotasuna baiño besterik.

Sant.— Zu bere, orrentarra al zara, Julen?

Jul.— Ez, ni ez naiz aldatu. Baiña egiaren alde egin bear danean...

Sant.— Eta zu, Katalin, zetan da gure zera, zure beremoduko berba orreen ostean?

Kat.— Beaztunak ganezka egin deutsu, eta nire izen onaren kaltez, guzurrezko iraiña erein dozu gure lurraldean. Ez zara duin zu nigaz izateko. Nai baldin ba dozu, biar itzegingo dogu.

Mad.— Zure burua ondo al dago, Katalin?

Kat.— Amatxu, burua argi daukat, Jaunari eskerrak; eta barrua garbi.

Jon.— Argituko ete dogu ba, gaurko... zera, Txomin orren etorrerea?

Kat.— Neugana etorri da, eta zeugana bere bai ain zuzen, Jon.

Jon.— Ez dot txistik ere ulertzen.

Kat.— Neuk jakiñerazoko deutsut laster.

Mad.— Zatoz gaur geurera, Jon.

Kat.— Bai, datozala gabon-egiten.

(SANTI BEIOA LENENGO. TXOMIN-EK MUN EGIN BEGIO ESKUGANEAN KATALIN-ERI, ETA BEIOAZ ALKARREGAZ BASTE BIDETIK, TXOMIN ETA

JULEN. ENPARAUKOAK ALDEGIN ETA SIMON ETA MAIÑASI LOTU BEITEZ BAKARRIK)

6
SIMON ETA MAIÑASI. GERO, JON

Maiñasi.— Emengo zarraparreaz, oindiño bere, dardaraz, ikaraka nago.

Sim.— Bai, onelako nasteakaz ez gara zaartzarora elduko.

Mai.— Zeeer? Zaartzaro kontak dagoeneko, geure... zera egin bear dogula-ta.

Sim.— Bestelako poza emoten deustazu, laster zertuko gareala diraustazunean.

Mai.— Nik ez dot lasterrekorik esan. Eta ganera (ISIL)... ori... zeuk adierazo bear deustazun zera da.

Sim.— Bildurra asten yat dantzan, burutik beatzetaraiño.

Mai.— Bildurra dantzan ostera? Eta zergaitik ba? Jan egingo ete zaitut?

Sim.— Jan ez, baiña...

Mai.— Ze baiña, orduan?

Sim.— Niri kanta zaarrak gomutautean, barru osoa ikaraka jarten yat.

"Ezkondu nintzan ezkondu,
bai neu sarri damutu;
praka baltzetan ari zuria
sekula etxat faltatu"...

Mai.— Tentelkeriak! Mutil zaarren batek asmaua izango da ori.

Sim.— Ez asarratu ba.

Mai.— Zeugaz asarratu? Ta nor topau nei beste obarik, zeu galdu ezkero?

Sim.— Ai, neure lagungarri samurra! Neure potxolomendi!! (ZIRRI EGIN NAI DEUTSA)

Mai.— Tira, tira, eskuok geldi or gerri inguruon, or ez dabil ardirik--eta.

Sim.— Aaaai!

Mai.— Zer? Min al dozu?

Sim.— Zeugaz onen gustora egonik, aztu egin yat nekarren mandatua.

Mai.— Neuretzako mandatua? Ez al deustazu hainbeste bidar egin ba?

Sim.— Ez, Jon-entzat da. Aren alabeak emon deustan mezua, errekadua. Umetxu bategaz dago an beeko ostatuan.

Mai.— Bai? Goazan ba ariñak arin, gure ugazabarengana.

Sim.— Auxe be, ba da ba burua, emakumeak bidean topau ezkero, agur nire mandatuak!

Mai.— Edozein emakume ez da izango, gero?

Sim.— Ai ez, ori ez! Zeu esan gura neban...

Jon.— (AGERTUAZ) Zertzuk kontu darabiltzazuez zuek bere, emen?

Mai.— Zeure billa dator au, jauna.

Jon.— Au bere nire billa? Ze arraio egun darabilgu ba gaur? Eta zer bear dozu ba?

Sim.— An beeko ostatuan, zerean, Martin Garaikonean, zure alabea dala-ta, emakume gazte bat dago, umetxu bategaz. Eta, zuk baimena emon ezkero, etxera nai leukeala, besterik ezean gabon egiten. Bere denpora guztian lez. Umetxua ganera, makalik dauko, eta ez ondo bere, urrean...

Jon.— Bere izenik esan al deutsu?

Sim.— Bai. Elisabete, eta seintxua, Xabiertxu.

Jon.— Neure illobatxu gizarajoa!

Sim.— Baietza artu baleie...

Jon.— Ez dakit zer esan... Ander-en gomutea bere, emen darabille auzokoak, eta orain alabea eta illobatxua... Ene Jaungoikoa!

Mai.— A bera, pozik egon da etxerako, ez da mirari-ta...

Jon.— Ez, ez da mirari, baiña egindakoa? Iñok bialdu al eban? Nortzuk joan ete zirean igesi, aita bertanbeera utzirik...?

Mai.— Elisabete gaisoa! Niri neuri, erruki aundia (NEGARREZ) bai, erruki aundia emoten deust-eta, nik egia dirautsut...

Jon.— Tira ba. Datorrela. Zoaz bertatik. Datozala biak, datozala zeuk lagunduta.

Sim.— Bereala, Jon jauna. (BEIOA)

Mai.— Eta... bestea ez al da agertuko onatz?

Jon.— Beste alper ori, senar ganorabako ori? Ez dogu emen bear. Alperrik ez da bein bere gure odolekoen artean izan.

Mai.— Gauaro ederra gertauko yaku, zorionen batean.

Jon.— (GORANTZ BEGIRA, GELDIRO ESANAZ) Eta zu, Ander maitea, ez al zara, gogoz behintzat gau onetan gureganatuko?

(MUSIKEA. IX. KANTUA. ISILKIRO, ERRIKOIA DOGUN "ATOR ATOR MUTIL, ETXERA" abestia, lenengoan samur eta BIGUN ASIKO DA, ETA KORUAK GERO TA SENDOAGO JARRAITUKO DAU ABESTUTEN.

ANTZEZTOKIAN GAZTEAK IGAROKO DIRA, BANAKA, BIÑAKA, ALDRAN, SORBALDAN ETA BIZKARREAN MAKALLAU, BESIGU, BOTEILIA ETA ABAR DITUELA.

KANTUARI IRABIAKETA ETA ABESALDI BATZUK EGIN ONDOREAN, OIALA JATSI ASTIRO).

BIGARREN EKITALDIAREN AMAIA

IRUGARREN EKITALDIA

(JON-EN BASETXEKO SUETEA. BIGARREN EKITALDIAREN JARRAIAN DA GERTAKARIA)

I
MADALEN ETA JON

KORUA.—

Seaska zaarrak leku barri gaur;
antzu toki zanak barruan gure aur.
Sinisgarria da
aldapen eder au,
leengo lazturea
pozak garaitu dau.

Zelan
leengo idor antza
orain
emoien opari?
emen da aladakuntza,
poza
guretzat mirari.

Orra, Jon, auzorik zintzoena,
lur-maite, asaben antzera,
goranai eredurik onena,
zaarren irudi betea.

Aurrera!
gazteen ardurea,
aurrera!
barrien kemena,
geroa
euren eskuetan da,
betiro
biotzen taupadak.

Zelan
leengo idor antza
orain
emoien opari?
emen izan da aldakuntza,
poza
guretzat iturri.

Aurrera! gazteen ardurea,
aurrera! barrien kemena...!

Mad.— Bearrekoa dogu, seaskatxua lenbailen ekartea.
Jon.— Nun ete dago seaska zaarra? Ganbaran edo...
Mad.— Pentsauta bere! Etxe onetan gaur berton umetxu barria izango dana? Ez zagoz pozik, Jon?
Jon.— Uste ustebako zerak, zarrada aundia egiten deust barruan. Kumatxua zedenak eta pipiak janda ez al dago?
Mad.— Zu zoaz billa eta... Gauza ezpa litz, besteren bat aurkitu bearko.
Jon.— Nok esan eukean...
Mad.— Bizitzako gorabeerak dituzu, Jon. Ba dakizu esaerea: biziak alkar ikusi.
Jon.— Zuk, ostera, sorgiñen bateaz edo dozu artu-emona. Ai, ai, ai! (GOZARO) Azkenean bere, zuk zeureaz urten. (BEIOA)
Mad.— Seaskea bakarrik ez da naikoa, barriz. Izaratxuak, burusiak, burrukotxua; ardi-narrua, azpian ipinteko... Geuretik ekarri bearko dodaz. Tira! Jon-en bideak arteztuko dira. Ez dago orain leen lez, bere burua eta beste seniderik ez inguruan. Bein ona ezkero, ez da joango Elisabete. Nora joan baserritik? Kalera ain zuzen, goseak gogortuta bizi izateko? Eta gure alabak, zer? Zer egingo ete dau

Santi-k? Katalin-ek gogor-samar artu dau. Baiña mutil ori ez da mutil ona. Guzurra esan modu orretan, bere emaztegaiaren kaltez? Eta or dago untzea: ezkontzeko berbea erdi emonik dagoz egon... gurasoak, baiezkoan egon gara eta orain... Ez dakit. Emen dator aitita. Onen zoriona gaur!

Jon.— (AGERTU BEDI, SEASKEA BESAPEAN DAUALA) Madaaaalen! Ona emen gure umeen seaskatxua!

Mad.— Eta orain, umeen umeena izango dana! (MANTAR BATEZ SEASKEARI AUTSA KENDUAZ)

Jon.— Ez dakit noraiño elduko dan nire egonarria... eta gure alabearen damutasuna.

Mad.— Ez zaitez arbindu, Jon. Neuk ditut orain buruausteak, neuk!

Jon.— Zergaitik?

Mad.— Neure alabeagaitik. Bildur aundiak jo nau.

Jon.— Zer ba?

Mad.— Nire suingei Santi ori, edozer egiteko gertu ikusi dot.

Jon.— Ez da ausartuko olakorik egiten.

Sant.— Ez da ori biar arte baketan egongo.

Jon.— Etxera joan izango zan. Egurra batu bear dot or etxabean, sutondorako. Ba noa.

Mad.— Ez zaitez urrunera joan. Bildur naiz!

2
MADALEN ETA KATALIN. GERO, JON

Mad.— (SEASKA BAZTER BATEAN JARRIAZ) Ementxen egongo da aukeran. Noiz izango ete dot nik illobatxuren bat ezagutzeko eretia?

Kat.— (AGERTUAZ) Ama! Ama!

Mad.— Emen nagotzu, ene alabea!

Kat.— Izara txiki bi dakartsudaz. Egokiak izango ete dira?

Mad.— Bai, Katalin. Pozaren eta negargurearen zera yabilt barruan. Sentimentu biok batean, nastauta lez.

Kat.— Negargurea, zegaitik?

Mad.— Zeugaitik. Zelan gelldituko zuen artekoa? Santi barriro etorriko da.

Kat.— Biar arte, gaba dogu bitarte.

Mad.— Ez. Ori, gaur gabeon agertuko da barriren barri, ziur asko.

Kat.— Zelan dakizu?

Mad.— Jakin neuk. Ama gareanok gauza asko igarten dogu. Zer esateko ustea dozu?

Kat.— Ezer baiño leen, parke-eskatu bearko deust danen aurrean ganera.

Mad.— Egingo ete dau orrenbeste?

Kat.— Ez dagiala egin, gura ezpa dau... Olan ba da, ez yat bapere ardurarik izango agaitik.

Mad.— Katalin: zuri... beste ori...

Kat.— Bai, ama, egia diñozu. Ain da bestelakoa Santi-ren ikusian...

Mad.— Gazteen berotasunak! Ezagutu bere ez dozu egiten bera ondo eta... Eldubarria besterik ez da. Eta ganera, ez da baserritarra; ez da guretarra...

Kat.— Jatorria, ama, ez da sarritan osoro aintzat artu bear. Ba dakigu mendiko askok zer egin oi daben, eta zelakoak direan be bai.

Mad.— Santi-ren gurasoak zeresango ete leukee?

Kat.— Ama! Gurasoak antziña ezkondu zirean. Orain egitekoak geu gara, ezkongei gagozanok.

Mad.— Olan izango da, baiña, ni bildur naiz.

Kat.— Ni ez, amatxu. Ikusiko dozu. Zeruak lagunduko deusku. Ni ez nintzake gauza izango, mutil orren menpean egoteko, entzun ditudanak entzunda gero.

Mad.— Maitetasunak erazotako berbak zirean, zelo-esanak.

Kat.— Maitetasunezkoak ala jauntxokeriazkoak?

Jon.— (AGERTU BEDI, BESARKADA EGURRAZ) Atartean utzi dot gehiago, eta oneek... Kontxo! Kumatxua apainduta daust ikusi! Onik elduko al dira, laga bear ez eban baztertxu onetara!

(MUSIKEA. XI-gn KANTUA)

Jon.— Dardara batean
asi yat biotza,
atsegiñez nago
ta oiñazez, lotsa.
Bateratsu ditut
nekea ta poza.
Izarrenartean
odeiaren baltza,
barealdi ondoz
izuikara latza.

Mad.— Nasaitu biotza,
Jon adiskidea,
inguruan dozu
gaur nasaipidea.
Or da zeru-ertza
mendien ostean,
ta ezin ikusi
guk nai ainbestean.
Zerak antz barria
une bakoitxean.

Kat.— Nire barruan
zerbait barria
irakiñean
daukat ziñez,
ezelan bere
ezin baretu
urduritasun
ta samiñez.
Ondatu beitez
gaiztoak eta
egun obeak
betoz eurrez,
itxaropenak
etorkizuna
argitu begist
niri aurrez.

Jon.— Zelan diñozu,
Katalin txiki,
itxaro berba
samur ori?

Mad.— Aldi illunari
agur eginda,
izar barriak
bekar argi.

Mad.— Gazteen sua,
etxeko jauna,
zarrok ezin
geuregandu.

Jon.— Ai, gaztetako
zanaldi bero,
zaartzaroan
guk ba gendu!

Mad.— (SAMUR)
Nasaitu biotzak, etxeko guztiok,
Erbestetik datoz gaur ama-semeok.
Leen utziriko kabi epel gozo,
gertau daioegun, atsegin, eroso.
Illuntze egokian, zidor estuetan
ez begie idoro asunik ertzetan.
Eta aingeru zintzoen begirapenetan
onik eldu bekiguz, bakez, Gabonetan.

3
LEENGOAK ETA SIMON

Simon.— (AGERTUAZ) Unadatxu bat, eta laster elduko yatzuez ama--semeok.
Mad.— Jesarri zaitez or Simon, atsen egiteko.
Sim.— Eskerrik asko. (JESARRIAZ)
Mad.— Beste zerak ekarri bear dozu, Katalin.
Jon.— Neuk lagunduko deutsuet. Zagoz emen apurtxu baten. Simon.

(BEIOAZ JON, MADALEN ETA KATALIN)

Sim.— (INGURUETARA BEGIRA) Kontxo!! Aker adarra! Orra or, kumatxu zarra, bere lanean ekiteko gertu barriro bere. Orixe bai! Nik bere, gura neuke ba olako zeren bat ikusi laster.

4
SIMON ETA MAIÑASI

Mai.— Gabon! Ave Maria puxima!... Ez dago iñor emen, ala?
Sim.— Gu zer ete gara ba, iñor ez-ta?
Mai.— Enei! Bai aukera atsegiña bere! Ez al zara ba zu joan, an beeko ostaturaiño?
Sim.— Joan? Baita etorri bere! (ZUTUNDUAZ)

Mai.— Oindiño bizkorrak euki zuk oiñak.
Sim.— Oiñak ezeze, baita zera bere.
Mai.— Zer gero?
Sim.— Biotza, maite biotza. Orixe bere, ba da ba, konpiantza lar ez izatea.
Mai.— (ZIPLAKA) Konpiantza larregi, ez da onuragarri.
Sim.— Ezin esan ete leiteke ezer txantxetan?
Mai.— Baiña, noiz ezkonduko garean, txantxetan bere, ez deustazu esaten. Eta, noiz arte onelan?
Sim.— Zera, ba... dirua aurreratuten diardut eta...
Mai.— Ai, neure jaietarako santu motza!
Sim.— Ai, neure biotzeko abarketa zaarra!!...
Mai.— (ASARRE) Zeeeer? Zer diraustazu?
Sim.— (BILDUR) Ez, ezebez, ezebez...!

(MUSIKA ARIÑA ASIKO DA. XII-gn KANTUA)

Sim.— Laster dogu
Maiñasitxu,
gure eztegu
eguna,
sekulako
jai aundiaz
ospatuko
doguna.
Soiñu eder,
janari on,
edari ta lurruna,
baserrian
izango da
noizbait eurrez
jatuna.
Mai.— Zorionen
batean be
entzun deutsut
berbea,
aspaldion
gura neban
berba gozo

betea.
Asiko naiz
laster josten
jakea ta
gonea,
beste gauzak
ba daukadaz:
mantak eta
oea.

Sim.— Geure maite-
-ordu ori
eldu dedin
artean,
biok libre
bizi gara:
goian zu, ni
an beian.
Noizean bein
zu eta ni
autu labur
batean,
alkarregaz
egon ezik...
beti gertu
zagoz zu.
Orregaitik
ontxe berton
esan bear
deustazu,
ostantzean
edonogaz
asiko naiz
jo ta su.

Biok.— Laster dogu,
bai orixe,
gure eztegu
eguna,
sekulako

jai aundiaz
ospatuko
doguna.
Soiñu eder,
janari on,
edari ta
lurruna,
baserrian
bai orduan
ugari be
jatuna...!

(ALKARRI ESKUAK ESTUTUAZ, ALDEGIN BEGIE BARRURANTZ)

5
KATALIN ETA JON. GERO, MAIÑASI, ELISABETE TA IÑESE.

Kat.— Or dabiltz orrek pozik. Mutil-zaar ta neskazaar orain arte; orain barriz, emeretzi urteko pospolin biurtuta...! Bai, urteak kendu ezkero, bardin bardin.

Jon.— (AGERTUAZ) Goikoaz beera aldatu bear ditugu gaur etxeko zerak.

Kat.— Umetxua osatu daiteala ta, or konpon.

Jon.— Gorabeera aundiak ditugunean, zeregin guztiak ezereza aiñakoak oi dira. Kezkak, kezka aundiak. Ba dakit zuk bere, zeurea dozuna. Neuk bere ba ditut larritasun eta arbintsunak.

Kat.— Oiñazea da izan bere, bure ibillaldi onen ezaugarria.

Jon.— (GARTSU) Bakarrik nengoan eta bakartade ori ezereztu leuskidana, neugandik ain urre ikusten nebalako, asmoa agertu neutsan andra santu orreri. Etzetz biribilla jaso neban, eta nire zauria, itxi bearrean zabalago, minberatsuago biurtu yatan. Baiña, emakume arek, orrezaz ganera, nire okerra erakutsi gura eustan eta itxaropen bidean jarri nai izan ninduan, eta orra, bakartade axe, urrean gaur amaitu urren dala deritxat. Behintzat, orixe siñistuta bizi naiz illuntze onetan. Nire esker ona izango dau beti bai beti, auzokide zintzo orrek. Nogaz diardudan ba dakizula-ta nago.

Kat.— Ama gurea aitatzen dozu, ezta?

Jon.— Bai, zeuen ama. Ama on, etxea betekoa. Gaurko nire pozaren pare, ostera, zuen amaren oiñazea dakust orain, eta zeu zareala-ta, batez be, Katalin.

Kat.— Olantxe da izan. Baiña zeuk bere entzun dituzu entzun, Santiren beremoduko berbak, guzurrezkoak ganera.

Jon.— Maitetasunak sarritan itsutu egiten gaitu-ta.

Kat.— Ez dakit zeren giñoan. Santi-ren autorpen zital ori, iraiña da niretzat. Biotz-barruan zauria urratu deust.

Jon.— Zauriak denporaz, osatu egin oi dira.

Kat.— Zelakoak direan, Jon.

Maiñasi.— (AGERTUAZ, ETA BERE ONDOREN DATORRENARI ESANAZ:) Aurrera,

Eli. Ementxen egongo da nunbaiten zuen aita. Katalin bere, ementxe da. (ELISABETE AGER BEDI)

Kat.— (BEIOA ELISABETE LAZTANTZERA) Ene, Elisabete!!

Iñese.— (AGERTUAZ) (SEIÑA BESOETAN BEKAR) Emen umetxua bere! Jon: ona emen nun dozun zure ondorengoa!

Eli.— (JON-ENGANA BEIOA, ETA LAZTANDU) Aiiitta! Aitatxu! (ASPERENEZ)

Jon.— Zeu, ene alaba laztan ori! Eldu zara, eldu, azkenan bere...!

Kat.— Ekarridazu, Iñese, ume eder ori neure besoetara.

Iñe.— Bai polita dana! Gaisoa...!

Kat.— (SEIÑA ARTUAZ) Ipiñi ondo, zabaldu izarok! Olantxe. Ea, ba.

Iñe.— Lo dagoala uste dot.

(SEASKAN UTZI BEGIE SEIÑA)

Mai.— (KUMARA BEGIRAKA) Olango aingerutxurik! Urizarko usakumatxua!

Eli.— Sarrakioa yabilt biozpean, osatuko ez ete daneko bildurrez.

Iñe.— Guztiok zainduko dogu.

Kat.— Ez bildurrik izan.

Iñe.— Xabiertxu! Aititak zuri, zer ez ete deutsu emongo, Xabiertxu? Geure etxeko babalorea! Pospolin maite maitea!!

Jon.— (KUMALDERANTZ, MALKOAK ESKUGANEAZ LEGORTUAZ) Ene illobatxu Xabier! Bai berandu ezagutu zaitudana!...

(BEGIRALDI LUZE. ISILLUNEA. MUN EGIN BEGIO SEIÑARI KUMAN).

Mai.— Ai, nok negarrik ez egin, onelako pozgarriaz?

(AMANTAL-MUTURRA BEGIETARATU, NEGAR-ANPULUA LEGORTU NAIRIK)

Jon.— Elisabete, badakizu: aitaren etxean zagoz, aitaren eta amaren etxean, zure jaiotetxean.

Eli.— Parkatuten al deustazu nire arinkeria?

Jon.— Ander zure nebea zanaren bake-gogoa dabil gaur ementxe. Aren asmo ederren barri jakin dot. Azi ona erein eban bere bizitza laburrean, eta orregaitik eldu zara gaur nire besoetara eta zeure etxera.

Eli.— Emendik gora, gurasoen oiturazko bizitzan jarraitu nai neuke.

Mai.— Beste batzuk, ai, kalera joan bearko dogun arren.

Kat.— Kalera joan?

Mai.— Simon-egaz ezkondu banadi, ni bai beiñepein, kalera joan bear!

Kat.— Elorrioak!!

Jon.— Sasoirik ezagaitik ez da izango, behintzat.

Mai.— Bai, ondo pentsau dogu-ta... ezin atzerarik egin onezkero!

6
LEENGOAK ETA MADALEN

Mad.— (AGER BEDI) Elisabete! Zatoz ene besoetara! (LAZTANDUAZ) Andra Mariak ekarri zaitue zeuen lekutxura, eurak Belen-go zerera joan zirean legez. Jon: emen dozu zeure alaba bakarra, zeure laguna, albokoa, itxaropena, zeure ondorengoa! Eta... (SEASKARANTZ BEIOA) Ene ba! Geure mutil pospola! Urizargoiko lora txanbeliña! Lo zagoz, maitea, lo? (ISILLAGO) Elisabete: zelan dago zure seintxu au? Sukarrik ba al dau?

Eli.— Loak artu deust bidean. Gaur ezer artu barik dago egun osoan. Bularrik gura bere ez!

Mad.— Kantau egingo deutsat, lo egin dagian nasai.

(MUSIKEA. XII-gn. KANTUA) ("LAUAXETA"-ren BERBAK)

"Txalopin txalo
Katutxuba zugatzean dago,
zugatzean ba dago, bego.
Pozez beterik
soñuba joten dau katutxuak,
eztagijen negarrik aurrak.

Umiak lolo,
katubak dantza.
Bitarte onetan amak
txukun jarri dau ezkatza.

Seaskan dago
umetxuma gora begira,
begijan lorak ager dira.
gotzonak dabiltz
umetxu orren inguruban
barre dagijan lolo orduban.
Txalopin txalo
Katutxuba zugatzean dago,
zugatzean ba dago, bego.
Umiak dagilako lolo,
dagilako lolo, lo."

Lo, lo! Lo, lo!
ene kutuntxu orrek egizu orain lo,
maitagrriak datoz egaka onaiño.
Goian izarrak dagoz, seaskan seintxua,
Zidarrezko
Lo-o! Lo-o!

Aititak irribarre, amatxuak negarra,
Gure seintxu onentzat biok maitegarra;
Zomorruak urrundu urrundu sorgiñak,
Ormarte onetantxe eurrez atsegiñak.
Lo-o! Lo-o!
Lo!

(MUSIKEAK JARRAI BEGI, URRENGO ERREZITADU AU ESAN DAGIAN SAMUR ETA SENDORO ELISABETE-K, MUSIKAGAIN:)

Eli.— Ai, ene biotzaren eztanda bearra!
barruan zauskadea begian negarra...!
Semetxu bat Jainkoak emon deust oraintsu,
Nire biotz zatia, ene poz argitsu.
Goizetan dirdira da, gabaz izarratu,
oiñazez nagonetan onexek ni poztu.

Erraietako seme, itxaropen bakar,
beronen maitasunak sortetxera nakar.

Ekaitxaldian beti itsasoak apar,
baretu arteraiño emen daukat baztar.
Manu ene senarra igesi joan yat...
Arinkeriz bai artu neban olako bat!

Uri aundian goian, ganbara batean
gure bizimodua, bear gogorrean.
Baiñan, alanbearrez, ori naiko ez zan,
ta ene Xabiertxu, geisoak jo eban.

Xabiertxu geisotu ta ordutik pozak
Ez dau nigan lekurik, bai neke mingotsak.
Argi au illundu yat, zimeldu larrosak;
zinkuriña ta aiena dira nire otsak.

Egun osoan goibel onen begitxuak,
ta bularrik ez gura, ene semetxuak.

Baiña orain, orra ba, eldu yako loa.
Arnasaz bare dabil, geldi oin-eskuak.
Ai, ene ba da ene, ai Jaun zerukoak
Samur jaos al ba leiz begion malkoak!...

(MUSIKEA BARE-BARE ISILDU)

7
LEENGOAK ETA SIMON ETA MANU

Mad.— Umetxuaren loa, bare ta gozatsua dala-ta nago.
Mai.— Polito dago gero, egon bere. Osatuko da bai! Neuk erabilliko dot zelairik zelai, motarik mota, neuk oillotxuak erakusten, neuk.

(ATEAN OTS ETA ISILLALDI) (OTS BARRIRO)

Iñe.— Ene, nor ete da ain iradu?
Mad.— Bildur naiz. Santi izango da. Zer egingo dogu orain?
Jon.— Santi? Bere asarrea erakusten zemaiez ete dator ba?
Kat.— Gure amaren burutapena dozu ori.

Jon.— Eta gizonezkorik neu bakarrik nago emen. Tira! Ez dago ardurarik. Edegi ate ori!

Mad.— Neu joango naiz atera. Katalin, zoaz zu Jon-en ondora.

(MADALEN-EK ATEA EDEGI BEGI)

Sim.— (AGERTUAZ) Gabon eta barri on, etxekuok!

Mad.— Zeu zara, Simon?

Sim.— Bai bat. Nun dago Elisabete, eta etxeko jauna?

Eli.— Emen nago.

Jon.— Zer nai dozu?

Sim.— Zera... lengo mandatua ontzat eta aintzat artu dozu-ta, orain beste bat...

Jon.— Zeuk esango dozu.

Sim.— Ortxe dago Manu, atartean. Zeure senarra, Eli. Zeure suiña, Jon. Parkeske dago eta erreguz...

Jon.— Egonarria Jaunak emongo al deusku emon!... Zer diraustazu Elisabete, ene alaba orrek? Gaur ez da ain zuzen asarrezko eguna.

Eli.— Etxe au, aita, zeurea da.

Jon.— Eta or dagoan ori... zeure senarra, biziarte guztirako. Ama Errukitsu orrek, zaindu gagizuz! Datorrela Manu; bai, betor ordu onean, bake-guraz datorrena. (BEIOA SIMON)

Eli.— (JON BESARKATUKO DAU) Aiiitta! Eskerrik asko! Maite gaituzu oindiño bere!

Mad.— Gurasoen erraietan, betirako da izan, semeenganako maitetasuna.

Sim.— (AGERTUAZ) Aurrera, Manu baimena eskeiñi deutsue-ta.

Manu.— (SOIÑEKO PURTZILLEZ JANTZITA, APALKIRO) Gabon... eta bakea etxe onetakoai.

Jon.— Olantxe ekarri daizula zeure emaztearen jaiotetxera!

Manu.— Elisabete: parkatu nire zazkel-antz au!

Eli.— Isilik orain, Manu. Gure umetxua txarto dago. Guztiok batean otoi egin daigun Xabiertxuren osasuna...

(ATEOSKA BARRIRO. GUZTIAK ISILLIK UNE LABURREZ)

Kat.— Ene! Barriro datoz ate-joka! Ama, ama!

Mad.— Oraingoan bai; bera da.

Kat.— Santi al da? Ene Jaungoiko maitea!

Jon.— Ostera bere, naste billa agertuko ete yaku?

(ATEOTSA BARRIREN BARRI)

Sim.— Ba dago emen gizona ugari eta... burrukabilla ba letor...!

(UKABILLAK BATUAZ)

Mad.— Neu noa atera, ostera be.

Sim.— Ez, andrarik ez. Neu noa, eta Jon neure ondorik... zer gertauko bere!

8
LEENGOAK ETA TXOMIN ETA OSAGILLEA

Sim.— (ERDI URTENAZ ETA BILDURRA UXATU NAIRIK, ZARATAKA) Nor datorrela ona illunetan eta ordu onetan?

Txo.— Geu gara. Neu Txomin, eta beste au, lagun on bat.

Sim.— Arnasa egin daigun.

Kat.— Ene, auxe da poza!

Txo.— (AGERTUAZ) Zelan dago umetxua? Gabon guztioi!

Mad.— Lo dago egon. Eta nor da beste ori?

Txo.— Aurrera, Medikua da, neure adiskide zintzoa.

Eli.— Jesus maitea, bedeinkatua izan bedi Zeure izena!

Jon.— Ondo etorria, jauna.

Osagille.— (AGERTUAZ) Gabon guztioi!

Txo.— Katalin, zu bere emen?

(OSAGILLEA BEIOA ELISABETEGAZ SEIÑA IKUSTEN)

Kat.— Zelan jazo da guzti au, baiña?

Txo.— Ikusten dozun lez. Beerantz joan naizenean ikusi ditut ama--semeak eta jakinguratxua izan ba, ta zer dan edo zer eztan jakin egin dot guztia. Orren billa asi naiz, eta beingoan abiau gara onuntz. Ez dago emen ezer ulertu eiñik, ezta? Ez al zagoz, orain ba, pozik?

Kat.— Ezin pozago, Txomin.

Txo.— Eta... zegaitik, Katalin?

Kat.— Ba dakizu... zeugaitik!!

(TXOMINE-EK ESKUTIK ORATU BEGIO KATALIN-I. ONEK, AMULTSUKI, IRRIBARRE GOZO)

(MUSIKEA. XIV-gn. KANTUA.)

Eli.— Zu ikustean
seaskatxuan
ames gozuan
irribarreka,
biotz nireko
atsekabeak
igesi doaz
arin, egaka.

Eta itzarturik,
zure begien
oztin garbia
nik ikustean,
alai ta pozez
aingeru lez
zakustaz beti
beso-artean.

Ene laztan,
ene kutuna,
eutsi ugatza,
eutsi mosua!
Edan eidazu
asetu arte,
neure odola,
neure gozua.

KORUAK.—

Bakotxak dauka bere lillura,
naikoa dogu negarrik...
Urizargoiko mutil poxpola
osatuko da oraindik.
Lora txanbelin, izar argiaz
guztiok pozez beterik,
ez da egoki, iñoiz ez iñoiz,
itxaropen agaltzerik.

Eli.— Ene laztana, ene kutuna,
eutsi ugatza, eutsi mosua;

edan eidazu asetu arte,
neure odola, neure gozua.

Jon.— Alaba bakar, ene Elisabet,
zegaitik zabiz urduri?
Aitaren etxe txiki onetan
bai leku samur ta guri!
Urrnak berez oii dau lillura,
guzurrak eder arpegi;
utzi egizuz ames zoruok,
zaitez neugaz emen geldi.

KORUA.— Danok jagiko gara
lurrok zainduteko,
aintziñakoen lana
ez ondatuteko;
batzuk joango dira,
betoz urrengoak
nortzuk izango doguz
guk oiñordekoak?

(MUSIKEAK JARDUN, AZKEN-DOIÑUA GERTUTEKO)

Gure aitaren aititak eta
Jaso zituen etxeak,
mendi artean, uritik urrun
garbi gogoa ta aizea;
pago ta arta, gaztaiña ta aretx,
mendi ta errekarteak...
Emengoxeak jarten zituen
baserrirako legeak,
emengoxeak jarten zituen
baserrirako legeak.

AMAIA

AMANDARRIKUAK*

Antzerti-agerpenak.

Lenengo Txortia.

Eusebio Erkiaga-k bere eleberri "ARRANEGI"-tik artu eta beste zer geiagoaz atonduak dira, "estanpa" oneek. Lekeitio-n agertzeko idatziyak. Lenengo lau ataleko musikak, zaarrak dira.

Azkenengo biyetakuak, Iñazio Aretxabaleta abade jaunak asmau ditu; eta lenengo laurak, armonizau.

ANTZELAGUNAK

ZURIÑE
ARANTZA
MADALEN
IRENE
NERE

KOSEPANTONI
IÑESE

TIMUTI BELARRI "Gorua"
MIKELA BEGI "Gorutxapela"
ARTAZITXUNEKO ALARGUNA

NESKATILLA BATZUEK
NESKATO BATZUEK
ANDRA BATZUEK

ATSO BAT
BESTE ATSO BAT.

JONTXU (Mutil gaztiak)
KERMAN
XIRDO

SEBERI
ZINGULIN
OKOTZ
URPION
ZAZTAR

EGILUZ (Gizonak)
BIZKARRONDO
ITURRIOTZ
TXANTON BAIXA
LABAKO
SANTI ANPOLAI
TXUSPIN
ARANGORRI
AKEN (Lau mutiko okerrak)
ZOZPAL
EZTEN
KIRI
PERKAIN (Erriko auazilla)

---

* *Argitaratubakoa*, 1962.

MORDOILLO (Iru ordi)
KAREL
GOROSTI

GAZTE TA GIZON BATZUK.

JAZO-LEKUA: geure erri maitia, bertako izkera bigun eta gozua erabilliaz, ain zuzen be.

ALDIYA: Ointxe urte batzuk lehenago, edo... baiña, oraingo usain apurra emonaz, atal batzuetako esakeretan.

1-go Atala
TXALUPETXIAN

(ALDE BATERA TA BESTERA, MAIAK, ETA EUREN INGURU, JESARRITA, ARRANTZALEAK ETA BESTE GIZONAK. BARRIKETAN ETA ARDAUA EDATEN)

ARRANGORRI.— Igez be, ez genduan guk u, atun askorik artun; eta gero, neguan be, ez papardorik ez besigurik, eta kolayorik be, ez ain zuzen.

TXANTON.— Eta udabarriyan?

ARRAN.— Udabarriyan be, zer ba? Ze madarikato erabili yok ba, gure ontziyak? Dendako zorrak be, oindiño zuritu barik daukaguzala esan yeustak gaur goizion berton, gure atsuak.

SANTI.— Ba guk u, eztogu sardiñatan alako aukerarik izan, baiña besigu kosterarik mamiñena geuk egin yuagun, eta tira..., jo aurrera.

TXANTON.— Ba-daukat ba nik ba, aurtengo atunetiaren alakotxua. Eta gizonok, ba dakizue zegaitik? Ba onarte be, Goiko Manuel-ek, bata ezpa-da, bestia, beti emon deuskulako.

LABAPE.— Eztaukazu itxaropen txarra zeuk, laguntzarra.

TXANTON.— Esperantza barik, zer egingozu ba, mundu onetan?

ARRANGO.— Ori esan ba!

SANTI.— Itxasua daguan artian, arraiñak egongo dira-ta...

TXUSPIN.— Arraiñak? Itxasuan baiño liorrian ez ete dagoz orain, arrain andiyaguak?... (JUATEKO ZERA EGIÑAZ)

LABAPE.— Txuspin! Nora oia ain goiz?

TXUSPIN.— Andria yabik gurian erdi makalik, eta merikua be onik--onenian etxera yuangok-eta...

ARRANG.— Merikuak a, zuenian baiño toki obiagorik topauko yok!

TXUSP.— Bai, eu be ez aiz i etxezulo izango. Txalupetxian ik nayago, andriaren onduan baiño.

ARRANG— Ez ba!... Ori, len zuan, gaztiak gintzuazanian.

TXUSP.— Ai, alia! Or daukazue hogei urteko mutil gaztia. Atzo goizekua!

LABAPE.— Nok isildu eragin Txuspin-eri...!

KOSEPANTONI.— Tira ba, Txuspin; zuk ondo-ondo zaindu zeure emaztetxu laztana. Bera baiño lagun oberik, eztozu errez topauko.

TXUSP.— Ori esa ba! Ointxe be, gero, nayago dot nik neure Mikolasatxu beste iñor baiño. (TXUSPIN JOAN BEDI)

KOSEPA.— Zarra da ori! Gaztetan maitatua, ezta iñoiz be aztua. (KOSEPANTONIK BESTE MAIKUARI BE, ARDAUA ERUANGO DEUTSE, PITXAR ZURIYETAN.)

ITURRIOTZ.— Ai, ene Bizkarrondo maitia! Or zabiz zu beti zeure ames eder ederrok bete eziñik.

BIZKARRONDO.— Ezta egiya, ala?

ITURR.— Pelota-lekuari teillatua ipini biar yakola... Aspaldiko kontu zarrak dituk orrek! Zenbat urte ete da ori lenengo esan zala?

BIZKAR.— Biar bada, urte asko. Baiña oindiño be egin barik dago-ta, ezin isilik egon ba ni.

ITURR.— Ta, ez al dauko gure udalak dirurik nundik batu?

BIZKAR.— Euki ez? Ta ganera, ezpadago... eskatu daukonari.

EGILUZ.— Eta daukonak emoten ezpa-dau?

BIZKAR.— Dirua daukenak, era askotakuak dira. Ez zu ta ni, ta bestia bakarrik.

EGILUZ.— Tellatua egitia, ondo da, baiña lenengo, gauzak, biar dirian lez zertu biar litzatekez, ezta?

BIZKAR.— Aaamen bestia! Kristalezko aterpia egingo litzakiyo. Oin ganera, apurtuten eztiran kristalak yagozak. Ta ori egin ezkero, uda ta negu, egunez ala gabaz, or izango litzateke toki ederra pelotan egiteko, ta ikasteko, ez eskuz bakarrik, baita zestan eta palan be... Zegaitik ez ba?

ITURR.— Alako andiyak darabizuz buruan, laguntzarra.

BIZKAR.— Erabili biarko. Nik i, emongo neuke dirua zorko, frontoi dotore ta egokiya egitiarren.

EGILUZ.— Frontoia? Ta fubolerako zelaia be, zegaitik ez ba egin? Guria lako erri gitxi izango da, mutillak ostikoketan egiteko landa edo kanporik ez daukanik!

ITURR.— Egiya dok ori be! Domeketan eta jayetan edonun izaten ditue jokaldi ederrak, eta emen ezebez, ondarrian mariabera ezpadago...

BIZKAR.— Oin urte asko, gure erri maitian, sekulako zezentokiya egin eben, eta oin be, or dago. Bizkayan beste iñun ez lakua izan zan, eta ointxe be, Bilbokua kendu ezkero...

ITURR.— Bai, orduan, Lekitto, zeozer zan Bizkayan!

BIZKAR.— Ta gaur ez al dok ba? Esatia be...!

EGILUZ.— Len egin zan antzera, oin be, falta yakuzan gauzak egin biar gendukez. Eta eskolak eta, eskolak eta...! Ez gaituk beti atzeratuta biziko!

BIZKAR.— Ai, Egiluz maitia, ba-dakit nik ondotxu, zu lako errimaite asko ba lego, ori ta geyago be, egingo litzatekezena. Antxina be, egiteko zirian gauza asko, ta or gelditu zan egin barik, Gernikatik onaiño egiteko zan trena be...

ITURR.— Batzuk uste dabe trenak, gauza txarrak be ekarten dituala errira. Eta aparte bizi ezkero...

BIZKAR— Aparte bizi, madarikatua? Ori len zuan, len! Tximista gorriya! Or daukazak oin, zinia, televisiñoia, ta beste milla gauza. Etxagok oin gauzak trenian etorteko biarrizanik. Goitik yatozak; aidian, aizetan ziar, begiyak eta belarriyak betiaz.

EGILUZ.— Itxasuaz bakarrik gelditu gara. Olaldeko tximiniyak aspaldi arrakalatu zuazan. Erraiu inguruan etxuaguk industri barririk ipini. Otayo-barreneko masti zabalak, igartu ta ezereztu zuazan.

ITUR.— Oin udako txoriyak yatozak bidiak betian.

BIZKAR— Aldako txoriyak! Orrek, etorri ala, egiten dozak juan be!

(ARRANTZALE GAZTIAK AGERTU BEITEZ, ALAI TA POZEZ)

URPION.— Okotz-ek eztau olakorik sinistu be egingo. Baiña, Zaztarek atzo be, itxasuak beteko moskorra yeukan aldian; an, illuntze inguruan.

XIRDO.— Atzo be? Zer zala-ta?

ZAZTAR.— Leengusuaren lenengo umia batiatutia izan yuagun-ta...

XIRDO.— Aitabitxi izan al intzan?

ZAZTAR.— Aitabitxi ez, baiña...

OKOTZ.— Onek kosterarik galdu? Ezta, ezta!...

ZAZTAR.— Ba, esan nai izan dodan lez, aitabitxi ta biyok an beko Saguzarreneko zulora juan gintzuazan; ta egarri be bai ta, sargoreantza be bai ta, ardauari kirrua atara yeutsagun.

ZINGULIN.— Urrenguan be, treotzaria eztozu falta izango zuk. Olan nai al dozu zuk, Gonamotz-en alabaren bat zuritu? Ortxe egon gogor!

XIRDO.— Arenian, maikatxu baru ta egarri izango layeukek onek!

ZINGULIN.— Ori esan ba! Arenian, etxuek ardaurik edaten jai-egunian baiño, ta orduan be, neurriz, tientuz...!

SEBERI.— Auxe da barreguria! Ja, ja, ja, ja, ja, ja! Auxe da barreguria!! Ja, ja, ja, ja, ja, ja, ja!!

ZAZTAR.— Negar-guria baiño obia dok, beiñipein!

(MADALEN DATOR KALE-ALDETIK, TXAIRO TA EDER)

ZAZTAR.— Maadaaaalen! Emen gagoz gu topeko farola amatauta, nok biztuko ete deuskun begira!

XIRDO.— Txetxu bana mama gozo ekarten ba deuskuzu ekarri, bestelako mesedia guretzat.

MADALEN.— Orra ba! Onek mutillok etxera naizeneko, arnasia artzen be, ezteuste itxiko, urrian.

URPION.— Zatoz ona, eder ori! Erdia!... Gaur be, soiñeko barriya?

ZAZTAR.— Zer entzun dabe nire belarriyok? Erropa barriya daukala Madalentxu zoragarriyak! Orduan, busti daigun, busti daigun jantzi barriyori. Busti, busti, euririk ezta baiña.

MADALEN.— Soiñeko ta erropa barriya, diñozue? Batedobatek laster egin biarko ditu jantzi barriyak. E, Zingulin?

XIRDO.— Ezkon, ezkon...

SEBERRI.— ... erropa barriyak egiteko!

URPION.— An, an, Zingulin! Eztabela esango-ta!

(GAZTIAK MAI-INGURUAN JESARRI TA ARDAU EDAN BIYARTIAN, ASI BEITEZ KANTA-KANTARI. BESTE GIZON ZARRAGUAK, ADURRETAN, GAZTIEN KANTU EDERRAK ENTZUTEN)

OKOTZ.— Zer kantako dogu, Markesaren alaba?

XIRDO.— Ez, ori ez. Ori, gero.

"Zoriyoneko yaketia, ta
zoriyoneko gonia...

zoriyonian ikasi neban
kontsiyupera bidia...”

GOZARO: “Pasaten naizenian
Zure atetatik,
negarrak urteten deust
begi biyetatik.

XIRDO.— Berriz!!

“Pasaten naizenian
Zure atetatik,
negarrak urteten deust
begi biyetatik.

Zegaitik, zegaitik,
Zegaitik, zegaitik?
Zegaitik negar egin?
Zeruan izarra dago
Otayo aldetik...”

LENENGO ATALAREN AMAIA

2-gn Atala
KAIGANA INGURUAN

(TXALUPETXEKO ATEONDUAN, Madalen KALERA BEGIRA; MOILLARANTZ, OBETO ESAN. Nere AGERTUKO DA, PEDARRA BESAPIAN DABELA)

MADALEN.— Egunon, Nere. Auxe da poza! Ez zaitut ikusi goizian plazan.
NERE.— Ez, Madalentxu; ama izan da nire ordez.
MADA.— Baiña uren billa zeu zatoz...
NERE.— Eta olan, alkarregaz egon giñei.
MADALEN.— Ezta txarto esana. (BEGIRA) Nortzuk ete dira an Likona-Torre parian datozan mutil biyak?
NERE.— Nortzuk? Aretariko batek zuk baiño lenago jakingo leuke errira nor etorri dan, eta nor eztan.

MADA.— Tximista gorriya! Nogaitik ete diñostazu?

NERE— Nogaitik? Ointxe be, burua ondo orraztuta datorren Jontxu eniagaitik.

MADA.— Jon Bizkor? Morroia makala...!

NERE.— Kaza-txakur oberik be...

MADA.— Orduan, arraiña izan ba litz... izurdia. Laster arin atarako leuke arek arrantzua.

NERE.— Ori diñozu! Zu zeu be, ezara gero erreztua errez galtzen dozuna.

MADA.— Ai, ni baiño oberik ezpa lego... Ene penia bada-ta!

NERE.— Lengegunian, entzun neban nik zugaitik zeozer.

MADA.— Nok esanda?

NERE.— Nok esanda!... Txitxarrokaleko baten berbak izan zirian. Nayago neban egon ba ziña!

MADA.— Zeuk esanda be, bardin da, ezta?

NERE.— Ez, ezta bardin. Aren esatia ta niria eztira bardiñak. Egon nintzan zeozer erantzuteko, baiña azkenian, isilik geratu nintzan.

MADA.— Orduan, depentsore ona izan neban nik zugan, Nere!

NERE.— Barrerik egin barik!... Zegaitik dependido zindudazan, zeure gorapenak besterik ezirian izan-ta!

MADA.— Kezkaz bete nazu neu, gero, azkenen buruan ori esateko.

NERE.— Ixi! Zeozer esangotsegu orreri biyori.

MADA.— Zeuk esan, nai ba dozu.

NERE.— Bai, ta zuek entzun. Ointxe, ointxe. (KERMAN TA JON AGERTU BEITEZ)

NERE.— Nora zoiaze daguan beruaz?

KERMAN.— Eguraldiya ederra, ta jan nai ez!

NERE.— Jan, eztakit; baiña Madalen-ek eukiko dau zeozer zuen egarriya arinduteko.

JON.— Egarriya? Bai, ezta palta. Baiña emakumien egarririk eztaukagu, ain zuzen be.

NERE.— Eztabela esango-ta! Noruntz ete doiaz ointxe be, ateko bandan? Amandarriko kayuak ikusten, ala? Egingo neuke gonadun txoriren batzuek ez ete dagozan Tala-aldian.

MADA.— An, Kerman, zer diñuan onek!

KERMAN.— Nere-k, beti lez, berba egiteko gogotxua.

JON.— Berba egiteko bakarrik? Laster arin zabalduko leukez orrek sariak, ia arrain tartian geu be jausten garian.

NERE.— Ai, alia! Eurori begira gagozala uste izan ete dabe, anka luze, arpegi andiyok?

MADA.— Erdia! Erriyan besterik ezpa lego lez. Beteizu pedarrori urez, Nere, beteizu; euron gangar berbok entzuten egon barik. Eztaukagu ezer esateko.

KERMAN.— Orduan, isilik egon.

(MUTILLAK BEYOAZ TALARANTZ)

NERE.— Egoiari eu! Turrit, antxinakuak andriari, kortiñapetik. Erregiñaren alabaren batzuk egongo dira euron begira.

MADA.— Laster jakingo yonagu, ba. Igarri baietz!

NERE.— Ezetz!

MADA.— Igarri ez. Talarantz nortzuk joan dirian, ondotxu dakit. Ia zeuk igarten dozun. Gonadun bi izan dira. Bata, begi illunduna, baltzerana. Ezta Arranegi-kua.

NERE.— Ba dakit: Arantza. Atekua da bai, baiña emen sarri dagona.

MADA.— Bestia eztozu igarriko. Au, ezta baltzerana, ule oriztia da, begi argiya, azal zuriya.

NERE.— Ba dakit ori be. Ori ezta atekua, ori emendikua da: Arranegiko zabalekua. Bere izena, Zuriñe.

MADA.— Bai igarri be!

NERE.— Ai, Madalen! Nik ba dakit Jontxu noren atzian dabillen. Txanton Baixaren alaba ederra nai leuke arek. Baiña, ba dago or beste kontu bat be.

MAD.— Ze kontu?

NERE.— Txanton-ek baiño geyago, aren andriak, Iñese-k aginduten dabela.

MADA.— Ori etxe guztietako kontua da.

NERE.— Ez, gurian. Gurian, aitak aginduten dau beti.

MADA.— Bai, baiña gero... amak esan dabena egin. Ezpa genki be!...

NERE.— Dana dala; Zuriñe-neko amak asmu ta uzi andiyak ei ditu. Arrantzale-andria izateko, beti ei dago denporia.

MADA.— Ta, Jontxu, arrantzalia al da?

NERE.— Nik eztot esan danik ez eztanik, auxe baiño: Zuriñe eztotsela emongo Jontxu-ri.

MADA.— Jontxu bera be, ezta ba, bertan bera izateko modukua.

NERE.— Ola! Zeuri orixe berbiori entzuteko gogua izan dot.

MADA.— Zer ba?

NERE.— Zer baaa?... Jontxu-gaz zaletua ete zengozan nenguan-ta...

MADA.— Nik eztot ezer esan, gero!
NERE.— Baiña naikua agertu dozu.
MADA.— Sartu gaitezan barrura, ementxe datoz-ta.
NERE.— Txarto esanak parkatu, e? Madalen?
MADA.— Egon zaiz isilik oin, ikusi egin biar doguz-ta. (JON ETA ZURIÑE TA KERMAN ETA ARANTZA AGERTU BEITEZ TALA ALDETIK ONANTZ)
JON.— Nai dozue biar aurreskurako izan?
ZURIÑE.— Arantza-k esan dayala.
KERMAN.— Isilik daguanak, baietz diño.
ARANTZA.— Danok nai ba dozue?
ZURI.— Ta nortzuk geyago izango gara? Zein aurreskutarako?
JON.— Bigarren aurreskurako. Lenengo aurreskua, arrantzaliak bakarrik egingo dabe. Guk, bigarrena egingo dugu. Gabaz pentsauko dogu guztia, Madalen-eneko txalupetxian. Ezta, Kerman?
KERMAN.— Zarra da ori! Neskatillarik ederrenak, geutzat izango dira. Lenengo aurreskuan ez daitezela agertu be egin plazara. Ta gero, bigarrenian, bota barrura!!
ZURI.— Ori ezta ondo egiña!
KERMAN.— Baiña, zer? Guk geure arteko arrantzale gazte lagunak be, geugaz batian izango doguz; Xirdo-ta, aurreskulari! Nun bera baiño azkarragorik! Saso bateko Azkarrea-ta; Luixatxu Kaiganeko-ta...!
ZURI.— Ta atzeskua?
KERMAN.— Jontxu-k egingo dau.
ARANTZA.— Tira ba, olan ba da...
ZURI.— Ezin leike ezetzik esan! (LAU GAZTIOK BEYOAZ)

NERE.— (AGERTUAZ) Entzun dozu biyarko aurreskurako tratua? Nori atarako ete deutse Zuriñe, atzeskuari baiño? Jakiña ba! Jontxu-k ederto dakiz atzera-aurrera guztiak. Ederto darabil orrek Kerman, batetik bestera, bere arreba Arantza lagun dabela, Zuriñe arraintzuri ederra atrapau nayan.
MADA.— Ta, Zuriñe-k ez ete daki olakorik susmaten?
NERE.— Ez, jakin, ez. Bestiori be gustaten yaku gure atzian nonor dabillela jakitia. Ai, alia! Norentzat izango ete da Jontxu? Arentzat, zuretzat ala... niretzat? Aja, ja, ja, ja, ja, ja!!

(SANPEDRO-REN ZORTZIKUA ABESTUKO DABE BARRUAN. Arako "Zer diñoan" edota bai, "Kaixarranka", Aretxabaleta jaunaren lana, berbak Erkiaga-renak)

BIGARREN ATALAREN AMAIA

3-gn Atala:
AURRESKU-ONDORENA.

(ILLUNTZIA DA. AURRESKU AMAITU DA. LAGUN UGARI AGIRI DA YANTZARIARI BEGIRA. EMEN DATOZ ETORRI BE, YANTZARIOK, NESKA TA MUTIL: Xirdo, Arantza; Madalen, Irene, Nere, eta abar; eurokin, Kerman, Urpion, Seberi Totolo eta... Azkenez, Zuriñe ta Jontxu.)

(ANTZELEKUA ALDEREN-ALDE LAGUNOKIN BETERIK DAGUALA, KANTAU BEGIE:)

1 "Aro ona dago, kairantz goiazan,
kanpuan dabil iparra,
gaurkua da bai itxas-aldiya,
eztago tayua txarra.
Otzaratxua bat, otzaratxu bi,
arraiña dator portura beti:
besigu, lebatz, sardiña ta atun,
eta beste asko ganeti.

2 Palu, erremu, bela ta kordel
maziya ta ura bere bai,
sartu daiguzan txalupan laster
itxaron barik gizonai. OTZARATXU

3 Arrantzaliak barua ausita
kanpora doiaz zintzorik,
betoz guztiak osasunagaz
ta iñor bere ez gaisorik. OTZ...

4 Errira datoz iparraldetik
belak betian ontziyak,
ondo dirudi egun argitan
Belan dabillen ontziyak.

5 Berrogei arratz besigu dakaz
txalupa andiyak egiñak,
ogetamar bat txikerrak eta
larogei lebatz potiñak.

6 Erbaizeruak or goian dagoz
arraiñak ipinten narretan;
garbitu arin, lagundu daigun

asto ta mando zametan.
Otzaratxu bat, otzaratxu bi,
arraiña dator portura bti,
besigu, lebatz, sardiña ta atun,
eta beste asko ganeti."

(Eusebio María Azkuerenak)

(BITARTIN, ILLUNDU-SAMAR EGIN DA. LAGUNAK BEYOAZ, ETA ZURIÑE TA JONTXU GERATUKO DIRA BAKARRIK ANTZELEKUAN. GEROAGO TA ILLUNAGO)

JON.— Aspaldion ba darabit nik i, karga astuna ementxe.
ZURI.— Nun diñozu?
JON.— Nun? Ementxe. (BIYOTZ-GANIAN ESKUMAKO ESKUA JARRIYAZ)
ZURI.— Zuri be, biyotzeko miñak. Egiten al yatzuz?
JON.— Ai, alia, biyotzeko miñak. Ez gaisotuteko lain, baiña larrituteko bestian, eneuke ezetzik esango.
ZURI.— Eta, zegaitik ete da ori?
JON.— Zegaitik? Orixe ba!...
ZURI.— Medikuagana juan biarko dozu, ba.
JON.— Au osatu leien medikua, eztago urrun.
ZURI.— Bai, aurtxe, beste kantoian bizi da bat, guztiz ona bera.
JON.— Esan deutsut urre-urre dagola nik biar dodan medikua. Ezin urriago. Esan bijar neutsun, eta ointxe baiño ereti oberik...

(MIKELETA TA TIMUTI, ZELATEKA)

ZURI.— Esaizu, ba, esatekuori!
JON.— Ba... zera... asarrebide ezpa litz!
ZURI.— Ez gauza txarra ez baldin ba da.
JON.— Gauza txarrik zelan esan neizu nik zuri...maite zaitudala esango ba neutsu?
ZURI.— Ori da guztiori?
JON.— Guztia da, ba? Ala, nire esan au, egoki-eza dala uste al dozu?
ZURI.— Ez olakorik. Baiña uste-uste bako zera azaldu deustazu-ta...
JON.— Ba... len ezpazenkiyan be, orain ba dakizu-ta... ia zer diñostazun.
ZURI.— Zer esan? Zer esatia nai dozu ba? Erabatera ta itsumustuan erantzunik ezin emon neizu, jakin biar zenduke.
JON.— Orduan, zer? Beranduegi ete nabil?
ZURI.— Ai! Niri esana, beste zenbat geyagori be, ez ete deutsazu esan?
JON.— Baiña ez bene-benetan, zuri lez.
ZURI.— Tira ba! Olan izan dedilla; baiña... noian etxera, berandu be, bada-ta.
JON.— Orduan, biyar gabaz...
ZURI.— Biyarko barri, Jaungoikua-k daki. Gabon eta ondo lo egin!

(ZURIÑE-K BIZKOR IGESI DAU. JONTXU, BAKARRIK, ALDE BATERA BEGIRATU, GERO BESTERA, UKABILLAK ESTUTU, TA BEYOA. MIKELA TA TIMUTI AGERTUKO DIRA, ZELATEKA IBILI OSTIAN)

MIKELA.— Timuuuti! Ondo entzun al dozuz mutillak esan deutsazan berba gozuak?

TIMUTI.— Zuk zelan dakizu gozuak izan diriana, belarriyak erdi--gorrak daukazuz-ta?

MIKEL.— Erdi gorrak!... Baiña zuk eztozu ondo ikusi neskatillia nor izan dan.

TIMU.— Nooor? Arranegikua behintzat, aruntz joan da-ta.

MIKE.— Eta mutilla? Eztau arek buruan txapelik erabili.

TIMU.— Txapelik ez? Iparraiziak kendu eutsan-ta.

MIKE.— Tira, neuk esangotsut nortzuk izan dirian; baiña lenengo zeuk esan biar deustazu neskiak zer erantzun deutsan.

TIMU.— Neskiak ez deutso baietzik esan.

MIKE.— Eta ezetzik...?

TIMU.— Auxe da andriaren jakinguria! Ezta ezetzik be!! Biyarko barri, Jaungoikua-k bakarrik dakiyala, esan dau arek.

MIKE.— Zarra da ori! A jayo ordukotik be, ba-genkiyan ori.

TIMU.— Tira, dana daki beronek, tximista gorriya! Oin esaidazu bein, nortzuk izan dirian.

MIKE.— Erdia! Priesa andiyak artu al zaitu? Oindiño Kafe-Mariñan artu biar dogu barrua berotuteko zeozer.

TIMU.— Otz al zara, gaur dagoe egunagaz?

MIKE.— Ez, baiña Tala-ko aize preskua artun orduko, ortxe egingo dogu urdailla gozo-gozo ipini. Madari madariya, San Pedro gabaz ura edanda oera juatia be, ezta ba gauza egokiya, ta egunari yoakana. Axaxorri!!

TIMU.— Ondo esana, "karaje"! Zeure kontura ardau generosua edango dot-eta, ointxe esangotzut bata Jontxu arotza izan dala, eta bestia barriz, Arranegiko zabaleko baba loria, Zuriñe neska txairo ta ederra.

MIKE.— Kontxe! Eztauko beraukatakua makala Jon arotzak!

TIMU.— Beraukatakua? Eztauko begiya makala Goikokaleko Jontxuk! Or konpon! Gaztiak dira, ta ibilliko dira.

MIKE.— Bai geu aren tertiyuan, ain gaztiak ezkara baiña. Orixe bai! "Ya lo creo" ¡¡Gora aitita mokordo!!...

TIMU.— Sekula olakorik! Persona erdi-gorrak, beti dabiz zarataka!!

(MIKELA TA TIMUKI BEYOAZ. GIZONEZKUEN BERBARUA ENTZUNGARRI DA GERUAGO TA URRIAGO. BARRE GANGAR, DIADAR, KANTU ANTZEKUAK. OILLO-OILLOKA AGERTUKO DIRA, ALKONDARAK KANPUAN DITUELA: Mordoillo, Karel eta Gorosti. ATSO BATEK AGIRIKA IRUROI)

ATSUA.— (EZTA AGIRI) Zer dakarre eurok, kankailluok alakuok! Nortzuk... eta betikuak. Itxasoko urak guztiak ez al yakez nonoiz ardau biurtuko! Alakoren batian, naya edanaz, asetu ta ito daitezan.

KAREL.— Ito, ito, baiña ardautzan! Auri bai gauza ederra! Uretan baiño oba.

ATSUA.— Lotagalduko, mozkor, ordi, zaragi egindakuok!

MORDOI.— Zaragiyak etxuek berbarik egiten!

GOROST.— Ta guk bai, barriz! Berbia ta autua sendo, itxasuak betian...

ATSUA.— Lotsatu be ezarie egiten, lotsatu be? Partilla-usaiñik ba da, zantarreriyari emonda beti. Lanbasok alakuok! Ezteutsue diruak sakelian kalte aundirik egingo! Zoiaze ondarrera, edo Talara, edo Kabuko tanborrera!...

IRURA.— (KANTUZ) "Segi, segi, segi,
gure bizimoduari
etxaramon egin
atsuen esanari..."

KAREL.— Nun dago Sanpedropia?

MORD.— Zetako?

KAREL.— San Pedro-ri berba egiteko. Gorosti, ein zeuk berba, onek eztaki-ta.

MORD.— Nek ez jakin berbetan, madarikatua? Baita Komandante Marinari be, berba eginda nago ni, Bilbon be...

KAREL.— Gorosti, larga oneri. Ein berba zeuk.

GOROST.— Agur, San Pedro kauna, geure patro nagusiya. Geu lez, arrantzale izan ziñian; arrantzale utsa; tostartekua... ta orain, ortxe zagoz, zeruetako kaporal. Ondo esana da?

KAREL.— Bai, ederto makallaua ebagi dozu.

GOROST.— Gora geu ta geutarrak! Ardor, motxorruak kaiganian! Goiazan ateko bandan nai erriko bandan, Mariya Txatxarrenera!

KAREL.— Auxe da egarriya!

MORDO.— Egarriya oin be?
KAREL.— Ez, zer ba? Ik ez al dakik atunak eta ardauak, egarriya emoten dabenik?
GOROST.— Zer nai dozu ba, ura?
KAREL.— Ura, madarikatua? Edan dayela arraiñak, nai ba dabe, baiña ez nik!! Nik nayago yuat Errioxako ur baltza!...
GOROS.— Tira, goiazan etxera. Nun bizi aiz, i Karel?
KAREL.— Asko yakiyat nik ba! Konpasa ta brukulia galdu yatazak eta...
MORD.— Auxe da itxasoratia...! Arraiña sendo, ta gizonik ez! Brokenbrok...

(ABESTALDIAK KANTAUKO DAU ASPALDIKO ZORTZIKO AUXE:)

"Iru errege datoz
Abaskalenetik,
mozkor mozkor eginda
kale nagusitik.
Meltxorrek eltzen diyo
Kasparri besotik
ez muturrez aurrera
erortiagaitik..."

IRUGARREN ATALAREN AMAIA

4gn Atala
a) MUTIKUAK. b) TREOTZARIA.

(AKEN, ZOZPAL, EZTEN eta KIRI, lau MUTIKUAK, OKERRAK EURAK. GERUAGO, PERKAIN, erriko auazilla. BIGARREN ZATIYAN, Jon ETA Zuriñe)

AKEN.— Tirixilik! Eutsok beste belarrondoko bat.
EZTEN.— Alitxi! Eyok ori amari nai bok. Euen ama!!
AKEN.— Auntxe apurtuko aut! Egon ia.
EZTEN.— Euri itxi sokia! Guzurra diñok ik!
KIRI.— Urari be, txurrust eragiten ibili aiz-ta!
AKEN.— Koipe gorriyak atarako yeutsadazak.
EZTEN.— Mutil txikiyak joten... Piskala! Joik ia Zozpel!

AKEN.— Ixilik egoteko, bestela!...
EZTEN.— Eugaitik! Txikiñaguak joten beti...
ZOZPAL.— Tira! Egon geldirik eta ixilik. Jesarri danok emen.
(LAURAK LURREAN JESARRIKO DIRA)

AKEN.— Zer esateko egon zara len?
ZOZPAL.— Entzun ondo danok. Beste bein be, ederto egin genduan astuen estroparia, ta gaur be, orixe egingo dogu.
KIRI.— Nun? Nun?
ZOZPAL.— Egari ixilik! Txikiñak, entzun lenengo, ta gero, nagosiyen esana egin.
AKEN.— A, bai, ba dakit. Artolabaneko kalian ziar juan giñian, eta asto bi ekarri genduzan. Gero, kamiñurantz juan giñian.
ZOZPAL.— Ezta olan. Egon ixilik. Gero... Zumatzetako zerkara juan giñian. Obrak asi orduko izan zan. Zumatzetako zerkan, antxe ziar izan zan estroparia. Onen astua, Akenena, zuriya izan zuan. Niria, barriz, baltza.
AKEN.— Zelako barreguria andrak etorri zirianian...
ZOZPAL.— Egon, olan ezta-ta. Asi giñian traka-traka, astuari atzekaldian sokiaren morapilluaz emonak eginda.
AKEN.— Asten dok astua salto-saltoka ta ipurturtika... ta, traste guztiak aldian: esnepotuak, oriyo-boteillak, eta danak aidian...
ZOZPAL.— Ba yatozak andrak didarrez, Bolunburuko neskazarra ta Armiñako andra gaztia...
AKEN.— Ta gero, Perkain auazilla, geure atzetik, segika ta segika...
ZOZPAL.— Guk barriz, arin kontra, ospa! Antiuneko aurretik Aldaztorren gora...
EZTEN.— Eta atrapa?
AKEN.— Atrapa? Nok atrapa? Ezta, ezta... (PERKAIN AGERTUKO YAKE ISILIAN)
KIRI.— Ta, nun eguan Perkain?
ZOZPAL.— Perkain madarikatua miña kanpuan ebala, bieztunak noiz atarauko, txakurra lez, geure atzetik.
PERKAIN.— Ointxe be, zer darabille baiña, onek lau madarikatuok?
(LAU UMIAK, TXIMISTIA BAIÑO ARIÑAGO BEYOAZ)
Onek baiño okerragorik, eztot nik iñor ezagutu. Atzo be, nun egingo lapurretan, ta alkatieneko ortuan bertan, Sankuan madari guztiak lorrindu ebezan... Ta onixek laurok ez ete dira izan?

Jumm! Atrapetan ba dodaz atrapa, kartzelan lo egingo dabe! Jaungoikorako! (ALDE GUZTIETARA BEGIRA)

Egun ederra dator gaur. An Labaganian, goikuan, argi, dizdizari agiri da eguzkia, urrez beterik bai leguan. Indarra, ta bizia eta txairotasuna emoten deutsa munduari berak.

Urganian, urdin ta garbi dagola, zidarrezko bide ederrak egiten ditu eguzkiyak. Nire begiok, itsutu lez egiten ditu. Uragora dago ta gure erri maiteko itsasalde au ikusi barik bizi izatia, ilgarri eta penagarriya izango litzateke lekitarrentzat...

Baiña, orrek lau mutillok, okerraguak dira tiraiñ-eguneko olatuak eurak baiño be! Topau biar ditut... amaiketakotxua egin baiño len. Kosepantoniñeko lobak-eta dira-ta... ezin ba beti euren kontra ibili. Bestela, Kosepantonik, eztau izango ardau zuritxurik nitzat. Ta ze eingozu ba! Mutillak geldirik ba dagoz, ein kontu gaisorik dagozala...! (PERKAIN BEYUA NASI TA ASTIRO)

JON.— (BATERA TA BESTERA BEGIRA) Nun ete dago nire uso zuriya? Onezkero sasoia zan ba, arek elizatik urteteko. Kalian ziar ala Lameran ziar etorriko ete da Arranegiruntz?

Emakumien biyotza nok ezagutu! Gure aititak esaten eban, berak ezebala ezagutu ondo gure amuma, arik eta larogei urte bete zituan arte. Beti eukiten ditue buruera barriyak; beti asmo alakuak. Ezin iñoiz be igarri. Ezin iñundik iñora be suma, euren barruko jita ta joeria. Ene! Isi! An... an dator.

Andra zartxu bategaz dator. Baiña berba egin biar deutsat. Ezin gehiago itxon. Zemat egun ezer jakin barik!!

Liraña, otzana, gozua... zoratuta nauka Zuriñe ederrak.

(ANDRATXUA TA ZURIÑE AGERTUKO DIRA)

JON.— Txist! Txist!...

ATSUA.— Or yabiltzu nonor goizian goizetik txistadaka, Zuriñe. Ai, nok leukezan hogei urte!...

ZURI.— Zeuk be, izan izango zenduzan ba.

ATSUA.— Bai, izan genduzan... baiña eztakit nora aldendu dirian. Orduan be, ba zirian mutil ederrak, bana banakuak; eta gaur be, Jaungoikuari eskerrak, morrosko ederrak daukaguz geure erri maitian. Zoiaz ba zeure lagun orregana, maite-txistuka dabillen urretxindora lez, or yabiltzu-ta. Agur, eta gorantziyak amari.

ZURI.— Agur, Deograzi. Zeure partez, eta eskerrik asko.

ATSUA.— Baiña, entzun: lenengo yatortzun txoriari be, ez gero, ariñegi baietzik esan. Neskatilla dotoriak iñoren faltarik eztau iñoizbe izango-ta. (BEYUA ATSUA)

ZURI.— Bai...! Ori esan ba.

JON.— Zuriñe aspaldikua!

ZURI.— Zelan zabiz, Jon?

JON.— Zelan? Ibili biarko, zelan edo alan. Iradan iru eguneton eztot ikusi be egin zure gerizarik. Ez bizi zarian, ez il zarian.

ZURI.— Kanpairik izan al da, ba, aste onetan?

JON.— Ni enago kanpai guztien zain.

ZURI.— Ba dakizu, aita makal-samar dabillena-ta...

JON.— Zelan dago, ba?

ZURI.— Oberantz egin dau. Biyotza ta...

JON.— Aita biyotzetik, e? Alabia ez ainbestian, nik uste. Zuriñe: orraitiño ez al yatzu aztu oraintsumenguan esan neutsuna.

ZURI.— A, bai!... Ez yat aztu. Baiña zer nai dozu nik esatia?

JON.— Orixe da esatekua? Zer nai dodan? Ondotxu dakizu zuk, nik zer nai neukian. Isildu egiten zara? Matarlonduak gorri-gorri daukazuzala esango neuke.

ZURI.— Ba zenkiyan onek gauzok, bapatian erantzutekuak ez diriana.

JON.— Auri dok ona! Zauriya edegirik daukanak, zer gura dau besterik, osagilliak bigun-bigun osatu dayon baiño? Baso illun baten aldendu dana, edota itxasuan galdu-urren daguana...

ZURI.— Ain galdu-gordian zagozanik eztot uste, Jon.

JON.— Tira ba, argi ta garbi itzegingo dogu. Ba dakizu, neuk esanda jakin be, neutzat nai zindukedana.

ZURI.— Sinistuten deutsut, sinistu. Baiña ni, oindiño, gaztia naiz-ta...

JON.— Bai, ez zara zarra, tximista gorriya! Baiña ezta umia be. Zueri begiratutia baiño eztago. Alan da be, emakumiak gizonezkuari, lenengo atsekabia emon biar.

ZURI.— Zu atsekabetuaz, ezer irabazten al dot nik, ba? Barruak agindukо ba leust, baietz esango neuskizu. Zer diñozu oin?

JON.— Eztakit.

ZURI.— Ain biyotz gogortzat al naukazu, Jon?

JON.— Ori, zeuk jakin ziñei. Lenengua ni izan baldin ba naiz, emoidazu erantzunen bat, edo itxaropen apurra. Eta beste iñor ba dabil ni baiño lenago, jakin nai neuke nor dan. Tira ba, eder orrek! Esaidazu

zeozer. Pozgarri tantatxua, zoriyon-ontziyan maitetasun edari apurra eskeiñi egidazu. Bai, eder orrek! Ezakidaz asarratu. Ezeidazu betondo illunik ipini. Ezeizuz zure ezpan gorriyok asarrez tximurtu...

(XIRDO, ITXASORAKO OTZARIA BESAPIAN DAUALA DATOR)

XIRDO.— Kontxo! Zuriñe, emen zabiz dagoneko? Kaixio, Jon.

JON.— Kaixio.

XIRDO.— Gu ba goiaz ateko bandan. Aita zelan dago, Zuriñe?

ZURI.— Obeto dirudi.

XIRDO.— Eta miñik?

ZURI.— Esatekorik ez.

XIRDO.— Laster jakin neban nik.

ZURI.— Nok esan eutsun, ba?

XIRDO.— Mikela ta Timuti topau nebazan, Gorua ta Gorutxapela, bata zu ta bestia ni. Eneban alakua makala artu, zuen aitagaitik... eta ganera...

ZURI.— Eta ganera, zeeer?

XIRDO.— Laster esango deutsut belarri ertzera, baiña gaur ez. Iñor dago-ta. Agur Zuriñe laztana! Urrengo porturatzian esango deutsut.

ZURI.— (ERDI ZERTUA) Agur, Xirdo! Agur!! (XIRDO BEYUA KAIRANTZ)

JON.— Orreri, niri baiño gar andiyaguaz berba-egiten deutsazu zuk. Egiya al da dirautsudana?

ZURI.— Zeuk jakingo dozu; zeuk diñozu-ta...

JON.— Orduan... zetan geratzen gara?

ZURI.— Ezetan bez. Urrengo baten berba egingo dogu.

JON.— Urrengo baten... Ondo artu dabe nire belarriyak arrantzaliaren esana. Urrengo baten... urrengo baten berba-egingo deutsuna Xirdo lerdena izango da, ta zuk biar ba da, areri entzungo deutsazu gustorago...

(ZURIÑE BEYUA ALDE BATETIK. BESTETIK, JON. ARRANTZALE TALDE BAT AGERTUKO DA, ITXASORAKO GERTU, ETA DOIÑU ZAR AU ABESTUKO DABE:)

"Treotzaria emon, Mertzeres,
Mertzeres; (IRU BIDAR)
baiña neuri ardurarik ez.

Galipornian dauko barriya,
barriya; (IRU BIDAR)
Lorentzo begi zuriya...!"

LAUGARREN ATALAREN AMAIA

5- gn Atala:
AMA BATEN ARDURAK

(ZURIÑENEKO ETXIAN. KERMAN, Zuriñe-ri eskola-kontuak irakasten, EUREN ITXASONTZIYAREN GORABEERAK NESKATILLIAK ERABILLI DAYAZAN. PAPER BATZUEK IZANGO DITUE MAI-GANIAN, ETA BITARTIAN Txanton AN EGONGO DA ALBOTXUAN EDO BAZTER BATEN JESARRITA, SORGOR, NEKETSU)

ZURIÑE.— Eta beste numeru onek, nun ipini biar dira?

KERMAN.— Ba, esan deutsudan lez, zeuk artu dozuzanak, bestiaren kontuan; eskumaldian ipiniko dozuz. Eta arek zugandik arturikuak, kontu-izenaren ezkerraldian. Aituten dozu?

ZURI.— A... bai, bai! Orduan, artzen dauanak, zor dau, ezta? Jakiña, lez aurretiyaz berak emonikua ezpa da.

KERMAN.— Ederto, Zuriñe orain, bakotxa bere kontuak ikusiko doguz, eta ondo daguana, bere lekuan apuntau, eta gero, zirriborro bat egin emen, eta gaurko egunaren zenbakiya ezarriko deutsagu, guztia egoki daguala jakin daigun.

ZURI.— Ta gero, zer egin paperokin?

KERMAN.— Geruago, ondo gorde, egoki; biar danian errez topauteko moduan. Sarri askotan sumak oker egoten dira-ta, goitik bera ondo dagozan ikusi. Oker ba legoz, zuzendu. Baiña gaur... ariñekua dot, eta juan egin dot. Bestiok, biyar zertuko doguz.

ZURI.— Tira ba, neuk gordeko dodaz orain. Orduan, ba zoiaz?

KERMAN.— Bai, ointxe berton. Agur, ba; Txanton jauna; biyar arte, Jaungoikua-k nai ba. agur, Zuriñe!

ZURI.— Ba zoiaz, Kerman? Ondo ibili, ba, ta gorantziyak gurasuai.

KERMAN.— Zeure partez. Agur.

ZURI.— Zoiaz ondo.

KERMAN.— Nai dozu ezer esatia Jontxu-ri?

ZURI.— Eeeez! Eztot nai zuk areri ezer be esaterik. Okerra zara, gero!

KERMAN.— Ni baiño okerragorik iñor ezpa litz...!

ZURI.— Ori be bai. Parkatu, ba.

KERMAN.— Zuri parkatu ez... (BEYUA KERMAN)

ZURI.— Mutil ederra da baiña, ba dakit nik beste nonor izango dana orrentzat.

TXANTON.— Egin dozuez gauzak ondo, eni alabatxua?

ZURI.— Bai, aita; Kerman-egaz danak ipiniko doguz euren zerian, biar dan moduan, eta orduantxe erakutsiko deutsuguz kontu guztiak.

TXANTON.— Tira ba; oiñarte be, kontuak nik i, beti zuzen eta artez egin izan ditut-eta, aurrerantzian be olantxe erabilita nai neuke.

ZURI.— Egon ardura barik aita; "Otoiope"-ren gauzak eztabe okerrik izango-ta. (IÑESE AGERTU BEDI)

IÑESE.— Nogaz dozuz berbaldiyok? Ene! Juan al da Kerman, dagoneko?

ZURI.— Bai, ama; gaur bestetan baiño lenago juan da. Ariñeko zera eukala-ta, beste leku batera juateko...

IÑESE.— (BERE KOLKORAKO: Beti nabil esateko baiña, ointxe esan biar deutsat ba gure neskeari). Entzuizu, Zuriñe: zuk badakizu zugaitik, aitak eta nik egin doguzan alegiñak.

ZURI.— Alegiñak, zetarako?

IÑESE.— (BERE KOLKORAKO: Auxe ba ba da, ba!!) Ba... zeu azteko, zeu jagoteko, zeu ondo izteko. Arrantzale-alaba utsa baiño zeozer geyago izatekotan.

ZURI.— Ezta txarto esana, ama. Baiña... ezer okerrik esan al dau medikuak?

IÑESE.— Zoriyonez, ez; eztau esan txarragorik. Eztot nik, barriz, orren auturik atara nai izan orain. Niri —zu baiño gaztiago nintzala—, mutil txairo begi urdin batek isil-mandatua egin eustan kontsiyupian; baiña goixetik gabera gaisotu, txarto parau, eta andik egun asko barik eruan eben or goiko solo santu baketsura... Eta andik geruetara, Txanton, zure aita laztanak esan eustan zeuk dakizuna, ta urtia juan baiño len, Antiguako Ama-ren oiñetan auzpeztu giñian, ezkontzako buztarriya artu, eta bizitza osorako alkarrenak izateko.

ZURI.— Bai, ederto esana be, ama; norberak maite daben gizonagaz eta arek maitatua izanik.

IÑESE.— Gaztezaroko urterik gozuenak ointxe dozuz zuk. Baiña zure bizimoduaz erabagiya artzeko sasoi egokiya dozu. Nik laster begiz joko neuke nonor, zutzat.

ZURI.— Gurasuak egiñiko ezkontzia, eztala ona izaten, esan oi da.

IÑESE.— (ERRETA) Bai sarri askotan, norberak buru ariñez egiñikua baiño obia. Eztakizu ba, gurasuok, esperientzi-apurra daukaguna?

(EGUERDIKO AMABIYEN KANPAI-OTSAK)

IÑESE.— Aitiaren, Semiaren eta... (EGIN BEYE ANDRA MARIXA-ri ARRENA)

IÑESE TA ZURIÑE.— Amen, Kesus.

ZURI.— Lapikokua zelan ete dago? Erre-usaiña edo...

IÑESE.— Zatoz ona orain, igesi juan barik. Zera... zuk ez al dozu iñogaz amesik egin? Ba dira ba, gure erriyan, bana-banako mutillak. Iñora juan barik, Kerman bera be, ez al yatzu gustaten?

ZURI.— Kerman?...

IÑESE.— Ene! Ta arritu egiten da, ganera! Ume aundi bat da gure neskiau. Norbere albuan eukiteko eretiya izan, eta mutil txairo orregaz konturatu be, ez al zara egin? Orraitiñoko...!

ZURI.— Kerman jasekua eztanik eztot nik esan; ezta esango be.

IÑESE.— Ai, alia! Oingo neskak dauken gatza! Zeren begira ete dagoz sasoirik onenian, biar dirian sare, tretza ta lakiriyuak ipini barik? Ezta gero neska zarrik faltako...!

ZURI.— Baiña, ama; senargeia, norberak aukeratu biar al dau?

IÑESE.— Dana dala, zerbait egin behintzat, or ganorabako manatan egon barik. Ai, ai, ai! Kerman senar eder, eta zu aren emazte zabala... ai ze gauza alakuagorik!

ZURI.— Zeuriak bai ames luziak, ama!

IÑESE.— Ene biyotzeko aingeru ori! Hamaika ameskeri irakurtzen dozue zuek oingo nobeletan! Ziñe ta teatruetan, maitetasuna, zeru-goitik edo, bapatian jausten da; baiña munduan ez; ezta agertuten orrelan, geyen-geyenian. Inguruan daguanak maite-izango gaitu, eta axe izango dogu guk be, maite.

ZURI.— Zarra da ori, ama; ezagutzen eztana maite-izatia errez eztalako.

IÑESE.— Ori dona ba! Zenbat eta alkarren urriago ibili prakadunak eta gonadunak, alkarrenago egiten gara. Orra ba, argi esan. Egingo ete dozu amaren esanik? Damutuko yatzu bestela, egunen batian...

(KORUA-K ABESTUKO DAU, AGERTUGABE, URRENGO KANTA PARE AU:)

Maitetasuna, gauza ederra!
Munduan ezta larregi.
Sarri askotan alkarren kontra
gizonak milla alderdi.

Biotz guztiak, maitatuteko
zituan Jauna-k ezarri;
gizon zoruak arrokeriyaz
kaltegin nairik alkarri.

Maitetasuna, zeruko doia,
gizonentzako jarriya;
gaztetxutatik edan biar da
anaitasun-ur garbiya.
Andra ta gizon, neska ta mutil.
gu guztiyontzat buztarriya,
maitetasunaz artu ezkero
orain ta gero sariya.

BOSKARREN ATALAREN AMAIA

6-gn Atala:
ERREKAN (Garbitzelekuan)

(ORAINGO ALDIYAN, TEATRU AUNDIYETAN AGERTU OI DABEN LEZ, ERREKA EZAUGARRITZAT NAIKUA DA BEIAN, LURRIAN GARBITUTEKO OL BANA IZATIA EMAKUMIAK; ETA KANKARRU BATEN, GARBITZEKO ERROPA TA MIESAK. ALKARREN ONDUAN JARRI BEITEZ BELAUNIKO EMAKUMIOK, JENTIARI BEGIRA; ETA NOIZIAN BEIN, ERROPAK, GARBITU, JO ta BIYURTUA Sei-zazpi andrazkok ORRETAN DIARDUE. GERUAGO, ARTAZITXUNEKO ALARGUNA dator, TA ORTIK SAKA, EMENDIK BULTZA, TOKI EGIN, ETA ERDI-ERDIYAN PARAUKO YAKE)

ARTAZITXU.— Zeeer? Eztago berbarorik? Asko da, andrazkuak dirian tokiyan berbarik ez izaterik! Ala, oindiño barko lo gozuan al zagoze?

BATEK.— Ez, andria. Ez gagoz lo. Geure biarretan baiño.

BESTE BATZUK.— Goizian goizetik dakar berorrek jardunerako gogua.

ARTAZITXU.— (ARRO ARRO) Gaztiak ba dauke oindiño zer ikasirik. Ta ori gero, oinguak argiyak eta bizkorrak ei diriala. Baiña batek ba daki, zelakua dan euren jakituriya. Paperak irakurten-ta; zineko letra guztiak esaten–ta... Ori al da jakituriya, iñok emonikua artzia? Ori, ezta jakituriya. Berezkua biar da; berezkua...

(LENTXUAGO, MIKELA TA TIMUTI SARTU DIRA, KANKARRUAK BETERIK)

TIMUTI.— (Sartu ta BATERA) Erdia, zer diño berorrek? Berezkua ala berazkua?... Atso madarikatu orreri sabela bigundu ete yako? "Karaje"!!

MIKELA.— Ointxe be, or yagona Artazitxuneko alargun zoruori. Aupa Erandio!

ARTAZI.— Dagoeneko al zatozte iñori okasiñoia emoten?

TIMUTI.— Goizeko kafesnia baiño be, nayago yona orrek emengoxe kontuak jakitia.

MIKELA.— Tira, isildu gaitezan, emenguak zer autu ete darabillen jakin daigun.

TIMUTI.— Ori esan ba. (SAKA TA SAKA DIARDUE, LEKU EGIN EZIÑIK. GERO, AZKENIAN BE, BETIEN ALDA BANATAN PARAUKO DIRA)

ARTAZI.— Auri dok ederra! Len egon garianok estuegi, ta oinguak or lotsa galdukuak lez, sakak ta sakaka.

TIMUTI.— Aaaau berton Ama Birjiñia...!

ARTAZI.— Goizago etorri biar da, goizago; ta ez iñori kalte egiten ibili.

TIMUTI.— Kalteeee? Mesede baiño geyago egin izango zenduan zuk, zeure denporan. Ai, alia!

MIKELA.— Atsuak darabil berriketia!

ARTAZI.— Atsuak? Nonok berba egin biar, dozenerdi oillo emen isilik dagoz-ta.

TIMUTI.— Iñor ezagutzen ete dau berorrek, gaztien artian?

ARTAZI.— Bai...! Ezta erriko lagun guztiak ezagutuko ezpa genduz be! Askok emen, arpegiya ona; baiña egikerak... Tximista gorriya!

TIMUTI.— Iñoren egikerak ezin leiz zelakuak izan dirian esan ikusi ezik, edota ondo jakin ezik.

MIKELA.— Eztaukagu ezer esateko berorregaz.

ARTAZI.— Ba, ointxe be, ba daukat nik zer-esan berririk; zuek, beti lo ta beti gor zagozenok eztakizuen arren.

TIMUTI.— Ene, ara osterakua!! Zer dakizula zuk, gero, guk eztakigunik?

ARTAZI.— Neuk zer dakidan? Ona entzun, bart bertan jakin nebana. Azkenengo albistia da.

MIKELA.— "Notisia ultima hora". Labatik arakua; itxasotik arako arraiña.

ARTAZI.— Karrabasueneko andra gaztia, Durdukiñeko Maribizar bat eta neure burua, irurok gengozan Artaloreneko etxe-aurrian.

Andixek urteten ikusi genduan Salome umegiña. Eta, konkortuta, esan geuntsan:

— Erdia, Salome; entzuizu. Zetan zabiz emen, ordu onetan?

Ta Salome-k erantzuna: —Zetan nabillen? Neure ogibideko zeregiñetan. Eta guk orduan: —Ene ba! Zelan ba, or neskatilla bat baiño ezta bizi-ta? Eta berak: —Neskatillia? Gabonak baiño len galdu zonan. —Artaloraneko Trini? —Ajai...! Sasilora esatia egokiyago esan. Tira ba, androk; gabon deigula gure Jaungoikuak." Eta orixe eta juan zan Salome enia.

TIMUTI.— Eztul egiteko gogua daukat, Mikela!

MIKELA.— Nik barriz, dominstikun egitekua, Timuti maitia.

BESTIAK.— Isilik, entzun nai dogu-ta!!

TIMUTI.— Iñon kontu berdiak entzuteko, danak pozik. Ikusten dozu olakorik, Mikela? Ta gero, juan sarri elizara, ta mun egin santu guztiari. Baita Mingorrin buztanari be!

MIKELA.— Ta iru meza entzun, albakotik asita. Ta dozena bat domiña erabili, errosariyotik dindilizka.

ARTAZI.— Laster arin jakin genduzan ganetiko kontu ta goraberak.

TIMUTI.— Amen berton, "enviado espesial"...!

ARTAZI.— Trini-ren nebia eldu ei zan bart, itxasuetan ibili-ta.

TIMUTI.— Asko daki orrek, bart ala araiñegun arratsaldian eldu zan.

MIKELA.— Bai, jakingo dau biar ba da, erriko sorgiña berori da-ta.

ARTAZI.— Iñok be eztozue jakin, iñok bez, nik aitatu dodana. Neu beti lenengo, neu beti lenengo...!

TIMUTI.— Nor da berori? Anketil...?

ARTAZI.— Anketil ala albako izarra?

ARTAZI.— Errubako sein orren aitatzakua nor dan be, ba dakit-nik.

TIMUTI.— Surren puntan ete dauko radarra?

MIKELA.— Ala begiko kañikan mikoskopiyua?

ARTAZI.— Olako beste neskazar ziriñik ikusteko be!! Ba... diñuenez...

TIMUTI.— Diñuenez, beti?

MIKELA.— Zelako diñuenez? Zeuk dakizula eztozu esan ba?

ARTAZI.— Orregaitik diñot ba... arpegiya ona; baiña egikerak... (GUZTIAK ISIL-ISILIK) Ai, alia egikerak! Agindua bata, eta emona bi... Arrantzale gazte, kolore gorri, begi zuri bat ba-da ba...

TIMUTI.— Bai, bat bakarrik ain zuzen be!

MIKELA.— Zer darabil berorrek? Ikusi-makusika asiko ete gara goizion?

ARTAZI.— Begi zuri bat esan dot, eta izenez, Xirdo.
TIMUTI.— Guzurra be, berbia da-ta!!!
MIKELA.— Eztot ondo entzun, Timuti. Zer esan dau?
TIMUTI.— Zer esan? Irain aundiya Xirdo-ren kaltez?
MIKELA.— Zelan? Olakorik entzuteko be! Zelan diñozu izenik, egiya dala jakin barik?
TIMUTI.— Atso sorgin guzurtiya!
MIKELA.— Inpernuko nastiak dakazan emakume doillorra!
TIMUTI.— Amaika amaika ta erdiko ibiliko zirian or!
MIKELA.— Nok emon ete dautsa sari isillekua, sorgin oneri?
ARTAZI— Ezta guzurra, kontxo!!
TIMUTI.— Zure autik beti be, subiak eta zapuak urtetan ikusita gagoz-ta.
MIKELA.— Gauza zindorik eta garbirik egin ete dau iñoiz berorrek?
TIMUTI.— Garbirik? Bere antzekuak diriala guztiak, uste dau orrek.
ARTAZI.— Zer da, ba, nik egin dodana?
TIMUTI.— Zer egin? Talako Sankuan atzeko ormak...
MIKELA.— Eta Ondarzabalekuak berbetan ba lekiye!
ARTAZI.— Nik gauza loirik?
TIMUTI.— Nok ba, zeuk baiño? Entzuizu: zure gizontzakua zana be, nundik nora artu, ta nundik nora aldendu ete zenduan?
ARTAZI.— Neeeuk? Zuek baiño garbiyago daukat nik soiñeko erropia, ta barrukuak be! Ikusi, ikusi, azpiko gonak eta atorrazuriya be!...
TIMUTI.— Bai, zalia dok errotariya...
MIKELA.— Artuaren ordez, emoten gariya. Tuuurrit!
(URRENGO ESAKERAK ETA ABAR, GUZTIAK BATIAN, NASTE ITZALIAN)
ARTAZI.— Gazte lotsabako! Neska zar! Baztarrak guztietan dabizenak...!
TIMUTI.— Erriko atsorik zantarrena! Mundu guztia lotsatuko leukena!
MIKELA.— Artaziya baiño be, txarrago da ori, aragiyan sartu ezkero.
BATEK.— Emen atara dabe ataratekua!
BESTE BATEK.— Odola, odola atarau orreri!
BESTE BATEK.— Bai, garbitu dayala orban zikin ori.
BESTE BATEK.— Orixe da iraiña errez egitia edonori.
BESTE BATEK.— Zertzuk ikusi biar ete doguz goizion?
BATEK.— Nun ete dabil auazilla?
BATEK.— Atso zantarrak dakar ekartekua!...

(ONETAN, BAPATIAN, mutiko okerrak PLA! PLA! eta BUN! BUN! egiteko KARTUTXUAK ERREKO DITUE, ETA AURRETIK AKEN SARTUKO ANTZELEKURA DIDARREZ, SAGU BAT LOTUTA DAKARRELA; SOKIAZ DANDARREZ:)

MUTIKUAK.— (DIDARREZ) Sagur! Sagua! Arratoia!
ANDRAZKUAK.— Ene!! Ene! Ai!!!... Ai!!!! (TXILIYOKA UGARI)
MUTIKUAK.— Tran lara lara larai!
Atsuak darabille jai...!

(MUTILLAK IGESI JUAN ETA... PERKAIN AGERTUKO DA ARIÑARINGA)

PERKAIN.— Oinbe, emen dabiz erriko demoniño txikiyak? Eta emen barriz, barrabas aundiyak. Makilliaz joko dodaz danak, ausi arte, apurtu arte!!!

(ARRAPALADAN ETA ITSUMUSTUAN LEZ AGERTUKO DIRA MUTIL EGIÑAK, GIZONAK, NESKATILLAK ETA ANDRAK, ETA ANTZEZLEKUAN EGOKI DAGOZALA, AZKENENGO ABESTI AU KANTAUKO DABE, BIAR DANIAN GUZTIAK UKABILLAK ERAKUTSIJAZ:)

Artazitxu
Artazitxu
bakia austen
ba dakizu:
izen ona
errez galtzen
ba dakizu
Artazitxu.
Artazitxuneko alarguna,
andra ziztrin ta bizarduna;
erriko naste, guzur nai egi,
danak darabiz beti geyegi.
Artazitxu
Artazitxu
bakia austen
ba dakizu:
izen ona
errez galtzen
ba dakizu

Artazitxu.
Elekosteneko atetan
zozua dabil kantetan.
Artazitxuneko alarguna
laster inpernuan barruna!
Artazitxu
Artazitxu
bakia austen
ba dakizu:
izen ona
errez galtzen
ba dakizu
Artazitxu.

"AMANDARRIKUAK" Lenengo Txortiaren amaia

Eusebio Erkiaga-k "ARRANEGI" bere elebarritik atonduta, 1962 udako egunetan.

Soiñua zarrak egokitu, eta barriyak asmau ta sortu, Iñazio Aretxabaleta abade jaunak

ERRIKO IZARRA*

(Tokiya: Eliza-aurrian, edo behintzat, elizako ormak agiri dirala.)

JONTXU, bakarrik alde batera ta bestera begira. Beti lez, buruko uliak ondo orraztuta. Gerotxuago, ixil-ixilik, MADALEN agertuko da, ta atzetik Jontxu-ri eskuekin begiyak tapauko deutsaz).

Jontxu.— (Neskatilearen eskuak kendu, ta nor dan ikusirik, erdi arrituta) ¡¡Madalen!!
Madalen.— Zer egiten dozu emen bakarrik? Besteren baten zain egon ete zara?
Jon.— Eztakit.
Mad.— Orduan, neuk jakingo dot. Bakarrik zagozala ikusi zaitut eta...
Jon.— Lagun egitera zatoz, ezta?
Mad.— Izan leiteke. Baiña... zetan ziarduan zuk emen, jentiaren juan-etorriya ikusten, ala?
Jon.— Ez. Egon nenguan.
Mad.— Lanerako gogo barik edo.
Jon.— Lana, naikua emongo deust, Basotxuan erosi dodan etxe zaar orrek.
Mad.— Bai, biar bada. Dana dala, atzoko lako umore onik eztozula gaur, esango neuke.
Jon.— Niii? Zer ba? ain aldatua ete nago ba, gaur?
Mad.— Zeozegaitik ba diñot.
Jon.— Ba, orduan, zelan ezagutu zaitut, ba?
Mad.— Koraskeran. Koraskeran ezagutu zaitut. Aja, ja, ja, ja!
Mad.— Madalen, jardunerako zagoz gaur, gero!
Mad.— Zuk olan uste badozu be, juan egin biar dot. Etxera juan biar dot. Baiña, moillan ziar bakarrik ez juatiarren...
Jon.— Arranegi kalian ziar nik lagunduterik eztozu nai izango-ta...
Mad.— Ez be!... Arduria yeutsak alemanari, barrako baixakaitik!

---

* *Argitaratubakoa*, 1966.

(MADALEN-ek JON-eri besotik oratuko deutso, ta orrelan aldegingo dabe. Beste aldetik, ixil-ixilik, eskuakin seiñak egiñaz, MIKELA ta TIMUTI agertuko dira).

MIKELA.— Gero ta gero be, arranegitar tramana izango da Jontxuk alako dabena.

TIMUTI.— Ori diñozu? Neskatilla batek treotzaria emon arren, beste neskatilla gazte batek daroia erdi-atoian Jontxu.

Mik.— Ez ete daki Madalen-ek laster izango dan Salbiaren barririk?

Tim.— Zelan jakingo dau ba, eni alabia, beti lez, albistia lenengo jakin doguna geu biyok izan gara-eta! Esateko be!

Mik.— Zer dakar beronek!!

Tim.— Madalen-ek eztau ain errez aukerarik galduko. Oin, kosterrezian juango da mutillagaz, ta gero, agertuko da ona, jente manyuya ikusteko.

Mik.— Bai, Madalen-ek ondotxu daki amuko arraiña gozuago dana.

Tim.— Olantxerik bota deutso Jontxuri ondoko apariyua, amua ondo iratzita.

Mik.— Baiña, Jontxu-k berak be, ba daki gero, txanbiurrak egiten.

Tim.— Bai, ta bestiak ez zalabardua erabilten. Ai, alia!

(JOAN BEITEZ NESKA ZAAR BIYAK.)

(KERMAN, URPION TA SEBERI. Geruago, IRENE ta ARANTZA.)

Urpion.— Nok esango eustan niri, aurtengo atunetiak olako estualdiya emongo euskunik?

Kerman.— Zuri ez deutsu emon oiñarte.

Urpi.— Jakiña, oinguan Xirdo-ri egin deutso kalte, marmitakuak.

Sebe.— Ori eztok marmitakuagaitik, etorri biarra baiño.

Kerm.— Osatuten bada urrian, a...

Sebe.— Zaztar-ek esango leukian lez, itxasuak betekua ein biogu.

Urpi.— Baukat gogua bera ikusteko.

Sebe.— Bai, bestiok be gogotxua.

Kerm.— Saander-en, egoki badabiz, mediku onak dagoz egon, eta osatuko al da gure laguntzarra.

Urpi.— Txo! Beste gauza bat. Nun gelditu dira Irene zure arrebia, ta Arantza, onen... zarakua?

Kerm.— Eztaki iñok be, Urpion, ta mesedez, egon zaiz (ATZAMARRA AO AURREAN IPIÑITA)... i... xi... lik!

Urpi.— (BURLAZ) Eztaki iñok be! Aja, ja, ja! Baiña, danak suma daben gauzia da. Moillako katuak be bai.
Seb.— Kerman-ek, an bera ikasten dabillen urruneko erri aundiyan lez dala Lekitton be, uste dau.
Urpi.— Emen, maziya botau-ala igarten yuek ze arrain azaldauko dan.
Kerm.— Ba jakiyat nik ori! Neu be, lekittarra ez al nok ba?
Sebe.— Ez estutu, Kerman. Or yatozak nire arrebia ta Jontxurena.
Urpi.— (ASTIRO) Uraberan, gatxago beti, errayuan gora juatia.

(ARANTZA ta IRENE AGERTUKO DIRA, MANTILLAK BURUAN)

Kerm.— Zeer, neskak, ba al zatoze?
Urpi.— Lamerapian enkaillata geratu zariela pentsa dogu.
Iren.— Zuk esateko ezta asko.
Sebe.— Orrek berbok geldiyago, arrebatxu, bestela... nonor asarratuko yatsu-ta.
Iren.— Asarratuten danak, gaitx bi ei daukaz.
Urpi.— Gaitx bi?
Aran.— Bai, gaitx bi. Bata, asarratutia; eta bestia...
Iren.— Bestia... aiskidetu nai izatia.
Kerm.— Auntxe emon yeutsuezak emotekuak! Or yaok Leberi!...
Sebe.— Zaarra da ori! Gonadunak dagozan tokiyan, alperrik gizonezkuak berbarik egin. Gonadunak beti azkenengo amarrak. Indomito!
Kerm.— Xirdoren lengusiñak aurretik ete dira?
Aran.— Zeeer? Zuri zer deutsu ba, Xirdoren lengusiñakaitik?
Sebe.— Arantza, zagoz bake-baketan. Kerman-eri aua, kremalleriagaz alakotukotsazu egunen baten; baiña oindiño ez.
Urpi.— Ori esan ba! Askatasun apur bat gizonari. Beti da estimagarri askatasuna. Gero, be, naikua izango dau...
Iren.— Ikusten dozu, Arantza, lotsa galdukuok alakuok, gaur dakarren erretolikia?
Aran.— Santiñian sartun-urten luzeren bat egin dabela esango neuke.
Kerm.— Ara, egiya esateko, danok itzal-itzal egon gara Xirdogaitik, eta apur bat poztuteko diñoguz olako esanak.
Aran.— Tira...!

Iren.— Potiñak tira-bira.
Urpi.— Oindiño altarako argiyak biztu barik egongo dira baiña...
Iren.— Ezteutso ardurarik. Barruan gehiago errezako dogu, emen baiño.

(ELIZARA SARTZEKO ASMOZ ALDEGINGO DABE)
(LAU MUTIKUAK: ONEIK ELIZATIK IGESI LEZ DATOZ. ESKUETAN TRONPA BANA TA KORDELAK DINDILIZKA)

Aken.— Ointxe be, orretxegaitik... geure tronpari puntak atara barik geratu gaituk.
Zozpal.— Atzo be, orixe pasa yakun. Goikelixapeko atian, tronpia ipini ta batera, sangrestaua agertu!
Ezten.— Ariñago egin biar!
Aken.— Euk egin euan zarata geiegi, burdiñazko ate andi aregaz!
Kiri.— Ta sangrestauak suma, laster arin.
Aken.—... Neure tronpiagaitik, trukeingo yeutsut euria!
Ezten.— Eyok truk, Kiri!
Kiri.— Nori trukegin? Etxaukat nik, neure tronpa se-ri-a, iñori trukeitteko. Ta, ganera nori, ta Aken-eri...!
Aken.— Aiskiratuta ezkayagozak, ala?
Kiri.— Bai, baiña ire tronpia, tronpa tartaiña dok.
Aken.— Eu aiz i tartaiña! Tartaiña, ta oskilla!
Kiri.— Baita i barriz, zakatzerria. (ERDIGESI) Zakatzerre madarikatua!
Kiri.— Gero! Koipe gorriyak atara barik gero!
Kiri.— Baita nire anayiak barriz, bieztunak atarako yeutsuzak!
Zozpal.— Aiba Dios! Perkain auazilla dator! Ospa! Guazen!
Aken.— Ta orrek zer yakik, ba!
Ezten.— Sangrestauak esango yeutsan zeozer. Anka-jokua!!
Zozpal.— (BERE IPERDIYA, ZALDIGANEAN LEZ, JOTA) Luz! Kuan Mielek txakurrari.
Aken.— (ONEK ZALDIGANIAN LEZ) Ospa! Trakatan, trakatan...!!

(LAU MUTIKUAK JUANGO DIRA ARIN-ARINGA. MIKELA TA TIMUTI BARRIRO, MANTILLAK BURUAN)

Mikela.— Asi da jentia onuntz.
Timuti.— Jakin ezkero, ezin etorri barik egon. Eta baita biar be.

Mik.— Izkilloia be, berandu dabil, baiña.

Tim.— Izkilloiak antxiña jo eban. Belarriyok, txiringiagaz apurtxu bat garbitu biozuz.

Mik.— Ai, alia! Zer egingo ete zenduke zuk, nire begi zorrotzok, lagungarri ezpazenduz.

Tim.— Tirixilik; zu jaio orduko jaio nintzan ni, zure begira egon barik.

Mik.— Bai, baiña gero, neure biarrizanian bizi zara.

Tim.— Eztaukazu berakautakua, makala!

Mik.— Aaamen dator Deograzi be, zipirri-zaparra.

Tim.— Bai, orrek be, kaerak astunak eta oiñak dandarrez, baiña orren tertiyoko miñik! Autua nai badozu, emongotsu orrek.

Mik.— Deograaaaazi! Ba zatoz zu etorri, Antiguako Amagana.

Deograzi.— (AGERTUAZ; MANTILLA LUZIA BURUTIK BEERA) Eta nun, Bera baiño lagun oberik? Lekittar dan lekittarrak, ondo baiño obeto daki ori. Ezta alantxerik, gonadunok?

Tim.— Bai, Deograzi. Zelan izaten da... Guk geuk be, sarri entzun doguz Ama Birjinaren kontu ederrak.

Deo.— Baiña ez geiegitan; ez geiegitan. Ara: itxasuan denpolaria, ta ekatxa, ta gurmia dagozanian, beti esan nai dot, ementxe daukagu, ixilik, baiña geure lagun... Bere baztartxuan, baiña geure zain, zeruetako Ama gozua, Antiguako Ama maitia, Lekittoko IZARRA.

Mik.— Geure ama zana be, sarritan etorten zan ona, gaixotu zan arte.

Tim.— Baaai! Oingo andra gaztiak baiño sarriyago.

Deo.— (EKIN BERIARI)... Liorrian naaste, min eta nekiak dagozanian be, ortxe egongo da beti, geuri begira ta geure jagola, elorri ganian.

Mik.— Ni emen ziar pasa ezkero, sartu-urtena egin barik, enaiz juango.

Deo.— Sartu-urtenak diñozu? Gizonak dauke oingo modia, tabernetan sartu-urtenak egitia.

Tim.— Lenago, zelan zan ba?

Deo.— Lenago? Ai, lenago!! Ontzi bakotxaren tabernan egoten ziri-an gizonak, nasai ta manatan, euren portziñoia edan arte, lazeriya jan bitartian. Kuartillokua, edo gitxienez be, euren txetxua edan arte. Zer gitxiago, demonintrua, gizona dan gizonak!

Mik.— Oingo baso lodirik ba eguan, orduan?

Tim.— Bai! Kristala lodi, ta ardaua, me!

Deo.— Ori diñozu? Ardau piskat edateko. Mastapuntakua artzeko baiño ostera gehiago egin biar dabe-ta; batian ara, bestian ona, gora ta beera...

Tim.— Bai, baiña oingo denporetan, alterna egin biar ei da-ta...!
Deo.— Alternaaaaa? Alterna dona ori...! Berrogei tokitako ardauak, norbere urdaillian barruan nastautia!
Mik.— Olan, ardau gozagua nun daguan jakin ein leikie.
Deo.— Ez ete litzateke obeto izango, egun bakotxian taberna diferentera juan, eta antxe, nai dan ardaua edatia?
Tim.— Kanpotik ekarri dabe oitura ori.
Deo.— Ta kanpokua dalako, ontzat artun guztiak. Nik i, ikusi ez, baiña entzun bai, oin e, apariya be, jateko berotu bakuakin egiten dabela batzuk.
Tim.— A-la-amerikana dozu ori.
Deo.— A-la-amerikana? Orixe dok ederra! Neuk gero, gaixorik dagozanian be, orixe emongo neuskiyue: labatibia ur otzagaz.
Tim.— Zuk esateko!...
Tim.— Baiña oin, internazionalak gara gu, Deograzi, iesko udatik.
Deo.— Ori diñona? Geure bizimodu guztian, sekula ikusi eztoguna ikusi leiteke: emakumiak ondarrian, patatak soluan lez, euren zillak agiriyan dituezala...!
Tim.— Osasunarentzat ei da ona, aizia ta eguzkiya artzia.
Deo.— Orduan, datozala islara neguan, iparraizia daguanian.
Mik.— Kanpotik etorri ezkero, modak be, onak dira.
Tim.— Islan ezta iñor bizi, baiña.
Deo.— Islan iñor bizi eztala izan? Baukazue zeuek, gero, islako akerren entzuterik?
Tim.— Bai, kantak be, ba dira-ta.
Mik.— Beste erri aundiyen antza artu biar ei dau Lekittok, udan.
Deo.— Udan bakarrik? Lenago euskalerriyetan, gau-txoriyak ibilten zirian bakarrik, sorgiñak kendu ezkero. Gaur barriz, gabeko usuak be ezagutzen doguz.
Tim.— Gabian usuak?
Deo.— Bai, eni alabia. Neguan be, neska gaztien erloyuak, etxetik kanpora dabizenian, gaberditik gora, geratuta egoten ei dira; amabiyetan geratuta. Bakit neuk, eta oba da ixilik egotia.
Tim.— Ezaitez asarratu, Deograzi, bestien kontuakaitik.
Deo.— Bestien kontuak aztuta ezin leiteke bizi, komentuan sartunda izan ezik.
Tim.— Baaaaai...! baiña, zu len, Deograzi, Antiguako Amaren kontuak esaten asi zara ta...

Deo.— Eztakit pa, eztakit pa...! Ezta errez izango, amar aginduen bide estuan ziar azkeneraiño juaterik, zeruko atiak be, "desmontabliak" ipinten ezpadabez.

Tim.— Antiguako Amaren kontuak entzuteko emen gagoz gu, Deograzi.

Deo.— Bai, eni alabok! Antiguako Amaren kontu asko dakidaz nik. Biar bada, zaarra naizelako izango da; baiña zuek be ez aztu iñoiz be, gazte guztiak, zaar biurtuko diriana. Ta eriotziaren bildurra, lenago ala geruago, guztiari etorten yake onaxe barrura. Alperrik zorakeri asko egin!

Mik.— Antxiña antxiñakua ei da irudi edo imajiña ori.

Tim.— Guk geuk, u, Antiguako Amaren irudiya, aspalditxurarte, beti tapata ikusten genduan.

Deo.— Esangotsuet. Bizkaian dirian irudirik zaarrenak, iru dira izan be. Eta Andra Mariyaren iru irudiotatik bat, auxe, geuriau da ain txuxen be.

Tim.— Itxasuan agertu ei zan...

Deo.— Ez, txikiña. Etzan itxasuan agertu. Itxasoko ondartzan agertu zan. Ointxe Ama Birjiñiaren arbolia daguan tokiyan edo. (ZITAL) Ez al dakixue zein dan, Ama Birjiñiaren arbolia lameran?

Mik.— Bai, andria, jakingo eztogu, ba!

Tim.— Txikitan, Ama Birjiñiaren madariyak ziriala, esaten genduan, arbola orrek izaten dituen garautxu gorriyak.

Deo.— Bai; baiña ez pentsa gero, garangorriyak dirianak. Lamerako arbolia elorriya da. Elorri zuriya.

Mik.— Noiz agertu zala, esan dozu?

Deo.— Agertu, zortzigarren mende edo sigluan. Baiña orduan, etzan Antiguakua. Izen ori geruago ipini eutsen, 1502 garren urtian ipini ei eutsen.

Tim.— Ta zegaitik?

Deo.— Sasoi orretan, altara nagosi barriya egin eben, oin zedenak eta autsak erdi-janda daukagun altara ikusgarriya. Eta Andra Amariyaren irudi barriya egin ebelako, lenagokuari, zaarrari, zeuek dakizuen izena ipini eutsen. Erderaz ain zuzen be, ta eztakigu zegaitik.

Tim.— Abariak eurak bez, gauzak ain ziatzago esan, Dograzi.

Mik.— Ama Birjiñiaren kantak be, lekittarrak asmaurikuak dira, bai zaarrak eta bai barriyak.

Tim.— Zaarrak, nok asmau ebazan, ba?
Deo.— Zarrak, Patxi Kortabitartek, 1866 garren urtian, ointxe diriala EUN urte. Ori lekittar ori, Madrilleko Kapilla errialeko maixu izan zan. Kantiau badakizue, ondo be: Salbe, Jaungoikuaren...
Mik.— Ederto dakigu ori.
Deo.— Ta bakarrik kantatekuak, "soluak"? Ona emen lenengua:

"Antiguako Ama,
Birjiña Mariya,
lekeitiar guztien
atsegingarriya;
geure itxaropena
zeugan ipinirik,
zeuk gordetan gaituzu
gaitx guztietatik."

Tim.— Bigarrena be, ezta makala.
Deo.— Bigarren "solua", lastimosua da. Entzuizue:

"Zeuk bigunduten dozuz
itxaso asarriak,
zeure kontura dagoz
mariñel tristiak.
Salbe bat kantau eta
besterik bagarik,
sarri ikusten doguz
libre arriskutik.

Mik.— Orixe da nik onduen ikasi nebana: mariñel tristiak.
Tim.— Bai, baiña, ezta beti triste eta itzal egon biar, kontxe!
Deo.— Orixe bai! Irugarren bertsua, guztizkua da, pozgarriya benetan be. Eta onantxerik da:

Lekeitioko plazan,
bai ordu onian,
alba-izarra ederra
agertu ziñian;
sarri ikusten dogu
Elorri ederra
negua izan arren
beti primabera"...

Mik.— Ederra bertsua!
Tim.— Sentimentuz bete-betia.
Deo.— Gero, oraintsuagoko kantak, edozein umek dakiz, edo jakin biar leukez, oin urte gitxi dala, Ama Birjiñiaren koronaziñoian, kanta ta kanta egin genduzalako:

"Elorri zuri ganeko...

TIMU ETA MIKELA.— Andra zoragarriya,
Emen daukazu onduan

Zeure erriya...

Deo.— Bai, eni alabok. Onezkero sasoia izango da, ta goiazan Xirdo gixakuaren onerako erregu bero-beruak egiten.

(DEOGRAZI ELIZARANTZ DOIA AGURE ZAARRAK BE BAI. ETA NESKATILLAK, ANDRAK, ETA ABAR)

Tim.— Ain mutil ederra, ain eder ta gaztia...!
Mik.— Amaika neskatilla ba dagoz Arranegiyan aregaz gustata!
Tim.— Arranegiyan bakarrik? Baita Atian be, ta baita Mendixan eta Oletan be...!

(BADOIAZ BIYAK)
(ZURIÑE TA NERE DATOZ, ARIN TA ESTU)

Nere.— Atrapako ete dogu Salbia?
Zuri.— Lenago eztogu jakin-da?
Nere.— Parkatuko al deusku Xirdo-k, gure borondate ona.
Zuri.— Bazenki, Nere, bazenki...! Nik barruan darabidazan pentsamenduak!
Nere.— Zelako pentsamentuak?
Zuri.— Egon zaiz ixilik, ormak be, entzun egiten dabe-ta.
Nere.— Ez alzenduke iñok be jakiterik nai?
Zuri.— Gauzak argitu arte ez. Ta ganera...
Nere.— Ganera, zeeer?
Zuri.— Ezebez. Nere; zoiaz aurrera mesedez, elizan sartun orduko mantilliau buruan ipini daidan. Zuk ipinita daukazu.

(NERE JUAN DA, TA ZURIÑE BAKARRIK)
(GELDIRO)

Zuriñe.— Zeruko Ama on ori! Atsekabe guztiak neuk, bakarrian, eta ixillian, eruatia eskeiñi neutsun. Nire lorrak, nire atsekabiak, barruan itoko ditut. Xirdoren irudi atsegiña, aren fiura gogozkua, aren begirakuna gozua, aren txera maitekorra, aren agur-eikera samurra...! Ai, Xirdo gixakua!...

(MANTILLA BURUAN IPINI ETA JUANGO DA)
(PERKAIN, bakarrik, ETA ASTIRO TA NASAI, AUAZILLAREN ARIMIA LEZ)

Perkain.— Gure mutil txikiñak, nun ete dabiz ointxe be! Ez Talan dabiz, ez frontokatzian; ez ondarrian, ez Lameran...

Nora juan ete dira gure mutil okerrok? Ez zirian juango, atzo lez, alkatiaren ortura, marari-lapurretan!...

Elizan, lagun asko egongo da, ziur ziur, Salbetan. Baiña orreek, inpernuko labako txoriyok, ez dira or elizan barruan egongo.

Ta deskuiru santuan, elizan badagoz, or ibiliko dira argizeri-lapurretan.

Baiña, or konpon, Mari Anton! Perkaiñek, eztauko elizan aginpiderik. Elizan, sangrestaua da nagosi, eta berak jakingo dau, zer egin, eta zelan konpondu.

(PIANU-OTSA ASIKO DA, ETA JENTIA BADATOR ETORRI, ELIZATIK KANPORANTZ. EZENARIYUAN ZABAL-ZABAL PARAUKO DIRA, eta ANDRA MARIYARI ABESTI BARRIYA KANTAUKO DEUTSE.)

"Salbe, Jaungoikuaren
Ama orbanbakua...

(ABESTIA AMAITU-ALA, OIALA ERATSIKO DABE)

AMAIA

Bilbon, 1966 zezeillean.
Eusebio Erkiaga-k egiña,
"Arranegi" elebarriko
asmoz egindakua.

GAU BATEAN*

Iru ekitaldiko antzezkizuna

JARDULEAK

Kopetargi (Kopet)		24 urteko mutila
Laiño		23
Eiztari		25
Azeri		23
Okitu jauna		58 urte inguruko gizona
Goizne		21 neskatxua
Ama		52 emakumea
Sorki		27 neskatxa
Zuzenzale	1	22 mutilla
	2	22
	3	22
	4	22
Txiñel	1	45 gizona
	2	45
	3	40
Txiribogin		40 "
Otsein		50 "

Oraingo aldia.

I EKITALDIA

Edaritegi batean, alegia, "bar" batean. Mai batzuek, eserlekuak, eta abar, soillik agiri dira.

---

* *Argitaratubakoa*, 1970.

1
Kopetargi ta Laiño

Kop.— Eta zazpi izar ikusi nituen.
Lai.— Zazpi?
Kop.— Bai, zazpi ziran.
Lai.— Eta zein aldetan?
Kop.— Bat nere kopetan, argi-argia, bizi-bizia.
Lai.— Eta nik ez ahal nuen ezer?
Kop.— Zuk, beti bezela, laiñoa, zalantza, ikara, bildurra.
Lai.— Nik ere ba dut odola.
Kop.— Bai, alajaiña. Kabixoiarena. Ura bezin otza, zera, urak aiña bere duen odola.
Lai.— Tira, tira!
Kop.— Bai, ba! Baiña ez asarratu. Argiaren dirdirapean ibilli beharra dugu.
Lai.— Oraindiño ez da garaia, ordea.
Kop.— Biar berandu izan liteke.
Lai.— Gutxi gera; ez gaude gertu.
Kop.— Atzo gutxiago giñan. Erenegun, are eskasago.
Lai.— Orduan zu ziñan, soil-soillik.
Kop.— Jakiña! Norbaitek behar zuen lehenbiziko izan.
Lai.— Jarrai egizu jardunean.
Kop.— Beste lagunekin bildu baiño lehen...

(Txiñel bi pasatzen dira, alde guztietara beha ta beha. Kopet eta Laiño, erretzen, kantari:)

"Mertxikaren loriaren ederra!
Barnian dizu exurra gogorra;
Gaztia niz, bai eta loriosa,
Ez dizut galtzen... (Txinelak bioaz)

Lai.— Bildur izan naiz.
Kop.— Zorigaiztoko bildurra! –esan beharko.
Lai.— Zergaitik?
Kop.— Entzun ezazu: ontzi honetan sar dedina, egunetik egunera oldartsuago, kementsuago bilakatuko da. Edo ta bestela...
Lai.— Txiñel hoiek zerbaiten aztarna ez ote dute izan?
Kop.— Eize zakurrak ote dira?

Lai.— Iñolaz ere, txiñel hoiek, ez ahal dute susmo-senik eta ezta aztarnarako sudur zolirik ere.

2
Lehengoak eta Eiztari

Kop.— Txiribogin! Atera ezazu ardo berria.
Lai.— Halakoren batean ere, agertu zatzaigu.
Kop.— Ixi! Zigarrotxo bana?
Eiztari.— Ba...! Surik ez dut behar. Ba dut barnean.
Kop.— Zer giro? Aize ala bare? Euri ala aterri?
Eiz.— Aize ta euri, noizpeinka.
Lai.— Ez zara busti, ordea.
Eiz.— Zoroa! Erdi alferrik izan da, egin dudana. Ba...! Jendea lo dago. Illa, nunbait. Konsumoko gizartean bizi gara. Aragikeria ta edarigarra nagusi, bazterretan. Utikan!
Lai.— Guregatik ez diozu, noski.
Eiz.— Bai zera! (Txiribogiñak bekarz ardo ta ontziak)
Kop.— Noraiño joan zara?
Eiz.— Iruzpalau adiskide zahar, jakitun daude.
Kop.— Txiribogin! Kartak ere, ekar ezazkiguzu. (Txiribogiña beioa)
Lai.— Arriskurik?
Eiz.— Ez dut uste. Gure arazo honek, zati bi ditu, bereziak noski. Eta biak batean agertzea, ez zaigu komeni. Gizenduen egoera ta jokaera, ba dakizkit.
Kop.— Bai, dirua ez galtzea ta ezurritzea. Hori, mailla aurrena. Ta urrena, berdintsua. Alegia, aginpidea ez uztea.
Lai.— Eta askatasuna?
Eiz.— Askatasuna? A, txori jaioberria! Zeiñek du bada, askatasunik?
Kop.— Askoren amets ederra!
Eiz.— Egitan ametsa!
Lai.— Egia da askatasuna ere, gizonek zatitzen eta banatzen dutela. Batean bai, bestean ez. Batez ere, goian. Eta behean, ezta batere.
Eiz.— Indartsuek ba dute askatasuna. Eta indartsuen gerizapean ari diranak daude tokirik onenetan. Gizentzeko, jakina, eta munduko tristurak ahaztutzeko.
Lai.— Egia borobilla. Halaere, zergaitik ez gabiltz gu ere, indartsuekin batean, eta ez makalen artean neketan, ari geran bezela?

Kop.— Gure izarrek, beste keiñurik eta bete dirdirarik erakusten dizkigutelako.
Lai.— Gure izarrak! Tokitakoak...! Egunez gorde ta itzal egiten dira ta gauez, ez zaizkigu beti agertzen.
Eiz.— Beste izar guztiak bezala.
Kop.— Ez zaitezte hain petralak izan. (Txiribogiñak kartak dakarz).
Eiz.— Jendea, behin illundu ezkero, alegia, behin gizendu ezkero, etxean geratzen da. Ta ez du nahi besteren premiñetaz jabetu.
Kop.— Beraz... laiño artean ari beharra dugu, asieran behintzat.
Lai.— Ta gero, neri, Laiño izena ezarri!... Zuek ere, laiño-artekoak ez ote zarete, alajaiña!
Eiz.— Ba liteke.

3

Lehengoak eta Sorki.

Sor.— Hemen ahal zaudete?
Kop.— Honera azaldu ez baziña, obe.
Eiz.— Zure premirik ez baitugu.
Sor.— A, ederki, zalduntxo argiztuok! Orain arte, mundua konpontzen ari ote zerate? Ta nun dira gure maitetasun orduak?
Kop.— Ez daude, noski taberna honetan.
Sor.— Ta gurea, maitakeria soilla izan ahal da? Ba dut horrexen susmoa.
Eiz.— Emaztekien susmoak ez dute ez ordurik, ez mugarik.
Sor.— Jakin egizu, eiztari azkar, emakumeen susmoak, irutik bi, utsak ez dirala izaten.
Lai.— Emakumeak, gizonak baiño azkarragoak ote dira, bada?
Sor.— Gizona aiñakoak bai behintzat. Ameriketan ere, gizon eta andre, berdin dira legeen aurrean.
Kop.— Urruneko intxaurrak...
Sor.— Hemendik aldegiteko kili-kilia niregan sortu nahi duzute, ezta? Bada, nahi dudanean aldegingo dut. Amarretan itxaroten egon zaitezkete... baiña ez niri. (Beioa Sorki, kalerantz)
Eiz.— Eroa! Guztiak bezalakoa! Maitakeri orduak, ordu galduak izan dira betiere. Horixe gertatu izan zait neri.
Lai.— Asarretu egin zaio. Ez zaizu agertuko.
Eiz.— Ai litz! Bide okerrak laga egin ditezke.

Lai.—Eta obeak artu. Horixe diot nik, egunsenti bakoitzean. Baiña gero, orduak aurrera, ta lehenera erortzen naiz.

Kop.— Gurekin ibiltzea, erortzea ote da? Egun berriaren elduera, gure eskuen urbil, gure ikusterrean dagoela sinisten baldin badugu, nolatan orain makalkeria zimel hori?

Eiz.— Laiño ez dgu behingoan mardulduko den landara. Aizerik aizeenak ere, kulunkan eta zanbuluka jarrierazten baitu. Erraz ximurtzen zaio bizarra.

Kop.— Halaere, Laiño gizon zintzoa da, zuzena, aldakuntza saltzaillerik gabea, gazte jatorra, erabat esan.

Lai.— Eskerrik asko, adiskide. Illargiak jo zaitu bapatean eta... horra!

Eiz.— Hori ateraldia, Laiño! (Iruzpalau Zuzenzale ager bitez)

4
Lehengoak eta Zuzenzaleak

Zuzen.— Kaixo! Kaixo!!

Eiz.— Zergaitik etorri zarete honera?

Kop.— Aldegin ezazute poliki poliki, zuzenzaleok.

Zuzen.— Eldu bezin laster?

Kop.— Ez dezagun ezer goganbeharrik sortuerazi.

Lai.— Gogorra zera, orraitio, Kopet.

Kop.— Iñola ere ez zaigu komeni lagun mordoa zabaltzerik. Zoazte Laiñorekin. Zoazte guztiok aguro. Horrek esango dizute gaurko agindua.

Zuzen.— Zure esana egitearren, joan egingo gera.

Kop.— Bai, zoazte, enetxook! (Beioaz Laiño ta Zuzenzaleak)

5
Kopet eta Eiztari

(Berriketan eta kartetan)

Kop.— Dirurik gabe geratu gera. Genduena, zabaldu dugu, barreatu dugu.

Eiz.— Eta noizko jasoko dugu diru berria? Onez onean ez da erraz izanen.

Kop.— Azerik zer dio?

Eiz.— Azerik, jakiña, jaietan jendeak dirua erruz bota izan duela. Ta ixilpeko emaitzak biltzea, zail xamarra izango ote den. Gaiñera...

Kop.— Gaiñera, zer? Beheko guztiok biltzen ez baldin bagera, goikoek ez dute batere sosik geituko. Goikoak ez du behiñere ezer ematen. Eman uste duena, poliki kobratzekotan baizik.

Eiz.— Behekoen iraupenak, ordea, bizi laburra du.

Kop.— Zeeer? Zu ere, zimeldu egin ahal zatzait?

Eiz.— Ez, baiña gure bideak estuegiak, medar xamarrak iruditzen zaizkit, maizenik.

Kop.— Ba, oraingoz, ez dugu beste biderik. Batasunak emango digu indarra, batasunak kemena, nekeak oro jasaiteko aiña, harik eta garaitzaren ordua el dediño. Uste ahal duzu?

Eiz.— (Berekiko) Batasuna, zorioneko batasuna! Agian, bitasuna maiteago dugularik...! (Kopet-i) Sinistu nuen, sinistu izan dut. Ordea, eragozpenak mendiak baizen larriak eta izugarriak ikusten ditut, begiak apurtzeraiño. Eta bideak, berriz, illun eta biurriak somatzen ditut.

(Txiñelak berriro sartzen dira edaritegira)

Txiñel 1.— (Lagunei) Bai ala ez?

Txi. 2.— Ezetz esango nuke.

Txi. 3.— Hoiek, langille alferrak dirudite, noski. Ez jan, ta ez lan.

Kop.— Amarrekoa norentzat izango ote da?

Eiz.— Beti bezela, niretzat. Irabazitako diruaz, ardoz asebeteko naiz, eta luzarorako, gaiñera.

Kop.— Hori, alferrik itzegitea dela uste dut. (Txiñelak bioaz kalera)

Kop.— Txiñel deabru hoiek, zantzu makurra adierazten didate.

Eiz.— Jan-zakurrak besterik ez baitira, hoiek gorabehera...

(Kopetargiren ama ager bedi, ta semearengana oldartzen da)

6

Kopet, Eiztari eta Ama.

Ama.— Ene seme! Nun zera etxera gabe, iruzpalau egunez? Gose itxuran, arlote xamar...

Kop.— Ixi, amatxo! Ez naiz jateko gose; zuzenaren gozeak narama, aizetan aiñara bezela.

Ama.— Zuzena, zuzentasuna? Nun, eta gizonen artean? Semetxo, mundu honetan ba ote diteke zuzentasunik arkitu?

Kop.— Ahalegiñik egin gabe, ama, iñola ere ez, noski.

Ama.— Ta zuri ote dagokizu neke hori artzea? Ene seme, zatoz etxera, berriro ere! Senarra galdu nuen aiñean, galdu behar ote dut seme bakarra ere?

Eiz.— Ez duzu semerik galdu, etxekandre. Hemen duzu semea, ta are, gehiago ere.

Ama.— Ta, zu nor zaitut? Ene semearen betiro adiskide berriren bat, alegia? Ez daki adiskide zaharrekin ibiltzen, betiko adiskideekin, noski. Gaztetxo zenean egin ohi zuen bezela. Asmo berriak sortu ditu buruan, eta burutapen hoietan murgildutrik bizi zait aurra. Nork du errua?

Eiz.— Iñork ez du errurik. Jaio giñala, ta il arte hemen ari gerala, horixe duzu erru bakarra.

Kop.— Bai, amatxo. Guk, makurkeriaz betea arkitu dugu mundu hau.

Ama.— Ba liteke. Baiña milla gauza ere, milla gauza on ere, ez ahal dituzute arkitu gurasoen etxean, errian? Ondasunak, izen ona, etxeak, lantegiak, kaleak, bideak, jolastokiak, elizak, legeak...

Kop.— Begira, amatxo: zuk ez duzu munduan indarrik izan. Zure indarra etxean izan duzu, ta aita zena ta ni zurekin, poliki bizi giñan etxean, etxe barruan soillik, epel biguin, janariz aski, egarri gabe, ez otz ez bero.

Ama.— Ta zer gehiago nahi duzu? Zergatik, beraz, etxeko bakea laga? Kaleko burruka zitala, anai-arteko burruka ergela maiteago izateko, noski?

Eiz.— Etxean bakartade illuna dago, geienbat.

Ama.— Etxeko bakartartadea eta bakea! Ta zer geiagoren premia du gizonak mundu onetan, laneko ta gizarteko orduetaz kanpo? Zer, etxeko egoera atsegiña bezelakorik? Gerratea ezagutu nuen, ezagutu, eta orduan ikasi nuen etxeko bakea ta ixiltasuna maitatzen. Zuek ez duzute gerrarik pasatu, eta jakiña, ez dakizute ezer. Ez jakiñak zerate, besterik ez.

Kop.— Bai, lehenago zen horrela, amatxo. Ta ez beti, gaiñera. Gure erri honek, beste zenbait errik bezela, mendez mende, burrukan jardun behar izan du. Batzuetan, kanpokoen kontra. Iñoizka, gure asaben artean gudu zitaletan.

Eiz.— Bakea... sarri askotan, eriotzaren iduriko da. Illerrietan dago bakerik emeena ta isillena. Baiña hortarako...

Kop.— Il egin behar. Eta... illen bakerik ez dugu opa, ta ez behar.

Ama.— Burua zorarazten didazute. Baiña, argi esan, zein da zuek burutu behar duzuten arloa?

Kop.— Gure asmoa aundia da, izugarri aundia. Ta aundia bezin zabala, ta are sakonagoa.

Eiz.— Zuzentasunaren premiñak eskatzen duen aiñako.

Ama.— Ezin dut ulertu zuen seta hori.

Kop.— Barkatu, amatxo baiña zu lehenagoko mundukoa zera. Zaharra izan gabe, zaharregia zera, gure jokoak ulertzeko.

Ama.— Oraingo gazteen izkera modua berdiña baita, pazientzi aundia zeruari eskatzea dagokizu. Zer egitekotan gaude, beraz, zorioneko ala zoritxarreko zaharrok?

Kop.— Ez zera zu errudun, amatxo, noski baiño noskiago. Zure garaian gertatu den gauzarik asko, zure aldiko gizon doillorrak poliki asmatu ta eratu dituzte; are geiago, hoien gurasoengandik ikasitako azeri-jokoz eratu ere. Eta haiek, eta hoiek dituzu errudun.

Ama.— Mundua ez ote da ibilli poliki poliki orain arte?

Kop.— Nola hala, beharko ibilli. Baiña batzuek oparo ta gizen bizi diralarik, beste geienak, milloiak eta milloiak gizon, eta andre, eta ume, premia gorrian bizi dira.

Eiz.— Eta gero, jakiña, gosez ilten diranak, langilleak dira. Aberatsik ez da gosez ilten.

Kop.— Eta geisoak ez dute dirurik, osatzeko.

Eiz.— Izen beltzez laidozturik eta zikindurik dabiltzan emakumeak, ezeukien alaba galduak izan ohi dira.

Kop.— Egia, izan ere. Amatxo: ezagutzen ote duzu aberatsen artean alaba galdurik? Halaxe diranean ere, diruak estaltzen ditu laidoak eta orbanak, eta iñoiz ere, ez duzu putetxean, esaterako, aundiki alabarik arkituko.

Ama.— Ene bada! Aitaren eta Semearen...! Nork esan izango orain bost urte, nire semeak horrelako itzik ebaki zezakeanik?

Eiz.— Ez izutu, andrea, ta are gutxiago asaldatu.

Ama.— (Buruari elduta) Kartzelara bidean ikusten zaituztet; urkamendira bidean... Jainko maitea! Zer egin ote dugu ama geranok, gure erraietako aur xamur haiek, hain gogor, elkor, latz eta pozgabe biurtzeko?

Kop.— Ez, amatxo; gu ez gera elkorrak, ez latzak. Gure bihotzak besterenganako xamurregiak diralako da, agian, gure jokabide burutsu hau.

Ama.— Bihotzean min dut, seme.
Kop.— Bai, ama; "min etsia; zotiñik gabeko negar-miña".
Ama.— Zatoz, etxera nerekin, semetxo. Utz ezazute bide arantzadun hori. Goazen.
Kop.— (Eiztariri) Gero arte. Iluntzean bilduko gera plazan.

(Kopet eta ama beioaz)

7

Eiztari bakarrik. Geroago, Txiñelak eta Sorki.

Eizt.— Noren susmoak artu behar dituzte... Txiñel horiek? Hemen dira berriro. Eta Sorki ere... Ezkuta nadin barnean.

(Edaritegi barrurago dioa. Txiñel bi ta Sorki ager bitez)

Txi. 1.— Nik ba nuen zerbaiten susmoa.
Txi. 2.— Nik ere bai.
Txi. 3.— Zuek beti zerate azkarrak. Adarrak ikusi ondorean, ez dala zaldia.
Txi 1.— Eta nolakoak dira?
Sorki.— Ameslari utsak. Gizon guztiak berdiñak izan behar luketela esaten dute.
Txi. 2.— Eta, emakumeak ere bai, guztiak berdiñak?
Txi. 1.— Itxusiak bai, denak berdiñak.
Txi. 2.— Zure emaztea bezelakoak, beraz.
Txi. 1.— Utzi pakean nire emazteari.
Txi. 2.— Itxusia dala ez duzu esaten ba?
Txi 1.— Nik esan nezake, baña ez beste iñork.
Sor.— Dana dala, eskerrik asko, gizonak. Andreen edertasna aurpegian dagoela uste baldin baduzute, oso oker ari zerate.
Txi. 1.— Ez naiz mutil zaharra, eta ba dakit nik zerbait.
Txi. 3.— Mutil zaharrak, maiz, gehiago jakin ohi dute, gehiago ikusi ta ikasi aukeran ibiltzen diralako.
Txi. 1.— Txatxukeriak eta zantarkeriak besterik ez!
Sor.— Zer zantar eta zantar ondo! Nola bizi izango lirake gizonak, andrerik gabe? Irabazten duzuten dirurik geiena, andreei emateko ez ote duzute izaten? Horra ba! Eta zergatik hori? Auntzaren gauerdiko eztula ez da nik diodana.
Txi. 1.— Aski da berriketarik eta goazen etxaldera. Oraingo aldia bukatutzat eman dezagun, ez dugu batere trabarik. Goazen eta kitto!

(Bioaz Txiñelak eta Sorki)

8

Eiztari eta Goizne.

Eiztari.— (Agertuaz) Aldegin dute halakoren batean kakatsu hoiek. Premiarik ez denean agertzen dakite. Iskanbillik danean, ordea, ospa! Urrun-alderantz. Pakegiroa dan ederra armadunentzat ere!

Goizne.— (Agertuaz) Ene! Ez ahal dago emen zera...

Eiz.— Goizne, hau poza! Exeri zaite pixka batean.

Goiz.— Zer nahi duzu?

Eiz.— Laster azalduko da, nik uste, zuk ikusi gogo duzuna.

Goiz.— Nola dakizu horrenbeste?

Eiz.— Ez egidazu orain horrelako katramillik sortu. Ondotxo dakit noren galde agertu zeran honera. Exeri zaite.

Goiz.— Diozuna egia baldin bada, bai. Osterantzean, ba noake.

Eiz.— Zera, itz-aspertua izan bitartean ager diteke noski, Kopet, gure... nagusia.

Goiz.— Egitan ahal diozu "gure" nagusia?

Eiz.— Gure... esan dut; ez nire. Gure nagusia ta zure... maitalea.

Goiz.— Ez duzu horrela zertan itzik egin. Maite dut, ez maitale.

Eiz.— Zure osaba, ez ahal duzu maite?

Goiz.— Bai. Baiña senideen odola eta maitetasuna, zer bitako adarrak bezela dira. Zakarra zara, Eiztari, eta zure itzak ez zaizkit gogokoegi.

Eiz.— Zergaitik?

Goiz.— Hargaitik. Zure... nagusiaren aurrean, ordea, ez zenduke berdintsu itzegingo.

Eiz.— Ez dut uste batere itsuskeriarik aipatu dudanik. Agiri danez, nirekin egotea aspergarri zaizu. Jakin egizu zure nagusiaren mendeko jendeetarik punterengoa naizela. Eta arro arro nabillela.

Goiz.— Behar bada, ez zaitu sakon ezagutzen.

Eiz.— Baiña, zer duzu nire kaltez? Dana ote da niregan arbuiagarri?

Goiz.— Ez dizut dana ukatuko.

Eiz.— Orduan, pixka hortatik abia gindezke. Egin ezazu xerbait maitagarri dudala. Zeuk beste zertxobait geitu ezkero, mostaza azia bezela, zuaitz mardul eta borobil bilakatu diteke gure arteko elkar-beharra.

Goiz.— Ixo!... Aho aundia zera, Eiztari. Gure arteko elkarbiderik ez dut nik aipatu ere egin.

Eiz.— Nik bai, ordea. Ala, zer uste duzu, ni ere ez naizela gizon?
Goiz.— Oraintxe esan dizut zerbait.
Eiz.— Zeeer?
Goiz.— Agian, beste norbaitek ere esan izan dizuna. Bai noski, ba duzu gizon tajua, gizon itxura. Baiña, itxura ez da aski, jakiña, gizon izateko.
Eiz.— (Erreta) Gizonik asko ezagutu duzula esan diteke, zure itz hoiek entzunik.
Goiz.— Nazkagarri zera.
Eiz.— Eta nik, zera, beti kolegiala epela bezela ikusi izan zaitudalarik!... Arrigarri da!
Goiz.— Nazkagarria zerala esan dizut. Ez da batere arrigarria, señorito berri. Begira: zakarkeria ta gizalegea, bi gauza desberdin dira. Ez ahal zenekian?
Eiz.— (Isekaz) Bai, anderetxo, ba genekian horrela zela. Harik eta, Kopetargiaren dotriña berri hoietan erori nintzan arte.
Goiz.— Kopetargiri ezarri nahi ote diozu zure gizabide txar horren asiera ta errua?
Eiz.— Hianbesterik ez dut aipatu. Jakiña ba.
Goiz.— Jakiña ez ba! Orain, nahasturik zaude, adiskide.
Eiz.— Kopet gure jaun aundiak jendetasun txit txeratsua du noski, zuretzat.
Goiz.— Doillorra ezbestena! Ez zera zu gizon duiña, haren taldeko izan zaitean.
Eiz.— Eta... zure osaba jaunak, ba ote daki Kopet nor dan, eta zer nolakoa dan? Eta, haren asmo bereziak?
Goiz.— Aski da. Garratz buka genezake berriketa hau. Utz dezagun.
Eiz.— Kapitalisten asmoak eta Kopetenak...
Goiz.— (Ebakiaz) Kapitalista onak eta okerrak ezagutzen ditut. Eta zu, baldin kapitalista baziña, okerren artekotzat joko zinduzket.
Eiz.— Baiña ni, zorionez, ez izan kapitalista madarikatu, zure osaba donea bezela, eta bai langille kaxkar, Kopeten antzeko.
Goiz.— Langileen artean ere, ba dira maillak eta neurriak, zeharo ezberdiñak.
Eiz.— (Aldatu nahiean) Zera, Goizne, ba dakizu gure berriketa hau, denbora paxa izan dala. Gure dialektika armak zorroztutzeko, soillik.
Goiz.— Modu polliteko dialektika, bidean agertu diran guztiak larrutu baidituzu. Eta aski da. Agur! (Beioa).

Eiz.— Kirten aundia naiz, kirten betea, asto galanta! Zergaitik esan dut horrelako kirtenkeriarik, astokeria hain beterik? Aukera pollita galdu dut. Eta gaiñera, nire erruz. Zorigaiztoan itz egin dut.

(Txapela biurtzen du eskuetan, amorruz)

OIALA

II EKITALDIA

Okitu jaunaren despatxu, mahai, arki zabalak, etab.

1

Okitu, bakarrik.

Okitu.— (Paperak ikusiaz ta aztertuaz ari da). Zor berriak handik, eskabide berriak hemendik. Luzamenduak batetik, eta galtzaiak bestetik. Eta gero...

(Whisky edari-kopa lurrera ixuri, ta edanaz)

... kapitalistek dirua bildu ta atsegiñez bizi besterik ez dutela egiten esango dute marmarioz, proletario lasai hoiek!

Eta enpresa-gizonak izaten ditugun estura, larrialdi ta are geisoak era!... Bai, bai!! Enpresa-gizonak geiso berezia omen digu, surmenage delakoa.

Whisky puxka, ordea, bere bizikoa dugu zaiñen gogortasuna biguintzeko ta nekea arintzeko. Beharko! (Whisky zurrutada berria)

Enpresarioen buruausteak...! Lanak nola aurrera eraman, zorrak zuritu, ta hainbeste gizasemeri nola jaten emango!

Eztabaidak, oporrak, kalteak, galtzailak... Eta lanak egin eta kobratu eziñik, epe luzeak eta are luzeegiak eskiñi beharrez?

Coyuntura madarikatu honetan ez dugu girorik ezer irabazteko. Eta jendea ezin kalera biali.

Dirurik bildu ezin, eta nora goaz orain kreditu billa, nork nahi du zorretan dirurik utzi? Zoaz bankuetxera, ta iturria agortu egin dala, ta etxera esku utsik. Esan zuhurra da: aterri danean aterkiña eskiñi; baiña euri jasa astean, aterkiña kendu. Bapo motell!

Pare bat urterako jarriko nituke nik langille batzuek, ugazaba ta olajaun bezela. Duten guztia, gutxi ala asko, galtzeko arriskutan.

(Atean ots egiten dute)

2
Okitu eta Zuzenzale bat

Okitu.— Nor ote dator orain? Eta gure ordenanza alper hori? (Oiuka) Aurrera; sartu aurrera.
Zuzen.— Arratsaldeon dadukala!
Oki.— Halan ekarri! Otseiñik ez ahal da hor nunbaiten?
Zuzen.— Ez, ez da agiri iñor.
Oki.— Eta, zer nahi duzu?
Zuzen.— Karta hauxe hemen laga.
Oki.— Erantzunik ba ote du?
Zuzen.— Ez, orain bereon ez. Geroago... bai, noski.
Oki.— Eta, nork eman dizu? Menbreterik ez du ta.
Zuz.— Ba liteke.
Oki.— Ba liteke, zer?
Zuzen.— Zera, menbreterik ez izatea, orain bereon behintzat.
Zuzen.— Zeiñena da, ba?
Zuzen.— Barrenean dauka, alegia. Agur jauna (Beioa Zuzenzalea)
(Whisky puxka edan berriro ere. kartazala urratu bitartean)

Deabruren semeren batena ote dut, karta ertsi hau? (Paper txiki bat atera, ta irakurriaz)

"Hemen eta orain.

Ekonomi gorabeherak ez dabiltz oraingoan, iñoizko mamitsuen.

Baiña askoren gosea larriagoa da, ugazaba askoren coyuntura madarikatua baiño..."

Honek ere, nik esan ita berbera dio? Neri entzuna. Agian, Learreta jaunarena da. Aurrerapen bat du, noski. Gure dira eurodolarrak aiña ez ote du balio, interes pollita ateratzeko?

Jarrai dezagun!

"Baiña hemen eta orain, Jainkoa urrun xamar baitago, geuk, gaurko gizonok, oraingo gazteok, gure Zuzentasunaren izenean, gure zintzotasunaren kariaz, eskatzen dizugu.

Zaude bada, prest eta gertu, gure taldeari gogo samurrez, onez onean zerbait eskintzeko. Agian, milloitxo laurden bat, Malkorretako artzuloan dagoen antzeko ariaren atzean utz-araziko ba zendu?

Ez diogu kalterik egiten iñori. Ez dugu iñor arrapatzen. Egun berri obeak opa dizkiogu gizaldiari. Ta zuri ere bai.

ZUZENZALEAK"

Oki.— Ederki eman ere! Zuzenzalea ni ere izango nintzake, jakiña, besterenetik artuta! Baiña, nortzuk ditut zuzenzale hoiek? Eta milloitxoaren laurden horrek, interesik irabaziko? Hoiek ez dira zuzenzaleak soillik; hoiek ekonomista berriak dituk, arraioa! Konsumoko ekonomi erkin eta xixtriñaren ondorenak. Europako merkatuan sartzeko, hoiek bezelako amortizatzailleak behar izango ditugu, noski.

Milloi laurdentxoa, ezeren trukerik gabe. Arrapaketaren ordez baiño obe duk, izan! Eskabide bitxia, ezeren erantzupen eta garantiarik gabea. Alegia, kredito musukoa, kopetarekin eskatzen dana.

Jatorrak dituk, orraitio! Jatorrak! Hauek inversio berriak! Amar milla ogerleko nahikoa izango duk, oraingoz. Seiñale bezela, tratu berrietan sartzeke. Ja, ja, ja, ja, ja! (Txirriña joten du)

3
Okitu eta Otseiña

Oki.— (Otseiña agertu ala) Nun egon zera lehen? Hemen sartu dana ez duzu ikusi, noski.

Otsein.— Ez, jauna. Tabakurik ez nuen eta...

Oki.— Tabaku billa joan. Ikusten? Hori errebeharra, ta dirua kee bihurtu beharra!...

Otsei.— Ba daki ba, jauna. Tabakalerakoak ere kapitalistak dira ta.

Oki.— Kapitalistei irabazten eman behar, ezta? Lan egiten duzute dirua irabazteko. Ta gero, diru hori, berriro kapitalistei emateko, andre ta umeak hortarik ezer onurarik jasoteke.

Otsei.— Andreak eta gazteak ere, ederki erretzen dute orain, jauna.

Oki.— Egia, egia. Kapitalismuaren gauza okerrak guztiak onartu nahirik. Ama gurea zenak, ez zuen erretzen, baiña...

Ots.— Orain ez dago lehengo konturik, ugazaba. Abantze sozial hori ezin liteke iñolaz ere gelditu. Beti aurrera, eta beti oberantz.

Oki.— Langillea bai; ez ordea, dirujabea. Begira: zenbat eta premiña gehiago geuk sortu, bizi-eziña nabariago izango dugu. Asko behar, eta ezin eldu!

Otsei.— Baiña, atzera egiterik ez dago, ezta?
Oki.— Ez, hori ez. Tira, aski da onezaz. Zera, dei egiozu nire illoba Goizneri.
Otsei.— Etxean egongo ahal da?
Oki.— Noski.

(Beioa otseiña)

Oki.— (Paper eta liburei begira). Bukatu dezadan nere kontu garbitze hau. Joan dan urteko galtzaiak ez dira hain nabarmenak izan. Jakiña, orain bi urtekoen ikusian! Aurten zertxobait irabazi ezkero, urrengo urtean mordotxoa izan genezake, lehengo galtzaiak kitatzeko; eta makiña zaharrak kendu eta berriak eta obeak erosteko. Guretik egin beharko finantza kontu hau, egun idor hoietan. Au duk aukera! Batzuek mauka, eta besteak errekara.
Otsei.— (Larri ager bedi) Ja na! Goizne ez dago etxean. Gaiñera, atea zabalik dago eta barruan... neskamea eskuak lotuta, eta ahoa zapiaz estuturik.
Oki.— (Bapatean jeikiaz) Nola? Zer diozu, gizona!
Otsei.— Entzun duzuna, jauna.
Oki.— Noan ni ere, etxera. Deitu lantegiko zenbait laguni. Goazen guztiok. (Mahia gaiñeko papertxoa artu, eta sututa) Iñor ez dutela arrapatzen! Iñori ez diotela kalterik egiten!
Ta nere illoba maite Goizne ez dute arrapatu, ba, etxean gaiñera? Bai, berberak dira paper-bialtzailleak eta arrapakariak. Nolako zuzenzaleak, ordea! Arrapakariak dira, eta agian, odolzaleak! Edozein tupamaro bezela. Ez dira jatorrak, doillorrak baizik...!

OIALA

III EKITALDIA

Basoan, arbolak inguru. Illargidun gau argi xamarra.

1

Zuzenzaleak

Zuzen 1.— Izadiak duen tokirik jatorrenean bildu gera batzarrerako.
Zuzen 2.— Basoa bezin jatorra da itsasoa ere.
Zuzen 3.— Behar bada, jatorrago itsasoa, mundu guztirako bideak, edonorako joerak, askatasuna bide zabalagoak ditualako.

Zuzen 1.— Orduan, zergatik ez esan zerua ere? Zerualdean baiño bide zabalagorik ezpaita iñun. Dena da bide, dena uts, dena aukera, ta zabalera aiñean, luze ta sakon ere.
Zuze 2.— Baiña, zeruan ezin egon gindezke zintzillik, erori gabe.
Zuzen 1.— Erori gabe? Bai. Egon gaitezke. Gogoratu ezazu Gagarin!
Zuz 2.— Ni neu, ez behintzat.
Zuz 3.— Jakiña! Egazkiñetako gizona ez baitzera!
Zuz 1.— Gizonek egindako satelite direlakoetan bizi gindezke. Bapo gaiñera. Baiña, esanak esan, laga niri mendi baketsuan, baso ederrean egoten.
Zuz 4.— Hementxe beharko egon. Nagusiak besterik adierazten dueno.
Zuz 2.— Nagusia aipatu duzu, eta Kopetargi gurea ez zaigu oraindino azaldu onera.
Zuz 1.— Ez da urrun izango. Itza, itza da. Ta gizonak berbere itza jan baleza, ez dukegu ez itzik ta ez gizonik.
Zuz 3.— Hori sinisturik bizi gera, noski.
Zuz 2.— Dudarik gabe.
Zuz 3.— Zerbaiten otsa...
Zuz 1.—Aizeak lurrera botatzen dituen orbelak dituzu, agian. Bestalde, basoko isiltasuna, ez da ameslariak goraipatu duten aiñakoa.
Zuz 2.— Ezta behar ere. Isiltasun andiegia, eriotza dalako.
Zuz 3.— Edota loa.
Zuz 1.— Zure loa, ez behintzat. Zuk egiten dituzun zurrungak, losorroan dagoen sugea ere, esnaraziko lukete ta.
Zuz 3.— Tira, tira! Ez zaite orain, maillako zirtolari bihurtu.

2

Lehengoak eta Kopet.

Kop.— (Agertuaz) Entzun dut zuen itzaroa.
Zuz 1.— Gabon!
Zuzen guztiak.— Gabon, Kopet, gabon!
Kop.— Luzaroan egon naiz beste gizonen begira. Laiño ez ahal duzute ikusi?
Denak.— Ez.
Kop.— Eta, Eiztari?

Denak.— Ezta.
Kop.— Ez Eiztari, ta ez Azeri! Iragarri genduan ordua, joana da, ordea.
Zuz 1.— Irurak batera el ditezke.
Kop.— Litekena da. Alegia, Okitu jaunari eraman ahal diozute karta hura?
Zuz 2.— Bai, eraman diote.
Kop.— Zeiñek?
Zuz 1.— Neuk.
Kop.— Ta?
Zuz 1.— Aukeran, esan beharko. Bakarrik zegoen, whisky edaten hain zuzen.
Kop.— Eskiñi ote dizu?
Zuz 1.— Ez ba.
Kop.— Berantetsirik nago, eta arimenez. Eiztari, Laiño, Azeri...

3
Lehengoak eta Laiño

Laiño.— (Agertuaz) Otsoa aipatu, eta otsoa agertu.
Zuz 1.— Ez hainbesteko otsoa, orraitio!
Kop.— Kaixo, Laiño. Bakarrik, ala?
Lai.— Bai, bakarrik. Azkenengoa, agian...
Kop.— Ezitari ta Azeri, artean ez ageri.
Lai.— Azeri, tira, baiña Eiztari ez da iñoiz orduzale-zalea.
Kop.— (Zuzenzaleei) Zoazte pixka batean bide-alderantz, ea gizon biok agiri ote direnentz. Bitartean, Laiñorekin mintzatuko naiz.

(Beioaz Zuzenzaleak)

4
Kopet eta Laiño.

Kop.— Eiztari berandu xamar dabil eta...
Lai.— Arritzeko ez dala erantzungo banizu?
Kop.— Zergaitik diozu hori?
Lai.— Arbin eta urduri somatu dut Eiztari. Berenez otza, otza bezin patxaratsua dana.

Kop.— Bai, halaxe da.
Lai.— Gaiñera, hala holako erantzuna eman dit.
Kop.— Begira, Laiño: artu dugun bidea, latzegia iduritzen ahal zaizu? Alegia, ingurukoen jokabidea ez ote dan ukagarri, gure bideak zabalagotzeko.
Lai.— Hori ba genekian lehendik ere. Orraitio, lapurtzat artuko ote gaituzte, bada? Gure egiñak zintzoak baldin badira, jendeak, erriak, beheko, erdiko ta goiko jendeek ulertuko dute. Luzarora, ordea. Badakizu bapateko aldaketak gutxiren gogoko izan ohi dirana.
Kop.— Hori dok etorria, Laiño!
Lai.— Bost pentsamendu egiñik nago...
Kop.—... zurekin ezkon beharrez.
Lai.— Gaurko eskabideak, bata Iriberri jaunari, biarko: Olabe zaldunari, ere, biarko. Ta irugarrena, etzirako, Okitu jaunari.
Kop.— (Lagunei dei egiñaz) Zuzen... eeeup! Zaleak, bildu!

(Zuzenzaleak ager bitez)

5
Lehengoak eta Zuzenzaleak

Kop.— Ba dakizute. Biar, artzulo eguna izango dugu. Guztiok, ez, noski.
Lai.— Zuzenzale lenengo joango da arpera, egunsentia baiño lehen. Agian, horixe uste dugu, Iriberriren mandatariren batek eramango du eskatu zaionaren puxketa. Txanponak... ala txanpana, ez jakin, ikusi arte. Artzuloak atzean duen leku estutik sartu eta aterako zera, mandatariak zulo zabaletik ari diran bitartean. Eskuargi bi artuko dituzu. Gertu ibilli beharko.
Kop.— Ederki. Zoazte Laiño ta biok.

(Laiño ta Zuzen 1. beioaz)

6
Kopet eta Zuzenzale 2 ta 3

Zuz 2.— Laiñok lehen esan duenak, zirrara eragin dit barnean. Izu-ikara eman eta illeak laztu.
Kop.— Laiño ezagutu nuenean, oilluaren pareko zeta uste izan nuen. Hala ere, gure alderako ona izan zitekeala eman zidan zaiñak. Eta

maizenik, zaiñak emana, buruak argitua bezin zuzena ta egokia iza ohi da. Alegia iñoizka, baikorragoa ere bai.
Zuz 3.— Basoan oiñotsak galdu orde, nabariagotzen eta larriagotzen ari dira.
Kop.— Ixildu gaitean. (Ixillune misteriotsua bezela, unada batez)

Kop.— Bai, norbaitzuk datoz honantz, agiri danez.
Zuz 2.— Eiztari ta, izan ditezke.
Kop.— Ba liteke. Baiña, bada ezpada ere, banatu gaitean, eta zuaitzen enborren itzaletan kukutu.
Zuz 3.— Ez dirudite... ez dirudite...
Kop.— Zer ez dirudite?
Zuz 3.— Gutarrak... ez.

7

Iru Txiñelak, pistolak gertu eskuetan.

Txi 1.— Mendi malkar eta aldapatsua...! A...! Ez da neretzat egiten dana.
Txi 2.— Auspoak bete eziñik sumatu zaitut, bai.
Txi 3.— Ez da txantxetako zera, ordea.
Txi 2.— Bai, gauez, eta aldapetan eta baso beltz zikin honetan.
Txi 1.— Sabelpea minbera daukat. Honelako nekeak artzeko, gazteak gu baiño aukerakoago.
Txi 2.— Gu ere, gazteak izan gera.
Txi 1.— Joandako urak, ez darabil errotarik.
Txi 3.— Ixi! Hementxe dugu harek adierazi duen tokia. Horra hor arbola ezaugarridunak. Ez ikusten?
Txi 2.— Letra luze ta zakarrak.
Txi 1.— A, bai! Ta zein lerdenak!.
Txi 3.— Zuzenzaleen lehenbiziko letra.
Txi 2.— Eta, nun arraio sartu dira haiek?
Txi 1.— Ai, ene! Oraintxe dira hemen ixtillauk! Hemendik aldegin baldin badute, zereko zerean arkituko ditugu.
Txi 2.— Ta hemen zehar baldin badabiltz, gure emazteen errukarria.
Txi 3.— Nola gure emazteena? Kooperatiban ahal ditugu emazteak ere?
Txi 1.— Zentzungabe hori...! Gu, iru baiño ez gera, ta hoiek, zeiñek jakin?

Txi 2.— Berrogei, agian.
Txi 3.— Bai, Ayetekoak aiña.
Txi 1.— Gure emazteak lo daude, epel-epel eta guri-guri. Eta gu, hemen, larruak bahe biurtzeko arrisku gorrian.
Txi 3.— Armarik ba ote dute, ba?
Txi 1.— Armarik ez izan? Bai gureak baiño obeak, noski.
Txi 3.— Eta nola ez dute tirorik batere bota?
Txi 2.— Jakiña! Urrunetatik tiroka eraso gabe, obe izango baitute hemen urbil tiroka astea.
Txi 1.— Zeruko Amak salba gaitzala!
Txi 3.— Zeruan illargi txuria dago, ta bera izanen da gure eriotza bakanaren lekuko garbi ta bakarra.
Txi 1.— Txantxetan ere horrelakorik!
Txi 2.— Obeto geunden taberna epelean.
Txi 3.— Ta norbait, Sorkiren magalarengandik urbil.
Txi 1.— Sorki madarikatua! Ez egizu aipatu ere egin. Berak billatua ez ote dugu ixtillu hau? Okitu jaunarekin zegoen, eta hura, bere onetik aterea.
Txi 3.— Ez da batere arritzeko. Illoba bakar Goizne arrapatu diote ta.
Txi 2.— Eta hemen ahal dago neskatxa hori, agian gurte zain, eriotza zemaipean.
Txi 1.— Gauza ez dago hain argi, baiña...
Txi 2.— Dana dala, gu hemen gaudela tiro egiteko prest.
Txi 1.— Kontuz, ta ez esku dardarerik.
Txi 3.— Dardarerik ez, ikara izugarri esku ta buru ta gibel.
Txi 1.— Ixi!!

(Pistolak gertuago)

Txi 2.— Nola jokatuko dugu?
Txi 1.— Guztiok batera, otsoen kontra zaldiak bezela, baiña alderantziz. Ea! Jarri gaitean bizkarrez bizkar, borobil, inguruka. Eta guztiok gertu, datorrena datorrela, tiroz zulatzeko.
Txi 2.— Andrerik baldin bada, ez noski.
Txi 3.— Obe andre guztiak...
Txi 1.— Ixi! Deadar egingo dut nik (Ahotz goraz) Nor da! Nor da, bigarrenez! Agintariak gara, eta tiroz asteko gerturik gaude. Gora eskuak! Gora besoak! Eta lurrera armak!!...

(Ixillaldia)

Txi 2.— Aldegin dute, nunbait; koldarrak halakoak!
Txi 3.— Eta Goizne anderetxoa, nun ote da?
Txi.— Ixi, berriro ere!
Txi 1.— Nor da? Nor dabil hor? Agintariak gara, eta tiroka erasotzeko prest! Nun duzute Goizne arrapaturik?
Txi 2.— Nun duzute Goizne?

(Beriro ixillaldia. Txiñelak urduri ta ikara. Banatzen dira, baiña berriro bizkarrez bizkar)

8

Lehengoak eta Kopet

Kop.— (Agertzeke) Eeee...! Entzun, mesedez!
Txi 1.— Agertu zaite berehala, bakar bakarrik, eta besoak gora! Eta armarik gabe!!
Kop.— Nor nahi duzute arkitu? Noren billa...
Txi 1.— Neskatxa baten billa.
Txi 2.— Ager zaite, baiña armarik gabe!
Kop.— Ez dugu guk neskatxik. Are gutxiago armarik.
Txi 1.— Zertan ari zerate, orain eta hemen? Ongi dakigu egin dezutena.
Kop.— Guk ez dugu ezertxo ere egin.
Txi 1.— Nun duzute Goizne, etxetik aterea, arrapatua, eta lotua... neskamea bezala?
Kop.— Agertuko natzaizute, baiña jakin, ez dudala ta ez dugula armarik.
Txi.— Besoak gora!

(Kopet ager bedi, besoak gora jasota)

Kop.— Hemen nauzute, egia sinista dezazuten.
Txi 1.— Zenbat zerate?
Kop.— Orain bereon, ni neu bakarrik.
Txi 2.— Nun dira besteak?
Kop.— Joan dira; baiña berriro etorriko dira.
Txi 1.— Zeintzuk dira?
Kop.— Zuzenzaleak?
Txi 1.— Berberak. Arrapatzaille ankerrak! (Tiro bat egozten dio Kopeti, zorionez besoan sartu zaio bala)
Kop.— Aaaai! Errugabe naiz, eta tiroka artu nauzute. Oker ari zarete. Guk ez dugu iñungo neskatxik ez beste iñor arrapatu...!

(Lurrera erorten da, miñez, Kopet)
(Okitu eta Sorki ager bitez, eta Zuzenzale 2 ta 3)

9
Lehengoak eta Okitu, Sorki, Zuzenzale 2 ta 3

Oki.— Zer gertatzen da hemen? Nun da nire illoba Goizne?
Txi 1.— Hemen daukagu lapur bat, baiña arrapaketa hori ukatu egiten digu.
Kop.— Bidegabe zauritu naute hoiek. Ni ez naiz gaizkille ta ez arrapatzaile.
Sor.— Kopet, zer egin dizute?
Oki.— Nun dago, ordea, Goizne nire illoba? Zeintzuk arrapatu dute?
Kop.— Nik ere horixe jakin nahi nuke.
Oki.— Zuzenzaleak ez ote iñor arrapatzen?
Zuzen 2.— Behiñere ez!!
Oki.— Orduan, nola da hau? Zuzenzaleak niri idazkia bidali didate, diru eske, ta geroago... nork arrapatu du nire illoba, etxetik gaiñera eraman, neskamea lotuta utzirik?
Kop.— Horixe da doillorkeria!
Oki.— Eta zertarako eskatzen zenduten dirua, arrapaketa-truke izan ezik?
Kop.— Dirua edozeiñek eskatzen du: gobernuak, alkateak, fraideak, monjak, apaizak, eskaleak, andreak, semeak, langilleak...
Txi 1.— Zeharo nahasturik gaude.
Oki.— Eta nola eldu zerate honeraiño?
Txi 1.— Idazkia artu dugu, aztarna hau emanez. Ta ez da gezurrezkoa izan, agiri danez, jende mordoa hemen biltzen baita.
Kop.— Min aundia dut besoan. Baiña ni ere gertu nago Goizneren billa abiatzeko. Ez dut ongi ulertzen; halaere, zerbaiten susmoa bai, ba dut.

(Laiño ager bedi)

10
Lehengoak eta Laiño.

Lai.— Zer gertatu da hemen? Zenbat gizon...!
Txi 1.— Geldi! Gora besoak zuk ere!!

Txi 2.— Armarik?
Lai.— Guk ez dugu beste armarik, gure asmoen indarra baizik.
Oki.— Zuk ba ote dakizu ezer, Goizneri buruz?
Lai.— Ezer gertatu ahal zaio Goizne begikoari?
Oki.— Arrapatu egin dute; etxetik eraman. Zuzenzaleak ote ziran, baiña hoiek ezetz diote.
Lai.— Nik ere zuzenzale izan nahi dut. Eta doillorkeria hori, azaldu egin behar dut.
Oki.— Nola, ordea?
Lai.— Zain txarra eman dit gizon zital harek eta... berbera oz ote?
Kop.— Nor diozu?
Lai.— Eiztari. Hura da gure gizon azpikerizalea eta saltzaillea... Nazkagarria, benetan!
Zuzenzale guztiak.— Eiztari...?
Lai.— Hemen ahal da?... Ikusten! Nun da Eiztari? Zeiñek ikusi du, illuntzetik gorantz?
Kop.— Bertatik asiko dugu, haren kontrako jokoa. Miñez nago, ordea, ta zure gain ar ezazu billaketa neke hori, Laiño. Bala bat dut besoan...
Lai.— (Guztiei behatuaz) Argi dago, ezin argiago (Lasai itzegiñaz) Ez ahal duzu ulertzen, Kopet, hura zure etsai dala? Baiña, orain ez da zertan hortaz jardun. Billa asi gaitean!
Oki.— Utz ezazute libre gazte hori.
Txi 1.— Hori, agintari nagusiak esan beharko du.
Oki.— Errurik baldin badu, nik erantzungo dut. Ez dakit zergaitik, baiña barruak agintzen niri horixe egiteko.
Txi 1.— Hala bedi.
Kop.— Eskerrik asko.
Lai.— Gu ba goaz mendia arakatzera. Txiñelak, errialdea iker bezate...

(Laiño ta Zuzenzaleak, bioaz)

Sor.— Kopet gizarajo horrek, min aundia ote duzu?
Kop.— Naikoa da. Halaere, zapokeria honetan salakuntzaren bat zuk egin ote duzun, susmo txarretan nenbillen lehentxoago.
Sor.— Eta, orain, zer diozu?
Kop.— Laiño zintzoak zerbait argitu daula uste dut.
Sor.— Eiztari doillorra! Nik ere uste dut...
Oki.— Zer uste duzu? Nun da Goizne, ordea?

Sor.— Emakume izan baziña, aguroago uler zenezakean.
Txi 1.— Hemen ez dugu orain ezer egiten eta joan gindezke...
Kop.— Agian, errian bertan izango duzute neskatxa arrapatua...
Oki.— Ezagutzen ahal duzu Goizne?
Sor.— (Maltzurkeriaz) Okitu jauna, bedorren ez jakitearen aundia!

(Beioaz guztiak alde batetik
mordoan. Unada labur batez,
agertokia iñor gabe. Geroxeago,
zelataka ta uzkur, Eiztari
beste aldetik ager bedi).

11

Eiztari. Geroago, Azeri.

Eiztari.— (Zalantzaz) Iñortxo ere ez. aldegin dute, noski. (Lurrera begira) Odola ahal da? (Makurtu ta beatzaz ukiturik) Bai, odola dirudi. Eta, norena? Gezurra ote da, odol hau? Ba...! Bakoitzak bere buruaren ona ikusi behar du, ta ez iñorena. (Lurrean exeri bedi) Agian, laster amaituko dira Zuzenzale hoien ametsak eta nahasteak. Asperturik bizi izan naiz. Karga izugarria kenduko dut... zakur-amets hoiena! Ba dira bide obeak gizentzeko eta... (Zimurtuaz) Halaere, nire abea beltza da. Eta nire abe horrek, kalte egingo dit, noski.
Azeri.— (Agertuaz) Eeeeuuup! Azeriak, eiztaria arrapatu du! Ja, ja, ja, ja, ja, ja!
Eiz.— (Izu) Zaude ixillik, ero aundi hori.
Aze.— ixillik? Barrua garbi duan kristauak, ez du zertan bildurrez ibilli ez ixillik egon. Ja, ja, ja, ja, ja!
Eiz.— Nere buruausteak ditut, eta biar zer egin behar dugun, orain-txe erabaki behar dugu.
Aze.— Biar egin, zer ordea? Ez dugu biar ezer egin beharrik guk. Hori, bestek egingo du. Guztia dago egiña.
Eiz.— Guztia? (Zapart egin eta lurretik jeikiaz)
Aze.— Zure agindu osoa bete dut, biarko utzi gabe.
Eiz.— Nola? Biar egiteko uzteko agindu nizun!!
Aze.— Lehenbizi, gaur egiteko esan zenduen, eta nik ez dut agindu birik onartzen. Lehengoa bete, eta kitto!!
Eiz.— Goizne arrapatu?

Aze.— Bai! Zure agindua zan.

Eiz.— (Buruari elduta) Eziña. Ezin diteke egia izan. Adarra jotzen didazu. Egia baldin bada, il egingo zaitut. (Jotzeko imintzio egiñaz)

Aze.— Zuk ni jo? Utikan!... Zoaz nahi duzun tokira. Zure odol likitsaren ustelak ni ukitzerik, ez dut nahi eta.

Eiz.— Nun daukazu Goizne?

Aze.— Onezkero... illa, nunbait. Ja, ja, ja, ja, ja! Norbaiten eriotza ez ahal zenduen opa?

Eiz.— Nik ez dut behinere horrelakorik azaldu.

Aze.— Azaldu ez, baiña zure kolkoan gorde, bai.

Eiz.— Ez duzu eskubiderik...

Aze.— Zu ez zera gizona; saltzaillea baizik; azpijorran ari zeran doillorra.

Eiz.— Zuk saldu nauzu.

Aze.— Saldu, ez. Azaldu. Zure ankerkeria azalduko dut.

Eiz.— Bertan ilko zinduzket, ardiseme hori!

Aze.— Ardi-semea! Hori izketa pollita, Goizneren uizi dabillenarena!

Eiz.— Ez duzu iñor lekukorik. Gezurra da, diozun guztia gaiñera.

Aze.— Zure agindua, Goizne arrapatzea. Zure bigarren guraria, Kopet... Txiñelak garbitzea.

Eiz.— Ixillik, mesedez. Ez nazazu salatu.

Aze.— Salatuta zaude. Zuk aukerat duzun arriskuan, zeu erori zera.

Eiz.— Lagun saltzaillea!

Aze.— Zure aginduak bete, ez dut besterik egin.

Eiz.— Errugabe naiz. Ez dago iñor lekukorik. Ez duzu iñor testigurik eta ni, libre jarriko naute.

(Txiñel bat ager bedi)

12

Lehengoak eta Txiñela.

Txiñel.— Tentela ez bestena! Neu naiz bigarren testigu. Zure itza ta aitorpena entzun baiditut. (Eskubitorrean lokarriburnia ezarriko dio Eiztariri txiñelak)

Eiz.— Ez dut nik Goiznerik arrapatu! Ezer gertatzen baldin bazaio, errua ez da nirea izango.

Txi.— Zure asmoa ta agindua, horixe zan, iñolaz ere.

Aze.— Noski, horixe zala.
Txi.— Eta Kopeten kaltetan ere, ari izan zerala aitortu duzu.
Eiz.— Ez, hori ez.
Txi.— Bai, zuk esana da; "saldu egin nauzu". Eta, asmorik ez duenik, ezin diteke sal.
Eiz.— Ene kaltetan bildu zarete guztiok.
Txi.— Kopeten odola hementxe ixuri izan da, bala zoro baten erruz.
Eiz.— (Ikaraz) Eta Kopet...
Txi.— Odoletan ikusi izan dut, eta errugabe, alegia.
Eiz.— Ez dut nik iñor arrapatu! Ez dut nik iñor il!
Aze.— Asmoz eta gogoz, bai! Eta... oraingoan, kukuak oker jo dizu, adiskide.

13

Lehengoak eta Laiño, Zuzenzale eta Txiñelak.

Txi 1.— Hemen gara berriro. Zergaitik du gizon horrek lokarria eskubitorretan?
Txi 3.— Ihes egin ez dezan.
Txi 1.— Ezer aitortu ahal du?
Txi 3.— Guztia aitortu du. Honek autsierazi du gure erriko bakea.
Txi 2.— Lekukorik ba ahal da?
Txi 3.— Bai, gazte hau ta nere burua.
Lai.— Iñortxok ez zuen sinistu nahi zure doillorkeria. Baiña zeuk aitortu baldin baduzu, Eiztari...
Txi 1.— Eiztari ahal du izentzat?
Aze.— Bai. Eiztaritzat zedukan bere burua, baiña... Azeri naizen honek, horra!
Lai.— Azeriak... eiztaria arrapatu.
Aze.— Azeria... illeak galduta ere,... beti azeri.

AMAIA

"GORA ARRATIA"[1]*

Bonifazio Laxak eginiko "Todos erribatecos" iru ataleko antzerkitik zati bat.

LAGUNEN IZENAK: Juana, ostalaria.
Mainton, onen alabea.
Romana.
Burno de Santa Lucía jueza
Santi.
Keleto (Cleto Causte).

ARRATIKO ARDAUTEGI BATEN

Oleatarrak eta agura bat, burua ule bagarik, arpegia lez garbi; arratiarren jantzia. Buruan txapel.

LENGOAK eta OLEATARRAK

OLEATARRAK.— (*Sartuaz batera eresiko dabe.*)
BATZUK.— Ointxe jango geunke lebatz andi bat.
BESTE BATZUK.— Ba, guk jango geunke ogi andi bat.
Ba, guk jango geunke
saltzan eperra.
Danak.— Ondo ipiñi ezkero
ai, bai gauza ederra.
Gose gara guztiok,
ta eztaukagu zer jan;
ezin bizi geintekez
mundu onetan alan.

---

* *Egan*, 1-6, 1974.

[1] Zalantzazkoa da, edozein modutan be, Erkiagaren idazletza teatro lan honetan. Berak honela dino: "... *Gora Arratia* hori Irigarayk eustan niri *Todos herribatekos*, orijinala, ta beharbada ikuturen bat edo, ta berari bialdu neutson, ta gero agertu zan *Yakintza*-n, ta azkenean Eusebio Erkiaga ipini... ze? Hori esan nirea!...". Ikusi MIELGO, R.: *Eusebio Erkiagaren Gerraosteko Elaberrigintza (1958-1964)*, Labayru Ikastegia, Zornotzako Udala, Bilbo, 1995, 154. or.

BATZUK.— Ointxe jango geunke lebatz andi bat.
BESTE B.— Geuk be, jango geunke ogi andi bat.
Danak.— Ze beste egingo gintzakezan
lebatz eta eperrez!
Agoa garbitutzeko
kopatxu bana jerez.
BATZUK.— Hainbeste gose izan ta
iñor be ezgara egarri?
BESTEAK.— Dozeñatxu bat botilla
bear doguz ekarri.
BATEK.— Botilla bat jereza,
beste danak xanpanak.
Danak.— Arek bai gozotuko dauz
Ederto gure ezpanak.
BURNO.— (*Irautsia.*) Mutilek! Oletarrak balienteak dozak!
SANTI.— Bai, gizona.
BURNO.— Ee?
SANTI.— Baietz, gizona.
BURNO.— Bai, seguru.
KELETO.— Juana!
JUANA.— Bota!
KELETO.— Gaberako ipiñizu guretzako afarie.
JUANA.— Nozko?
KELETO.— Amarrak ingururekо.
JUANA.— Beno, beno.
KELETO.— Agur!
OLETARRAK.— Agur!! (*Urteten dabe berbetan euren artean.*)
BATEK.— Neuk esantxa ba, ta neuk egingo disuet.
BESTE BATEK.— Goraintziak emozak ba, Otxandioko Bulkanoi.
SANTI.— Oletarrak ee... gizon alegerak jatzuz, Burno. Aik ee... beti unore ona.
BURNO.— Ta nik ez? Arraioa! Orretan gozak ba, mutilek...! (*Jarrita dagoen lekutik juaten da erdi-erdira ta badiño*:) Eupa!! (*Txistuaz garbitu beiz eskuak.*)
SANTI.— (Txaloka.) Ole niña! Totonera bat, Burno, totonera bat.
BURNO.— Ez, mutil. Beste zeozer.
SANTI.— Tire ba.
BURNO.— Ez dago mundu onetan
gaur krabelinerik

neure maitia baño
lora ederragorik.
Orain egon neinteke
ardura bagarik
iñok ezdaukalako
nik lako lorarik.

kantuz eta dantzan lun lirun liru lun...

* * *

JUANA.— Ja, ja, ja, ja.Guztiz birloratu zara Burno.
BURNO.— Birloratu? Arraioa! Biba la gorma!
JUANA.— Ene maitea ta espiritu santu jaun Jesukristo.
BURNO.— Amen Jesus, Maria ta Kosepe. Emen dago Burno bat, eta porrot egiteko bildurrik barik egon be. Gaur len be entzun dozu, unore onez nagoela, ta beste sirkustansie.
SANTI.— Beorrek unore ona, ta beste sirkustansie, ta barriz nire nobiek, ai, nire nobiek...
BURNO.— Diru-moltsea be bai ak ederra...
SANTI.— Ta beorren sirkustansie zer da ba?
BURNO.— Fortune itzela! *(Jarten da lengo lekuan.)*
SANTI.— Ze fortune? Arloterie?
BURNO.— Ez.
SANTI.— Ba... Ori ezbada, ezda andie.
BURNO.— Ez andie? Beñipenean e... ik ezdauketan gauzea dot.
SANTI.— Nik ezdaukedana?
BURNO.— Bai, ain zuzen.
SANTI.— *(Kentzen dau txapela esanaz.)* Agura zar demoniño oneri, uleak urten etedeutso, dauken edadean...
BURNO.— Ezta! Ezteustat esan ba, ik ezdaukedan gauzea dala? Ik ulea, badeukek.
SANTI.— Baie... bai... ezdauket kalborik.
BURNO.— Nik bai, ta ederra. Zeinbet denpora dok bai, burdin bideak egiten asi zireala?
SANTI.— Ni orduen ee... bai... jaioteko nengoan, baie gure aitek esaten dau, ee... bai... direala berrogetea bi... berrogeta... *(gora begira)* lau urte ingurumarie.
BURNO.— Gizonaaaa, bai, ordurarte nire buruak zirudian ee... aretxezko berezi bat. Ain ñeunkan ule ederra ta lodie ze...

SANTI.— Beorrek e, trabesak salduko ebazan.

BURNO.— Saldu? Galdu, gizona, galdu!

SANTI.— Ezdeutsiez ondiño, bai, pagau, oin berrogeta lau urteko trabesak? Nun etedira trabes aek!

BURNO.— *(Asarratuta)* Jaujan!

SANTI.— Bai, seguru... Trabes aek...

BURNO.— I bai azala trabesa. Ezdok entzun galdu egin nebala ulea?

SANTI.— Aaa!... Lastime gorrie! Gesorik egoanen baten, ee!!

BURNO.— Bai, gizona. Osagilleak jeukazan erruek.

JUANA.— *(Asarratuta.)* Zagoze ixilik! Osagilleak ezdauko iños errurik.

SANTI.— *(Juanari.)* Atara beste azunberdi ta zagoz ixilik.

JUANA.— Au ez da guzurrezko txotxolo parea. *(Eroaten deutso ardoa)* Eutsi.

SANTI.— *(Pitxarra artzen deutsen batera.)* Zu bai zareala egizko sorgin bakarra. Tire, tire! *(Pitxarra lurrean usten daben artean.)* Zoaz zu, zeure lekure, ta ezegizu sartu kaderatik gure asientuen.

JUANA.— *(Badoa bere lekura, josten, esanaz.)* Aupa! Oneek deukiez ixil-kontuak.

BURNO.— Nun itxi gatuzek sorgin orrek suspentso?

SANTI.— Osagillearen erruetan.

BURNO.— Ortxe izen be. Osagilleak jeukazan erruek. Bada, Kosefina jakan botike bat emon bearrean e... Santipirina emon jostan ak atso faltsoak; ta orduen ee... bai seguru, asi zoan galtzean, galtzean nire ulea, farra farra.

SANTI.— Dana sinisten deutset nik beorreri. Osagille asko dire erdi asto, erdi mando. Egundo pareterno ezdot artu nik ee... botikerik; baie arteakotan, lenago artuko neuke Kosepina Santipirina baño, nik neuk beñipean. Gero, betor, gure badau bai, Kose falso.

BURNO.— Ja, ja, ja, ja. Berari jakoan bai, izena. Kose Falso traidore arraioari.

SANTI.— Bardin da ementxe balego be. Neu bere, osagilleakaitik ee... txarto esateko obea nago, arto zati bat eureri limosna emoteko baño. *(Asarratuta.)* Ujui... Neuk be, bein ee... belarri okulu ingurumarie guztie neunken ee, total anditurik; eta... Belarrie erderaz ez da oido?

BURNO.— Bai, gizona.

SANTI.— Ba, orduen ee... pintura de oido emon bearrean e, pintura de yodo emon eusten arraioak. Zer deretxo beorreri? Esaten eusten

ee... bai, neunkela liebre. Badaki beorrek zer dan liebre. Kalentura andiek.

BURNO.— Bai, bai. Sarriten koiu joat ori alemaniñeori.

SANTI.— Binke alemaniñea. Gose andie neunken da bai, esaten eusten ee, neunkela triputz.

BURNO.— Triputza? Ezdok millagro bai, gose andie eukitea!

SANTI.— Beorrek daki osagilleak baño geiego! Beorrek daki zer dan triputze.

BURNO.— Bai. Neu bere, orlako sokatik dindilin-dangoka ibiliko mutile nas, konpañero...

SANTI.— Bai, seguru. *(Arrausike.)* Ai, ai, ai...

MAINTON.— *(Sartuko da ta eskuan daroian papera emongo deutso Burnori, esanaz:)* Beorren anateak emon deust.

BURNO.— *(Paperari begira.)* Zer eteda? Santi, eutso. Kristalezko bego barik, ezin neik leidu. Leidu egik euk ia zer dakarren.

SANTI.— *(Irakurten dau papera, danak entzuteko moduan.)* "Ene anaje ori, Zure nobie Mariak ezkondu gure dau ointxe. Abadea gertu dau elizan, eta etorri zaitez ainbat lenen".

PERU.— Zer darabil beorrek. Burno?

BURNO.— Zeriñok?

SANTI.— Ezkonetan joateko bertatik. Bai (*ikaraturik)*, ezalda ezkonetan beori dauken edadean?

BURNO.— Bai, gizona. Orixe izen dok ba, lengo nire sirkustansie...

SANTI.— Benetan...?

BURNO.— Bai.

SANTI.— Benetan diño?

BURNO.— Baietz, baietz eta baietz.

JUANA.— Ene aitea ta semea...

BURNO.— *(Santiri.)* Bañoak: gero eskondute etorriko gozak ezteguko guztiek. *(Badoa kanporantz.)*

SANTI.— *(Atzamarrari orain diruagaz lez.)* Ta, beorrek ee, zeinbet deuko ba!!!?

BURNO.— *(Ate ondotik.)* Irurogeta zortzi urte egin eginak. Gero arte! *(Badoa.)*

JUANA.— Ai, Burno, Burno!

SANTI.— Lenago sinistuko neban ee... ulleak urten deutsala kalbo guztien, ezkonduko zala baño. Mutillek, agureak bizkor jaozak! Ta nogaz ta Mariegaz...

JUANA.— Mainton: zoiez karnezeruegana eta kilo bi okela, izterrekoa ekarri egizuz, ta neuk pageuko deutsadala gero.
MAITON.— Ondo da. *(Badoa.)*

JUANA, SANTI; gero ROMANA

JUANA.— Santi: Burnoren ezkontzan zagoz pentsetan?
SANTI.— Bai. Sinistu ezinde nago.
ROMANA.— *(Atiaren kanpoko aldeti.)* Juana.
JUANA.— Zer?
ROMANA.— Emen dago Santi?
SANTI.— Bat bai, beñipean.
ROMANA.— *(Ori entzunik sartu, eta Santigana, amurruturik kiskan egiteko.)*

Bertsuak ataraten
neuk asi bearrean
ederto parau zara
zeu neure aurrean.
Ifiniko zindukaz

SANTI.— Ene nos inducas tentasionen...?
ROMANA.— Ifiniko zindukaz
azirik txarrean,
zeu asto, idi itailla
ta zeu itaurrean.
Ain izan dira gozo
eta ain koipatsuak

SANTI.— *(Lurrera begira oso lotsaturik, eztau ezer esaten.)*
ROMANA.— Asto batek jan ditu
Gure hogei bertsuak.
Lapikoa badago
Pilpil irikiten
Ekin egiozu zuk
Bertsoak egiten,
Ta gazatxo badagoz
Gatza egin birriten;
Gatzaren premiñea
Daukazu sarriten.
Zelan egingo nintzan

ni zugaz konpondu?
ezbagara batera
iños bere egon gu?
Gura ezdabenagaz
zartzaroan ondu,
aberatsa izan arren
ezdot gura ezkondu.
Umilla izan ezkero
gura dot probea,
probe umilla beti da
ezer baño obea.
Baña, izaten bada
umillen ordea
gautxorizar faltso bat
nok ta nun gorde a?
Ezdot gura gaurkoan
zuri esan gehiago
bada berba egiñaz be
damuturik nago.
Barriz asten bazara
neu baño lenago,
zuri erantzuteko
Romana emen dago.

(Kanpora beioa, esanik:) Kontuz nigaz eta agur!!

SANTI.— Anda demoniño!

JUANA.— Ondo egiña. Ezeunken bakean itxi baño areri, zeure bertso ta koplokaz.

SANTI.— Zuk be bai areri fagore, ezta? Bajaok zer egin arraiokaz! Bier,ee, obeak atarako deutsedaz, onrameutan.

JUANA, SANTI BURNO eta EZTEGUKOAK

(Panderua ta txiribitua joten asiki dira agertu baño len Burnoren eztegukoak. Gero, ariñeketea edo biribilketea joaz, mutil eta neskak amar-amabi laguneko sokia egiñaz sartuko dira uiuka, aurreskuak lez. BURNO ta onen urrengo MARIE.)

Dantzan dantzan sonbrollu,

Marie gurea da ezkondu,
Marie gureen ezteguetan
Oillo errea jangogu
Jangogu ta jangogu,
Dantzan dantzan sonbrollu.
Lirulun lirulun lairun...

BATEK.— Txaloak be bai, mutilek txaloak be...! (DANAK *egin beie txalo.*)

BESTE BATEK.— Uuuujujujujuju...!

BATEK.— Gora Arratia!

DANAK.— Gora!

BATEK:—Dantzan ein beariuk, mutilek. *(Panderudunari.)* Jo soiñue zuk! *(Alboan daukan neskatilleari.)* Mikela: Erdu dantzan mesedez... (*Eskura bota txistua, ta jo kisketak. Panderuduna joten asi deitenien, urten beie lautzuk edo bostzuk dantzan.)*

ESTALKIA

E. ERKIAGA

TAROT ARGI, TAROT ILUN*

Pertsonaiak

XILA	Emakume gaztea, hogei urte ingurukoa, baina hasieratik ijito antzeko soineko beltza, mota zuriz betea, gona luze zabal. Buruan ile zapaztoa, peluka; gafa berdeak.
GIZON A	Erdi konkorra, beti beheruntz begira ari dena.
GIZON B	Beti goietaruntz begiratzezale, lepo gogorra, tortikolis zaharra duena edo. Lurreko oztopoa ikustea ez zaio erraz.
ATSOA	Emakume urte mordoduna.
MUTILA	Gaztea, hogei urte ingurukoa.
NESKATXA	Hogei urte inguruko gaztea.
SENARGEIA	Gaztea hau ere, baiana XILA baino zahartxoago.

TOKIA

Zolan, kalerako atea, ate ta guztikoa. Ateburuan, horman:

"En este mundo traidor
nada es verdad ni mentira..."

Ezkerraldean, atea edo hutsunea. Goian: "Tarot ilun".
Eskuian, atea edo hutsunea. Goian: "Tarot argi".

Lurgainean gredaz-edo seinalaturik lezoin-aska (fosa), metro bat zabal, metro bi luze.

Mahai	Lezoina	Mahai
Hiru aulki mahai inguruan		Hiru aulki mahai inguruan

* *Argitaratubakoa*, 1985.

Mahai honen gainean hainbat
koloretako boteilak, edo
kristal-zatiak.

Mahai honen gainean bola
borobil ospatsua.
Eta Tarota edo kartak.

ALDIA

Gurea, XX gn. mendearen hondarraldea.

I

XILA, bakarrik. Geroago, GIZON A.

Xila.— (Erratza eskuan, lurgaina garbitzen). Lokatza, ixtila, lupetza...

Atzoko jendea bai zikina! Dirua emateko baino etxea zikinez betetzeko egokitasun handiagoa ez ote dute? Ixil nadin. Norbait dabil hor.

Giz A.— (Kalerako atean erdi agertzen da, ez sartu, bai sartu, zalantzan). Hemen ote da...

Xila.— Bai, hemen da hemengoa. Irakurtzen ez al dakizu?

Giz a.— Bai horixe! Ez dut, ordea, betaurrekorik ekarri ta... (Sar bedi).

Xila.— Tarot, Tarot...

Giz A.— ("A la Legión" doinuz kantatzen hasten da):

Tarot tarot
tarot tarot tara... ot;
tarot tarot
tarot tarot tarot...

Xila.— Zer? Gerlan ibilia al zara?

Giz A.— Ez, eta bai.

Xila.— Zalantza ote duzu zure... grazia?

Giz A.— Zalantza eta balantza, gure akerraren dantza.

Xila.— Aker artean ere, ibili al zara?

Giz.A.— Noski. Mundua akerrez beterik bait dago.

Xila.— Zu ere, ez al zara aker...

Giz A.— Ez ba. Ni... ari naiz...

Xila.— Topekarako aharia ote? Zuk esango duzu. Zera, kontuz hemen, lezoin sakona dago ta. Ingurubira egin ezazu, sakonera eror ez zaitezen.

Giz A.— Ni... ikuska ari naiz. Susmo eta asmo. (Lurreruntz begira).
Xila.— Ezer galdu al duzu?
Gizon A.— Andrea galdu nuen.
Xila.— Lotsagabea! Errespetu gutxi diozu, zure ama bezalakoari. Ikusten? Andren galtzeko gogoa. Gizonak doilor dira, beti doilor.
Giz A.— Andre gaixoa! Hiri handira joan nintzen eta han jendartean...
Xila.— A...! Hori besterik da. Zedorrek ez zenuen galdu, beraz.
Giz A.— Ez, ez. Nik ez. Berez galdu zen. Euria hasi, ilundu, sakabanatu...
Xila.— Eta orain, zer nahi zenuke?
Giz A.— (Mahai batera begiratuz) A... ederki. Hor duzu kristalezko bola hori. Hortxe arki dezakezu nere andrea, ezta?
Xila.— Horra, ba! Eseri zaitez hemen. (Eseri egingo da, eskaini aulkian).
Giz A.— Eta zu, ordea, zutik?
Xila.— Ez. Eskerrik asko. Ni ere eseriko naiz... nere orduan. (Eseri bedi).
Giz A.— Nere ondoan... diozu?
Xila.— Zure andre hori agertuko balitz, eta zu hemen, emakume eder baten ondoan ikusi, haserretu egingo litzateke.
Giz a.— Hau ere, ba da harrokeria! Emakume ederra diotsa bere buruari.
Xila.— Ezer esan al duzu? Zera... Tarota zuk nahi, ezta? Nolakoa, ordea, argia ala iluna? Biak tarifa bikoitza izango litzateke ta... Dirurik bai?
Giz A.— Ez erruz, baina... (XILAK, gredaz markatua den erdiko lezoin-askara mila pezetako panera jaurtikiko du).
Xia.— Dirua... erruz duzu. Horra hor, sakeletik erori zaizuna. Hortxe, lezoin-askan ez al duzu ikusten? Milakoa da.
Giz A.— (Zalantzaz). A... nirea al da? Horreitino... Eta orain hori nola...?
Xila.— Makila luze honekin jaso dezakegu. Geldi zu, eror ez zaitezen.

(XILA zutitu, makila luzea eskuratu eta lezoinean dagoen dirupaperari zirkin ete zirkin, ertzera ekarriko du. Makurtu egingo da eta eskuaz hartuko du. GIZON A-ri emango dio).

Giz A.— Ezer ikusi baino lehen, horra nola...!
Xila.— (Eseriz) Ikusteko... hemen dituzu mila koloretako kristalak. Zer ikusi nahi zuk? Zelaia, basoa, kalea, sua, zerua, itsasoa, ikatza...?

Giz A.— Nire etorkizuna.

Xila.— Hori... ezin daiteke orain ikusi. Susmatu soilik. Emazterik ba al duzu?

Giz A.— Berriz ere azaldu egin behar ote dut?

Xila.— Ixilik. Hil egin al da? Nun dago?

Giz A.—...

Xila.— (Solaren gainean bi eskuak jartzen ditu, eta igurtzika hasiko da).

Tar tar tar
ot ot ot
Tar tar tar
ot ot ot...

Giz A.— Zerriak uxatzen ari al zara?

Xila.— Ixilik; hitzik ebaki gabe. Ikusten, hemen ikusten...? Baso ilunean norbait dabil. Ez da Basojauna. Andre bat da.

Giz A.— Nerea!

Xila.— Ixxxx... bila dabil. Bide bila. Norbaiten bila. Eskuak zabalik dauzka. Hara...! Baietz dio. Baietz... Itzuliko dela, noski. Orain, ordea, eseri egin da. Nekatua, agiri denez.

Giz A.— Atsoa bait da, ez da harritzeko.

Xila.— Baietz eta baietz. Ibiltzeari ekin dio berriro ere. Itzuliko zaizu. Baaaai... Itzuliko. Emaztea ez da hil. Bizi da. Zureganuntz dator. Horra, beraz, dena argitu. (XILA zutitu egingo da. GIZONA ere bai).

Giz A.— Beraz...

Xila.— Uuuu... Bostehun pezeta.

Giz A.— (Lehen mila pezetakoa gorde duen sakeletik ez baina beste batetik ehun pezetako bost paper atera, astiro kontatu eta XILAri emango) Agur, ete ondo bizi! (Kalerako atean zehar joango da).

II

XILA. GIZON B. Geroago, ATSOA

Xila.— Gizon hori...! Beti beheruntz begira, ardiak bezala. Burua noiz goruntza? Alperrik.

Giz B.— (Kalerako atean oles egingo du). Hemen al da... (Lepo gogorra zut).

Xila.— Bai, hementxe. Sar zaitez. Zeren bila zatoz?

Giz B.— Ikusi egin nahi dut.

Xila.— (Berekiko). Beti urrunera begira, ezin zuk lurgainekorik susmatu. Kontuz hemen, lezoin sakon luzea dago ta. Zatoz ingurumarika.

Giz B.— Mundu berria ikusi nahi dut.

Xila.— Parisen inoiz egon al zara? Paris ez duzu ikusi?

Giz.— Ez, ba. Ikusi izan banu...

Xila.— Zatoz honera. Zein kolorez zertu nahi? Zein kolorez?

Giz B.— Paris... arbel koloreko omen da.

Xila.— (Boteila bat ematen dio). Begira ezazu. Eguzkia nun dago?

Giz B.— Zertarako galdetzen didazu?

Xila.— Gehiago jakiteko.

Giz B.— Nik, ordea, ilargiaren bestaldea ere...

Xila.— Kostatuko zaizu. Hori... astronautak. Aspertu al zara ikustez?

Giz B.— Baaai.

Xila.— Azal jokorik nahi?

Giz B.— Zein joko?

Xila.— Igurtzi goxorik... Alegia, masajerik...

Giz B.— Horrelakoak, lehen. Orain, azala eta azaldunak —ba dakizu—, sobera ditut. Bola honen zuria! Hor agertzen al dira...?

Xila.— Bai, baina lehenbizi boteila kolorekoetan ez ihardungo? Boteila urdina emango dizut. Edo gorria.

Giz B.— Berdea, hobe. Nire lehenengo zera, berde xamarra bait zen.

Xila.— Nola, nola diozu? Zein zen berde hura?

ATSOA.— (Kaletik datorrela, sartu egingo da eta galdez hasiko). Inor al dago? Bizkor erantzuten ote duzue?

Xila.— (Oihuka). Geldiro, kontuz! Lezoin sakona dago eta eror zaitezke.

Atsoa.— Hemen egiten al dituzue zorien gorabeherak?

Xila.— Bai, jakina. Baina, ez ordea, zorrien gorabeherak. Ileak poliki orraztuta etorri behar da honera. Geldiro. Zatoz ingurumari eginez.

Atsoa.— Bai, bai. Lezoin sakona bezin luzea.

Xila.— Zatoz alde honetara. Zein Tarot nahi, argia ala iluna?

Atsoa.— Berdin zait.

Giz B.— Ez duzu berdin. Hemen bakoitzak bere zera aipatu behar du.

Atsoa.— (GIZON B-ri so ta so egin ondoren) Ene! Gizon hau... zeruko izarrak egunez ikusteko jaio ote zan? Horraitino...!

Giz B.— Andretxoa, hitzak neurria premiazko du, ardoak duen bezala.

Xila.— (ATSOAri). Beraz... aukera ezazu: Tarot argia ala iluna?

Giz B.— Barkatu, baina andre jakintsu honek bere txanda den arte, gelara joan beharko du, ezta?

Xila.— Horretarakoxe galdetzen diot, ba. Alegia, tokia izendatzeko.

Atsoa.— Hau jende ipurterrea! Iluna, lehenbizi.

Xila.— Beraz, Tarot ilunaren gelan sar zaitez. Laster izango duzu aldi.

Atsoa.— (Tarot iluneko gelara sar bedi). Aguru aguro nahi nuke...

Giz B.— Komuna nahi ote du?

Xila.— Ixilik eta paketsu, gizon jator bezala. Har ezazu beste boteila hau. (Xilak eskeini boteila hartuz, GIZON B so eta so hasi bedi).

Giz B.— Ez da gauza argirik ikusten.

Xila.— Behatu erdira, aldamenera, batera, bestera. Sugestinoa erre behar duzu.

Giz B.— Erre? Hori ere bai? Hor sakonean... zer da agiri?... Borobila.

Xila.— Zeure zila.

Giz B.— Begi handia bailitzan. Zabala.

Xila.— Zure atzeko atabala. Azaribuztenik ez ote duzu ikusten?

Giz B.— Azariarena... azariarena? Hurbilekoagorik ere, ez bait dut ikusten. Ikusi... ikusi... Egarria susmatzen dut bapatean.

Xila.— Ondo da. Eman neri boteila hori eta... tokiz aldatuz, kartak zabalduko ditugu.

Giz B.— Eta beste bonbila bat hartuez gero?

Xila.— Kontuz, okerrekorik eskuratu.

Giz B.— (Beste bonbila bat hartuko du. Astun erizten dio eta barruan zer duen ikusi nahirik, goruntz jasoko du, eta parrast! barruko ura irten eta arpegia eta soinekoa bustiko dio). Madarikatua...! Hutsik zegoelakoan...

Xila.— Egarria aipatu ez duzu, ba? Horra etorkizuna nola erdi igarri duzun. Lehor zegoenari, zeruak hezoa igorri.

(XILAK arretaz, bustia lehortuko dio, musuan eta jantzian).

Ea, tokiz alda gaitezen. Zatoz beste mahai ingurura, sakonera erorteke. (Beste mahaira joango dira. Eta inguruan eseri bitez).

Giz B.— Ustekabeko dutxa gerta zait, ordea.

Xila.— Ba dakizu. Ustekabean... erbia ankartean zehar. Zabal ditzagun kartak. Hauxe duzu Tarot berria, munduaren salbagarria. Bat, bi, hiru... zazpi, hamar... hamahiru... Zuhur eta adi, bigarren kantaldi. Hamahiru... hamar... zazpi... lau... hiru... Etxean gorabehera larririk izan al duzu? Baietz esango nuke. Erantzun. (Kartak ezker-eskuin, gora ta behera darabiltz). Begiak hertsi. Zer ikusten ilunetan?

Atsoa.— (Atean burua agertuz). Nerekin ari al zara? Ilunetan, diozu ta.

Xila.— Ez, ba. Honekin ari naiz oraindino. Baina, arren, ez hemengoak entzuten ihardun. Zagoz barru barruan.

Atsoa.— Aspertu egiten naiz, ordea.

Xila.— Eutsi bonboi bat. Zatoz oin puntetan. (Kutxatik bonboia atera, eta hurbildu zaion ATSOAri emango dio). Tori, ahoa gozatzeko.

Atsoa.— (Bonboia ahoan sartuz). Tira; estimatzen dizut. (ATSOA bere gela ilunera joango da).

Giz B.— Bonhoi horrek arsenikorik ez du izango, ezta?

Xila.— Okerra zara, horraitino! Entzun zure arloaren joan-etorria, Gizon B. Itxaroten duzuna, berbera agertuko zaizu. Zure bakartadea amaitu egingo da. Hiru urteren buruan agertzen ez baldin bazaizu, hurrengo gabon zahar gau erdian, han, ibaiondoko jatetxe txiki haretan izango duzu... izatekoa.

Giz.— Emakume uuuu... eta dirutan ere uuuu...

Xila.— Uuuuuuu. Jakituriak dio. Ikus ezazu. (Eskuak eta basoak zabalduz) Tarot bete betea. Erantzun txit alaia, txit pozgarria, txit...

Giz B. — Txito bihurtuko ote nauzu?

Xila.— Ez, ez. Oilasko gazte gazte. (Zutituz eta eskua luzatuz, eskale). Bostehun...

Giz B.— (Sakeletik dirua ateretzeko ahaleginetan. Lepoa gogortuta duenez gero, atera duen dirua ikusteko, eskuak urruneruntz daramatza). Hemen duzu bostehunekoa. (Jeikiko da eta kaleko ateruntz joango).

Atsoa.— (Muturra gela ilunetik kanporatuz). Zuen arteko hori luzea izan da. Ezte senar-emazteak izanda ere. Elkarrekin hainbeste berriketa...!

Giz B.— Arraiopola! Atso hori ez bedi izan neri agertuko zaidana. Ez nuke nahi. Ez eta ez. (Kalerako atetik joango da).

Atsoa.— (Bere gela utzi eta erdiruntz etorriko). Nun eseri naiteke?

,Xila.— (Eskuez adiarazten dio). Zatoz honera poliki poliki.

Atsoa.— (XILAK esandako lekuan eseriko da). Be zan garaia! Nere eltzekoa...

III

XILA eta ATSOA. Eta MUTILA. Geroago GIZON A.

Mutila.— (Kalerako atean ager bedi.). Tranlalara lara... Eup! (Sar bedi).

Atsoa.— Geldi, txotxongilo; geldi. Lezoin-askara erori eta zapaburu bihur ez zaitezen.

Xila.— Bai, hortxe da, eta kontuz. (Mutilari) Zein Tarot nahi?

Atsoa.— (Hasarre) Nere txanda da, eta mukitzu hori, bazterrera.

Mutil.— Atso honek ere, Tarot egiten al du? Matusalenen amona, izaki...!

Xila.— Erantzun be. Argia ala iluna?

Mutil.— Atso honen tarotik ez dut behar nik.

Atsoa.— Ezta nik ere zurerik. Mutil lotsagaldukoa! Amari ere atsoa ote deritzozu?

Mutil.— Gure amak hitz gozotzat dauka hori. Aitari agurea...

Atsoa.— Begirunea galduez gero, mundua nahi ta nahiez ondatu egingo da. Arazo honen garapena luzarokoa da. Egun erdia eman dut eta orain, kakanarru...

Xila.— (ATSOAri) Zein kolore gustatzen? Labur esateko, Tarota ala koloreak?

Atsoa.— Boteila kolorea ere, polita bait da.

Mutil.— Tratulariak ote dira horiek?

Xila.— Horretara bada, goazen beste mahaira. (XILA eta ATSOA mahaiez aldatzen dira, eta MUTILAK buruari atz-eginten dio). Eseri gaitezen. Zein kolore, beraz? (MUTILAri) Zoaz "Argia" gela horretara pixka baten. (MUTILA "Argia" gelara, sar bedi).

Atsoa.— Hauxe... edo beste hau... edo beste hori.

Xila.— Bi batera ezin ikus daitezke. Hiru, gutxiago.

Atsoa.— Zalantzaz nabil eta...

Mutil.— (Atean kirika). Atsoa beti atso.

Atsoa.— Ezer esan ote didazu?
Xila.— (Irrifar) Zure belarrien durundia, noski. Azkenez, zein kolo...
Atsoa.— Txuria. Anixeta kolorekoa.
Mutil.— (Atean muturra agertuz). Atso azkarrak koloreak edarietatik dakizki.
Atsoa.— Berriz ere, durundia...
Xila.— Supersoniko delako edo. Tori boteila zuriska hauxe. Behatu zulotik. (ATSOAk boteila hartu eta behatuz).
Atso.— Ezkerreko begiz, murritz.
Xila.— Eskuinean egin ezazu dirdiz.
Atsoa.— Eta... anixetea irtetzen bada, begia erreko dit.
Xila.— Boteilak hutsik dagoz, ordea.
Atsoa.— Ete lehenxeago gizona busti duena?
Xila.— Bai, baina hori hor, hain zuzen, edateko jarririk zegoen. Ahora eraman behar zuena, begira eraman harek, eta horra! Busti.
Atsoa.— (Boteila barruari begiraka). Urrunean gauza beltza ikusten dut.
Xila.— Beltza...?
Atsoa.— Baaaai.
Xila.— (Bonbila eskuan hartu, atzea igurtzi eta han zeukan makar beltza kenduko dio ete ATSOAri emango). Ikus ezazu orain.
Atso.— (Boteila zulotik behatuz). Orain ez dago ezer beltzik. Dena argi, zuri.
Xila.— Ikusten? Beraz, zure etorkizuna argia da, txuri txuria. Menturaz zabiltz, eta menturaz... (ATSOAK eskuez beste mahairako gogoa agertu nahi dio XILAri). Zeeer? Beste jokoa ere nahi...
Atsoa.— Bai, bai. Behin hasiez gero, dena ikusi behar da.
Mutil.— (Atean kirika) Zure ipurdia ere bai. Oraintxe ditugu komeriak!
Xila.— Zuti gaitezen, beste mahaiaren inguru eserteko. (Jeiki eta beste mahaira joango dira XILA ete ATSOA, eta han eseriko). Kontuz, lezoina. Ipini eskuak bola gainean, eta lau igurtzi egin lehenbizi, eta boskarrena gero. Nik, kartak zabalduko eta ordenan jarriko. Zein hiletan jaio zinen?
Atsoa.— Aries... esan ohi zuen gure agureak.
Mutil.— (Kirika) Hari ez, eta neri bai.
Xila.— Udaberrikoa zara, beraz. Karta bat gora, bestea behera. Hau, eskuinera; hori ezkerrera. Eta erdian, lezoin berria, bainan txikia.

Atsoa.— Gurutzea egin duzu.

Mutil.— (Kirika) Gurutzea, zure senarrak eraman duena, Zirineorik gabe.

Xila.— Ixilik. Zein da, andre arduratsu, zure ardura nagusia, buruhaustea?

Atsoa.— Hori, zedorrek igarri behar zenuke.

Xila.— Gezurrez ala egiaz zabiltzan jakiteko premia dut, ordea.

Atsoa.— Gezurra? Ez dut sekula gezurrik esan.

Xila.— (Ausart). Oraintxe azkena. Hori ere...

Atsoa.— Gauzak ongi ez dabiltzala uste dut. Gizarte aseguruan ni nola gertatuko naizen jakin nahi nuke. Hobeki ala gaizkiago.

Xila.— Hasi gaitezen Tarot garbian.

Mutil.— (Kirika) Oraintxe edo, izango dugu zerbait.

Xila.— Tarot argi, Tarot ilun...

Atsoa.— Tarot argi, Tarot ilun.

Xila.— Ixilik orain. Tarot argiaren dirdirak kilikili egiten dit, ezkerreko izterpean. Geldi! "Urreak izpi biziak, lainoak ez du izpirik. Andre arduratsu honek ez dio inoiz gezurrik".

Atsoa.— (Berekiko). Honek, gezurretik egia atera nahi luke. (XILAri). Zera, nere alabaren egoera jakin ahal baneza...

Mutil.— Alabadun ote da tarotekari hau?

Atsoa.— Beste mundukoek ere, hitzegiten al dute?

Xila.— Batzuetan, bai. Zera... itxaropen handia... itxaropen... handia... izango duzu. Ete horregatik, zure kezka ez da nere koxka bihurtuko. Ogi borobila etxera egunero eramango duzu. Edo ogi luzea, txuriska ala erre-errea, hori, zure aukerara. Haurrik gehiago izango ez duzunez gero, ogia oparo izango, premia baino areago.

Atsoa.— Ogiz bakarrik ez da gizona bizi.

Xila.— (Zutituz) Horra, ba!. Bukatu da zure txanda, aski luzea, izan ere. Bikoitza izan denez, bi tarifa ezarri behar nik. Ea... zenbat den? Bost eta bost, baina... bederetzirehun.

Atsoa.— A, ederki. Mila izango dela eta, egon naiz.

Xila.— Beherapena egin dizut, horixe baita emakumeari atseginen zaiona.

(GIZON A tarrapatan sartuko da, kalerako atetik datorrela).

Atsoa.— (Jeikiz). Kontuz, kaiku, lezoinera eror ez zaitezen!

Giz A.— (Xilari, urduri). Eman didazun dirua, ez da legezkoa inola ere.

Atsoa.— Nolatan? Hemen dirua kendu orde, eman egiten al duzu...?
Xila.— (GIZON Ari). Lehen hor, lezoin-askan dirupapera zegoela esan dugu. Zurea ote zen galdegin nik, eta zuk, hartu egin duzu, eta joan. Ez ote?
Giz A.— Bai, bai. Horraitio... faltsua da.
Xila.— Bada nik... duban eman dizut. (GIZON A, nahasmahas, kalera joango da).
Atsoa.— Ulertzen dut, zeharo ez baina. (Karteratik dirua atereaz). Tori. Zure hitzak igarlearenak izan deitezala. (Kaleruntz joango da). Agur.
Xila.— Hala biz.
Mutil.— (Zeharo agertuz ete kantari) Hala ba!... Hala bin, bon, ba!

IV
XILA eta MUTILA

Xila.— Atso horrek, ba ote daki zer nahi duen? Eta zuk...?
Mutil.— Hori, hori... Eta nik? Ni, inor naizela uste al duzu?
Xila.— Bai, Ez ote zara, ba?
Mutil.— Batzuetan, bai. Lo nagoenean, ordea, ez naiz. Eta ez dut ezer egiten.
Xila.— Arnasarik ere, ez ote duzu hartzen?
Mutil.— Aldi bateko arnasa, aldatua egin zaidala esango nuke. Ez dakizu.
Xila.— Ezagutzen ez bait zintudan. Jaio zinenetik ezagutzen zaitut.
Mutil.— Jaio?
Xila.— Ez zinen jaio, ala? Bai, ongitxo dakit.
Mutil.— Gure amarekin zegoen emagina ote zinen?
Xila.— Ez hainbeste. Hantxe nengoen, hurbil egon ere. Horraitino... ikusi? Ez zen batere erraz. Gaua zen eta ez zegoen argirik. Amak esan zuen: "Xila, haurra jaio hurren dago. Zagoz arretaz. Nik, ordea, dendara joan beherra dut; berandu da eta biharko janaririk ez dugu".
Mutil.— Nun jaiotzeko nintzen?
Xila.— Hantxe. Amak aldegin eta zu jaio. Orduan ni, leihora arineketan joan eta esan nion: "Ama jaio da haurra". Eta amak: "Zer da?". Eta nik: "Han dago, erdi negarrez, baina". Eta amak: "Hor, sukaldean, mahai gainean kandela eta pizgarririk ba duzu". Eta

nik: "Itxedon puxka baten". Sukaldera tarrapatan joan nintzen, kandela izetu eta zuregana hurbildu nintzen.

Mutil.— Bakarrik ote nengoen?

Xila.— Bakar bakarrik, baina bilusik. Bildurrik gabea izan zara beti. Bai.

Mutil.— Eta ama?

Xila.— Han, kalean, nire erantzunaren zain. Orduan zu ikusten hasi nintzen.

Mutil.— Eta ni, bakarrik eta narrugorrian... Hotzak hartzeko ere! Baina... ni hala... erantzita nengoela, zuk zertan nire biloistasuna ikusi?

Xila.— Ba... esateko.

Mutil.— Nori esateko?

Xila.— Amari.

Mutil.— Jaio nintzela, ba zekien amak; aixtian esan bait zenion.

Xila.— Jaio zinela, bai. Beste zertzeladarik ez, ordea.

Mutil.— Zu ere jantzirik gabe, jaio ote zinen?

Xila.— Ez dakit. Ez dut gogoan.

Mutil.— Nerea ba dakizu, eta zurea ez. Eskubiderik ez dago. Orain hemen...

Xila.— Tarot zertzen dut.

Mutil.— Lehenago lan horri "sorgintzuan" aritzea esaten zitzaion.

Xila.— Lanbide modu bat da.

Mutil. — Hori, hori. Ni ere lan bila nabil. Ez da galdu dudalako. Baina nun eta nola idoro, ezin dut susmatu.

Xila.— Lanak izango dituzu lana aurkitzeko. Orain... ez dago esateko lanik. Lanak eginda dagoz.

Mutil.— Eta zuk...?

Xila.— Astia emateko eta dirua irabazteko ere bai. Kapitalismu amorragarriaren zera da, baina guztiek maite duten elementua. Ogia irabazi behar, eta...

Mutil.— Oraingo neskatxak ez dira ogizale. Loditzeko bildur dira. Ai, besoen ingurua. Ai, izter lodiegiak. Ai, gerrialdeko mitxelinak...

Xila.—Horra ba, mehetzeko gaiak eta izaten dituzte Tarote lekuetan. Nik, eskuarterik ez eta, ez dut horrelakorik hemen. Gainera...

Mutil.— Zeeer, arazo hau uzteko asmorik ote duzu?

Xila.— Bai, Ibon.

Mutil.— Nire izena nola dakizu?

Xila.— Eta zuk ez duzu gogoan harako Ikerne?
Mutil.— Goiazko Ikerne?
Xila.— (Buruko ile zapaztoa eta gafak kentzen ditu, eta soingaineko jantzi zarpila). Hauxe nauzu.
Mutil.— Izan ere... Hamabost urte elkar ikusi gabe. (Elkar musukatzen dute) Ikerne... Zeinek esango? (Zure berriketa hutsala, nola gertatu izan da, ba?
Xila.— Horrelakoak gertatu izan zaizkit hemen, mutil txantxetazaleekin. Zu ere, horietarikoa zinela uste izan dut lehenbizi, baina gero... ez dakit... Zure mintzoa, doinuera, hitzak ere, zuen senideen kutsu eta ukitu izugarria...
Mutil.— Baina guzti honek azalpena eskatzen ez ote du?
Xila.— Ulertzen dizut, Ibon. Gizarte honetan ba dirudi elkarren azaleko gauzak bestelakotzen ari garela. Nik, aldi labur baterako, etxetik aldegin nuen. Eta neroni ere, ikusi duzu, itxuraldatu. Norbaitzuek ezagutu ez nazaten. Zuk ez al duzu inoiz zure irudia bestelakotu, gezurtxoren bat aipatu, eta abar, eta abar?
Mutil.— Begira... Xila... Ni gaur honera etortzearen zergatia... (Eskubitorreko erlojuari begiratzen dio). Ene, ene... Eta berandu nabil.
Xila.— Norabaitera joan behar al duzu?
Mutil.— Ez, ba. hain zuzen ere, bestera da. Norbait honera elduhurren egon daiteke.
Xila.— Nor, zein?
Mutil.— Neskatxa beltzeran bat. Nire erdi...
Xila.— Au misterio bikoitza? Eta zertara...
Mutil.— Tarotarekiko eztabaidak izan ditugu, eta kale hontako zenbakia aipatu zuenez, ni nerau, hura baino lehen heldu naiz. Badaezpadan, gelan sartuko naiz.
Xila.— Nola jakin dezaket hura... hura dela?
Mutil.— Noski noskitxo esateko ohitura du. Zu arretaz egon, eta harek aipatzen ez ba du, zuk nola hala zirikatu. Ulertzen?
Xila.— Ulertua. Baina zu hemen zagozenik ez du harek...
Mutil.— Ez luke jakin behar. Gauza aukeran jarriko balitz, nik agertuko nuke garaiz nere burua. Baina zuk ez dakizu ezertxo ere. Zera... Ikerne, ez al duzu zeure gustoko laguntzailerik?
Xila.— Nere gustokoa bai, bainan amak ez dio begi onik jartzen. Eta horregatik nabil honela zarpilez jantzita. Eta gaur, hain zuzen...

Mutil.— Gaur, zer? (Kalerako atean krisketari norbaitek ukitzen diola XILAk susmatu, eta)

Xila.— Zoaz, zoaz, gela barrenera! (Kantuz hasiko da) "Itsasoa laino dago Baionako barraraino. Nik zu zaitut..."

V

Lehengoetarik XILA. NESKATXA. Geroago.

Neska.— (Buru makurketa biguina eginez) Egun on, egun on... (Sar bedi).

Xila.— ... maiteago, arraintxoak ura baino.

Neska.— Poliki. Hari musikal eta guzti, e?

Xila.— Ez, ba. Hari hori nire ahotsa duzu.

Neska.— Ahots gozoa. Tarot musikalik zegoenik ez dot jakin.

Xila.— Bariantea duzu; abanguardiakoek beti zer berriak astintzen.

Neska.— (Lurrera begiratuz) Lauki luze hau zer da?

Xila.— A, kontuz hurbildu. Lezoin-aska sakona duzu. Zatoz aldamenean zehar. Zere burua maite izango duzula uste dut eta... arriskua saihestu beharra dugunez...

Neska.— (Inguru osoari beha ta beha). Lezoina eta bi mahai...

Xila.— Bai, andrea. Koloreen arriskua eta Tarot eta bola borobilaren eremua.

Neka.— (Boteiladun mahairuntz joango da). Hau al da Tarotaren...

Xila.— Ez, hau... pre-Tarota duzu.

Mutil.— (Kirika) Prét-a-porter.

Neska.— Hari musikala berriz ere?

Xila.— Horixe. Koloreen eremua nahi duenak, hementxe dauka. Eta Tarot soila nahi duenak, kartak. Betegarritzat, bola zoragarria ere hortxe dut.

Neska.— Nik... zera... sikologiako foiletoa irakurri dut eta joko honen susterra...

Xila.— Susterra ba... noski, jakiturian datza.

Neska.— Eta idazkune horiek, "Argia" eta "Iluna", sofistikaziorik ez al da?

Xila.— Bai, noski.

Neska.— Noski noskitxo. Tarot hori...

Xila.— Eseri zaitez. Hementxe. Eta ni ere bai. Zer nahi duzun agertu behar didazu.

Neska.— Nik agertu?

Xila.— Tarot-etxe honetan bai. Aribidean aldaketa anitz duzu. Bakoitzak du bere gatza eta araua. Zer jakin nahi duzu?

Neska.— Norbaiten buruan zer dagoen, nola jakin liteken.

Xila.— Norbaitek, ordea, burua ezezik, bihotza ere, izan ohi du.

Neska.— Noskitxo. Diozunez, biak jakitea ere, onuragarri gerta daiteke.

Xila.— Jakina, ba. Horretarako dago Tarota, jakituriz taxutua.

Neska.— Eta bola hori? Eta koloreak?

Xila.— Horiek... betegarri dituzu. Hutsik bait dagoz. Egin dezagun... Nun dago eta nor nik —zuk ere berdin esan dezake—... zera... zertu nahi nukeena! Ikus dezagun. (Kartak zabaltzen hasi bedi). Bat... bi... hiru... lau... Hau gora, beste hau behera... Mahaipean argi gutxi. Ate atzean iluna. Argia izetu... eta argitasuna. Argitasunak jakituria. Ikusten? Nor den... jadanik badakizu. Nun dagoen, ez ordea.

Neska.— Ez nuen uste baina, noski...

Xila.—... txo. Ixilik, arrisku eremuan sartu gara ta. Bizitza zubiaren antzekoa da. Zubi horretan zehar joan beharra dut. Bakarrik ala bidelaguna aldamenean dugula. Bidelaguna nun dago? Lehen egon al da? Oraingoak iraungo al du? Berria hobea ala txarragoa izan daitekela jakituriak dio. Lau eta lau zortzi. Bederatzi... eta jaio.

Neska.— Eta bola horrek, zer...?

Xila.— Informatikaren aztarna, aintzindaria duzu. Tarotak esan duena, horrek egiaztatzen du. Bete betean.

Neska.— Ezer esan al du, ba?

Xila.— Ez esan? Gure barneko azala samur ez baldin badago, euriaren antzekoa den Tarotaren zumua ez da sartuko. Lehor geratuko. Sinesgogorrak ez du inoiz ezer sinestuko. Ezta maitearen hitzik ere.

Neska.— (Esnatuz bezala) Nola, nola? Maitearen hitza...

Xila.— Maitea, gu bakoitza gara. Batbedera. Gizonak ez du maiterik, maiteek baietz esaten ez badio.

Neska.— Eta jantzi zarpil antzeko hori, aulki gainean...

Xila.— Hemen bestetan erabiltzen ditudan zerak dira. Lana bukaturik nuen, ustez, eta erantzi egin dut, eta kendu gorputzetik, hori eta horiek.

Neska.— Eta bolaren zer hori, nolatan?

Xila.— Sinpatika agertzen zatzaizkit eta, bolazale guztiok garela argitarazi nai nizuke. Bola eta bolarak guztiok ditugu. Horiei gaina ematen saiatu beharra dugu. Jakinguratxo zakuskit, eta nik, dirua biltze asmotan jarri nuen... jostaketa hau. Jendea tolesgabea da, gehienbat, eta ordu gozoak eman ditut aldi labur honetan.

Neska.— Eta zuk esan bezala gertatzen ez baldin bada?

Xila.— Gauzarik bakanenak gertatzen dira gure artean, ordea. Mundua, batzuetan, txikia bait da. (Erlojuari begiratuz) Berandu da, eta hertsi egin behar dut. Egun atsegina izan da gaurkoa. Zerbait itxaroten dut, eta... itxaroten dugu, esango banu, agian are...

Neska.— Norbait etorriko al zaizu? Eta berri onak dakartzala?

Xila.— Horixe uste dut. Eta zuk, ez ote duzu horrelakorik... Gozotegira joan behar dut, eta zagoz...

(MUTILAK ixil ixilik kalera ihes egingo du)

zagoz puxka baten, ni itzuli arte. Bitartean, ikusi Tarota, bola eta bonbila koloredunak ere. (XILA ere kalera doake).

Neska.— Gauzarik bakanenak... dio horrek. Dena da hemen bakan, susterrik gabeko Tarot merkea. Sikologiaren izpirik ere ez duena. Eta jantzi hau... jantziko banu? Jantzi egingo dut. (Bere gorputzean jantziko du, eta gafak eta buruko ile zapaztoa ere ipiniko ditu).

Noski noskitxo, Tarotak ba omen du misterioaren izpitxo? (Kartak zabaltzen hasi bedi) Bat... bi... hiru... lau. Eta beste lau... zortzi.

(Kalerako atean XILA eta MUTILA kirika, bainan ixilik. Bapatean, aldegingo dute bi horiek). Norbait, zerbait helduko omen da. Betor ordu onean, bola bolatxo. Zeinek daki, ordea...

VI
NESKATXA, ATSOA eta SENARGAIA

Neska.— Orduak aurrera eta inortxo ere ez. Nun ote dago gozotegi hori? Nun? Norentzako izango ote da... (ATSOA sar bedi).

ATSOA.— E, e! Ez inori iruzurrik egin. Susmoa nuen, eta horra!

Neska.— Zein susmo? Etorkizunarena? Bola honek esango digu.

Atsoa.— Ez nerekin txantxetan ari.

Senar.— (Kaleko atetik ausart sartuko da). Xila... Xila... gure ordu zoriontsua gurekin laster da. (Neskarengana hurbilduz).

Atsoa.— Zer Xila eta Mila! Norekin ari al zara? Hau nere alaba Ikerne bait da.
Sena.— Ikerne diozu? Hau Xila da, nirekin ezkontzekotan dagoena.
Neska.— Ni zurekin ezkondu?
Senar.— Zer, bada? Zeharo aldatu al zara, itxuraz ez baina, hitzez eta doinuz eta pentsamenduz?
Atsoa.— Aldatu, aspaldi aldatu zen etxetik. Xila, berriro etxera bihurtu beharra duzu. Osabaren berri onak izan ditugu.
Neska.— Osabaren berri onak?
Senar.— Nungo osaba, ordea? Ez didazu behinere osaba dirudunaren konturik adiarazi, Xila.
Neska.— Baina ni ez naiz ez Ikerne ta ez Xila.
Senar.— Noiztik honera ez zara Xila?
Atsoa.— Zure ama ere ukatu egingo al duzu, Ikerne?
Neska.— Tarotzeko etorri naiz honera eta...
Senar.—Hainbeste Tarotu beharrez, erotu egin al zara?
Atsoa.— Nere alaba galdua ez ote zara, ba?
Neska.— Uf... uf... Tarotu ala erotu...

(Soineko zarpila eta gafak eta buruko ile zapaztoa kentzen dituanean, SENAR eta ATSOA atze-atzeka joango dira, karramarrua bezala).

Senar.— Ai, ai, ai...
Atsoa.— Ene, ene, ene...
Neska.— Lurra!... irents nazazu.

GONALUZEREN TAROTA*

Pertsonaiak

XILA	Emakume gaztea, hogei urte ingurukoa. Motzaila (ijito) antzera jantzita, soineko baltza goian; gona luza zabala, mota zuriz betea. Buruan ule zapaztoa, pelukea. Gafa berdeak.
GIZON A	Erdi konkorra, beti behera begira dabilena.
GIZON B	Beti goietaruntz begiratzeko jaioa, idun gogorra, tortikolis aspaldikoa dauana edo. Lurreko oztopoa ikustea ez jako errez.
ATSOA	Emakume urte mordoduna.
MUTILA	Gaztea, hogei urte ingurukoa.
NESKATILA	Hogei urte inguruko gaztea.
SENARGEIA	Gaztea hau be, baiana XILA baino zahartxoago.

TOKIA

Atzean, kalerako atea, ate ta guztikoa. Ateburuan, horman idazkune hau:

"En este mundo traidor
nada es verdad ni mentira..."

Ezkerraldean, atea edo hutsunea. Goian: "Tarot iluna".
Eskumatara, atea edo hutsunea. Goian: "Tarot argia".

Lurgainean gredaz edo seinalaturik lubana; metro bat zabal, metro bi luze edo.

Mahai	Lubana	Mahai
Hiru aulki mahai inguruan		Hiru aulki mahai inguruan

* *Argitaratubakoa*, 1987.

Mahai honen gainean hainbat koloretako boteilak

Mahai honen gainean kristalezko bola ospatsua. Eta Tarota edo kartak.

ALDIA

Gurea, XX gn. mendearen hondarraldea.

I

XILA, bakarrik. Geroago, GIZON A.

Xila.— (Erratza edo inarrea eskuetan, lurganea garbitzen). Lokatza, istila, lupetzea... Atzoko jentea bai zikina! Niri dirua ekarteko baino etxea zikinez beteteko egokitasun handiagoa ez ete dabe? Ixildu nadin. Norbait dabil hor.

Giz A.— (Kalerako atean erdi agertzen da, ez sartu, bai sartu, zalantzan). Hemen ete da...

Xila.— Bai, hemen da hemengoa. Irakurten ez al dakizu?

Giz a.— Bai horixe! Ez dot, ordea, betaurrekorik ekarri ta... (Sar bedi).

Xila.— Tarot... Tarot...

Giz A.—("A la Legión" doinuz kantaten hasten da):

Tarot tarot
tarot tarot taro ot;
tarot tarot
tarot tarot tarot...

Xila.— Zeeer? Gerlan ibilia al zara?

Giz A.— Ez, eta bai.

Xila.— Zalantzea ete dozu zure... grazia?

Giz A.— Zalantza eta balantzak, gure akerraren dantzak.

Xila.— Aker artean be, ibili al zara?

Giz.A.— Ba... Mundua hau akerrez beterik ei dago ta.

Xila.— Zu be, aker ez al zara?

Giz A.— Ez ba. Ni... ari naz, ari.

Xila.— Topekarako aharia ete? Zuk esango dozu. Zera... kontuz hemen, jausi ez zaitezan, luban sakona dago ta. Ingurubira egizu, arriskua ekiditeko.

Giz A.— Ni, ikusika nabil. Begiraka, Susmo eta asmo. (Lurreruntz begira).

Xila.— Ezer galdu al dozu?
Gizon A.— Bai, andrea galdu neban.
Xila.— Lotsagabakoa! Errespeto gitxi deutsazu, zeure ama lakoari. Ikusten? Andrea galtzeko gogoa. Gizonak doilor dira, beti doilor.
Giz A.— Emazte gaixoa! Uri handira joan ginan eta han jende arte-an...
Xila.— A...! Hori besterik da. Zu zeuk ez zenduan galdu, horretara ezkero.
Giz A.— Ez, ez. Nik ez. Berez galdu zan. Euria hasi, ilundu, sakabanatu...
Xila.— Eta orain, zer nai zeunke?
Giz A.— (Mahai batera begiratuz) A... ederto. Hor dozu kristalezko bola hori. Hortxe arkitu zineist nire andrea, ezta?
Xila.— Horra, ba! Eseri zaitez hemen. (Jesarri egingo da, eskeini aulkian).
Giz A.— Eta zu barriz, tente?
Xila.— Ez. Eskerrik asko. Ni be, jesarriko naz neure... orduan. (Jesarriz).
Giz A.— Neure ondoan... diozu?
Xila.— Zure andra hori agertuko balitz, eta zu emakume eder baten ondoan ikusi, hasarretu egingo litzateke.
Giz a.— Hau be, ba da harrokeria! Emakume ederra dinotso bere buruari.
Xila.— Ezer esan al dozu? Zera... Tarota gura zuk, ezta? Baina zelakoa, argia ala iluna? Biak tarifa bikoitza izango eta... Dirurik bai?
Giz A.— Ez eurrez, baina... (XILAk, gredaz markatua dan erdiko lubananera mila pezetako diru-papera jaurtikiko du).
Xia.— Dirua... eurrez dozu. Horra hor, patrikaratik jausi jatsuna. Hortxe, luban-askan ez al dozu ikusten? Milakoa da.
Giz A.— (Zalantzaz). A... nirea al da? Horraitino... Eta orain hori zelan...?
Xila.— Makila luze honegaz jaso ginei. Geldi zu, must egin ez daizun.
(XILA zutundu, makila luzea eskuratu eta lubanean dagoen dirupaperari zirkin ete zirkin, ertzera ekarriko da. Makurtu egingo da eta eskuagaz hartuko du. GIZON A-ri emongo deutso).
Giz A.— Ezer ikusi baino lehen, horra zelan...

Xila.— (Jesarriz) Ikusteko, hemen dozuz mila koloretako kristalak. Zer ikusi gura zuk? Zelaia, basoa, kalea, sua, zerua, itsasoa, ikatza...?

Giz A.— Nire etorkizuna.

Xila.— Hori... ezin daiteke behineon ikusi. Susmau... Emazterik ba...

Giz A.— Berriro be azaldu egin behar ete dot?

Xila.— Ixilik! Hil egin al da? Nun dago?

Giz A.— (Eskuak mokorrera eroanez) Baina...

Xila.— (Esku biak bolearen ganean jarten ditu, eta igurtzika hasiko da).

Tar tar tar
ot ot ot
Tar tar tar
ot ot ot...

Giz A.— Txarriak uxatuten ari al zara?

Xila.— Ixilik! Ikusten dozu hemen, ikusten...? Baso ilunean norbait dabil. Ez da Basojauna. Andra bat da.

Giz A.— Neurea!

Xila.— Ixxxx... bila dabil. Bide bila. Norbaiten bila. Eskuak zabalik daukoz. Hara...! Baietz dio. Baietz... Bihurtuko dala. Nekatua...

Giz A.— Atsoa da ta, ez da harritzeko.

Xila.— Baietz eta baietz. Ibilteari ekin deutso, berriro be. Bihurtuko jatzu. Baaaai... Emaztea ez da hil. Bizi da. Zueganuntz dator. Horra, beraz, dana argitu. (Xila zutitu egingo da. Gizona be bai).

Giz A.— Horretara ezkero...

Xila.— Uuuu... Bostehun pezeta.

Giz A.— (Lehen mila pezetakoa gorde dauan patrikeratik barik, beste batetik dirua atara, eta astiro kontatuez, Xilari emango deutso). Agur, eta ondo bizi! (Kalerako atean zehar joango da).

II

XILA. GIZON B. Geroago, ATSOA

Xila.— Gizon hori...! Beti beheruntz begira. Ardiak lez. Burua noiz goruntz? Alperrik.

Giz B.— (Kalerako atean oles egingo du). Hemen al da... (Sama gogorra zut).

Xila.— Bai, hementxe. Sartu zaitez. Zeren bila zatoz?

Giz B.— Ikusi egin gura dot.

Xila.— (Berekiko). Beti urrunera begira, ezin zuk lurganekorik susmatu. Kontuz hemen, luban sakon luzea dago ta. Zatoz ingurumarika.

Giz B.— Mundu barria ikusi nahi ba, eta...

Xila.— Parisen inoiz egon al zara? Paris ez dozu ikusi? Mutilzarra edo...

Giz.— Ez, ba. Ikusi izan baneu...

Xila.— Zatoz hona. Zein kolorez zertu gura? Zein kolorez?

Giz B.— Paris... arbel kolorekoa ei da. Grisa edo.

Xila.— (Boteila bat emoten deutso). Begiratuizu. Eguzkia nun dago?

Giz B.— Zetarako itanduten deustazu?

Xila.— Gehiago jakiteko.

Giz B.— Nik, ostera, iretargiarenen bestaldea be...

Xila.— Kostatuko jatzu. Hori, astronautek. Ikusten aspertu al zara?

Giz B.— Baaai.

Xila.— Azal-jokorik nahi?

Giz B.— Zein joko?

Xila.— Igurtzi gozorik... Zera, masajerik...

Giz B.— Horrelakoak, lehen. Orain, azala eta azaldunak... ba dakizu, lar dodaz. Bola horren zuria! Hor agertzen al dira...?

Xila.— Bai, baina lehenengo, boteila kolorekoetan ez jardungo? Boteila urdina emango deutsut. Edo gorria.

Giz B.— Berdea hoba. Nire lehenengo zera, berde samarra zan eta.

Xila.— Zelan, zelan dinozu? Zein zan harako berde ha?

Atsoa.— (Kaletik datorrela, sartu egingo da eta itaunez hasiko). Inor al dago? Bizkor erantzuten ete dozue?

Xila.— (Deadarrez). Geldiro, kontuz! Luban sakona dago ta jausi barik.

Atsoa.— Hemen egiten al dituzue zorien gorabeherak?

Xila.— Bai, jakina. baina, ez ostera, zorrien gorabeherak. Uleak polito orraztuta etorri behar da hona. Geldiro! Zatoz ingurumari eginez.

Atsoa.— Bai, bai. Luban sakona baizen luzea.

Xila.— Zatoz alde honetara. Zein Tarot nahi, argia ala iluna?

Atsoa.— Bardin jat.

Giz B.— Ez dozu bardin. Hemen bakotxak bere zera aitatu behar dau.

Atsoa.— (GIZON B-ri begira ta begira) Ene! Gizon hau... zeruko izarrak egunez ikusteko jaio ete zan? Horraitino...!

Giz B.— Andratxua, berbeak neurria preminazkoa dau, ardaoak dauan lez.

Xila.— (ATSOAri). Holan ba, aukeratu egizu: Tarot argia ala iluna?

Giz B.— Parkatu, baina andra jakintsu honek bere txandea dan arte, gelara joan beharko dau, ezta?

Xila.— Horretarakoxe itanduten deutsat, ba. Zera, tokia izentatzeko.

Atsoa.— Hau jente eperdierrea! Iluna, lehenengo behintzat.

Xila.— Horra, Tarot ilunaren gelara sartu zaitez. Laster izango dozu aldia.

Atsoa.— (Tarot ilunaren gelara sar bedi). Agudo agudo nahi neuke...

Giz B.— Komuna gura ete dau?

Xila.— Ixilik eta baketsu, gizon jatorraren antzera. Hartu egizu boteila hau. (Xilak boteilea eskeini, gizonak hartu, eta begira ta begira).

Giz B.— Ez dot boteila zulotik begiratuta gauza argirik ikusten.

Xila.— Begiratu alde batera, bestera. Sugestinoa erre behar dozu.

Giz B.— Erre? Hori be bai? Hor sakonean... zer da agiri?... Biribila.

Xila.— Zeure zila.

Giz B.— Begi handia bailitzan. Zabala.

Xila.— Zure atzeko atabala. Azaribuztenik ez ete dozu ikusten?

Giz B.— Azariarena... azariarena? Hurrengokorik be, ez dot ikusten eta. Ikusi... ikusi... Egarri nazala esango neuke.

Xila.— Ondo da. Emoidazu boteila hori eta... tokiz aldatuz. Kartak zabalduko doguz.

Giz B.— Eta beste boteila bat hartu ezkero?

Xila.— Kontuz, okerrekorik eskuratu.

Giz B.— (Beste boteila bat hartuko dau. Astun deritxo eta barruan zer dauan ikusi gurarik, goruntz jasoko dau, eta parrast! Boteila barrutik urak urten eta soinekoa bustiko deutso). Madarikatua...! Hutsik egoalakoan eta.

Xila.— Egarria aitatu ez dozu, ba? Horra etorkizuna zelan erdi igarri dozun. Lehor egoanari, zeruak hezoa, ur ederra bialdu.

(XILAK arduraz, bustia lehortuko deutso, arpegian eta jantzian). Ea, tokiz alda gaitezan. Zatoz baste mahai ingurura, lubanera jausi barik. (Beste mahai inguruan jesarri beitez biak).

Giz B.— Ustekabeko dutxea suertatu jat, ostera.

Xila.— Ba dakizu, ba. Ustebakoak zabalik hegoak. Ea, kartak zer dinoskuen. Hauxe dozu Tarot barria, munduaren salbagarria. Bat, bi, hiru... zazpi, hamar... hamahiru... Zuhur eta adi, bigarren kantaldi. Hamahiru... hamar... zazpi... lau... hiru... Etxean gorabehera larririk izan al dozu? Baietz esango nuke. Erantzun. (Kartak ezker ta eskuin, gora ta behera darabiltz). Begiak itxi. Zer ikusten ilunetan?

Atsoa.— (Atean burua agertuz). Nigaz al diharduzu? Ilunetan dinozu ta.

Xila.— Ez, ba. Honegaz dihardut oraindino. Baina, andratxua, ez, arren, hemengoak entzuten jardun. Zagoz barru-barruan.

Atsoa.— Aspertu egiten naz, ordea.

Xila.— Eutsi bonboi bat. Zatoz oin puntetan. Baina kontuz, Lubana... (Kutxatik bonboia atara, eta hurreratu jakon ATSOAri emongo deutso). Eutsi, ahoa gozatuteko.

Atsoa.— Tira, estimatzen deutsut. (ATSOA bonboia ahoan sartu eta bere gelaruntz joango da, gela ilunera).

Giz B.— Bonboi horrek arsenikorik ez dau izango, ezta?

Xila.— Okerra zara, horraitino! Entzun zure arloaren joan-etorria. Itxaroten dozuna, berbera agertuko jatzu. Zure bakartadea amaitu egingo da. Hiru urteren buruan agertzen ez baldin bajatzu, hurrengo gabon zahar gau erdian, han, ibaiondoko jatetxe txiki haren izango dozu... izatekoa.

Giz.— Emakume uuuu... ezta dirutan be, uuuu...

Xila.— Uuuuuuu? Jakituriak dio. Ikusi egizu. (Eskuak eta besoak zabalduz) Tarot bete betea. Erantzun txit alaia, txit zoragarria, txit...

Giz B. — Txita bihurtuko ete nozu?

Xila.— Ez, ez. Oilasko gazte gazte. (Zutunduz eta eskua luzatuz, eskale). Bostehun...

Giz B.— (Sakeletik dirua atarateko ahaleginetan. Lepoa gorgortuta daukonez atera dauan dirua ikusteko, eskuak urruneruntz daroaz). Hemen dozu bostehunekoa. (Jagi egingo da eta kaleko ateruntz joango).

Atsoa.— (Gela ilunetik musturra kanporatuz). Luzea izan da zuen arteko hori. Ezta senar-emazteak izanda be. Elkarregaz hainbeste barriketa...!

Giz B.— Arraio arraioa! Atso hori ez bedi izan neri agertuko jatana. Ez neuke nahi. Ez eta ez. (Kalerako atetik joango da).

Atsoa.— (Bere gelatik urten eta erdiruntz datorrela). Nun jesarri naiteke?
Xila.— (Eskuaz adiarazoten deutso). Zatoz hona, polito polito.
Atsoa.— (XILAK esandako lekuan jesarriko da). Sasoia zan! Nire lapikokoa...

III

XILA eta ATSOA. Eta MUTILA. Geroago GIZON A.

Mutila.— (Kalerako atean ager bedi.). Tranlalara lara... Eup! (Sar bedi).
Atsoa.— Geldi, txotxongilo; geldi. Luban-askara jausi eta zapaburu bihurtu ez zaitezan.
Xila.— Bai, hortxe da, eta kontuz. (Mutilari) Zein Tarot gura?
Atsoa.— (Hasarre) Neu txandea da, eta mokoti hori, bazterrera.
Mutil.— Atso honek be Tarot egiten al dau? Matusalenen amama, izanik...
Xila.— Erantzun, ba. Argia ala iluna?
Mutil.— Atso honen tarotik ez dot behar nik.
Atsoa.— Ezta nik be zurerik. Mutil lotsagaldukoa! Amari be atsoa ete deritxazu?
Mutil.— Gure amak hitz gozotzat dauko hori. Aitari agurea...
Atsoa.— Begirunea galdu ezkero, mundua nahi ta nahiez ondatu egingo da. Arazo honen luzea! Egun erdia emon dot eta... orain, kakanarru...
Xila.— (ATSOAri) Zein kolore gustaten? Labur esateko, Tarota ala koloreak?
Atsoa.— Boteila kolorea be, polita da ta.
Mutil.— Tratulariak ete dira honeek?
Xila.— Horretara bada, goazen beste mahaira. (Xila eta Atsoa mahaiez aldaten dira, eta MUTILAK buruari atz-egiten deutso). Jesarri gaitezan. Zein kolore, beraz? (Mutilari) Zoaz "Argia" gela horretara apur baten. (Mutila "Argia" gelara, sar bedi).
Atsoa.— Hauxe... edo beste hau... edo beste hori.
Xila.— Bi batera ezin ikusi zineiz. Hiru, hainbat ezago.
Atsoa.— Zalantzaz nabil eta...
Mutil.— (Atean kirika). Atsoa, beti atso.
Atsoa.— Ezer esan ete deustazu?

Xila.— (Irribarrez) Zeure belarrien durundia, noski. Azkenez, zein ko...
Atsoa.— Zuria. Anixete kolorekoa.
Mutil.— (Atean muturra agertuz). Atso azkarrak koloreak edarietatik dakiz.
Atsoa.— Barriro be, durundia?
Xila.— Supersonikoa dalako edo. Eutsi boteila zuriska hauxe. Begiratu zulotik. (Atsoak boteilea hartu eta barrura begiratuz).
Atso.— Ezkerreko begiz, murritz.
Xila.— Eskumakoaz egizu dirdiz.
Atsoa.— Eta anixeteak urteten badau, begia erreko deust.
Xila.— Boteilak hutsik dagoz, baina.
Atsoa.— Eta lehenxeago gizona busti dauana?
Xila.— Bai, baina hori hor, hain zuzen, be edateko jarririk egoan. Ahora eroan behar ebana, begira eroan harek eta horra!... Busti.
Atsoa.— (Boteila barruari begiraka). Urrunean gauza baltza ikusten dot.
Xila.— Baltza...?
Atsoa.— Baaaai.
Xila.— (Boteila eskuan hartu, atzea igurtzi eta han eukan makar baltza kenduko deutso eta Atsoari emon). Ikus egizu orain.
Atso.— (Boteila zulotik begiratuz). Orain ez dago ezer baltzik. Dena zuri.
Xila.— Ikusten? Beraz, zure etorkizuna argia da, zuri zuria. Benturaz zabiltz, eta benturaz... (Atsoak eskuez beste mahairako gogoa agertu nahi deutso Xilari). Zeeer? Beste jokoa be, gura?
Atsoa.— Bai, bai. Behin hasi ezkero, dena ikusi behar da.
Mutil.— (Atean kirika) Zure ipurdia be bai. Oraintxe doguz komediak!
Xila.— Jagi gaitezan, beste mahaiaren inguruan jesarteko. (Xila eta Atsoa zutundu eta beioaz beste mahairuntz). Kontuz!... lubana. (Barriro jesarri beitez). Ipini eskuak bola ganean; eta lau igurtzi egin eta boskarrena gero, astiro. Nik, kartak zabalduko eta ordenan jarriko. Zein hiletan jaio zinan?
Atsoa.— Aries... esan ohi zuen gure agureak.
Mutil.— Hari ez, eta niri bai.
Xila.— Udabarrikoa zara, horretara ezkero. Karta bat gora, bestea behera. Hau, eskumatara; hori ezkerrera. Eta erdian, luban barria, baina txikia.

Atsoa.— Gurutzea egin dozu.

Mutil.— (Kirika) Gurutzea, zure senarrak eraman dauana, Zirineorik baga.

Xila.— Ixilik. Zein da, andre arduratsu, zure ardurarik zerena, larriena?

Atsoa.— Hori, zeuk igarri behar zeunke.

Xila.— Guzurrez ala egiaz zabiltzan jakiteko preminea dot, ostera.

Atsoa.— Guzurra? Ez dot sekula guzurrik esan.

Xila.— Oraintxe azkena. Hori be...

Atsoa.— Gauzak argi ez dabiltzala uste dot. Zera... Gizarte Aseguruan ni zelan geratuko nazan jakin gura, ba. Hobeto ala txartoago.

Xila.— Hasi gaitezan Tarot garbian.

Mutil.— (Kirika) Oraintxe edo, izango dogu zerbait.

Xila.— Tarot argi, Tarot ilun...

Atsoa.— Tarot argi, Tarot ilun.

Xila.— Zu ixilik orain. Tarot argiaren dirdizak kilikili egiten deust, ezkerreko izterpean. Geldi. "Urreak izpi biziak, lainoak ez dau izpirik. Andra arduratsu honek ez dino inoiz be guzurrik".

Atsoa.— (Berekiko). Honek, gezurretik egia atera gura leuke. (Xilari). Zera, nire alabearen egoerea jakin ahal banei...

Mutil.— Alabadun ete da tarotekari hau?

Atsoa.— Beste mundukoek be, berba egiten al dabe?

Xila.— Batzuetan, bai. Zera... itxaropen handia... itxaropen handia... izango dozu. Eta horregatik, zure kezkea ez da nire koxka bihurtuko. Ogi biribila etxera egunero eramango dozu. Edo ogi luzea, zuriskea ala erre-errea. Hori, zeure aukerara. Seinik gehiago izango ez dozun ezkero, ogia oparo izango, preminea baino ugariago.

Atsoa.— Ogiz bakarrik ez da gizona bizi.

Xila.— Horra, ba! (Zutunduz) Amaitu da zure txandea, nahiko luzea, izan be. Bikotxa izan danez, tarifa bi ezarri behar nik. Ea... zanbat dan? Bost eta bost, mila... baina... bederatzirehun.

Atsoa.— A, ederto!. Mila izango ete zalakoan ni eta...

Xila.— Merkealdia egin deutsut. Emakumeari gehien gustaten jakona.

(GIZON A itsumustuan sartuko da, kalerako atetik datorrela).

Atsoa.— (Zutunduz). Kontuz, kaiku, lubanera jausi ez zaitezan eta min hartu.

Giz A.— (Xilari, urduri). Emon deustazun dirua, ez da legezkoa.
Atsoa.— Zelan? Hemen dirua kendu eta emon be, egiten ete dozu...?
Xila.— (GIZON Ari). Lehen hor, lubanean dirupapera egoala esan dogu. Zurea ete zan itaundu nik, eta zuk, hartu ezin dozu, eta joan. Ez da holan?
Giz A.— Bai, bai. Horraitino... faltsua da.
Xila.— Bada nik duban emon deutsut. (GIZON A, erdi lotsatuta, beioa kalera).
Atsoa.— Ulertzen dot, zeharo ez baina. (Karteratik dirua atarauaz). Eutsi. Zure berbak igarlearenak izan beitez. Agur. (Beioa kalera)
Xila.— Hala biz.
Mutil.— (Zeharo agertuz eta kantari) Hala ba!... Hala bin, bon, ba!

IV
XILA eta MUTILA

Xila.— Joan dan horrek, zer gura ete dau?... Eta zuk?
Mutil.— Hori, hori... Eta nik? Ni... inor nazala uste al dozu?
Xila.— Baaai, Ez ete zara, ba?
Muti.— Batzuetan, bai. Lo nagoanean, barriz, ez naz inor. Ezer egin barik.
Xila.— Arnasarik be, ez ete, dozu hartzen lo zagozanean?
Mutil.— Aldi bateko arnasea, aldatua egin jatala esango neuke. Ez dakizu.
Xila.— Ezagutu ez ba zindudaz! Jaio zinanetik ezagutzen zaitut.
Mutil.— Jaio?
Xila.— Ez zinan jaio, ala? Bai. Ondotxo dakit nik.
Mutil.— Gure, amagaz egoan emagina ete zinan?
Xila.— Ez hainbeste. Hantxe nengoen, hurrean egon, ba. Horraitino... ikusi? Gaua zan, argirik ez, ez zan errez ikusterik. Amak esan eban: "Xila, seina jaio hurren dago. Zagoz arduraz. Nik, barriz, dendara joan behar dot; eta berandu da. Ez dogu janaririk".
Mutil.— Nun jaioteko nintzan?
Xila.— Hantxe. Amak aldegin eta zu jaio. Orduan ni, leihora arineketan joan eta esan neutsan: "Ama, jaio da seina". Eta amak: "Zer da?". Eta nik: "Han dago, erdi negarrez, baina". Eta amak: "Hor, sukaldean, mahai gainean kandelaren bat hor dozu". Eta nik:

"Itxedon apurtxu baten". Sukaldera tarrapatan joan nintzan, kandela isiotu neban eta zeugana hurreratu nintzan.

Mutil.— Bakarrik ete nengoan?

Xila.— Bakar bakarrik, baina bilusik. Bildurrik bakoa izan zara beti. Bai.

Mutil.— Eta... ama?

Xila.— Han, kalean, nire erantzunaren zain. Orduan zu ikusten ni hasi...

Mutil.— Eta ni, bakarrik eta narrugorrian... hotzak hartzeko be! Baina... ni hala... erantzita nengoela, zuk zetan nire biloistasuna ikusi?

Xila.— Ba... esateko.

Mutil.— Nori esateko?

Xila.— Amari.

Mutil.— Jaio nintzena, ba ekian amak. Lehentxuago esan zeuntson eta.

Xila.— Jaio zinala, bai. Beste zertzeladarik ez, barriz.

Mutil.— Zu be, jantzirik bage, jaio ete zinan?

Xila.— Ez dakit. Ez dot gogoan.

Mutil.— Nirea ba dakizu, eta zurea ez. Eskubiderik ez dago. Orain hemen...

Xila.— Tarot zertzen dot.

Mutil.— Lehenago lan horri "sorgintzuan" aritzea esaten jakon.

Xila.— Lanbide modu bat da.

Mutil. — Hori, hori. Ni be, lan bila nabil. Ez da galdu dodalako. Baina nun eta zelan idoro, ezin dot asmatu.

Xila.— Lanak izango dozuz lana aurkitzeko. Orain... ez dago esateko lanik. Lanak... eginda dagoz.

Mutil.— Eta zuk...?

Xila.— Astia emoteko eta dirua irabazteko be bai. Kapitalismo amurragarriaren zera da, baina guztiek maite daben elementua. Ogia irabazi behar ete...

Mutil.— Oraingo neskatilak ez dira ogizale. Loditzeko bildur dira. Ai, besoen ingurua! Ai, iztar lodiegiak! Ai, gerrialdeko mitxelinak!

Xila.— Horra, ba. Mehetuteko eta argaltzeko gaiak be, izaten dabez Tarot lekuetan. Nik, eskuarterik ez, eta horrelakorik ez dot. Ganera...

Mutil.— Zeeer? Zeregin hau lagateko asmorik ete dozu?

Xila.— Bai, Ibon.

Mutil.— Nire izena zelan dakizu?
Xila.— Eta zuk ez al dozu gogoan harako Ikerne?
Mutil.— Goiazko Ikerne?
Xila.— (Buruko ule zapaztoa eta gafak kentzen ditu, eta soinganeko jantzi zarpila). Hauxe nozu.
Mutil.— Izan be... Hamabost urte alkar ikusi barik. (Alkarri mosu egingo). Ikerne... Nork esango!... Gure barriketa hutsala zelan...
Xila.— Horrelakoak jazo izan jataz hemen, mutil jostalariakaz. Zu be, horreetarikoa zinela uste izan dot lehenengotan; baina gero... ez dakit... Zure berbeta, doinua, zure berbak eurak, zuen senideen kutsu eta ikutu ikaragarria...
Mutil.— Baina guzti honek azalpena eskatzen ez ete dau?
Xila.— Ulertzan deutsut, Ibon. Gizarte honetan be dirudi alkarren azaleko gauzak bestelakotzen dihardugula. Nik, aldi labur baterako, etxetik aldegin neban. Eta ni neu be, ikusi dozu, itxuraldatu. Norbaitzuek ezagutu ez nagien. Zuk ez al dozu inoiz zeure irudia bestelako, guzurtxoren bat esan, eta abar, eta abar?
Mutil.— Begitu, zera, ni gaur hona etortearen zergatia... (Eskuturreko erlojuari begiratuz). Ene, ene... Eta berandu nabil.
Xila.— Nunbaitera joan behar ete dozu?
Mutil.— Ez, ba. Hain zuzen be, bestera da. Norbait hona heldu hurren.
Xila.— Nor, zein?
Mutil.— Neskatila baltzeran bat. Nire erdi...
Xila.— Au misterio bikotxa? Eta zetara...
Mutil.— Tarotarekiko eztabaidak izan doguz, eta kale honetako zenbakia aitatu ebanez, ni neu, ha bera baino lehen heldu nazala uste dot. Badaezpadan gelan sartuko naz.
Xila.— Zelan jakin nei ha... ha bera dan?
Mutil.— Ba... "noski noskitxo" esateko ohiturea dau. Zu zagoz arretaz, eta harek aitatuten ez badau, zeuk bidea emon, zirikatu. Ulertzen?
Xila.— Ulertua. Baina zu hemen zagozanik ez dau harek...
Mutil.— Ez leuke jakin behar. Gauzea aukeran jarriko balitz, neuk agertuko neuke neure burua. Baina zuk ez dakizu ezertxu be. Zera... Ikerne, ez al dozu zeure gustoko laguntzailerik?
Xila.— Nire gustokoa bai, baina gure amak ez dio begi onik jarten. Eta horregaitik nabil honelan zarpilez jantzita. Eta hain zuzen... gaur...

Mutil.— Gaur, zer? (Kalerako atean krisketari norbaitek ikututen deutsala XILAk susmatuz)
Xila.— Zoaz, zoaz, gela barrura! (Kantuz hasiko da) "Itsasoa laino dago Baionako barraraino. Nik zu zaitut...

V

Lehengoak eta NESKATILEA.

Neska.— (Buru makurketa biguna eginez) Egun on, egun on... (Sar bedi).
Xila.— "... maiteago, arraintxoak ura baino."
Neska.— Polito, e? Hari musikal eta guzti, ezta?
Xila.— Ez, ba. Hari hori nire ahotsa dozu.
Neska.— Ahots gozoa. Tarot musikalik egoanik ez dot jakin.
Xila.— Bariantea dozu. Abanguardiakoek beti zer berriak astinduten.
Neska.— (Lurrera begiratuz) Lauki luze hau zer da?
Xila.— A, kontuz horra hurreratu. Luban-aska sakona dozu. Zatoz alboan zehar. Zure burua maite izango dozula uste dot eta... Arriskua saihestu beharra dogunez...
Neska.— (Inguru osoari begira ta begira). Lubana eta mahai bi...
Xila.— Bai, andrea. Koloreen arriskua eta Tarot eta bola borobilaren eremua.
Neka.— (Boteiladun mahairuntz joango da). Hau al da Tarotaren...
Xila.— Oi... eeez. Hau... pre-Tarota dozu.
Mutil.— (Kirika) Prét-a-porter.
Neska.— Hari musikala barriro be?
Xila.— Ho... rixe. Koloreen eremua gura dauenak, hementxe dauko. Eta Tarot soila gura daunak, kartak. Betegarritzat, bola zoragarria be, hortxe dot.
Neska.— Nik... zera... sikologiako foiletoa irakurri dot eta joko honen susterra...
Xila.— Susterra ba, noski... jakiturian datza.
Neska.— Eta idazkuna horreek, "Argia" eta "Iluna", sofistikaziorik ez al da?
Xila.— Baaai. Noski.
Neska.— Noski noskitxo. Tarot hori...
Xila.— Jesarri zaitez. Hementxe. Eta ni be bai. Zer nahi dozun agertu behar deustazu.

Neska.— Nik agertu?

Xila.— Tarot-etxe honetan bai. Jardunean aldaketa ugari dozu. Bakoitzak berak dau bere bere gatza eta araua. Zer jakin gura dozu?

Neska.— Norbaiten buruan zer dagoan, zelan jakin leiteken.

Xila.— Norbaitek, ostera, burua ezezik, bihotza be, izan ohi dau.

Neska.— Noskitxo. Diozunez, biak jakitea be, onuragarri gerta daiteke.

Xila.— Jakina, ba. Horretarako dago Tarota, jakituriaz taiutuz.

Neska.— Eta bola hori? Eta koloreak?

Xila.— Horreek... betegarri dozuz. Hutsik dagoz eta... Egin daigun... "Nun dago eta nor, nik —zuk be bardin esan nei—.... zera... zertu gura neukeana! Ikusi daigun. (Kartak zabaltzan hasiaz). Bat... bi... hiru... lau... Hau gora; beste hau, behera. Mahaipean argi gutxi. Ate atzean iluna. Argia isiotu... eta argitasuna. Argitasunak jakituria. Ikusten? Nor dan... hori, ba dakizu bai. Nun dagoan? Ez ostera.

Neska.— Ez neban uste baina, noski...

Xila.—... txo. Ixilik, arrisku eremuan sartu gara ta. Bizitzea zubiaren antzekoa da. Zubi horretan zehar joan beharra dogu. Bakarrik ala bidelaguna aldamenean dugula. Bidelaguna nun dago? Lehen egon al da? Oraingoak iraungo al dau? Barria, hobea ala txarragoa izan daitekela, jakituriak dino. Lau eta lau zortzi. Bederatzi... eta jaio.

Neska.— Eta bola horrek, zer...?

Xila.— Informatikaren aztarrena, itaurrekoa dozu. Tarotak esan dauana, horrek egiaztuten dau. Bete betean.

Neska.— Ezer esan al dau, ba?

Xila.— Esan ez? Gure barruko azala samur ez baldin badago, euriaren antzekoa dan Tarotaren zumua ez da sartuko. Lehor geratuko. Sinesgogorrak ez dau inoiz ezer sinestuko. Ezta maitearen berbarik be.

Neska.— (Itzartuaz lez) Zelan... zelan? Maitearen berbea...

Xila.— Maitea, norbera gara. Bakotxa bera. Gizonak ez dau maiterik, maiteak baietz esaten ez badeutso.

Neska.— Eta jantzi zarpil antzeko hori, aulki ganean...

Xila.— Hemen bestetan erabilten dodazan zerak dira. Lana amaiturik neban, ustez, eta erantzi egin dot, eta kendu gorputzetik, hori eta horreek.

Neska.— Eta bolearen zer hori, zelan...?

Xila.— Sinpatika agertzen zaiataz eta, bolazale geu guztiok gareala argitarazo gura neuskizu. Bola eta bolarak guztiok doguz. Horreei gana emoten saiatu beherra dogu. Jakinguratxu zakustaz, eta nik, dirua batzeko asmotan jarri neban... jostaketa hau. Jendea tolesbakoa da, gehienbat, eta ordu gozoak emon dodaz aldi labur honetan.

Neska.— Eta zuk esan dozun lez jazoten ez bada?

Xila.— Gauzarik bakanenak jazoten dira gure artean, horraitino. Mundua, batzuetan, txikerra da. (Erlojuari begiratuz) Berandu da; belu. Eta itxi egin behar neuke. Egun atsegina izan da gaurkoa. Zerbait itxaroten dot, eta... itxaroten dogu esan baneu...

Neska.— Inor etorriko al jatzu? Eta barri onak dakartzala...?

Xila.— Horixe uste dot. Eta zuk zeuk, ez ete dozu horrelakorik aprobatu gura edo... Gozotegira joan behar dot, eta zagoz...
(Mutilak, ixil ixilik, kalera ihes egingo dau)

zagoz, apur baten, ni bihurtu arte. Bitartean, ikusi Tarota, bolea ta boteila koloredunak be bai. (Xila be, kalera doa).

Neska.— Gauzarik bakanenak... dino horrek. Dana da hemen bakan, sustarrik bako Tarot merkea. Sikologiaren izpirik ba, ez dauana. Eta jantzia... jantziko baneu? Jantzi egingo dot. (Goiko ta beheko soineko, bere gorputzean jantziko dau, eta gafak eta buruko ule zapaztoa be, ipiniko ditu). Noski noskitxo, Tarotak ba ei dau misterioaren izpitxo? (Kartak zabalzten hasi bedi) Bat... bi... hiru... lau. Eta beste lau, zortzi. "Errotako txakurrari dantzan irakatsi". (Kalerako atean Xila eta Mutila kirika, bainan ixilik. Neskatileak, jakina, ez ditu ikusiko. Bapatean, Xilak eta Mutilak aldegingo dabe). Norbait, zerbait helduko ei da. Betor ordu onean, bola bolatxo. Nork daki, ostera...

VI
NESKATILEA, ATSOA eta SENARGEIA

Neska.— Uneak une, eta inortxo be ez. Gozotegi hori nun ete dago? Nun? Norentzako izango ete da... (ATSOA sar bedi).

ATSOA.— E, e! Ez inori iruzurrik egin. Susmoa neban, eta horra!

Neska.— Zein susmo? Etorkizunarena? Bola honek esango deusku.

Atsoa.— Ez nigaz olgetan ibili.

Senar.— (Kaleko atetik ausart sartuko da). Xila... Xila... gure ordu zorointsua gugaz laster da. (Neskatilearengana hurreratuz).
Atsoa.— Zer Xila eta Mila! Nogaz diharduzu? Hau nire alaba Ikerne dot eta.
Sena.— Ikerne dinozu? Hau Xila da, neugaz ezkontzekotan dagoana.
Neska.— Ni zugaz ezkondu?
Senar.— Zer, ba? Zeharo aldatu al zara, itxuraz ez baina, berbaz, doinuz eta pentsamentuz?
Atsoa.— Aldatu... aspaldi aldatu zan etxetik Ikerne. Barriro bihurtu behar dozu ene alaba horrek. Osabearen barri onak izan doguz.
Neska.— Osabearen barri onak?
Senar.— Nungo osabea, barriz? Ez deustazu behin be osaba dirudunaren konturik adierazo, Xila.
Neska.— Baina ni ez naz ez Ikerne ta ez Xila.
Senar.— Noiztik hona ez zara Xila?
Atsoa.— Zure ama be, ukatu egingo al dozu, Ikerne?
Neska.— Tarotuteko etorri naz hona eta...
Senar.—Hainbeste tarotu beharrez, zoratu egin al jatzu?
Atsoa.— Neure alaba galdua ez ete zara, ba?
Neska.— Uf... uf... Tarotu ala zoratu... (Soineko zarpila eta gafak eta buruko ule zapaztoa kentzen dituanean, SENARGEIA eta ATSOA, harrituta, atze-atzeka joango dira).
Senar.— Ai, ai, ai...
Atsoa.— Ene, ene, ene...
Neska.— Lurra!... irents nagizu.

(Teloia jatsi azkar-azkar)

Azkena

ALKARRIZKETA KAIXKARRAK*

I
Ardontzia

Bartolo, gizon mardo gizen samarra, mahaiondoan, jesarrita. *Kiril*, idizila lako argala, zutunik, batera ta bestera.

Barto.— Handia da, gero, zure ibili beharra. Esan eta esanda be...
Kiril.— Ibiltea baino ezer egokiagorik ez da.
Barto.— Ibiltaun asko ikusi izan dogu eta...
Kiril.— Alperrik Marixe gurea makilatu.
Barto.— Egotea lako beharmodurik, ba ete da, izan be?
Kiril.— Egona... egona... Ur eginduak usteldu egiten dira, kirastu, berdetu, eltxoz eta zakarrez bete, eta inguru guztiak atsitu eta lorrindu.
Barto.— Zure kilometroak ezetarako izan balira, honezkero iretargia, eta Marte, eta Jupiter, eta Satur...
Kiril.— Saturri laga egiozu baketan. Satur baketsua da-ta!
Barto.— Saturno esan gura izan dot.
Kiril.— Bardin da. Baketan dagoanari, baketan laga. Diabruari be, baketan laga ezkero...
Barto.— Hori... emakumeei esan egiezu. Horreek astinduten dabe diabrua.
Kiril.— Zelan?
Barto.— Zelaaan? Buztana zapalduta.
Kiril.— Oker zabiz. Buztanetik buztanera... alde handia dagoalako.
Barto.— Oker... zu zeu zabiz. Ni, bide horretatik ez naz joan-eta.
Kiril.— Badaezpadan.
Barto.— Kilometroen autua hasi dot nik lehen. Ekin deiogun, ba.
(Kiril be, jesarri egingo da, Bartoloren aurrez aurre, mahai bitarte dabela)
Kiril.— Entzun, laguntzarra. Beti egonean dagoanak ez daki munduko barri. Ez daki ezer be. Barru hutsa. Eta hutsean haizea baino ez dago. Baztertu, astotu. Ba dira prakadun astoak.

---

* *Argitaratubakoa.*

Barto.— Eta, gonadunik ez?

Kiril.— Gonak... gonak... amaitu ziran gehienbaten. Andra urtetsuren batzuk, eta kittu! Abadeak eurak be, prakadun dira orain. Alkondara hutsik be, hortxe dabiz ibili.

Barto.— Udea danean, neguan ez dira alkondara hutsean ibiliko.

Kiril.— Horregaitik esaten eben, zera, goitik beherako jantziak berak bakarrik ez ebala inor fraile egiten.

Barto.— Mundua edo mundukoak aldatuz doaz.

Kiril.— Horixe ba, ibili, aurrera joan, eta ez beti geldi egon. Ibiltetik dator aurrerapena.

Barto.— Mutil zaharra nazalako ez deustazu horrelakorik esango, ezta? Txirritaren esaldi bat gomuterazo deustazu-ta.

Kiril.— Gogoan be ez neukan orain. Baina hori horrelan bada, zeure erruz, zeure erruz, zeure erru handiz da.

Barto.— Nahikoa dogu barriketarik, samako zuloa makilaua baino lehorrago dogula. Atarau egizu hor gordeta daukagun botilea. Ardao botilea.

Kiril.— Hoba izango da goizegi ez atara.

Barto.— Zegaitik?

Kiril.— Ba dakizu. Ardao gitxi geratzen jaku. Erdi hutsik dago.

(Kiril bazterrera joango da, ardao botilea eskuan hartuko dau eta ekarri, eta mahai-ganean ipini)

(Bartolo be, orduan, jagi egingo da, eta botileari goitik behera begiratuko deutso, behin eta barriro)

Barto.— (Jesarriaz) Zer dinozu, Kiril? Botilea ez dala biribil?

Kiril.— (Hau be jesarri egingo da) Goialdean hutsik dago. Au larrialdia!!

Barto.— (Barre karkaxea eginez) Ardaorik ez? Boteila erdia ardautzan egon-ta...! Sekula holakorik! Ardaorik ez? Itoteko beste be bai.

Kiril.— Baina ardao hori amaitzean, agur gure poza!

Barto.— Ba... ba... ba... Baina bitartean, bitartean... boteila-erdi ardao. Bai, gizona. Hementxe daukagu. Eta edateko daukagu. Satispazino handiagorik gura al dozu? Eta ganera, ardaoa galtzea, lastimea izango litzateke. Bai, lastimea.

Kiril.— Ardaoa galdu?

Barto.— Hona hemen bestea! Alperrik galdu. Zer esan bakoa. Jakiña!

(Bartolok musturrak igurtziten ditu, eta mihiñari txibite soinua atara, ezpanak edegi ta batu erabilirik, eta ahoagaz zurruztadak eginez)

Barto.— Hasiko ete gara ba...

Kiril.— Ardaoa aurrean, zetarako gura dozu, ba? Edateko ez bada...?

Barto.— Hori be, egia da. (Bazterrera joango da eta baso bi ekarriko)

Kiril.— Jesarri nasai. Euskaldunon beste ohitura bat be, hondatu egin gura deuskue. Bai jan, bai edan, euskaldunak patxadaz jesarrita egin behar ditu. Iperdia zetarako dogu?

Barto.— Jesarrita egoteko.

Kiril.— Haor ba! Aulkia bera be, horrexetarako egina da, jesarteko. Gizon nahiz emakume jesarteko. Eta asmatzailearen omenez, geu be jesarri eta patxadaz, jan danean jan, edan danean edan, beti jesarrita egin behar dogu. Amerikanoen jate hotz eta zutunekoak, eurentzat.

Barto.— Bai, holantxe da.

Kiril.— Izango ez da, ba? Meza luzea dirudi honek. Atara egizu ardo hori! Lehengoan neuk atarau neban. Orain zeuri dagokizu.

(Kirilek baso biak erdi bete egiten ditu. Drungadatxu bana edaten dabe, ta basoak laga)

Barto.— Aaag...! Etxe hutsa, gerra hutsa, esaten dabe. Urdail hutsa be, ez da gauza zera. Burrun eta burrun, hutsezko haizealdia hasten danean, urdailaren pasiñoa ta aboliñea dala esan leiteke.

Kiril.— Edatea, ez da txarra. Baina... amaitu egingo jaku.

Barto.— Lehen esaten hasi naz, baina nahastau egin gara. Begira! Edaten ez dan ardaoa, galdu egiten dala. Bai, txo! Garraztuten hasten da, eta orduan, martxa txarra. Ardao ona zana ozpin, biñagre bihurtzen da. Eta horrek, samea garraztu, urdaila nahastu, eta esteak erremin laga. Berba baten esateko, ardao ederra gorde ta gorde, eta zetarako? Barrabasarentzat.

Kiril.— Oraintxe esan dozu egia.

Barto.— Nik i, egi galantak esaten dodaz. Horraitio, nire ingurukoak entzuten ez jakin. Eta mundua oker dabil, eta ibiliko. Biñagrearen ipuintxua esango neuskizu. Entzun gura?

Kiril.— Baaai!

Barto.— Tira, ba. Zuk ba dakizu entzuten... zeuk gura dozunean.

Kiril.— Ez inor mindu.

Barto.— Bakarrik gagoz, eta gizonen artean andrarik tartea ez bada, itsaso barea.

Kiril.— Ez beti.

Barto.— Zirina zara, gero! Laga egidazu ipuina esaten.

Kiril.— Betor. Aita gurean "betor" esaten genduan lehen. Orain "etor bedi" asmau deuskue. Baina itsaserri baten "betor bedi" esaten ikasi dabe.

Barto.— Aita San Iñazioren martxan be, hor dauke sekula inok esan ez dauan "nahiz betor" itsusi hori. Ez al dago bizarrik hori zuzentzeko be?

Kiril.— Noiz entzungo ete dogu biñagrearen harako ipuina?

Barto.— Oraintxe berton. Drungadatxu bana egin, eta... (Edan begie) Biñagre saltzailea bere mando ta guzti, komentu bateko alboko atera heldu zan. Sokea egoan dingilizka, eta sokeari tiratu, eta dilin dalan!! Kanpai hotsa atara eban. Harik lasterren, astiro eta ixil, prailetxu batek atea edegi eutsan.

(Kiril aho zabalik dagokio, jakinguratsu. Bartolok, ixilune handia apropos, eta ardao pixkat edan)

Kiril.— Ta?

Barto.— Bakea zuri, anai horri —esan eutsan prailetxuak heldubarriari—. Zer dakazu? Eta saltzaileak berbeta legunez: Saltzailea naz. Ekarri, biñagrea dakart, baiña... saltzeko. Eta praileak, burua okertuaz: Ai, ai, ai! Pozik hartuko neuskizu, baina orain, orain... Orain, orain, zer? —itaundu eutsan arduraz mandazainak—. Eta prailetxuak: Horra ba! joan dan asten izan dogu hemen kargoak barriztautea, eta hiru urterako biñagrea daukagula.

Kiril.— Kontxo! Biñagre ugari, e?

Barto.— Bai, ba. komentuko agintari barriak barruan eukana. Horregaitik, guk, orain eta hemen... ardaoa edango dogu.

Kiril.— Gure ardaoak, ostera, beheraka handia egin dau. Erdi hutsik lehen, eta orain barriz...

Barto.— Baina gure barruan zingo handiagoa dago, oraindino tiraiñik ez, baina. Urabereak uragorea dakar. (Edanalditxua. Ezpanak igurtzi). Doana, ondo doa.

Kiril.— Kanta zahar bat gomuterazoko deutsut. Hona.

"Ez da filosoforik ez teologorik
ardauari neurria hartzen dakianaik"

Barto.— Guk u, horraitio, ba dakiagu neurria hartzen. Zuretzat ardao botilea beti erdi hutsik.
Kiril.— Eta zuretzat, barriz, erdia beterik egon ezkero... aufa!
Barto.— Itsasoan ura dago, eta lehorrean be, ura dago. Uretatik dator ardaoa.
Kiril.— Ez, ez, ez! Mahatsaren orpotik dator.
Barto.— Hori, hori!... Azken hondarrak edan baino lehen, kantau dagigun. (Biak batera, kantau begie alaitsu baina polito)

"Matsaren orpotik dator mama gozoa,
edango geunke guk beterik basoa.
Klink! Beterik basoa.
Nik zuri, zuk niri,
agur egiñaz alkarri...
klin. Klin, klin... "

(Zapia azkar behera jatsi)

II
Aulkia

Bodi eta *Alen*, gizonezkoak, ez zahar ez gazte.
Biok zutunik dagoz. Bazterrean, aulki bakarra.

Bodi.— Alkarrenganatu gara. Horraitio, gaur ez daukat zuretzako albista bakar bat be. Eta zuk niretzat?
Alen.— (Besoak eta sorbaldak gorantz jasoaz) Nik zer esango deutsut ba? Neutzako lain be, ez daukat eta.
Bodi.— Horretara ezkero, katuarentzako lain be, arrainik ez. Jesartea izango da egokiena, geure albista barrien susmoa alkarri bananduteko edo. Jesarleku bat hemen dozu.
Alen.— Bai, ba dakust, ikusten dot. Baina zu zeu, nun jesarriko zara?
Bodi.— Hori... gitxiena dozu. Ez deutso ardurarik. Ni, lurrean zabal zabal. Bai, gizona; jausteko arriskurik be ez.
Alen.— Lurra, hotza da, horraitio. Eta ganera, gero jagiteko... esturak be bai.
Bodi.— Esturak, e?

Alen.— Baaai. Lehengo baten, mediku baten kontsultara joan nintzan. Aulki zabalean, jesarri baino be, sartu; dzaust! barru barrura. Komuneko zulotik ninoala uste izan neban.

Bodi.— Eta gero?

Alen.— Gero, itxaron bitartean, nasai nasai eta bigun bigun. Loak hartu nenduala be, esango baneuskizu... Baina, entzun. Neure txandea zala-ta ziri egin eustenean... jagi ezin. Belaunak jokorik ez, indarrik ez, eta besoen indarrez baliau behar. Gorri-gorri jarri nintzan.

Bodi.— Zegaitik?

Alen.— Jagi ezinik nenbillela ta, zahartzat jo ez nengien.

Bodi.— Alperreko lotsak. Lotsea, lapurretarako behar da. Dinozunagaitik, gero nekatu ez zaitezan, neu jesarriko naz. (Aulkiari oratuz).

Alen.— Hori be... harako pastela zati bi egin ebanaren antzekoa da.

Bodi.— Zein pastel?

Alen.— Esango deutsut. (Aulkia eskutik kentzen deutso Bodiri): tarta bat zati bitan banatu beharra gerta zan. Tartea ebagi ebanak, besteari tartearen zatirik txikiena eskeini eutsan. Eta jakina, handiena... beretzat zertu.

Bodi.— Ta?

Alen.— Txikiagoa gerta jakonak, bai esan be: Txo! Horixe da lotsa gitxikoa izatea. Nik neuk, bestera egingo neban. Handiagoa inori eskeini, eta txikiagoa niretzat. Orduan bere lagunak erantzuna: Hain zuzen be, horixe egin dot. Txikiagoa zuri emon. Bai, ba!

Bodi.— Ba, guk u... pastela ez baina aulki bakarra daukagu, eta hau nontzat egingo dogu, arrantzaleak partila eskasa suertatean, ekarritako arrain apurrak moila ganean pilotxuak egin eta gero, itandu ta banatu ohi eben antzera: "Hau zeinentzat?" Eta txandaka egiten badogu? Guretariko bakotxa, batean zutunik bozt minutuan, eta gero, jesarrita?

Alen.— Baina, horrelanik, biok nekatuta azkenean.

Bodi.— Horraitio, aulkia epelduta.

Alen.— Bestek beroturiko jesarlekuari... turrit! Ez da egokia.

Bodi.— Hain milinga ta buperea ete zara? Atze beroa... Gure ontziak be ba eben lehenago harako atzeko latiña. Atze ta popa... popakoxu!

Alen.— Mesedez, ez okertu eztabaidearen zentzuna. Ez zutunik, ez jesarrita... negozio eskasa gu lako gizon handi birentzat. Dana dala, milinga berbarik gehiago aitatu ez dagizun, eutsi, hartuizu aulki hau. (Aulkia eskeiniaz) Eta jesarri zaitez. Epeldu barik dago.

Bodi.— Borondate ona erakutsi deustazulako, nik be antzekoa erakutsi gura deutsut. (Alen-i aulkia hartzen deutso). Norberentzako ona dan, lagun hurkoarentzako be, ona izango dala deritxat. (Eskeiniaz) Hemen dozu aulkia, eta jesarri zaitez.

Alen.— Bazterretan honelako kontsentsurik balego, ontzi guztiak poparean.

Bodi.— Zer bat ez dozu gomutan, horraitio.

Alen.— Zein?

Bodi.— Sarri askotan gauzak leun barik latz egotea komeni izaten jakela gizon batzuei.

Alen.— Norbera patroi izatea beti?

Bodi.— Horixe!... Neu nagusi, edo bestela hazurrak hausi.

Alen.— Esakerak zaharrak.

Bodi.— Askok eta askok, hurrengorik hurrengo esan eta entzunikoak.

Alen.— Baina orain, gaurko gazte eta umeak, ez aitaren ta ez amaren berba gitxi entzuten dabe. Aitita-amamenik, zetan aitatu be ez. Eta hor dabiz, osasuna zaintzen be jakin ez dakiela. Odolean be, kutsua sartzen. Eta behin hasi ezkero, ezin laga, ezin laga...

Bodi.— Eta horretarako dirua behar, eta kendu, ostu, lapurretara jo, eta dirua lortzeagaitik inor hilteko be, gertu. Zelako aldakuntzak!

Alen.— Jesarri egingo naz. Zure sermoi galantak hobeto entzun ahal izateko.

Bodi.— Sermoia, zeuk hasi dozu, baina...! Eta... biok batera jesarri ezkero? (Aulkiari begira begira) Aulki honek sendoa dirudi.

Alen.— Berbea ahotik kendu deustazu. Horixe be! Biok batera zegaitik ez jesarri? Kontsentsurik onena!

Bodi.— Kontsintsiarik txarrena ez dadila gerta.

Alen.— Lepoz lepo jesarrita, ezin alkarren arpegirik ikusi.

Bodi.— Hori ba!... Kantau egingo dogu.

Alen.— Minak ahaztuteko.

Bodi.— Gosea arinduteko.

Alen.— Iluntasuna uxatuteko. Horretarako... lurrean botata dagoan kandela hau biztutea egokien. (Lurreko kandela eskuetan hartuaz) Pospolorik?

Bodi.— Eutsi. Biztuta emongo deutsut, ganera. Sua isiotu ta...

Alen.— Sua... sua... Gauzearen ederra! Orain, surik be, ez dogu sarritan ikusten. Etxean ez dago surik, han tximinipean, etxekoak alkartuteko, berotuteko, poztuteko. Beste modu bateko poztasu-

nak... eta berotasunak dabiz orain. (Kandela isiotu dabe. Alenek dauko kandela isiotua eskuetan).

Bodi.— Kanturako gaia emon deustazu, ganera.

Alen.— Zein gai?

Bodi.— Kandela argitan. Zu bai gizon azkarra!

(Aulkiaren alde banatan jesarten dira biak batera. Hurrengo zortziko txiki hau, edozein zortziko politen doinuan kantauko dabe).

Kandela argitan dago
Maiñasi tabernan,
begira dago baina
ez da agiri Kerman;
Kerman gonazalea
urduri lameran,
lamiña politen bat
aukeran ete dan.

AMAIA

NORI, ZERI, ZEINERI?*

Bakarrizketea

Ulotz, bizar luzea, jesarrita, hormako
erlojuari begira dagoalakoan.
Horman egutegi handi bat be,
hortxe dago.

Ulotz.— Gaur be, itxarotea dagokit. Itxaron; ez jakin noizarte. Itxaron, gau ta egun.

(Erdi irriz) Tira, ba! Gabaz, ez. Gabaz, lo egiten dot. Ez neuke lorik egin behar... baina lotara joan ezarren, loak hartzen nau. Eta loak hartzen nau... zaharra nazalako. Gaztetan beste modu batera zan. Baina, zer egingo dogu, ba!

Loa gauza ona dozu. Lotan dagoana ez da inoiz aspertuten.

Lotan dagoanak ez deutso inori kalterik egiten. Pekaturik be, ez dau egiten. Ai, lo gozoak...!

Bai, nahikoa gogait egiten da, egunean egunean itxaroten.

Nori itxaroten? Zeri itxaroten?

(Zutundu egingo da, eta hormako egutegitik orria urratuko dau)

Atzo ez neban orririk kendu, eta horrelan kontuak oker ibili leitekez. Eta hilaren azkenean... ezin txanponik eskuratu.

Egun guztietan lan egiten, itxarotea lan egitea baldin bada, eta (estulka) ejen! ejen!... alobera jasoteko eta hartzeko unean, kontuak oker. (Batera ta bestera ibilten hasiko da) Noiz etorriko ete da? Eta zelatan? Eta nundik?

Aurretik? atzetik? eskumatik? ezkerretik? barrutik ala kanpotik? Honexek be, kezketan jarten nau. Kanpotik ala barrutik?

Behetik? goitik?

Behetik ez jat komeni, behean parte txarrekoak dagoz-ta.

Beste mutila –ta. Ene! aitatzeak be, barruan halako zotina ta dardarea sartuerazoten deust; galarrenaren antzera irakiten jarten nau.

---

* *Argitaratubakoa.*

Ala goitik? Goitik behera be, gauza gogorrak etorri leitekez. Suagak, bonbak, kainonazuak... goitik etorten dira.

(Buruari behera ta gora eraginez)

Itxarotea... haxe da munduko gauzarik handiena! Luzeena, zabalena, sakonena. Ezetz? Zeinik dino ezetzik? Ezjakin trauskila da. Itxaropenik ez badozu, zelan bizi zeintekez, ba?

Goizero, ohetik edo lurretik itxaropenez jagiten gara. Hainbat gauza egiteko gertu, prest, erne. Hau ipini, hori kendu, bestea eroan, hangoa ekarri. Bateri galdetu, besteari erantzun.

Joan, ez joan, ibili, geratu, gauzak azpikoz ganera jarri, goikoak behera eratsi.

Egin eta desegin. Sortu eta apurtu. Urez busti ala erre.

Zuloak bete eta zulo barriak egin. Adiskide barriak lortu, adiskide zaharrak ahaztu eta baztertu.

Egunero, oheko berotasunean... burutasunak. Gero... erdiak be ez doguz zertzen. Ezta hurrik emon be!

Eta sarri askotan, gauzak okertu eta nahastau. Egin behar genduana ez egin, eta zertu behar ez genduana lauzkitu eta lorrindu. Bizitzako itsasoko urak baretu barik, olatu barriak sortu.

Ganera, esanak esan, eta eginak egin ala ez egin, iluntzean, bihar egingo doguzala sinistu erazo geure buru txepelari. Kartetan, harako bakarreko jokoan edo solitarioan, iruzur eta tranpak egitea lez.

Zintzotasuan iztarpera bota eta guzurra... Horraitio, guzurrak be, itxaropena ez ete dau emoten? Inor izorratuteko itxaropena. Jaaaa!. Guzurraren edena, berenua... albokoari kalte egiteko gogotxua, kalte egiteko itxaropena be...

Baina, ez! Itxaropen handi ederraren bila goaz, zuek eta ni.

Ez ezetzik esan. Guraria, desiotxua, etorkizunaren katilluan orio apur bategaz inguratua, biztuta eta bizirik dogun itxaropena.

Hara! Gabonetan be, loteri edo erlo zori zoroaren itxaropenak zirikatuten deusku geure bihozpeko zirrikitu ilunena be.

Beti itxaroten. Nori? zeineri? zeri? Nongoari? lehorrekoari? itsasokoari? diruari? bakeari? maitetasunari? Auzoko —ixilik! ixilik!— gizonaren emazteari? Auzoko emaztearen —ixilik!— senarrari? Antzinako lehengo maite gozoari?

Itxarrik eta amesetan, zuek eta ni, beti itxaropenaren morroi, otsein, menpeko. Itxaroten... i-txa-ro-pe-na-ri...!

Zapia

Antzerki laburra

BIKO BI

Jarduleak: Etxekandrea.
Jauna.
Txitxi (berbetan dakian txakurra). (Gizonezkoa).
Mixi (berbetan dakian katua). (Andrazkoa).

Patariok, bakotxa bere mozorro egokiz jantzita. Txakurrak, belarri luzeak; katuak, ez hainbeste.

Hasieran, Txitxi lurrean etzunda. Mixi, mahai-ganean luze luze, buztana dingilizka).

I
Txitxi eta Mixi

Txitxi.— (Arrausi eginez) Aaaaaa...! Zu, Mixi, lapur handia zara. Guau, guau!

Mixi.— Katua baino gauza garbiagorik ez dago. Beste guztiak barriketak dira. Bizidunik garbiena, katua. Miau, miau!

Txitxi.— Emea zara, emea; eta beste enparauak baino berba gehiago egin behar beti. Guau!

Mixi.— Gizon muturik be, gitxi izango da. Dana dala... (irriz) edo dena den, dena den, dena den... gure ugazabandreak...

Txitxi.— Zeeer?

Mixi.— Nigaz ez daukala ur gastu handirik. Marramiau!

Txitxi.— Ura, edateko be izaten da. Baita igiri ibilteko be. Itsasoko ura, barriz... gauza ederragorik!

Mixi.— Bustia da baina.

Txitxi.— Gura dozu biok ondartzara joan gaitezan, bustialdia...?

Mixi.— Gaur?

Txitxi.— Edonoiz; eguraldi ona dagoanean. Guau, guau!

Mixi.— Eskerrik asko zeure konbitagaitik, baina... miau...!

Txitxi.— Ba nekian. Garbia...tira...! horraitio, urik bako garbitasunak...

Mixi.— Ez daukagu ezer esateko. Lotsagabea zara. Ni lako señorita batentzat hori baino errespetu eta begiramen handiagoa zuk ez izatea...

Txitxi.— Ez zaitez asarratu, alkarregaz bizi behar dogu-ta.

Mixi.— Etxe baten bai, baina alkarregaz... nanai! Ni neure ohean, eta zu, zeure txabolan.

Txitxi.— ohea dinozu? Izararik ez mantarik bako ohea...

Mixi.— Ene!... ondo mingulinduta eta emetuta zaukadaz. Ez al zara harako txakur ospatsua, inguruetako txakur arrik arrena?

Txitxi.— Bai. Neu naz. Eta zer?

Mixi.— Neu nintzan, egokiago esana izango litzateke.

Txitxi.— Oraindino be, nik i...

Mixi.— Gure amamak esaten dakianez, agure guztien urteierak, putzak. (Ahots lodiz) "Oindino be nik i..." Urak joanda, alperrik presarik. Ez dago, ez dago; amaitu zan. Menopa... eta andropa!...

Txitxi.— Ausia, ausia... Guau!... Gaur ez zagoz betarako, Mixitxu, drogarako baino. Txakurra bazina... ikusiko zeunke.

Mixi.— Txakur aho handia! Ia beti zagoze ahoa zabalik, euliak jateko prest, mihin luzea atarata. Albaitereak ez dauko zuei mihina atara daizuela esan beharrik.

Txitxi.— Katu arraio hori! Sagu txikiei erpeak ezarri bai; horraitio, arratoi baltz lodia agertzen jatsuenean, dardar lepoari eta... atzera!! Ai, katu abillak! Katu oilloak...

II
Lehengoak eta Etxekandrea

Etxeko.— (Sartzerakoan) Eeee! Orain be, asarreka? Ez da harritzeko: txakurra eta katua.

Mixi.— (Alborantz begira) Senarra eta emaztea, antzeko jokabidea.

Etxeko.— Ezer esan al dozu?

Mixi.— Ez ba. Dominstikun egiteko hasi naz, baina geratu egin jat. Ateko haizeagaitik edo.

Etxeko.— Zuk zer dinozu, ba Txitxi?

Txitxi.— Ba... nik i... kalera joateko gogotxua.

Etxeko.— Kontentu ez al zagoz?

Txitxi.— Hori bai, baina katuagaz nik i... aukera eskasa.

Etxeko.— Arrak beti deskeila, mustur oker.

Mixi.— Hori ba! Ama izateko be, gauza ez, eta hainbeste barriketa!
Txitxi.— (Katuari belarrira) Kontuz, laguntzarra! Etxekandre onek be, guk dakigunez, ez dau semerik ez alabarik... zertu.
Etxeko.— Zer da hori, lotsabaldukook? Etxekandrearen aurrean alkarregaz ixileko berbetan? Zer esan deutsu txakur horrek, Mixi? Txakurkeriak?
Mixi.— Bai; derrior.
Etxeko.— Ai, gure katu jakituna! Anderetxu batek aina argitasun dauko.
Txitxi.— Gu beti tontuak, astokilloak. Pazientzia, eroamena...
Etxeko.— Kalera noa. Zein dator nigaz? (Abereak ixilik dagoz). Zeeer? Nigaz bata be ez kalera? Zu be, ez, Txiki?
Txitxi.— Bata be, ez, dino. Izatekotan, neu. Katua ez behintzat.
Mixi.— "Guau-guau"... zoaz!
Txitxi.— (Katuari) Pozik zu, bakar-bakarrean lapuretan bat egiteko.
Etxeko.— Honeek lako pataririk...! Pertsonak lez, berbetan dakiela uste dabe. Pertsonak lez. Esateko be!... Hummmm! Agur, enetxuok! "Carísimos"... Horretarako ezkero, etxea ondo jagon; entzun?

(Etxekandrea kalerantz doa)

III
Txitxi eta Mixi

Mixi.— Hor doa emaztea. Geroago, senarra etorriko da.
Txitxi.— Ez da emaztea, baina.
Mixi.— Zelako ezetz?
Txitxi.— Lehenago, beste emakume bat bizi izan zan hemen, etxe honetan. Haxe zan jaunaren emaztea. Ez... beste hau.
Mixi.— (Jakinguraz, Txitxiganantz hurreraturik). Eta... ospa egin ete eban?
Txitxi.— Ez horrelakorik. Hil egin zan.
Mixi.— A...! Ez nekian.
Txitxi.— Ez ba. Zu hemen, barri samarra zara-ta. Haxe zan ona, andra ona.
Mixi.— Oraingoa txarra al da?
Txitxi.—... (Buruari aurrerantz eraginaz).
Mixi.— Zeeer? Ixildu egin zara, Txitxi.

Txitxi.—... bai. Beti ezin leiteke berbarik egin. Gauza asko barruan gordeta eukiteko izaten dira. Ez inori esateko.

Mixi.— Niri be ez? Sentimentu bigunak edo...

Txitxi.— Horixe! Ganera haregaz...

Mixi.— Ondo konpontzen zinan, ezta?

Txitxi.— Guau, guau! Hazur tokor ederrak emoten eustazan. Senarrak baino be maiteago nenduan.

Mixi.— Haur gehiago, eta askatasun gehiago kalean?

Txitxi.— Hori, hori! Baina zuk hori... zelan edo zetarik dakizu?

Mixi.— Zeuri entzunda dakit nik hori.

Txitxi.— Urteen astunez, ahaztu egiten jakuz gauzak. Nire txakur lagun batek burua gero ta eskasago dauko. Beti autu bat, beti eragon bardina.

Mixi.— Eta zer esaten deutsun... jakin ete leiteke?

Txitxi.— Bai, autu erreza da, beti, beti bat: "gauau, guau"... Horixe da haren oraingo berbeta modu bakarra. Beste berbeta guztiak ahaztu egin jakoz. Agure zaharra dirudi. Potolo gizajoa! Gerriko minez dabil bera.

Mixi.— Igurtzi epelen faltaz egongo da-ta. Ezkonduta al da Potolo hori?

Txitxi.— Ez ba. Ibili bai baina... mutil zaharra da. Txakur zaharra, esan gura izan dot.

Mixi.— Ardiz beteko zan, esan ohi dan lez.

Txitxi.— Ezkontzeko asmoetan ibili zan arren... guau, guau!... besteak ihes egin eutsan, barrakeru baten txakur baltzagaz.

Mixi.— Ihes egin?... Eta nora?

Txitxi.— Nik dakit ba! Geroago, beste txakur alargun bategaz konpondu ete zan be, izan zan entzutea, eta halakoren baten Txakurtxuen Erresidentziara joan ete zan be.

Mixi.— Eta guk, katuok, oraindino Erresidentziarik antolatu barik! Handia da, gero!

Txitxi.— Eta gatx izango dozue.

Mixi.— Gaaatx? Zegaitik?

Txitxi.— Ba, oraingo Egoitza eta Erresidentzia guztietan, Zahartzarorako Txaboletan bainu-gelak ipintea, legez aginduta dagolako. Eta zuok, katuok, bainurik...

Mixi.— Txitxi madarikatu hori!... Zu zeu be, hain ur zalea ez zara, ba!

Txitxi.— Informazino txarra daukazu, Mixi. Kalera noian guztietan, e? Egun hotz-hotza ez bada, neure bustialditxua nun edo han egiteko prest egoten naz. Eta honelan gorputza garbi, eta ardirik ez.

IV
Lehengoak eta Etxekojauna

Jauna.— (Sartuaz) Hemen al zagoze, etxeko jagolok? Eta beste... inor ez ete dago?

Txitxi.— (Katuari belarrira) Ikusten? Etxekoandreari... inor deritxo.

Mixi.— Miau, miau, miau!

Jauna.— Beste inor be ez, horretara ezkero. Esan zeuk, Txitxi: ugazabandrea nora joan da?

Txitxi.— Guau, guau, guau...!

Jauna.— Gura ez dozuenean, ez dozue zuok berbarik egiten.

(Jauna jesarri eta erreten hasten da, tabakorria erreten. Egunerokoa zabaltzen dau eta irakurten jarri. Une batean guztiak ixilik).

Huuumm...! Andra batzuen antzera.

Txitxi.— Ni ez naz andrea, gero!

Jauna.— Ez, ez zinan. Baina katuemearen ondotxuan beti bazagoz... emetu azkenerako.

Mixi.— Andrarik ez balego, gizonek noren kontra berbe egingo ete leukee?

Jauna.— (Irakurriz) "Katuen begiak dauken indarra ikasten dihardue kapones jakitunek. Gabaz eta ilunetan ikusteko dauken doaiaz baliatuta, gizadiak mesede handiak izango leukezala uste dabe. Horraitio, argien eta elektrindarren konpainia handiak eta linternagileak be, asmo horren kontra jagi dira, eurentzat galtzai itzalak susmetan dabezalako. Eta jente asko, barriro ba lan barik geratuko litzatekela. Halan eta be, katu askoren begiak aztertzen dihardue bizirik dagozanean."

Txitxi.— Ikusten dozu? Katuen begiak, e?

Jauna.— "Eta katu hilbarrien begiak be bai. Eta geroago, begi hotzakaz beste hainbeste esperimentu eta gehiago egiten dabe. Hori jakinik, katu asko ta asko, itsasontzietan polizoi lez ihesi doaz Asia aldera."

Mixi.— A-si-a, A-si-a... nun dago hori?

Txitxi.— Ixilik!!

Jauna.— Huummm!... "Hango lur zabaletara eta tontorretara, babesa eta abaroa bilatu guran, sailean doaz, nasaitasun apurra lortu, eta bizia zaintzeko gordeleku barriak zertzeko asmoz. Inguru haetako sagu ta arratoiak estututen hasi dira."

Txitxi.— Eta txakurrak, ixilik eta geldirik.

Mixi.— Hori ba! Guretarrenalde jagi beharra dozu. Zeu izango zara gure lagun lehena, Txitxi. Katu guztiak ondatuten badabez, txakurrok ez zaree nahikoa izango, sagu eta arratoi guztien kontra ibilteko. Zuok lo astuna daukazue-ta, jan egingo zaitue, jan!

Jauna.— "Katuen begiak euki ezkero, gizonek gauza asko, ilunetan dagozan gauza asko ikusi ahal izango dabe."

Txitxi.— Horrelan jarraituta, gizonak a, txakurraren aztarren-usainmena be, euki gura izango dau.

Mixi.— Gizonak asto galantak dira. Zelako kapritxuak...! Oraindino astuaren garagarrak eta arrantzak be, egin gura izango dabez. Oraingo sauna, masaje eta... relax barriakaz, ez ete dau nahikoa euren narru dindilak?

Jauna.— Zer, zer...? Nun dago sauna relax osoa, katutxua? Hemendik hurrean?

Mixi.— Ez dakit nik. Baina VISA eskuratzen daben señorita masajistak atean atean ei dagoz; dotore jantzita eta usainduta, egon be. Nun, dino berrorek, etxeko jauna, nun? Dirua zarra-zarra euki ezkero etxeko atetatik urten barik be bai. Diruaren soinura...

Jauna.— Txakurrak dantzan.

Txitxi.— Neutral dagoanari, ezin baketan laga?

Mixi.—... gona motxak eta tangak, errez errez lurerra.

Jauna.— Katu honen jakituria!... Baina ba; hau be, emea da-ta. Mundua mundu, ezin inoiz ondu.

V
Lehengoak eta Etxekandrea

Etxeko.— (Sartuaz eta agintari usainez berba eginez) Erdue, patariok!! Hemen dozue zer jana.

(Txitxi eta Mixi, nagiak astindu ostean, beioaz ezkerreko atetik, Etxekandrearen jarrai. Etxejauna bakarrik une batean).

Jauna.— (Zigarro barria isiotuten dau. Barruan, etxekandreak transistorra jarten dau, zarataka, durundutsu).

Hemen da andrea, hemen da zaratea ta iskanbila. Astiro eta patxadaz irakurri ezin. Transistore barritsu horrek gogait eragiten deust. Amurrua emoten deust, amurrua. Pilak erreko al jakoz!!...

(Ahots gorenez irakurrik).

"Petrolioa laster amaituko da mundu guztian. Urte gitxi barru, ez harrikatzik ez petroliorik. Azken istudioak adierazoten dabenez, eta Londresko Batzar Orokor bateko albistak dira, munduaren goiko muturrean, eta beheko muturrean dagozanak, eta Suaren Lurraldekoak, eta Txinakoak eta Ameriketakoak amaitutean... barriro be, gizonak, oinez, zaldiganean eta idiburdietan ibili behar izango dabe.

Ordurako, Ardao alkoholak be, erre egingo dabez. Eta ura be, komunetatik joandako ura barriro be jaso eta hartu, kimikaz garbitu, eta edateko, lapikokoa egiteko edota behintzat jantziak garbitzeko erabiliko dabe." Hori da etorkizuna! Porvenir ganorabakoa...!

Etxeko.— (Agertuaz) Norbait egoala uste izan dot.

Jauna.— Bai ba, neu naz norbait hori.

Etxeko.— Benetan. Oraintsu jakin dot.

Jauna.— Eta nik, oraintsuago. Tira, tira!... Nagoan ixilik. Katuak eta txakurrak be, ba dakiela uste dot.

Etxeko.— Zer dakiela...?

Jauna.— Gu, lehenago lez konpontzen ez gareana.

Etxeko.— Zer, gero? Emakumeak beti amore emon behar ete dau?

Jauna.— Ez, ez!... Horixe ez! Ezta inoiz be. Etxean bakerik izango bada... gizonak ixildu behar dau. Orduan dator... bake-erdia. Eta erdi-bake horretan iraun ehar. Jakina, ba! Beti, ostera, txarragoaren bildur.

Etxeko.— Aspaldion ez dot agerpen maitakorrik ikusi zugan.

Jauna.— Neuk be, ez, berba legunik entzun. Hainbat gitxiago igurtzi konturik.

Etxeko.— Horreek... lehenagoko kontuak dozuz.

Jauna.— Bai. Gizona sarean barruan harrapau arte, amarru, loisintxa eta legunkeria ugari. Geroago... lehengo martxan. Emakumea... etxean baino kalean gustorago.

Etxeko.— Mihin gaiztoa alakoa! Nik i... gauzak erosten baino ez dot urten.

Jauna.— Izango da. Erosi... erosi... beti erosi beharra. Gero be... gizona etxean, andrea auzoan.

Etxeko.— Auzoan, ez. Kalean... dendan! Dendara andrak bakarrik joan behar ete dabe? Gizonak nasai-nasai... jesarrita, irakurten... Tv ikusten, edo...

Jauna.— Bota, bota! Zetan gehiago?

Etxeko.— Buruari atz egiten, berba gordinagorik ez esatearren.

Jauna.— Barriketea balitz gorua... Mokopisteneko alargunagaz marmarmar; edo Zezingogorreneko zeragaz autuan; edo Gitximotzagoneko neskameari mihinetik tiraka, etxe barruko gauzak kontetan ete dituan.

Etxeko.— Kopeta behar da, gero! Entzuteko be...!

VI

Lehengoak eta Titxi eta Mixi

Mixi.— (Agertuaz) Miau, miau, marramiau...!

Txitxi.— (Agertuaz) Guau, guau... iiiiii... guau!!

Jauna.— Horreek al dira "salvas de ordenanza"?

Etxeko.— Patariok behintzat ez dabe esaten zuk aina badaezpadako berbarik.

Jauna.— Hori da ahoa zabaldu beharra! Honeek be, berbetan dakiena, honezkero jakin behar zeunke.

Etxeko.— Edozien modutan be, errespetoko berbak esango dabez. Ostantzean zer dauken ondotxu dakie-ta.

(Txitxik eta Mixik alkarri begiratzen deutse, eta txakurrak keinu egiten deutsa katuari).

Txitxi.— Iiiii... guau!

Mixi.— Miau, miau, marramiau!

Etxeko.— Bai, hor dago atea, kanpora joateko.

Jauna.— Ate hori, guztientzako dago; bai barrurako, bai kanporako.

Etxeko.— Zerbait ahaztu jatsu. Ekarteko be, ekarteko be... egon izan dala. Ni adiskidea, hona, ez nintzan etorri. Ekarri egin nenduen.

Jauna.— Ekarri... zeinek ekarri?

Etxeko.— (Asarre) Zeuk, zeuk eta ez bestek. (Ixilago) Zeuk ekarria naz, eta ez bestek. Ez naz neurez etorria. Zeu ibili zinan nire atze-

tik. Bai, zeu. Emaztea bizirik zeunkanean be, zeu zenbiltzan nire ondorik.

Jauna.— Ajajajai! Oindino gauza biribilagorik be, enztungo dogu. Ai, doktor Goebels, guzurraren gurasoa! Emakume honek, txiki txiki lagako zaitu. Hauxe dozu guzurraren ama!

Txitxi.— Jajajaja... guau!

Mixi.— Ijijijiji... marramiau!

(Etxekandrea bazter batean jesarri eta buruan esku artean, geldi eta ixilik geratuko da).

Jauna.— Ikusten? Txitxi eta Mixi be, interprete ezin hobeak dozuz. (Patariei) Neure alde zagoze, ezta?

Txitxi eta Mixi.— ... (Alkarri begira. Ixilunea).

Jauna.— Bildurragaitik ez ixildu. Arren. Entzun egizue, sekula entzun ez dozuena. Hauxe: etxe honetako jauna, neu nazala.

Mixi.— Bai gauza bakana! (Txitxiri) Etxekandrea dal nagusi... esan gura izango eban. (Etxekandreak aldegingo dau).

Txitxi.— Ixilik, Mixi! Zentzun gitxiko harrokeria esan dozu. Urtenegi eta inprudente azaldu zara. Jauna eta neu gara hemen lehenengokoak. Eta jakina!... agintariak.

(Jaunak hori enztun, Txitxiri buruan zazpi igurtzi egin eta joan doa).

VII
Txitxi eta Mixi

Mixi.— Harriturik nago. Seta gogorra da zuona. Beti arrak nagusi. "Arra... harro". Andankeria itzala, doilorra, iguingarria.

Txitxi.— Ondo dakizu zuk gizonaren lagun zintzoenak zeintzuk diran: zaldia, eta txa-ku-rra. Biok. Katurik eta, emakumerik eta... aitatu be ez. Ezta hurrik emon be!

Mixi.— Katuak, horretara ezkero, andrearen lagun izan behar ete dau?

Txitxi.— Ez dakit. Baina gizonagaitik ez da... katua esaten.

Mixi.— Eta, emakumeagaitik?

Txitxi.— O, o, o! Emakumea beti esaten dabe... katemea dala. Emakumea eta katua, hortxe ei dabil pekatua.

Mixi.— Arrane, arranie...! Ni be, orduan...

Txitxi.— Bete betean. Andrak gizonen atzetik beti. Eta katuak, andren ondoren.

Mixi.— Guzurra esaten zabiz. Emeak zure atzetik ibilten al ziran? Hamaika bidar aitatu izan dozu, uriko eta inguruetako baserri etxeetako txakurremeen bila zeu ibilten zinana. Baina, adiskidea, hori amaitu zan. Zu be, gizonezkoen antzera, sasoi batera ezkero... marrux!!

Txitxi.— Katu barrabana, ziriña, barritsua, su-ondokoa... eta altzozalea. Esatea da: erbiaren ordez... katua!

Mixi.— Handia da zurea! Gura dozun guztia esan, eta geroago, besteren berbarik ezin entzun. A zelako demokrazia! Txakurkrazia ete da, ba?

Txitxi.— Aspertu naz zugaz, orain behineon. Eta kalera noa. Kalean gu, jaunak lez ibilten gara, nasai, patxadaz. Zuok, katu mielgok, beti alde guztietara begira, lotsaz, bildurrez... edozein umek ikaratuten zaitue, eta hor zoaze ihesi, arinak arin, katuzuloren batetik sartu beharrez. Edonora sartzeko be, prest. Sagu ikaratia lez. Gu, jaunak lakoak gara.

Mixi.— (Erreta) Ba dira txakur gonazaleak be... fal-de-ros... gonarteko eta iztarrarteko txakur mengelak. Baina txakurrak; ez katuak.

Txitxi.— Ba noia. Bestela neu be, emetu egingo naz. Ka-tu-tu... ka-tu-tu.

Mixi.— Zera adierazoko deutsut. "Katuenak"... inoiz enztun al dozu? Txakurrenak esatea, barriz!... Txakurrenak... txakurkeriak...

Txitxi.— Ixildu zaitez behin. Bestela toilanak hartu behar izango dozuz. Guau, guau! Arra beti ar, gazte nahiz zahar.

Mixi.— bai, e? Txakurreme gazteak txakur zaharrari... dar-dar! Baina... gauzatxu bat belarrira: alkarregaz bizi behar badogu, zetarako honenbeste erremuskada gure artean?

Txitxi.— Ai, katu diplomatikua! Gura dozunean, erpeak gorde gorde, guante barruan. Ez zara txatxua, geure katutxua.

Mixi.— Zeu be, ez hain kaixkarra, gure txakur zaharra.

Txitxi.— Orduan, adiskide, katu barrabana?

Mixi.— Ohea eta jana, biok erdibana.

ZAPIA

BOLETÍN INFORMATIVO DE LA REVISTA FINANCIERA DEL BANCO DE VIZCAYA (BIBV)

PETER ETXEBERRIA EUSKALERRIAN EGON DA UDABARRIAN*

NEVADAKO SENADORE IZANIKOA

Bere bizi osoan izan dauan amesa, oraintsu bete dau.

Peter Etxeberria ta Sarasketa, lau urtean Nevadako senadore izan zana, gurasoen Euskalerri zaarrean egon da, lenengoz bere bizian.

Peter demokrata alderdikoa da, eta errizale jatorrak oi dauan lez, oraingo ango senadorea danaren gorapenak egin deuskuz. Ba dogu orretan zer ikasirik, europear arnasapean bizi gareanok.

Etxeberriaren aita lekeitiarra izan zan. Eta ama, oraindiño bizirik, Apatakoa da. Biak zirean ba bizkaitarrak eta euskaldun utsak.

Orregaitik, semea Idahoko Shoshonnen jaio izan arren eta beti Ameriketan bizi, Peter zintzoa, euskalduna da, eta euskaldun izateko «chance» —aukerarik— ez dau bein be itxi. Ingeles eta gaztelaniaz jakiteak be, ez deutso kalterik egin.

Gaztetan, eta oraindiño be gazte egiña dago ta, ainbat sailletan ekin eutsan Peter–ek lan eta lan, arik eta legegizon egin arte. Azkenengo gerra denporan amaika neke jasan eban, alde batean eta bestean odol–arteko burruka gogorretan.

Baiña aren berbak gureak baiño ziurragoak eta gozoagoak izango direalako, areri entzunikoak agertuko ditugu.

LEKEITIO, POLITA BENETAN

Eguno ikusi ez eban Lekeitio, ain polita zanik nok adierazo ete eutsan, itandu deutsagu.

—Nok esan? Aita gureak beste kantarik ez ekian. Zera, argituko deutsut. An, ni gaztetxua nintzala, eroan ninduan behin aitak, itsasoa lenengoz ikusi nengian Pazifiku andiaren egalera. Alako itsas ikusgarria, ondartza luzeak eta abar ikustean, arrituta esan neutsan nik:

---

* *BIBV*, 9, 1965.

—Aitta! Au bai itsasoa! Oneik bai ondartza alaiak, plai ederrak!

Baiña bai aita gureak laster arin erantzun be:

—Bai, seme; egia diñok. Ondartza jasekoak dituk. Baiña Lekeitioko ondartzak lako ederrak…

—Ta, aitta; mendi oneik be, ain ederrak eta ezeak, landara ta zugatzez beteak!

—Ez diñok guzurrik, txotxo. Baiña ango, Lekeitioko mendiak gero, oneik baizen ederrak ba dituk, orraitiñoko!

—Eta orain, aita zuzen egoala deritxazu, ezta?

—Bai orixe!

Eta izan be, an Gernikatik Lekeitiora bidean, Otoioren egaleko Urkitzera eldu zireanean, «burdia» bide–ondoan geratu, eta Peter Etxeberriaren begiei negar–tanta samurrak erion eutsezan.

Luzaroan ikusguraz egoan Lekeitio politzakoa, bere begien aurrean eukan.

Etxeberria entzutetsu egin da kaialde aretan. Eta Antzoriz edo Santa Kataliñara oiñez joan zanean, edota Lumentxa, Kalbario mendira, aren ingurubiran begira egokiozanak ez zirean bi ta iru, asko baiño.

Antxe ikusi dau bere leku–lekuan, arako «Aittitta Mokordo» atx txiker ta ospatsua be, Izuntza ondartzan, kaiaren ta errekearen bitartean.

NUN DAGOZ ETXEAK UTSIK?

Etxeberriak auxe abertidu dau, ango ta emengo bizikereaz. Zera, erriak, etxeak, etxeetako lagunak, an Ameriketan zearo aldatu oi direala. Ango erritxuak urte laburren buruan, guztiz aldatu oi dituela, leenago ekianak ez ezagutzeko bestean egin be.

Emen ostera, Euskalerrian, erriak leingo antza ta taiua dauke geienbat. Etxeak eurak be, aspaldiko arpegia ta itxurea. Eta norbaiten billa asi ezkero, ain erritan eta ain lekutan aurkitzeko aukera zuzena izaten dala. Emengo etxeak, ateak zabalik dagoz, datorrena artzeko prest eta gertu.

Ameriketan, barriz, etxeak utsik egon oi dira. Etxekoak, ara ta ona, batera ta bestera, etxean egoteko astirik be barik.

Ainbat bisita eta agerraldi egin bear izan ditu gure lurraldean, eta atean otsegin, olesegin, eta beti edo geienetan aurkitu izan ditu ateak zabalik, adeitsu ta txeraz.

—Emen errez da iñor topautea —dirausku Peter–ek—. Eta oso pozgarri izan yat orixe.

Txit arrituta gertau da bere experientzi barri onegaz.

EUSKALDUNAK USA LATERRIETAN

Ango ta emengo erriak goratu deuskuz Etxeberria jaunak, bere berbeta gozo ta leunean. Alako zera egiten deusku barruan, euskaldunak beste alderdi bateko esaera ta doiñu bare ta artatsuz entzutean.

—Euskaldunak zein mailla edo neurritan daukez USA aldean?

—Ango Estadu batzuetan, batez be, Nevadan, Boisen, Utah–n, Oregon–en ta Arizonan, euskaldunak ezagunean eta jasean ekin izan deutse. Ondo dakie ori amerikanuak eurek be. Orregaitik, gure Nevadan, liburuetan daukaguz euskaldunen lanak, nekeak eta merituak, egoki ta argiro izentaurik.

—Euskaldun artzaiñak batez be, ezta?

—Esango deutsut. Izango dozu Winnemuka izenaren entzutea. Izen eder orrek, ango indioak eta gizon zuriak izan zituen azken–burruken gomuta gogoangarria adierazoten deusku. Orduan, euskaldunak an ebizan artzain.

—Gizon portau zirean, orrezkero, euskaldunak orduan be, ezta?

—Bai. Eta orregaitik, ameriketarrengandik maitatuak izan dira euskaldunak.

—Eta gaurko munduan be, ba ete dabe oindiño euskaldunak zer–egiñik?

—Orixe bai. Munduari lenengo bira egin eutsana euskalduna izan zan, Elkano. Ta zorionez gaur be, euskaldunok gure izakereaz, gure gogoaz ta gure lanez ta beste zer guztiekaz, odol batekoak gareala erakutsirik, enparauko beste erri guztiei eskeiñi giñeioez gure asmo ta gurari onak. Orrelan alkar onarturik, guztiok nai gendukean bakea lortu dagigun.

—Ango euskaldunak aaztu egin ete dira euren jatorriaz?

—Bai zera! Aek pozik artuko leukiez emengoen arnasea ta argitasuna. Emengo liburu, paper, aldizkari, disku, soiñu ta ganerako gauza asko, kulturaz ta bizi–indarrez beteak izan ezkero.

—Bake–bideok, zeintzuk dira, ostera?

—Lein be esan deutsut. Guztiok alkarren ona aurkitu gura izatea. Eta orrelan, baltzak eta zuriak, txiki ta aundiak, danok anaitasun

ederrean lagundu giñeio lagun urkoari. Jakiña, bakotxaren izakerea galdu barik, eta guztion gain dagoan Jaungoikoaren legepean.

RENOKO EUSKAL–JAIA 1959 GN.

Gure berbetea polito ikasi dozu, baiña emengo gauza askoren barri ez zenduan izango leenago, ezta?

—Ori diñozu? Berbarako, aizkorea zer zan ondo nekian nik, erabilten aitak txikitatik irakatsi eustalako. Aizkolariak zer zirean, barriz, ez nekian, egia esan.

—Eta zelan atondu zenduan ba, 1959 gn. urteko RENO–ko Euskal–Jaia?

—Guk gazteok, ez genkian zer aundirik. Baiña alkar poztuaz–eta, asi giñean zaarragoeri itaunka ta galdez. Orrelan sekulako euskal–jaia atondu al izan genduan. Nik neuk —zelan esango deutsut—, alako 600 euskaldun inguru edo batzanduko ete giñean uste izan neban lenengotan. Baiña, mutillak! Amar bidar geiago batu giñan, 6.000 euskaldun giño.

—Eta zeu guztien buru.

—Ba, senadore nintzalako izango zan ori. Bizkaiko seme argi bi egon zirean orduan gugaz; bata, Jose Maria Areilza, bilbotarra bera, orduan Espaiñiako enbajadore zana an USA–n, ta bestea Kastor Uriarte gernikarra, Euskaltzaindiaren izena lenengo guregana agertu euskuna.

—Alako Euskal–jairik ez da iñoiz Euskalerritik kanpo ospatu.

—Eskerrik asko.

—Orrelakoak sarritan egin bear zendukiez.

—Ezta txarto esana. Oraiñarte be, euskaldunak, aldi laburrean gauza andiak egin ditue. Eta —au, irribarreka esan euskun— nigaitik be, orixe esan daroa gure andreak; zera, txarto ala zuzen, baiña egingo dodana, zirt–zart laster egingo dodala nik. Olantxe ebagi neban ezkerreko eskuko neure atzamarrik luziena…

GURE BANKUAREN ENTZUTEA

Bere azken berbetan, gogaro ona ta umore alaia agertu deusku Etxeberria, senadore izandako euskaldun jator ta txeratsuak.

—Emen, e, ba nekian nik abadeak eta nagusi zireana. Baiña nik ikusten dodanez, Bankuak be, indar aundia dauke Euskalerrian; eragiña ta esku sendoa.

Barre karkaixa itzelak egin genduzan ori entzutean.

—Ameriketako euskaldunentzat egiten dogun Boletin euskaldunaren oraintsurengo zenbakia auxe dozu, 8–garrena. Artu nai al zenduke aurrerantzean?

—Bai, pozarren be. Ez dot nik jakin be egin, zuen Boletin euskaldun orren barri. Gauza polita egiten dozue, eta idatzi egizu, mesedez nire bizilekuaren zera ba. Auxe dozu nirea: Box 458, RENO, Nevada.

—Ango ezagunei be adierazoko deutsezu ezta?

—Zer esan bakoa. Ain zuzen be, birritan yat pozgarri, eta esango deutsut zegaitik. Nik, lein be, izan ditut artu–emonak zuen BANCO DE VIZCAYA–gaz. Orain urte batzuk direala, an Ameriketan il zan baten ondasunak banandu bear nituan emen, eta abogau lez egin neban lan ori, zuen Bankuaren bidez egin neban. Orra ba…!

—Ikusi al dozu orain egiten diardugun etxebarri aundi ta luzea, BANCO DE VIZCAYA–ren etxe nagusia izan dedin, ta ain zuzen leingo tokian bertan?

—Bai, konturatu naiz, ta esan deustenez, Bilboko etxerik garaiena izango ei da, orain beiñeon. «Zeru–auzoa» izango da, angoen antzekoa.

—Barriro zatozaneko, amaiturik egotea baleiteke. Baiña, dana dala, antxe alkar ikusi dagigula.

—Jaungoikoak entzungo al deutsu.

—Agur, Etxeberria jauna, ta zoiaz ondo! —gure gurasoak esan oi eben lez.

Erkiaga

PARISKO SORBONNEKOA*

Armand Minard irakaslea, Lekeition euskeraz ikasten

Euskaldunak, euren berbeteaz ain itxi ta ain zabar agertzen direan ordu onetan, beste Europar jakintsu bat, Euskerearen ederrak birloratu dau, eta beste gizon argi askoren antzera, dakizan izkuntza guztiak jakin arren, gure Euskera zarrak bere maite–sareetan arrapau dau.

Parisko La Sorbonne irakastoki entzutetsuan, indologo azkarra dogu Mr. Armand Minard, irakasle jatorra aspaldiko urteetan. Gizon apal eta ikastuna, or dabil ibili, gure erriko kale, bide ta ondartzetan.

Egunero ikusi daroe batzuk bidez–bide Gerrikaetxebarria jaunagaz etenbako autu luze ta sakonetan, batean, gaztelaniaz, urrengoan, frantses eta orain, baita euskeraz be, geroago ta ugariago.

Errenderiko seme dan euskalari goren batek adierazo euskun:

—Aizu, or, Lekeitio aldean, Pariseko indologo irakaslea daukazue. Laguntasuna nai luke, eta, nola ukatu?…

Eta andik lasterrera, abiau giñean Minard jaunaren billa.

Aren itzak jakingarriago diran ezkero, berbaldi bateko gorabeerak azalduko ditugu emen.

—Minard jauna, eta Frantzeko Eskual–herria, ezagutzen al dozu?

—Ez ba. Ez naiz iñoiz egon, an geldirik beintzat. Zearrean noala bakarrik ikusi dot.

—Eta, emengo Euskalerria, noiztik ezagutzen dozu?

—Esango deutsut: orain amabi urte zapaldu neban lenegoz Lekeitio. Nire emaztea, lau seme–alabok eta neure burua etorri giñean orduan. Eta baita arrezkero beste bost urtetan be. Geroago zazpi urtetan, orraitio, beste erri batzuetara joan izan gara gure udaldia emoten: Italiara, Austriara, Alemaniara, Frantziako beste alderdi batzuetara. Eta aurten… Parisen gengozala, etxera bertara eldu yakun zabalkundeko paper bat, eta Lekeition etxe barriak egin zituela, ain zuzen Kurlutxu ganean, Karrazpiora begira, adierazoten euskuen, eta salgei egozala. Orduan berpiztu yakun erritxu polit ona barriro etorteko su–garra.

---

* *BIBV*, 15, 1966.

—Zer yatzu atsegin Euskalerrian…

—Itsasoa, ondartzak, mendiak, izadia, zugatzak, aroa… Eta erria ta erritarrak, zetan esan be ez. Itsasoa maite dot igari egiten zale–zalea naizelako. Aro onean, islatik Labaganera bitartean dagoan lekua, igarian egiten dot, 500–600 besokada egiñak, eguzkia dagoanean eta itsaso ona.

—Erritarrak atsegin yatzuzala esan deustazu.

—Bai, erritxu onetan gizaseme ta gizalabak begiko yataz benetan. Alako demokrazia jatorra susmetan dot nik emen. Ez dago batzuen eta bestean artean, alako diferentzi nabarmenik. Guztiak ikusten ditut alkarrekin berbetan eta artu–emonetan. Eta umeak ugari, eta ondo zainduta. Eta gazteak, eta baita zaarrak be, jente alaia; pozez beterik bizi dan erria, erri zindoa zuen Lekeitio.

—Eta, zer ez yatzu atsegin?

—Oh…! Ez dakit.

—Zerbait, orraitio?

—Gabaz, goizetik afaldu eta ikasi eta lo egitea gustetan yat. Or, Parke inguruko altabozak, ordu orreitan zarata lar egiten dabela edo… iñoiz goizaldeko ordu biak arte eta…

—Zeintzuk dituzu lanbideak eta ikasteak?

—Aspaldi, Pariseko La Sorbonne–Lettres alderdian nago irakasle. Aintziñeko indio izkuntzea da nik irakasten dodana; zera, Sanskrit.

—Izkuntza mordoaren jabe izango zara, kontixu?

—Indoeuropear izkuntza geienak ezagutzen ditut.

—Zeintzuk eta zeinbat?

—Goiko berbetan erantzunik geratu da.

—Noiz asi zara euskeraz ikasten? Eta nun?

—Aurten, eta emen, Lekeition. Urte batzuk leenago izan neban alako gogotxua, baiña oraingoa izan da benetako garra ta gogo betea.

—Euskereari buruz, zure eretxia agertuko al deustazu, Minard jauna? Zein izkuntzaren antza dau Euskereak?

—Ez, ez dauka besteren antzik; berezia da, apartekoa. Indoeuropear izkuntzetaz kanpo, ba dira hungaroen izkera eta kaukasotar berbetak. Baiña euskerak, kaukasotar orrein zerbait usain izan arren, antzik ez dau. Beste zerbait da. Beste sendi edo suster bateko izkuntzak ikasi bearra susmauten dogu izkuntzalariok, eta ni be, orregaitik asi naiz euskera ikasten, aparteko izkuntzea dalako.

—Orduan, jakingarria ta interes aundikoa dogu euskerea?

—Bai, jauna. Euskera ezagutzeko ta jakiteko bearrizana ta premiñea filologoak argi ta garbi ikusi dabe, arako austriar Hugo Schuchardt argiak dudarik baga agertu ebanetik.

—Zer egin leiteke euskerearen alde, galdu ez daitean?

—Argi dago ori: eskolak, eskolak eta eskolak, euskera ikasteko ta irakasteko ta jasoteko.

—Eta len esandakoetaz ganera, Lekeitio zergaitik gustetan yatzu?

—Gauza bat esango deutsut: Kantabriku itsasalde osoan dan erririk politena dalako, nire eretxiz. Ez dakizu zein zoragarria dan, an, goizetan, gure etxeko balkoitik, udan, eguzkia urteten ikustea. Ez dakit geiago zergaitik, baiña ementxe erosi dogu etxebizitzea Karrazpio ganean, Kurlutxu tontorrean. Eta urtero, Jaungoikoa lagun, onaxe etorteko asmoa dogula esatea naikoa dozu.

Eta frantses irakaslearen emazte onak, —au be, irakaslea da— laster arin geitu deust:

—Emen il ba naite, ementxe lur emotea nai neuke.

Geroago, euskaldun baserritar bat egon da aoa zabalik, Minard jaunak, euskeraz irakurten jardun dauan bitartean.

—Kontxo! Ni euskalduna nok, jaiotzetik; baiña ezin yuat nik orrelan euskeraz irakurri.

Ikasbide ederra, erbesteko gizon jakitunena.

E. ERKIAGA

EUSKAL–DANTZA BARRIAK*

Erriak, gizonak egindakoak eta ornidutakoak direanez, ezin legie beti bardiñean eta zaarrean iraun. Gogoa, gure ustez, aldakorra izan ezarren (eta ezta orrelan oso–osoan), ganetiko gauzak barriraztu eta aldatu egin oi dira.

Alantxe, gure Erriaren oiturak be, azal–zeretan beste irudi ta arpegia erakusten deuskue.

Nok ez daki, gure baserri zaarretan, bizi–era barria, beste bizimodu bat aukeratu eta atondu ezik, utsik geratuko direana?

Ez dabe oraingoak leengoen lako egonarririk. Txiruak eta bertsuak izatea, gaur dan egunean baiño nasaiago artzen zan leenago. Orain, bizimodu ta bizikerak, ugariagoak, orniduagoak eskatzen ditue gazteak.

Eta gazteak baserrietatik igesi doaz, eta basetxeak utsik geratzeko arriskuan dagoz.

* * *

Euskal–dantzak be, beti leenean lo egon barik, barriraztu eta beste batzuk sortzea egoki zala, uste izan eben gure arteko gazteak.

Eta, zegaitik ez ba?

Iñor ba ete dabil, gu gazte giñean lez, brus luze eta abarkak jantzita? Oraingo gazteak, ba ete darabillez, gure amumak eta izekuak lez, buruko zapi txoridunak?

Ez. Gaur egunean, baserrietan eta beartsuen artean be, neskatillak denda aundietan eta magazinetan agertzen dituen soiñeko arin eta astun, dotore ala barregarriz jantzita ikusi daroaguz. Eta zegaitik ez, ba?

* * *

Urte Barri onen irugarren domekan, jai polita ikusi izan dogu emen Bilbon. Goizeko jaia izan be, frantsesek esan oi dabenez, matinal dalakoa.

---

* *BIBV*, 17, 1967.

Buenos Aires antzokian izan zan jaialdi ori. Zera, euskal–dantza barriak agertzea.

Aurretiaz, gizon argi ta jakitunak ikusi ta ikasi izan ditue, konkurtsura agerturiko jantzakerak. Bederatzi dantza modu erakutsi zituen baiña aztertzailleak bost bakarrik aukeratu ditue sarigarri. Bost orreetarik, lau agertu zituen Buenos Aires areto aundian.

Areto ori, saloi ori, gonburu egoan, ganezka, sarrera guztiak amaituta. Egia da, Bizkai Aurrezki–kutxeak emon izan dauana laguntasun osoa, jai ori eta konkurtsu ori egoki ta aundiro ospatzeko.

* * *

Lenengo saria artu dauan dantza barria, Oñatibia Jon–ek sortu izan dau. Dantza orren izena «Donibane» da. Izan be, zeiñek ez daki euskaldun oitura ta sineskerien artean, Doniane suak eta dantzak direana? Beste errialde batzuetan, uda–elduerako jaiak oi dira, eta emen Done orren izenpean, santu aundi orren gerizera izan oi ditugu.

Oñatibia azkarrak dantza ori ondo jantzita eta biribilduta emon deusku. Ez da orraitio, dantzea soillik. Txistularietaz gan, kantari talde ederra eskatzen dau dantza orrek. Eta orrelan, alako batasun eder ta gozagarrian ikusi–entzun egin bear da. Koruak abesti bero ta zoragarria abestu daroa, katalan doiñuaz eta «Orixe» gurearen berbakaz osotua.

Gazteak, San Juan suaren inguru batu dira; mutillak, igitaiak ditue eskuetan; orrelantxe bedar txarrak ebagi–ala, sutara jaurtiko ditue eta neskatilla ederrak, arbazta edo adartxuak eskuetan, bedarrok batzen laguntzeko. Suaren inguru zabalean diardue batzuetan dantza–dantzari; beste batzuetan, bedar–metatxuak ditue dantza ardatz. Soiñu–oinketea, konpasa azkar samarra da, eta dantzariak, bizkor ibilli bear. Alan be, kantari–aldreak erretureak baiño su andiagoa emoten deutsa gure gogoari, gure biotzari, ain zuzen dantza orren berbetea euskeraz dalako.

Txalogarri Oñatibiaren lana. Soillik, plazan egiteko baiño teatruan egiteko, aukerakoagoa izan leitekela.

Oiñarriak, ostera, emon deuskuz, eta aurrerantzean dantza barriak, onelan edo orrelan, eurrez sortu ta asmauko ditue gure gazteak.

Oiarzuar abeslariak guztiz bete ta bateratu jardun eben. Ezin aztu gure erriak soiñuarenganako dauan joera ta zaletasuna. Bear bada,

bertsolariak izan ezik, bati bakarrik entzun baiño, askoren kantak entzutea, atsegiñago edo yako.

Dantza onetan dagozan konpas aldaketak, ba dabe euren zera; baiña leen be, ba ditugu; esaterako ezpatadantzarien Banakoan dagoz naastau edo amalgama konpas orreek. Zegaitik ez dantzariak su–ganetik saltoka jardun?

* * *

Bigarren agertu ebena, «Berriotxoaren dantzea» izan zan.

Bergarar anai bik asmau ta eratu daben dantza atsegiña, au be. Bederatzi lagun dira naikoa, bederatzi gizonezko dantza au gertetako. Arako «Zeruan dago Balentin» gure zaarrak esan oi ebena agertzen deusku jantza barri orrek.

Elorrioko seme dontsua, euskaldun apala, Txiñako Tonkiñeraiño joan zan beiñola, angoei Kristoren sinispidea eskeintzearren. Eta azi ona erein–ala ziardunean, ango batzuek kontra jarri yakozan, eta eriotza–zigorra ezarri eutsen.

Eta or datoz zortzi txiñatar ango sedazko jantziz apainduta. Eskuetan, ostera, sastakai bana dakarre. Orrelan eriotzara bidean jarriko gure ziñopea, Elorrioko martiria.

Guztiak diardue dantza azkarrean. Dantza orretan, atertu bako ekiñalean jardungo dau Balentiñek be. Azkenean, guztiak sastakaien bidez ilten dabe. Ta guenez, palma urretsua eskuan, gorantz doa Balentin gurea, ingurukoak lurreratzen direan giñoan.

Gustagarria dantza au be. Bizkai–Gipuzkoetan sarri bai sarri ikusi al izango doguna, ziñez.

Zorion, Etxaniz Anaiai.

* * *

Irugarren sarigarriak, beste dantza bi izan zirean: Bilboko J. L. Orbeak gertaua, eta bestea, Bituriako Askasok eratua.

«Udabarri dantza» ori erreza da, eta neskatillak eta mutillak, askoren artean, dantza–lagunak aukeratzen ditue. Eta azkenenan guztiak ekiten deutse. Bear bada, bizkorrago izango litzateke, aukeratu–alean dantzeari ekingo baleutse; eta urrengorik urrengo, barriak be dantzarien obora agertu.

«Azkenean neskamutillak pozik» orrelako izen luzeaz agertu deuskun dantzea, oso polita da. Gazteak alkarrengako gogoz dagoz plazan. Baiña, nortzuk amor–emongo? Mutillak arro dabiz. Baita neskatillak be, eldukatx. Alako batean, alkartzera egiten dabe, baiña gonadunak, ezetz eta destaiñak egiten deutsez. Eta orduan, bakotxa bere taldekoak asten dira dantzari. Orraitio, gauzak euren zerera bear, eta orra! Bai neska ta bai mutil, guztiak ondo konpontzen dira eta, guztiak pozik. Gatza ezarri deutsa Askasok irrada oneri. Aurtengo udan an or emen ikusiko dogu, ziur asko, dantza barri au.

Orrezaz ganera, antxiñako soiñu–erremintea ezagutzeko aukerea be izan genduan: «Ez dok amairu» taldeko Artza anaiak «txalaparta» ospatsua erakutsi euskuen. Ol bi dira, burdiña–parrilla ganean. Iñoiz entzun al dozu, irakurle, olezko soiñurik? Orixe da, txalaparta ori.

Alboka, panderu, auspo–soiñu eta trikitixa be, agertu euskuezan.

Aurrera, dantza–barri asmatzailleak. Biotzean gogoa bizirik dagoan artean, Euskalerri zaarra ezin leiteke il.

ERKI

ELEDER SAILA*

Illargian ere euskera

Ona emen, liburu eginbarriaren izena.

«Munitibar» gure lankideak, beste liburu bat argitara dau. Oraiñarte egin dituan liburuetan, antziñako jazoerak eta ixtori–gaiak erabili izan ditu geienbat.

Oraingoan, ostera, Jose Luis Muñoyerro–k, etorkizunari buruzkoa ta jakintza–gaiez orniduriko liburua emon deusku.

Liburu barri au, gunean, asmakizunean zolia ta zorrotza da. Eta esaeretan polito josia.

Asmoa ta luze–laburra ta jantzia bere bai, erderazko atalean, «Munitibar»–ek berak egin izan dau, jakiña. Orraitio, liburu bakan ori, erderaz eta euskeraz argitara dau, ta bigarren arlo orretarako, Maria Dolores Agirre–ren laguntasuna izan dau. Eta andereño onek euskera giputzean polito jantzi dau liburu ori. Joskera bizi ta jatorrez jantzi be, ta izkera eder ta ugariz atondu.

* * *

Liburu bakana esan dogu gorago, eta olantxe da. Gaiez eta egitamuz. Izan be, liburu oso onek zati bi ditu. Alde batetik irakurten asi ezkero, guztia dago euskeraz. Eta liburua beste aldetik asi ezkero, barriz, gaztelaniaz, au da, Cervantes–en izkeraz. Orretara, izkera bata dakienak eta bestea ez, batera ala bestera irakurri izango dabe. Eta izkuntza–ikasleentzat erreminta barria izan leiteke, osotara eta aundi–maundi, orraitiño itzez–itz itzulia dagoanik ez dirudi–ta.

* * *

Ipuin barri orren asierea Bilbon eta Gipuzkoan oiñarriturik dago.

Amerikanu dirutsu ta isil–jokoan diarduana agertu da Euskalerrira. Gazte euskaldunen bila dator. Bilboko ta Donostiako mutil ezpatadantzariak batzen ditu beragana. Zertarako ete da?

Orra ba! Iretargira joan leiteken tramankulu luze bat, orixe egin bear da, ango metal eta miñeralak artzeko eta orretarako, euskaldun mutillak, euskera dakienak esan gura da, batzandu gura ditu, mun-

---

* *BIBV*, 23, 1968.

duan izkera zaarrenetarikoa danez, emengoak eta beste iñok ez dakialako berbeta antziñeko ori.

Eragozpenak be badira, ostera. Beste aldra bat dabil euskaldun mutillen joakera ori eragotzi ta galerazo guran. Eurek joan gura dabe, euskaldunak baiño leenago.

Baiña… Iretargira eltze–orduan beste mundu batetik joaniko gizonak aurkitzen ditue, eta euskeraz ikasten diarduenak… eta euskaldun–dantzak zeiñek obeto egin be, alkarren leian jarri nai dituenak.

Orra or, labur esanik, liburu barri onen guna. Gai orrezaz ez da euskeraz oraiñarte ezer agertu izan.

Idaho–ko eta Reno–ko Unibertsidadeetan aurki legie liburu ori USA–koak.

* * *

Irakurleak atsegiñez irakurriko dabe Muñoyerro–ren emoi pitxi au.

Eta alegin asmutsua ta bakana egin deutso euskereari, sendatu ta zabaldu dedin. Gaurkotasun gordiñeko arauez ta mamiñez gertu deusku jakintza ta irudiketako nobelatxu ori. Ezin legi iñok esan euskeraz gai barririk agertzen ez danik.

Gure atsegin–agurra «Munitibar» gure lankide maiteari egin deuskun bezuza ta erregalu polit orregaitik. Eta baita gure txalorik beroenak be. Beste ainbeste M. D. Agirre andereñoari liburuari egin deutsan jantzi euskaldun dotoreagaitik.

Bai batak eta bai besteak eskeintza geiago egin bekioez izkera zaar oneri, jakintza ta lanketa bideetan abiau dedin.

E. E.

EUSEBIO ERKIAGA–REN EMOKETA, EUSKALTZAINDIARI*

Aldizkari honen sail osoak 28 zenbaki ditu, haunditasunez ezbardinekoak, biblia paperean, jatorrak, noizean behin, epe jakin bage, argitaratu ziranak. Agerturiko lanik gehienak, euskerara itzuli edo orrazketak egin edo zeharo idatzi, neuk egin nebazan, eta honelan aldizkari honek, bizkai euskalkian halako batasun antzekoa izan egian. Beste euskalkietako zerbait be, agertu zan. Duban banandu eta bialdu izan zan, batez be Ipar Ameriketara (USA), ameriketako beste erresuma batzuetara eta Australiara. Lankide lez nahikoa garrantzi izan eban Santos Rekalde jaunak, orduan Idaho–ko euskaldunen kapellau izan zanak; Bizkaiko herritxuetako abadeak be lagun izan genduzan aldizkaria horniduteko.

Aldizkaria, inprentaz jantzi ostean, gaztelaniara itzuli ohi neban esaldiz esaldi, zentzurara bialtzea; hain zuzen, banku baten agerpena zalako, zentsura hori Banco de España–k egin euskun, aldioro.

Aldizkariaren zuzpertzaile nagusia Tomas Bordegarai izan zan, aldi haretan Banco de Vizcaya–ko Consejero Delegado izanik.

Aldizkaria hasi ta amaitu, Ellakuria inprentan egin zan, Bilbon, Buenos Aires ta Villarias kalertzeen barrenean.

Kolezino hau zelan–halan osotu ahal izan dot, nik neukazan banakoetaz baliaturik; honelan batzuk jatorrak dira, papel bibliako zenbaki jatorrak. Beste zenbaki batzuk xerokopiaz hornidu ditut, batez be, lehenbiziko zenbakiak, 20 garreneraino. Hortik gorako zenbaki batzuk ba egozan. Egin ziran zenbakiak gordeteko ardurarik inork ez eban hartu sasoia zanean, behintzat honenbesteko bat, bakotxetik. Bankuko Produzino Sailekoek —horren gerizan joian aldizkariaren kontrola eta banaketa— harrezkero eta behin ta barriro adierazo izan dabe agertu ziran zenbakiak ez ebezela gorde; artxiborako besterik ezean, dinot nik. Horrelan izango da, baina negargarria.

Atsegin izango litzakit, zera, hainbat urtean egin neban lana, Bankuko neure lan egunerokoaz bereiz eginiko iharduna —Bankuan 1936 otsailetik 1977 irailerarte, orduan zahar–saripe jarri ninduen—

---

* Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka, *Argitaratubakoa, 1988*.

arduraz zaindua izan dadila eta urteetan zehar gure euskerearen ikasle ta ikertzaileek gaia izan dagiela.

Honen antzeko txorta lardaskatua —zenbaki jatorrak eta xerokopiaz berratuak— Bilboko Labayru Ikastegiari emon deutsat.

Bilbon, 1988 ekainaren 21
(Eusebio Erkiaga)

EUSKAL LITERATURA

IPARAGIRRE'KIN SOLASIAN*

Adi ezazu, aspaldiko bertsolari hazkar horrek, ¿noiz agerrarazi behar othe deraukute gure edestilariek zure bizitzako izkutu, gorabehera eta zehetasunak oro?

Zure ibiltaldi batzuen berri ukhan dugu orainguok; halabainan — eta itxaropidea galtzeke—, zure urhatsen lerrokada ugaria, xorta usaintsu bat eginik, gure eskuetaratzeko gogo biziz gagoz.

Mende huntako iragan urtheetan, euskaldunok zutazko axol handirik gabe ari izan garena, egia da. Eta ez zutaz soilik, beste euskaldun ospatsu eta entzutetsuak ere, zokho ilhunera egotzi, eta bapo bizi izan gara. Hor dituzu, behintzat, zure pare ukhan ditugunak: harako Zumalakarregi handia, hunako Unamuno ekhurugaitza, eta bertze anhitz gehiago.

Bainan munduko hauziorrazi eta itxulasketak! Gizaldi batek baztertu daroana, urrenak zuzpertu eta iaso ohi du; eta atzoko arteznahi ta garbizale tinkoen geroztikakoak, egun, gaien soiltasunari eta ametsen lilura gustagarriari iaramon egin hanbatean, egokitasunaren eta errastasunaren ondoren ari dira.

Hunelatan, euskaldun izan zinan arren, Iparragirre aspaldiko hori, norbaitzuen gogo betheko izan ezpaizinan, pizkunde–saileko mugaz kanpora utziak izan zinatenok, gure barrutiratzea dagokio oraingo gizaldiari.

Euskararen oboan ere, zaharberrizketan ari dira oraiko euskalzale gazteak, eta haueik ere, zio eta zenbait baitute, ezta bidezko, nik uste, geihagoko gabe, eztenkatzea eta erruki gabe larrutzea (batez ere erdalmintzoz). Esate baterako, guk orain darabilzkigun letrak euskaldunak ezpaitira, ez othe datorkio gure mintzairari errezpide tipi xumea bederik, erre eta elle gangurdunen ordez, *rr* eta *ll* erabiltzetik? Hortik eztugu ezer ez euskarago, ez eta ezago ere. Errazago, bai noski.

Bainan, Iparragirre zaldunaz dugu aldi. Bai, ene koblakari hori! Gure begien aintzinean ibiltan arlote bat baizinan agertu izan zaitue. Ehun urthe iragan berri dira zure kanta maitagarri eta bikain hura oihuztatu zenuela. Zuloz ornitua dugu gure adimena zure iduria, zure

---

* *Gernika*, 24, 1953.

egitada eta ioan–ethorri guztieri buruz. Hots, ordea! Egun hauietan edozein iakintza–gaiez zure aldikoek baino areago iakin behar baldin ba dugu, gure bihotzetan, tamalez, zurean zegoen pindar eta ilentien berorik eztugu mende erdizoro huntakuok.

Zure kitarra zahartto horren mehetatik irten zinkhuria eta intziriak arte edo edertipean aztertuki, bikainkiro eta maila gailenen iabe egitea erdietsiko eluketen arren, ba duzu, alegia, kantu eder bat, oihu zoli bat, heiagora bihozkor eta zuzpergarri bat, aldizkari atsegin hunen irakurleak oro untsa dakitena: "Gernikako arbola".

Eta lirika sailean olerki eta poema iaio soil baten egilea, bethiereko ereinoz koroiztatua ba daiteke, zu, giputz bertsulari gartsu hori, zure Herriaren oroimenean eta maitetasunean ahantzi ezina beharko zaitugu. Atzerrian ibiliz geroz, Endaian zengozanean

"… txoraturikan,
zabal zabalik begiak…"

mundu osoan ere Herri hau baino lur hoberik elitekeala esatean, agertu zenuen euskal–mina baino ere gorago io zuan zure abenda–deihadarrak; arbasoen gogo–usai xoragarria ezpainetaratuaz, hunela kantatzean:

"eman ta zabal zazu
munduan frutua…"

euskaldunen artean hain maitatua zeu zuhaitz agurgarria neurthitz bero ta oldetsuz agurtu zenuan. Nola–hala, buru argiz baino barne–suharrez ernarazi zenuen kantu eder haren mende–bethetean, galde hauxe eginen dizut, zuk ere, orobat, zeure itzal eta eredu mintzoz oraiko euskalduneri egin dietzezun: Euskaldunen artean guztiz maitatua zen Arbola bedeinkatu hori, nehork ba othe du orain buru–bihotzetan…?

ERKIAGARRE

R. M. AZKUE AUNDIARI OMENA BILBAO'N*

Joan dan urteak lorratz nabariak ezarri dizkio Euskeraren alor ezo–naiari. Alako egun gogoangarri batzuk izan baititu gure izkuntzak urte ortan barruna. Udaberrian, goiz gogobetekoa izan genduan emen Bilbon, Arriaga teatruan, Euskaltzaindiaren bigarren agerpena zala–ta.

Geroago, udazkenean, Aloña mendi goraren magalean izan genituan beste egun zoragarri batzuek; alegia, Euskera maitetzat artuta, zoro–zoro ari eskeiñiak bizi diranen poz–kutsuzko egunak; gero–aldiko maite–giro emankorraz ames egiten dutenen ordu atsegiñak…

Ta buruenik, urte zaarra berriaz elkar–tratuan asteko garaian, berriz ere ementxe, Euskal–Erriko uririk aundienean bildu izan dira, Euskaltzaindiaren inguru, milla ta milla euskaltzale zintzo. Zer dala–ta? Guretzat eredu bardingabea izan danaren oroimenez eta aren izenari merezi zaion ospea emanaz batean, gure gurasoen izkera baztertuta, dagokion mailara ta tokira jaso nairik.

JAIRAKO DEIAK

Egunkarietan, irratsaioz, esku–paperez iragarri ziran jai bien xeetasun eta gorabeerak. Uri aundiko ormetan, paper zuri apaiñak agiri izan ziran, Gernikako Arbolari, egal arin bezela, Euskaltzaindiaren asmo–itzak ezarririk: Ekin eta Yarrai.

Eta giro epel eta aro–usai goxoak gantzuturik, eldu zitzaigun gorazarrerako lendabiziko eguna.

Abenduaren 30–ean, goizean goiz, Santiago apostoluaren Ikastetxean izan zan euskaldunen meza. Eta mezamogille, nor, eta Lapurdiko bazter urrunetik etorri zitzaigun benediktino apal eta olerkari bikaiña izan genduan, Aita Diharce, bertze izenez, "Iratzeder" aipatua izan den baiño ere poeta bikaiñagoa. Itzaldi gartsua ere izan genduan, Aita Zubieta frantsiskotarrak egiña: eusko–bizitzaz jardun zuan, eta gure oitura, sinismen eta izkuntzaren arrisku gorriak adirazi ere bai. Mendeak mende, oraindio ere or dirau gurutzeak gure tontorretan, bidaburuetan, etxegaillurretan… Gaurko

---

* *Egan*, X, 1957.

ibili–bear eta igesi–bear ontaz, garaituko ote dute oiturak, sinismenak eta arbasoen izkuntza eder garbiak…?

Eguerdi alderantz, Albia Koliseo zabalean eratu zuten jaia. An zegoan Etxaide jatorra, Euskaltzaindiko Buru jauna, egikizun mamitsu ta txairo aren buruzagi bezala, beste euskaltzain agurgarriak inguruko izanik. Bilboko alkatea ere antxen zegoan aldamenean.

Jaiaren asieran, Oleaga zadorlari jaunak, ainbat eta ainbat telegrama irakurri zituan. Batzuek, Madriletik igorriak: Iturmendi eta Artajo ministruak, Kortietako lendakariak, Menendez Pidal, Izkera--Akademiako idazkariak, eta abar, Azkueren goratzapenez bialiak; eta Nafarroa–tik, eta Gipuzkoatik zaldun agurgarriak igorraraziak. Jarraian, AZKUE NOR ZAN esan zigun Oleaga jaunak, kartsu ta jator esan ere. Nor izan zan eta zelakoa izan zan; aren lan batzuen izenak. Don Resu–k egin zuan lanak merezi duan oroigaillu aztu–eziñaren jaso–bearra agertu zigun, bai Lekeition, aren sorterrian, eta bai Bilbon ere, arek lanik geien agertu ta burutu zuan uri aundian. Eta batez ere, omenik agiriena ta onuratuena ere zein izan zitekean argi asko esa zuan: Euskal–katedra sortarazi ta zutitu, eta izen egoki ta zorrotz auxen ezarri: AZKUEREN KATEDRA. Or du ba, dudarik gabe, Bizkaiko Diputazioak Don Resurreccion zenaren goratzapenetan egiteko aukerarik onena. Txalokada beroak aizatu zuan asmo ori.

Oleaga jaunak bere aldia bukatzean, Musika sailaren garaia eldu zan. Eta Bilboko Koral ospetsukoak, Azkue berberaren eresi–atal oiek eman zituzten:

"Topa–kanta" 6 aotsez, lodi ta mee: "Txalopin txalo" 5 aotsez, lodi ta mee; eta "Arrantzaleen abestia" 8 aotsez. (Emen, tarte eginik, etimologizaleeri bi itzez eginiko itz bakarra; noski, lodi ta mee esan dut gorago, me–lodi idatzi izan baldin ba nu, orra ba, "melodi"...)

Kanta gozo oiek, aspaldi ezagunak eta aspaldi zorigaitzez ez entzunak bait–genituan, lendabiziko zarrada egin ziguten barnean. Leena ta azkena, "Vizcaitik Bizkaira" antzerkikoak dira, eta erdikoa, errikoia, baiñan gure euskalari zenduak armoniztatua.

Eta aamen ximen edo mokaru goxoena bezela, Eskudero maisuaren ILLETA, gure "Lizardi" kuttunaren letraren gogo–muiñean edan eta musikaz isuria, arako "Biotzean min dut… min etsia". Bilbaoko Koralekoetaz gainera, arabarrak, donostiarrak, zarauztarrak eta nafarrak ere bildu ziran ori kantatzeko, Bilboko Uri–orkestak jorik,

eta Eskudero–k berak artezturik. Guztitara, 250 aots ba omen ziran. Agara gaztea, bakarreko kantari.

Antzokiko bazterrak jendez beteak ziran, eta olerkariaren biotzak beiñola bezela, lagun guzi aienak ere, taupaka ta oska ler–ikaraka jardun zuten iñolaz ere.

"… Ol bat yaso ta ikusi
dut musu ximela:
parre antxa, bizirik
ba lirau bezela;
ordun ixar bat biztu
du nere gau beltzak…"

Alaxen Euskeraren gau beltzean ere, ixar bat, izar ttipi bat izetu dute oraindio ere bero ta joranez datorkigun mutil eta neskatxa gazte euskaltzaleen biotz zabal eta xamurrak.

APAIZEN OMENA

Apaiz jaunak ere eskaini zioten bai, beren arteko izandako lekeitiar goragarri ta apalari, merezitako eguna. Eta Luistarren aretoan, urtarrillaren 2–an egin zuten bilkura, itzaldi ederrak jalkiaz. Lau iztunak apaiz izanik, jakiña ba.

Maidagan urgazle jaunak egin zuan jaiaren oparia eta Ibargutxi urgazleak aipatu ta ikasi zituan euskaralari azkarraren lan batzuek.

Urrena, Olaizola, katedraleko musika–maisuak xeeki azaldu zituan Azkueren eresi–emaitzak, eta azkenez, Mañarikua irakasle zoliak, gure apaiz zenduaren izaera, nortasun ta geriza aitorraren gorabeerak agertu.

Orrelaxen, astarteko egun bat, astartea ain zuzen ere, eskeñi zien euskaltzale ta apaizak gure Iztegi Nagusiaren egille jaioari.

IRUGARREN ETA AZKEN JAIA

Jai au, oraindiño ere errikoiago izan zan. Alako elkarrekin egon–ondoren, agur–egiteko eta banantzeko orduak sortu oi duen xamur-kezka–maite–beldurrak, ornitua. Euskaltzaindiko kantari neska gazteak, "Agur, Jaunak" abestuaz asi zan egingoa.

Beste lau kanta entzunarazi ostean, Arrue euskaltzain jaunak izan zuan aldi. Azkueren liburu ederrak berriz argitaratzea izango litzakeala emaitzik onena, agertu zigun. Baiñan… zorioneko diruak ematen dituan lorrak! Praixku jatorraren gertaera ta ateraldia ere esan zigun ba...

Ortaz gainera, Arrue jaunak, bere amets ernagarri bat ere agertu zigun. Alegia, Azkue jaunaren anima agertu zitzaiola, eta... gure izkuntzaren aldeko alegiñak motel eta kaixkarrak izatea, lotsagarri izango litzakela; eta guzi oiek, itz latz eta esaera garratzez esanak omen dira. Esnatzean etzuan nolanaiko estura izan gure izlari prestuak. Dana dala, amets orrek egiaren itxura bait-baitu, ordua dugu zertan edo artan ekiteko; aurretikoen esanon, eredutasuna ta guraria maitekiro aintzat artu eta egia biurtzeko zazpi alegiñak egiteko ardura ta arreta artu dezagun. Ez gaitezala behintzat, bertan goxo egiñik, axolakabe itzuli oraingo euskaltzaleok.

Jasoko ote dugu bada, asaben oiartzuna, gure aurrekoen oiu erdiragarria?

Bai, noski. Ta ortarako, Euskera ez ezpainetan eta aoan bakarrik erabili, barnerago baizik: gure muiñean, gure odolean, gure arnasan, gure… biotzaren biotzean. Eta orduan bai, maitetasunaren agergarria egiñetan, lanetan, gure mami, azal eta mintzoan bizi ta eder, mardul eta zindo, bizi izango da.

Eta giputz euskaltzaleen agurra bizkai–semeeri xamur eskaiñiaz, amaitu zuan itzaldi labur baiñan sutsua, oraiko euskal iztunetariko onentxo batek.

Ori dok eta, Arrue jauna! entzun genduan an gure inguruko baten aotik.

Zarta–zarta ekin zioten eskuak txaloketa luze beroan, itzaldiari zegokion ondoren jorantsua emanaz.

IRU ERREGE estanpa polita agerrazi zuten Akademiako Teatru–jarduleak. Palestinako seaska inguruan, artzai ta emakume apalen artean, Iru errege apaiñak agertu ziran, Jaioberriari agur egun eta opariak uztera. Artean, "Oi Betlehem" soinu bigun xarmanta kantatuaz…

Bertsolaria ere izan zan jai artan. Enbeita gaztea, bere aitaren eskolako neurtitzez ari izan zan. Guzieri adiguriki itzegiñaz, Azkue jaunaren gomuta ta izerdi–nekeak goraipatu zituan. Euskera ikasteko nagikeriaren apukoa, langille alperraren iduriko dela adirazi ere

bai; langille txarrak, tresna egokirik ez. Ederki sartua, ziri ori! Gure izkuntzaz diru–etorri aundia ba lego ere, onen eragozpen eta zailtasunak laister arin gozotuko eta erraztuko omen lituzkete…

Urrena, Jose Franco–ren LAU URTE–AROAK dantzatu ta musikaz bete zituzten, arako Olaeta dantza–talde entzutetsuko neska–mutillak. Orkesta, bilbotarrek osotua izan zan. Gauza bitxi eta atsegiña, benetan; bai soiñuz, bai soiñekoz, ta bai dantzakeraz ere.

EKAITZA, beste agerkizun ikusgarri bat; au ordea, neka–giarrekoa, drama–usaiekoa, negar–arikoa. Arrantzaleak itsasora joan dira; eguna ezta ain aukerakoa eta noski, arinkeriz artutako erabakiz egindako zera. Aiek gaizki dabiltz an urruti xamar; alaz ere, kaietik ikusten dituzte. Zer egingo? Zer ez egingo? Eta, an dijoaz gazteak, zaarren bat ere bai, galdugordean daudenen laguntasunean… Geienak itzuli ziran; itsasoak, ordea, bere zorra betetzea eskatzen du, eta bi… an gelditu ziran, aztarrenik uzteke, sarri askotan oi dan bezela…

Azkeneko estanpak eztandazi zituan askoren begi–ziskuak, eta negar–tantoak, perlarri ederrak bai lirean, norbaitzuen begietan ikusteko eretia izan ere bai, izan genduan. EKIN ETA YARRAI…

Izen orixe zuan estanpa ark, Euskaltzaindiaren itz biak berberak Ama euskera ileziñari, euskaltzale guztiek zegioten MAITE AGURRA: nekazari, arrantzale, uri eta kale, zaar eta ikasle, beargin eta kiroltzale, umeak ere bai, umeak ere an agertu ziran omen–agurra, biotz–agurra eta eskeinitza esateko…!

Eta Teatru–etxean zeuden lagunak, aots batez, Iparragirreren kantu betikorraren soiñu ta mintzaira, lau aizeetara zabaldu zuten:

"Eman ta zabal zazu
munduan frutua…"

Eta Laterriko eresia orkestak joaz, bukatu zan jai gogoangarri aspaldietakoa…

Bein eta berriro, oraindik orain emen Tovar jaunak esan–itzak gogora genituan. "Iñolaz ere, ez dezatela euskaldunak beren izkuntza zaarra galdu. Aitzitik, ama euskaldunak saia bitez beren aurrei, beren seme–alabei euskera irakasten eta mintzarazten. Ukaeiña baita, erdera gaizki egitea baiñon, obe dala emen euskera ederrez mintzatzea…"

* * *

Kanpo lanak asirik ditugu. Euskararen soloan ba du nornaik bere saila, bere tresna, bere arloa. Saia bitez ba, euskaldunak, barruko lana egiten.

Festarako oi dugun garra, egunero bearreko izan bekigu ta ortan alegin egin dezagun jai eta aste, etxe ta kale, landola ta eliza, jolas ta ikastetxe… Ez bitez keiaren pare izan, egun auetako asmoak. Jo ta kea, ekin beti aurrera!

Eta euskerak mendeen menderaiño irmo ta zindo irautea Jainkoak nai dezala.

Ala biz.

ERKIAGA, EUSEBIO

EUSEBIO MARIA DOLORES AZKUE BARRUNDIA*

(Lekeitio, 1813–1873)

Azkenengo mende bietan, izan ditugu Lekeitio'n bertsugille onak. Euren artean oneek:

Aita Agustin Basterretxea. 1750 urte inguruan idatzi eban bizkaieraz, «Jesukristo gure Jaunaren pasiñoia». Gero, Aita Kardaberatz'ek gipuzkera biurtuta, Kantu au entzute aundikoa izan da Euskalerrian eta ogei bidar agertua. Lan ederra benetan.

J. Antonio Aboitiz, abadea. 1751–1824. Idazle alai eta zorrotza. Beste izneurtu batzun artean, bi nabarigarriak egin zituan: «Txanton Pipirri» eta «Peru Dubako».

EUSEBIO MARIA DOLORES AZKUE ETA BARRUNDIA. Onezaz jardungo dogu gaur, luzeegi barik.

GIZONA. Lekeitio'n 1813'gn. urteko aprillaren 13'an jaio zan, eta bertan il bere, 60 urte geroago, 1873'gnko zemendiaren 13'an. Gurasoak: Joane Josepe Azkue eta Zalbidegoitia, Zamudio'n jaio ta osagille urte askotan izanikoa, eta Maria Ignazia Berrundia eta Atxabal, Lekeitio'ko alabea.

Umetan, Zamudio'n bizi izan zan, mutil bardingotxua egin arte. Bilbao'n, Latiña ta Filosofia ikasi zituan. Lenengo karlistadea sortu zanean, Karlos V–garrenaren gudamutil izan zan. Gero, itxasorako ikaskizunak Ferrol'en egin, eta Pillotu izendun zala, itxasoak austen ibilli zan urteren batzuetan. Arrezkero, Nautika–irakasle beti: lenengo Bermeo'n, urrengo Mundaka'n, eta azkenez, amaika urtez, bere jaioterrian; emen, 1861'gn. izan zan izentaua, baiña 1862'gn. asi zan Nautika–eskolea.

Matematiku itzala ei izan seguru; eta iñoiz amesetan bere, egundoko problemaren bat ebatzi ei eban. Anton Trueba'ren esanez, gizon jator eta maitagarria zan, berbaz apala, eta azalkeri ta itxurakeri bakoa. Euskerea'k poesigintzarako dauan egokitasun berezia erakusteko, toki ta aukera ain urria izateaz, tamalez bizi ei zan gure gizon au.

---

* *Olerti*, 1961.

Amabi seme–alaba izan zituan, ezkontza bitakoak. Lenengo emaztea, Laureana Ozerin izan zan, Erandio Asua'koa edo Derio'koa, gozogille baten alabea, nunbait bere. Emaztea eta lenengo semea, Alfonso Maria, Mundaka'ra ekarri zituan. Seme au bere, itxasgizona eta irakaslea izan zan, bere aita il zanean. Abeslari azkarra, gustu aundikoa eta aots ederrekoa. Mundakan jaio ziran urrengo seme–alabok: Carolina (1849), Konrado Maria (1853) eta Sol (1856). Emaztea il yakanean, ezkondu zan barriro eta orduan Maria Carmen Aberasturi Uribarri, Tomas Aguirre–Ormaetxearen alargunaz, mundakarra bera, 1857–VI–3'an. (Au jaio, 1835'gnean.) Artean, andra au, umerik bakoa zan.

Ezkontza onetako seme–alabak: Julia (1858–59), Aurora (1860) eta Jesus Maria (1862). Geroago, Lekeitio'n jaio ziran Resurreccion Jesus Maria (1864), Maria Luz (1867), Diana (1868), Julia (bigarrenez) ta Heliodoro (1873).

Doña Sol maistrea, entzutetsua izan zan gure jaioterrian. 1880–1920 inguru bitarteko umerik geienak, aregaz ikasi eben eskolea, asieran beintzat.

Don Resu nor izan da, edozein euskaldunek jakin bear leuke, ondo baiño obeto jakin bere. Lau urte barru izango da aren jaiotzako eunurteburua. Zelan goratuko ete dau Euskalerriak bere seme bikain au?

Ainbeste seme–alaba izan arren, dakigunez ez da iñor gelditu aren ondorengo urrekorik gure errian, abizen orren jabe. Etxe–ormetan dirau soillik Azkuetarren deitureak gure urian, aita–semeak bakoitxaren jaiotetxean arlandu eder bana dauke–ta.

Eusebio Maria'ren berbakerea soiñuz bakana ei zan lekeitiarrentzat, eta orregaitik arrotza ei zan eurentzat. Gizon atsegiña zan eta asko ikasia, buru jantzia. Edariaren arerioa bere ez, aurki. Zozo eder bat ei eukan kaiolan, berbetan ekiana. Auxe esaten ei ekian: "Azkuen zozua naiz ni… Urra Pepito".

Azkenengo zertzeladok, Norberto Mendezonari zor deutsadaz, mundekarra berau be. Eskerrik asko, ba.

IDAZLEA. Asko ta asko idatzi ei eban Eusebio Mariak, baiña aren lanik geienak aldendu ta ezereztuak izan ei dira. Izlauz bere, egin ete eban? Bilbon, 1896'gn. urtean, «Parnasorako Bidea» izentzat ezarririk, agertu eban aren semeak bere aitaren olerkitxorta mardo ta irakurgarria. Izneurtu onentxuenak ete dagoz emen soillik? «Morfo-

logia»'n diñoanez, Zarautz'en Aita Prantziskotarren komentuan ei dagoz neurtitz batzuk, argitara bageak. Arrezkero ez ete ditu iñok azaldu? Egia esan, «Latsibi» bere, oindiño illunpean dago–ta…

Olerkari onen barri, Jose Manterola'k emon eban lenengo, Donostia'ko bere «Cancionero Basco» aldizkarian. Norbaitzuek idatzi dabenaz, 1860–61 urteetan egin ei zituan bertsuok. Eta leenago? Eta arrezkero?

Orduko irizleak, olerkari ontzat jo eben, baiña erri–olerkari edo. Aren lanik geienak, izan bere, orixe adierazoten dabe. Ganera, Azkue zarra gure izneurkuntzan irakasle–usain nabarmenekotzat dago, era orretako bertsogillerik urri samar izan dogulako. «Amar aginduak», «Urtea», «Apolo ta Musak», batez bere, arlo orretan ezarri giñeiz.

Liburu orrek asieran, siñismenari dagokiozan izneurtuak daukaz. Lan bi, itzulpenak dira, bere gogara biurtuak: «Ave Maris Stella» eta «Dies irae». Azkenengo onezaz, alabantza ta gora arduratsuak egin zituen orduko jakitunak. Zortziko aundiaren neurriz egiñak ditu, baiña iru puntukuak soillik. Arrezkero, gure elertian beste itzulpen bi beintzat ba ditugu kantagai entzutetsu orrenak; biak bikaiñak: Nikolas Ormaetxearena eta Aita Lino Akesolo'rena.

Baiña gure errikide onen jita eta joera ezagunena ta agirikoena gai errikoiak, bizitzako gorabeera ta eguneroko jazoerak, eta gizasemeen egitada onakaz batean euren amarrukeri ta egiune doillorrak jakiñerazotea da. Orduantxe da zorrotzen eta begikoen aren luma bizkorra. Esaterako, mediku–botikarioak, alperrak eta eskribauak eurak bere, ez yakaz lar atsegin. Bere aitarengandi entzun eta ikasi ete zituan lanbide orren kaltezko esan, uste, asmakizun eta izkirimiriak eurrez?

Ezta liriku agertzen Azkue aita, sarritan. Geienbat edeslari, esalea, kontu–kontaria dogu, bertso errezetan beti bere. Irakasle–arloa maite dau, eta dakiana —bai buru–arloko zerak eta bai bizitzako morapilloak— polito baten erakusten deusku, bizitzako «gramatika nabarra» ezagutzeko, ereti aukeratsua alperrik galdu ez daigun.

Barruko intziriak, biozpeko min kantagaien oiu samiñik ez deusku azaltzen nabarmen. Eta izadiaren isil–soiñua agertu bearreko premiñarik bere, ez dau aren gogoak erakusten. Alan ta bere, ezin ukatu aren lumearen zorroztasuna, eztenkada eta esanaldi gordiñak eta gazigozoak, olantxe adierazoten dabelako.

Umore onerako gizona dirudi, orixe sumau daikegu ba, mukuru ta ganezka aren izneurtu askotan.

Lexiku ugari ta bizia darabil errime. Aren lerroetan meaztu leitekez itz euskaldun–ezak an or emen, eta darabiltzanak ezagunak ziran orduko euskaldunentzat. Irakurterakoan atsegiña da, bizigarria, gogokoa eta zorionez, ez deusku idazlan eioezin, nekatzaille ta loguragarririk eskeiñi. Eta orain, itaune bat: ¿aren semearen eskuak noraiñoko jorrea ta erraldatzea egin ete eban lerro oneetan? Orra ba! 27'gn. eta 35'gn. orrialdeetan aztarren agiriak dagoz (Gogo Doneari… Zalantzik…). Baiña, leenago aitaturiko «Dies–irae» aretan, bai nunbait; «Euskera» 1959, IV'gn. 58'gn. orrialdean agertu izan dau oraintsu N. Alzola'k, Bizkaiko artxiburik arturik, eleiz–eresia. Eta ori, ta «Parnasorako Bidea»'n dagoana, ez dira batzuetan bardiñak. Ba dakigu jakin, Euskaltzaindiako lenengo Lendakaria beti bere, garbi–miñak berengandua eukana.

Ba ditu naste–borraste egiñiko bertsuak bere: euskera–gaztelaniazko zortziko txikiak: «Las hembras de Mundaca» (179 orrialdean) eta «Las mozas de Bermeo» asiera daukenak (186 orr.).

Mogel, «Peru Abarka»–ren sortzaillea markiñaldeñoa zana eta Azkue semea «Bein da Betiko»–ren egillea lekeitiarra genduana ezin ukatuak ditugunez, euren idazkeraz orixe agertzen deuskuelako, Azkue zaarra, ostera, «Parnasorako Bidea»–n ez dogu lekeitiarra bere taiuan; zamudioarra eta zerbait mundekarra, bear bada. Dana dala, bizkai–izkelgia orduan —orain eun urte— gaur baiño bakarrago eta orain baiño batuago zala deritxagu. Erritarren jakituria, liburuetarik barik, alkarrengandik, bata–besteagandik, aoz ao ta urrengorik urrengo ikasia zalako geienbat, eta eguneroko izkuntza errikoian ain zuzen. Orain, alanbearrez, jazoten ez yakuna ia Euskalerri osoan.

NEURRIAK. Jazoera eta gertakariak esan eta garanduten ditu, iñoiz luze–laburrean aria luzeegi edo emonaz; eta azkenerako funts ospatsu ori, edo ganorea motel–antzean, bertan beera jarriaz.

Neurlerro amaierea, ostera, egoki jarten dau, eta azken–soiñutasun bardiñari jaramon estu ta zeatza egiten deutsa, bertsuaren izakera jatorrari zintzo eutsi nairik beti bere.

Neurriari dagokionez, zortziko zalea da geienbat; eta aundi eta txikia darabiltz sarrien. Ez ostera, lau puntukoak: bikoak eta bikoak. Neurriok, egokiro zainduak ditu geientsu. Baiña iñoiz, euskal–otsen kontra beteten ditu bertsuak, silaba otsaldiak lege–kaltez indarkeriaz esanerazoaz. Beste lerro–neurri batzuk bere, ba darabiltz orraitio. Esaterako:

37 orrialdean:	7 7 7 6 7 7 7 6	
14 "	10 8 10 8 5 5 5 5 10 8	
44 orr.	10 10 10 5	
52 "	8 8 8 8 8	1 eta 3; 2 ta 4–5 1 eta 3–4; 2 ta 5 1 eta 4, 2 ta 3–5
62 "	10 8 10 8 12 8	
70 "	10 8 10 8	(Estribillo: 10 10 10 8)
76 "	10 8 10 8 10 8	
105 "	7 5 7 5 5 5 7 5	
121 "	10 8 10 8	
193 "	8 8 5 5 8 8	
296 "	5 5 5 3 5 5 5 3	

ZER BATZUK. Iñoiz edo bein, alako zer batzuk irakurri daikeguz; zera, esaera egoki–ezak edota gogor samarrak direanak. Berbarako:

167 orr. Urreratu zan etxeratzean
doña Pepita ederra*ri* (!) (–gana)

22 " … emoten *doguzala*
biotzeti eskerrak
Iaun onari…

25 " … Azkatuizuz kateak
errudun guzti*ai*,
itsu dagozan*ai*…

Ba ditu arako gorriñadun zerak: zein, zeiñen, zeintzuk, eta abar, idazleengandik ikasiak, ez erriko semeenak:

26 orr. ….Zugaitik eskariak
Ak artu daizala
zein mundura etorrita
gugaiti bakarrik…

195 orr. ...Eldu zan laster eguna
neure Amantzat; illuna,
zeinen goizean
joan ginean…

197 orr Eldu iatazan atean
soldadu batzuk,
igonda *zeintzuk*
lotu nenduen sokakin
gedarrez: muera el Cachupin.

Noizean noizean, alper esaten dau soillik, alperrik esan bearrean. Eta *–ren* jabegarriaren lekuan, *–an* darabil betitsu. Baita *–riko* eta *–tako* atzizkien ordez, *–ko* bakarrik ezarten dau: «Sutan erreko taloa» 199 orr.

Toki–aldakuntza bakanak bere ba ditu, bere euskal–senera edota neurriaren akulupean amore emonaz.

23 orr. ….eztaigula aragizko
egin pekaturik.

155 " ain ziur ta argi, zein urietan
labankerizko arrantzak.

207 " euskaldun batela da
bardin zein vapora.

25 " zein dan Evan izena
goikoz bekoturik.

26 " Birjiña guztiz bakar
Ama Jesusena.

34 " Osasunagaz bizi,
bear egin da ian,
zer da egotea baiño
bizirik glorian?

132 " bere anai eukanari
Mexiku aldean.

Oargarri eritxirik batu ditugu emen zertxu oneek.

Ganerantzekoan berbakuntza gozoa dario liburu oni.

Esanaldi bakanak bere, ikusi daikeguz, lekuan lekuan. Berbarako, batez bere, Gregorio Arrue–ren orpoz–orpoko aditz ukakorraren taiura:

121 orr. eukiten eztau indarrik.
199 " ezagutuko eleuke

Aditz–tankera ez bardin oneek bere bai:

39 orr. emon deutsazuzanak
39 " ba dautsagu
40 " iarraituten dautsa artez
19 " ardaoak moskorra emon dost.

«Morfologia»–n 703 gn. dakusgu: «Elegir daust… parece razonable». Zer egin bear ete dogu?

Eta urrengo eredu onek, barriz, «Orixe»–k oraintsu azaldu–barri deuskun taiu zaarra darakusku:

33 orr. Iru urte igaro barik
ikasi NENDUAN (neban)
iauna bakarra zala
zeru ta munduan.

Tankera au, NENDUAN (nik), ez dakigu zegaitik ezarri ez eban «Morfologia»–n. Beste tokietan, oraingo esangura berberaz darabil:

196 orr. Bizkaitar gizon nobleak
euren etxean
almazenean
artu nenduan…

Itxi nenduan bakarrik
ta eneukan ekandu txarrik…

ASMOAZ ETA KERA TA JASAZ. Zortzi sailletan banandu zituan aren semeak, liburu onetako neurtitzak. Onerapenezkoak, 7. Ipuiñak, 2.

Jolasgarriak, 34. Kondairazkoak, 7. Irrigarriak, 7. Ziribertsuak, 16. Benetakoak, 15, eta Pozgarriak, 1. Guztira, 89 edo.

Eusebio Maria'ren gatza ta bizkortasuna, aitatu eta goratu ditugu leen. Zala da aren jasa, gogaro alaia ta berezkoa dau, iko elduak gozotasuna berea dauan lez. Amaika atal aukeratu giñeiz orain ao gozagarri, zatika eta apurtxuka esateko: atal bizi, jator, zorrotz, egiti nai polit atsegingarriak! Edota aren lanik asko irakurri bata bestearen ondoren, euretan esanaldi bitxi ta txanbeliñak azalera jasoteko. Labur–miñaren kutsuak jota egon gu orraitio…

Bere asmoak agertzeko, kera egokiaz zertu oi deuskuz irudi ta bardinketak. Iñoiz, goi–maillako eta aintziñako usaindunak, eta sarriago ostera, taiu ta esaera lauak, errikoiak. Ba ditu izan bere, egundoko esakizunak. Ona batzuk.

191 orr. Izan arren gozoa
oiloan saldea,
askoz bere obea da
iateko oilandea.

133 " Urte bik iges eben
egur me–garra lez…

133 " …iraupen bakoa,
San Martin–en udatxu
zoroa lakoa.

Alperra ikusi ezin dauana, esan dogu gorago. Ona emen bertsu bat:

122 orr. Baita ba dagoz asko
alper eskekoak
batzen iatorkuzanak
ezkur etxekoak;
onek basaurdak legez
erri guztietan
arto gariak daukaz
iñon soloetan.

Gizontasunaren neurriaz bere, ba daki zerbait eta:

363 orr. «Egiaren ispilua»–n auxe diño:
Ze gizon modu da Urlia Iauna?
itanduten zan lenago.
Gaur esaten da: ¿Ondasunetan
Don Fulano zelan dago?

Emakumeak bere, ezagutzen zituan nunbait:

240 orr. Andra bakarra dago
argitan illunik;
ezpadauka munduan
bizitza–lagunik.

Eta beste bertsoek ez dira makalagoak:

232 orr. Gonadun barritsu bi
domeka goiz baten
egozan alkarreri
eskuz esku esaten,
sokondotxu bateti
nik entzun nebana
ta zortziko bertsuan
esango dodana.
Ezkondua Pepatxu,
neskea Maria,
barria ta guzurra
zan euren eztia.
Ez eutsen zereginik
emoten goruak:
baina guztiz andia
auzoko kontuak.

Gizonak bere, ostera, ez deuskuz azturik utzi:

334 orr. Bardinak izateko
munduan gizonak
asi beitez izaten
alkarrentzat onak;

ta gero bakartuten
mendian alperrak,
Mediku ta Eskribauak,
lapurrak ta okerrak.

Eta beste au, 216 gn. orrialdean:

Idia lotuten da
sudumitzetati,
eta lotu bear da
gizona berbati:
betatuten ezpa dau
berba bein emona,
euki lei antz aundia
baiña ezta gizona.

Zirikatzaile ditugu onako bertsuok bere:

244 orr. Galbanatsua, Markes bat legez,
bere gauzetan itxia:
beti amesetan zelan igaro
alperrak daben bizia.

245 " Noizik beiñean alperra izan naz,
ta Mediku bat alperra
da, eriotzea ba litz alkate,
bere txineltzat ederra.

251 " Medikuak egongo
litzatez itsurik
munduan ezpa lego
gaiso barritsurik…

252 " … bakizu, gizona,
gauza meatza dana
Mediku bat ona.

331 " Beti bizi izan dira
gizon asko alperrak,
iñor mutulduteko

txorikume ederrak;
eurena eztan gauzea
atrapetan zurrak:
basoak nai piztiak,
arriak nai lurrak.

Kondairazko izneurtuetan, bai, albista ta zerzelada ugariz jarduten eban. Eta oiturazkoetan bere, ba daki zer askoren gorabeera zeatzik. Esaterako, «Urtea» deritxan neurtitzean, lau urte–aroak erakutsiko deuskuz, eta irakasle ta erri–jakituriaz batean erakutsi bere. Emen izentauko ditu ortzeko izen irudipetuak: Aria, Zezena, Polux eta Kastor, Karramarro pikuduna, Txakurra, Leoia, Birjiña eder bat, Eskorpio, Auntz, Arrain bi; barriro Aria, eta abar. Eta oneekaz azalduko deuskuz lur–emoi ezagunak–eta, urteko egunen araura…

285 orr. Kereizak, babak irarrak,
eta albertxiko ederrak.

Ikoak
goizetikoak
ta Donian–madariak,
gozoak baiña txikiak.

Garagarrilean
geure bearra
da garagarra
ebagi ta etxera eroan,
luze itxi barik soloan.

Gariak
eta Augustu–madariak.

Millekotak ta priskuak
datoz batera bitzuak,
moskatel matsa
mismiru latza,
sagar, madari ta ikoak
dira il onetan gozoak.

Gaztaina–kirikioak
indiar, mats eta artoak.

Gasun–asketan
egun onetan
dituez, ilda, tokiak,
bigai ta idisko lodiak.

Patari lau oinekoak
onduteko lapikoak…

Sinismenari dagokiozan bertsuetan, ba ditu esaera argiak:

233 orr. Fedea da mundura
Iaunak ekarria,
goituteko munduan
beko Iaun gorria.

215 " Baina Fedean argiak
infernuko ate guztiak
goituko ditu
eta gitxitu
Luzbel–en otsein zatarrak
ta gaur daukazan indarrak.

Gizon guztiok maitagarrien izan dogun bakoitxaren ama, ederto baten goratuten deusku olerkariak:

320 orr. Ama langorik inor
eztago lagunik
geure neuke aundietan
aitatuten deuskunik,
edozein aiden ordez
dagoz makina bat,
baina mundu guztian
Ama… bakarrik bat.

Eta azkenez, euskaldun zintzoa izan zanez, erraldatu daiguzan an or emen artu ditugun atal edo ahapaldi banakak gozaro miazkatu daikeguzan; eta orain eun urte idatziriko bertsuok barriren barri esangura bardiña ez ete dauken gogartu.

Auxe dakar 43'gn. orrialdean:

«Lur eder geure errikoa…»

Eta 66'gn. ostera, onelan irakurri daikegu:

Dinostazu, Katalin,
zer dan zortzikoa;
da zortzi oinen ganean
dagoan bertsoa.
Zortziko bertsoen da
kantea laguna;
ta onek dantza eder bat
guztia euskalduna.

127'gn. Pedro Bentura–ren aoz esango deusku:
Baina euskaldunak bein berbatuak
biotza eztago gurea,
eta itxaroten iagot Bermeon
Ana Manuela neurea.

Eta antzera beste onetan, 229 orr.

Euskaldunak eztabe
erosten izenik,
eztabe nai izena
izate ona barik.

Itzal eta larri dirausku 363'gnean:

Euskera berbaz gaur dakiana
ezta bizkaitar noblea,
ezpada sasi–karramarroa
kantabro otsoen lobea.

Bere errialdeko bazterrak maitagarri yakazan–eta, abagune ta eretia izanik, ezin isildu gure bertsugillea:

227 orr. Emen dagoz Bermeo
mutil abilakaz

eta Ondarroa andia
arrantzaleakaz.
Emen da Lekeitio
leorrez ta itxasoz
berdinik eztaukana
bere alboan inos.

Euskera geurea goraipatuko dau, bere modura, urrengo esanetan. «Apolo eta Musak» deritxanean, onelan dirausku:

300 orr. Eztau Kliok ikasi
iños bere euskera;
istoria bakoak
euskaldunak gara;
zeinbat gauza andi armetan
emen egin dira!
ta lumak busti barik!
ta Klio begira!

301 " Erato Musa ederra,
arren betetuizuz
onek bertso bigunok
graziaz eta suz;
irakurri daiezan
Poeta euskaldunak:
Frantzes, Napar ta Giputz
ta neure lagunak.

Eta urrengo bertso sakon au entzutean, ez ete giñei esan, euskaltzaleok, «Eun urte igaro eta… urak lengo bidetik»?

199 orr. Biztuko ba litzate
orain Iaun Zuria
ezagutuko eleuke
gure gizaldia,
aiztuta bizi gara
euskera gozoa:
eztogu ezagututen
lengo Iaungoikoa.

Gueneko berbaz, esan daigun: Juan Antonio Mogel'en «Atso ezaiña»–ren idazkera taiua susmauten dogu sarri Eusebio Maria'ren kera berekoiari begira, mamin–azalean: euskera jator, bizi, errikoia ta gustagarria geienean edo beti.

Erabat esan, aita–ama eta aitita–amamengandik entzun al izan doguna. Eta eztogu, tamalez, sakonkiroago eta artezago, eutsiago ikasi, oraingo bizimoduko gorabeera askogaitik, aek baizen euskaldun uts bizi izan ez garealako.

Ori dala–ta, gure egunetako idazle batzuen euskereak ez dauka leengo lan jatorren jarraipen osokorik. ¿Beste izkuntzen zirikaldi, ikutu eta nastekeriagaitik ete da ori? Edota, gaiak eurak bere, ain errikoiak eta arruntak baiño jasoagoak erabilli nai dituelako?

Eusebio Maria'k darakuskun euskal–zaletasuna, egoki esangurea, eta gogo jolasti, alai ta barreikarri ori, asmo ziritsu eta irrigarri orixe, ez dedilla atzendua izan gure elerti–zelaian. Betoz ba eta beitez, zorionez gure aldian bere, lekeitiar olerkari azkar onen jarraitzailleak, gure izkuntza onetan, gai jasoai eta sakonai buruzko lanagaz batean, irakurgai arin eta gazigozoak bere izan daikeguzan.

Agur ba, eta txarto esanak parkatu.

(Zornotza'ko Larrea'n, 1960 urriaren 30'n)

Eusebio Erkiaga

JOSE MANUEL ETXEITA ETA LUZARRAGA*

—euskal idazlea—

Mundaka'n
(1842–1915)

Ogeigarren mende onen asierako idazlea dogu. Luis Mitxelena–ren esanez, bear bada aaztuegi samar izan dogun lenengoetariko euskal–nobelagillea.

Mundaka (Bizkaia)–an jaio zan 1842 gn. urteko abenduaren 13–an, eta il bere, erritxu orretan, 1915 maiatzaren lenengoan, 73 urte zituala. Gurasoak: Aita, Markos Etxeita Duñabeitia, Garaiko semea. Ama, Maria Josefa Luzarraga Abaroa, Mundaka–ko alabea. Anai–arrebak: Dionisia, Maurizio ta Maria Josefa.

Emaztea: Juana Abaroa Ajuriagoxeaskoa, mundakarra au bere. Antxe, euren jaioterrian ezkondu ziran, poderez, 1867 gn. zemendiaren 25–ean, Santa Katalina egun senaillauan, eta ezkontza–egiune ori, arik laugarren egunean sendatu eben Liverpool–en, zemendiaren 29–an.

Belaziño eguna 1870 gn. iraillaren 3–an. Seme bakarraren izena, Salbador. Orain, aren billoba bat bizi da, Amelia Perseberanda ta bestea, Juan Manuel, il zan.

Zelakoa zan, ganez

Gizon bardingoa zan luze–laburrean. Azalez baltzerana. Begiak, urdiñak zituan, zear luzanga urratuak. Bekoki zabala, ezpan lodiak, ao egokia, bizar estua.

Zelakoa, izakeraz

Atsegiña ta mazala ei zan. Artu–emonetan apal eta maitakorra. Bai goikoentzat, bai beekoentzat, guztientzat bardin antzekoa, gizon oso ta bakarra, azpillik bagea.

---

* *Olerti*, 1962.

Buruz argia, zanez azkarra, ariurriz langillea. Orra, esan deuskuenez, aren izakerea. Alegin egingo dogu, aren lanetarik jardunaz, izakera ori ezagutzeko: arretaz eta laztankiro egin bere.

Bizitzako asi–orraziak

Lenengo urteak, umezaroa ta gaztetxualdia, jaioterrian emon zituan, aitaren ondotxuan: baiña txit gazterik ezagutu eban itxas gogorreko bizitzea. Agiri danez, amabi urtegarrenerako ontzi aundiko txo edo, joan zan.

Geroago, Bilbon egin zituan ikasketak, Nautika–gaiak ain zuzen, guztizko notak lorturik. Agregau dalakotzat joan zan Santandertik Habana–ra ostera bi egiteko. Irugarren pilloturako azterketak Ferrol–en egin, ta ondoren, Hornos lurmuturrean zear, Guayaquil–era joan–etorri batzuk egin zituan. Ostera batean, izentauriko Hornos lur–mutur orretan, ekatxak artuta, ekarren kakao–zama aztuna ontzi–barruan, baterik bestera aldatu izan yakelako, noiz ondoratuko ibilli ziran.

Matanzas eraiño joateko aukera bat ez eban galdu nai izan eta orrezaz ganera, Ameriketara beste ostera bi egiñaz, bigarren pilloturako bear zituan egunak metautea jadetsi eban.

Eskabide bat egin eutsan II Isabel erregiñari, errege–agindu baten oiñarriaz baliaurik, eta eskari ori ontzat artzea lortu eban, ta obari ori, andik lasterrera, pillotu guztiengan zabaldua izan zan. Geroago, Derrota–pillotu edo itxaso guztietarakoaren izenpidea bere–gandu eban.

Liverpool–en fragata aundi batean sartu zan. Ain zuzen, ibiltaldi ori ez eban guztiz zorioneko izan. Habana–ra zanean, Mexiku–ko Matamoros–erako agindua emon eutsen, ta emen lau illebetean lotu bearra izan eben, laterri ori guduan edo ebillela–ta.

Onunzkoan, sekulako ekatxa izan eben, eta kapitana, osasunez makal ebillela–ta, ez zan ausartu aurrerantz egiten. Orduan, zarraren gurariz ta oniritziz, Etxeita jarri zan ontziko buru.

Gure idazlearen «Memorias» gutunean, lerro oneek datzaz:

> «Ain fragata ederreko kapitan egin ninduenean, ogeiurte besterik ez nituan. Eta, orrelakoak izan ba, bizitzako gorabeerak, fragata ori ezagutu nebanean, ni bergantin bateko

kamarako morroia —mozo de cámara— nintzan Españar merkante–ontzirik aundiena zan, eta nik, amaika bidar ames egin izan neban, ontzi orretako pillotu iñoiz izango ete nintzakean; eta arik zortzigarren urtean, ez bakarrik pillotu, ontziburu nagusi izan nintzan».

«Ibiltaldi batean, ekatxetarik batek oiñeztuaren bidez, mastarik luzeena eratsi euskun. Geroago ta gogorrago etorren ekatxa, baiña guk, ekin mutillak aurrera! Irlanda–ko lurrak begi–aurrean genituen–ta. Beste denporale sendoago batek, ostera, goizaldeko lauretan ondatu euskun ontzia, ta ezertxu bere salbau eziñik, soiñean soiñekoak, eldu giñan legorreraiño, lurralde aretako atxetan loturik.

Jaun aundiki batek abetaldu ginduzan, an urre egoan bere etxean; tximini–ondoan berotu giñan ta bear izan genduan guztia emon euskun».

Gerorantz urte luzeetan itxasoan jardun ostean, legorrean geratzea erabagi eban; itxasoak austeari utzi, ta Manila (Filipinas) aldean lotu zan. Amasei urte emon zituan an, eta ez edozelan.

Uri aundi aretan, entzute oneko eta ospe aundiko gizon egin zan. Ango kaieko Batzarreko izan zan; Tabakalera Bazkunako kontsejeru; Filipinas ugarteetako Banakuntzako bere bai; Itxas–Bazkunako artezkari ta Saleroste–Kamarako lendakari. Eta, guztien buruko, Manila–ko alkate jaun.

Lan eta arazo guztietan agertu izan eban bere zuzena ta zindotasuna. Gizon azkarra ta jendakiña izan zan; euskaldun eredua. Apala, baketsua, etxezalea, aren oiturak ez eukan ezer nabarmenik.

Bere aldiko aldizkarietan, bai an bai Euskalerrian, agertu oi zituan bere lantxuak. Etxe, sendi ta erriaz batean, itxasoa, euskerea ta musikea ziran aren zaletasun buruak. Gurasoen berbetearentzat eta musikearentzat izan oi zituan txolarte ta astiunerik gozoenak. Ordu luzeetan ekiten ei eutsan idazten. Azken urteetan izango zala ori, uste dogu.

Errira betiko biurtu zanean, poz aundia artu eban. Emaztea il jakanean, barriz, ezin–esan alako atsekabea. Susmo bat genduan eta ona emen: Etxeita–k asmauriko bertsuak, bere errian kantauten ete zituen. Eta egia. Gure eskariz eguneton batu dabe txorta bat, arek Manila–n egoalarik; Mundaka–n Santa Katalina–ren ermitea jausi

ostean egindakoa. Jakiña, oraingoen izkera moduan dago, ta ez dauka idazlearen kera jatorrik oraingo jantzi onetan. Bertsuok ez dakiez gaurko gazteak; 70 urterik gorakoak dakiez soilik.

Aitatu ditugun zerzeladarik geienak, Jose Mari Egileor jaunaren bitartez, ta aren senideen laguntasunez, lortu ditugu. Gure esker ona ba, guztioi, jakin nai izan genduzan zeetasunetarik asko, gure–gandu ditugulako.

Lanak

Ez dakigu noiz asi zan idazten. Esan deuskuenez, lan laburrak egiten izan zan zalea; jardun errezak, eztabadak, benetakoak ala asmaurikoak; ipuiñak, izneurtuak.

Batzaldietara bialdu izan zituan lantxuak. Euskal–Esnalearen sariketa batean, lenengoa emon eutsen. Bigarren saria lortu eban, 1909 gn. urtean, «Mari–Jesus ta iru artzaiñak» deritxan ipuiñagaz. Garai–ko Euskal–Jaietan bere, Euskalerriaren Alde–koek atonduak, bigarrena izentau eutsen olerkietan, «Itxasoa» lana zala–ta. Bazkuna orrek 1914 gn. egiñiko batzaldian, Anton Trueba–ren ipuiñen itzulpenetan, lenengo ta bigarren sariak barruna zituan. Arik urrengo urtean eldu yakan, bere Euskalerri maitea betiko uzteko ordua.

Ipuiñak egiteko doai nabaria erakusten dauan arren, lan luze ta mardoagoak bere, egin zituan. Ain zuzen, oneekaitik agiri da toki jasoan gure elebarrikuntzan. Or ditugu iru liburu bizkaieraz idatziak, Durango–ko Elosurenean elaztuak.

Elebarri bi egin zituan: «Josecho» 1909 gn. argitaratua, eta «Jayoterri maittia» 1910 gn. Lenengoak 368 orrialde ditu, eta 255 bigarrenak. Irugarren liburua neurtitzez betea, «Au, ta Bestea», 1913 gn.

Eta, anartean, zer geunkan euskaldunok elaberri kontuan? Ikusi dagiguzan gure berbetazko elebarri ta edestigaiak, Mitxelena–ren liburuan. Ordurarte bai gaiez ta bai egilleez, euskeraz idaztea geienbat, «mester de clerecía» ez al zan, apaizen jarduna, eleizgizonen arazoa?

Lendabizi, elebarri–ernamin bai litzan, arako «Peru Abarka» dago, amazortzigarren mende ondarreko lana, baiña 1881 gn. argitaratu liburu–taiuan. Urrengo, 1847 gn. Iztuetaren «Gipuzkoako probintziaren kondaira». Geroago, 1860–tik gora, «Atheka gaitzeko

oihartzunak», Ganitx Antxordokiren galdugordeko ibillerak, J. B. Daskonagarre–k frantsesetik euskeratuak edo. Patxi Lapitze–k 1867 gn. «Bi saindu heskualdunen bizia» agertu eban. Elissanburutarrek 1889 gn. bateratsu samar azalduak: Mitxel–ek, «Lehenagoko eskualdunak zer ziren» eta Jean Baptiste–k, «Piarres Adame saratarraren zenbait historio».

Lekeitiar asele batean erroa izanik, 1893 gn. R. M. Azkue aundiak bere lenengo irakurgaia «Bein da betiko». Urrengo, Txomin Agirre ondarrutarraren etorrera zoriontsua: 1898 gn. erakutsi eban «Auñamendiko Lorea» ta 1906 gn. «Kresala», lan biok bizkaieraz egiñak.

Iru urte geroago, orra or azaldu ETXEITA gurea: «Josecho» (1909) ta «Jayoterri maittia» (1910). Arik urte bigarrenean, oraiñarte gaillen dirauan Agirre–ren «Garoa». Azkue–ren «Ardi galdua» (1918). Azkenengo lan biok gipuzkeraz dagoz, egilleak bizkaitarrak izan arren.

Oraintsuago, «Orixe»–ren «Santa Kruz apaiza». Azkue–ren «Latsibi» bizkaieraz idatzia ta Baehr–ek giputz jarria, auspoan datza oraindiño.

Arrezkeroko nobela–gutunak ezagunak ditugu, moduen batean. Euren egilleak bizirik dagoz.

Gurean orren asibarriak giñanean, noraiño elduak ete ziran, esaterako, auzoen ditugun gaztelaniar eta frantsesen nobelakuntzea?

Amabigarren mendetik oraiñarteko arlo zabal, sakon eta luzea, benetan.

Etxeita–k elebarri bakotxaren azkenaldean, «Argibidea» damosku, liburuan esanaren laburpena bai litzan. Egin–lanaren bidemugatzat eta uberkatzat erabilli ete zituan argibideok, ala lanegiñearen ariak biltzen ete ditu, arloa amaitu ostean?

«Josecho» dau lanik luzeena. Umetxu orrek urte bi ez zituanean asten da edestia, ta arik eta ogetamar urtera arteko guztian, gertaerak gertaera jalkiten ditu. Basetxean, kalean, arrantzuan, itxas aundian ibilliko da mutil ori. Gero, Mexiku–n, Montebideo–n eta Argentina–n. Azkenen buruan, sorterrirantz biurtuko da, ta bereak eta bost ikusi ondoren, amaiera baketsua izango dau erritxu kutunean. Jazoera naibagetsu ta pozgarriak azaltzen ditu errian, auzoan, atzerrian emengo ta beste tokietako gauzak, lurraldeak, notinak eta oiturak jakiñerazoaz. Lagunak bere, polito ezagutzen ditu, ta mueta bereziak agertzen dira irakurlearentzat. Nagusikeria, arro–usaiña,

guraso batzuen ankerkeria, gizon doillorrak eta abar erakusten daki. «Axular» ospatsuaren no da to bere, argitara dakar. Josetxo–ren aialdeko izango dan Eladitxo–ren estura, neke ta amodio zintzoaren joan–etorriak, orriz orri, irakurgarri diralarik. Gazte–denporako sentimentu garbiak goratu izan zituan ao betean.

«Jayoterri maittia» dalakoan bere, azalez, emengoak kanpoetara joan eta barriren barri biurtuko dira–ta, bestearen antzerea damosku. Lenengo maillako notiñak, ugariago ditugu emen. Elebarri au, ostera, alaiagoa da, ariñagoa. Bear bada, biotz–isuri aundiagokoa. Barruan, alako lillura ugariago zirikatzen dauana; letragintzaren ikutu nabariagoa daukana. Irri–ikutu atsegiñez txitean–pitean, olde ameskorraren kilika bigunez.

Euskaldun neska–mutilak doaz Mexiko–rantz, ta geroago, biñan biñan datorkez onantz, Ardibaso zoragarrirantz. Artzain–nobela kutsua edo dauka. Bi milla urte leenago izan zan Virgili–ren ta Pizkundeko artzain–elertiaren ao gozoz igurtzia, nunbait. Ba darabil emen lagun bat, barreikarri eta alaia, arako Agaton Korkotx, eta onen ermaiñua dala–ta, orrialde gazi–gozoak maneau zituan Etxeita gureak. Liburu biotan, atzerrietako gauza jakingarrien albistak emon ditu, zera, euskeraz ain murritz ditugun orrialdeak.

Nobela biok garbi–garbiak, edozein umek irakurteko lakoak. Irakurgai ta ipuin *onak*, aitatu eban itzaurre batean, ta orixe izango zan aren jokabidea. Aren arima eder bakuna, orra or agirian.

Irugarren liburua neurtitzekin ornidu eban, elebarri bietarik arturik eta zerbait geiago ezarriaz. Guztira 52 olerki ditu, ta musika–zale zanez, neurriz artez egiñak dira, izkera errezean, oztopo barik irakurtekoak, itzak moztu eta itsusitu bage, euskera osasuntsuan. Samurtasuna igari dabil izneurtu askotan, an or emen sentimentu bikain eta gardena erakutsiaz. Minberatsuen ondoan, baditu bertsu zirikatzailleak bere, alaikorrak; eta noizean bein akulugana zorrotz darabil. Alkarrizketazale itsua zan, eta neurtitzeton bere, autuka diardue ango bizidunak, geienez giza eta emakumeak. Teatru lan politik egin izan eukean, orretara jarri izan ba litz.

Buru–jantziek eskeintzen deuskuezan gogo–problemarik ez eban agertu. Ostera, nobela errikoiak asmau zituan, erri zeeko asi–orrazi ta gorabeerak ederto batean esanaz. Orregaitik ba, elebarri biok, euren ariak dauken arreta ta interesaz baiño bere, jantziagaitik izkera dotore ta jatorragaitik ditugu jakingarri.

Berbakuntza gozo ta bizia darabil beti; iturri onekoa, aren aldiko euskaldunen ezpan–artekoa. Euskaldun batena, arduraz orraztua, labur esateko. Noizean bein, erdalkeriaren ikutua izan arren, ta ori itzurrenari buruz soilik, euskal–esanaldi bitxi, txanbelin ta mamintsuak daukaz oparo, ta orregaitik, aren liburuok eta barriro irakurtea onuragarri litzakigu oraingo edonori bere. Aldi onetako erdalgiro onetan, itzez ezezik esanaldi neo–mordoillozko aro onetan, bear–bearreko esango genduke.

Azalaz

Letra–saillean jardun ete eban gaztezaroan Etxeita–k, ala euskalmiñak biurtu ete eban idazle? Ez ete zituan zaartzarorantz egin, elebarriok? Lumazale batzuoi jazoten yakun antzera, bear bada, ez eutsan literatura–ikasketai ekin oi dan gaztezaroan. Ez dakigu agiñak bardindu aldian jardun ete eutsan. Geienbat, irakurri ebanaz adoretu zan, ta orrelan asi zan, premiñaz beterik ekusan euskera baztertuari emoi barriak eskeiñi nairik. Zalantzarik bage, Truebaren lanak begiko zituan, ta baita Mogel–en ta Txomin Agirrerenak bere. Pierre Loti–ren irakurgairik ezagutu ete eban?

«Jayoterri maittia»–n ezarritako «Berbaurria» ausnargarri bekigu, aren jakituria ta biotz–kezka ta artegatasuna txastauteko. Esaldi batuzk erraldatuko ditugu ona:

(5 gn. orrialdean). «Ai, irakurle maitia! Gure asabak, lurpetik lurganera igota, ikusiko ba lebe euskera mendijetatik be aldenduaz duala, ta euskotar askok eztabela ulertzen euren errijetako berbeta ederra, lenbailen, barriro, arin–arinka litzakez, arriturik, eta euren semiak ain aldakorrak izan dirala siñistu eziñik. Guretzat ezin egon leiteke, geure eztitsubakorik, eta bijotzak ariñago samurtuten dauzanik…»

Apala zaneko erakusbidea, onako itzetan ikusi giñei. «Olako irakurgeiak —diño geroago— nik baño milla bidar obeto egingo leukezan euskaldunak dagoz…»

«… Geure berbeta eder ori euskaldunak alkarregaz egin ezkero, berbakuntza guztijak jarraitu oi dabezan bidiak jarraituko leukez, berbak geitubaz ta garbitubaz urtearo».

«Lege bategaz iratzi biar da izkelgi bakotxa, ta zein izkinde artuko da? Orixe da lenengo erabagi biar dana. Erabagi ezkero, orixe

izango da geuk ixentauriko euskerea, ta guretzat, garbijena. Artian, al dabenak al daben euskera garbijenaz argitaratzen ba doguz irakurgai ta ipuin onak, beteko dogu euskera maitia garbitzeko ta zabaltzeko daukagun egipidia».

Fonetika–arpegiak edo jantziak, arduratan jarri eban Etxeita, itzen jatorriak ainbatean. Orregaitik, «bidea, soloa, mendia, zirean, direan» idatziko ditu lenengo liburuan. Eta «bidia, solua, mendija, ziran, diran» bigarren irakurgaian. Erdalitzak, argiro igarten dituanak, kursivaz jarriko ditu.

Itz barriak eta erdi ez–ezagunak, orrialdeen barrenetan jarri oi zituan, aen esangurea gaztelaniaz adierazirik. Berba banaka batzuk, berberak asmau bere bai. Demostrativu dalakoa, inguru onetan lez darabil, atze–aurretan. Aditza, itaurreko daroa sarritan jator ez dan moduan, gaztelaniar izkera–kutsuaz. Atzizkiren batzuk ez erabiltzan egoki: –ren ta –en; –ari ta –ai, ei; –tera ta –ten; –la ta –nik, iñoizka itxulastu oi ditu. Aditzaren jokoetan, irugarren notiñak leen–letra bage jarten ditu, iñoiz ta joaneko ta oraiñeko erak naastauten ditu bakan. Makurrok edo utsegiteok, pare bat kuartillatan sartu leitekez, ta orrez berezi, jatortasuna dario aren luma azkarrari.

Giputz–ikutua dauka *zer* batzuetan. Esaterako, –txo txikergarria darabil beti, ta ez –txu; eta –tera esan–bearraren esan–bearrez, aditzak –ten eskatzen dauanean bere, –tera ikusi izan dogu iñoiz. Urten, igon, beste izkelgien erara darabiltz noizean bein: urten zan, igon ziran, eta abar.

Esanaldi sail ederra batu leiteke aren lerroetan: batzuk oargarri yakuz; beste batzuk pitxi apaiñak, «Kresala»–ren egilleak berberetzat artu eukezanak. Ezagun dabe biok aldi batekoak zirana, ta euskal–eragin bardintsukoak. Gaurko idazleetarik geienok, urriegi ditugun esakizun txairo ta jatorrik asko.

Gramatika egokirik izan ete eban Etxeita–k, esku–artean? Ai, Altube–ren «Erderismos» joria ezagutu izan ba leu!... Gogatsu ikasi ta jagon izango zitukean, nunbait, arau zeatz eta aberasgarriak. Arauok, ostera, oraingo idazle batzuek bere, ez ditue gogoko. Gaztelaniaren itzurrena etxekoago yake, eta ortik dator jokera errezenaren zaleago izatea.

Etxeita–k, bear bada, ez zituan beti anaikiro buztartu semantikea ta itzen garbi–miña. Kezka ta ardurearen faltaz, ez ostera. Euskera erdaltsuaren zale diranak, aurki, ez dabe orrelako okerrik; ta euske-

ra asmau gura dabenak ez dabe itzen nortasunaz begiramen aundirik. Egia da izkerea, beraz, asmoen agertzaille soilla besterik ez dana. Beraz, aldakorra da, gizonen oitura ta gauzen antzera. Baiña elederreko lanak, izkera narratsez ta zazkelez jaztea ta argitararatzea jokabide sasikoa izan da beste izkuntzetan, oker ez baldin ba gagoz. Erriak bere izate apalean, bere zeetasunean, euskera txairoagoa —bai itz jatorrez, bai alkar-buztartzez— gogozago entzun oi dau autuetan, itzaldietan eta edonun. Ori egiztauteko aukerarik izan dauanak, ondotxu daki. Ta obeto dakianari izketan entzun ostean, euskaldun arrunta, erritarra, ondamuz geratu oi da, izkera ain dotore, banako ta mamintsua jakin ezaz. Ta ez dogu orain ontzat emon euskera gatx ta asmau–ala esanikoa, euskera errikoi ta berezkoa baiño, garbitasuna ta garbikeria zer bardiñak ez diralako, ain zuzen bere.

Euskal–idazle izan ez diran letradun edo burujantzi asko izan da Euskalerrian. Esaterako, mixiolariak, eta baita autorrentzuleak bere. Eskribauak eta, osagilleak eta. Zenbat jazoera, zenbat egoera latz nobelagarri ez ete ditue ikusi ta bizi–izan, berbarako, mixiolari euskaldun sail zabal eta edatsuetako gizasemeak? Zegaitik ez ete deuskue aberastu gure elertia, irakurgai biribillak agertuaz? Gogoan dogu oraintxe, Jon Mirande–k idatzi eban arako esanaldi gordiña: euskaldun elizgizonak euren Erriaren alde baiño bere, beste batzuen alde lan egin izan dabela geienbat; eta sari ordez, ostera, esker txarra baiño ez jasoteko… Egia da, alan bere, euskeraren alde jardun izan daben euskaldun euskaltzalerik zintzoenak ia beti, ain zuzen elizgizonak izan dirana.

Beste letradun asko, ibiltariak, itxasgizonak, aundikiak batez bere, iñoiz agertu al izan dira euskeraren aldeko lanetan? Gurasoen berbeteari ez deutse jaramonik egin; iretargiak txakurren zaunkai ainbat. Literaturaz prestaerarik izan ez dabela, aurki?

Gure izkerako nobelagintzea, beraz, atzo goizekoa da oraindiño. Erkiña da ba, urria, umejantziduna, sustar motxekoa. Unamuno–k eta Pio Baroja–k euren nobelarik geienak edota guztiak, lendabizi euskeraz —ta gero gaztelaniaz— argitara izan ba litue, barriz, ez ete zan sortuko beste modu bateko zaparradea euskerea dala–ta ez dala?

Gunaz

Azaleko gaiak nagusi dakarz. «Jayoterri maittia»–n, lekua ta notiñak, lenengo lenengotarik agertzen ditu; pintore errimea da, ta ez

edozelako esalea. Itxas–bizitzako zerzelada aundi–maundiak egoki damoskuz. Barruko bizitzeaz ez dau luzaro jardun oi, geienbat.

Baserri–bizitzea ezagutzen dau, eguno ba. Ez ete ditu gai oetxek beste ezein baiño artezago ta txukunago bururatu? Baserri bizitza ori, ezagun ezagunean idealpetzen dau bere lanetan, ta anartean, Agirre–ren «Garoa» entzutetsua, agertu bage egoan. Emen ez eutsan gure idazlerik jatorrenari ezer ikasi, ta alan bere, aipatu dogunez, alako lillura —ikutua dauka nobela onek, basotarren izakera orrezaz.

Gure elederrean oi ez diran atal jakingarriak bere, ba ditu. Orra or «Josecho»–n, 143gn. orrialdean, landaraz ta abereez; 177–8–9 gn. geografi–ariaz, ta 244 gn. London–go Zoo ta parkeaz lerro erreskada bakanak.

Argiro darakus lege zaarreko ezkontza askoren jatorria; gurasoak oi ziran buztarrigille ospatsuak. Gonadunak ez ziran elementu makalenak gauzak iñoiz buruz–beera ala oiñez–gora jarteko. Lege zaar ori ez da, arranotan, zearo atzendu.

Barruko sentipen arruntak aulariak, erri zeearenak azaldu ei zituan. Jakituriazko asmoaz ez egoan orduan euskal–barrutian, buru–auste larririk. Jokabideak eta bakotxaren egitada zintzo ala makurrak ziran esangai. Uriko nobelagillerik ez genduan, anartean. Oraintsuago agertu yakuz, batipat. Atal alaikorretan, lagun bat da nabarmen, esan dogunez arako Agaton, bere tontor ta guzti. (Ikus, «Jaioterri maittia»–n, 114–15; Hamburgo–ko korkotxak, 145–46).

Noizpaiteko oitura baten jarrai, idazleak sarriegitan irakurlea bakarrik uzteko larritasuna edo, erakusten dau. Kapitulu askoren amaieran eta, emengoen jazoerak isilduaz, angoen billa joateko gertauten dau irakurten diarduana.

Arima kezkatsua eban gure idazle itxastarrak. Zeaztasunak zuzen ta zuur emoten oitua nunbait eta estadistika–zale amurratua da. Zerzelada ta koxka ta buru–buztanak, ziur esaten dakiz, ainbesteko bear–zanik bage. Arako zigorradak; Josetxo–ren ta Eladitxo–ren adiñak sarriro gomuta–erazoten deuskuz; zapladak eta sariak zeinbat eta zelakoak izan ziran; egunak eta abereak; Sabas–en alabak eta euren adiñak: Dari–ren geiso–aldietako egunak; irabaziak eta diru garbitasunak… txit zearo jarriko ditu lumeruz.

Artzaiñen dantza, soiñu, jolas, barre, bertsu ta abestiak unerik une esango deuskuz, larregian bear bada: 128, 143, 167, 169, 179, 211, 246, 254, 255 gn. orrialdeetan, «J. Maittia»–n. Ezin ukatu ar-

tzain–bizitzea birloratsu agertu bearrez idatzi zituala, barruko garrari amoremonaz. Moralzale bere agiri da, ta itzelean atan bere. Berengiz «Josecho»–ren zenbait lerroetan: 236, 245, 257, 368 gn. orrialdeetan. Auxe dirausku 239–gn.: «A zan zorakeria! A zan zentzubakoak izatea…» Eladitxoren guraso setatsuei buruz. Bestelako aldea, ainbat nobelagille amoralekin!

Matasearen kozkona edatzean, alkarrizketa eta autu luzangak idoro giñeiz. Baiña, aldiari bere, jaramon egin bear deutsagu; aintzindaria genduan eta eredurik urri izanik, iñoiz arbin ta noraezean aurkitutea Etxeita gurea, izan zeitekeana da. Alan bere, ba eukan goiaize putz meeia, arnasa jasoa, oldargi zirkiña. Mendeen mendetan eratuten dira izkuntzetan arako idazle goitarrak, eleder batentzat ore ta legami, sustarta irozogarri diran zerutar emoi bikaiñak. Eta euskaldunok, oraindiño, idazle goren orren begira gagoz.

Beste atal erakusburu batzuk oneek ditugu: 128 gn. Martin Zaldi–ren ezizena zala–ta: 181–4, Ermoken ta emakume zaarkote baten autua eta abar («Josecho»). Ta bigarren nobelan, 101 gn. Agaton–en ezkontza–mandatua, 114 Mandazaiñagaz barriketea, tontordun berberak. Eta beste asko ta asko.

Ez dirudi nobelan, —nunbait antzezlanean areago bear arren— autuak eta barriketak, bardinkara samarrak esanerazogarri diranik. Onetan, jorra estuagoa egin bear eukean idazleak, eta an or emen, lanok meaztu ta mozkindu.

Itzul–joera politak ditu, letragizonaren ikutu biguna daben errepika ta leloak. Sarriro agertzen dau bigarren elebarrian alako basotar poesi–lurruna. Eta «Josecho»–n bere bai leloak, esakera politetan: «Nor ete zan arako neskatillatxoa, bere begi baltz ederrakaz…» Eta Juana–Mari–k oi eban esan samurra, bere senarrari gogoratzeko: «Gomuta dozu, Txomin, zelan esaten neutsun mutiltxo ori agertu zanik arrezkero…»

Biotzeragiña

Orixe agertu deusku arek argi ta garbi lan guztietan. Etxeita gurea biotz–idazlea da nabarmen, baiña edermena bere, aragi bizian dauka, ta gure nobelakuntzan maisutzat artuko dogu, beste batzuen alboan. Sinismen sendoko gizona, zuzen, langille, samur ta argia, aren gaiburuak Euskalerriari eutsan maitetasuna billoizik azaltzen

dabe. Eta 362 gn. orrialdea irakurri giñei: «Euskalduna ziñean — dirautsa Josetxori— ta eneban iñoiz euki zure jatorriaren bildurrik». Leentxuago, 324 gn. agiri da: «Bakizu, Sabas, zein indar daukan euskaldunaren berbeak, eta berbatuta ba dago, ezin aldatu leike ezegaitik». Izneurtu bitan «Aritx maiteari» eta «Bizi bedi euskera maitagarria», gure Erriaren izate osoagan griña zuzen ta gartsu ta bidezkoa erraldatu, zuzpertu ta atxikierazo nairik, itz bero ta barrukoak azaleratzen deuskuz euskaldun guztioi. Txomin–Txiki–k erriko osagilleari esana, Peruk Maisu Juan–eri agertua zan nunbait:

—« Zer gauza txar dakarren? Zuk lez, euskaldun guztiok erdera berba egingo ba geu, laster amaituko litzake euskaldun ta euskalerriaren izatea; zegaitik, euskera barik, ezin egon leiteke euskaldunik ez euskal–erririk. Orduan erdaldunak izango gintzakez guztiok».

Mundaka–ko erriak zor aundia deutsa bere seme leial ta zintzo oneri. Noizbait eta leenbaileen goratuko al dau, merezi izan dauan aiñeen.

(Larrea'n, 1961–X–29'ko. Olerti–egunean irakurritako lana.)

Eusebio Erkiaga

AITA KANDIKO BASABE, S.J. EUSKAL–IDAZLEA (1867–1928)*

Lekeitio–n, 1867 gn. urteko urriaren 3–an eguberdiko ordu batetan jaio zan seiñari, egun berean, izen bi ezarri eutsezan bateoan: Kandido Antonio. Alan bearrez edo, ez eban amabitxirik izan, eta guretariko askok txikitan jan izan oi genduan mokotz gozorik jateko aukerarik, ez eban izango, aurki. Aren aitabitxi, Pedro Antonio Gabiola abade jauna, Amoroto–ko semea, izan zan, eta erriko oiturea zalata, orra gure seintxua nundik nora geratu yakun amabitxirik bage.

Gurasoak, Pedro Migel Basabe Agirre, ta Maria Kruz Retolaza Aberasturi izan zituan, biok lekeitiarrak. Aitita–amamak, aitaketz: Migel Iñazio, erriko semea eta Madalen, Nabarnizko alabea izan zirean; eta amaketz, Geronimo ta Maria Karmen, biok lekeitiarrak oneek bere. Jatorriari men–egiñik, ume a, gerorantz gizon a, errimaite ikaragarrizkoa izan bear!

Orain illabete batzuk, jazoera bakan batek eskuetara euskun aren liburuetarik txikarrena. Axe izan zan guretzat ustekabeko zera! Mundu traskil onetan, gure erruz edota besteren griñaz, ara ta ona sakabanaturik, euskaldun askori leenaren aria sarri askotan eten egin yaku. «Eleiz–liburutxua» guregandu, ta, euskaltzale lez eta lekeitiar lez, zor andi bat idoro genduan guregan, eta bapatean asmo bat otu yakun: Aita Basabe zenaren gomuteari ta aren euskal–lanen nekearen saritzat, merezi izan dauanaren ordain apur au eskeintzea.

Ta liburutxu au soillik barik, beste ederrago bi bere ba zituala jakin genduanean, alako poza ta dardarea banatu izan yakun gorputzean eta gogoaren barru–barruan. Liburuon billa asi giñean, ta eskuetan erabilli ditugu. Gure barruaren janari gozo ta atsegin izan ditugu, bai mamiñaren ederrez, bai izkerearen txukunez.

Urduria ta eragiña, argia ta bizkorra izan zan bere bizitza osoan Aita Kandido. Sendi apaleko seme, dirudianez mutiko zala an inguruan dagoan Olaldeko fabrikan ibilli ei zan. Txori–zale itsua zan, eta baso ta txaraketan eta mendi–bizkarretan ba ekian arek nun egozan txorilekurik egokienak. Amaika bidar ekin eutsen orretan, eta baita

---

* *Olerti*, 1963.

arraiñetan bere, gure Kandido–k eta gure R.M. Azkue–k, errikide ta txikitako lagunak. Ondo ekien mutil sostor aek Oleta, aingirak artzeko toki aukerakoa zana, an zubipean–eta!

Amalau urte zituala edo, mutiko biurri–samar areri dei–egin eutsan gure Jauna–k, eta okerreria guztiak eta munduazko ardurak alde batera utzi, ta gramatika ikasten asi zan, latin–ikasle Lekeition bertan, Uribarrendarrak sorturik egoan Eskolan. Gerorantz, Gasteiz–ko Mintegira joan zan abade egitekotan, eta Filosofia antxe ikasi.

Ogeitairu urte zituanean, Jesus–en Lagundia–n sartu zan, Loyola–n 1891–VII–27–an, eta Teologiako ikasketak Salamanka–n egin, irakasle Aita Txopitea, aulestiarra, Aita Iñiguez ta Aita Bascouret izanik.

Bai Filosofian ta bai Teologian ikasketak sakonagotu egin zituan, eta Maisu edo Doktore egin zan jakintza arlo bietan.

Beste batzuen artean, Aita Ogara izan zan aren ikaskide. Gure Patroi Andiaren egunaren bezperan, 1901 gnko. uztaillaren 30 gn. mezadun egin eban Oña–n, Burgos–ko Kardenal–Artzapezpiku Gregorio Maria Aguirre jaunak, euskaldun semea bera.

Bitartean, iru–lau urtez irakasle bere, jardun izan eban arren, arik arrezkerokoan, aren zeregiñik arduratsuena arimak bide oneratzen ekitea izan zan. Aren lanik beiñena ta bikaiñena, izlarikuntzea. Gazteiz, Salamanka, Loyola, Burgos, Oña, La Guardia eta Carrión: orra arek ezagutu zituan egotaldi–tokiak. Jauna–ren azi ona ereiten Euskalerrian egin eban lanik iraunkorrena ta jarraikoena, emendik kanpora bere jardunaldi onuratsuak egin zituan arren. Egotaldirik luzeena, ostera Bizkaia–n, ta batez bere, Durango–ko jesuslagunen etxean, Gogo–iñarkunak egiteko eregitako etxe guztizkoan.

Gazteleraz bere, egin zituan itzaldiak, gorago aitatu dogunez. Batez bere, 1921–22 aldian Gazteiz–en egon zanean. Orduko errege Alfonso XIII gn. aginduz jesulagun batzuek, egozan tokietatik erbestera bialdu zituezan: gure Aita Basabe, Gazteiz–era; Aita Jose Larrazabal, lekeitiarra au bere, Donostia–ra; Aita Horn Areilza, Burgos–eraiño. Aita Ibiñagabeitia bere, gomutagarri da jazoera orretan. Deusto–ko ta Orduña–ko jesulagunen etxeak zemaipean eta ertsiteko arriskuan egon zirean unada aretan. Zirikatzailleak, bertoko seme jauntsuak izan zirala entzunik gagoz. Aitaturiko seme euskaldun jesulagun oneen obena ez zan besterik izan euren sorterria —zuzen ta bidezko danez— maite izatea baiño.

Arima–zale gartsua zan; gazteak zituan kutun, eta batez bere, mutil koskorrak. Bere jaioterrira agertu oi zanetan, joranez ta pozarren batuerazoten zituan mutikoak Konpañia–ko eleizea deritzanean. Alai baizen egizalea zan; beiñola an Lekeitio–n, esaniko eleiza orretan batzandu mutikoak, eta mutiko azartu ta sendo bat eskatu eban. Agertu yakan mutil sostor bat, gogorra ta okerra bera. Altara nagusi ondora igon–erazo, ta atzamar bat kandela–sutan ipiñi egiala agindu eutsan mutikoari. Baita onek ezarri bere, ta ganera denporatxuan eukan euki, erre–usaiña ia asi arte… makala, oskilla ta bildurtia zala iñork esan ez egion. Onetan, bapatean, ai! txilio zolia egiñik arrapaladan aldendu eban sutatik bere eskua; inpernuko suaren tayuzkoa zala jakiñerazo nai eutsen, su bildurgarria…!

Aita Kandido–ren alegiñik buruenekoa, kristau–doktriñea irakastea izan zan. Ao batez esan deuskue bera ezagutu ebenak: «Axe izan zan bai benetako apostolu ta mixiolari zintzoa! Ai, alako batzuk ba genduz orain bere!»

Jente apal ta lauari Ejertzioak egiñarazoten ekiten eutsan batipat. Arrantzale ta nekezariak izan oi zituan sarritan, bere artaldeko ardirik kutunenak. Eta orretan maisua zan, izlari leberra, arimazale itsua, zuur ta gurbilla, baiña egi biribillak esaten zalezalea edonori bere.

Gorputzez ez zan andia ez txikia, bardingoa baiño. Azken urte–etan buru zuri–zuria, gomutea doi–doi dogun arren. Alaia beti, azkorra, zorrotza, esangiña ta barreikarria. Sonatsua, Mogel–ek esango eukeanez. Gogoen izakera–neurri kontuan, sikologi zeretan, zolia ta artarakoa. Gizonezkoak ezagutzen zituan, eta baita emakumeak bere. Andrazkoezaz bai esan bere arek: «emakumeak, okerrak eta gogorrak dira, auntzaren adarren antzekoak».

Ipuintxu asko ekizan, arimen gorabeerak ta munduko zeren joan–etorri ta azi–orraziak. Gure mixiolari andia, andik eta ortik ibiltaldi luzeak egin ostean, Bilborantz agertu oi zanetan, emen egoten ziran Aita jesulagunak pozarren, eztegutan egon oi zirean aren esaera birtutetsuak eta gazi–gozoak entzuteko abagunea ebenetan. Zeruko ta zerurako gauzen artean, mundu–ko amaika esan ta gertakari bitxi ta illunak jakinerazoten eutsezan bere anai laztanai.

Zintzoa zan edozein arlotan. Onbidetsua, biotz eder ta zabalekoa. Gizon ona, ao betean esateko.

Bezuzarik politena ta esku–erakutsirik bitxiena lez artu ditugu aren iru euskal–liburuok, eta irakurri–ala, guk geuk beiñipein, aspal-

dion nabari izan ez genduan alako zer bat izan dogu kolkoan. Txikitan edan oi genduan iturri gozoko ur berbera edateko ereti atsegiña, aukera txolingarria izan dogulako. Barriren barri irakurri izan ditugu txikitan ikasi genduzan betiko egiak, ta batez bere, jaioterrian egin oi genduan izkera bardiñean, gure erritxuko euskera bakanean. Ez dogu orrelako iturbururik susmau, R. M. Azkue–ren «Bein da betiko» liburuan izan ezik. Orduan bai, Azkue andiak, angoxe izkerea emon euskun. Arik gorakoan, ostera, gure berbetearen bizi erkinduari eutsi bearrez, batasun aldeko lanari amore emonik, lan goragarri orreri ekin eutsan batipat, eremu txikietako izkera bedegarrak alde batera utzirik. Gure Aita Kandido–ren idazlanak angoxe berbetea batu deuskue, ta lekukotzat utzi.

Lekeitiar izkeraz jardun arren, Bizkai–aldeko idazleen artean mende onetan beintzat, aurrenengo mordoan jarri leitekezanen pare bere, ezarri giñei Aita Kandido. Barruko nasaipidez ta atsegin pozkorrez adierazo nai dogu gaur. Mamiñean, gunean, egokiak izan zirean liburuok; jantziz ta azalez, mintzakeraz jatorrak ditugu.

Izan bere, erabateko gaitasuna agertzen deuskue, ta ainbat gauza bakan, bikain eta ikasgarri. Bear ba da, arek daukan idazkera jatorrik ez darabilgu geienbat, gaur eguneon Bizkai–aldekuok; gure izkelgiko lanik geienak izkera ortik–emendikoa dauke sarritan, guztia bearrekoa. Asmoak sakonakoak dirala–ta batzuetan, eta beste batzuetan idazleak euskeraz zuzen ta jator ez dakialako, artikulu ta liburu egosgorrak eta arrotz–usaiñekoak agertzen ditugu. Labur esan: lanok aituteko edo ulertzeko, gaztelaniaz *pentsatu* bear dala; au da, erderaz burua erabilli ta orduan euskeraz idatzita dagoana ulertu. Orrelango literaturea ez da izango, ausaz, euskaldun utsarentzakoa… euskaltzale dilettante diralakoentzakoa baiño. Garbi (?) miñak jota batzuk, garbitu bearrekoa ez dana bere, garbitzeko setakeriaz; eta beste aldekoak, gure izkuntzan ditugun itzak alde batera baztertu, eta itz arrotzak parra–parra ta iñoiz joskereaz edo itzurrenaz sekulako itxulaspenak egiñaz, egundoko morokildua ipiñi nai deuskue euskerea, gure aitita–amamena zanaz txit bestelakotua.

* * *

Azterpen luzeetan jarduteke, ereti onetan, burutu dagiguzan iru zer oneek, Aita Basaberen lanaren erakusburutzat.

1) Aren esanaldien estekatzea, eretza ta itzurrena, esanen lokarria ia betiro, esaleen aotik jasorikoa da; izkera bizia, errikoia.

2) Itzen aberastasuna ugari samarra, eta eurak erabilteko eukan sena ta eskua.

3) Beste izkuntzetatik egin zituan itzulpenetan ezarri eban egokitasuna. Egia da iztuna zala, idazlea baiño areago. Baiña argi ta garbi esan giñei, bere aldi aretan, aren irakurlea naiz aren entzulea ez zala geratuko guzti guztia ulertu bage. Aren itza, ta aren idaztortza argi ta errez ibilli zirean: izlari onaren ezaugarria, etorria dauan iztunaren agergarri ziurra; idazleak bere buruari opa deutsan zeruko doe estimagarria.

Esaterako, otoi ezagun onen asieran, ikusi zelan jardun eban: «Artu, Jauna, ta zeuretu egidazu nire lakemen osoa…» Edota arako beste itzulpen au: «… Si ascendero in coelum, tu ilic es… Zerura igoten ba naz, diño Salmogiñaren agoz Espiritu Santuak, an zagoz; inpernura jatsiten ba naz, aurrean zaukadaz; egoak artuta, itxasoaren andiko aldera igesten ba naz, an be, zeure eskumeak eutsiten deust…» *(Gogarteak*, 80 orr.).

* * *

Aren liburu nagusiok —Andra Maria–z bere, zerbait idatzi eban baiña—, oneetxek ditugu:

1. «San Iñazio–ren Ejertziuak. Ondo konfesau ta komulgauteko Irakaskizunak, 1910. 266 orrialde ditu, ta auxe da, an iragarten danez, baserrietarako, meza–liburuen artean egokiena Bizkaian. Liburu onetan fonetika taiuak, bere sorterrikoak darabiltz.

2. «Eleiz–liburutxua», 1914. Iru–lau bidarretaraiño ekaztua, gutun polita, 158 orrialde ditu. Emen bere, sorterriko fonetikea darabil.

3. «San Iñazio–ren Ejertzioetarako GOGARTEAK» Bigarren irarkintza. Libururik mardoena, 333 orrialdekoa. Liburu onen izkel–jantzia otsazal bage dago, fonetika agerkaiak ments ditu: berbeta ta esaera beteagoz, etorriaren agertzaille, ta iñoiz eleder ikutua igarten yakalarik. Batasunerako leenengo urratsa lez da, fonetika kontuari dagokionez, nunbait ordurako, Euskaltzaindia sorturik zala–ta, jazoera orren ondorena bai litzan.

Ba leiteke luzaro baiño leen liburu auxe barriren barri argitaratzea, esan deuskuenez Kerexeta abade jaun ta idazle azkorra asmo orretan dabillelako.

Gogarteok, jakiña, Aita San Iñazio–ren eraginpean idatziak izan arren, ta bear ba da, beste idazleren baten ikutua ba lebe bere, Aita Basabe–k oretu ta mamindu zituan, aren azur-mamiñak ditue, aren etorri ta arnasa beroa, aren eragin ziztagarria.

Bizkaieraz egin zituan iru lanok, barruan erabillen asmoa ta arloa burutu bearrez. Izan bere, beste lurraldeak aaztu ezarren, bere Bizkaia eban gunetaraiño sartua, ta arentzat zirean bere kutunketa bedegarrak, eta neurri izugarrian. Emengo beste Aita jesulagunei gure eskualde onezaz izan egiela ardurarik zoliena ta arretarik beiñena, eskatu oi eutsen, kezkarik miñenaz bai bizitzan, bai eriotzan.

* * *

Euskeraz idazten dabenak oraindiño bere gainditu ez daben eragozpena, izan izango eban zalantzarik bage, Aita Kandido–k bere. Kezkaz ta arrenkuratsu, zalantzaz ta arbin, batean eta urrengoan zelan idatzi bearko ete eban. Fonetika–aldakuntzak guztiak aintzat arturik? Norbere euskalkian, ta ganera, bakotxa bere baztertxuko izkereaz? Errialde batzuetako berbeta naastauenean, ta ganera, gramatika–arau zuzenai etxaramon egiñaz? Izkera sortubarriez, abstraktu–bideetan zear?

Itxasoko ugiñen gain dabillen ontzi umezurtzaren antzera jo ara, ta jo ona, batera zanbulu, bestera zanbulu eragin bear ete deutsagu gure berbeteari? Gizon baten ala besteren gogara utzi bear ete dogu? Errian ala gure literatuen emoietan sendatu bear ete dogu oiñarria, ta ganera, etorkizunaz eta euskerearen etorkizunaz, ez ete dogu gogoeta sakonik egin bear? Ez da bidezkoa gurea antzu–arriskuan jartea; ezta besteen itz orokarrak, eta erabatekoak ontzat ez artzea bere.

Izkuntzen gorabeerak, otz–otz artu bear ditugula gomendatu ta artamendatu deuskue, baiña erio ta geiso dagoanak, indarga ta vitaminagabe dagoanak, ezin iraun dagike luzaroan egoera ta bizimodu orretan. Guztion obenak eta zabarkeria aillagiñakoak ditugu. Or dabiltz irlandarrak, or diardue zetan edo atan urduri; baiña aen berbetea ezarian–ezarian ondamendirantz doa, ta ori, estaduaren laguntasun ta guzti.

* * *

Dana dala, idazle ona izateko bear diran asmo ta zolitasunaz ganera, izkerearen ezaguera sakona bear da, ta izkera orren bidez

egin, buruketak eta gogaketak. Jatorriari jaramon urri egiñaz, norbere iturburutiko askan egotaldi gitxi egiñaz, eta ordez, auzoko iturritik zanga–zanga edan ba dagi noznai, idazleak emon legiskuna erderea izango da, euskerazko adabakiz egiñiko erdal–oialez eundua; ta ori, garbi–miñezkotar ameslaria izan, ala prestamu–zale amorratua agertu.

Aita Basabe–k, bere irakatsia emon euskun arlo onetan.

Ez da zillegi idazleak, erritar arruntak baiño izkera baldarragoa erabiltea, batez bere, itzurrenean; eta erriak ulertu ezin legiona.

Aita Kandido–k izkera bizi, argi ta errimea erabilli eban betiro. Aditzean, joskeran legetxe, ale bakan ta ikasgarriak daukaz. Aditzeretan, belarrondoko galanta damosku oraingo aldiko idazleoi, arako apofonia dala–ta. Azkue–k bere «Morfologian» berariz jakiñerazo arren, orren barri izan ez dabenak, eurrez dira gure eskualdean. Ikusi daigun arek zer iñoan: (Morfol. 795, 560 gn. orr.):

> «Aquel fenómeno de apofonía propio de la Declinación (&61), consistente en la permutación de la final *o* de un tema en *a* (de *mando*, mandazain; de *zoro*, zoratu, etc.), se observa también en este campo de la conjugación.
>
> Las flexiones bizkainas dirautso (Zabala, fáb. 11) egin deutso, dauko (Añib. Esk. 32–16) y otras por el estilo, al sobrevenirles otro elemento cualquiera permutan su *o* final en *a*. Dirautsat (Apoc. bizk. II–XXII–18), biar yarraituko deutsagu (Per. Ab. 110–26), daukanak eztaukanari (Per. Ab. 123–8). Empeñarse en decir y escribir *daukona*, *daukola*, *dirautsogu*, como hace la nueva escuela, es luchar contra el genio de la lengua. Es de tal uso esta apofonía de las flexiones de recipiente y en las meramente objetivas del verbo eduki, euki, que hay algunas zonas vizcaínas en que se oye la *a* por *o* aun sin que se le agregue otro elemento de conjugación. Se oyen por lo menos en Marquina y Bérriz, dauka (Bart. Icas. II 322–18), eztauka (Per. Ab. 115–11), deutsa (Zabala, fáb. 11)… etc.»

Gure idazleak jatortasun orixe bere, polito batean zaindu dau. Eta arako adizkerak, esaterako *yako*, orrelantxe darabil beti, Mogel–ek eta Txomin Agirre–k oi eben lez; baiña gero bai *yakon* ta bai *yakan* idatzi oi zituan. Eta yakanean, yakalako, yakaz… Pedro Astarloa–ren antzera. Iñoiz ganera, ba dirudi yakon, oraingo aldiko lez ezarri nai dauala, eta yakan leenaren ezaugarri, semantiku banaketea egin

gurarik edo. Baiña beste forma oneetan beti dabil zintzo ta batean, (Aita Uriarte be sartu giñei talde onetan); *deutso;* gramatika–gei barriren bat iraztean, ostera, deutsan, deutsanean, deutsazan, deutsaneko, deutsanetik… Azkue–k iñoan legetxe.

Ona emen beste itz bat: dauko; baiña gero, daukan, daukanetik, daukalako. Orobat beste oneetan: yagokaz, joakanez.

Eta itz ikasgarriak edota bakanak Aita Basabe–k? Bai batzuk! Ainbat bidar irakurri deutsagu «allagiña»; itz au ez darabil orain iñork, oker ez baldin ba gagoz. Orra or Azkue–k dakarrena bere Iztegi nagusian: «ailadin, ailagin», «todo lo posible, sobremanera». Beste askotan, frutua esateko «ekarria» idatzi oi dau. Mene–menetik, berbarako, onik–onenean, ekandu, iñoren ederra egin, zure ederragaitik, ilteko arian, toki sorrena, toki minbereena, gauzarik–gauza… Eta ereti itza, edonoiz; gaur bere bizirik dirau berba orrek, gitxienez Bakio–tik, (emen erderaz berbaegitean bere esan oi dabe: «ahora viene el ereti») eta Lekeitio–raiño. Egin aditza, =esan edo norbere–kolkorako danean; beste batzuetan, egin= uste izan. Eta esana =onua, agindua; esana egin= «obeditu»; esanekotasuna…

Beste zertxu bat, zer esan andikoa izan zana. Lenengo liburuetan Aita Kandido–k itzera oneek eurrez samar ezarri zituan; ta gero bere iñoiz oartu gatxakoz: Aitiari (13) Aitiaren semea (15) Aitiaren eskuman (15) Aitia Betikuak (17); «Gogarteak» liburuan bere bai: Aiteari, Aitea–gana (90 orr.) Aitea (197 eta 217)… eta abar. Izketa arruntean ez dogu iñoiz guk esan, pertsonakaitik; baiña bai txorietan; txoriabian, kumak eta aitea ta amea. Osterantzean, iñoiz bere ez. Ostera, orra or Bizkaian beintzat, bilbotar erdaldunak bere bardin esan oi dabelarik: «Aitearen, Semearen…»

Antziñako erak bere agertzen ditu aditz forma batu edo sintetikoetan: dakusgu, nenkusan, zakustaz, darijat, dariadazan, dariakuz, zirautsan, yagokat, eztakutsu; darrayokan…

Gure lan au ain latz eta zail izan ez dedin, erraldatu daiguzan orain, Aita Basabe–ren esanaldi, biribil, bizi, koloretsu ta zirigarri batzuzek. Baiña azaldu daigun lendabizi ez ebala arek anafora ospatsu orreen premiñarik izan, euskeraz parra–parra ta argi idazteko.

Beste oar bat: lenengo lanetan, aditz lagungarrietan epentetikak erabilli zituan arren, gero, verbua batasunerantz bultzatu guran–edo, geienbat ez zituan jarten.

* * *

«Gogarteetako» zerbait ezarriko dogu emen lenengo, «Berbaurrea'ren» puxketa bat. Kristau, arimazale, euskaldun ta euskaltzale agertzen yaku beti bere, gure Aita Kandido.

Ona «Berbaurreko» atal ori:

> «... Ganera, arrigarri da ze gitxi diran Euskaldun artean, gogarte (meditaziñoari) yarduten deutsenak: orregaitik edo, izango ete da gure artean ain santu gitxi aurkitzea? Egia esan, libururik be eztaukagu orretarako, kaskar batzuk baño–ta. Gogartera zaletu zaitezan ba, emoten deutsugu liburu au, Euskaldun kristiñau maite orri. Artu, irakurri, erabilli, sartu, buruan baiño be biotzean geyago, gure Erlejiño santuko egi mamintsuen onek, eta laster zeurorregan ikusiko dozu ze onuratsuak diran... Eta onelantxe zure gogo edo arimeak eukiko dau ia urte guztirako jakia.»
>
> «Artu egizu ba, mardo, sendo, loratsu; eta bere ekarriz bete dagizula, ez bakarrik zeure burua, baita zeuen etxeko ta beste ingurutako guztiak be. Auxe da biotz–biotzetik opa deutsuna EGILLEAK.»

Beste esanaldi politik ugari ditu, eta ezin ba, banaka batzu baiño ona aldatu. Asko berexi izan ditugu, baiña dozena ta erdi inguru berrezarriko ditugu emen.

* * *

«Asko jateak gorputza sendatzen ez daben lez, jaten dana ondo egosteak baiño...»

«Zorionekoa, zer nai ta axe daukana da.»

«Baña gauzen didarretara gortuta, neure griña zitalai jaramon eginda, gauzarik–gauza ibilli naz, neure zoriontasunaren egarria nun asetuko... Eta olan da guzti be, euren, gauzen atzean nabil, gau ta egun geratu barik, ainbeste alegiñegaz, beste zeregiñik ezpa neuko lez, neure arimatxo au zokondo batean, mantar zatarra lez baztertu-rik itxita...» (Gog. 33 orrialde).

«Zer deutso gizonari, mundu guztia irabazi arren, bere arimea galtzen ba dau?»

«Osasuna nai ondasuna galdu arren, itxaron neike nundik edo andik barriro etorri leikedazala. Baña arimea, bein galtzen ba dot betiko galduko dot. A, salbaziñoa bein bakarrik jokatzen da. Eta arima bat bakarrik euki, ta bera bein galtzen ba dot, betiko galdua egon, guztia galtzea izan...» (gog. 35–36 orr.)

«Durundi egiten deust neure belarrietan juizioko turuta ikaragarriak…»

«Espiritu Santuak emongo deutsu ziurtasuna, onako gauzetan euki leikeanez, bakean biziteko bestekoa. A, eztago ziurtasun ori lako eztegurik! Munduko jolas eta atsegin guztiak baño gozoago ta eztitsuago da» (Gog. 41 orr.)

«Gogoratu dagidazan gauza bi, ziñismen apur bat daukanari odola zanetan leituta iztekoak…» (Gog. 74).

«Zer erantzun nekizu, Jauna, lotsearen lotsaz, berbea eztarrian itoten ba yat?» (Gog. 84).

«Begietatik dariadazan negar–malkoak dirautsue, ene jaungoiko maite ori, nire berba guztiak baño obeto…» (Gog. 84).

«Zenbat bidar, ene arimea, dardar ipiñi zaitu gomuta onek: Salbauko ete naz? Zenbat bidar loa galduerazo deutsu? A, ezagun da, motela dala zure ziñismena. Zelan bizi gara zabal–zabal, zelan lo egiten dogu bake–bakean, pekatuan egonda? Lorik be egin ezinda…» (Gog. 40).

«Inpernuan, zer da dakutzuna? Laba gori, luze, zabal sakona; goyan sua, albo guztietan sua, ta erdian suzko itxasoa; ta bertan, gora ta beera galduak, arrañak uretan, eta lapikoan babak lez» (Gog. 110 orr.)

«Ze errukior, biotz bigun ta maitagarri dan, allagiña iraindu dogun jaungoikoa!» (Gog. 179).

«Aita, barriz, ze ona! Onegia esaterako! Zatitu ondasunak eta gazteenari yagokana emoten deutso…»(Gog. 180).

«Aragiaren gosea bete nairik joan nintzan erbestera. Baña ezin bete! Zelan bete aragia? Ezin lei. Usana lez, beti dago «betor, betor!» iñoiz «naikoa!» esan barik. Salomon–ek ez eban bete, nai eban guztia emon arren; ainbat gitxiago, berak beste aukera ez daukanak.» (Gog. 183).

«Baña ikusi ebanean bere burua bakarrik, lagun barik, eztia amaitutakoan euliak izten daben ezti–lapikoa lez; otsein, arizpean, txarrizain, zartea eskuetan, etxetik atera ebazan soñekoak urratuta, ortosik, ugazaba gogorra, dirurik ez, gosea barruan; gogoratzen da etxeko ugaritasunez, eta egiten dau: «Amaika otseñek ba dauke ugari jatekoa nire aitaren etxean! Eta ni emen, goseak ilten!» (Gog. 187).

«Eleizara joaten ba zan, iñoren ederragaitik joaten zala.»

«Andra Maria, neure Ama maite ori! Zeu izan zara bakarrik Adan–en seme–alaba guztien artean, pekatu ariñen gerizarik be euki

ez dozuna; beti egon ziran zure gorputz arimak argia baño garbiago, ta aizeak eztarabillen urazala baño baketsuago…»(gog. 102).

* * *

Ez euskun agertu gramatika–zaleegien artean oi dan zailtasun ta gogor–antzik, arauak premiñazko ditugula autorgarri dan arren. Aita Kandido bere aldiko gizona izan zan, eta orduan ebillen garrak ikutu eutsan areri bere, eta orregatik, itz barri batzuk aintzat artu eta bere liburuetan ezarri zituan, geienetan ordezko erderazkoa abarrartean alboan ezarririk.

Aren jardunok ez ziran izan eder–lanak, elederrari buruzko soillak direanak; interes bako letrak, orain esan oi danez, txukuntasunari ta gogoaren kirolari berariz eskeiñiak. Arimen aldeko liburuak utzi zituan, ain zuzen, ta aldi aretarako, gunez egokiak zireanak; nai–ta gaurko mundukoek beste asmo ta urduritasun ugari izan ta nabari. Ez eban jardun, beraz, idazle jaioak, jasoak eta buru–eretxiak, euren kereaz ta estiluaz oi dituen ardura ta buruausteetan. Txukun–ikutua, gun fiña, idazle giarra ta iztun–etorria, ostera, nabarmen ta ikusgarri azaleratu euskun. Txalogarria, ba, milla bidar Aita Basabe, euskereari utzi eutsazan esku–erakutsi marduokaitik.

Teatru–lanetarako zaletasuna, gogoa ta eretia izan ba litu, literatura–zelai orretan lan gazi–gozorik egin eukean, orretarako gatza ta etorria jatortasuna ta modu berarizkoak izan zitualako.

Akatsak? Oben arin batzuk, ez oben ilgarririk, berak esango eukeanez. Euskeraz jator ez dana, iñoizka esanaldiak, itz soilleko adizkera batuak, itaurreko barik ezartea: Dator arerioa… Doa gizon bat… ba–dator… ba–doa ta abarren ordez. Baita gerundio dalako asierak bere: Ikusirik an egoala… Entzunik alako gauzak,… an egoala ikusirik… alako gauzak entzunik, idatzi bearrean.

Errian zabal samar direan forma batzuk bere, agertu oi zituan batean batera, urrengoan bestera, esangura bardiñak dituenak: eutsaguzan = geuntsazan; eustazuzan = zeunstazan; eukazan = zeunkan, etabar. Kera orren barri ba damoskue Azkue–k, eta ugariago, Altube–k.

Baldintzetako formetan bere, ba dabil anarkia apur bat, eta ori orduan be bai, baiña gaur areago, nunbait. Ba zeunke = ba zendu–ren ordez; ba leuskit = ba leust esan bearrean; jakin izan ba neban = jakin izan ba neu; etorri ba zan = etorri ba litz…

Izan bere, ba dogu oraindiño alkarreri zer ikasirik, «Orixe» zanak azkenengo idazkietan esan oi eban lez... apaltasun apurra ba gendu!

Leengoen artean bere, ba zirean antza, akatsok, ainbakorik iñor bere ez gara–ta. «Peru Abarka»–ren orrialdeetan zear ibillalditxu bat egin barri gagoz, eta an bere, ale ezegokiok aurkitu ditugu. «Aserratuko ezpalitxakio (28,9), ezpalitxako–ren ordez; «Askoren bat emongo ba litxakezu» (33,10), ba litxatzu–ren ordez; «deituko ezpanenduke (157,19), ezpanendu idatzi bearrean. An bere txakurrak ortosik! —antziñakoen esana. Ezta ba, mirari, maisutzat ez ebillenari bere, obentxuak eriotea.

Itzurrenari buruz, Aita Basabe, gure eredu Txomin Agirre–ren prosa parebagearengandik urrago ebillen, «Peru Abarka»–n irutarik bat agiri sintaxis zazkelagandik baiño.

* * *

Gizon lez zelakoa zan, eta orobat kristiñau, euskaldun eta jesulagun lez, laurok batera jota, zeatz eta sakon ikasi bear litzateke Aita Basabe; orretan gaituak eta zaleak diranak or dauke gizon andi baten irudia, eta tamala izango litzateke ainbat zeetasun ta jakingei galtzea, denporeak gauzak eta inguruko pertsonak iruntsi oi ditualako.

Aita Kandido–ren ekarri eder bat, txirlarri apaiña bera, adierazo bear dogu orain.

Beste askoren artean, ona emen zelako arrain eder ta bana–banakoa artu eban bere sareetan Aita Basabe–k, zeruko ur atsegiñetaraiño eroateko. Ainbat urtetan eta tokitan jardun izan eban mixiolariak, zenbat arima ez ete ditu gorako bidean ezarri, ta bultzada sendoa egiñaz, betiko zorioneraiño sartu? Oneen artean auxe bat.

Bein batean, Gazteiz–ko Mintegi edo Abadegaien Etxean, ango gazteei gogo–iñarkunak egiñerazo eutsezan gure Aita jesulagun onek. Talde mardo aretan, ba zan abadegei bat, filosofiako bigarren urtean edo, apal eta nagi, bear ba da otz samar bere bai, ango zeregiñetan kili–kolo ta guztia bearrean ebillen gazte bat. Ejertzio aetan, enuxu banuzu sartu zan; baiña, aldatu zan bai, aldatu! Biotzaren zirkilluetaraiño elduerazo eutsan urduritasun bero ta suarra Aita Basabe–k; jainkozko garretan jarri eban gazte epela, lekeitiar jesuita azkorrak.

Arrezkero, gazte aura —aren ikaskide ta lagunak autortua—, beste bat zan; zearo aldatu zan abadegei epela zan a. Gogoa erne, burua adi, biotza su. Abade eginda gero, Seminario–ko gogo–azter-

kari izateraiño eldu zan. Geroago, Misioneras Evangelicas eritxenak (gaur Instituto Secular) sortu ta eratu zituan. Eta gazterik oindiño, 1954 gn. santu–otsean il zan apaiz ura: Rufino Aldabalde eta Treku, giputza, Aya–ko semea…

Bera izango da, beste askoren artean nunbait, Aita Basabe–ren zeruko koroian dirdizari diarduan txirlarri ederrenetarik bat.

* * *

Euskaldunak euren aldizkaririk bage bizi ez eitezan, 1917 urte inguruan, «Jesus–en–Biotzaren Deya» sortu ebenen artean, Aita Kandido izan zan buru ta eragillea. Idazlan txanbeliñik eta irakurgarririk agertu eban bertan.

* * *

Ainbat lan egin ostean, eta gure munduko esaeran zaarregi egin barik, areri bere eldu yakan negar–ibar au uzteko unea.

Aren ilbarriko idazlanean, «Jesus–en Biotzaren Deya», 1928 Epaillerako zenbakian, Aita Zubiaga S. J., ren lerro oneek aurkitu ditugu:

«Zeanuriko mixiñoetan ebillela, biotzeko gatxak jo eban Aita Basabe. Ia amar illabete emon eutsazan Jaunak, Loyola–ko leioetatik betiraunera adi–adi begiratu egian. Aita Basabe kikildu? Bai zera!

«— Zer egiten dau bedorrek, bakar–bakarrik gau ta egun? Ez da aspertuten, ala? —beñola Anai Geisozañak esan bere.

«— Aspertu diñozu? Jesus eta Maria–ren Biotzetan sartu, ta antxe eskeko umetxu bat legez bizi izatiaz aspertuko naz, ba? Esatia be!»

Goazan orain, Aita Juan Jose Goikoetxea–k leengo batean idatzi dauana irakurten eta gozartzen:

«Aita Kandido Basabe mixiolari errikoi ospatsua izan zan. Jesus–en Biotza–renganako eraspenaren zabaltzaille asperreziña, apostolu ta erlegiño idazlea Bizkaia–n. Oraindiño gogoan ta bizi–bizi diraue gure erriko askorengan, aren berba ta esaera ta idazlan ta jarraibide ederrak. Guri dagokigu zer guzti oneek batzea, Aita Kandido–ren irudia ta nortasuna, zan giñoan eta zan lakoxea ezagutu ta jakiñerazoteko. Nik neuk —darraio Aita Goikoetxeak— itzaldi askotan ezagutu neban Aita Kandido–ren asmo ta guraria, baiña batez bere, aren azkenengo geiso–aldian. Errege–egunez iztarra ebagi eutsen, pasmuak arturik eukalako. Bere geisote orretan beti egoan alai, ta kantari bere bai, zerurik urre–urrean egoala uste ebalako.

Jaungoikoa ikusteko gogoz egoan, ta baita berak, bere apostolukuntzan salbau zituan arimak bere. Arako *eskelea* dalakoa, eriotzea iragarriko eban il–barriaren idazkunea, berbere eskuz idatzi eban. Bizkaiaren salbakuntzeagaitik eskeintzen eban guztia.

«Errialde orretan ordezkoa aurkituteko eragozpenak–edo izango zireala susmaurik, esan eban: «Arazo ori, zeruan erabagiko dot.» Eta an egoan, Aita jesulagun bateri esan eutsan: «Berori izango da nire ordezkoa, oiñordekoa». Eta olantxe jazo zan. Arik ganeko 23 urtetan, oiñordeko Aita arek, 108 erritan egin zituan bere itzaldiak, erri bakotxean 15 egun inguru emonik, arimen aldeko lan mamintsu orretan.»

* * *

Il–aurretiko egunetan, bere Lekeitio laztanagaz eta ango Antiguako Ama kutunaren maitetasunaz irakiten eukan biotza, ta ara bialdu eban egaz bere gogoaren intziri samurra. Errian oi dan lez, Salbe bat abestu egiela ango abadeak, agindu eban Aita Kandido–k. Aren gurari ori bete bearrez, izan zan Salbe erregu bigun ori, ta erakusmeneko eleiza zabala lagunez bete–beterik egon zan.

Jo daigun barriro Aita Zubiaga–ren lerroetara:

«Astiro astiro, urtarrillaren 11 gna., ezteguetarako egun zoragarria eldu yako. Oge zurian luzez luze etzunda…»

Gure Jauna, aingeruen Ogia, elizako lez, Loyola–ko etxeko kapillan emon eutsen, Aita Kandido jesulagun jantzirik egoala. Akolitu dalakoa Aita Ajubita (Antonio), lekeitiarra, izan zan.

Onelan diardu A. Zubiaga–k:

«Aren gexozain Etxabe–tar Luis Anaiaren agoz, egun axe ekarriko ez ete ebalakoa aitu orduko, a bai poza gaixoarena!

«Zeruan be, alako alkar–izketarik!…

«—Benetan diñostazu ori, laztan orrek?

«—Baietz, Aita. Baietz ba!

«—Auxe da emoten deustazun atsegiña, Luis maite orrek! Gomutau be, poz andiagorik!… Eriotzearen ederra! Azken–egunaren maitagarria!… Orren errez il biar ete dot, ba, nik?

«Arratseko iru–iruretan iltamukoen argia biztu, Aita Nagusia–k ur onetsiaz ogea txipristindu, eta Eleiz Amaren azken–otoyak egiten asi… Aperiantur in coeli… Subvenite Sancti Dei…

«Basabe–tar Aba, orduan, *euskerazko* otoitxuak ezpan baltzituetatik eriozala, ta kurutzeko Jesus–eri alboko zaurian mun istu–istu egiñaz batera ilten da…»

Idazlan onen amaitzat, Aita Kandido Basabe–ren esanaldi biribil ta mamintsu auxe geldi bedi: «Guztiak, okerrik geyen dakarren gauzak, aize gogorra poparian daroan ontziarentzat lez, Zeure kai gozatsura ariñago eroateko baño eztira, Jauna!...»

Larrea'ko Olerti–egunean
irakurritako lana.

1962 Urriak 28.

Eusebio Erkiaga

«BELU-MENDU» ZINTZOARI, AGUR*

Joan dan illuntze batek ekarri euskun ilbarria. Barri samiña, albista latza beti bere, gizakiontzat.

Gernika-n, bere sorterri kutunean egin dau azkenengo taupadea aren biotz nekatuak.

Bareño Atxirika-tar Juli «Belu-Mendu» maitagarria bere, il yaku, 73 urtera eldu ostean. Goian bedi.

San Markos bezperako arratsalde argi ta ederrean izan da aren gorpu-lorra, bere uri zaar-barriztauriko kale garbietan zear.

Nor zan «Belu-Mendu»?

Gure aurretiko belaunaldiko euskal-idazle apal baiña atsegingarria izan zan. «Kirikiño»-ren magalean sortu zirean euskal-idazle sutsuen aldikoa.

Euskera errez ta errikoiaren zalea zan. Lantxu atsegiñen idazle, ipuin eta izkirimiri gozoak eskiñi izan deuskuz azkenengo urteotan Bizkai-ko «Anaitasuna» ilerokoan.

Esaera zaarrak-eta batzen jarduten eban; kantak, ipuinak.

Musikazale itsua zan, eta bere denporan Gernika-ko Orfeoi ospatsua izan zanaren istorio ta zertaliskiak idatzirik utzi ditu. Politak eta alaiak dira jazoriko orreek. Irakurlearentzat barreikarri eta ao gozo izango dira argitaratzen ba dituzte, batez ere, gernikarrentzat.

Altube-tar Seber euskaltzain zoli ilbarriaren adiskide andi zan. Adiskide eta ikasle bere bai, euskera-arloan zein musika-saillean. Ez eban, orraitio, gramatika-zeretan jardun arek lez.

Bareño urte batzuetan Gernikan eta Zarautzen Banco de Vizcaya diruetzearen Artezkari izan zan. Azken-aldi onetan, Bilbon eta Gernikan bizi izna da.

Baiña, Bareño-k euskeraren alde egin eban lanik (beiñena orduan) iraunkorrena ta mamintsuena, egunorokoan albisteak emotea izan zan. Gernika-ko albisteak astean bein eta sarriago bere iarkurri al izaten genduzan gerra aurretik, ainbat urtetan, orduko «Euskal-atalean».

**Zeruko Argia*, 66, 1964.

Erritarrak eta auzo giñeanok bere, irakurteko gogoa ta zaletasuna izaten genduan, errietako barriak jakingarri izan oi zirealako.

Orregaitik ba, gure artetan, euskal-periodistarik lenengoetarikoa izan dogu. Bizkaia-n, «Belu-Mendu» (Gernika) eta «Otxolua» (Mundaka) izaten genduzan albistagillerik azkar ta zintzoenak.

Nafarroatik, astero utsik egin bage, «Larreko» aaztueziña, eta Bidasoaz aruntzetik «Haur prodigoa» ta «Zerbitzari» oi zirean lez. Gipuzkoatiko barriak, «Luzear»-ek; Araba aldetikoak, «Zeletak»-k.

Eta Australia-tiko barriak, Balanzategi lekeitiarrak.

Belaunaldi orretako euskal-idazlerik geienak joan yakuz. Idazleak zirean, euskaltzale nekatueziñak zirealako, «Kirikiñoren»-ren labaldikoak.

Idazle apal ta bioztiak, pizkunde aldiko lenengo ibiltaunak zirean, lan aundi ta arroen eskabiderik ez ebenak. Oneen artekoa zan «Belu-Mendu» bere. Euren burua baiño maiteago eben euskerea, eta orregaitik, izen-abizenen ordez, *izenordepean* ezkutau oi eben euren burua: «Kirikiño», «Otxolua», «Larreko», «Belu-Mendu»... «Lizardi», «Lauaxeta», «Loramendi», «Luzear», «Orixe»...

Euren mezua ta irakaspena utzi euskuen. Ez dakigu bearrizana zan aiñako onurarik ekarri eutsen gure izkereari. Baiña, gizarajo aundiak euren alegintxua egin eben, borondate onez ta zintzotasun txalogarriz.

Beste aldika bat da, ostera, oraingoa, euskerearen bizian. Lan izugarria dogu egiteke ta egiteko, ondoren onuratsurik izatea eta jaristea nai baldin ba dogu.

Agur, ba, «Belu-Mendu» adiskide zintzo; egun aundirarte!

ENDAITZ

RESURRECCION MARIA AZKUE–Z ENE OROIPENAK, ETA ENTZUNAK ETA IRAKURRIAK*

Jaun–andreak,

Ez dut nire bizian Gipuzkoa eder hontan jende–aurrean itzegin. Bizkaierazkoa da ene mintzura, ta barkatuko ahal didazue, giputzez idatzi uste izandako hau, bear bezelako doiñuz ta sendogarriz baldin eman ez ba neza.

Dena dela, ezetzari baietzez erantzuteko mesedez eskatuko ziguten ezkero, orregatik agertu gera. Itzaldi honen gaia, atsegingarri da guztiontzat. Toki hau eta are entzuleok, orobat niretzat.

Eta besterik gabe, jo dezagun arira.

Osasunaz nahiz ondasunaz, adiskide miñez edota gurasoetaz gabetzen geranean gertatu ohi zaiguna, horixe gertatu izan zitzaigun Azkue–z ere.

Gure aldameneko, auzoko, ikusterrean ta entzuterrean genduenean, ez genion jaramon andiegirik egiten. Agian, hura zaharra zan; gu, gazteak. Orraitio, geroago ikusten ditugu haren lanak, liburuak; geroago aztamukatu haren nekeak; gerogarrenean neurtzen ta estimatzen haren garra ta jorana, haren mingots–aldiak, haren izerdia. Bizi luzeko eskeintza izan bait zan, harek Euskerea–z egin maite–eztai urraturik gabea.

Azkue jakintsua, biltzaillea; araugille ta antolatzaillea izan zan; irakaslea betiere. Azkue–z erran ditekeana, halaere, ez da oso ta betea izango, harek sortu musikaz eta haren elederraz ta poesiaz ere itzegin ezik.

Ta batez ere, elerti–puxka zoragarri diran haren gaztetango lanak, "Bein ta betiko", "Txirristadak" eta abar dastatu ta gozartu ezik. Eder–letra kontuan moko fiñak diranek, haren lenbiziko lanetan izango dute, geienbat, elerti–ukitu hori. Halako bizitasun eta etorria; halako izatetiko jator–usain eta keru atsegiña.

Jakintza–gaietan jardutea nekagarri ohi da, maizenik; hortan ere, alegia aldika–aldika atsegin ta poz sakon, bedegar ta ernagarriak nabari izan arren.

**Egan*, XXIII, 1964.

Guk geuk, Azkue bi bereziko ditugu beti. Batetik, jakin–gaietan eta maisukuntzan ari dan gizona. Eta bestetik, artista–anima izanik, idazten edota musika sortzen jardun izan duen euskaldun jatorra. Lendabizikoa, buru–neurriz, gogoko zaigu. Bigarrena, ordea, eder–jarioz, goxo–erasopean, iturri gozagarri izango zaigu, aomenaren ezti.

Lekeitio–ko Udalak, lau Diputazioen laguntasunez, dei egin nai luke laister, jakintsuek Azkue–ren neurria, luze–zabal–sakona ikas dezaten eta beurek mamitu gutun horiek guretzat orain, eta ondorengoentzat gero izan ditzagun. Lau aldetarik gutxienez, aztertuko beharko Azkue gurearen lanegiña: euskal–itzen biltzaille, literaturagille, musikari ta erri–jakintzazale bezala.

Izan ere, oraingo ereti auxe ez gendukeala alperrik galdu behar, erran genion gure alkate jaunari. Zera, Azkue–ri buruz, argiro ta andiro egin gogo ikaste–jardun mardula ernaraztea, ezin zitekeala beranduagorako utzi.

Gorago esan dugunagatik, jakintzazko itzaldia baiño oroipenez ornitua zitekean jarduna nai izan dugu ari–albaiñuz josi, ta zuta–zearrak bilbe ariñean zertu. Haren zertxo bereziak, bidealdiko nekeak eta joera kutunak eta tirriak jarrierazi gura ditugu berriketa hontan. Gai astunak beude jakitunentzat.

Ez zan edonor gure gizona. Bere sorterrian eta auzoetan ere hainbestekoa zala uste izan ez zuten arren. Sarri gertatzen dan kontua.

Haren aita, ama ta anai–arrebak ezagut ditzagun, ordea, lendabizitik. Aita, Eusebio Maria de los Dolores, euskal–olerkari ona izan zan. Olerkari itz hau, begiko zitzaion gure apaizari. Haren ama ere, euskalduna ta euskaltzalea zan, noski, maizegi gertatzen ez dan kontua. Eusebio itsas–gizon eta nautika–irakaslea izan zan; baiña latin ta filosofia ere ikasi zituen. Lenengo karlistadan Carlos V–garrenaren gudumutil izan zan; ez, ordea, boluntario. Mitologi–usairik andiena duen euskal–olerkaria, nunbait. Hor dugu haren bertsu–sortaz semeak tajutu liburua: "Parnasorako bidea".

Emazte bi izan zituan Eusebio–k. Ez, alegia, biak batean, bata bestearen urrena baizik. Lendabizikoaz, Laureana Ozerin bera, lau seme–alaba izan zituen, Txorierrin, Bermeon eta Mundakan bizi izan zanean. Azken uri hontan alargundu zan, ta berriro ezkondu —idiaren eta arriaren kontu horri jaramonik egiteke—, Mari Karmen Aberasturi alargun gaztearekin. Anartean, Eusebio–k 44 urte zituen; eta andre gazteak 22, ta seme–alabarik baterez.

Gero, 1861 gn. urtean, Paris–en bankeru andi zan Uribarren zaldun aberats eta eskuzabalak Nautika–eskoletxea diruz poliki ornitu zuen Lekeitio–n. Eusebio eta Angel Maria Ventadez izendatu zituzten irakasletzarako. Urrengo urtean bere jaioterriratu zan, Eusebio gurea.

Lendabiziko ezkontzako seme–alabak: Alfonso Maria (184…), Carolina (1849), Conrado Maria (1853) itsastarra izan zan ta Habanan il zan; eta Sol, alaba (1856).

Bigarren ezkontzakoak: Julia (1858–59), Aurora Maria (1860) eta Jesus Maria (1862). Baiña Lekeition jaioak hauek dira: Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves (1864–VIII–5), Maria Luz (1867), Diana Maria (1868), Julia (1870) —bigarrena izen berdiñez, lenengoa il bait zan—, eta Heliodoro Maria Antonio (187…).

Doña Sol maistra, andre txiki samarra ta beltxa, entzutetsua izan zan gure errian. Makilla luze luzea erabilli oi zuen. Eskolatokia ere txikia bait zan, eserita zegoen lekutik luzatzen zien makilla hura —barakuillu antena iduri—, mutiko ala nexkatoak buruan, kaxkoan jotzeko.

Eusebio, lekeitiarra izan arren, bere denporan kanpoan ibillia zalako, mintzuraz ez zan jatorra bere errikideen ikusian. Gizon buru jantzia, mazala ta atsegiña, Anton Trueba–ren itzetatik. Zozo bat ala perruketa omen zeukan, izketan zekiana: "Azkue–n zozua naiz ni… Urra pepito! Tuuurrit!"

Hura ere umore onekoa zan, semea izango zan bezela. Olerkari hartaz ba du Aita Lino–k zerbait esateko. Alegia, poemaren bat dala hor nunbaiten argitaratzeke, euskal–mitologiari buruzkoa ta "Euskadia" duela izena. Anartean, Arana–Goiri sortzeko edota mutil sostor bat izango zan, noski.

Resurreccion de Jesus–en bizitzako kozkarik zerenak, ba dakizkizue. Lekeition jaioa zela eta itsasketa–gaiak ikasten asi. Gero, batxiller egin zela Bilbon. Urrena, Gasteiz aldera apaizgei, eta azken estudioak Salamankan egin ondorean, Teologiako maisu edo doktor. Hortaz landa, musika–gaiak ikasi zituen biziki, Bilboko, Bruselako ta Koloniako kontserbatorioetan. Apaiz ordenatu baiño lehen, Bizkaiko Diputazioak sortu zuen euskal–katedrako maisu izendatu zuten 1888'gn. urtean. Egungo egunean ez dakigu irakas–alki ori non dagoen.

Haren lanak ez ditugu aipatuko, ezagunak baitira geienak. Izkuntzari soillik dagozkionak: iztegi andi ta txiki, gramatikak,

itzaldiak, bai mintzairari buruz bai musikari; musika sorta mardulak, errijakintza gutunak, elizako gaiak eta kantak, eresi gozo ta elederreko lan politak; teatru lan ariñak eta baita operak ere. Eunurteburuaren gomutagarri, Argentinako Buenos Aires–en jo nai dituzte "Urlo" operaren zati autatu batzuek, eta ango orkesta on batentzat eskatu izan dute, orain bizpairu illabete, lan andi horren partitura.

Albistari alai ta azkorra ere izan zan, berriak eta albistak berak asmatuak izan arren. Eleder–atal bitxiak dira haietarik anitz, umore onez egiñak, gatz eta piperrez maneatuak, irudimen eltzea irakiten zuela idatziak. Erriko izkerak ederki dastatu eta atsegingarri ematen dizkio irakurleari. "Euskalzale" eta "Ibaizabal" astekarietan egin zuen hori. Lendabiziko paper horri beiñola milla pezetako zigorra ezarri zioten. Ez zan, ordea, kalte txikia 1.000 pezeta edo makur 1897 urte inguruan. Erreal bateko laguntzailleak–eta izan zituen orduko diru mordoska ori gizentzeko. Gizon kementsua zan, egitan!

Adiskide kontuan, gorabehera andiak izan zituen Azkue–k.

Adiskide zintzorik bai noski; bere erritarrak esaten dutenez, lagungiña ez zan baiña. Maiz erran oi den bezala, ez zan igarle izan bere sorterrian. Erri txikiak, izan ere, andietaz bereziak dira. Baiña hoiek ere ba dute sarri askotan mukerkeria ta esker txarra. Bilboko idazle batek ango egunkari batean ots egin zuen joandako egunetan Bilbo–k Azkue–ren alde ta oroipenez ezertxo ere egin ez duela–ta. Eta bertako seme izan zan Julio Urkixo–z, zer egin ote du Bilbo–k? Guk dakigunez, itsuarena ta gorrarena.

Azkue gurea izaeraz, aiurriz bakana zan, meatza. Guztiok ez ote gera bakanak? Ba dakigu odol–gorria zena, berberak idatzia baita. Suminkorra edo zan, ta bapateko asarrealdian beheko ezpaiña dardarez, ikaraka asten zitzaion. Orraitio, biotz onekoa zan gizajoa, samurbera, alaia ta esku–zabala. Apaiz zahar batengandik entzunberria dugu: "Ume aundia zan. Edonori laguntzeko gertu egon ohi zana. Baiña ez zan lagungiña. Besteak baiño gorago ibilli behar izaten eban. Bere eritziak ziran betiere, besteen gaiñetikoak. Arentzat B. Zapirain ta Aita Otaño ere, ez ziran iñor oharpenik egiteko. Orregaitik edo, "Altos hornos" esaten eutsen aldi batean."

Gaiñera, gaztetandik errira alako garriko zabalaz apaindurik, apaiz baiño ere geiago zelakoan, jesuita edo, agertzen zalako, bere denporakoek arroa erizten zioten, buru–iritzia.

Nazario Oleaga zenaren esatez, setatsua omen zan, baiña ez setatia. Eta izan ere, behin baiño sarriagotan idatzi izan zuen Azkue–k besteren oharrak jasoteko gertu egongo zela, jakituria–bideetan guztiok lagunkide giñala–ta.

Gizon ederra zan, luze bai zabal. Azal zurizta, begi argia. Biziki lerdena ta andia gaztezaroan eta garerdikoan; eta lehen tantai ta luze bezin makur ta kakotua zahartzaroan. Arpegi borobilla, masailla txuri–gorriak; ederra gizona.

Bakarlanen zalea zela, latza geienbat, agintari–jitezkoa edo, irakasle–aizez joa. Esanak esan, ordea, ezagutzen zuen bere burua, Txomin Aguirre–ren eriotz–ondoko itzaldian, 1920–IV–5, hauxe irakur diteke, Azkue–k berak idatzia: "Odol–gorri izateak ba ditu odol–zurbillak eztauzkan alde bat edo bestetxo; alderantziak geiago. Odol–gorri geranok, lanean asteko zainetan darabilgu baikortasuna; odol–zurbillak geienak izan oi dira ezkor. Odol–gorri geranok, iraunkorrago izan oi gera geron asmoetan, lanetan sendoago; *baiña gizartean bizi izateko, alde andia daukate* aurpegi–txuri, aiurri bigundun gizonok."

Abuztuaren 5'gna. egun andia izan ohi zan Azkue gurearentzat, Gonzaga sainduarentzat bere bataiokoa bezala. Meza eman ondorean, eta ohi zuen otoi luzea amaitzean, azken urteetan beste etxe batean bizi izan bait zan, bere jaiotetxera abiatzen zan, etxeari ta angoei agerraldi samurra egin ta bere sortetxe kutunean egotaldi gozoa egiteko. Oroipen atsegiñez beteriko bataio–eguneko goiz udatarra!

Biotz samurrekoa zan. An, Lekeition 1936 garagarrillaren 28, San Pedro bezperan VII'gn. Eusko–Olerti eguna ospatu genduen, Azkuetarren omenez. Aita, anartean, illik zegoen; bizirik semea. Arratsalde eguzkitsuan, Eusebio–ren jaiotetxean itzaldi labur baten ondorean arlandu txuria agertu genduenean, Monzon–Olasok bere jardun bero ta biguiñean, aren ama Mari Karmen aipatu eta ama–semeen maite–urrumaren doiñua ta euskal–txertua agertu zigunean, antxen aurrean zutik zegoela, don Resurreccion begietatik malko–jario, zotinka ta dardar, gorputz osoa ikara ikusi genduen, arnas barerik irabiatu eziñik.

Emaillea zan, txit esku–zabala. Ez ote zigun berak esan iztegi andienaren aitzin–solasean, diru–kontua beretzat *egoe* zala, ta ez *ipar?* Eta ain zuzen, euskal–lanetan jardutearren bere katanarrua beti zimel ibilli ohi zala, betiro *zero* mailla inguru, termometrua neguan bezala?

Gogo onekoa zan, gaitzik gabea. Euskera erabiltzen izan dugunik trebeenak, "Orixe" azkarrak, eman zigun lekukotasuna hortaz, esaldi mamitsu hontan: "Naiago dut atzipetua izan, nik neuk iñori ziririk sartu baiño." Amaika alprojak jo ohi zuten harengana diru–eske, batzuk egitan premiñadunak, beste batzuk alperrak eta zuri egiazkoak. Iñoiz diru–mordoskaren bat garbitu omen zioten, bere burua katoliku egiten zuen frantses batek eta geiagok ere.

Urtero eldu ohi zan bere jaioterrira, bizpairu illabete han ematekotan. Agertu ez zanetan, arako Alemanian ibilli zanean batez ere, miñeri izugarri izan zuen ta orduan egin zuen "Errimina" deritzon olerkia, bere erriz ta bereziki bere amaz gogoraturik. Biotz–ondoaren isuria agertu zuen orduan ere.

Gertua ta laguntzaillea zan. Egun latzetan harek egin zion mesede andia, lanbidea ez galtzea, jakiñerazi dit egun hauetan ene erriki-de ta adiskide zaharrago batek. "Orixe" zenak berdin adierazi zigun mesedegille izateari buruz, berberak ere bizibide ta ogibidea iritxi izan bait zituen Azkue–ren bitartekotasunez.

Apaiz bizitzarako ere billatzen zituen tarte–bitarteak. Goizean meza santua eman ondorean, otoi luzean jarduteko oitura zuela, agertu dugu lehen. Jaiera andiko apaiza omen zan, ta eguerdi illuntzetan ere egiten omen zituen bere errezuak, astiro ta sakon. Gaztetan, Santiago elizan, sei urte inguruz, goizeko mezatan egiten zuen bere itzaldia. Geroago, igandeetan, San Nikolas eleizan amaika ta erdietako mezatan euskeraz. Aldi batean, Andre Rafaela Ibarra, saindu otsean il zenaren kapellau izan omen zan, urte batzuetan. Bilboko eliza bateko parroku izatea ere eskeiñi zioten, eta diotenez, kalonje jaun izateko aukera ere bai. Garizumetan Arabako erri txiki batzuetara joaten zan, sermoiak egin eta kantatu eta soiñua jo ere bai, ortarako tramankulurik an baldin ba zan. Beste bein, Frantzi aldean zeuden erraldatuei misiñoiak ematera joan zan. Lan berdiñerako askok edo zenbaitek eman zuten beuren izena, eta ain zuzen, beste lekeitiar bat eta bera izendatu zituzten alkarrekin ibiltzeko, ta Bordalet aldean ta inguruetan jardun omen zuten; itzaldi, kantu eta soiñu–jotzeetan han ere, gure apaiz euskaltzale ta musikaria.

Ibiltauna bezin jatuna zan. Azken–urteetan ere, haren neskamea beti ibilli ohi zan arduratan; ezin ba beti jarri, errez ere ez zan ta, apaiz zaharrari komeni ere ez zitzaion–eta, ezin ba beti jarri babarrunak hark nahi zituen erara: beuren anaiekin batean, urdai, lukain-

ka, aragi, saieski ta abar. Horrelakoetan asarre xamar izan ohi zan. Janari ariñegiak janta, ez lanik egin, ta ez bizi ere, ezin zitekeala–ta…

Ez dirudi mediku–zalea zanik ere. Ba zuen bere seigarren sena. Iñoiz esku–muturra ala saietsa autsi–urraturik izanik, bere kabuz ta kontura jarri omen zuen. Nunbait, errijakintzako osaketaren batzuk egiñaz, arako Arnobatekoen gisa. Gertaliski ugari ta bakanak izango zituen noski, berberari gertatuak, bere ibiltaldi luzeetako gertari parragarri ala negargarriak. Baiña tamalez, ez dirudi bere egunkari edo antzekorik zertu zuenik. Umore onekoa ta urduria bait zan, gutun irrigarri geiago utzi zitzakean gure pozgarrirako.

Bere lendabiziko izkinde aura, euskera utsezkoa —aldamenean gaztelania lagungarri— bere "gaztetako obena" zela esan ohi zuen, "esperanto vasco" zelakoa. Baiña, noski, liburu mardul hura ez zan izan alperrik egiña. Pianu–jotzeko aulkia apalegia izatea gerta ba ledi, eserlekua arrotzeko, loditzeko hala–halakoa zela… Egia esan, izkinde ospatsu hartan, algotz artean ba da ale borobil ederrik ere.

Bere denboran "rape" autsaren zale izan zan, baiñan azken urteetan tabakua erretzen ere ikasi zuen. Nonbait, kanta zaharraren oiartzun makala zebilkion durundu emez belarri–zilloetan:

"Ai, Mari Manu,
Ai, Mari Manu :
pipia artuko nuke
tabakua ba nu"…

Bere iztegi andienaren frantses–azalpenak apaiz eskualdun–frantses batek egiñak omen dira. Horixe erran dit gure erriko apaiz batek, bertze hari entzun ziola–ta. Izenik ematerik ez dut iritxi. Ba liteke, baiña arrigarria da, Azkue bere laguntzaileen izenak aipatzen oso kontzientzi andikoa izan bait zan. Bere lanetan agertzen du jokaera zintzo hori noiznahi, ta barkakizun litzakio, hala ba litz.

Itz jatorrak eta neologismuak ere atsegin zitzaizkion arren, pertsonen izen berrien zale ez zan beiñere agertu. Alde hortarik anima zaharra zuen noski, eta oldar berriaren uberan jartzea, gogor samar egiten zitzaion. Euskal–izen haien kaltez ari omen zan beiñola ere, bere errikide ta apaiz lagunekin:

—Koldobika, Igone, Iñaki, Edurne… nungo edo nolako santuak ote dira hoiek?

Baiñan nork erantzuna mundu hontan faltatzen ez–ta, apaiz gazteago batek jardetsi omen zion:

—Ba, jauna, Aurora, eta Sol eta Diana ere eztakigu nongo eta nolako santuak ziran.

Anartean, Azkue–k bizirik zituen iru arreben izenak bait ziran.

"Txirristadak" gutuneko orrialdeetan umore ta zorroztasuna agertzen dizkigu, ta baita sikologi–ukiturik ere. Arako Elantxobeko ama–alabak, Okelatxuneko Mariñasi eta Krispiña, haren neba ta honen osaba indianu elduberriarengana zioaztela, beste iñork baiño lehen amak bere alabarentzat arrapatu nai zuen–ta, alaba gaztea apain jantzirik zioalako, ezagun andre batek agiraka egiten dio Maiñasiri:

—Markesen alabak lez, ez jantzi horretarako.

—Ezetz diño. A koitadua! Ez ipiñi amuari karnatarik. Ze atrapateko? Karramarrue?…

Arbasoen erriaz oraingo batzuek duten iritzi berrien zera ere aintziña ohartu zuen Azkuek. Alegia bigarren aberria, semeen aberria dela. Ikusi *Ardi galdua*–ren itzaurrean ematen duen azalpen laburra.

Euskerak zituen etsairik agerikoenengatik maiz idatzi zituen egia biribillak; irakasleak eta, apaizak eta… Baiña monjatxoak ere beuren erdal–mintzoz haren euskaldun bihotza, miñez jartzen zuten. Euskalerrian egon eta bizi, eta beti erderaz jardun bearra! Lekeition bertan, beiñola, duela berrogei urte ta geiago, sarri bezala apaizgei gazteekin zegoelarik, monjekin artu–eman andia zuen apaizgei ausart bat ere antxe zegoen. Azkue gureak honela zion:

—Hoiek, Karidade alaba hoiek ere, iñoiz ere ez euskeraz… Zerbait esatea merezi lukete. Esango al diezu zeuk?

—Bai, jauna.

—Galdetu esaiezu ea karabiñeru–alaba diranentz.

Entzun ta egin. Urrengo goizean bertan gazte harek laister arin adierazi zien, meza–eraso ondorean:

—Zera, Azkue abadeak auxe esan du zuei esateko: ea karabiñeru alaba zeraten?

—Ene! Ori esan al du don Resurreccion–ek? Eta zergatik?

—Zergatik? Beti ta beti gaztelaniaz ari zeratelako…

Ardi–galdua–n ere ain zuzen, aipatzen du mojatxo zoriononekoen erdal–izpiritua eta mingaiña:

"Komentuak agitz euskeraren obiak dira, esatea lotsagarria bada ere" (81 orr.)

Antonio Tovar–ek horrelako zerbait azaldu zigun haren illetako itzaldian Bilbon, 1952.

Austria–ko Emperatriz Zita delakoa Lekeition bizi izan zan urteetan, 1922–1929 bitartean, haren aitortzaille izan zan Azkue.

Iñoizka gertatu ohi dan bezala, beiñola legorte andia izan zan, eta Lekeitio ta inguruko baserritarrak ango antxiñako irudia, Antiguako Ama kaleratzea eskatu zuten, ohi ziralako antolamenak egin ondorean. Azkenengo egunean atera zuten Andra Mariaren irudi miraritsua, eta plazan bertan erri osoa ta inguruko bost baserrietakoak ere bai, bazterrak betean zegoztela, Azkue–k berak egin zuen sermoe bero ta gartsua, etorri andikoa agertu bait zan egun hartan. Diotenez, illuntze ostean egundoko euri zaparrada mamiñak egin omen zituen. Baiña, sermoe aldian bertan, gure iztuna sutsuen ari zela, gezur–ortz–agiñak ¡klask! erori egin zitzaizkion beuren tokitik erauziak, baiña bai Azkue–k berpertan besagain artu ere.

Orduan, aurre aurrean zeudenak ao batez esan zuten:

—Pelotari ona!!...

Kanta ta esaerak eta ipuiñak paperean jartzen oso azkarra omen zan. Batez ere melodiak bertatik zertzen zituen, eta bapatean paperean idatzi, lapitzez geienbat. Batzuetan gauza oso ezaguna baldin ba zan, beste ipuiñen bat esateko edota beste kantaren bat kantatzeko agindu ohi zion laguntzailleari.

Anima kontuak aparte, ba dakigu bere iritzi eta asmoak zituena, guretariko edozeiñek bezala. Lendabiziko gerrate europearra zela–ta, frantsesak pasaportea ukatu zioten, "germanofilo" agertzen zelako. Ta egia esan, ez zan batere frantses–maitea. Haien santa andia, Arkuko Jone, ez zitzaion nonbait atsegin; galtzadun bat aldarean, ezpata zintzilik, eta emakumea gaiñera... Azkue–k berriro ere Eskual–herrian lehen bezin lasa ta zabal ibilli beharra zuen, ango zerak ikasteko ta biltzeko, lehendik zeuzkan paperak biltzeko ta ugaltzeko. Ezagun baten bitartez asi zan. Lekeitioko Carlos Solano zalduna izan zitzaion lagun, urtezati batean Lapurdiko Altsu–n bizi izaten bait zan. Eta hangoetarik, Aita Lhande, S. J. ta Abbé Blazy izan ziran bitarteko. Eta iritxi zuten berriren berri, bide–giltza, pasaportea, Eskual–Herriratzeko. Eta gaiñera, esku–erakutsi bezala,

Eskualzaleen Biltzarrekoek zillar makila bialdu zioten Azkue–ri, anaitasun ta adiskidantzaren ezaugarri ta sendagarritzat.

Urlo operaren adelu–gaua Bilbon, doakabea izan zan, ordea. Musika makala duelako ez noski. Teatruan agertzeko gertaerak eta atzera–aurrerak, gorabehera ta azi–orraziak bere eskuetan soillik erabilli zituelako baizik. Ez ahal zuen aski, lana eta musika ere, ta orkesta kontua, bereak izatea? Tenor eskas samarra ekarri zuen, katalana bera. Baritonua, euskaldun omen zan. Orkesta ere Bartzelonatik eratorri, entseiurik eskas, paperak berak lapitzez zertuak eta azken–egunetan ariñak–arin lekeitiar apaizgeieak orkestakoentzako tintaz jartzen… Ez dakigu egilleak paper guztiak aztertzeko ta zuzentzeko astirik eta betarik izan ote zuenentz. Dena dela, ordua eldu eta agertu zuten opera. Damurik, Molokot itzela, ezbear madarikatua; bein bakarrik erakutsia, errenka ta guztia bearrean, errenka ta arnaska eldu zan azkenera. Azkue manduak ilda geratu zan, lurra jota, zorrez beterik. Orduan izan zuen gizarajoak estutasuna ta arterik artu eziña. Mundua utzi, eta bazter izkutu batera joatea erabaki uste zuen. Eta baita egingo ere. Irten zan Bilbotik, Gipuzkoan zear, Loyolarantz… Baiña bidean, atsedenaldia egin behar, eta adiskiderik andienari agur egin behar. Eta Zumaiara eldu zan. Han zegoen beste apaiz bat, zeukana eman beharrez gosez gaisotu zan apaiz maitagarria, Seminarioko laguna eta arrezkero betidanikoa: Txomin Agirre ondarrutarra. On utsa, gozoa ta odol–zurbilla zan harek, ordea, gogor eraso zion Azkue laguntzarrari honen aitorpena entzun ondorean.

—Nola? Zelan? Zorrak sortu, eta garbitu gabe mundutik igesi, ta etxe santu batera? Ez, enetxoa, ez! Zorrak ordaindu behar dituzu lenbizi. Eta nola? Ba dituzu adiskide eukitsuak. Hoiek lagunduko dizue. Apurka apurka zurituko dituzu gero zeure zorrok.

Eta Azkue andia, odol–gorria, bere adiskide min odol–zurbillaren esana egiteko prest egon zan beingoan, eta berriro Bilbora, ta Lekeitiora, ta Euskalerri osora bere lan andiari jarraipena ta azken urrezkoa eman arte.

APIZTU (B, arc) Hona hemen itz bat, aspaldikoa delako, Azkuek berak ere, arkaikutzat joa. Apiztu=hurtar.

Itz egokia Iztegi andienari berari gertatu zitzaiona adierazteko. Ebasgo biguin, lapurreta malmutz edota apiztute hori zela–ta, Azkue mindurik, minbera egon ohi zan. Harekin lendabizi itzegin nuenean

jakin nuen hori lenengoz. Iztegi nagusiaz baliatu ziranak ez zioten horlakorik adierazi, ez baimenik eskatu, jakiña; ta ezta dirurik eman ez eskeiñi ere. Moztua, laburtua, edo nahi den bezela; geitua agian, argitaratu zuten liburu txikiagoan Azkue–ren iztegi andia. Ausaz, diru–saria urrengo argitalpenen batean edo emanen zioten.

Ez zan zuzen ta bidezkoa izan jokaera hori, apika. Orregatik, geroago, argi ta garbi azaldu zuen berak "Euskalerriaren Yakintza"–ren itzaurrean, lendabiziko liburuan, 22 orrialdean, VIII: "Toursen argitaratu nuen Iztegiaz gertatu zitzaidana liburu laukoitz onezaz jazo eztakidan, lan hura berendu zutenak bekite: *lan berri onen egille nerau izanarren, yabe beste bat dala;* eta nik orduko aren yabetasuna baiño beste onek oraingo onena, obeki zaindu ta gordeko duela."

Tovar–ek erara dion bezala, zuzentzaille ta araugille genduan Azkue apaiza. Ta ez liburuetan eta kantuetan soillik. Lagunartean ere, itzetik ortzera zuzentzen zekian harek berriketalarien itz ez egoki edo itzurren okerra. Etxean ala kalean berdin zan. Aita gure zenari entzuna dut beiñola emen Donostian gertatua. Estropada eguna zela, eta an bapatean edo, irudi bat agertu zela millaka ikusleen aurrera, pizti narrastariaren irudia. Orduan, norbaitek oiu egin zuen:

—Lagartua, lagartua!...

Eta Azkue andiak bertatik zuzendu ere:

—Muskerra, gizona; muskerra esaten da euskeraz.

Beste bein, gure errian bertan, kalean zear zioan mutiko batek diadar egin zuen:

—Txo, karrua!...

Gure apaiza mutil sostorraren atzetik segika joan zan, eta ostiko punteaz ipurdian jotzeko imintzio egin ere bai, baiña ez zuen arrapatu. Bitartean, agiraka egin zion kakanarruari:

—Txotxo, karrua diñok, kirten horrek, karrua? Ez al dakik burdiya esaten, madari madariena!

Mutikoak ez entzun ez erantzun, ez atzera begiratu, anka! egin zuen. Ziur asko lenengo aurkitu izango zuen beste mutikoren bati azaldu izango zion gertatua:

—"Axe ra abare gaixtua! Karrua esan doralako, ostikuaz iya uzkiya apurtu! Yoik ama!"

Apaizgeiak udan, harekin sarri bai sarri aurkitu beharra zutelako, erdi bildurrez egon ohi ziran, euskera lorrinduan arrapatuko ote

zituen Azkue–k. Horrela, mintegitik kanpo ere, ba zuten euskaliztun izan behar zutenek, maisu jakintsu ta argia. Orain, tamalez agian, ez dugu euskal–zuzentzaillerik asko. Oraingoan, hor dabiltz askaturik barbarismu, solezismu, itzurren oker eta abarrak. Abstraktu egin ote geran ez dakigu, euskal–idazkeran ere.

Tartaroak. Arana–k indartu zuen atzizki hori ez zitzaion begiko aldi batean. Deituren jarrai, batez ere suskrizioetan eta, ainbeste tar… tar… tar… irakur zitekealako, tartaro berriak genituela gure errian agertu omen zuen Azkuek. Baiña… bera ere hortan auzolankide izan zela azaldu behar dugu orain. Eta irrigarri ta isekapean berbera ere, bere burua ere, sartu zuela iñoiz.

Aldakuntzak ere egin zituen–ta!

Euskal–izkindea, Azkueko R. M.–k egin uzen.

Bein da betiko, Azkueko R. M.–k egin zuen.

Baiña "Txirristadak" liburuan, beste liburu batzuen iragarpena egitean onela datza: R. M. Azkue–tarrak egiña, bai lenengo horri ta bai bigarren horri buruz. Liburu–azalpean, hortan, beste hoiek ere iragarten ditu:

"Parnasorako bidea", Eusebio M. D. Azkue–tarrak…

"Esku–liburua", Fr. P. A. Añibarro–tarrak…

Baiña…

"Auñamendiko lorea", Agirre–ko Domingo abadeak iratsia.

"Kristau Doktriñ" Ubillos–ek gipuzkotarrez (sic)

"Konfesiño ona", Mogel–ek iratsia…

Bakarti samarra izan zala esanarren, lagunartekoa ere ba zena ondotxo dakigu. Amaika lagunen adiskidetasuna eta amaikaz egon–beharra izan zuen ainbeste ta ainbeste itz, ipuin eta kanta, erriko izkera bizi–biziaz jabetzeko.

Bere azken–urteetan, apaiz lagun baten etxera joan oi zan jai arratsaldeetan, berriketan jardun eta musean jokatzea. Agirre kalera agertzen zan maiz, eta ba zituen an beste adiskide batzuek ere. Bidealdi luzeska izan arren, oiñez ibilten zan geienbat Bilbon zear ere, antziñetako ibiltaldi luzeen arabera.

Erri–maite itsua zela adierazi dugu. Euskaltzaindiaren etxe zahar hartako ormetan zintzilik, iru edergarri zituen berezi, lagun kutun bezela. Bere sorterriko lekuko maiteak. Iru argazki apain ta andiak,

batez ere bi. Hoietarik bata, luzanga zan, lau zatiez bakar bat ornitzen duena: portu osoa, alderen alde erakusten digu, eliza atzetik asi eta ipar–moilla muturreraiñokoa. Hantxe ageri da, azken urteetan bizitetxe izan zuena, nasa gaiñean, Txatxu kontramaisuaren moillako 32'gn. etxe gora ta lerdena. Andik urbil lertu zen bonba bat azken gerratean, eta lagun batzuk il ta zuritu, eta Azkue–ren langelan ere, kalteak egin omen zituen. Zorionez, ez zegoen hura orduan han. Jaio zan etxea ez da an ageri, Apalloa 20'gna.

Bigarren argazkiak, plaza, elizaurrea ta kaia erakusten dizkigu. Ta irugarrena, Lekeitio–ko Basilika erakusmenekoak duen aldare nagusi ta oholtza aberatsa, gotiku loretsu ospe andikoa, gaur pipiak eta zedenak joa, galtzeko arriskuan dagoena. Kuadru hori Azkue–k Euskaltzaindian zeukan bere pianuaren gaiñaldean orman zintzilik isekita euki ohi zuen, aurrez aur, nabari, ikusterrean.

Ibiltauna esanik dugu; ez ordea, arlotea, gizon apain ta galanta baizik. Aren begi argi ta ederrak, itsas–zale ziran, arean. Lekeition zegoanetan, etxetik elizara ta elizatik etxera bideak, moilla ertzean zear egin ohi zituen. Bilbon ere, nasa ertza zitzaion atsegiñen. Eta ura, beti ura, kaiekoa, itsasokoa ala ibai andikoa; eta ontziak, itsasgizonak, antxetak eta kaioak begien edergarri ta kontsolagarri. Eriotzarako zidorra ere ibaiko ur zikiñetan aurkitu zuen. Gau batean erori zan Arriaga atzean ibaiera, ta andik lasterrera izan genduen haren gorpu–lorra. Gizon batek atera zuen ibaitik, baiña gizon honi ango istilluetan, kartera ostu zioten. Berriz ere lapurrak Azkue–ren ondorik…

Gogaro onekoa zan ta jolaserako bizarra noiznahi. Izan ohi zuen gogoa ta beta, lanetan ere, atsedenaldi gisa, izkirimiri edo ateraldi politen bat ezarteko. Dodgson eta beste askoren esamesak bizkarrera jaurtigitzen zituen, eta beharrik! Bestela eltze txiki gizona izan ba litz, amaitu giñan gu, ez genduen aren jarauntsi mamin ta ederrik iritxi izango. Aren itzulpen batzuek, ezin gogo jolastiagoz egiñak izan. Esaterako: buru zorrotzetarik irtendako ipuiñak=cuentos procedentes de alegre chaveta. Senar–ordea=vicemarido. Asto–polit au=este lindo borrico. Alaba bat, langille utsa=mera trabajadora. Antziñako joan–etorriak=idas y venidas de la antigüedad. Neure baztertxoak=mis posesioncitas. Kaleko aundikiren bat=algún magnate de la calle, eta abar. Beste nunbaiten Mundaka, ta Lesaka ta Andraka dala ta, Bizkaiko lenengotzako Jaun Zuria, Eskoziatik Laida alderaiño

nola eldu ote zan ez dakigula dio, ketxemarinen batean edota Jonas bezala, bale baten sabelean…

Euskal–pizkundeko garbimin aroan bizi izan zan bere gaztezaroan; eta zer arrigarria! Iru etsaiak izan ziran garbizaleak, edota garbimiñak joak. Azkue ta Arana, zer esanik ez. Eta Unamuno ere, ez zan batere mordoillozalea. Ta ez dezagun ahantz, Azkuek berak idatzi zuen zer hau: Broussain ta Arana–Goiri zirela izberri sortzaillerik azkarrenak.

Izan zituen adiskide zintzoen artean ba dugu bat, txit ospatsua. Hona hemen Azkueren itzaldi baten pixketak, Aramaion 1916 urrillaren 22'an egindakoa:

"Orain ogeta lau urte, egun auetan bezela sailpean nintzalarik, arlo onetxen antzekoa eman bear nion buruari. Meza berri bat genduen nere sorterrian; meza ori eman bear zuena Aramayoko seme eldu bat zan, etxe onetantxe jayoa, Vicente Goikoetxea. Apaiz egin berri hura, adiskide min–mina nuen eta, beraren deya gogo onez adituta, itzalditxo bat egiteko asmoz utzi nuen nere egoturia: Bilbo. Adiskide bizi ari jarraitu nion onek, ez ote nion adiskide illari jarraitu bear, beronen izana eriotzea baino iraunkorrago izatea guztion artean eskuratzeko? Belarrietan durundika degun Te Deum eder ori aski dala uste det nolako musikalaria zan jakiteko. Il zan arte askok uste izan zuten Lekeitioko seme zala, noski, an bera ta, batez ere, beraren aiderik urkoenak luzaro bizi izan diralako.

"Itsasaldeko uritxo maitagarri artan bizi zala (hau nik diot: Goikoetxea lenbiziko aldian, bizi izan zan etxean bertan jaioa naiz ni) udako opor–egunetan beintzat, illuntzero alkarrekin izaten ginan: Elizan lenengo, itsasgainean gero; eta egurats (aize) lodiz birikak sendatzen genituen bitartean, alkar, igarri gabe bezela, egunean baiño egunean obekixeago ezagutu ta samurrago maitatzen bizi giñan".

"Nere lendabiziko apaiz–urtean, lau–bost adiskidek Bilbon albistaritxo bat sortu genduen, *La Abeja* izentzat zuena. Silverio Etxebarria, apaiz gartsua, Durangoko zaldun Antonio Arginzoniz, Abandoko seme Arana–Goiritar Sabin (sic), besteren bat eta nerau giñan Erle igarokor arri loretxo bat edo beste eskintzekoak. Albistari arretxen egapean erakutsi zituen lenbiziko aldiz Arana–Goirik Bizkaiko gertaera zar batzuek: Gordexola, Mungia, Padura ta Otzandioko esetsiak. Nik irakurgaitxo alai bat, Peru Matraka ta Pedranton izentzat zuena, asi nuen. Nere buruko ume ayek ementxe,

zuen artean, Aramayon bizi izan ziran. Lantxo hura nere adiskide Vicentek irakurri zuenean, sudurpeko bizarra ezkerraz leguntzen zuen artean, itz auek esan zizkidan; "baina, mutil, au eztek Aramayo".

"Urte batzuek geroago, bera apaiz zelarik, arako euskal–jaietan, d'Abbadie jakintsuaren izenean nik, nere erria alde bat utzita, onera ekarrarazi nituen jai eder ayetan…

"Gure artu–emanetan, nere biotzean berarena sartzea aski izan ezta, zuenganako maitetasuna barruneragino sartu zidan. Arabako Batzarrak, lege–zarrekoak, Aramayon bildu ziran atzenaldiz…"

* * *

"Ain zuzen ere, nik neronek lenengo meza eman nuen egunean, 1888'garren urteko San Migelez atera zan bera Lekeitiotik Valladolidako. Ogeita amalau urte zituen, apaiz–ikasteak asi zituenean. Atseginez alde batetik (beraren onerako baitzan), bestetik atsekabez ikusi zuen Lekeitioko uriak Goikoetxearen joakera. Bertako semea izan ba litz, etzuten maiteago izango."

* * *

"Bere irudiko bat, aurten, berarekin bateratsu il da Euskalerrian, nere ikaskide ta adiskide andia hura ere,… Bilboko Francisco Iturribarria. Biak izan dira euskaldun onak, biak erakusmeneko apaizak, biak antzelari (artista) andiak: batau musikara bezela, beste hura eresira (poesiara) kuturtu zan."

Labur: Goikoetxea 1883'gn. urtean —29 urte zituela— eldu izan zan Lekeitiora. Adiskide biotzekoa iritxi zuen itsasportu hartan: Azkue gurea, artean apaizgei zelarik. Ez zuen Goikoetxeak orduan batere entzuterik. Esan bezala, gurea apaiz egin bezin laister, Vicente apaizgei biurtu zan. Andik iru urtera, 1891 iraillak 19, egin zan apaiz, Valladolid–en. Baiña Lekeition kantatu zuen lenbiziko meza berria, eta Azkue–k egin zuen sermoia euskeraz, jakiña. Goikoetxea 1915 urtean ere egon zan itsasaldean, baiña ordurako txit gaiso. 1916 jorraillaren 9'gn, il zan Valladolid–en, Artxapezpiku jauregiaren atzealdean zegoen etxe zaldun dotorean, Goikoetxea euskal–musiku andia.

* * *

Azkue–ren musika–etorria eta kera, ta aren estilistika, oraindio bear bezala ikasteko ditugu. Haren musikagintza osoa, haren literatura soilla, nobela, antzerti eta ipuñak barne. Maisu baiño ere artista ez ote zen idaroki nahi dugu. Erabat esan, gaztetan idatzi zituen lanak elederrekoago edo dira, halako jasa ta gatza baitute. Gero makaldu ta eratau egingo zan etorri ta eragin bizia, izkiralegepean eta itzen aberastasuna agertu beharrez, agian. Iztegiaren aurretiaz egin zituen alderdi ta errialde koxkor bakoitzeko izkera berezietan lantxo batzuek, bizi–dardarez beteak, batez ere Bizkai aldeko jendea mintzaraziaz. Horra hor dialektu lanen asikin bezala.

Gogoragarri dira baita haren zalantzak ere, izkira marrak eta abar erabiltzeko arauak eman nahirik. Goiko arrasta hori, arnas artzekoa, berberak asmatu zuen; orobat erlatibuaren lerrotxa edo ziria, aditz–jokoari deutsala; azentu zirkunflexu delakoa, eta dieresis ere ä, ë, ö letren gaiñean, alemanerazko zeregiñez antzo. Azken aldian ere ez zegoen konforme x letra onartu zelako, galaitar–katalandarra, dio berak.

Dena dela, harako umore ona beharreko zitzaion. Mingosturik ere, sarri askotan egon ohi baitzan. Euskaldun anaiengandiko erdeiñu, ziztada ta garrazkeriak entzunik; ta batez ere irakurririrk. Baztertuta zegoen gizon batek nola eman zizkion bere erriari hainbat eta hainbat liburu andi? Asmo–kontua eta eskola–joera zela–ta, ahantzirik eta zokoraturik zegoela ikusi ohi genduen gure gazte denporan, iñortxo ez bait litzan. Anartean, haren lanik ez zuten anitzek ezagutzen —ezta gaur ere, Euskalerri zabalean bertan—. Are gitxiago aztatu ta dendunean jarri. Hain azarmindurik bait zebiltzen euskaltzaleak izkera gaietazko sena ta ekurua atzendurik, garbimiñaren edo asmakuntza-leizaren ondarretaraiño murgildurik.

Gerra isilla ta zitala egin zitzaion Azkue–ri. Euskeraren izenean agian? Baiña azpitik, haren lanaz poliki baliatutzea ez zan obena, lehenago agertu dugunez.

Ta halaere Azkue isillik sarri askotan, jasankor eta mintzul, beazuna ausnartzen, samin–ondarrak dastatzen.

Orraitio, noizpait itzegin zuen, inguru–minguruketa gabe. Bilbon, 1918 urtean egin musika–itzaldi baten, euskeraz jarri dugun hauxe zion:

"Aspaldi hontan, urteak direla, eraso makurrak jasoten ditut, iñoiz zakarrak, aberekoiak ere bai; erdeiñu ta atzera–uzteak ere bai,

nik neuk aintzat artu gabeak. Nire jokaera aintziñetik ere, politikan ez ibiltzea izan dut; ez berenez jardukizun naskagarria delako, nire egokitasunari ta nire jantziari ta bizi–moduari obeki dagozkien beste zeregin batzuek ditudalako baizik…" "Ni neu —dio geroago— ingelesa edota beste edozein laterritakoa ba nintz ere, izkuntzaganako ta sorterriaganako zuen maitetasun hori egiazkoa baldin ba litz, neri lagundu ezarren ere, ez nindukezue beintzat zirikatu behar ez aizturtu…" eta beste lau errazoi geiago jartzen ditu. Eta bere arerio ta etsai ziran ikasleen irakaslea, argi ta garbi goretsi zuen, itzaldi horren azken orrialdean.

Euskerak duen mintzuraz, azentuaz, ardura ta arreta andiz jokatu zuen beti. Hor ditugu haren agertzeko moduak, letrak beherago jarrita, azentu–idatzi bitartez eta abar, tonu ta atonu kontu jakingarri hoiek, gaurko euskaldun berri askok jakin ere ez dakizkitenak.

"Parnasorako bidean" bere aita zanaren goralpenak egin ondorean haren oroipenak iñoiz erriren batek edo izango ote zuen galdetzen zuen. Bai, Azkue jauna, zuen aitaren eta zuen jaioterriko jaiotetxeetan bakoitzak dituzue zeuen arlandu txuriak, zeuen izen ederrak idatzirik dituztela. Ez dira guztiak esker txarreko izan zuekin.

Eta horren sendagarritzat, aspaldi noiz entzungo genituen itzak, entzun berri ditugula esan beharko. Ta hain zuzen, garbimingiro meatz hortaz kutsagabetu nahirik edo, bigarren mordoillo–aroak bere uriolpean, ugoldeaz ondatu gaitzan baiño lehen.

"Zeruko Argia"–ren 76'gn. (1864) Luis Mitxelenak, "Azkue ta Euskal–iztegia" artikuluan esana berraldatuko dugu:

"Ongi egin dan lanak, ordea, askotarako balio du, egilleak berak uste duen baiño geiagotarako. Orrexegatik edozein kastatako jendeak Azkue–gana jo bear du egungo egunean ere, bere egarria berdintzeko. Orrera doaz euskal–idazleak itzez ornitzera, orrera izkuntzalariak euskal–itzen jatorria eta historia aztertzera. Or jakin dugu anitzek antziñako aberastasun gutxietsien berri, OR DITUGU GUZTIOK GURE IZKUNTZAREN BATASUNERAKO OIÑARRIAK…"

Esan dut.

EUSEBIO ERKIAGA
Donostia'n, 1964 Iraillak 7,
Ayuntamentu zaharrean.

AZKUE-SARIAK ETA GUIPUZKOAKO TA ARABAKO DIPUTAZIOEN JOKABIDEA*

E. ERKIAGA

Beiñola, Bizkaiko erritxo batean, Lekeition, gizon andi izango zan euskalseme jatorra jaio zan. Eun urte eta bat beteak dira.

Gazte zalarik, ainbat jakintza-sail artu zituan bere gain. Ta apaiz izatera ere eldu zan: Euskalerri zaharra, behin eta berriro, hamaika aldiz zearkatu izan zuan ipar-egoe ta ekalde-sartalde, beti lanean, beti billa, ain zuzen, Euskalerri orren alde.

Jainkoaren urrena bere ERRI hori, arbasoena, odoletikoa, gogokoena maite-maite zualako, ERRI horren alde batipat, lan izugarria borobildu zuan.

Euskera-kontuan, aurretiko guztiak egin zuten baiño lan sakonagoa ta bikaiñagoa marduldu zuan.

Gramatika-lanetan bereziki, beste iñork ez aiña mami ta ale utzi zizkigun. Euskeraz egin dan iztegirik mardulena, hark berak egin zuan.

Gure artetan sortu izan zan, gure artean egin zuen lan arro, giar ta txit estimagarri hori; gure artean bizi izan zan; gure artea hil ere.

* * *

Baiña, Gipuzkoako oraingo Diputazioak eta Arabako oraingo Diputazioak ez zuten gizon hura ezagutu. Ez dute ezagutu, beraz, gizon andi haren lanik Euskalerriaren alde.

Bata, lenbizikoa, Kontziertu ekonomiku gabetua –euskaldunak berak egindako lan gaiztoa–, ez da gai izan R.M. Azkueren izena ta izana, IDAZLE bezela ikusteko. Ez dute 25.000 peseta zikiñik izan saritzat eskeintzeko.

Gipuzkoako erriak jakin beza berri beltz hau.

Hain zuzen, R. M. Azkue-k giputz izkeraren aurrerapide ta sasoi onaren billa jardun izan zuan, euskeraren batasun-bidea ta oiñarria hortan arkitu zitekeala uste baitzuan. Ta lenbiziko emaitz bezela hor agertu zituan "Gipuzkera osotua" ta Gipuzkoako Diputazioari eskeiñitako "Prontuario" dalakoa. Baita "Ardi galdua" eleberria ere. Are

---

**Zeruko Argia*, 134, 1965.

gehiago, Leaburu-ko seme bigarrentzat jo izan zuan bere burua, lan horren ondorio bezela.

* * *

Arabako Diputazioak kontziertu ekonomiko ta guzti ere, ez du izan 25.000 peseta mordo eskaxa, Azkue gurearen izena goresteko. Aipatutako gaia, Azkue MUSIKARI izan zan.

Guridi zoliak euskal-operarik egin baldin ba zuan, Azkue ere, eginbide hortan saiatua izan genduan. Hor dira "Urlo" ta "Ortzuri" ta zenbait antzerti-lan eta Euskal-kanta sorta ederrak.

Aramaioko seme argi Bizente Goikoetxea musikari azkarra, Azkueren adiskide mami ta maitea izan zan. Agiri danez, apaiz ere, Azkueren erakiñez egin omen zan Goikoetxea.

Arabako aldundiak ez du begiramenik ez eskuarterik izan, euskaldun aundietako baten izena goratzen laguntzeko.

* * *

Bukatu zan epea, eta epaia emanik dute epailleak.

Erritik urrun nengoan, epai hori agertu izan danean. Bilboko egunkari batean irakurri dugu.

Epaillearen agiria ez dakit nola idatzirik dagoan. Baiña nik neuk, honela jarriko neuke erabaki-agiria, oraingoak eta gerokoak ere jakin dezaten.

Lekeition, 1965 iraillaren 2-gn. Azkueren eunurte-betetzean antolatu dan jakintza-lanen sariketaren epailleak bildu ta lanak ikusi ta ikasi ondorean, epai hauxe jartzen dute:

Azkue, lexikugrafu. Saria, 25.000 peseta, Bizkaiko Diputazio foral-ohiak emana. Saridun: Luis Mitxelana Elissalt.

Azkue, errijakintza-zale. Saria, 25.000 peseta, Nafarroako Diputazio foralak emana. Saridun: Juan Thalamas Labandibar.

Azkue, musikari. Saririk ez du eskeiñi, eskatu arren, Arabako Diputazio foralak.

Azkue, literaturagille. Saririk ez du eskeñi, eskatu arren, Gipuzkoako Diputazio foral-ohiak.

IZKUNTZAREN NEKAZALEA*

ERKIAGA'TAR E.
Euskaltzaña

Nekazale itz horrek, langillea, lanean ari dana esan nahi du. "Orixe" gurea, nekazale azkar ta zolia izan zan izkuntza–alorrean. Buru–belarri ari izan zan egun ta eguzki, berbere mintzakeraz esanik.

R. M. Azkueren eriotza–ondorean, "Orixe"k "Gernika" aldizkarian azaldu lantxoan, gure mintzoaren itzurrenaren muiña, harek arau bakar batean eman zigula agertu zigun. Hortan, Azkue euskeraren jeinu agertzaille bezela etsi zigun "Orixe"k.

Arau bakar hori, alegia, euskeraz galdera dana berbera, erantzuna ere huraxe dala, esaldi–tajuz, itz–saillaren berdin–jostez.

Altube–k ezarri zituan geroago, ta argi ta zeatz ezarri ere liburuan, arau nagusi horren funtsa ta ondorioak, zehetasunez ta maisuki, agian.

Eta… euskal–sintaxis horren arauak argi ta garbi jarriak izan, eta halaere, oraingo idazle barri zenbaitek ez dituzte aintzakotzat artzen. Idazleak eta sermolariak ere, gaztelaniaren bidez–bide ari dira maizenik, eta nabarmen gaiñera. Txomin Agirre, Eguskitza ta "Orixe"–renganaiño eldu… eta berriro Mogel eta antzekoen lerrora jetsi behar ote du gure joskerak? Hoiek ematen diguten idazlana eta halakoek egiten dizkiguten sermoiak, izkera motel eta makalean, gatz eta piperrik ez dute esanaldian, funtsean izan arren ere. Izkera alperrik galtzen dute, irendu, moztu.

Idazle azkartzat jo dugu "Orixe", ta halakoxea izan zan. Batez ere gure izkuntza erabiltzen. Haren parekorik izan ote dugu hortan?

Esaldi laburraren zale bilakatu izan zitzaigun maizenik. Eta izan ere hor dago koxka: zera, esan nahi dana, esan behar dana giartsu ta mamitsu, argi ta jator–indarrez ezotua ematean.

Haren liburu "Santa Kruz apaiza" izan genduan lendabiziko tresna, haren erranera ta kera sumatzeko ta ikasteko. Lan harek jarri ginduzan euskal–esan moduari oharka. Hark egin zigun zirrararik edo zarradarik biziena. Eguskitza izlari ta Tx. Agirre idazle, guk geuk, geroago ikasi genituan.

---

*"*Orixe" omenaldi liburua*, 1965.

"Orixe"k behiñola agertarazi zituan artikulutxo batzuen oroimen ozta–oztakoa dut. Azkenengo emengo gerrate aurretik agertu zituan, eta "mugitzaz" izan ziran. Zergatik berriro ez argitaratu lantxo haiek gure onerako?

Mugitz hori, euskeraz, maiz erabiltzen dugu. Esaterako gaztelaniaz baiño maizago (Hortan izaten ditue euskaldun–berriak zenbait neke ta izerdi, ta orobat ergativu dalako –k hortaz). Holakoetan, iñoiz, Zamarripak itzulpenbalio gabea deritza; adib.: Ba dugu oria; ogia, txuria da; Jainkoak eman digu. Erabat esan, IZAN aditzaren predikaduak, itzak eta itzaideak(1) geienbat, mugitza daramate. Pekatu eta erderatiko zenbait itzek, ez daramate. Ez vokativuak (sing.) ta ezta kargu eta antzerako itzak ere, egon, ibilli tab. aditzekin. Eta –tzat atzizkiak aieru–kerua duanetan: semetzat, ontzat, atetzat, alkatetzat.

Jakiña, –a mugitzaz gaiñera, beste bi ere ba ditugu; –ok eta –ik. Harek, 1–2–3 notiñezko zerikusia du; zera, zuek eta hoiek, eta gu ere, adierazten du, eta beraz vokativu askorra. Besteak, –ik atzizkiak, ordea, zearo mugatugabea ta galdera–ukapenak zertzen ditu.

Ain zuzen, ez galdera ez ukapen danean ere, –ik hori agertu izan dala irakatsi zigun "Orixe"k. Harako eguneroko "eskerrik asko" arrunta. Eta beste nunbaitean, hona emen "Alostorrea" kantu zaharrean:

"Aizpa ederrak or daude
ederrik eta galantik…"

Ba dira euskeraz noski, esaldi motz–beraa ta zeatzak, izan ere artikulua aldebat utzita, esaldi argi, zorrotz, giar ta indartsuak ohi diranak. Izlauez maiz; baiñan maizago bertsuetan.

Labur–zurrean, "Orixe" iaioaren lerro batzuek aldatuko ditugu gure esanburuaren aletzat. Haren libururik txikiena —ta mamiz ederrena— dan "Barne–muinetan" liburua besterik ez dugu eskuetan hau idazte–orduan. Mugitza noiz eta nola hain txairo ta graziz baztertzen zuan ikusteko, handik ar ditzagun ale pitxi banaka horiek:

"Zeru, lur, egurats, gizon,
nigana tut
epaile–sur, oro begi.
Ez luze, ez zabal, ez sakon,

baino or zaitut
guzi oien irozgarri.

* * *

Begiz begi, gogoz gogo
gauden bi ôk;
naukazu maitatzen beti.
Atseden zak ontan, gogo;
isil, beha,
ta Iaunagan ago tinki." (IZAKI GUZIETAN)

Arnas sainduak gaitu
gu iauretxe bizi;
geurongan dugu, ta gu
geuregandi igesi.

* * *

Iainko–zantzu diranez
atsein didate eni;
argal naiz ta barreia
begi ta belarri.
Agur, inguruetan
zauten ikuskari!
Noan bidea gora,
gain dezadan mendi!

* * *

Aize ta arnas, indarka
alperrik naiz ari…" (GUREGAN)

Bekoki, biotz, gurutzez
apaiz iaunak igurtziez;
"ar zazu fede, Iaunaren etxe
garbi zaitea" esanez,
fedea sartu zizun, baitipat
belarriak idikiez." (SINEST–ARGI)

“Ilun, utsarte, zulo,
ezer ez guzia.

Nere etxe–barne onek
izena Ilundegi;
onen orma–iantzia
ez lur ta ez arri.

Ormatzat aize du, utsa,
utsezko sare–esi.
Argatik sar diteke
iare zure argi.

* * *

Eder ezak Iainkoa,
uts, argi, uts–argi!” (ILUNDEGI)

“Aitaren eder–dirdai,
ontasun–errainu,
gizonen argi eta
gauz danen eredu,
Bide, Egi ta Bizitza,
Artzai eta Maisu,
noiz buka neza Zutaz
luza bear ba nu?

* * *

Ikasi, ez–ikasi,
oro gara berdin.
Berri ori ikasteko
xume bear egin.
Oinetan nadukazu
itz danak ikasmin…” (ET FILIUM…)

Aita–Semên maitasun,
arnas, argi ta su,
poz ta argien emaile,

graziaren musu,
izkuntzen irakasle,
uso kurrumazu,
etxakide gozo ta
gogoaren gantzu." (CUM SANCTO SPIRITU)

"Iainkoaren Ama ta
Iaunaren mirabe
etxe doatsu ontan
nagusi nor ote?—,
Iaunagandiko grazi
guzien urbide,
niretzat orde, minen
Ama, batez ere!" (MARI)

Zornotzako Larran ikusi genduan, eta gero Tolosan azkenengoz. Bietan jaso zituan goeneko olerti–sariak.

—"Bil itzazu zure neurtitzik onenak eta liburu batean eman; aitzin–solasa neronek egingo dizut" —esan zidan orduan.

Ez dugu horlako zoririk izan.

Baiña, Azkue–ren "Euska–Izkindea" alde batetik eta "Egutegi bizkaittarra" bestetik irakurrita, euskeraren alde jarduteko kemenez bete izan zan euskal–idazle punterengo harek, izan ahal du dagoeneko, aitzin eta atergabeko solasa Iaunaren altzoan.

"ARRUGAIN" EK BERE, AGUR EGIN DEUSKU*

E. ERKIAGA

Askoren maisu izan zan "Kirikiño" maitagarriaren eunurteurrena ospatzeko gagozala, beste "euskal-idazle" bizkaitar batek agur egin deusku isil-isilik. Betiko agurra.

Mañariar argiaren denporan, Bilbon egozan euskaltzalerik agirikoenak, aldegin deuskue, urrengorik urrengo: N. Oleaga, M. Enbeita, Garro, "Orixe", Errazti, Arrutza orain.

Belaunaldi aretakorik, banakaren bat bizi da orain emen, Bilbon.

Ez genduan guk "Kirikiño" soiñez ezagutu, ez genduan iñoiz ikusi. Gure lenengo euskal-urratsak baiño leen joan zalako Mañariko bere "sasipera", Bilbotik agur egikeran berberak idatzi eban lez. Artikulutxu ori bai irakurri genduan denpora atan.

Geroago, aldi biurri batek menpean artu ginduzan, eta urrengo belaunaldiko euskal-idazlerik gitxiago izan da emen, Bilbon. Bear bada, bilbotarrik iñor bere ez.

Orain gazteak eldu dira, ta gu geu, zaar amaitu-urren dagozanen eta arrezkero agertu yakuzan orrein tartean gagoz, naikoa bakar, naikoa soil ain zuzen.

* * *

Bilbotar "euskal-idazle" orrein artean, ezagunenetarikoa bear bada, orain il barri yakun "Arrugain" izan da, edota berberak idatzi oi ebanez, Arrutza Egia-tar Mikel.

Orain 76 urte, Bizkaiko Instituto-Etxean bertan jaio izan zan. Ordurako bere, erdi baiño guztiz erdaldundua egoan Bilbo onetan, euskaldun gurasoen seme izan zalako, Arrutza beti euskaldun agertu izan da.

Ta ez ori bakarrik. Euskaltzale gartsu egin zan ezkero, bere bizitza osoan, euskal-irakasle izan da. Leen eta azken-egunerarte, bere etxean, seme-alaben irakasle eta beste edonorena bere bai. Orrez ganera, urte batzuetan, gerra aurretik, Diputaziñoiak zituan euskal-katedratako irakasle, beste jaun bigaz batera.

**Zeruko Argia*, 169, 1966.

Azkue aundia zanaz, artu-emon onak izan zituan beti, beste askok muker ta zitalkiro jokatu eben aldi luze aretan. Orregaitik, gure eritxiz be, bide egokia artu eban eta euskera barriaren aldekoen artean ez eban iñoiz lanik egin.

Zuzen-era edo metodu zuzenekoa landu eban gure artean, Masse Dixon erea euskerearentzat egokituaz. Idazle lez, langillea ta eragiña izan da betiro, naita aren lanak, alako egada luzekoak ez izan. Trueba-ren "Judas" ipuin luzea euskeraratu eban, Etxekalte izenez. Egunkarietan lan ugari agertu izan zituan gudu-aurretik, eta orduan eta arrezkero be bai, astekari ta aldizkarietan. Itz lauez egin izan zituan lanik ugari, baiña azken-urteetan bertsogille biurtu yakun eta ainbat olerki egin izan ditu, batez ere, fabula jokeralle biurtu yakun eta ainbat olerki egin izan ditu, batez be, fabula jokerakoak. Lehenago, emengo "La Gaceta" egunerokoan agertzen zituan artikuluak euskeraz.

Euskaltzaindiko "urgazle" zaarrenetarikoa izan dogu bera. Bazkune orren ixtori txikian, ain zuzen, aren izena agergarri izango da, jazoriko guztia idatzi gura izan ezkero.

* * *

Euskaldun zintzoa izan da, beraz, Arrutza. Sendi ederra euskaldun azi izan dau. Baikorra zan geienetan, itxaropenez betea. Zirikalaria bere bai. Azkenaldi onetan, A. Tovar jaunari gutun zorrotza bialdu eutsan euskerearen alde. Ta Tovar–ek bere eritxia agertuaz erantzun eutsan. Gaztelar euskaltzale au be, descentralista asmoz ikusi dogu karta orretan. Modan dago orain ori, ainbat urtetan geienak gor eta mutu egon izan diran arren.

Ainbat ikasle izan ditu Arrutzak eta ainbat euskaltzale utzi deuskuz ondorengotzat. Azken urteotan, irakasle ganera, beste zeregin berezian jardun izan dau; zera, emengo Erri-Irratirako euskal-lanak gertetan eta maminduten.

Gure agur ustebako onetan, Elantxobeko artitzak dirautsuguz, Mikel:

"Otoi bat, eta gero-arte".

ARRUTZA TA EGIA'tar MIKEL (Arrugain) 1890–1966*

Bilbon jaio zan 1890 gn. martiaren 3–gn., Plaza de los Auxiliareseko bigarren maillako Institutoan bertan, aita irakaskintza–leku orretako etxejagola edo kontserjea zalako.

Gurasoak, Arrutza Etxebarria, Luis, Mungia'ko semea eta Egia Iturain, Eustasia, Gatika–ko alabea izan zituan.

Gaztetxu zala il yakon aita, bost urte zituanean, eta orduan amagandik aldendu eta osabakaz bizi izan zan, Ondarretan ta Algortan. Seme bakarra izan zan. Onezaz, kontagarri da, anartean Institutoan bizi zala, beiñola, R. M. Azkue abade jaunagaz izan eban alkarrizketea. Dakigunez, Azkue, Bizkaiko lenengo euskal–katedrako lenengo irakaslea izan zan, eta jakiña, institutoan bertan euskaldun mutil kondoa aurkitu eban.

—Txotxo, nungua aiz i?

—Ni emengoa, jauna; bilbotarra.

—Bilbotar ume sostorra izan, eta euskeraz dakik?

—Bai, jauna. Gurasoak euskaldunak ditut.

—Nuntarrak dituk, ba?

—Aite, Mungikoa eta ama, Gatikakoa.

Geroago, Mikel gizon egin zanean eta Azkue–gaz artu emonetan asi, sarritan aitatu izan eben euren artean izan eben lenengo alkar–berbeta labur a: «Txotxo, nungua aiz i?».

Mikel gurea, 16–17 urte zituala asi zan aloger itxurakoa irabazten, eta orduan osabei agur–egin eutsen eta barriren barri bere amagaz bizi izaten asi zan.

Eta emen dago beste zeozertxu, guk, urte luzeetan argitu izan ez doguna. Eta orain, uste–uste barik, aren seme–alabakaz berbetan diardugula argi ikusi doguna. Arrutzak, bost urtegaz, bere amagandik osabekana aldegin ebanean, txikitatik ekian euskerea aaztu egin ebala. Orrek argituerazo deuskuz aren berbakeran eta idazkeran sumau izan ditugun alako gauza nabarigarri batzuk.

Amagana batu eta barriro asi zan euskera–bidean, bein eta betiko. Orduantxe asi zituan barriro bere neke–bideak euskera maitaga-

---

*Olerti, I–II, 1967.

rriaz jabetuteko, beste euskaldun aundi batzuen antzera. Alantxe Kanpion–ek, alantxe Arana–Goiri gazteak, alantxe Lizardik. Neke–bideak, bai, gaztetan, 8–16 urte bitartean euskeraz bizi izan ezak sortu oi dituan eragozpenak eta utsak gaindu eta bete eziñik…!

«La Polar» etxean asi zan lanean. Urrengo, Banco de Comercio–n sartu zan; eta geroago Bizkaiko Aldundian, oposiziño ostean, 20–21 urte inguru zituanean.

San Nikolaseko elizan ezkondu zan 1918 gn. urtean eta Colon de Larreategi kalean bizi izaten asi, 6–gn zenbakian, orain 12–gna dan etxean. Emaztea be, bilbotarra artu eban, baiña euskeraz ez ekiana (beste ainbeste esan giñei guk be): Sopelana Iragorri, Klotilde. Jaungoikoak seme–alabak eurrez emon eutsezan, dozenerdi, iru mutil eta iru neskatilla: Xabier, Begoña, Mikel, Iñaki, Itziar eta Garbiñe.

Azkue izan zan Bizkaiko euskal–irakastoki aretako lenengo irakaslea; Kirikiño, bigarren; eta geroago Arrutza, Altuna, Gandariasbeitia, Agirre Tomas. Azken–gerrateak ondatu eta galdu eban Katedra ori, eta Bizkaiko Diputaziñoko agintaritzakoak ez dabe bizarrik izan barriro jarteko, eta geuk be ez, eskatzeko.

Umeen eskolan be, jardun izan eban Mikel–ek euskera irakasten urte bete inguru, Ribera kaleko eskoletan, Errepublika denporan. Eta bere etxean, beti bai beti ekin izan deutsola euskera irakasten zahar eta gazteei, gizonezko nai emakumeei! Baita Bilboko Atheneuan be, 1951 inguruan, kurso bat edo.

Eldu zan 1936 gn. urtean erri–gudu edo anai–arteko burrukea, eta lergaien bildurrez, sendi osoa Zamudion bizi izan zan 8 illabetean. Gero, 1937–40 urteetan Bidasoaz andiko Eskual–herrian bizi izan zirean guztiak, Donibane Garazin eta Armendaritzen. Alemanak Frantzia erdia menpean artu ebenean, epai–gai auxe aurrean jarri eutsen: konzentraziño–barruetara ala Espaiñia aldera. Eta orduan, 1940 gn. urtean, barriro Bilbora jo eben guztiok. Egun garratzak ezagutu eta jasan izan zituan emen, ogibidea lortu arte. Arrezkero, 1942 urtetik il izan dan arte, Licenciado Poza kaleko 4–gn. bizi izan da. *Ogibide* ori, irabazpidea, Harino Panadera ogigintza etxearen bulegoan izan eban, arik eta 70 urte zituala, zahar–saria jadetsi eta ango lanari agur–egin eutsan arte.

Azkenengo amabi egunak soillik egin zituan oian, guk geuk, barruan egoanik be, ez genkiala. Bilboko erri–irratiak adierazo euskun ilbarria. Orregaitik idatzi genduan urrengo egunean Zeruko

Argiarako, agurrik be egin barik, isil–isilik joan izan yakula Aita–ren Etxe zorionez amaibakora.

* * *

Aren zaletasun berezienak zeintzuk ete zirean, itandu deutsegu aren seme–alabei, eta erantzun biribilla auxe izan da. Aren zaletasuna? Euskerea.

Gizon–taiua ezaguna dogu. Mikel ez zan ez luze, ez txiki, bardingoa baiño. Giarra, ta ez gizen. Ez estu ez bizkar zabal. Begiak bizkor eta sudurra dexente samarra, euskaldun askoren ezaugarri jatorra.

Osasunak goraldirik eta beheraldirik izan eban beragan eta 1950 gn. urtean garnuan egiten yakazan arritxuak kendu eutsezan osagilleak, ebakuntzaren bitartez. 1963 gn. urtean edo izan eban beste makalunea, andarrai edo birizorroetako geisoa, eta orduan Arrospide, Jon–ek lagundu ta osatu eban. Azkenean be, garnu–miñak garbitu euskun Mikel, baiña 76 urte zituala.

Aitaturiko makal–usain oneetaz kanpora, gizon osasuntsua izan zan. Eta baikorra, ganera. Laster estututen zan gizona izan arren, baikorra genduan. Buruko uleak zuriturik izan arren, ez eukan arek galbarrik, ule ugari ta sendoa baiño. Ortzak eta agiñak, bereak zituan guztiak eta kendu eutsezan iru matrallagin izan ezik, besteak danak euki eikazan. Aren begiak ez eben betaurrekorik bear izan, ez urrerako, ta ez urrunerako.

Gazte denpora eta geroago be, beti txapelaz ibili arren, oiturea alan zalako, geroagogarrenean, zahartzaroan, beste gazteagoen antzean, burutsik ibili izan oi zan. Eta bizkor ibili be, txiki–txaka urrats ariñak egiñaz, ez makilla ta ez albotiko.

Bai, zahartu samar bai, baiña aguretu barik il yakun geure laguntzarra.

* * *

Izakeraz zelakoa zan be, zerbait aitatu dogu. Lege zaharreko euskaldun erakoa zan. Baiña argitasun barriak buru–biotz argitua ta berotua. Abandoko Txapelaundiaren asmoak, Arrutza–gan be, lur ona ta samurra aurkitu eben, erne, sendo sustertu eta landara mardula zertuteko aiñean. Euskaldun arek bere erria ezagutu eban eta maitatu. Beste euskaldun askok be, jakin dabe argitasun onen barri. Baiña agintari–zelatasuna, diruaren indar biurria, senideen asmo zaharragoak eta abar direala–ta, ez dabe Euskalerria maitatuteko adore zindorik izan.

Eta, orra ba. Orain, ainbeste urte joan ostean, orra nun, Españiako errialde askok be, euren bizimodua ta izakerea zaindu eta gorde nai dabela entzuten eta irakurten diardugu 1966 garren urte onetan. Zil-aginpidea, zentralismu oraiñarte gizen eta eder ori, txarretsigarria eta kaltegarria izan ei da. Olakorik, jaunak? Zer esaten jardun izan dabe ba, aspaldiko 70 urtetan euskotarrak, euren bizimoduan bizi gura dabela eta euren lege bereziak ondatu barik iraunerazo gurarik ikusi nai dituela. Orixe kontu polita! Gaur dan egunean, españiar estaduko errijende guztiak ei ditugu descentralistak.

Oh, tempora, oh mores! —latiñak orrelakoari.

Zer ikusi bear ete dogu ba? Euskaldunentzako zigorkadak amaitu egingo ete direala?

* * *

Baiña gatozan arira.

Arrutzak, euskera ikasi ezezik, urte luzeetan irakasten jardun izan eban. Lenengo bere seme–alabei, gero beste askori. Gogoragarri da, ikasleen artean, arako abade ikaslea. Sei illabetean ikasi eban eta arrezkero, sermoiak be, euskeraz egiten ei zituan.

Tamalez, ez dakigu abade jaun orren izenik.

* * *

Amaika lerro idatzi izan zituan euskeraz. Geien geienak bizkai izkeraz, eta itz lauez, prosaz. Baiña neurtitzak be egin zituan, eta or ikusi dogu mordo ederra aren paperen artean. Eurotatik asko, alegiak dira, fabulak; arek berak, arkameleak eritxen, (L) itzez.

Idazlan eta artikulurik ugari egin izan eban, 1911 urtetik illarterañokoan, egunkari eta aldizkarietan agertuerazoaz. «Euzkadi» egunerokoan 1913–33 urte bitartean. La Gaceta egunerokoan, 1933–36 bitartean. Arrezkero, be, La Gacetan, 1956 ta 58 urteetan zerbait agertu eutsen. Lanik geienak, «Arrugain» itza eroan oi eben egillearen izentzat.

Aldizkari batzuk izentauko ditugu, aren lanen agertoki izanikoak: Argia, Ekin, Karmel, Olerti, Goizargi ta Jesusen Biotzaren Deia. Gerra denporan agertzen zan «Eguna» egunkarian be, lankide izan genduan. «Eguna» egunerokoa izan zan, guztia euskeraz egindakoa, Bilbon, 1937 urtebarrian asi eta urte aretako bagillaren erdirarte, bost illabete ta erdian. Egunkari orretako erredatoreak, zorionez, bizirik diraue oindiño, ia guztiak. Askok ez dakien albista zaharra

dozue au. Bilbon, gerra denporan ain zuzen egin izan dala egunkaria euskera utsean.

* * *

Lan osoak onexek izan ditu:

Euskal–ikasbide erraza

Euskera ikasteko bide erraza

«Etxekalte» A.Truebaren El Judas de casa ipuin luzearen bizkaierazko itzulpena.

Beste lan luze samarrik ez eban egin. Ogibideak emon eutsan bere bizitzan naikoa zeregin eta ez eban astirik izan ikasketa sakonak egiteko. Bestalde, ez eutsan Jaungoikoak emon alako doai berezirik, esaterako asmamen zolia, irudimen arroa, idazle–kasta eta abar, arnasa aundiko lanei ekiteko bearrezko direan zerak.

Egin zituan lanak, gogatsu eta adorez zertu zituan. Azken urteetan Bilboko Erri–irratirako lantxuak gertetan zituan, asteroko Euskal–ordua gaiez beteteko, Tx. Peña lagun ebala, geienetan.

* * *

Aren idaz–karpeetarik batean ikusi dogu egun gomutagarri baten zerzelada ziurra. Zera, 1918 gn. urriaren 24–an sortu izan zala Oñatin «Euskaltzaindia», orain 48 urte; ain zuzen Arrutza ezkondu zan urtean bertan.

«Euskaltzaindi» orrek, Azkue bizi zala egin eban Arrutza euskaltzain «Urgazle». «Euskera ikasteko bide erraza» liburuaren itzaurretxua, R.M. Azkuek berak idatzia da.

«Euskaltzaindi» orren kolkoan, egun alaiak eta egun latzak ezagutu izan zituan Arrutza zanak. Latzak batez be, 1960 urte inguruan eta 1963 gn. izan zirean. Zer batzuk ez eben gure gizonaren oniritzirik lortu eta beste batzun eretxiak beste erabatakoak izan zirealako, eztabaida garratzak sortu zirean. Orduan jazo zan guztia ez da ostera, idatzia izan. Baiña, geroak argituko ditu guk orain ulertzen ez ditugun zerak.

1950 gn. urte inguruan, F. Krutwig euskaltzaiñaren buruzagipean eratu izan zan Bilbon Jul Urkixo Elkargoa. Elkargo orretan be, tarteko izan zan Mikel.

1963 inguruan, «Euskaltzaindiaren Laguntzailleak» barriro taiutu nairik alegiñak egin zirean eta Bizkaiko taldean, Arrutza izan zan zadorlari ta Lendakari, Oleaga, Nazario. Ez ulertzeak edo

makur–aitutzek izan zirean andik lasterrean, eta talde orrek, satorrak jota —edo, banatu ta lorrindu bearra izan eban.

Azken urteotan, Bilbon egin izan direan euskerazko elizkizunetan, eratzaille izan da Arrutza, beste lagun batzuekin.

* * *

Zerbait zuzen ez egoala irudituten baiakon, gertu egon oi zan ari edo oni idazkia egiteko. Zirikalari itzela zan eta eztabaidarako bidean sartu oi zan.

Igaz bertan, euskerearen alde ta gorabeera batzuk argitu gurarik, Antonio Tovar jaunari gutuna egin eutsan, au da, karta idigia. Tovar–ek bai erantzun be 1965 iraillaren 13–an, eta beste zer batzun artean, berba oneek iñozan: «… el problema de las lenguas no castellanas en España».

Alan bearrez edo, Tovar jauna be, orain, descentralisten artean dago Espaiñian bertan, eta adiskide barri asko ei ditu banaketa asmo bardiñekoak.

* * *

Arrutzaren etxean ogetaz karpetak ikusi ditugu, guztiak euskal–lanez beteak. Bai, aren bizitza naikoa luzeko euskal jardun etenbakoa.

Guenengo zeregiña, or agertu barri dan «JO!» liburua dozue, umeentzako egin daben, euskal–irakasbideak, irudi ugariz. Aita Lino eta Arranbide Anaiak taiutua, Mikel lagun izanik.

* * *

Ez eban eguno bere burua anditzat jo. Euskera aldeko lan eskerga ta geienetan esker txarreko onetan, ainbat eta ainbat atxurlari ta segalari bear ditugu arazo neketsu au burutu nai baldin badogu, eta sail eta talde orretan Arrutza Egia tar Mikel gizon apal eta langillea genduan, ereile ona, beargin zintzoa, Euskalerriko seme jatorra.

Santu isil eta apalak be, euren neke ta lanen bitartez zeruan euren tokitxua irabazi oi daben antzera, Mikel gureak be, ekin eta ekin, erle langilleak euren abao gozoa eratu oi daben lez, bere gari mordoak eta maats garauak eskeiñi izan deuskuz gure izkuntzea sendotzeko ta indartuteko, ta bere zorion–tokia eta izen ona irabazteko.

Kardaberaz doatsuaren esanez, «Euskerak burua jasotea Jainkoak» nai baldin badau, bardin bardin gura izan dai, euskaltza-

le ta kristau zintzoak, euren lanen eta arduren ordezkotzat zeruan arin eta errezto sartzea be.

Labur esan, Arrutzak bizi gareon euskera–maitaleon txera laztantsua, ta maite–agurra merezi dau. Gure txaloak ba arentzat eta gure esker ona ta euskal–agur bero beroa.

Eusebio Erkiaga

Zornotzako Larran, 1966 gn. urteko.
Olerti sariketa jaian, Urriak 30.

BIZENTE AMEZAGA ARESTI*

Hau ere, bizkaitarra genduen, Algortan jaioa, 1901 uztailaren 4–an, eta Venezuelako Caracasen ila, 1969 otsailaren 5–ean.

Legegizon egin zen Salamancan, eta izkuntzazale bilakatu, ingeles frantses, griegu, latin eta euskera ikasi bait zituen.

Atzerrira jo zuen, eta Montevideon eta Caracasen irakasle jardun. Instituto Americano de Estudios Vascos delakoa sortu ta Venezuelako euskal–jatorriko gizon asko aztertu zituen istori–lanetan. Shakespeareren «Hamlet» eta Juan Ramon Jimenezen «Platero y yo» euskeraz eman zizkigun. Esquilo, Plinio, Descartes eta Cervantes idazleen lanak ere itzuli zituen.

Laguntzaile izendatu zuen Euskaltzaindiak eta haren izkera, geroago ta jatorrago ta atseginago zen. Jaunarengan atseden beza haren gogoak.

E. Erkiaga

---

* *Euskera*, XIII, 1968.

MIGEL ARRUTZA EGIA*

Euskaltzain laguntzaile hau ere, il zitzaigun 1966 gnko. maiatzaren 12–an. Bilboko seme izanik, euskalduna zan mutikotan. Geroago, aita il, ta amagandik berezi bizi izan baitzen zenbait urtetan, euskera ahantzi egin zitzaion; ta ogei urte zituela, berriro saiatu arbasoen mintzoa ikasten. Gero, ilarte guztian, euskal–irakasle izan zan. Aldi batean, Bilboko bigarren mailako Instituto delakoan, Bizkaiako Diputazioaren laguntzapean. Gerra ondorean, bere etxean, batipat.

Langilea izan zen euskal–alorrean, eta hainbat idazlan agertu zituen egunkarietan eta aldizkarietan, bizkaieraz gehienbat, ta azkenaldian, izneurtuak ere bai. «Euskal–ikasbide laburra» gertu zuen, izkera bizitik zuzenean ikasteko asmatua. Itzulpen batzuek ere, egin zituen. «Arrugain» izenordea erabili ohi zuen. Irurogei ta amasei urte zituela joan zitzaigun. Goian bedi.

E. Erkiaga

---

* *Euskera*, XIII, 1968.

PABLO FERMIN IRIGARAY GOIZUETA "LARREKO" (1869–1969)*

Beltzez jantzia, kapela ta eskularruak ere; alkandora ezik. Bizar txuria, murritz. Euskal–basoko txoria genuen. Txoria erran dut, eta berberak eman dit hortarakotz aurrerapidea. P. Caballero kalean, Iruñe zahar huntan, ba zen 1938 gn, urtean, beste askoren artean, etxe polit bat, «Larreko»–ren egoitza, atalburuko orman, itz huetxek zituena: «Edozein txoriri, eder bere kabia».

Gipuzkoako Mutrikun, 1935 gn. urtean ikusi nuen lehenbizi «Larreko» gurea.

Euskal–idazle Batza sortu nai genuen. Ta batzarrera deituak izan ziren idazleak oro. Biltzar hartan, elkarte berria eratzezko giza–oiñarri bezala, lagun–sorta autetsi zuten. Sorta hortakoak, Gipuzkoako idazleen izenez, A. Arzeluz «Luzear» ta Joxe Zubimendi izan ziren autatuak; Nafarroakoen izenez, «Manezaundi» ta «Irular» Larreko zenaren semea; ta Bizkaikoengandik, Beñat Garro «Otxolua» ta nire burua. Orduan 22 urte nituen. Sei gizon haietarik, beraz, bi soillik gagoz bizirik.

Euskaltzaindiak lehen oreneko Urgazle izan zuen Fermin Irigaray. Harekin halaber, Teodoro Arburua, Aita Kaparrosokoa, Aita Eusebio Etxalarkoa ta Nikolas Ormaetxea, «Orixe» aundia. Aldi hartako Euskaltzain osokoak, Arturo Campion eta Aita Intzakoa izan ziren, hain zuzen gure oraingo aiton bakarra.

Auritze–Burgueten jaio zen «Larreko», 1869 urteko ilbeltzaren 25–ean, eta Iruñean il, 80 urte zituelarik, 1949 gn. urtean. Aita, eskola maisua izan zuen. Madrillen egin zen Larreko, miriku ta osatebakile. Bidasoako Beran asi zen bere egikizun hortan, Iruritan jarraitu, eta geroago, azkenerarte, Iruñean, Barañain delako Nafarroako Geisotegi nagusian ziruganu ta zuzentzaile buru ere.

«Larreko»–ren jaiotetxea, etxe ederra da –dirausku N. Alzolak. (EGAN, 1–6, 1967, 19–20 gn. orrialdeetan). Gerrate aurrean barriztaua, Etxaurreko goiko bizitzan, orma–arrian euskeraz; «Martin Zurginenea 1933–URTEAN–VERRITUA». Emen imini bear jako

---

* *Egan*, XXX, 1970.

oroigarriren bat Eunurteburuan, gitxiagorik eztau merezi–ta, euskal–idazle ta osagille aundi arek.»

Orain ogetamairu urte, anai–arteko burruka luzea asi zenean, nork ez ditu–ta, Irigaray zaharrak ere, ba zituen etsaiak, noski. Haren kaltetan, behin eta berriro izan ziren salakuntzak. Hoien berri, gobernadoreak eman omen zion obispuari; hain zuzen, hunen etxeko mirikua «Larreko» izaki.

Obispuak eman zion jardespena gobernu–gizonari:

—Untsa ezagutzen dut Irigaray mirikua. Baiña, erran ezadazu, otoi, Nafarroa osoan, haren pareko gizon onak, zenbat ote ditugun…

1938 gn. urtean, udaran, soldadu jantzia ni, Maestrazgo mendietan artu balaz osatu ondoan, berriro ere Levante aldeko gudu–oiñetarantz ninjoalarik, Iruñe huntan, kalean idoro nuen gure gizona. Behin baizik ikusi ez nuena, ikusi–ala bertatik ezagutu nuen, ene zorionez. Beltzez jantzia dena, eskularruak ere bai; bizar txuria murritz.

—«Larreko» jauna! —erran nion.

—Nor zaitut? —erantzun zidan, arrimenez.

—«Endaitz» nauzu, Bizkaikoa.

—Ta, bizirik?

—Eiki; anitz ilak, gu bizirik.

—Eta nurat zoaz?

—Gudutokira berriro ere, Castellón alderantz.

Geroago, beste txalet polit hartara eraman ninduen. Solasaldi luzea izan genuen, urte bi haietako gertakarietaz, eta batipat, gure errialdeko hainbat eta hainbat euskal–idazleen zerzeladak jakin gogoz ikusi nuen. Gure idazle zaharren artean, Haraneder zuela kutun antzeman nion. Haraneder ta haren laguntzaile biak, agian.

Labur eta murritz eman digu L. Mitxelenak «Larreko»–ren berri, bere liburu «Historia de la Literatura vasca» izenekoan, 154 n. orrialdean, prosagileetaz ari dela: Aldizkari, asteko–paper ta eguneroko zenbaiten euskal–orrialdeetan ezagunak ziren, hala merezi–ta Fermin Irigaray «Larreko» nafarra, ta «Luzear» giputza.

«Lizardi»–ren ITZ LAUZ liburuan, 61 gn. orrialdean, irakur dezakegu, «Euskera aundiki soiñekoz» artikuluan:

«Eusko–aundiki guziek euskeraz ariko balira, euskera gaizkatua, salbatua, omen genduke. Amaika bider entzun diotegu orixe «Larreko» ta «Txadon Zaia» idazleei.»

Ta geroxeago jarraitzen:

> «Geren buruon yazte osoa erderaz egin baitegu, alperrik litzake besterik eskatzea; nai ta nai ez bear alegin zalla, geronen artean bederik, gai biurri–samarrak euskeraz erabiltzeko. Ta emen dator elkarri esatea:
>
> —Au eztiagu aski. Orain euskeraz ari bear diagu. Ba al dakizute nolako nekea genduan ori? Euskera umetan erdi–ikasi, gero erdi ortatik iru laurden atzendu…
>
> «Masaillak gorritzen zitzaizkigun ederki, beti elkarrekin erderaz ari izanok, ordudanik euskeraz ari bearrez. Baña egiñal latz askoen bidez yaundu ginduzun geure buruez, ta geroztik, ostera, ezin erderaz ari gaituzu.»

Bai esanaldi giarra, estilu txukuna, argia, euskalduna «Lizardi» ahantzigabearena!

Izan ere, hain dira pareko «Larreko» zaharra ta «Lizardi» gaztea, euskera gurea zeatz, jator, aberats, bipil jakin naiean. Euskera erdi jakin, ta gero zearo jabetu arteraiñoko izan zuten nekea, lana, malkarra ta aldatza, erriaren aotik belarrira ta idazle, onentxoenen liburu ta lanetan xurgatuez, izkera jatorrarengana antsi ta minbera.

Beti zabarkeriaren igesi, erdalkeriaz herabe, mintzaira trakets eta mordoilloari aitzi, euskerarentzat jokabiderik onuratsuena horixe zela uste izanik.

Euskerarenganako ospe, itzal eta begirapena errian aizatu nairik, euskaldun ikasiak, letradunak, apain jantziak eta buruan kapela ta guzti, euskeraz ari izatea, txit ongarri iduritzen zitzaion «Larreko»–ri, mintzaira zaharrak gero ta eremu zabalagoa iritxi zezan. Izkera errikoia, ugaria, bizi–bizia, jator ta bakana, arau eta erran zuzenak kontuan izanik, jakiña. Baiña baita gai goitarrak, jakintza gaiak ere, erabiltzeko gertu ta zertu behar zen mintzaira. Zaharraren eta gaztearen garra ta gogoa, berdintsua genuen.

Liburu hartan bertan, 114 gn. orrialdean, Lizardik, «Urli» adiskide erreminduari erantzunaz, diotsa:

> «Ondoz, etzenduan «Larreko» agurgarria ta ni elkarren aurkez aurke zertan yarria. Orretxek, geienbat, erantzupen au egiñarazten dit.

«Larreko»–ren iritziak maiz txorrotxegiak iduritzen zaizkidan arren, gizonez maite det; idazlez ederresten; abertzalez, gorasarre dagiot. Bikaintasun oiez nere eskuek ez ukitzeko diñan goitia ez balego ere, ille urdiñarenganako itzal samurra bear nuke aski. Aren aurrean bai, atera dezakegu txapela biok, eta beste zenbaitek ere.

«Itz oietxek zor nizkizun, aiton burutxuri, begikoa; ta artaratu nauen abagunea atsegiña ez izanda ere, ongi etorri bedi, biotza lasatuaren ordaiñez.»

Horra hor borobil eta deplauki esan Lizardi gazte zenak, «Larreko» agure xaloaren elesaririk mardulena: *gizonez, maite; idazlez, ederretsi, ta errizalez, gorasarre egin.*

Sarri askotan izan dut buruan, aranots eta durundu barnekoi gisa, zarauztarraren bertsu hauxe:

«Baña nik, izkuntza larrekoa…

(BIOTZ BEGIETAN, 136 orr.).

II

Bihotzaldia eskini diogu, ordea, ta egin dezaiogun orain haren lerro–sailari aginka ta ozka urtsua. Iruzpalau arlotan bana dezakegu idazle nafarraren jardun osoa.

Sinismenez, kristau erromatarra genuen, elizkoia oso, mezatara egunero joaiten zena. Haren artikulu «Feminismoaz» delakoan, Andre Dena Mariaz erran zuena: «Aldiz, amaberjina (Jainkoak) bere amatzat berexi zuelarik, ez da izan sortu direnetan, hura baino handiagorik, ederragorik eta sainduagorik.» Kronikarik geienak, hunela bukatzen zituen: «Urbilen aldi arteo, Jainkoak hala nai duelarik.»

Haren euskalzaletasuna erraitea, ez da aski. Bere Erriarenganako zaletasun bipila agertu izan zuen. Euskalerri osoarenganakoa, ta jakiña, Nafarroa barne zuelarik. Haren itzetan ikusiko dugu geroago.

Ez zuen iñoiz bere ez izlaritzat ez idazletzat jo. Aldi hartako «euskal–idazlea» zen, xoilik. Izenordez geienbat lanean ari ziren errikoseme apal haien artekoa, albistak igorri, iruzkiñak egin, asmoak agertu, erriaren alde eta izkeraren alde jardun.

Hunela, gogoan ditugu orduko izenorde zenbait. Bidasoaz haraindiko Oxobi, Anxuberro, Zerbitzari, Haur prodigoa. Eta hunaindiko Manezaundi, Larreko, Irular, Urtsuia; Orixe, Luzear, Lizardi; Kirikiño, Otxolua, Arrugain, Lemoarra, Nabarriztarra, Lauaxeta… Azkuek berak ere, eta Txomin Agirrek, zeinbat izenorde beuren lanetan!

Literatura–zelaietan bazkazale ez zirudian arren, halaere Larrekok lan polita utzi zigun, eleder–joera aztarnaz ornitua. Zera, «Euskaldun biozduna Mexikon» deitu jarduna, literatura puxketa atsegina da; berak ezertxo ere asmatu gabe, inorengandik zearo jasoa dela aitortu digu, ordea, apaltasunez. Tokiak eta egoerak poliki azaltzen ditu, eta jardun–aria, txukun eta argi arildu.

Euskerarenganako zaletasun hortan, atxikia ta zintzoa izan zen. Umezaroan eta gaztezaroan ez zuen izan mende, agiri danez, arbasoen mintzaira. Horregatik, haren nekea etengabea izan zen, beti ikasten, beti kezketan izkera jatorra, garbia, egokiena, bere esanetara makurtu beharrez.

Horra hor argi jarri, «Larreko»–ren izkera zergatik ez zen, ez bere sorterrikoa ta ez Baztanekoa. Beste izkelgietariko emaitzak bildu baizituen, bere estilu bakan hori borobiltzeko.

Min hartu ohi zuen «Larreko»–k, hainbat euskalseme ta hainbat euskal–alaba erderaren mende ari izana. Min hartu ohi zuen, euskera moldakaitza entzutean eta irakurtean. Orobat, mintzoaren izaitea, itz xoiletan zetzala uste zutenak asko zirela oharturik. Horregatik, haren garbimina ez zen, batipat, itz jatorren aldekoa xoilik; esanaldi, itzurren eta erri–joskera ta erran bakanen erabiltzaile ta gordetzailea baizik.

Haren erran bat, hauxe dozue: «Leenik, euskeraren garbitasuna eztago itzetan bakarrik, baizik–eta izkera erabiltzeko eran, euskararen joskeran, esakera borobiltzean, aditzaren bereixten eta behar den eran ematen.»

Egungo egunean ere, aditza ta atzizkien joko ohituak ikasi premia ba dugu gure artean, idazleon artean; eta itzurrena, Jainkoak daki.

Sebero Altubek, «Erderismos» liburuan, erranaldi ereduez ari dela, birritan aipatua du «Larreko». Batzuetan, erraneran, aditza aienatu egiten dela, ta esanaldi txairo ta txukuna izan ohi dela indartuaz. Eredu: «Ostatuan idazteko maitxo batean nindagola, bertze mai batetik emakume gazte apain batek eni buruz, euskaraz: «Gabon, jauna; emengo aldi?» Ta geroxeago: «Orduan arek: ni Iruñako… ala-

koa, anai batekin gaur etorria.» (ERDERISMOS, 19 orrialdea. E.9–VI–28).

Izen–ordezko berritzaileak gaiaz ari dela, esanaldi hau ezarten: «Utzi bear zaio bakoitzari *berak* nai duen elez iardesten.» (ERDER. 92 orr. Napartarra, N.º 39).

Gure elederraren beste historigile batek, Aita Villasantek alegia, idazlea, erriaren elemolde arruntean lotuegi ezin ditekela ari, erran digu. Jakina! Idazleak, gai sakonakoak eta goragokoak izango ditu; baiña ez du eskubiderik izkera bera, erriak baiño traketsago ta illunago ta aldrebesago bilakatzeko.

Lanak daramazkian gaiak eta laguntzailleak eta gorabeherak nola elkartu, idazleak jakingo du, noski; halarik ere, idazleak, ari dan izkuntza, darabilen izkera zaitu, gorde, osatu ta txukun agertu behar duela uste dugu, beste errietako idazle gailenak eta azkarrenak egin duten bezala.

Beste alderdi bat, eta «Larreko»–rengan goragarriena ta axola nagusikoa, bere saileko gaiez, euskaraz idatzi izana: osasun gaiak, miriku arloko jakingarri zenbait, garbitasuna, edariak, gizonen eta emakumeen lanak, eta abar. «Andre ona duen senarra, etxezulo agertuko zaiku: andre ona ez duen senarrak, ostatuan bazkalduko du maiz samar, ostatuan afalduko ere, ta gero… ondokoak.»

Gizarte saileko axolaz jardun zuen. Hala, emakumeen lana nolakoa izatea komeni den, erraiten digunean.

Entzun dezagun haren mintzoa: «Legearen arabera, eskubidez, zuzenez, gizona ta emakumea berdin badire ere, izatez gizona, gizon, eta emakumea amagai eta ama. Gizonak, arra den aldetik laster du lana bukatzen. Emakumeak, aldiz, eme den aldetik, arrak beretuez geroz, miñak eta lanak ditu beregain, amatzeko bideetan eta gero.»

«Hortatik ageri da gogo–almen berberak ditugula gizonek eta emakumeek; emakumeek gizonek aña lan egin dezaketela jakintza arazo eta esku lanetan. Egia ori ukatuko duenik, ez dut uste izanen den. Damurik, Euskalerrian dakusagu emakumeek gizonek aña eskulan egiten, bidezkoa ez dela guziek ikusten dugularik.»

«Egiazko *feminismo*, hortan dago; ama on bat izateko, etxekoandere bear bezalako bat egiteko bideetan azi eta ezi. Neskatxa guziek artu behar duten bidea hortik eldu da; hori da guzien ibilbidea.»

«Jakina, alditan, bide hortik ibiltzeagatik ibili daitekela bertze bide batzuetan barna, irakasle, eri artazale, salzale, sal–erospenetako kontu–artzale eta holakoetan.»

«Gizondu naiezko hortan, zer geiago egin dezake emazte batek, senarrari bihotzarekin nagusitzea baño?»

Duela urte anitz idatzi lerro hoietan, egungo egunean gure artean ere, ontzat emaiten diran asmoak direnez, «Larreko» gizarte saileko arloan aintzindari izana dugu. Izan ere, haren iritziz, emaztekiak ez luke lurreko lanetan jardun behar. Iritzi zuhurra ezarri zuen baitezpadako agerpen hortan.

Jan–edan kontuan ere, ohar zorrotza eman zigun. Alegia, abereak jan eta edan, banan, berexi egiten zutela; eta gizonok, ordea, nahasmenduan ari gara jan eta edan, edan eta jan. Izpirituaren, ots, alkoholaren arrisku ta kalteak ere, azaldu zituen. Aditu dezagun haren erranaldia.

«Hipokrates delako sendakinetik asi ta sendakin geienek goretsi dute ardoa gizonarendako, berdin osasundun delarik edo erigaxo dagolarik.»

«Untan ere, ezpairik gabe, guziek diote: ardoaren izpirituari dagokionez, bakotxaren negurri artarik landa, pozoina dela. Bakotxak zenbaterainokoa du, negurri ori? Batbederak ezagutu dezala. Arek litro bat artu, eta ongi; nik, aldiz, litro bat artu, eta mozkor–arraildua.»

«Bizkitartean, edarikoiek nahiz sendo iduri, erdolla barnetik dute. Erdoil orren nabarmentzeko, gaitza batek jotzen duelarik. Orduan, sendoenak nolaz? Oso gaizki; burutik naasten ezpadire, giltzurrinetik edo biotzetik mainguka dabiltza; eta borrokan edo garaikerrian mainguka dabilena, laster lurrean dago. Ori, sendo iduri dutenek; aldiz, kezketan asiak direnak, urdailletik ala gibeletik, unela lasterregi nekatzen dena, atsanditzen dena, gizenegi dagona, oriek guztiak arjoak ditezke, eta kontu.»

Andigo ta edadura areagoko lana ian zitekeana dugu, harako «Sendalari baten argiak» lanttoa. Egia da gai hori, gaztelaniaz ere eman izan zuela, liburuxka batean.

Huna hemen ataltxo bat:

«Eri–handi batek, *ezagutza* edo *burua* nola daukan jakitea, garmendu andiko gauza da. Ilundua ezagutzeko bideak bilatu nai ditut eta ahal dutan argiena, erien laguntzaileari erakasteko.»

«Baiki; askotan, gauza zalla eri–handi batean ezagutza, guti aski ilundurik dagonean, noraraño dagon ilundurik jakitea. Gertatzen ohi da: eri–handitu baño lehen, burutik ez ongi egotea: orduan ez da

erraz berexten lehengoetan erituez gerozko nahasturia, osotara nahasirik kausitzen ditugularik.»

«Behin, eri xahar bat, betidanik *gizon bitxia* zenez geroz, grippe delakoaren sukarraikin *biriak ukiturik*, oso nahasia zagon.»

«Egin nion agerraldi batean, etxean sartu ta gaxoaren emazteari nik:

—Zer dio, nahasirik dago?

Eta emazteak, bizi–bizia:

—Noiz dago berexirik?

Eritu aitzinetik ongi ezagutzen bazuen bere senarra, erituz gero, etzakien burutik makurrago ote zagon.»

«Larreko» gurea udako oporretan, atseden eta atsegin eta osasun billa, hor goiko lurretara joaiten zen, Pantikosara alegia. Handik ere, kronika politak eta berri jakingarriak igorri ohi zituen egunkari eta astekarietara. Hango ikusiaren ederrez, hango aizearen garbiez loriaturik egon ohi zen, urtero, birikak indartzen eta azkortzen zituelarik.

Eta azkenez, haren lerroketa bortitz hauxe irakurriko dizuet:

«Euskerak, izkuntza guztiek bezala, bere dituen bideak eta orkoiak ditu; bide oriek, euskaldun garbien artean dagoz; idazti zaharretan ere bai.»

«Orain, lehen bezala, euskera garbi ikasteko, erdara ez dakiten euskaldunekin behar da ikasi, edo erdaraz zerbait jakinik ere, gogoa, pentsamoldea euskaldun dutenekin.»

«Huntaz landara, euskaldun garbi, ikasiak dira nagusienak guri irakasteko. Ez bakarrik itzeginez, baizik eta beren idazti eta irakurgaiaz. Euskararen erro garbienak, euskaldun xaharretan daude. Gramatikaz eta irakurtuz xoilik, beinere ezta euskaldun garbienen joera erdiesten. Entzunez, aurrek ikasten duten bezala asi nintzan ni ere.»

«Baino orduan, norbaitek ohartuarazi zidan nere deiturak eta nere jatorriko leku–izenak, erri hartakoak bezala, euskarazkoak zirela. Orduan, argitasun handi bat egin zen nere gogoan, argi ta garbi ikusi bainuen nere izatea euskaldun dela, eta nere arbasoen izkuntza EUSKARA izan dela.»

«Orai, gure gogoak arroztu ondoan, egin nai dugu euskara bat gure ortoki eta moldetara, eta hori ez da bide zuzena. Gure gogoak biurtu behar ditugu euskeraren moldetara. Aldi untako euskal–idazle geienen gaitz makurrena, erdalera dugu…»

«Letradunek dugu euskara oinperatu —erran zuen «Larrekok»; letradunek, jaun eta anderek, dugu euskara goratu eta gaitu behar.»

1969 abenduaren 3–an.

EUSEBIO ERKIAGA

R. M. AZKUE EN LA LITERATURA*

En el campo literario del euskera, don Resurrección tuvo antecesores entre sus mismos Paisanos. Recordemos en el siglo XVIII al jesuita Basterrechea, autor de unos "Versos a la Pasión de Nuestro Señor Jesucristo" que, compuestos en vizcaíno fueron vertidos a la variedad dialéctica guipuzcoana y cantados durante varias generaciones, sobre todo en las épocas cuaresmales, en tierras vizcaínas, guipuzcoanas y navarras. Este trabajo ha merecido grandes elogios Por su fondo y su forma, por parte de literatos antiguos y de nuestros días.

Otro compositor de graciosos versos fue el sacerdote Aboitiz, los cuales tuvieron, asimismo, gran popularidad. Citemos tan sólo los más conocidos, puesto que otros manuscritos no han sido aún dados a la luz. Tales con los dedicados a "Txanton Pipirri", famoso glotón arlote de época pretérita y que luego iba a ser el nombre de una ópera vasca cuya parte musical fue escrita por otro paisano suyo, el maestro Buenaventura Zapiráin. Otros son los que glosan la personalización del dicho "De balde se murió el hombre". Son los versos de "Peru Dubako".

Años más tarde otro poeta ocupó un lugar estimable entre los valores literarios del siglo pasado. Fue justamente Eusebio Maria de Azkue, padre de don Resurrección, figuras ambas homenajeadas por su pueblo natal en el mes de junio de 1936.

Eusebio María fue notable matemático y desempeñó cátedras de enseñanza en las Escuelas de Náutica de Bermeo, Mundaca y Lequeitio sucesivamente, en el siglo pasado. De él nos queda un libro que su hijo editó posteriormente con el titulo de "Parnasorako Bidea". Contiene algunas traducciones, pero la mayoría de los trabajos son originales, versos bien elaborados en general, y muchos de ellos llenos de humorismo y hasta de picardía, hábilmente manejada. Algunas poesías han sido populares.

---

* *El Correo Español-El Pueblo Vasco, Suplemento gratuito*, 1972-IX-10.

EL HIJO

Don Resurrección heredó de su padre, pero sobre todo de su madre, mundaquesa, el gusto y afán extraordinario por la lengua vasca.

La verdad sea dicha, no se ha hecho un estudio serio sobre la producción literaria del mismo. Ese momento fue imposible en la conmemoración del centenario del nacimiento, hace siete años, en que propusimos que se efectuase un certamen literario con cuatro puntos a estudiar, de la varia personalidad de don Resurrección, esto es, en su faceta lingüística, literaria, musical y como trabajador infatigable que fue en búsqueda y ordenación de nuestra riqueza folklórica, pero la falta de colaboración por parte de alguna de nuestras Diputaciones frustró nuestra visión de conjunto. Luis Michelena obtuvo el único premio al estudiar a Azkue como lexicógrafo con su obra "Fuentes del diccionario de Azkue", la cual ha sido publicada recientemente. Este premio lo concedió la Diputación de Vizcaya.

Adelantemos que no es precisamente en la literatura pura donde alcanzó nuestro benemérito sacerdote las más altas cimas. Sin embargo, también en este campo destacó con algunos trabajos que después iremos enumerando.

Lo que sí es innegable que, conjuntando otras circunstancias de su época, los materiales aportados con su tenaz trabajo fueron capaces de crear un clima de renacimiento literario de enorme vigor. La influencia azcuence es tan manifiesta en nuestra literatura de este siglo, que durante lustros han sido muchos en el caminar por sendas trazadas por aquél.

El lector vascófilo no ignora que R. M. Azcue fue un ejemplar humano fuera de serie, como dicen ahora, cuando buscó, ordenó y publicó con sus materiales su gran "Diccionario Vasco-Español-Francés", obra que, aunque hubiera sido hecha por una academia, hubiera tenido un recibo entusiasmado y una alabanza muy sonora: cuando nos enriquecía, asimismo, con lo que estaba a punto de perderse, con su ubérrimo cancionero popular vasco y cuando nos ofreció sus cuatro tomos de folklore, "Euskalerriaren Yakintza" y cuando editó su formidable tratado de "Morfología vasca", por no citar en este momento más que sus obras mayores.

LITERATURA PURA

El primer trabajo literario de don Resurrección fue "Arrantzaleak Grankanton" (Los pescadores de la cala de Grancanto), estampa marinera que presentó como elaboración personal de composición, al concurso que se celebró hacia finales del siglo pasado para la provisión de una cátedra de euskera, creada por la Diputación de Vizcaya, concurso y no oposición, al que se presentaron, asimismo, entre otras figuras, bilbaínos que iban a ser más tarde destacados. Nos referimos a Miguel de Unamuno y a Sabino Arana, jóvenes todos ellos a la sazón en los umbrales de la mayoría de edad.

Acaso una de sus producciones literarias más lindas —adjetivo que usó Azkue con profusión— haya sido la versión ampliada de una antigua leyenda lequeitiana, que él publicó con el título de "Bein da betiko" y que la dedicó con admiración y casi con subordinación al gran Abbadie. ¡Quién hubiera dicho entonces, que la figura del dedicado iba a ser ampliamente sobrepasada en tiempo y en espacio, por quien humildemente firmó aquella dedicatoria!

Otro volumen lleno de literatura es su selección de diversos artículos y escritos periodísticos que fueron apareciendo periódicamente en las páginas de las publicaciones que aquél impulsó, tales como "Euskalzale" e "Ibaizábal". Este volumen se llama "Txirristadak", resbalones o ráfagas, ágiles artículos de prensa crónicas amenas de diferentes pueblos, escritas muchas de las veces en el propio despacho de la redacción, pero que por su ambientación, psicología, colorido y hasta variante de hablas locales retrataban ora situaciones, ora aconteceres recogidos en su propia salsa. Su colección nos parece un acierto, puesto que aún hoy es vigente en muchas localidades el valor literario y colorista de la inmensa mayoría de los diálogos y dichos expresados, en estos escritos. Las generaciones estudiosas actuales y venideras tienen campo para el estudio en los mismos. En el año 1969 se publicó un libro de sus cuentos "Ipuiñak".

Estas dos aportaciones fueron muestras evidentes de la vena literaria de su autor y promesa de otras que pudo ofrecernos, a poco que hubiese seguido por esa senda. Pero otra llamada más acuciante escuchó Azkue y su propósito fue inquebrantable. Por eso abandonó en

cierto modo el campo del arte durante lustros, para dedicarse de lleno a la gran empresa de la salvación de los elementos lingüísticos y folklóricos vascos, y a ello se entregó con una dedicación tan intensa y prolongada, no superada por ningún otro vasco.

LA GRAMATICA

Pergeña en cortas fechas, la primera gramática vasca redactada completamente en euskera. Hecho inaudito. La historia de Larramendi se repite, pero con vehículos distintos, pues en la propia lengua en la que se exponen las normas del arte del lenguaje. La redactó en dialecto vizcaíno y en columna aneja lleva la traducción castellana. No importa que este trabajo contenga algunos puntos que hoy no son aceptados. Es de humanos el errar. Pero lo que sí hemos de decir, una vez más, es que la lectura de este libro "Euskal--Izkindea" fue una revelación para el escritor euskaldun de más estilo hasta nuestros días. Nos referimos a "Orixe". Esa lectura fue uno de los móviles que impulsó a Ormaechea a escribir y a crear en euskera, lengua abandonada por la clase alta vasca.

Si bien no era este trabajo de lenguaje propiamente literatura, fue no obstante, un bien trazado camino que luego siguieron muchos cultivadores de nuestro idioma vernáculo.

Bien claro nos ha dicho Azkue que su querencia estaba en el arte y en la creación, pero que cargó sobre sus hombros con la penosa y aburrida tarea sin fondo, de recogida de materiales lingüísticos, ya que alguien tenía que hacer esa ingrata labor.

Sin embargo, aun ese trabajo abnegado y agotador jamás ahogó los ímpetus creadores de su alma artística. Nunca desperdició las horas de asueto relativo para no dedicarlas a menesteres literarios y musicales.

La enseñanza, el teatro, la novela por un lado; sus conferencias, discursos; su ministerio sacerdotal nunca abandonado, sermones y escritos religiosos, entre ellos el estimado libro "Jesusen Biotzaren illa" hermosas meditaciones y lecturas para los actos del mes de junio, todo ello lo abarca sin dificultad alguna. Y junto a todo esto, sus estudios de lenguas modernas, sobre todo francés, alemán, inglés, y los musicales, con ampliación de los mismos a los conservatorios de París y de Colonia, donde acabó los de armonía, composición y fuga.

En el teatro infantil nos dejó bellas obritas, costumbristas, trasunto de lo real en lo psicológico y lingüístico. Cultivó la modalidad de zarzuelas, algunas bilingües, con letra y música própias; así recordamos "Pasa de chimbos", "Eguzkia nora" y la de mayor empeño "Vizkaitik Bizkaira".

De la zarzuela, influido al parecer por el ambiente wagneriano, que gustó en sus largas estancias en Alemania, —digamos de paso que fue germanófilo convencido— maestro gran Azkue pasó a la ópera vasca y nos ofreció dos buenas obras, libreto y partitura propias como otras veces, llamadas "Ortzuri" y "Urlo".

EL DINERO AL SUR

Azkue, que desconocía finanzas y dado que —son sus palabras— "el dinero era el sur de sus aspiraciones", descuidó totalmente lo que hoy se llama publicidad y el lanzamiento de las óperas no fue nada afortunado.

Pero el lequeitiano siguió su camino de trabajo: letra y música, euskera y melodía fueron las constantes de su vida hasta la edad de 86 años. El maestro Pedrell dijo en cierta ocasión que Azkue se sentiría lastimado en su amor propio si se le dijese que no era un buen músico. Y acaso no tanto, si se le dijese que había mejores maestros en el idioma vasco.

Por último, si bien en su librito "Prontuario" hay también retazos de literatura, hemos de citar sus trabajos en la novelística vasca. Escribió "Latsibi" en vizcaino y aún está sin publicar, y otra novela que parece que se da por perdida. Editó sin embargo la que fue escrita para apoyar a su proposición de intento de unificación del euskera literario en la base del "Gipuzkera osotua". Esa novela es "Ardi galdua" que se desarrolla mayormente en forma epistolar. Su prosa es clara, pero su lenguaje no es tan espontáneo y gracioso como en sus primeros trabajos literarios, que hemos comentado. Lo docente de aquella hora cortaba su vuelo natural de artista.

En resumen, don Resurrección sacrificó su vena artística y frenó su ímpetu creador para dedicarse a la tarea abrumadora que coronó con gran éxito. Antonio Tovar nos ha hecho una semblanza y alabanza de Azkue.

Euskalerría, nuestro pueblo no ha saldado aún la deuda que con él tiene contraída. En manera alguna aceptamos por bastante el que se le haya dado su nombre a una calle de Bilbao y a otra de Lequeitio.

Merece mucho más y lo merece ahora, en que a pesar de los pesares, vuelve a la actualidad su mentado trabajo de encauzamiento de la unificación literaria de la lengua a través del canal que él propuso, es decir, tomando como base las formas verbales guipuzcoanas, completadas con préstamos de otros dialectos. Así no habrá lugar a esa ingrata preterición de una gran figura y de su obra colosal, que se ha intentado con ligereza.

EUSEBIO ERQUIAGA

«LARREKO» GIZON
PABLO FERMIN IRIGARAY GOIZUETA *

«Edozein txoriri, eder bere kafia».

Itz hoiek, «Larreko» zenaren Iruñe zaharreko etxe politaren orman ezarriak, erran labur bezain argian erakusten digute, bere egoitza maite zuela, etxezale zela, paketsua. «Edozein txoriri, eder bere kafia».

Ikusi dakusat haren irudia, azken urteetakoa noski. Soiñeko beltzez, kapela beltza, eskularruak ere bai. Alkandora, bizar murritza ta illea bezala, txuriak. Ez zen aundi ez tipi; giarra, gizenago baiño. Begirada artatsua, urduria. Mintzoz apal eta ixilberaa. Zalduna ta onutsa; kezkatsua, ordea. Etxean ixilla zen, gizartean solastiago. Haran–ederren liburuaren irakurle ohitua.

Lur honetako bideen nahaspenean, bere bidea zihur ta artez autetsi zuena. Alegia, otoia, nekea lagun urkoarengana isuria.

Pablo Fermin Irigaray Goizueta, Auritz honetan jaio izan zen, 1869–garren urteko urtarrillaren 25–ean. Jaiotetxea, ikusberri dugu.

Haren aita, eskola–maisu izan zen. Ez ordea, euskarazalea, aldi haretako giroan, Nafarroan euskaldunak arras erdarazale baitziren.

Zaragozan eta Madrillen burutu zituen bere miriku–ikasketak. Lehenbiziko igidura iri txikitik aundietara izan zuen arren, berriro iritxoetara, agian baserrira, izan zuen itzulpena. Ta halaxe, Auritzen berton, Bidasoako Beran eta Iruritan ari izan zen mirikuntzan. Horraitio, atxeterra izan gogoz batez ere, ots, zirugiara joerapean zebillenez gero, horretara eman zen osoro.

Baztanen, ez bere kontsultan soillik, erien etxeetan ere, egiten zituen operazioneak. Atxeter–tresnadun kaxatxoa mando gaiñean artu, eta han goaiten zen, bordariengana. Horrelakoetan ez ohi zuen kirofanurik; berbera baitzen kirofanu, bere argitasuna, dohaina, bere eskuak. Arrasketa izugarria izan zuen Baztan osoan eta are eremu zabalagoan ere.

Geroago, Iruñeko Eritegi nagusirako oposizione ertsiak izan ziren, eta gure gizonak, uts zegoen toki bakarra, ziruganu tokia, irabazi

---

* *Euskera*, XVIII, 1973.

zuen. Atxeter ez ezik, Eritegiko buru izendatu zuten noizbait, eta Nafarroako mirikuen artean, aipatuenetakoa gertatu zen.

«Guía médica» bi egin zituen. Hoietako batean, mistika ta medika arruntenik, elkarbideko lagunak zitezkeela adiarazi zuen. Eliza–zentzura gizonak eztu artu zuen, ordea; baiña Marañon argiak indar eman zion «Larreko»-ren iritziari, ta aintzin-solasa idatzi ere bai.

Maite izan zuen bere Nafarroa, ta hementxe jardun izan zuen, urko lagunari lotua, geiso ta eriei atxikia, goiko naiz beheko giza–seme ta gizalabak, neurri berdiñez ta begiramenez zerbitzatuaz.

Iri aundiak gizonari kutsu berezi ta arrokeria gehienbat, eman ohi dio. Irigaray gureak ez zuen akats hori onartu. Bere izaera apala ez zuen aldatu. Aitzitik, bere burua gaitzizen arruntean estali baizik. Izenorde hori, ba dakizue, «Larreko», edozein baserritar bezala.

* * *

Aurtzaroan, etxeko giroan, euskal–arnasaren kide ez baiñan, kristau–iturburuko egietan eta ohituretan arras eratua ta betea izan genduen. «Kristau zuzena beti —erran digute haren semeek—, ez zen espantuka arritzen zen horietakoa. Ta elizara destenoretan goaten zen, jenderik ez zen garaietan, goiztiriko mezara».

Bai, eguneroko elizara–zalea zen. Eta eliza, eliza izan zedin nahi zuen, xoil xoillik.

Gizon elizkoia baiño ere, siñismen biziko gizona genduen. Haren artikulu ta idazlan anitzetan agertzen zena, gogora dezagun orain: «Urbillen aldi arteo, Jainkoak hala nahi duelarik…»

Azken Konzilio delakoak agertu duen konpreni–bidea ta gizatasuna, aurretiaz erakutsi zien «Larrekok» bere semeei.

Bere burua billusten digula uste dugu, harako «Euskaldun biozduna Mexikon» lan politean. Entzun dezaiogun: «Baiño beharrik, Jainko baitan siñiste bizia zuela; haren atseden bakarra hortan zaukan, ongi bai zakien Jainko Jaunari gaudela aldez edo moldez, onetan eta gaitzean, atsegin alditan nola biozminetan».

Lantto horrek, liburuaren 19 orrialde ditu, eta amabost bider, amabost, irakur diteke bertan Jainkoaren izena.

Eriaren arimaz betiere arduratua, begiralea, miriku ta apezei argitasun eman nahirik ari izan zen. Nonbait honela dio: «Eriotzean iñor ez dela Jainkoaz oroitzen; itz batean, eriotzeko ordua ez da tenore, hotan prestakizunik egiteko, baizik eta prestaturik egoteko. Nahiz

tenore hartako eziñegon hura nabaitu bage, ba diteke ez gogoetarik eta ez argirik izatea; hok dire gure laguntzalearen gaienak eta berez--bere bide egin dezakena».

Beste lan batean, bere ahulezia, bere zalantza agertzen digu deplauki, ta aitorrerazi bapatean, bere obenaren ordaiña baitlitzan. «Orreaga» inguru ari da, eta entzun; letarian dioaz erritar arruntak, eta berak, arrokeri–ikutua izan du. Ta, barrua irikiaz, galdetzen du:

«Baño nor gara gu? Ez ote naiz hek bezain Andre Denaren seme? Eta hek, ala; eta ni, hunela? Nik Elizan, Ama Birjiñaren oñetan, Amaren alzora ez ote dut hel bezain laster bide? Baña ni, bertze bidetik nindoaien; ni buru andikoa naiz, antutsa! ikasiz eldu nai nuen jakitera nor den Jainkoa eta nor den bere Ama.

«Ergela! —ene baitan neure buruari deituta—, sinisteko bidea ez duk hori! Hortako bide laburra, bertze aldetik dago. Burua apaldu, bihotza agertu eta belaunikatu. Nik ere, alde hontatik jo nuen eta Ora pro–nobis–ka elizarat sartu nintzen».

* * *

Erran bezala, ez zuen gaztetxotan euskeraz egoki jabetzeko aukerarik izan. Baiña karrera–ikasketak egin eta Nafarroako errietara itzuli zenean, erriaren izkuntzaz zeharo jabetzea, noraezeko zela uste izan zuen. Eta esan eta egin.

«Entzunez, aurrek ikasten duten bezala asi nintzen ni ere, beharrik ba nuela lehenbailehen ikasteko beharra, sendakintzako nere egitekoak betetzeko…»

Urte batzuek lehenago, Arturo Campion aundiak 1884–garren urtean, argitara eman zuen Gramatika oparoak zekarren dei erdiragarri hura, ernagarria izan zen. Ikus dezagun:

> «Euskal–Erriko seme on prestuai:
>
> «Zuen lege zahar beneragarriak galdu ziñituzten atzo. Zorigaitz aundia da galtze hau. Ez itzazu, arren, galdu orain zuen izkuntz paregabea; lotsaz beteko zaituzte galtze horrek Jaungoikoaren eta Kondairaren aurrean».

Geroago Elizondon, 1905 urte inguru, Euskal–Esnaleak antolatu Egun batean, Andoaingo seme Orkaiztegi jaun apezaren itzak egin zioten barne–zirrara adiarazten digu «Larrekok»:

«Lehenik entzun nuena Orkaiztegi jaun apeza; itzaldi garratza egin ziguna; nolako zigorradak eman zizkigun euskaldun letraduneri! Bereziki, bera bezalako jantzi beltzetan janzten direneri; ots, apez jaunen gain eman zuen euskararen galtzea. Nik ez nuen ordu arteo Orkaiztegi zena ezagutzen; baño itzaldi harekin nere barne guztiari iñarrosaldi gaitza eman zidalakotz, ez zitzaidan beiñere gogotik ezabatu apez agurgarriaren irudia».

Beste lantto batean ere, horri jarraituaz, aitortuko digu:

«Norbaitek (Aita Iberok ote?) oharrarazi zidan deiturak eta bere jatorriko leku–izenak, erri hartakoak bezala, euskarazkoak zirela. Orduan, argitasun andi bat egin zen nere gogoan, argi ta garbi ikusi bainuen nere izatea euskaldun dela, ta nire arbasoen izkuntza Euskara izan dela. Orduez gero, euskaldun arruntenak, bordariak nituen irakasletzat artu, eta Baionako «Eskualduna» ene gidari. Gisa hontan, honen bide ederrez, laster asi nintzen euskararen gozotasunari ohartzen. «Eskualduna»–ri zenbat zor diodan, ezin dezaket erran».

Bigarren argi horrek —lehenbizikoa siñismenarena izan baitzuen—, bigarren argi horrek ere, bizitza osoan iraungo zion Fermiñi, ta are euskal–idazle eremura eraman ere, langille asperrezin bilakaturik.

Ta zergatik horrela, eta hainbestean?

Seme nagusiak erantzungo digu: «Gure aita, gizon estua zen; bere buruari gehiegi eskatzen zion, baiña bai besteeri ere».

Hortik dator haren garbizaletasuna. Halabaiña, garbimin hori ez datza itz bakartien kontu soillean; aitzitik erranera, esaldia, itzurrena jator jator, jende errikoak bezain peto–peto erabilli beharra. Hona hemen haren itzok:

> «Lehenik, euskararen garbitasuna ez dago itzetan bakarrik, baizik eta izkera erabilteko eran, euskararen joskeran, esakera borobiltzean, aditzaren bereizten eta behar den eran ematen. Euskararen moldetara bihur gure gogoak —gehituko zuen— eta ez, gure gogoak arroztu ondoan, gure ortoki ta moldetara isuri–arazi».

* * *

Iraizean bederik, ikus dezagun «Larreko»–ren alde egikorra. Mintzaira ikasiaz, jabetu xamar zelarik, geroztik haren etxeko giroa ta izkera, «lingua navarrorum» delakoa izan zen. Euskera, alegia.

Etxekoekin horrela aritzen zen, bai eta kanpokoekin ere, euskara apur bat baldin bazekiten; berdin zaleak ala kontrakoak izan. Eta

iñoiz, bere buruaren kaltetan izan arren ere; erran bezala, orduko Nafarroan, jendea erdaran murgildua baizebillen.

Baiña ez etxekoak soillik zituen euskarapean ezarri. Anai guztiak ere, horretaratu zituen, eta haien semeak eta semeen semeak ere, euskaldun dira orain.

Baserritarren solasaldiak arras maite zituen. «Orain lehen bezala, euskera garbi ikasteko, erdara ez dakiten euskaldunekin behar da ikasi, edo erdaraz zerbait jakiñik ere, gogoa, pentsamoldea euskaldun dutenekin. Mintzairaren erro garbienak, euskaldun xaharrenetan daude. Gramatikaz eta irakurtuz xoillik, beiñere ez da euskaldun garbienen joera erdiesten».

Horrezaz gaiñera, hango ta hemengo idazleen liburu ta lanak aztertzen baizituen, horra hor argi jarri berriro ere, «Larreko»–ren izkera zergatik ez zen, ez bere sorterrikoa ta ezta Baztangoa ere.

Ustekabean ala jakiñik, «Larreko»k bere garaian, batasunarentzako bide txiorra aukeratu izan zuen, eta poliki-poliki, beste izkelgietako emaitzak, erranaldi eta tankerak biltzen ari izan zen, bere estilu bakan hori borobildu arte.

Ez zuen bere burua idazletzat jo, ezta izlaritzat ere. Aldi haretako euskal–idazlea zen soillik, idazle errikoia; larrekoa, alegia.

Baiña bizitzarako gertu nahi izan zuen gure Izkuntza hau ere. Eta literatura soilleko lantto bitxia ere utzi zigun, lehen aipatu «Euskaldun biozduna Mexikon» izeneko gertaria; bere apaltasunean, iñorengandik jasoa zela aitortzen digun arren.

Euskeraren aldeko proselitismu delakoan ari izan zen, buru–belarri ari ere. Lehenik, «Eusko–aundiki guztiak euskaraz ari izango balira, gure mintzaira salbatua genduke».

Maiz agertutako itzok, «Lizardi» azkarrak jaso zituen ta bere aldetik ahalegindu izan zen zarauztarra, gurari hori egiztatzeko. Agirre berberak egingo digu geroago goraipa borobilla, honela esanik: «Larreko–ren iritziak maiz txorrotxegiak iduritzen zaizkidan arren, gizonez maite dut, idazlez ederresten, abertzalez gorasarre dagiot».

Albistak eta berriak, bere karrerako gaiak, osasun–gaiak eta gizarte–arloa ere jorratu izan zuen Irigaray gureak. Baiña haren gogoa ez zen idaztea bakarrik. Haren gogoa, jende ikasia, goratua, burujantzia, letraduna euskaraz mintzatzen jarriaraztea izan zen. Gure erritto ta iri aundietan ere, euskal–giroa, euskara berpiztea,

zuzperraraztea zen haren griñarik zorrotzena. Minberaa zen, hortan. «Letradunek dugu euskara oinperatu; letradunak dugu gaitu ta goratu behar».

Horra hor gure gizonaren slogan delakoa. «Larreko» zenaren esku izan balitz, kapeladun jaun guztiak, apez, miriku, eskribau, zaldun eta andere zabalak ere, euskaraz mintzaraztea izango zen jardun nagusia, erri xumeaz batean ari izanik, gizarte maillen lokarri sendo ta bipilla euskara izan zitekeelakoan. Bai, noski.

* * *

Etxagerratean izugarriki lan egin behar izan zuen Eritegi nagusian, anartean urterik aski izan arren bere bizkarrean. Behar–beharrekotzat, utzieziña izan zuten gure atxeterra orduko agintariek, eta horregatik bere karguan jarraitu zuen, zahartu zen arte.

Eta etxegerratea bukatu eta andik hamar urtera zendu zen «Larreko», 1949 garren urtean, lauetan ogoi zituelarik, eta erialdi laburraren ondoan. Analisi direlakoak ez zuten deus argitzen haren gaitzaz, baiña gure mirikuak bai, egin zuen bere eriaren azalpen zehatza, egoki xilatu baitzuen eriandi zegoela: «Analisi illunak, noski; baiña nireak egin du»–zien semeei. Giltzurriñetako gaitza izan zen, agian.

Lege zaharreko kristau, lege zaharreko euskalduna Irigaray.

Haren eriotze–orduan, illuna zen bai, gure mintzairaren egoera ere, baztertua, eskurik gabea, isillarazia ere. Munduko joerak, ordea, ez dira aldaeziñak ez betikorrak.

Siñets ote zezakean handik 23 urtetara, ta berbere goratzapenetan, Euskaltzaindia ta erria Auritzen bildu zitezkeenik? Ete hemen inguruko errietan eta Diputazionearen laguntzaz, amar–amabi erritan aurrei euskera irakasteko giro argiagoa ta egokiagoa izan zitekeenik?

Baiña, hala izanik ere, etsirik gaude gure gizonak, bere apaltasunaren eragiñez, harako Mistral aundiaren arabera, honelatsu saiets zezakeela omenaldi hau: «Non nobis, Domine, non nobis…» Ez niri, jaunok, ez niri; bai horraitio Jainkoaren izenari eta Nafarroari, ots, gure Euskalerriari, ospe, txalo ta goratzapen.

Eusebio Erkiaga

EUSEBIO MARIA D. AZKUE GIZON ETA IDAZLE*

Eusebio Erkiaga

Jaunok, andreok:

Euskaltzaindi onek, sortu izan zanetik, ba du alako zerikusia Lekeitio gure erri maite onegaz. Ain zuzen, Euskaltzainburu lehena ta illarteraiño gaiñera, gure errikoseme Azkue apaiza izan genduan, orain omena egiten diogun onen semeetarik ospatsuena.

Ta Juan Bautista Eguskitza zana ere, lehen orduko euskaltzaiña, emen bizi izan zan luzaro.

Azkue abadeak 87 urte zituan arren, ez zan zaharrez il. Bai ordea, Bilboko ibaiera erori, ta ango ur zikiñak kalte eginda, zortzi egun geroago. Eguskitza jauna, zaharregi egin gabe joan zitzaigun, bihotza ta gogoa neke–miñez, euskerarentzat egun illun samarretan bizi giñanean joan ere.

Euskaltzain aundi bion ondorengoek urgazle egin ninduen orain ogeta bat urte, eta geroago, merezi gabe noski, euskaltzain oso.

Itzaldi onen asierakoak, bitez euskaltzain jaunei ene esker ona agertzeko.

Orobat, gaurko jai eder ontan, alkate jaun eta udalgizonei, erriko Guraso–Alkartasunari, ta labur esan, erritarrei ta euskaltzale guztioi, eskerrik asko.

Donostian donosti, gorostian gorosti esan ohi danez, gauden tokiari, omenduari berari ta erri–jendeari dagokienez, ene jardun au emen ohi dugun euskalkiz esanen dut.

* * *

GIZON ETA OLERKARI

Eusebio Maria Azkue Barrundia ageri da soillik, bateoko idazkizunean, eta 1813 gn. urteko aprillaren 13–an jaio izan zala emen, Lekeition. Ta il bere, ementxe egin zan, gaur ehun urte, berak 60

---

* *Euskera*, XIX, 1974.

zituala. Il–agirian 68 urtekoa diño, baiña oker dago. Gaisoaldiaz, "de accidente perlético" (sic) datza (perlático behar eukean), eta izen luzeagoz agertzen deusku, zera Eusebio Maria de los Dolores.

Gurasoak, Juan Jose Azkue Zalbidegoitia, Zamudioko seme ta ango mediku izan zana, eta Maria Iñazia Barrundia Atxabal, Lekeitioko alabea. Juan Joseren aita, Arrigorriagakoa izan zan.

Goikokaleko 16 ganean dogu Eusebio Mariren jaiotetxea, ta antxe, ormeari deutsala dago gomutarria, 1936 gn. urteko San Pedro bezperan, gerratea baiño ogei egun lehenago ezarri genduan arlandua. Arri orrek orduan, euskeraz zituan berbak; orain gitxiago ditu, ta eurek, gaztelaniaz. Egun aretan kalean bertan berba egitea gertau jatan, eta orain, 37 urte geroago bere, barriro dagokit Azkuetarrak goratutea.

Eusebio Marik, Zamudion emon zituan umealdia ta gaztezaroa. Mutiko zala, latin eta filosofia ikasi zituan Bilbon, aita frantsiskotarren komentuan, aita Uriarte ospatsua ikaskide izanik. Lehenengo karlistadan, talde onetakoekin ibilli zan; orraitio, ez zan bapere gerrazale. Gerogarrenean, Ferrolera jo eban eta an, Nautika–gaiak zertu ta itsasoak austen ibilli zan, pillotu eta kapitan mailletan. Baiña itsasoari agur egin eta lehorrean lotu zan, eta Bermeon, Mundakan eta azkenez Lekeitioko Nautika–eskola barrian jardun eban, beti irakaslekuntzan.

Gizon eder ta sendoa zan, barru zabal eta gibelean arririk bakoa, jator eta atsegiña. Zalduna zirudian. Anton Truebaren esanez be, ba dakigu begikoa, argia ta itxurakeri bakoa zana. Eta labur esan, umore aundiko gizona. Gogoan izan daigun umorea, umore ona jakiña, ez dala edonoren zera. Ezta urrik emon bere. Umorea bere, zeruko dohaia da, ta ez iñundik iñora be, universala.

Emazte bi izan zituan. Lehenengoa, Laureana Ozerin izan zan, Txorierrikoa. Lau seme–alaba izan zituen: Alfonso Maria, lehena, eta Mundakan jaioak, Carolina, Conrado Maria eta Sol (1856), geure doña Sol, amaiketxu lekittarren maistrea izanikoa.

Emaztea il jakanean, Eusebio Marik bigarrena artu eban Mundakan, Mari Karmen Aberasturi, artean umerik izan bako alargun gaztea. Zortzi ume izan zituen: Julia, Aurora Maria ta Jesus Maria Mundakan: eta emen, Lekeition jaio zireanak, barriz, Resurreccion de Jesus Maria de las Nieves, Maria Luz, Diana Maria, Julia (bigarrenez izen bardiña, lehen il egin zalako) eta Heliodoro

Maria Antonio. Orra ba, amabi seme-alaba eder, etxea bete laguneko sendi mamiña. Orraitio, ainbeste izan arren, ez dogu aen aztarrenik gaur dan egunean.

Izentau ditugunotarik, lau ezagutu genduzan: doña Sol, txiki samarra ta baltzerana zan, lenengo emaztearena. Azkue abadea eta Aurora ta Diana, luzeak eta galantak, azal zurikoak.

Argiro dago olerkietan, Eusebio Mariren izkerea emengoa ez zana. Jakiña, umetan eta gaztetxutan Txorierrin bizi izan zan–eta, angozea egokien arentzat. Agergarri ori naikoa izan arren, orrezaz ganera, gure erritar jaun baten lekukotasuna daukagu: don Ramon Etxebarrietak bere "Gomuta–liburuan" idatzia: Eusebio Mariren berbakerea ez zan emengoa; Bilbo ingurukoa zan, soiñukera apartekoaz ta ez emengo taiukoa.

Matematika zeretan guztizkoa ei zan, erdilo egon arren be, problemarik biurrienak zirt–zart garbitzen zituan. Bizimodu onaren zalea zan eta alaia, kontu–kontaria. Zozo eder bat eukan kaiolan Mundakan, eta zozo orreri, euskalberbak be irakatsi eutsazan. An ezezik, emen bere, izan eban nunbait zozo eder ori, emengo esaeran sarri entzuna dogunak dirausku–ta:

"Azkueneko atetan
zozo dabil kantetan…"

Zozo orrek zer ete ziñoan? Auxe: "Azkueren zozoa naz ni. Uuuuurra pepito".

Zerbait geitu gura genduke olerkariaren alaba Dianaz. Azkue abadeak euskaltzale aundi bat izan eban noizbait bere inguru; erbestean egoana ta ain zuzen, berberak eratorri ebana barriro Euskalerrira. Gizon ori, Diana bere arrebearentzako senargai egokia izan zeitekeala, uste izan eban gure abadeak.

Alemaniako Köln urian egoala, Azkuek, karta askoren artean, 1908 gn. urteko zezeillaren 24–an, bat egin eutsan adiskide orri.

> "Adiskide maitea:
>
> Biotza ausi deust oraintxe eldu baiño egin eztaben zure eskutitz onek. Eneukan irasteko gogorik; batetik, azkenengo egin neutsunari jaramonik be egin etzeustalako; bestetik, arrebeagaz ta zugaz jazo jatanagaitik. Biotz–biotzean neukan sartuta anai izan bear genduala".

Eta nor ete zan gizon ori, Azkue abadeak anaitzat eta bere arreba Dianagaz ezkondua, gura eban ori?

"Kirikiño" zan, Mañariko Ebaristo Bustintza, Manchako Almansatik bere Bizkairatua. Argitugarri da, orraitio, oraintsu besterik irakurri izan dogu–ta, "Kirikiño" mende onen asieran eldu eta biurtu izana zala Euskalerrira, ez lehenago. Ain zuzen be, 1901 gn. urteko zezeillaren 26–an be, Almansan egin ebalako abadearentzako karta bat.

Azkue apaizaren karta orren beste ataltxu bi dakarguz ona:

> "Biotza ausi deustazulako, osatu nai neuke, ta ona zelan. Adolfo Urkijori adiskide usaiñeko eskutitza egiten diardudala eldu jat zurea. Zuretzako au amaitu daidanekoxe, jarraituko deutsat besteari, ta antxe esango deutsat, eta baita biotz–biotzez eskatu be zutzat, San Franciscon ogibidea, ba daki nor zarean–ta. Andik, ondo jatortzun orduetan etorri zineiz Institutora".

Eta karta orren gunez, zirautsan:

> "Nire arreba Dianagazkoa gertau balitz edo gerta baledi, or nintzake gorik berako bendeziño andi bat emoteko. Indianu, diruz eta urtez atsituriko indianu–ezkontza ori aurrera badaroazu, bedeinkatuko zaituet, baiña urrundik. Adiskide beti izango gara…"

Karta orren izaerea baieztu gura izan neban, eta egin–egiñean, "Kirikiño"–ren jaiotza-eunurteburuan, Mañarian eta euren etxean atan be, aren alarguna alboan nebala bazkaldu neban, eta aitatu neutsan ba. Bai, karta ori ez eban gorde Azkuek, bere bidean ezarri baiño. Ondo gogoan eban Basilik, Azkuek "Kirikiño"–ri lotsea emon eutsana, "indianu–ezkontzea" egiteko arriskuan ikusten ebala–ta.

Abade gureak, esaera argia baizen gogorra jaurti bai, baiña baita berba emona bete be. Eta Almansatik Euskalerriratu ebanari, lenengo bere aldizkarietan lana emon eutsan, geroago Institutuan irakasle–lagun egin eban, eta azkenez, ogibide geigarria lortu eutsan Montellano meatzetako ofizinan.

Jakingarri dira, ganera, Adolfo Urkijo zaldunari gure abadeak egin eutsan egun bereko karta samurraren atal batzuk. Ona jarraian.

> "Ha llegado a mis manos carta de mi amigo y sustituto en el Instituto, el doctor vascófilo Bustinza, académico de la primera camada. Yo me permito hablar como el profeta de Israel,

de lo futuro con verbos pretéritos, porque nuestra Academia de la Lengua se hará, y antes de mucho."

"... este muy ilustrado y despabiladísimo joven, Licenciado en Ciencias con notas brillantísimas obtenidas en Madrid, trabajador vasco de la buena cepa, noblote y honrado hasta lo que cabe..."

"... me permito pedir a Vd. encarecidamente, y hasta me atrevo a suplicarle haga un esfuerzo por proporcionar a este hombre en San Francisco una ocupación regularcita. Con ello, no sólo prestará Vd. un buen servicio al país, sino que tendría un buen oficinista. Sin algo así, se iría de nuevo sin duda hacia Albacete... y después no sé si le volveríamos a ver. ¿Y dónde encontraríamos vascófilos, uno solo, de su talla? Y usted sabe perfectamente que no andamos sobrados de personal para la constitución de nuestra futura Academia".

Eta firma ostekoan, geigarria:

"El secreto, el único secreto de que Bustinza no haya sido aún decentemente colocado, ha sido el de su cortedad, pues a pesar de su no común ilustración y disposición brillante y hablar aun el castellano como no lo hacen en Bilbao la mayoría de los hombres de carrera es, para pedir algún favor, romo de carácter como un pistolo.

Adiós, querido Adolfo".

* * *

Sakona baizen lilluragarri jakun gaia, auxe. Ezin luzaroan gaur onezaz jardun, eta labur–miñez beharko.

Gizon eta olerkari aitatu dogu lehen, baiña gaur dan egunean, ezta zertan banandu bata besteagandik. Ez. Gizona da olerkaria, poeta dalakoa; eta olerkari gizon dalako (ala emakume dalako) da. Ez ditugu beraz, bi; bakar bat baiño.

Olerkari danari, berez datorkio alako goi–arnasa, asmo, intuiziño, begikaldi ala bihozkadea. Lehenagoko gauzak, jazoerak, lagun urko ta urrunekoak, joanak eta oraingoak: aldiko kezka, burruka, maitetasun ta gurariak; gerorako ames, joera, asmo... zerok guztiok, salduezíña dauan bakartade santuan batu eta josiko ditu, ta bere griñaz ta barruko eragiñez, poema deritxan ederlana eratuko deusku.

Olerkaria, besteentzat bitarteko izango da, agertzaille; sarri askotan, iragarle. Ez orraitio gauzen asmatzaille, erakusle baiño. Mundu

onetan agirian egon arren, besteentzat ostendurik edo laiñopean illun samar dabiltzan sentipen eta izaerak erakutsiko deuskuz, eta betiro, ain zuzen, izkuntzaren bidez.

Izpiritu–gauzak eta begien aurreko egoera–izaerak batuko ditu olerkariak. Ez arean bere, arek aiñako ezaguerarik eta minberatasunik beste edozeiñek ez daualako, ez. Bai ostera, poeta deritxanak gauzak argiago ta zoragarriago esateko, berezko dohaia daukalako baiño.

Filosofuak zehatz, esan daroa esatekoa, baiña otz samar. Olerkariak, barriz, aitatu, burutaratu baiña bero–giroz, sentipenez, garretan bihotza, joranez arimea. Norbaitek esana da, olerkariak iñork itandu bako zeren erantzuna emoten deuskula. Eta olantxe ez ete da? Kantau gura dogunean, zer kantauko dogu? Barrua zabaldu ala miñak arinduteko, zer abestuko dogu? Poeta batek emon deuskun eskatubako erantzuna: poema, kanta, abestia. Zer kantauko leukee gazteek, umeek, erriek, olerkaririk ez baldin balitz, eta izan ez baldin balitz?

Makiñeri ta kimika–mundu barri onetan Olertia behin betiko galdu ez ete dan, itandu izan dabe. Baita zera be! Poesia, mundua mundu deiño izango da; bizitzea ta eriotzea direno.

Poesia, maitetasuna dan ezkero, ta beste orrenbeste erlegiñoia, jakitunek, irutarik bira doan bardinpena emon deuskue, zera,

erlegiñoia = maitetasuna = poesia.

Eta esanak esan, askorentzat erlegiñoia bera be, poesia besterik ez da. Ta olertia, sortzea baldin bada, gure Jaunak orixe egin daroa guregan, sortu ta sortu eten bage. Orrelan, eguneroko poesia, bizia berbera ta misterio betea, antz–antzeko ditugu. Ta izan bere, zer dogu gure bizitzea, gure izate osoa, eskutapen utsa besterik? Ulertueziña dogun amaibako poesia baiño? Beti misterio ta dana misterio.

Olertia bestalde, ez da kanpoko musika soilla. Barrutikoa da. Arimearen dinamika ta eragiña, izpirituaren dardare ta indarra, ibillia, kemena, goratasuna ta goragurea. Ez da poetarik aundiena lan luzeak egiten dituana.

Poeta bat ez da frutua emoten dauan arbolea lakoa; ezta beti kantu bardiña joten dauan txoriaren antzekoa bere. Mundukoa izan

behar dau, bere aldikoa, bere lurrekoa ta arokoa, inguruan jazoten danaren barri jakin behar dauana. Ta bere sentipena ez gorde ta ez saldu, agertu egin behar dauana, lagun urkoentzat argi ta itxaropen–emoille izan dedin.

Erantzupena dau, ta ez urria poeta batek, Jaunaren aurrean eta gizartearen aurrean. Eta ain zuzen orretxegaitik, bere lana zintzoa ta arteza izan bedi, ez zurikerizkoa, ez guzurrezkoa.

Lekukotasuna emotea dagokio, testigantza ziurra, ta orretan datza bere mezua, agerpena.

OLERKARIAREN GAIAK

Ona ta txarra, motza ta ederra, alai ta mingarria agertzea, zuzena azaldu ta okerra salatzea da aren zeregiña.

Olerkariak esan daiana, ostera, ez dau barriketa utsean esango. Iru–lau bertsotan egoki azaldu leiana, ez dau zertan berrogei bertsotan zabaldu.

Olertia iñoiz, minorien janari–edana zan, burulana, adimen–emoi utsa. Irudi zoroak, esaera egosgogorrak, sarri askotan bizitza–usaiñik bakoak, eguneroko gertaeraz urrun, neurri estuetan adimen–joko zorrotzak esatea. Baiña neoklasiku otz zireanen aurka, zorionen batean, alako indar ta oldarrez agertu zirean erromantiku azkatasun ederraren zale aek, jo ta bota zituen arako bide estuegiak. Oraingoan, eta ori ondo, olertikuntza izkera argiaz, esan–modu errezez egin daroe, gurariak azaleratu ta alako sentimentu, larrimiña ta urduritasuna sortu–erazoaz. Eta guzti ori —ori guztia idatzi daroe norbaitzuek, demostrativu dalakoari dagokion tokia kenduaz— eta guzti ori, diñogu, eder–ikutuaz txukundua. Itzak premiñazko ditu, ez ostera metaforak, irudi ugariak, mehe, laiñotsuak. Neurtitzak bere, ez ditu beti noraezeko. Neurri askatu, bertso zuri eta jaragiñak darabillez eskuarki, eta iñoiz, prosan bertan bere, poesia jori ta aberatsa idoro giñei.

Lehenago bere erdia gertu arren, barriren barri erakutsi izan deuskue, arako parnasista ta sinbolisten ondoren. Gizarte–olertia deritxan mueta ori, progresista maillako olertia. Eta ganera, larrimiñez betea dauan joera neketsua, angor, burruka ta bizieziña edo. Behar bada, etorkizunaz daukan geroazko ardura larregia, ezerez uts bihurtzeko bildurra, siñismenaren premiña zulagarria, ala siñismenik barik izan gurea, baiña egoneziñaren aundiz.

Oraingo poesiak geienbat, ez dau odeietan galdurik ibilli gura. Orraitio, gizon–usain eta emakume–arnasea, aragi–ikutua, azal–azur eta odol daitekean poesigaia, bizi–dardarez betea, eguneroko neke, izerdi, lillura ta ametsaren lorratza daukana.

Beti iraungo dau poesiak.

Olerkariak ez dira galduko, ez amaituko.

Oraiñarte lez, entzun eta artuko ditue misterio–dei isil, mehe, sorgiñak, eta txukun dotore eskeiñiko deutsuz erritarrei, munduari.

Ez da gaur poeta minorizalerik, Maiorizale bihurtu dira, eta zorionetan dabil gizaldia ta mundua.

Jakin daigun behin ta betiko, olerkaria ez dabillela geienbat, bere izatea bakarraren alde. Munduari eskeintzen deutsaz bere intziri, kezka ta gurariak. Bakotxa bere erriari ta berbeteari emoten deutsaz ederlan bezela, eta betiko emon bere. Olerkaria bera ilgo da; il egingo da gizon dalako, eta izan leiteke aren izena illunetan lotzea, bere.

Baiña poeta baten lana, ona baldin bada, zintzoa baldin bada, or geratuko da mendez–mende. Ta erri bakotxeko literaturan, urrengorik urrengo, gizaldiz gizaldi, belaunaldi barriak erakutsiko ditue bertso ta kanta zaharrak, arro–arro erakutsi bere, erri–ondasun estimagarri bailirean.

Zer da poesi errikoia, olerti zaharra, ain maitagarri etsia emen eta edonun? Kanta eder, alai, zoragarri, nekatsu ta unkigarri guzti orreek, erriak gorde ditu; baiña ez ditu, ez zituan erriak asmatu ta sortu; poeten lanak dira, olerkari zaharrak asmatu bertsuak eta gero, urteak urte, errikoi bihurtu direanak.

Olerkariak bere bertsuen bitartez, gizona arako paradisu galdurantza eroan gura leuke barriro. Munduko ta bizitzako edozer da olertikuntzarako gai.

Orraitio, sarri askotan olerkariak ez daki egite–orduan asmoa ala berbak, aria ala irudiak, neurria ala zabaltasuna, itzak ala ritmua bera izango dituen lehenen ta behiñen, arako arima–irakiñaldia jatorkonean.

Poeta onak, samurbera dalako, arako bakartade–jardun eziñesan orretan nekea izan daroa, samiña izaten dau, miñartzen dau.

Amak umea egitean lez, olerkariak be, sorketan umegintza–miñak ditu zelanbait beragan. Eta gero, ama barria pozez geratzen danean, poeta minberatsua ostera, geienik ez da nasai eta atsegin osoz lotzen; eta zergaitik? Begira: ames–egin ebana, senti–izandakoa, nai baizen argi, gura eban aiña samur, fin eta eder jaio ez dalako.

Baiña esanak esan, olerkaria sortzenekeak artzeko, barriro be, gertu izango da.

Orretxegaitik, poeta batek bere lanean diarduanean dauka sentimentu izugarria ta minberatasuna. Orduantxe bizi da irakiten, eziñegonez, artega ta geraka. Eta idatzi ondoren, ostera, letrak illak dira beretzat, papera otza, poema amaitubarria erdi–illotz, baldin bere ingurukoek artu, ulertu, erabilli ta besarkatzen ez badeutsae.

Olerkariak, erri–jendearentzat lan egiten daualako, ez beretzat soillik, barruko kezka ta indarra gordin eta gori agertu eta emon egiten ditu. Umeak lez, jakintsuak lez, gauzekin arrituteko ahalmena daualako, eta umeak lez, egia esaten dakialako.

Ez dau etsiko poeta batek. Ez dau bere lana eten eta bertan behera isilduko. Ez da iñoiz zahar; beti da gazte. Ta miñaroa ta illunaldia, adore ta kemen barriez garaituko ditu, berbere aberrian iraun ala erbeste garratzean, errimiñez beterik, estu ta premiña gorrian bizi.

Bere erreminta bakarra, izkuntzea dau. Eta beraz, irudigilleak bere gaia, ala ontzigilleak bere buztiñea eskuartean darabillen antzera, olerkariak, arean bere, dagokion izkera ta berbetea sakon eta artez jakiteko alabeharra dau. Unamunok berak esana ei da: "Olerkaria zenbat eta bere errikoago ta aldikoago izan, edonungoago ta edonoizkoago dateke. Ta ezin poeta aundia izan, darabillen izkuntza ori, umetatik jakin ezbaldin badau".

* * *

EUSEBIO MARIREN NEURTITZAK

Euskeraz olertigintzan lagun eskas susmetan ebalako, tamalez egon ohi zan Eusebio Mari; eta berak beretara, gogotsu ekin eutsan. Epika–sailleko narrativa ta jolasgarri direan neurtitzak ditu ugarien.

Batzuetan olerkia asi ta amaitu, barruko ibillera jasoaz egin daroa. Beste batzuetan, asmo ta indarra makaltzenago nabari giñeioz. Ez dirudi bere buruaz kritika estuegirik izan ebanik, eta bai egindakoa, egoan egoanean lagaten ebala.

"Parnasorako bidea" deritxa semeak aitaren lanez argitara eban liburuari. Dakigunez, Txorierriko izkerea da or nagusi; itsasaldeko zerbait noizean behin, eta semeak, abade aundi gureak, eta ez dogu onetan zalantzarik, an or emen, egiñiko garbimiñezko ikututxuak. Izkera–ikaste lan bitxi bakan ori euskaltzain laguntzaille batek asi-

rik dau, eta bego aren esku azkarretan, ain zuzen, txorierritarra da–ta.

Kritiku azkar batek fabulagillea deritxa Eusebio Mari gureari. Beste batek, koplagille. Urrengoak, olerkari errikoitzat jo dau. Esan dogunez, Aita Uriarte gazterik ezagutu eta arrezkero, ta batez bere biok an Bermeon egon zirean urteetan, adiskide aundi zireanez, fraille orren eritxiz bere, aldi aretako poeta euskaldunetan onentzakotzat jo eban. Eta izan be, Bizkaian bere sasoian, alakoxea dirudi, guztizkoa.

Jazoera ta kontaketa saillekoak ditugu aren lanik ugari. Beraz, alkarbidezko ta komunikaziño–olertia izan zan aren jardun bedegarrena. Gizarte–ikutuko pasarteak ditu noiztik noizera. Labur esan, Eusebio Mariren poeta–joerea ta griñea, lirikarako baiño zirikarako izan zan leratsuago. Neoklasiku kutsua ekarren barruan, eta beraz, neurri ta taiua arduraz zaintzen zituan geienbat. Izkera argi ta ulerterreza beti, iñoizka irudi politak bere, erraldatzen ditu. Orduko bertsogilleen antzera, batzuetan itzen ordena jatorra aldatu ta esanaldia bihurritu egin ohi dau.

Jo daigun aren liburura.

Elizako kantuak bere ba ditu; "Dies irae" euskera jarria, zabalkiro ostera, eta ain zuzen, Luis Luziano Bonaparte printze frantsesarentzat berariz egiña. "Ave Maris Stella" be, euskeraz jarria. Pekatari bat, Amar aginduak, Andra Mariari maiatzean eta bere Sorreran, eta Gabon kantak. Norbaiten susmoz, kanta azken oneen doiñua, Juan Blas Altunak ezarria ete dan; ezin ostera, gaur beintzat, zalantza au zuritu.

Lirika arloan, bi edo iru, lan txukunak ditu, bihotzondo samurraren ta minberatsuaren agergarri.

Maitemiñezkoen artean, "Elisa" izenekoa. Entzun ahapaldi batzuek.

"Eztakit zer dan, neure maitea,
neure aspaldiko bizia;
koipea sutan urtuten danez
urtu iat gorputz guztia.
Gorputz zuzena, garbi–ardatza lez
dauko, ta bere garria
eraztun batek artuko leuke,
orratz batek lez aria.

Bere ule ederra seda biguna
ta baltza, erroia lakoa;
ta bekokia zuri ta leuna,
izurrunerik bakoa.
Ugarte baten zeuk nai badozu
atsegin utsen tokia,
zeru–zati bat ekarriko dot
eta biontzat gloria.
Ezin neinte ni zu barik bizi
eta au da egia ziurra;
zeu zara, Elisa, neure armea
eta zu barik ni… lurra.

Azkenean dirautsa:

Batu gaitezen beti betiko,
Elisa neure kutuna,
neure atsekabak amaituteko
lastertu daigun eguna.

Sail onetan beste lan bat, guztizkoa, eder–kutsuz ornidua, "Maitetasun aundia" deritxana. Ona emen bertso bi:

Biotz bakar bat daukat
ta mila banituz,
milak, neure maitea,
emongo neuskezuz;
eutsi milak langoa
bat, maite neurea,
eta neurean ordez
ekazu zeurea.
Zeu barik ezteust ezek
gogoa betetan,
orduan gogamenak
eztagoz ezetan;
bakar bakarrik nago
zeu barik munduan,
Afrikako ondarretan
leoia moduan.

Azken–bertsoan, zoragarriro dirausku benetako maitetasunaren indarra:

Ilten banaiz, maitea,
bizi zareala,
uste dot Jaungoikoak
itxiko deustala
zeure bornuan beti
munduan ibilten,
bada ezta iñoiz gogoa
maiteantzat ilten.

Ba dau beste lan bat, ameskoia, poesitsua, ta gizarte–ikutua daukana. "Gaba" dau izena olerki sentikor onek. Ona atal batzuk:

Betor illuna laster
Ama loarena,
zeruko baltasamua
pena guztiena;
datorrela beragaz
gure artera loa,
zerututen mundu bat
erruki bakoa.

Ohar zelako itza darabillen, "zerutu" = mundua zerutu, zeru bihurtu.

Munduan beti dago
gizona amesetan,
gabaz zorakerian
ta egunez benetan.

Orra or gorago adierazo dogun Poesiaren guna, amesetan egunez, amesetan gabaz, beti amesetan.

Betor mundura loa
eta amets zoroak:
bizitza nekatuen
bitarte gozoak.

Betor gaba, ta orduan
pobre ta eukitsuak
loan izango dira
bardinak bitzuak.

Eta auki lei pobreak
loa gozoago,
izanarren bere oia
askoz gogorrago.

Eta Lirika utsezko sailla utzi, ta goiazan aren sail zabalenera: Zirikara, zirika betera. Iraizean aitatuko ditugu lanik ugari eta azkenerantz, obeagoak astirotxuago aztertuko.

Gizartekeria ta gizontasuna. Gizon bik izketan diardue, bata okerra da ta lagunik bakoa, eta beste barriz, itsua.

Astoak arrantza. Alako batean diño: "Gizon askotxuk / isilik dirudie / kadera bikoak / berbaz asten badira / lau kaderakoak".

Enbasuko neskatillen kantak. Ondo ezaguna zan gure kaian kanta au, eta erri osoan bere, sarri bai sarri kantau izan genduan gure gaztezaroan bere: "Aro ona dago, kairantz goiazan / kanpuan dabil iparra / gaurkoa da bai itsasaldia / eztago taiua txarra. / Otzaratxu bat / Otzaratxu bi / arraiña dator / portura beti…".

Baserritarren erromeria. Zirikaria benetan. Ataltxu bat edo beste: "Paskoetatik negura artean / gazteak dagoz zozorik / udaegunetan inok eztauko / santu izateko gogorik. / Udabarriak etorrerea / zarrentzat dauko larria / iruntsi ezinik euren alaben / iantzi barrien neurria…".

Edarian otsoa. Eztena ezin agiriago darabil. "Gauza guztiak egin ebazan / Jaunak ederrak eta aundiak / eztira baiña berak egiñak / munduko gizon ordiak".

Baserritarren jai–domeketako batzarrak. Ariña ta akuluduna dau. Illuntzean, lau baserritar agertzen deuskuz tabernan, musean eta atertu barik edanean. Azkenean… "kontuak ordainduta / guztiak berbetan / erdi oker erdi zuzen / doaz ilunetan".

Ezkonduteko, negua.
Gabon afari bat.
Gastelugatxera promesa.
Loba besoetako.
Ezkontzak baserrian.
Gizon barkatsua.

Zelo batzuk: ez dira gora aundiko lanak, baiña ba dau bakotxak bere zer berezia.

Arrantzaleen kantea. Alako ikutu atsegiña dauka lan onek.

Santo Domingo ta Espaiñia. Ez da gar andikoa, baiña fantesiazkoa bai, ikus daigun pasarte onetan: "Lartzanako zubitik / Deusto bitartean / batzar bat ikusi dot / Nereiden artean. / Ibaizabalgo ninfa / euskaldun maiteak / eta lenago legez / gaur adiskideak".
Eta gerotxuago diño:
"Gaulo sajoi labanak / il dabe Amerika".
Eta ingelesen kontra gogor diardu, espaiñolen aldeko itzak geitzen ditu, jakiña.

Pio IX ta Napoleon III. Lan onetan, frantsesen aurka darabil bere sua. Baiña fedearen garaipenaz uste sendoa dau olerkariak, azkenik.

Castroko abantariei eta Castroko arrantzariei. Poematxu biotan zirikadea guraiña dauka, kai aretako itsastarrentzat, orduko estropadak zireala–ta. Aen aurrez–aur, Bizkaiko itsasgizonak jarten ditu: "Emen dagoz Bermeo / mutil abilakaz / eta Ondarroa andia / arrantzaleakaz. / Emen da Lekeitio / leorrez ta itsasoz / bardinik eztaukana / bere alboan inos".
Behar bada, arrokeriz beteriko esana da, baiña gure olerkariari bere, atsegin jakana, orixe bai.

Ezkonduteko asmoa ta gogoa, Anton Julian, Mundakako emakumeak eta Mediku bi Santu guztien gabean, laurok jolaserako bizarrez egiñak ditu, geienbat.

Sur bateri. Gaztelaniazko "Erase un hombre" edo olako zerbaiten asmotua da, baiña bere erara darabil lan arin au, eta gatzaz eta taiuz, aitatugarri da.

Gudua, gosea ta izurria. Andikiakaitik dira beti gerrateak, diño. Baita alperrakaitik bere. Luze samarra da, 44 ahapaldi ditu.

Munduko zerua. Ba ete dakizue zein dan? Ezkontza ona, ta beraz, emazte ona artzea.

Zugazti barriko ekarriak. Madarikatu daroa gizonen odol–egarria. Gosea ugari baiña maitetasuna, urri. Filantropo izeneko pobregilleeri, lepo betena emoten deutse. Beste batzuen kontra be, ezta isilduko. "Zenbait botikariok / diruen pozera / daroe eriotzea / nesken zabelera". / Orduan bere, antza, ba ziran gaurko "Anti" orreen ideko zerak.

Idiak eta burdia. Zuzenzale agertzen jaku egillea: "Jupiter jauna zan urte askotan / mundu guztian alkate / eta gaur bere bera lakoak / topetan errez litzate…".
Eta ganeratzen dau: "izanagaitik iaun nagosia / ezeukan begia zurra / eta egitzat artuten eban / begiratuta, guzurra".

Aldia. Ona emen buru–lana, irakasle antzera egiña. Urrundik bada be, geroagoko "Lizardi"–ren "behera–beharra" kerrua susmau dogu.

Gizon zorigaiztokoa. Lorratza ta grafismu zorrotza daukaz lan onetan zoritxarreko gizona argi ta garbi agertu–guraz. "Edan neban titia / bular bakarreti / eta ez bertati bere / nai nebana beti. / Urte erdi igarota / eneban lez iaten / ondo sartuko nintzan / orraztoki baten".
Geroago eskolako lorrak azalduko ditu, maisu gaizto borrerua eta abar. Urrengo, auska ta burrukak, arrika jardute eta ukabilkak. Geroago, dantzari egin zan, baiña iztarra atara eban. Jokorako griñaz asi zan eta, orra, soiñekoak eurak bere, guztiak jokoan galdu zituan. Neska bi maite izan, eta biok ez jakoz ba, iñogaz ezkondu? Azkenean, fraille sartu zan; baiña gobernuak komentu sarratu eta… or konpon, eriotzarako gertu dakusgu gizontxua. Itxaropenez ta fede biziz, ostera.

Emakumeen sendotasuna. Zirikaria, egundo bada! Senarra, noiz ilgo dago, ohean luze. Ta emaztea jagita eta bizkor, baiña gaisoaren

irudira, alameniaka ta erostaz, eriotza–eske. Eta onetan, Eriotzea berbera agertzen jako —Balbea gure elederreko zeretan—, eta ba dirautsa emakume azal–minduari: "Nor kenduko mundutik?". Eta gure andra sendoak, izu–lauorri egoanak, erantzuna: "Baldin nai ezpadozu ioan lagun barik / neure senar maitea/ dago or il gurarik". Baiña, asierako ahapaldian Eusebio Marik sekulako argibidea damosku: "Salomon erregea / gizon iakintsua / andrak gaiti aurkitu zan / galdurik burua; / gazteak eta ederrak / ebazan laztanak / zuri, baltz eta gorri / ta asko baltzeranak. / Eztau emakumeak /Salomonek diño / guztiz maite gizonik / izan oraindiño…".

Gazteen batzarrak. Alaia da, irritsua: moralista diardu, eta alan be, entzun: "Neska–mutilak ibilten dira /gaubean isil–ostuka /eskuetatik alkar artuta / amodioan burruka. / Eztot nai, ba dot nai / neskeak dino bai / noizean beinean mosuka. / Gauela baten dagozanean / oilarrak kantau ezkero / udabarrian txoriak legez / iente gaztea da bero / Ezta alan, bada alan, / gaztea gaubelan / atsuak iges ta gero…".

Ardi saltokaria. Zorionez, ez dago orain ardirik; lan au, ostera, barreikarria da, ariña, pozgarria. Atsoak eta ardiak darabillen burruka eten bakoa azaltzen dau. Iturriagaren "Atsoa ta arkakusoa"z erkatu leiteke. Azalpen labur eta argia: "Gastaiña kolorea / musturra zorrotza / ankak luzeak eta /arpegia motsa…"

Mogel eta Txaraka. Ikaragarrizko satiraz josia dau lan au. Eskribaurik ezin eban ikusi. Markiñetxebarriako senar–emazte bik alaba ederra ezkondu eben erriko zaldunagaz. Gizon au, orraitiño, gatx zakar batek jo eta ohera bota eban. Eta Mogel abadea ta Txaraka eskribaua etor eitezala eskatu eban. Eldu dira gizonok, eta gaisoaren inguru dagoz, zer ikusiko ta zer entzungo. Gaisoak, bestela baitakoan, Jaungoikoagaz berbetan diardu, albokoei jaramon egiteke. Entzun deiogun gaisoari:
"Ni, gorako zarra naiz / berako gaztea / ta etxat gogoratuten / erdiko nastea. / On bat bear badozu / santua lakoa /… or dago Mogel jauna / bana banakoa. / Txar bat gura badozu / eroan bultzaka / ez inon billa ibili / or dago Txaraka. / Baldin izango bada / bien bitartean / or daukazuz ugari / atso–agura artean. / Oindino ezta

galdu / nire adorea / iru urtean birritan / emon dot semea.
"Mogel eta Txaraka / egozan entzuten / zer egoan gaisduna / Jaunari eskatuten / ta Mogelek edurra / baino zuriago / esan eban; gizon au / zoratuta dago. / Iges eben etxerik / iantzita kapelak / bildurragaz nastauta / buru ta sabelak…".
"Entzun eutsan lez baina / Iaunak eskaria / sendotu eta gorde eban / luzaro bizia: / Au zan gizon arteza / biurrik bakoa / Bizkaitar euskalduna / ta Markinakoa".

Andra ordia. Gogor joten dau lan onetan emakumeen seta onen kontra. Oraingoan ez da zirikea, agirakea baiño: "Andrea da barautan / berba gurea / baina ordirik badago / itusurea; / barre gangarrak / daukez zantarrak / ta noizik beinean / zoro–negarrak. / Eskutetan dau gero / gelan pitxarra / eta bere barruan / matsen negarra; / sarri izaten da / oean egarri / ta eukiten dau mosuan / pitxarra sarri.
"Puzkor begiak eta / bekoki illuna / dirudi bost gizonen / andra alarguna; / daukaz begiak / itzal argiak / eta laster ilteko / marka guztiak…".

Alperrak. Zolia ta garratza da; txibitea ta idizilla darabiltz eskuetan, eta zigortzat erabilli bere. Soldautza ta gerrateen kontra diardu. Lan au bere, gizartegai–ikutuz egiña dau. Alde batetik alperrak, eta bestetik, lan egin gura ta lanik bakoak agertzen deuskuz. Gizarteko zuzenzale dogu, beraz, orain eun eta akats urte. Ikus: "ondo ian, bardin edan / eta gauza ederrak / bearrik egin barik dituez alperrak. / Zintzoak iaten dabe / bedar ta lastoa / zintzoa beti izan da / alperren astoa.
"Baiña libre edo lotuta / dagoan lekuan / zintzoa baiño obeto / bizi da munduan; / gaur alperra izateko / eztago lotsarik / gizaldiak eztauko / bizimodu obarik.
"Asko dagoz alperrak / eztirudiela / gizon onen izena / osturik daukela / asko dagoz geldirik / bearrik bakoak / onek eztira alperrak / ezpada zintzoak.
"Baita ba dagoz asko / alper eskekoak / batzen iatorkuzanak / ezkur etxekoak / onek basaurdak legez / erri guztietan / arto–gariak daukez / inon soloetan".

Ezkontza bat, beste asko legez. Ziritsua da, neska ezkongureen aurka. Senarra bai senarra, aen guraria. Eta orra ba, senarra lortu; ostera, alper galanta egokitu.

Ioane Bekoerrotako ta Kontze Ganburuko. Auxe da Eusebio Mariren jazokun–ipuiñik luzeena; 80 ahapaldi ditu zortziko txikietan, beti ohi dauan egituraz zertua, puntu biko eta gero beste puntu biko. Mutillaren taiua erakusteko:

"Adonis lango ederra
ta guztiz isila,
alboerri guztian
lenengo mutila."

Eta bestalde, neskatillearen taiua:

"Kontze Ganburutarra
Markaidako argia,
ogei urte lenago
mundura etorria.
Eun orriko larrosa
usain gozokoa,
Kupidon arnaseak,
ukutu bakoa."

Ameriketako bere osaba zaharrak Kontze eder au emaztetzat gura eban. Neskatilleak ezetz eta ezetz. Aita–osabak ostera, bihurri samar, preso artu eben Kontze, etxea kartzela ebala. Gau batean orraitio, Bekoerrotak mutil maiteminduak, baserriko alaba ederra leioan zehar ostu, ta Bilbora daroa; Bizkaiko Jaunordearen emaztearengana eroan bere. Eta agurak estu artu zituan Jaunordeak, eta azkenez, buru makur, baietzaz lotu zirean gazteak ezkontzeko. Osaba zaharra, zeluz eta bekatxez ezin bizi, ta il egin zan. Eta orduan; "txilin soinua izan zan / ta gori goria / aberatsena legez / luze ta zolia. / Sarri errezetan eutsen / il zan aideari / edo egia esateko / bere diruari. / Eta etzan igaroten / esan barik, gaba: / euki izan baleuz Kontzez / bederatzi osaba!".

Zalduna ta damea. Au be, kontu luzea da. Bost atal ditu eta 70 ahapaldi, neurri bardingadunak. Erriko neska eder, asierako lagunak: "Bata zan Maria ta / beste Pepita / izar bi zerukoak / mundura iatsita". Geitu daigun, erri aretara beste "Adonis" bat eldu zala, botikario barria bera, izenez don Juan de Bragas. Eta Mariaren ondorik asi zan gazte bero au. Gerotxuago, or dakusguz biok polito konponduta:

"Bata besteari besoa artuta
kapa barruan biak ostuta
ebilzan Bragas ta Maria,
ianda aparia.

Eldu zanean udagoiena
beti izentauta biak eukena
ezkonduteko; ioan zan Bragas
isilik igaz."

Eta illuntze batez, Mari gaisoa larri, Pepitari esaten ausartu zan:

"Gonea eukala labur aurreti
baiña ez atzeti."

Alan bere, gertatuak gertatu, Mari ta Juan alkarregaz ezkondu zirean, abade jaunaren ardurea ta isia bitarteko ziralarik.

Pedro Bentura ta Ana Manuela. Olerki onetan, ganezka egin eutsan irudimenak gure gizonari, ta lar amesezko agertu gura izan deusku, ainbesteko ez dana. Asiera polita dauka, ta egilleak, nunbaite be, barruan izandako egoerea azaltzen dau: "Goletatxu bat etorri da gaur / gatzez ta orioz beterik / eta etxetan ezta gelditu / iñor zarrik ez gazterik. / Aita etorri iat, ama bere bai / ta zu ez, neure laztana / beti betiko munduan lagun / izango zaitudazana".
Eta amaiera aldean, dirausku: "Baina euskaldunak bein berbatuak / biotza eztogu gurea / eta itxaroten iagot Bermeon / Ama Manuel neurea".

Antxinarik ona. Lehengo aldietara joan jaku oraingo onetan olerkari gurea. Aspaldiko arako Padurako burrukeaz diardu.

"Ordukoak zirean / zintzo Bizkaitarrak / inok goitu ez ebazan / munduan bakarrak. / Bizkaian iaio ta azi / euskaldunak danak /euren legeakaitik / ilgo zireanak".

Arrezkero izan zirean aldakuntzei buruz agiraka diño: "Parisen ernetan da / moda bat astean / sustraiak dituzana / laster gure artean. / A la frantsesa berba / a la frantsesa ian / a la frantsesa iantzi / a la frantsesa edan. / Euskalduna gorputza / frantsesa arimea / au da len esan dodan / gure mazkarea".
Urrengo, ingelesaren aurka egiten dau: "Guztiz azpiratuta / ingelesak gaukaz / geuri egiten deuskuzan, zitalkeriakaz…".
"Ezta gurasoak lez / oraingo gizona / munduak bira egin dau / antxinarik ona".

Deungak. Lan onetan be, barriren barri ekingo deutsa ingelesaren kontra. Aren eretxiz ingelesak lapur aundi batzuk dira. Frantsesen aurka bere esango ditu berba gogorrak, eta, ostera, Aita Santuaren alde.

Medikua ta gaisoa. Ez zituan gozaro artzen medikuak bere, aita zer orretakoa izan eban arren. Alaia, zorrotza, azken polita emoten deutsa.
"Dama gazte ta eder bat / egoan gaisorik / inok ezekiala / noizik eta norik. / Dameak ondo ekian / bere gatxen barri / baiña Mediku jaunak / ez eban / igarri… Esan eutsan goiz baten / lotsaz gorriturik / etzala beretzako / bear Medikurik, / ez Botikariorik / bazan agurea: / bere gaisoa zala / ezkondu gurea. / Gurasoen aurrean / surrari eraginez / berrogei berba esanda / Griegu eta Latinez / emon eban Galenok / bere epai aundia: / Gaisoak ian eiala / eztegukо ogia. / Gurasoak entzun ta / egin eben: Ju Ju / gaisorik dagoala / ezin lei ezkondu. / Dameak esan eban / "Nai Ju Ju nai Ja Ja / Medikuen esana / bete egin bear da".

Urtea. Irakaslearen lana da, neoklasiku taiura, urtearen biraldia agertzea. Urtea… "ikusi dabenak sarri / belauna eukiten dau larri / ikuste labur / lepoa makur / gelditu barik eskua / eta tximirrik mosua".
Aria, Zezena, Polux eta Castor, Bikotxak, Karramarru pikoduna, Txakurra, Leoia, Birgiñea, Balantzea, Eskorpio, Auntza, Arrain bi…

Apolo ta Musak. Lan onetan bere, irakasle–ereduz ekin deutsa: Apoloren bederatzi arrebak, Musak, irunako ahapaldi egokietan

erakusten ditu. Kaliope, poetena; Clio, historiarena; Erato, lirikoena; flautadun Euterpe, musikariena; Melpomene, tragediarena; Polimia, berbaldien neurrigillea; Talia, komedigilleak ortxe egia guztiak; Terpsicore, dantzarien musa; eta Urania, eguraldi igarle. Neoklasiku bete–beteko jarduna. Baiña, eta mitologia eta mitoak gaur orraitio? Orra, ba; zaharrak urrunduerazo–ala, gizonak, gizonaren seme dalako, barri–barriak sortu ohi ditu.

Bertsolari edo Koblakaria. Moralista ta irakasle agiri jaku. Asieran dauka arako gora–dei gartsua. Entzun:
"Erdu zerura, koblakaria / goiazan biok batera / au baiño obea beste mundu bat / an goian bilatutera". Eta urrengo bertso onek damoskue poeta azkarraren asmo nagusia: "Gizon andia da emen urrea / ta ezereza, kobrea / trumoi sikua jakituria / daukana bada pobrea. / Egia biloiz iantzi bakoak / iges dau gaur gizarteti. / Erdu; goiazan bertsolaria / bera ioan dan bideti. / An ezta egongo biotz sikurik / ez deunga okerrik nagusi / an ezingo da inor galtzeko / guzur lege bat erosi".

Buenos Airesen euskaldunak. Atsekabe ugari, ziur asko, euskaldun erbesteratuak. Izan be, erbesteko aberastasunak ez dira edonorentzat, aberrikoak bertakoak bere, ez direan aiñean. Orregaitik olerkariak argiro esango deusku: "Etzaite urrun ioan / amen magaleti…". Eta amaz diarduala, entzun benetan, ahapaldi oso auxe:
"Ama langorik inor / eztago lagunik / geure neke andietan / aituten deuskunik; / edozein aiden ordez / dagoz makina bat / baina mundu guztian / Ama, bakarrik bat".

Andra baten adiskideak. Lan barragarri au, satira itzela da, gizon… zertuarena. Ahamena lortzeko, gustu artzeko, oso–osorik irakurri behar izango litzateke.

Bardintasuna. Joan dan mende azkenetara eldu orduko, bardintasunaren zerak eta esanak aintzat artu zituan olerkari gureak. Gizarte–giro neurtitzak ditugu, orain 120 urte idatziak, eta euskeraz idatziak ain zuzen, gizonak bardintasunaz amesak ames egin daroaz; Eusebio Mariak, orraitio, ez dau siniste aundirik batasun

bide orretaz frutu jatorrik lortuteko. Baiña… ori gora behera, bertan goxo egiterik ez leuke gura: "Ezkaitezan gelditu / gure alegiñean / ta artu daiguzan lurrak / danak bardinean; / baina urte bete barru / eztago dudarik / lagun asko egongo da / gizelan bat barik…"

Goizaldeko loa. Astuna ta nagia ei da gabeko loa. Goizaldekoa, barriz, laburra baiña gozoa. Bihotzondo samur bigun, bertso gozabera ta baketsu. Zoritxarrekoa da, arean bere, goizaldeko loa egiteko aukerarik ez daukana, eta orregaitik ezin zorionik izan, ezin atsegiñik jadetsi. Eta dohakabe orreen kordea, luzea da. Ikus: goizaldeko purgadunak, zorrez beterik bizi direanak, arrantzale goiztarrak, pobre eta goseak, albako mesatara aho zabalik datozanak, agura siku itzarzaleak, goiztarrak, otseiñak eta menpekoak, bakartadean negarrez bizi direanak. Entzun bertso bi:
"Infernura lenengo / ioan zan gizona / etzan izan goizetan / beti login ona: / Abel ilteko azurra / ustelduta astoa / topau eban galduta /… goizaldeko loa.
"Egin nai eztabenak / goizaldean lorik / eztauko zerurako / gaisoak gogorik / eztabelako ikasi / dala zerukoa / munduan egon arren / goizaldeko loa".

Egiaren ispilua. Eun eta geiago urte dituen betsuoi gaurkotasuna darioe. "Abadea da gaurko egunean / gizon guztien morroia / bere buruan darabilena / martiriaren koroia". Ispilu aurrean ainbat lagun ezarten dau. Ikus daiguzan Eusebio Marik ezagutu zituan gizon bihurri muetak: Osagille zoroak, letradu belarri zuhur baiña diruagana itsuak; alkateen auspo direan sekretarioak, maisu mundutarrak, arotz, iostun, narru–dendari ta zapatariak; tabernetan saltzen dituen katuak (tabernariak, katuak baiño bihurriagoak, noski); masoien ikasle direan itsasgizonak; etxagun andi gazte zoro, diru ta lurrak lauskitu ta lorrintzen dituenak.

Mundua billoizik. Ona emen gizarte–kutsu literaturako antziñeko lan bat. Or salatuko deuskuz olerkarik argi ta garbi; orra or, beraz, protesta–abesti sutsu ta zorrotzak: arpegibiko gizonak, burrukazaleak, odol–egarri direanak, guduzale ta alperrak… ederto astinduten ditu. Orraitio, ba ditu sail orretan lagun geiago be: alkar–azpi-

ratzen atsegin dabenak, lapurrak eta mozkor ordiak, aguazillak; euneko berrogei zorko neurria ezarten daben gizon ziztrin zikotxak. Eta euskalun direala esaten lotsor direanak. Eta orren aurrez–aur, domeka bako langille behartsu ta zehatuak jarten ditu. Munduko gizonak, ordukoak eta arrezkeroak… "Onek lango gizonak / topetan dira errez / menperatuta daukenak / mundua negarrez".

Eta azkenen buruan, esan daigun zera, Eusebio Marik bere satira jokoan, bertso labur–laburrak egin zituela, geienetan lau lerroko taiuz, epigramak, "ziri–bertsuak" deritxenak. Orrelakoetan agertzen deuskuz, esaterako, Txanton, gorra, garizumako sermoi guztiak entzuten zituana. Iru epigrama, eskribauen kontra. Medikuak be, aho–miñetan darabiltz, eta andrak eurak be, edertotxu astinduten ditu.

Onetariko bat esanaz, amaituko dot. Entzun ba, arretaz:

"Andrak galduta dauke mundua,
eta gizonak, andren burua:
alan, galduta dagoz gizonak
mundu ta gonak".

(Esan dot)

EGUSKITZA MEABE, JUAN BAUTISTA (1875–1939) BERE BIZITZA ETA LANAK*

Eusebio Erkiaga

Giro–billa asieran,
giro–billa amaieran.

Jaunok, andreok:

Lemoako erriak, beste bere seme askoren artean, bi behintzat, euskal–idazleak ditu. Aita Kristobal Linaza Areta, 1806 gn. urtean jaioa; fraille frantziskotarra, Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian an or emen jardun ostean, azken urteetan Tolosan egon zan, eta antxe il be, 1866 gnean. Prosaz ta bertsuz mamindu zituan bere lanak. Izlauezko lanak: "Visita egunerocoac aldareco Sacramentuari"; bost bederatziurren eta Irugarren erregela edo bizimodua be bai. Izneurtuetan barriz, 667 zortziko, "Jesucristo gure Jaunaren Pasiñoari" eskeiñiak; beste 20 zortziko "Tentaziñoac menperatzeko" eta 200, "Gizonaren bizitza errucarriaren gañeco considerazioac". (ikus Aita Onaindiaren "Euskal Literatura", II, 78–79 orrialdeetan).

EGUSKITZA ZANA

Goazen eun urte atzera, doi–doiak. Lemoan, orain Talleres deritxan auzunean zan Errotazar basetxean[1], umea jaio da zemendiaren 28an. Egun berean, Domingo Etxebarria Garai abade jaunak Juan Bautista izenak ezarri deutsaz. Gurasoak, Antolin eta Maria. Oneen gurasoak, Juan Bautista Eguskitza ta Maria Ramona Ureta (aitamabitxi be, eurok, bateo onetan), eta Frantzisko Meabe ta Maria Dominika Ordeñana. Laurotarik iru, lemoarrak: amama Ureta, ostera, galdakaoarra.

Gure mutiko euskaldunak —sasoi aretan Lemoan guztiak euskaldunak ziran eta— gaztelania, eta latin eta griegu ikasi ditu, Zorno-

---

* *Euskera*, XXI, 1976.

[1] Errotazar basetxea mende honen hasieran eratzi eben, eta han gaur, marmol lantegia da.

tzako Larrako komentuan, aukeran. Gerogarrenean joan joaku Arabako lautadara, Gasteiz zurira, abade izateko asmotan. Ez dau, beste askok arrokeriaz beterik edo, bere euskerea ahaztu. Bai zera ahaztu!

Bere buruazkorik idazten ez da zale izan. Orraitio, behin bai, eta zertzelada estimagarri auxe ezin ba, bazterrean laga guk. Azpeitin 1925 gn. urtean, Karmelo Etxegarai jaunak euskaltzain sarrera–itzaldia esan eban eta erantzutea, Eguskitzari egokion. Ona emen onen mintzaldiko puxketa jakingarri au: "Ogeta zazpi bat urte ba dira, gutxienez; alaz ere, atzo izan bailitzan oroitzen naiz. Gasteizko nere ikastaroa bukatu ezkero, egunik galdu gabe, nere etxe–zillora gurasoen ondora itzultzen nintzan, beste nere ikaskideak bezela, ni ere alai ta pozez. Gure erriko apezak, arratsalde oroz, ango jaun baten etxean batzen ziran; eta aro epelean, zerbait irakurteko asmoz, ara joaten nintzan ni ere. Urte batean… irakurgai barri bat aurkitu nuan etxe artan: Azkue jaunaren "Euskaltzale". Erderazko albistariak, ikustalditxo bat eman ondoren, sakelean sartu ta beren etxeetara eramaten zituzten; "Euskaltzale", ez. Au zala, ori zala… iru zenbakitik bi gutxienez, an uzten zituzten, eta neronek artu ta etxera eraman ezpa'nitu, an geldituko ziran, iñori bururik ausi gabe. "Auñamendiko Lorea"–ren atal batzuk orduantxe irakorri nituan lenbizikoz. Oporraldia bukatu ezkero, berriz Gasteizerako bidea artu bear izaten nuan, eta gure lankide maite izan zan Agirre jaunaren idatzi osoa, ez nuan aldi artan irakorri; baña egindako atalak atsegin izan zitzaizkidan…"

Gatozan arira. Eguskitzak eleiz–ordenak Gasteizen artu ditu: 1897 gn. tonsurakoa; urrengo udabarrian, diakonu–orde egin dabe, ta abenduan, diakonu. Jarraiko urteko kurtsu–asieran, abade egin baiño lehen, Seminarioko Humanidades arazoetako irakasle. Arik ille batzuetara, 24 urte bete eta laster, gabon–bezperan, abadetza ezarri deutsa Ramón Fernández de Piérola obispu jaunak.

Aitatugarri da, oraindik orain, gaztelar akademiku batek esana: "Al hombre, ciertamente, se le arrebata la pureza del aire y del agua, pero también se le amputa el lenguaje; y el país en el que transcurre su vida lleno de referencias personales y de su comunidad, es convertido en paisaje impersonalizado e insignificante."

Miguel Delibesen itzok berresan daiguzan gure mintzairaz: Gizonari, ziñez, aizearen eta uraren garbitasuna kentzen jako, baiña bai-

ta izkerea moztu–ebagi be; ta bere bizitzea emon daroan eskualdea, lurraldea, norkiz ta norbere gizartez ornidua, nortasunbako ta esangurabako paraje bihurtzen deutsoe."

GIRO–BILLA

Aizea ta ura garbiak ez izate ori, oraintsuko zera dogu. Berbetea moztu ta ebate ori, orraitio, orain larogei urte inguru susmau eban Eguskitzak.

Irakasletzan diardu Seminarioan; Baiña aldaketa izan da, obispu–aldaketa. Cadena y Eleta da gotzain barri ori. Euskaldungoarentzat ez dau txera onik. Une onetara eldu, eta guk itaundutakoek, alde bi, puntu bitatik jardun deuskue erantzukeran. Bata: kanonigutzarako saioetan lemoarrak guztizkoan zertu arren, kargu ori arabar Prudencio Dallori emon eutsoela arabarrak; Azkueren itzak ei dira besterik: Eguskitzak merezi ezan ebala, baiña obispuaren gogara jardun ebela epaikariak. Bestea: irakasletza maillan, ohi zanez, don Juaneri egokiola gorago jasoa izatea arako aukera batean. Baiña, iruzaku egun eutsoela. A. Akesolo bigarren zer oni atxikia dagoku. Arritola aurtemein ildakoak, euskal–giro txar aretan itto baiño lehen, aldegitea erabagi izan ebala Eguskitzak, esan euskun il aurretxuan.

Gu be orretan gagoz. Gizonen zuzentasunaz ta zuzenaren aldeko ta kontrako gizonez zalantzan eta duda–mudan jarria genduan gure abade lemoarra. Norbere izatearen kontrako ta eskubideen kaltezko danik ontzat artu gurakoa ez da Eguskitza. Goragoko karguetarako gose–egarririk barik, aundilurrun eta arrobitsei jaramon egiteke, laga egin dau irakasle kargua.

Eta Bizkaira bihurtu da, euskerea bizi dan lurraldera, bere Lemoara. Izan be, barruan zerbait asmo daukanari, ez dagokio lotuegi bizi izatea. Geroetan idatziko dau, "Gizarte auzia"–n, sistima batzuk ala besteak be, gizona lotu daroela agertzean: "Azkatasuna urre ta zidarrez ezin erosi, urre ta zidar oro baño obe ta ederragoa da–ta… Aukeramena kendu ezkero, gizona ezta gizon, esklabu errukarri baño." (103–4 orr.).

Munduan, gizon artezen beharrizana, beti izan da, eta izango be. Ta zorionez, zuok lemoarrok, izan dozue errikoseme argi, gizon zintzo, oso ta zuzenzalea.

Lemoan egon dagoala, zera jakin dau, Lekeitioko Latinidade irakasletzako aulkia utsik dagoala. Edubigio Kortabitarte izan da

azken–maixua. Ta Eguskitzak bere izena eskeiñi dau, beste sei–zazpi lagunek beste ainbeste egin dabelarik. Orraitio, beste oneek, lemoarra be agertu dala jakin baizen laster, atzera egin dabe, eta gure don Juan, 1904 gn. abenduaren 4 an, Lekeitioko irakasle izentau dabe. Ango Karidadeko Alaben kapellau be, izango da aldi batez.

Lekeitiora doa, beraz, eta antxe emongo dau bere bizitzarik erdia baiño gehiago, 33 urtegiño. Bere sasoian aren ikasle izaniko abade batek dirauskunaren laburpena ona emen:

"Bizitza benetan ikusgarria don Juanena! Egunero, utsik barik, goizeko 6 ta erdietan altara nagusi aurrean auzpez, mezatarako gertuten. Ordu–erdi orrelan. Zazpiretan mezea, ta ostean, beste ordu–erdi belauniko, Jaunari eskerrak emoten. Zortzi ta erdietan, egin–egiñetan, eskolaratzen zan, amaikak arte. Arratsaldean, ordu bietatik 4 arte. Ta erakutsi, baiña zelan erakutsi! Latin, griegu, erretolika ta betegarriak. A zan gizona, beti osasunez beterik, almen eta indar osoz irakasten; bein be ez larrialdi edo gogo motel. Ainbat irakasle izan dodaz; baiña onelakorik bat bere ez, antzemotekorik be. Eskolan errespetu aundiko gizona zan, baiña biotz zabala ta guztiz ona. Beti zintzua ta benetako apaiza..." (Txomin San Sebastianen testigantza).

Beste ikasle batek be, gazteagoak, gehitu deusku: "Lekeition ikasi ta Gaztelu Elexabeitira joaten giñanean, ango irugarren urtekoen ondoan guk geuk, latin asko be gehiago jakiten genduan don Juanen ikasleok. Erderaz ulertzen ez genduana, euskeraz azalduten euskun. Bere buruaz estua zan eta ikasleok be, estututen ginduzan. Baiña don Juan, abade ta gizon on–ona zan. Behar bada, serioegia. Historia––ikaste orduak gozo ta atsegin izaten genduzan aregaz. Orregaitik edo, beti izan naiz arrezkero historia–zale" (Emilio Kortabitarteren testigantza).

Ona emen orain, don Manuel Lekuonak dirauskunetik, atal argigarri au: "Eguskitza jaunaren bizitzazko zerbait jakin nai dezu. Nik gauza gutxi esango dizut, ez bait nuan ainbeste artu–emanik izan jaun begirune aundiko arekin. Gu 1908 gn. Gasteizera joan giñanerako, Lekeitiora joana zan, Latin erakustera. Seminarioan aren aipamen aundia zan garai artan; gizon jakintsuaren aipamena, alegia. Zergatik aldegin zuan? Orduko gotzain Mons. Cadena y Eleta–k beti ere, euskaltzaletasunaren etsai izan zalako izena zuan. Lanik bikañenak, nik aditzea dedanez, "Ekin"–en argitaldutako Gizarte–auziari

buruz egiñak ziran, Soziologi–gaiekoak. Orduan, artean, gauza berri–antzekoa bait zan gizarte–jakintza ori, eta gure artean iñor gutxik ukitzen zuana. Gañerakoan, nik gipuzkeraz euskeratutako Kristau–Ikasbidea —Artzipreste jaunak ontzat emana (Pildain jaunak erderaz eratua)— Eguskitzak bizkaieratu bide izan zan".

Gabriel Manterola arratiar abade jaunak be, zerbait adierazo deusku: "Gizon jakintsu, zintzo ta langillea zan. "Jaungoiko–Zale"–ren eta Euskaltzaindiako batzarretan ezagutu neban, ni baiño zarragoa zan eta. Ostera, sarritan esaten neutsanez, gauza batzuk benetanegi artzen zituan, gizonen zerak sarri askotan "umore" apur batez artu bearrean".[2]

LANGILLEA

Ete zan ba, langillea! Alan be, J. Mateo Zabalaren lana aztertzean, don Juanek nagia deritxa bere buruari. Lekutako nagia! Ezagutu genduan bai, gu jaio baiño zortzi urte lehenago be, an gure itsaserrian egoan eta. Berbera ara eldu baiño lehentxuago, Combes–ek aizatuta, marista frantses taldea etorri zan igesi, eta antxe lotu. Ta gure abadea, eldubarri izan arren, beste lan batzuen arduraz asi baizen laster, frantses ikasten be asi zan. Asi ta ez etsi, andik gorakoan galiar aei, sermoiak be, frantses egiten eutsezan eta. Gerogarrenean, frantses bitarteko zala, Otto austriar artxidukeari gaztelania irakatsi eutsan. Aldi aretan, Azkue gurea Zita enperatrizaren konfesore zan. Belgikar abade gazte bat, Constant Verhaegen, sei illabetean euskaldundu, ta andik bere anai obispu ta Boise–Idahoko euskaldunengana joan zan.

Orduko ta urte luzeetako arazoak gure errian don Juanengan: latin irakatsialdiak egunero ta kapellautza ardurea; Luistarren zuzentzaille unada batez, geroago Mariaren Alabena; katekesis garaietan, koadju-

---

[2] Orraitik be, Oar-Artetak (J.A.) beste zertzelada batzuen artean, gertaliski au: "Mende onen asieran Lekeition, ango abadeetarik bat, don Patxi Urkiaga zan, aulestiarra bera, "Lauaxeta" zanaren osabea. Zelebre utsa zan. Beiñola, abadeak barriketan eta autuan ziarduela, gai auxe ei eben aho-miñetan: gizona zer ete dan, gizonaren izatea, eta abar. Alango baten, ba dirautse don Patxik:

—Mutilak! Gizona izan be, azken-buruan, zer ete dok, ba? Gizona... kakazarra dok!

Eta orduan Eguskitzak burlezar:

— Egundo etxoat gizonaren definiziño obarik entzun".

tore izan ezarren, negu–udaberrietan mutikoen eta neskatoen irakasle; igande ta jaietan, bazkal–ostean, neskatillentzako zan Eskola dominikaleko maixu ta buru, beste emakume batzuek lagun zituala. Sermoiak an or emen; beste era batzuetako itzaldiak be bai: oituretazkoak, gizarte–arikoak. Artikuluak idatzi, frantses–itzulpen lanak enkarguz egin, liburuak gertau, Euskaltzaindirako txostenak eratu, idazki ta liburu zaharretan itzak aukeratu eta bildu… "Jaungoiko–Zale" bazkunako lehena urte luzeetan, eta beti be, burukide.

Baiña urtearen joanean bere mutillen ardurea lehen eta behiñen ebalarik, orraitio, kurtsuaren azken–aldera, orduan bai egiten zituala zazpi ahalegiñak, ahalak eta lerrak, latin–ikasleok gert–gert jarteko, urterik galdu ez egien, orduan bizimodu premiñatsuagoaz, gurasoak be kalterik izan ez egien, azken illabeteetan jai ta aste, ordu ta ez ordu traketsenei be, irakasten, etxuran ipini beharrez. Ezagunean argaltzen zan, bost–sei killo bai. "Odola be, ur bihurtzen jat" —esaten ekian ereti aetan. Entzutea danez, Eguskitzaren ikasle gazteek ez ei eben egundo errira kalabazarik ekarri.

Lanari ta lanei lotuta, gartxua, mizkeri bagea, jan–edanen ardura barik bizi izan zan. Bazkal–orduetan sarri, afal–orduetan sarriago, etxekoek areri maira dei ta dei, matordua zala ta. Amaika bidar jatekoa barriro berotu behar!

—Osaba —ekion esaten orrelakoetan, aregaz ta izeko Marianagaz bizi zan aren loba Lurdesek—; osaba, orrenbeste jakin, eta beti bai beti liburu ta paper artean.

—Orrenbeste edo… bai, tira, zeozer ba dakigu, laztana. Ostera, beti da gehiago jakin ez dakiguna, dakiguntxua baiño. Ori argiro dakust nik.

Gazteei irakasten ziarduan bizitza osoan. Alan be, auxe esaten euskun: jakiñak jakin, eta bestek irakatsiak irakatsi, munduko bidealdian norberak eta bakotxak egin behar ebala egitekoa; aitamek liburu oso ta experientziz betea eskeiñi ahal izan arren, alperreko zala besterena guretzat be, bardin izango zala uste izatea.

Ez zan ez arro ez bere buru–erakuste zale. Apala zan, leuna, gozo ta txeratsua; ez, ostera berbatsua. Besteren bizitza gorabehetaz eta joan–etorriaz, begirunez ziarduana. Errian lotsa aundikoa. Guztien eretxia orixe zan.

Apalloa kaleko 14 gnean, bigarren oiñean bizi izan zan, eta ain zuzen be, Azkue kale orretako 20gnean jaioa genduan. Ez eban

kale–arteetan denporea emoten ibilteko ohiturarik. Alabaiña, aro ona zanetan, ta eguna ez laburra, parroku jaun ta beste abade batzuk lagun izanik, eta batzuetan mediku bat eta errikoseme abogadu bat, aldran, Antzorizera joan–etorria egin ohi eben. Ixilberaa zan; orraitio, barriketaldietan eztabaidarik sortu ta zeresanik izan, Eguskitzak jo ta keia ekiten eutsan abogaduari be, arik eta gauzak argitu arte. Gomutan dogu "Orixe"–ren esana: "Eguskitzaren logika, bildurgarri da eztabaidetan".

Puntu onen azkenburutzat, eta don Juanen jarduna Euskaltzaindian erkatzeko, esan daigun: EUSKERA aldizkarietan, 1919–36 bitartean agertu lanak, Azkuerenak, 38 lan eta lantxu ta itzaldi bi; Eguskitzarenak, 15 lan eta itzaldi bi; Altuberenak, 12 lan eta itzaldi bat; "Orixe"–renak, 8 lan. Beste euskaltzaiñenik, askozaz be urriago. Euskalegunetako semoiak Iurren, Durangon, Andoainen, Arrasaten… Azkue penaz beterik egoan, 1921 gn. Durangon Eguskitzaren semoia gramofonuz artzerik ez–ta. Ba eban lekeitiarrak, orraitio, ordurakoxe be, geroagoko magnetofonuaren susmua edo.

EGUSKITZAK EZAGUTU EBAN EUSKAL–AROA

Berberak agertu deusku, euskera idatziaren zale noiz egin zan. Artean, Seminarioan ikasle zan, eta euskal–idazle be, orduantxe zertu. Nortzuk aren irakasle? Azkue lekeitiarra, Txomin Agirre ondarrutarra, Arana abandotarra, Etxegarai giputza, Mañariko "Kirikiño", ohi dan legez, guztiok a bera baiño zaharragoak; eta a bera, ikasle zintzo ta ixil.

Garbi–kontu ori, aldi aretan, pentsamodu arrunta zan, berbeta arazoaz ziarduenen artean be. Ez daigun ahaztu, odol garbi gorabeherea be, lege zaharretan eta ordukoen gogoan bizikiro errotua zana. Gaztelar Akademiaren pentzudan ez ete ebiltzan, arako "Limpia, fija…" eta abarrez? Orraitio, gure eremuan bertan be izan zituen aintzindariak. Irureuntsu urte lehenago, Oihenart zuberotarrak ekin eutsan orri; ta purista gehienbat egokia izan ei zan. Arrezkero, Larramendi giartsuak bazterrak astindu zituan, eta garai aretan baldres eta trakeskiro ziarduen euskal–sermolariei, berbakuntza obea izan egien, erreminta barriak eskeiñi eutsezan: 1729 gnean., Euskal–gramatika eta 1745 gnean., Iztegi irukotxa. Baiña batez be, bere prosa jatorragoa.

1910gn. urtean, Erromak, "euskal–izenak" bateoan ezartea ontzat artu eban. "Jaungoiko–Zale" bazkuna sortu zan. Kristau–ikasbide barriraztuak gertu zituen eta zabaldu Bizkai–Gipuzkoetan. Orren bidez euskal–alfabetau giñan gu geu. Zorretan gaiagokoz ba, Eguskitza zanari.

Gerotxuago Euskaltzaindia be sortu zan, ta garbigiroan edo, sortu be. Azkuek, 1909 gnean. idatzita laga euskun gizon onen aztarrena, (Ikus EUSKERA XI, 1971*, 68 garren orrialdean agertu genduana Eguskitzaz), baiña Elgezabal eta Landaburu bizkaitar diputadu euskaltzaleek be, begiz jota euken. Euskaltzaiñak lautik amabira ugaltzean, don Juan be, aulkidun egin eben. Nortzuk aurkitu zituan erakunde orretan laguntzat, auzolankidetzat? Esandako Azkue ta Agirre; eta Campion, Elizalde, Olabide, Broussain, garbibidean zahar joiazanak, gehienbat. Julio Urkixo bera be, kezka bardiñez kutsatua ez ete ebillen, iñoiz irakurri izan dogunez?

Giro aretan berotu zituen euren buruak; garbigiroan.

Eta orra ba, munduko zerok! Egunak joan, egunak etorri, oraingo aldian, gazteetarikoen artean batzuek, mordoilloago ta gurago, alkar berotzen daben antzera edo. Izan be, gizonari, maiz eta sarri, ingurukoek ezarten deutsoez bai kurtzea, bai kortsea.

Orraitik be, geroagoetan, gure egunotan eta belaunaldian, europar beste erri aundi bik be, garbiketan eta lexiba joten jardun izan dabe, nabarmenkiro ganera. Ta ain zuzen be, Euskaltzaindiak mututu beharra izan ebanean. Alemanian eta Espaiñian egin gura izan dabe lexiba ori, garbialdi ori. Izkuntzea galtzeko bildurrez izan ete da, gure kasuan uste izan zan ori? Ala, orreek be, baserritarrismuak jota ibilli ete dira, erabat eziñezkoa dan autoktono–miñez?

Euskaltzaindiaren batzar batean, 1919 gn. urrian, erabagirik datza: Euskal–ortografia taxutu. Izkuntzaren bokabularioa garbitu ta osotu, euskalki guztietan erdalitzen ordez, bazterturik diran euskalitz zaharrak zutik jarteko ahaleginduaz. Euskera literarioa atonduteko lan egiteko asmoa, alde guztieetako euskaldunak alkartzebide izan egien; baiña onako au zuhur ulerturik, zera, euskalkiak ez zirala ordezkotuak ez baztertuak izango.

Auzolanean, Campionek eta Broussainek ziñoen onako au: eundaz eta millak neologismuren premiñea susmetan dogu. Itzok, griegura

---

* Ikusi liburu honetako 643. eta hurrengo orrialdeak.

joteke konpondu behar ditugu; orraitio, bestek egiña ez egiñez. Beraz, ugelak eta edeak narrutik beretik atereaz. Leizarragaz aek esana dogu, beste au: siñista eziña dala, premiña bage, arek bere liburuan ainbeste erdalitz sartu–izana.

Txomin Agirrek be, ba dakizue: esan gura doguna euskerazko itzez esan daikegunean, ez dogula erderazkorik zetan ahotan erabilli. Izkelzain barriok, EUSKERA 1920 gn. zenbakian, "Itzberrika" sailla agertu eben, 202 berba sorparri edo, bertan. Ba ete dakizue zenbat, Eguskitzak eratuak? Sei–zazpi bakarrik. Gurago eban itz zaharrak erabilli.

Garbigiro arek, barriz, ez dau amaikorik. Arrezkero be, Azkuek bere Morfologia morroskoan, anaforikozaleak aurretik darabiltz, gurean ditugun –n eta –la atzizki alkargarriek, zeregin ori egoki bete daroela ta. "Los panvasquistas del siglo XVIII vieron vascuence hasta en esta degeneración de interrogativos románicos y se empeñaron en dar por locuciones vascas "gizona, zeinekin ni etorri naizen; etxe ori, non gu egon ginan…" (367 orr.)

Eta Altube zuhur ta erdibiderazaleak berak, andik geroetara be, (ikus EUSKERA I, 1956, 10 orr.) onako au dirausku: "Axular, por ejemplo, que hace un empleo abusivo (hay que reconocerlo) de los pronombres y adverbios anafóricos, se sirve de ellos también en casos suficientemente justificados por el deseo de procurar una clara expresión de sus ideas".

Bestalde, Bilboko "Euskeltzale–Bazkuna"koek be, berobero ziarduen garai aretan, lexibagiñen eta abarrean, geroago adierazoko dogunez. Azkuek eta Altubek 1932–33 urteetan, eztabaida zittaltxua izan eben iztegian sartzeko gai ziren berbak, duintasunez jantzi ez jantzi.

Añibarrok esana be, M. Zaratek gomuterazo deusku, ohar txiker bezela: "Asi Axular como el P. Cardaveraz ponen el verbo al último de la oración, a no venir con relativo, y será bien se haga así, pues sale más natural. Esta falta me dijo que cometió el inmortal D. Juan Antonio de Moguel".

Bidasoaz beste aldeko gure anaien ustea be, ezagutu daigun, aetariko biren esanaz. Sarrera itzaldia, 1931 gn. urtean, Jean Elissalde euskaltzaiñak ziñoan: "Herri guzietan, Jainkoari esker, norbeit atxeman ditake oraino Eskuararen alde zerbeit egin nahi duenik! Oi, eskualdun guziek hori egin balezate, zoin garbi eta eder egon litaken kanpotik ethorri hitzek emeki emeki ithotzen ari daukuten gure eskuara maitea". (EUSKERA 1931, I, 71 orr.)

Joan den illean, 1975 urrian, beste euskaltzain barri batek adierazoa; Emile Larre dozue aipaturiko au: "Ez dela euskara batu onik eginen, euskara ongi jakin bage. Euskara batuak… euskara behar du izan, eta ez latin edo frantses edo gaztelania, euskal–jantzitan emana. Gure mintzaira euskara izan dadila…" "… biderdian ibiliz, bidearen bi bazterretan anaiok elkar galdu gabe. Euskara on, *garbia erabiliz*, eta euskara batu batentzat lanean ariz". (Zko. Argia, 567, 1975–X–12)

JARDUNBIDEAZ

Giro orretan arlora zan Eguskitza, eta giroak alantxe iraun be. Uste dogunez, sermogintzaz asi zanean, itzaldiok aurretiaz idazteko ohiturea eban. Eta orduan egin zan letrazale be. Lehenbizikoan, itzulpenak eta. Orrelan taxutu eban "Arimaen illa", besteran arnasaz baiña bere euskal–ibilpidez. Kristau–doktriña textuak be, erabarrituaz, bizkaieratu zituan. Orobat, "Argi Donea", gipuzkeratik gurera, 1932 urteko udako oporraldian asi ta amaitu[3]

Bitartean, prosa gozo ta irakurgarri guztizkoan, bere gogara. "Loretako illa" eratu eban, Andra Mariren birtuteei lotua.

Jarri daigun argiro zer auxe; arean bere, berberak esan euskunez, ez eban arek literatura uts eta letra ederretan solik jarduteko joera berezirik. Juan Mateoren lana maxiatzean agiri jarri euskun: "Batzuk orretarako ain zuzen (literatura atsegiñerako), berarizko antze ta jas eta trebetasuna dauke, erleak eztiaren atzetik lez, irakurle naiz entzuleen gogo–biotzak izkera garbi, gozo, leun eta apañaren bidez eratorri, ekarri ta atsegin manatan euki daroez. A, nik be, ori egin al ba'neu…! Baña atarako berarizko antze ta jasik ez daukanak…".

Apalkiro diño, beraz, sortzaille ez dana. Baiña kritiku zorrotz samarra bai. Zabalazko lan orretan, eta arrezkero, Lizarraga Elkanokoarena aztertzean, begien bistako dogu ori. Eguskitzak, bilbota-

---

[3] Zintzoa ta berbakoa zala lemoarra, jakiña dogu. Zehatza benetan. Bizkaieralpen ori egin ebanean, abade lagun batek, gehitutea gura izan eban, jaiera bat edo besteren textua be, liburu orretan ezarriaz. Ezetz biribilla jaurti eutsan Eguskitzak. "Orrelan, ez litzateke "Argi donea" izango" –erantzun eutsan. Doi doia gura eban, egillearen lana lotsa osoz jagonik. (J.A. Oar-Artetak azaldu deusku zertzelada au).

rraren ipuiñetan billatu bai, baiña ez eban, tamalez, gatz gitxitxu besterik aurkitu. Elkanokoaren elederra zertzean, ziñoan: "Lizarragak tarteka marteka neurtitz sail aundiak idatzi zituan. Ahapaldi batzuek poliki egiñak daude, belarrientzat aski atsegiñak dira... Orraitik be, benetako olerkariak bear dituan gogai eregi, irudi eder ta biozketa samurrak maizegi uts–egiten diote; augaitik, Lizarraga bertsolari, neurtizlari bai, baña olerkari izan zanik, ez dut uste" (Euskalegunetako itzaldiak, II, Doneztebekoan, 1923 gn. urtean). Lexikoari dagokiola auxe ugaltzen: erderatiko itz arrotzak ere, maizegi darabilzkiala. "Baña ori egin izan zuan bakoitzean, itz berririk ez asmatzearren egin balu, ni ortaz gaizkirik ez nuke erranen; ordea, euskalitz jatorrak utzi ta batere beharrizanik gabe erderatikoak sartzeari, ez derizkiot bidezko ta onuragarri".

Kapanagaren eta Mikoletaren lanak be, aztertu zituan. Don Juanen lanen iru zerrenda, azkenaldean agertzen ditugu; laburrean, elizlanak 11, euskerari buruzkoak, 26 eta beste batzutarikoak, 3. Bestalde, arek idatzi sermoiak, 250/300 inguru ei dira. Guzti oneek argitaretzeke.

Eztabaidetan, Azkueri aitzi sarritan jardun izan eban. Aditz faktitivo diralakoetaz izan zan behin batean, eta orduan, bitarteko, ta Eguskitzaren kontra sartu zan G. Bähr aleman euskaltzalea. Sakonago ta ugaritsuago erantzun eutsan bigarren jardunean. Eztabai luzeagoa, ta azkena, dakigunez, "Euzkerea" aldizkarian, "Nabarriztarra" urduriak egiñiko artikulu bateri erantzunaz asi, ta gero beste batzuetan jarraitua. Aldizkari orretako banakoetan 1933 urtean lan bat, 1934 gn. beste bi eta 1935 gn. azkena, aurkitu leiz irakurle jakingureak. Gaztelaniaz izan zan eztabai ori. Zabala–Aranak ("Nabarriztarra") bere maixu ta kide zan "Mibisus" elantxobetarraren arnasara, erreforma edo dana dalakoa taxutu gura izan eban. Iragankor aditzetan, joan formetan, irugarrenean, bizkaieran behintzat izenordearen utsa egoala ta. Utsune ori betetea, gauzeak dakarrena zala. Ta betegarri zer? eta beste nunbaiten diarduan irugarreneko "1", ahalmen, uste ta baldintzakoetan agertzen dan elementu ori ezarriaz izan zeitekeala. Gure "Lemoarra" orren kontra jagi zan. Erreforma ta barrikeriok kaltegarri zirala, premiña bagakoak; eta ganera, euskerearen batasunerantza igitu ordez, zatituagotera daroaken jokera zirtzilla besterik ez zala, erantzun eutsan: leba, leugun, leuzun, leudan... eta abar ziran ume jaioparriok. Orrelakorik egundo entzun be

ez da egin gure eremuan, gehituko deutsa Eguskitzak. Gizon azkarrak jardun izan dabe arlo orrezaz, ta ez Campionek, ez Eleizaldek, ez Arana–Goirik, eta ezta aleman izkeralari argientzakoenak be, ez eben "1" ori, pairagarri soiltzat etsi. "Schuchardt, considerado por muchos como filólogo cumbre de estos últimos tiempos y vascólogo de primera fila —dirautsa "Lemoarrak"—, examinó exprofeso este punto del prefijo "1" de las terceras personas, agentes de la acción verbal. Para defender su teoría de la concepción pasiva del transitivo vasco, tropezó con graves dificultades en la conjugación remota, según confiesa él mismo. Salió de ellas como pudo; pero nunca se le ocurrió decir que esos prefijos son pacientes, aunque ello le hubiera venido como anillo al dedo".

Ta ganeratzen deutsa: "Ez daigun esan ba, "Mibisus" maixua ta Urrutia ta Zabala–Arana ikasleak, irurok sukalde batekoak, lince dalakoa aiña zoli dirala, ta beste enparauak, sator itsukiak edo. Orretarako, "Nabarriztarra" adiskidea, ez dago eskubiderik. Errespetu aundia deutsat "Mibisus"–i, baiña utseziña danik ezin lei, ez arek ez bestek, siñistu".

"Euskera idatziaren batasunaz" deritxan lana egin eban Euskaltzaindiarako, lan mamintsua, aren kide batzuk zertu ebenez. (Ikus EUSKERA 1922, III, 10 gn., 114–122 orr.).

Erdiko euskalki–aditzaren alderantz makurtzen zan. "Euskera–batasun egiñen ontan —ziñoan Doneztebeko itzaldi aretan— astiro, emeki emeki ibilli bear gerala diote. Nik ere, orrela uste dut: baña astiro naiz bizkor, naiz emeki naiz oldarrez ibili, elkarrenganatzeko bide ori gaurdanik kemen eta adore aundiz artu bear genuke".

Oraintsuko urteotan azaldu diran gaien artean, itzen formaz, itz barriez ta joskeraz agerturikoaz, Eguskitzaren lanak jasean eta lerroan legokez, gehienbat. Matiz–kontu auxe soillik, aurki: oraingo izkeralarien eretxiz, nahiago ditugula bizi–bizirik dirauen berbak, zaharkiturik eta liburuetan datzazenak baiño. Arean, gehiago erabilten diran berbak eta zabalago edatuak dagozanak, euskalki bakotxean eta alkarrekiko; ta garbitasunari behatu arren, aberastasunari be, zain egon behar gaiakozala.

Bestalde, itz lauari dagokonez, jatorra, behar bezelako prosa, ur garbiaren iduriko daitekeala. Prosa argia, ulerterreza ez ete zan Eguskitzarena, gero ta areago? Gurean ez zan gaia ekarri eban arlora, gizarte–eztabai ta asmoen agerpen eta burrukak. Izatez, periodista taxuko

lanak, artikulu laburrak izan ziran, asteroko aretan agertuak. Gero, barriz, ez aren gogara iñoren esanari amore–emotearren baiño, liburu eran osotuak. Itzaurrekoan dirausku. Langille ta erri arruntarentzat egiñak, baserritarrentzat bereziki, behar bada, artikulo motzok.

Prosa ariña ta erreza da orkoa, gero ta errikoiago; esaldi labur samarrak eta erdalitzak be, iñoiz baiño ugariago. Orrelakoxea izan zeitekean arrezkero aren idaztemodua, jazo zana jazo izan ez balitz. Gerrateak euskal–literaturan egin euskun urratualdi negargarria, besteak beste.

Emakume bizitzaz be, lan politak, biribildu zituan, eta arean, orretariko batek "Kirikiño Saria"–ren jabe egin eban 1930 gn. urtean. Arrezkero, "Yakintza" aldizkarian agertu eben artikulu ori, "Emakume euskotarra".

Baiña bego argi onako au. Irakasle zan, literaturagille baiño be; sermolari ta izlari, ta ez idazle eder–itxurako izan gurakoa. Ikastea nekagarri baldin bada, gogoan izan aren lanak, textuak, didaktika arlokoak dirala, batipat. Eta ikaste–lanak, ez dira arrapaladan irakurteko, zatika eta atalka baiño. Umetan eta gaztetan euskeraz jardun ez dauanak, nekea aurkitu lei aren prosaz, norbere erdal–pentsamoldea sintaxis euskaldunaz musturka aurkituko dau ta.

Eta itzaldiak eurak, ez zituan arek bestek irakurteko egin, berberak esateko bai ostera. Belarri onekoa zan eta ahots ederrekoa. Orregaitik, asmoz ta jardukeraz, entzun egin behar jakon, berberari entzun. Irakurtea neke daiteke; entzutea ba dakigu atsegin zana. Doiñutasun bereziak ezarten eutsazan itzaldiari; saillean barruna, soiñuketa ta mintzura ezbardiñak eta volumen aldakorra. Asieran isil samar, bigun; urrena sendo baiña gozo; jarraipenean kementsu, gora ta beherako mintzuretan; guenez, sarri askotan, esaldia oldartsu ta ozen burututeko. Musikatasun orrek entzuleak eztitan jarten zituan, ernagarria bait zan aren etorria ta esan argia, berezkoa, euskalduna. Itsasontzia ur–azalean olatuei maitez deutsala, dzauan dzauan ari dan bezela, batean garai, urrena sakon, musikadun esanen zanbuluei gozaro atxikiak jarten zituan entzule gogatsuak.

Frase luze ala labur, saillean, errezto, trabarik bage asi ta amaitu. Ez ekian arek, orduan eta gaur dan egunean nabarmenago, batzuek darabillen ezpan–arteko esturarik eta totel–motelik; makulu bitartez mintzamodu aspergarri ta berbartuan diarduenen antzik, ez eban, ez, Eguskitzak.

Aditz–sintetiku–zale ba zan, baiña urri erabilli ohi eban, eta formarik arruntenak, gehienbat. Anaforikurik ez eban astindu. Berbetan ez eban behar izan; idazte–orduan, buruak emon be ez. Ohitura kontua da. Usaten ez dauanak, premiñarik be ez. Geurez be, ba dakigu ori.

Radikalizatua ete zan don Juan? Orrelan balitz, 80 urte lehenago modan egona dogu, orrezkero; ajornamentuz. Kontamiñaziño bilduria jo ez gaitu ba orain, orko, ango ta emengo? Lehen orduko euskaltzaiñak, orren kontrako kezkaz egozan eta jardunean, bide garbizalea ta garbitzaillea artu eben.

Orain, zer bat dogu uka eziña; zera, bai orduan, bai gaur, gure berbakuntza au itz ugariren premiña gorrian dogula. Bestengandik beretuko ditu batzuk, asko behar bada; beretik be, orraitio, bere narrutik be, ugelak eta edeak atera leiz. Ta premiñea ez dogu itzena, soillik. Aurrizkirik urri dogu. Atzizkiak eurrezago; alan be, ostera, beste batzuen eskariz daukagu izkuntzea. Gure "Lemoarrak" sozialismu ordezko berbea "gizartekeria" eratu ebanean, premiña eban sufijo egokia, doi doia, euskeraren barrutian aurkitu ez ebalako ez ete zan, nahiz eta arek, beste errezoimodurik azaldu lan orretan? Baietz uste dogu.

Lana, nekea da; aringarri, kirola. Esanak esan, Eguskitzaren lanak irakurterakoan ez da trabarik, ez da geldialdirik, ez da zetan esti–egin. Joan goakez, ura joanean libre doan antzean. Lerroa amaitzerakoan, jeurt–egin eta ekin urrengo lerroari, idi bakarrak ala buztarriak ildoak ildo egin ohi dituen taxura.

Euskal–moduz baliaurik, izenak eta biñaka jarten ditu sarri; izenondoak be, pareka ala irunaka; eta aditzak be, bat, bi, iru, alkargarriaz buztarturik erabilten zituan. Berbarako; erro ta sustrai, orpo ta eusle; sendo ta indartsu, illun eta ezaiña; edota aditzetan, ase ta bete, erne ta agertu, iratsi ta josi, eta abar, euskaldun arruntaren ibilliz. Zegaitiko barriren bat orrelan jarduteko? Bai ba; ibilkera jatorra izanaz ganera, aren ustez, antziñeko euskal–idazleek gura ebena ta behar ebena adierazoteko egiten eben soillik. Ori ta geiago egitea ez ete dagokio oraingo idazle pizkunde–garaikoari, irakurleei izkeraren ugaritasuna, edertasuna, sendotasuna ta aberastasuna erakusteko? Bai bein! Guk orixe be, egin egin behar genduke, esaten ekian.

Abadeak euskereari kalte egin deutsoela iñoiz esan izan dala ta, puntu orrezaz Donezteben ziñoan: "Baña gure aurretiko idazlerik

bikañenak Axular ta Mendiburu, Gerriko ta Agirre, Añibarro ta Mogel, apezak ez al ziran? Bai, noski. Eta gure izkuntza zâr ontan oyen idaztiak baño ederragorik, nork egin du? Guk dakigunez, iñork ere ez. Au oroituz, erraten nuan: euskararen galtzea apezen obena, nola izan daiteke?".

Eta aren garaikoak, zer diñoe Eguskitzaz? Aita Errandonea jesulaguna, Loiolan latin eta griegu irakasle ospatsu zanak, euskerari buruz ez eban eretxi onik, arik–eta 1925 gn. urtean Azpeitin, Etxegarairi ta Eguskitzari euskerazko itzaldiak entzun arte. Arrezkero, aren ikasleek beste gizon bat susmau eben aregan, euskaltzale bihurtu baitzan. "Urrengo bederatziurren ospatsuan, Loiolan, punterengo izlarien tartean, Eguskitzak sermoe gogangarria egin omen zuan, jesuitak beharri ta aho zabal egozalarik". (J. Zaitegiren testigantza).

"Orixe"–k 1927 gn, idatzia, gure literaturaren historiaz ari zalarik: "Eguskitza aundia... Gai zailletan eta argi, euskaraz au baiño obeki mintzatu danik, ez dakit ote dan Euskalerrian".

M. Lekuonak esana: "prosa oparoa, itz ondo neurtua, joskera jatorra —bizkaieraz gutxitxok bezelakoa— andikeri puztu ta anpaturik gabea; dana adi errez...".

Aita Intzak, lehen orduko euskaltzain oraindio bizirik dogun bakarraren lumak ezarrian: "Eguskitza... Ona gizon sendoa, soñez, buruz, euskalgaietan. Noizbeinka lantxo politak eramaten zizkigun, guzion jakingarri. Euskaltzaindiaren jaietan, berau giñun eliz–izlari argi ta mamitsua. Azkue ta Eguskitza jaunekin batera, Altubek ematen zizkigun xeetasunik aundienak".

Altuberen esaera bat, ona: "Eguskitzak, bere betiko begi zorrotzaz... Zurekin nago, lagun".

Literatura gureak gorantza ta aurrerantza egitea gura dogu guztiok, entzule, irakurle ta idazle gehiago, ugariago izan daigun. Irakurleak ugaltzeko, noraezekoa da argi idaztea. Lizardi zanak be, zertu eban eztabaida au, argi–illun kontu orrezaz.

Eta barriro be, gero ta illunago ez ete diardugu? Didaktika lanak eta saioak, berez dira saillak. Baiña nobelak eurak be, aspaldion, illun eta nekagarri ez ete ditugu? Asmoak zorrotzak izan arren be, izkera ta ibilpideak errez, argi, ulerkoi behar leuke. Irakurleak kexu izaten jakuz, guztia ulertzen ez dabela ta.

Puntu onen amaitzat, L. Mitxelenaren iru esaldi: "... Bai baitirudi zenbait aldiz, luzaroan ohean egoteak aspertu duen eria bezala, ez

dugula, euskaraz ari garela, egoera lasairik aurkitzen. Lehen, esaldi luzeetan barrena zalantzarik gabe murgiltzen ziren euskal–idazleek ez zuten horrelako kezkarik. Orain berriz, bide berrien bila eta labur–beharrez ari garenok, errenka gabiltz sarritan, oinetako hestuegiek min ematen baligute bezala ("Lan hautatuak", 274 orr.).

AZKEN–ORDUKOA

"Euskaltzaleak" zeritxanak, 1936 gn. urteko uda–asieran, Lekeition, Azkue aita–semeen omen eta goratzarrez, VII Euskal–Olerti Eguna eratu eban. Bezperan, bagillaren 27, zapatuan, udaletxean, arratsalde lehenean, neska–mutikoen sariketa izan genduan, euskeraz irakurte ta idazte saio laburrak egin ostean. Epaikari buru, Eguskitza jauna, ta onen eskuman, "Orixe", ta ezkerraldean, neure burua. Gabean, oiartzuarrek, Lekuona anaien "Eun dukat" antzeztu eben "Gora–Buru" aretoan.

Illaren 28 gn. Euskaltzaindikoak eta eundaz euskaltzale batu zan errian. Oneen artean, jakiña, "Euskaltzaleak" aretako lendakari zan Montzon Olaso jauna ta J. Ariztimuño "Aitzol", idazkari nagusia.

Kurtsoa amaitu da, ta Eguskitza, bestetan legez, Lemoara doa. Arik laster, etxagerratea sortu zan. Udazkenean, barriro agertu zan gure itsasertzera Eguskitza, ta an iraun. Urrengo udabarrian, 1937 gn., gerrate–lurraldea eta gudaoiñak, aldatu egin ziran, eskuz aldatu. Eta Lekeition, guk orrelakorik uste ezarren, arerioen bat edo beste izan eban nunbait, eta etxea kartzela zala bertatik jarri eben.

Egoera orretan, erriko norbaiti idatzi eutsan, aren loba Lurdesek autortu deuskunez. Kartea itxia zan eta, ez dakigu erantzuna zelakoa izan zan. Bai ostera, don Juanen berba mingotsok:

—Zertan gabiz ba, beti elizan sartuta, estura ordua danean alkarri lagun ez egiteko?

Asieran, giro–billa ibillia genduan gure Eguskitza zintzoa. Azken aldera be, giro zazkar eta latzak zirauan arentzat. Bai, euskaldungoa dan pekatu larria euskalsemearentzat berbere aberrian!

Andik zortzi bat egunera, Arabako Villanañen dan Angosto komentura daroe. Ta geroago, Begoñako Karmelora erakarriko. Urrialdera, Auzitegira jatsierazo, epaikarien aurrera, Bilboko Maria Muñoz kalera.

Ogetamairu urtean egon zan errikoek salatu eben, norbaitek behintzat, bai. Zer ete diñoe orain epaikariok?

—Politikan jardun ete dozu?

—Egungo bere ez.

—Zein euskal–ekintzatan ibilli zara, ba?

—Euskal–kultura ta izkera–arloetan lan egin dot; jakiña, elizgizon neure lanaz ganera.

—Eusko–Ikaskuntza dalako orretakoa ez ete ziñan?

—Bai, jauna.

—Bazkune orretako buru, nor zan.

—Deduzko buru, errege Alfontso XIII gna.

—Zer deritxazu "horda" orreen lanbideari?

—"Hordak" diralakoen lanbideari? Basatikeria deritxat.

Eta… epaikariek aske laga dabe. Obispautzan ziarduan Lautzirika jaunak, Bizkaitik aldegitea komeni izango jakola edo, ziri egin deutsa. Eguskitzak, ezetz biribilla jaurti eutsan. Lemoan jaioa, Lemoan ilgo —darantzutso.

Kalte ikaragarria egin jakon orduan gure abadeari, kalte morala. Zer neurri dau, zer mailla kalte barruko orrek? Zelan ordaindu ete leiteke? Kalte moralari ondo egite morala dagokio, eta neurri antzekoan, bederik.

Bitartean, Lekeitioko etxea errekisau egin eutsoen, eta liburu eta ostantzekoak be, lauskitu eta kendu be bai. Ilburukoan, liburuak Lemoako elizearentzat izten ditu batzuk, eta besteak Obispaduarentzat.

1939 gn. urteko uztaillean azkenengo ikusi genduan Lemoan don Juan gurea. Makal, argal, begiak sakon, iduna mehe, ahotsa larri, baiña gogoa gertu, itzak gozo ta maitakor. Ez genduan uste izan azken asteak izango zituanik, orduko aek. Bihotza, guztia beharrean eukan.

Birtutez bete urren eban bere bizitza–neurria: eskutuzko arantzaz, samiñezko loraz, betiro zintzo ta zuhurkiro jardunaz. "Eguskitzaren nagusi bakarra, Jaungoikoa zan —dirausku aren ikasle Txomin jaunak. Aren aurrean egiten ebazan gauza guztiak. Bestela, ezin leiteke aurkitu orrelako zuzentasunik eta zeregin guztiak ain ondo egiteko zaletasunik.

Erbesteratua egoan abade lagun bati dirautsa: "San Paulok Timoteori esanaz diardut… egite onez, aberastuten: altxor ona gerorako batzen, bizitzea irabaztearren…". Talleres 6 gn., Lemoan, emen utzi eban mundu zazkar ta gorrotoz kutsatu au, aren arima eder eta santutasunez beteak, 1939 gnko. abuztuaren 12 gn.

Orduan, artega, ezpanak dardar eta zizpuruka, Azkue sendoak oiu egin eban: "Gizon aundi bat il da. Eguskitza il da".

Ta amaieratzat, "Loretako illean" dakarren esan au barridatzi gura dogu: "Itsasotik urtendako urak, barriro itsasoratzen diran legez, ni be, egin ninduan Jainkoagana itzuli ta joango naz. Jaunarena naz, Jaunarentzat nago, Jaunaren zorionera sartu naiteke".

EGUSKITZAREN LANEN ZERRENDAK

I
EUSKERA ONETAN AGERTURIKOAK:

Euskaltzain ala euskaltzain. I (1920), II z., 19-28.

Irugarren txostena, I (1920), II z., 28-31.

Euskalki ala euskalgi? I (1920), II z., 38-44.

-Kari atzizkia, I (1920) II z., 66-73 (Eta –gai, -kai, -kizun...).

Euskera idatziaren batasuna, III (1922), I z., 114-122.

Zabalak idatzitako adizpiakera batzuetaz zerbait, III (1922), II z., 30.

"Bai" ta "ez" aditz-aurrean, III (1922), III z., 55-63.

"Bai" ta "ez" aditz-aurrean (Azkue jaunari erantzuna) III (1922), IV z., 38-48.

Bizkaiko euskeraren eta batez be, bere adizpiakeraren aldakuntzak.

(Kapanagaren liburutik, agiri danez) VI (1925), II-III z., 136-147.

Conjugación familiar o dialogada? VI (1925), IV z., 3-15.

Karmelo Etxegarai'ri Euskaltzaindian sartu zanean irakurritako itzaldia (Gaia: euskeraren bizitzaz, nondik etorri ote zaion euskerari gaurko bere auleria, t.a.) VII (1926), I, 26-37.

Arrasateko Euskalegunean Eguskitza euskaltzaiñak egindako itzaldia, IX (1928), 24-34.

El sufijo –garri. IX (1930), 262-266.

Los sufijos bel, pel; bil, pil, mil. (1930), 218-220.

Verbos compuestos, factitivos o causales: ¿ Cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo? XI (1930), 213-217.

Observaciones a algunos puntos de la Morfología Vasca del señor Azkue, XII (1931), 62-67.

Verbos compuestos, factitivos o causales: ¿cuál es en ellos el verdadero elemento factitivo? (1934), 246-257.

II
EUSKERA ALDIZKARI ONETATIK LANDA, EUSKERARI BURUZKOAK

Conjugación remota del transitivo vasco. Revista EUZKEREA, Bilbao. (1933, II, 485/489; 1934, III, 156/163 eta 236/243; 1935, III, 563/569).

De euzkeralogía: gizaiti o gizatzakunde.

Itz bikoitzak darakuskuezan euskal-izpiakeraren arau batzuk. RIEV 1924, 592/598.

Mikoletaren euskereak eta gaur Bizkaian darabilguzanak, ze alde ete dauke? RIEV 1930, XXI, 468/477.

¿La voz Euzkadi es neológica? Euskal-Esnalea 1918, VIII, 1.

Zabala Aba ta euskerazko bere lanak. (Durangon, Lenengo Euskalegunetako itzaldia, 1921, iraillean egiña, 1922 argitaldua).

Doneztebeko Euskalegunetako itzaldia, Joakin Lizarragari buruz.

III
ELEIZAKO LANAK

Garbitokiko arimaen illa (Sarda y Salvany jaunak erderaz idatzi ebanetik, Eguskitza abadeak euskeraldua). Bilbao, Grijelmo 1915, "Jaungoiko-Zale"-ren idaztiak.

Andra Mariaren loretako illa, 1919. Zornotzan, "Jaungoiko-Zale"-ren idatziak.

Cristoren dotriñaco icasquizunic biarrenac ipini ditu euskeraz... abadiak, gure Jauna artu baño len icasi daguiezan eusqueldun umechuac. Bilbao, Verdes Achirica, 1911.

Mexikotar katolikoen alde, Loyolan batu ziran Luistarrai apaiz jaun Eguskitza euskaltzaiñak egindako itzaldia, 1928 (IV-22an. Donostia, 1928).

Durangoko Euskalegunetako sermoia, 1921 irallaren 8an.

"Argi Donea" Baltzolarena, 1932 udan bizkaieratu, 1933 argitaldu. Kristau-Ikasbidea, M. Lekuonak gipuzkeraz jarria, bizkaieratu.

Bost abesti labur, Andra Mariari. "Loretako illean" dagoz, musika ta guzti. Letrak, Eguskitzarenak dira. Doiñugille, Valdes Goikoetxea Alex eta Julio; eta Aita Donosti. Begoñako Karmelon atxillo egoanean egin eban beste neurtitz bat; Aita Linori eskerrak ez zan aldendu lantxu au.

Andoaingo Euskal-jaietan eleiz-itzaldia, 1929-IX-22. "Euskal-Esnalea" 1930. J-Zalek, 19 orr.

Euskaldunei euskeraz Iurreko eleizan... Bilbao, Grijelmo, 1915.

Oratio inaguralis in Seminario Conciliari Victoriensi. Cursus 1903-4. Victoriae: Impr. Pujol 1903, 32. orr.

IV
BESTE LAN BATZU

Emakume-bizitzaz, "Euzkadi" egunerokoan artikuluak. Orretariko batek "Kirikiño Saria, 1930" emon eutsan.

Gizarte-auzia, 1935, liburu taxuan, "Ekin"-en agertu lanen bilduma.

Erri-ohituretazkoa: Kaxarrankaren gorabeherak eta Auriako jaia. Itzaldia, Donostian, 1927 gn. urtean. RIEV 1927, XVIII, 422/26.

R. Mª AZKUEREN INGURUKO GORABEHERATXUAK*

Azkue gorputzez

Beste ezer baino lehenago, berridatzi dagidan 1964 urteko irailaren 7–an, Donostiako Udaletxe zaharrean R.M. Azkueri buruz egin neban itzaldian, gure abadearen gizon itxureaz esan nebana. Zelakoa zan.

Gizon ederra zan, luze bai zabal. Azal zurizta, begi argiak. Biziki lerdena ta handia gaztezaroan eta garerdikoan, eta lehen tantai eta luzea bezin makur eta kakutua zahartzaroan. Arpegi biribilla, masaila txuri–gorriak. Ederra gizona!

Ez zan inoiz be gaixorik egon. Behin saihets hazurra hausi jakon eta beste behin eskuturra zantiratu. Bera izan ei zan bere buruaren mediku. Hemen, moilan bizi izan zan guztian, etxetik plazara eta plazatik etxera, moila ertzetik joan bear izaten eban beti, kosterrez doian ontziaren antzera. Bilbon bardin, ibai–ondoan zehar, ertzerago ezinean. Eta horrelantxe, gaixorik inoiz egon bakoa, 1951 urteko urrian, gau lehenean Euskaltzaindiatik etxerantz joiala, Arriaga teatruaren alboan ibaira jausi, hango ur zikinak iruntsi eta handik aste batzuetara beherazkoaz, disenteriaz hil jakun, 87 urte lanez beteak gure Herriari eskeini ondoren.

Azkue, barru–izakeraz

Bere laguntzar Txomin Agirre hil zanean, bien barruko erretratuak egin euskuzan Azkue gureak. 1920 gn. urtean hauxe inoan: "Odol–gorri izateak ba ditu odol–zurbillak eztauzkan alde bat edo bestetxo: alderantziak geiago. Odol–gorri geranok, lanean asteko, zainetan darabilgu bizkortasuna; odol–zurbillak geienak ezkor izan oi dira. Odol–gorri geranok, iraunkorrago izan oi gera geron asmoetan, lanetan sendoago; baiña gizartean bizi izateko, alde andia daukate arpegi–txuri, aiurri bigundun gizonak."

---

* *Sustraia*, 49, 1984.

Seniderik hurkoenak

Azkuetarrok hamabost neba–arreba izan, eta ondorengorik laga ez. Resurreccion guztiz umezalea zan, eta hurkoagorik izan ez ebalako, bere lehengusu Juan Azkue arrankudiagarraren zortzi seme–alabekin hartuemon handia izan eban eta lobatzat eukazan. Berak ezkondu zituan guztiak. Lobarik gaztena Ramon Azkue izan zan. Francoren aginduz 1937 g. urtean Santoñan afusila ebena, Euzko Gudarosteko buru nagusi izan zalako. Honen lobea Fede Zabala Azkue urtero etorten da hona udan. Orain 25 urte inguru gure uriko sekretario egon zan pare bat urtean. Legegizona da, eta orain ibilpidez txarto dagoana.

Harroa ete zan, baina samurra, behintzat!

Gizon harro eta gogorra zala esaten dabezan eretxiak gorabehera, Azkue gurea ume haundia zan. Maila goreneko jakintsu honek hauxe idatzi dau: "*... en realidad, los trabajos eruditos de Azkue son humanos, y hasta demasiado humanos, y en ellos dio salida a su vena de artista en una medida que no es frecuente en obras de ese género, cuyos autores suelen más bien tratar de ocultar sus preferencias íntimas bajo una máscara impersonal.*" (Koldo Mitxelena). Jarri dagigun euskeraz: Izatez, Azkueren jakintza lanak gizontsuak dira, lar gizontsuak, horrelako lanetan ohi ez dan heinean, egileek, izan be, euren barruko joerak nortasun bage antzeko mozorroz estaltzen dituelako.

Lekeition 1936 gn. urteko omenean negarrez

1936 gn. urteko Ekainaren 27–an eta 28–an Lekeition VII Olerti Eguna ospatu genduan, Azkue aita–semeen omenez "Euskaltzaleak" alkarteak eratua. Alkarteko lehendakari Teles Monzon eta idazkari Jose Ariztimuño "Aitzol" ziran. "Aitzol" be, urte berean Francoren aginduz afusila eben Gipuzkoan. Hilaren 27–an iluntzean "Gora–Buru"–n jaia egin genduan. Oiartzungoek "Eun dukat" antzeztu eben, eta "Aitzol" abadeak, su ta gar jarri eban han egoan jente guztia. "Gure aberriak duen gizonik handienetarikoari lehenbiziko omena egiten diogu. Nork esan du Azkue abertzalea ez dala? Zer da abertzale izatea, aberriaren alde bizitza osoko lan izugarria eskeintzea baizik?"

Azkue gurea han egoan negar eta negar. Handik hiru astera gerraterik zitalena sortu eben eta gure Herriaren pizkundeak lorrin ikaragarria jasan behar izan eban.

Biharamonean, 28–an, domekan, meza nagusia izan zan eleizan, gero bertsolariak plazan, eta udaletxean bazkaria. Euskalerri osotik hainbat gizon jakintsu heldu zan gure herrira. Arratsaldean, Goiko kalean, haren aita Eusebio Maria jaio zan etxean, nik neuk berba batzuk egin ondoren, horman harlandu dotorea jarri eban "Euskaltzaleak" alkarteak (harri hori be, geroago lorrindu egin eben euskalkukuek), eta jarraian Monzonek hitzaldia egin ebanean eta bere amaren berbak eta abar azaldau ebazanean barriro be Azkue, kale erdian bertan, negarrez ikusi genduan, zotinka.

Bai. Gazte urtetsua izan zan. Eta gizon jakintsua baizen ume handia izan genduan. Ahal ebanean, edonori mesede egiteko gertu egon ohi zana eta hainbat laguneri ogipidea be lortu eutsana. Esku zabala eta emonkorra, ia beti "putxik" ibilten zana. Berak esana da: "nire finantzak zero ertzean dabiz edonoiz, negu gorriko egunik hotzenetan termometrua lez".

Aita Intzaren berbak

Burueretan berekoia zana be, entzun dogu. Halan be, Euskaltzaindian sarri amore emoten ekian. Lehen orduko euskaltzain osoetarik bizirik dirauan bakarrak, aita Intzak, nafarrak, hauxe inoan: "R.M. Azkue jauna… buru andiko gizona buruaren tamaiñez, baiño aundiagokoa bere adimenez eta gogoz. Ain jakintsua izan arren, apala ta gozoa zan gurekin beti, eta ni bezalako ez jakinari, or bildutako deus–ez bat batzarrera bazekarren, begitarte ta xalotasun pizgarriz artzen zion."

Pedrellen esatez, musiko ona

Musika arloan, Pedrell entzutetsuak estimu handian eukazan Azkueren lanak. Ba dakigu aita Otañogaz, eta lekeitiar musikari Buena Zapirainegaz ("Txanton Piperri" eta "Anbotoko Damea"–ren egileagaz) izan ohi ebazan barriketa eta eztabaida adiskidetsuak, eta gure Resuk bere eretxiak goiskoan jarten ebazalako, inoiz, zirikari, "altos hornos" esan eutsoela.

Lagungina? Laguntzailea bai gero!

Lagungiña ez zala be, gehitu ohi dabe. Haren hurko lagunek ez dabe horrelakorik esan. Ingurukoentzat gizon atsegina eta guztiz haziera onekoa zan, eta goiko jenteen artean (Bibon 63 urtean bizi izan zan) sekulako ezaupideak ebazan, eta hareen bitartez askorentzako mesedeak lortu be bai. "Orixe" berak esan euskun, egoera larri haretan ogia Azkueri zor izan eutsala. Hemen berton be, haren bitartez lanbidea barriro eskuraturik inor izan da. Bilboko aberatsen eskariz "Neguri" berbea eratu eban.

Abade arloko egiñak

Elgoibarren umezurtzentzako etxe bat ipinteko be ibili zan. Abadeak euren arazoetako zeretan, birtute ekintzako asmoak hobatuteko ahaleginak be, egin ebazan. Eta guztien eraginez, Aldundiek han Madrilen guk geuretzako "distrito universitario vasco" lortu behar zala be, aitatu eban. Eta obispuak euskaldunak izan eitezan be, ingirak egin ebazan.

Irakurleak dakian lez, 1888 g. urtean Bizkaiko Aldundiak ipini eban Euskal–katedrako irakasle zan, eta hortik bizi zan, eta horko diruaz baliauten zan, jan eta jantzi eta enparaua euskal–lanetan eralgiz. Aldi baten Santiago eleizan eta gero San Nikolasen egiten ebazan domeketan euskaraz bere sermoiak. Beste herri askotan be bai. Arabara joaten zan garizumetan, hango herri txikietan mixinoak emotera, eta armonioa jo eta kantau be, egiten eban. Frantziako Burdeosen be, haraturiko emigrauei mixino emoten ibili zan, behin hemengo Txopitea abadea lagun ebala. Bost urtean Deustuko andra Rafaela Ibarra, (Julio Urkixo orduan ezagutu eban) santu–hotsean il zanaren kapellau izan zan, eta hemen Enperatriz Zitaren gogo–artezkari 1922–29 urte bitartean. Fede haundikoa zan.

Umore ona edonoiz

Eta umore handikoa. Egoan tokian egoala, goizero mezea esan (ai, haren poza orain euskeraz mezea esan ahal izan baleu!...) eta otoi luzea egin ohi eban, don Juan Eguskitzaren antzera. Hemen egoanean, gero, "jardin txikiñean" (esanbarri dogu hor orain, "muro de Berlin" dagoala) egoten zan, edo Lameran eta abadeen moillan ibili, eta

etxerakoan, beti moilla ertzean zehar, zelako berbak eta esakerak entzungo, belarriak adi–adi. Haren liburu gatz piparrez betean, "Txirristadak" deritxonean, gozartu ginei haren herri–hizkerearen ezagukuntzea. (Aldi luzean hemen, txirristatoki bi geunkazan, bata orain "Arrantzale" edatetxea danaren terraza ertzean, hori txirristatoki txikiña, eta bestea, musikatokiko eskillaretan, txirristatoki handia. Lehenengoa moztu eben, eta handian, burdiña okertuak ipini ebezan. Horren bengantzaz orain umeak, euren bizikletakin ume, gazte, atso eta agure, zapaldu edo bota egin behar gaituela dirudi, bai plazan, bai lameran, bai tinglauan, eta baita…) Alkate jauna: erruki gugaz.

"Txirristadak" liburuan gatza eta piparra

"Txirristadak" liburu atsegiñean batu eban, "Bein da betiko"–z harrezkero, hizketarik biziena eta pozgarriena. Ataltxu bi, erakusgarri. Trenean datoz lagunak, Usansolo inguruan, Bilbotik onuntz. Eta bat–batean atea edegi eta… "Konduktore" batek lekeitiar emakume bat eskuturretik oratuta dakar:

—*Aquí los de tercera; y si hablas mucho, a la perrera.*

—*Nor da berau, arpegi andijau?*

—*Aquí, aquí.*

Aki diño beronek, aki? aki antxiña il tzan koittarua, Lekittoko ospezijuan.

—*Calla esa bocata, desvergonzada.*

—Desberguentzaria neu? Etzenduke ori esango Tala goikuan bazengoz. Aaamen beronegaz zer ikusi biar dogun! Segundia dala. Nok jakik, ba, segundia zein dan, guztiak erderaz jagozak–eta?"

Beste ataltxu baten Elantxobetar ama–alabak dakaz. Okelatxuneko Mariñasi eta Krispiña, haren neba eta honen osaba indianoa Ameriketatik datorrela eta Bilbora doiaz hareri urteten, alabea dotore jantzita, osabea etxerako harrapau guran.

Andra ezagun batek Mariñasiri dirautso:

—Markesen alabak lez ez da jantzi bihar orretako.

—Ezetz diño. A, koittadue. Ez ipini karnatarik amuari. Ze atrapetako? Karramarrue?…"

Txoritan, arrainetan

Txikitan, txoritan eta txoriabiatan ibilten ei zan, solo, baso eta txaraketan, sarritan Kandiko Basabe (lekeitiar beste euskal–idazle

bat) lagun ebala. Arraiñetan be bai, eta han Oletako zubipean ba ei euken aingirak barrunateko toki aukerakoa. Haruntzean/honuntzean bideondoko sagar arboletan, sasoia zanean, sagar–lapurretan edo madari–lapurretan eginez. Berezkoa zan. Geroago, biok abade egin zirean, eta aita Basabe jesuita be bai. Entzute handikoa izan zen, sermolari zorrotza, baina baita guztiz zelebrea be. Arrantzale zaharrek oraindino be gogoan izango dabe, eta gure herriko emakume urtetsuek be bai. Haren esakerak!

Gau baten, Karmeloko komentuan

Azkue ez zan geldi egotekoa. Geroetan, Begoñako Karmelo komentura urtero joaten zan, astebetetxu ejertziuetan emoteko; bere buruari esan gure da. Han, gau baten, loak hartu ezin, eta ohetik jagi, han egoan liburu bat hartu eta irakurten hasi, eta Teresa donearen olerkia aurkitu eban, "*Vivo sin vivir en mí*" ospatsua. Mahaian musika–paperak ezarri, eta hiru ahotsetara kantateko, gertu eukan lan polita, egunsentia baino lehen. Lan hori hor dago. Han Frantziako Tours–en, bere Hiztegi nagusia DVEF inprentan egin–ahalean okerrak zuzentzen eukan zeregin guztiz nekatsua gorabehera, tarte bitarteetan etxekoei, senideei, adiskideei eta agintari batzuei be idazten jarduten eban, beti kartaginen.

Zerua… eta euskaltzaleak

Neke, lana eta batzuen ikusi ezina… baiña ume ona? Itsasoak betekoa. Beti egoan takarakoa nun egingo. Norbaiteri, 1906 urtean eginiko kartan, alkarrizketa bat sartzen deutso. Alkarrizketa hori zeruan jazoten da.

"—Da! Abade euskaldunik ba al da hemen?

—Ba… bai. Lodi bat hemen dago. Lodia edo behintzat lodia izan dan abade euskalduna. (Bere buruagaitik, uste dot nik).

—Nik dinodana, ganera, euskaltzalea da.

—A, holan bada bai. Horreek euskaltzaleok, euren txotxintasun horretan darabillen fede ta borondate onagaitik, horreek... guztiok sartzen dira hona."

Eta jarraian zerau gehitu be, bai. "Ikusten dozunez betiko lako umore onez nabil. Hori gero hemen lagun birentzako lana dodala, eta meza-

tako estipendioak erdi batentzat lain be ez… Jolasa, idatzi eta zuzenketa lana *"edad de piedra"* aldikoan banengo lez; mahaia, kolegio merke batekoa… Hainbeste urteko beharren ekonomi–ondorena, galtzaia seguru seguru. Eta halan be, nire ariman ganezka dodazan neure barruko baretasuna, gazte–alaitasuna eta gogaro argia ikusirik…"

Gure herriko alper handi bat

Bere senide bateri inotson behinola: "Han **nire** herrian (ba dakit mendazaiñek berbetan honelan hasten dirana, baina) alper handi bat dago, konpiterua izan arren, merengiak baino txisteak egiten abilagoa dana. Señorita batzuek haren esanakaz arratsalde gozoa emoteko asmoz, egundoko merienda ederra zertu eutsoen. Baina txisterik ez zan inundik azaldau…"

(…) "Horregaitik ba, pitxintxuok, ez ahaztu. Bada, nik Julio Vernek idatzi ebazan orrialdeak baino gehiago be bizkarrean, eta bularrean diplomatiko batek baino kondekorazino gehiago ekarri arren, nire bihotza birtutez hainbarik baletor, beste guztia keia da, hutsa."

"Horrelan ez da esaten"

Euskal–maixuaren izatea beragan eukan eta beragaz eroian, eta berbetako zuzenketak edonori egiten ekian. Hona hemen jakozun bi.

Azkuek udan arratsalde batzuetan lana etxean itxi eta Gardatara edo Mendexara joan ohi zan. Honaxe sarriago. Mendexako frontoian aldi baten ez egoan jezarlekurik, eta Azkueren eraginez jezarlekua eta aterpetxua be zurez eta oholez gertu eben. Bazkal–ostean, ba joian ba, Azkue bidean gora. Gizonezko bi etozan beherantz eta alkarrengana hurreratzean, honeek esan:

—Arratsaldeon dakarrela, jauna. Denpora ona, e?

—Baita zuei be. Nungoak zarie?

—Gu, mendexarrak.

—Guk Lekitton eguraldi ona esaten dogu.

Beste behin Azkue Hotel Beitiara joan zan norbaiten galde. (Burura jatort haren lanen batean, diptongoez ziharduela, hain zuzen be honelan inoala, "lehen guk Hotel Bei–ti–a esaten genduan, orain Bei–tia dinoe). Hango Benturak ohi dan lez, txeratsu eta maitekiro hartu eban; behean begiratu eta urlia ikusi ezebanean:

—Jauna, Hori, bere kuartuan egongo da.

—Kuartuan ez da esaten, gela baino."

Eta hori zala–ta, gure uri honetan atzerapidea sentiduten eban; izan be, eskolatik kanpora besteren lezinoiak hartzeko gogorik izaten ez dogulako. Gogoan dot monagilloek be apur bat zera eukela (lehengoan aitatu genduan orduko latiñako mezatan mutil koskorrek, erasokeran "Laus tibi, Christi" esaten ba eben, harek dzart! "Laus tibi, Christie", bokatibo!! erantzuten eutsela). Sakristiako barririk ez dakigu, baina abadeak be, sermoiak eta barriketan egiteko kezkaz jarten ebazala da entzutea. Eguskizagaz eta Arritolagaz ez zan horrelakorik jasoko, baina…

Rapé, baina ez itsas–zapua

Azkue, kanpoetan ibili zelako edo, "rapé"zale bihurtu zan. (Irakurle zuhurrak ba daki ondo be, itsas–zapoaz ez diharduguna). Gure herrikide ezagun Rufok gogoan dau Azkuek batzuetan emoniko errekadua:

—Zoiaz gurera, eta hobeto aitutako "zintz–egiteko hautsa" emon deizuela esan eiozu urtetan deutsunari. Azken urteetan, ostera, Resurreccion, Mendexara joateko zaharra zan–eta, gure Parke txairoan zigarroa erreten ikusi izan eben.

Azkue, igarle txikar

Senitarteko bateri berak esana zan: "Zu gizon egin zaitezanean, (artean mutikoa zan–eta), ni okertuta, makurtuta ibiliko naz, ogipideko txirrindulariak ibilten diran antzera". Eta dapa! Baita igarri be. Larogei urterik gorakoan errime okertu eta makurtu zan. Halan eta guzti be, (hor be agiri da Julio Caro Barojak esaniko harako Azkueren *"voluntad fabulosa, desbordada"*) Bilbon domeka arratsaldetan Campo de Volantinetik zirrin zarran oinez, Indautxuko Agirre kaleko etxe batera (21 edo 23 izango zan), etortzen zan, batzuetan aterkina eskuan, han bizi zan beste abade zahar bategaz barriketan egin eta musean jokatzera.

P. Broussain eta S. Arana

Bai. Bere Hiztegi nagosiaren bigarren atala, Dicc. español vasco frances, Toursen barik, Bruselasen egiteko asmoa izan eban unada

baten. Horraitino eragozpen gogorra aurreikusi eban, eta kezkaz eta arduratan jarri zan. Eta berak esana "ezina ez, baina arazo gatxa izango da, berba barri txorta ugariak asmau behar izango dira–ta. Aurki, Azkue Arana–Goiri balitz, gauzea hobeto joango litzateke (egokitasun berezirik ez baleu be, baina euki "bost bidar" dauka harek egokitasun hori)". Jakina danez, Morfologian be geroago idatzi ebalako, Azkueren ustez berba barriak, zera, neologismoak asmauteko Pierre Broussain (gero euskaltzain oso izango zan Hasparrengo medikua eta alkatea) eta Sabino Arana ziran abilenak. Baina horretara jote ezkero, (dinot nik neuk, halan gertatu ez zan arren), barriro be Larramendiren ekitaldi ezegokienera jotea izango zan. Esanak esan, Azkuek ez eban bigarren zati hori argitaratu Hiztegi nagosi taiuan.

Jaiotegunean jaiotetxera

Azkueren jaioteguna, abuztuaren 5–ean, urtean zehar berarizko tartea izan ohi zan. Lekeition moilako etxean bizi zanik harrezkero, basilikan San Pedroren edo Kurtze Santuaren altaran mezea esan ondoren, Apalloa kaleko 20 gn. etxera joaten ekian, han orduan bizi ziranekin egotaldia eta barriketaldia bere txikitako ta bateoko uneak susmaurik eta gogoan erabilirik. Aitak, Eusebio Mariak zozoa euki eban, kantatzen ezezik, berbetan be ekiana. Hauxe esaten ei eban: "Azkueneko zozoa naz ni. Urra pepito!!" Albiste hau orain urte asko emon eustan Norberto Mendazona botikarioak, nunbait don Roman Etxebarrietari entzunik, edo haren "memorietan" irakurri ebalako. Eusebio Mariaren pinturazko erretratu ederra be ba zan, eta hor nunbaiten ei dago. Bidezko izango litzateke udaletxera eroatea lortu ahal izango balitz. Dana dala, beste kantatxu hau edo bertso hau, sarri entzun dogu, nahiz–ta geroago aldatua izan.

"Azkueneko atetan
zozoa dabil kantetan".

Unamuno eta Azkue

Komeni da Unamunogazko zerbait aitatutea be. Esanik dogunez, Unamunok, gazte–aldi haretan, euskal–hiztegi itxurazkoa egiteko zeintzuk bide, joera ta arau hartu behar zirean —L. Akesolok jakinerazo euskunez— egokiro ta jasean eginak ziren, sen handikoak.

Baiña, baiña! Lan hori nork egin ete eikean, eta zelan, gatxa zalako, pentsauteak bakarrik arbindu eta larritu egiten eban, antza dagonez, bilbotar bakartia. (Akesolok berak gehitu eban Miguel solistarako, eta solistarako soilik jaio zala). Lan gatxegia, neketsuegia ete zan gizon bakar batek burututeko.

Eta horra! Hamabost urte, horretan emonda gero, bere beste zereginak bazterrean utzi bage, Azkuek hiru hizkuntzatako DVEF Hiztegi nagosia mundura agertu ebanean… Unamuno ixilik geratu zan, mututu egin zan.

Ostera, Hugo Schuhardt —"*el genial lingüista austríaco*" Koldo Mitxelenaren berbaz— ez zan ixilik geratu. Bere, "Baskish und Romanish" liburua sortu eban, eta Azkuek berari eta munduko hizkeralari euskaltzale guztiei Azkuek emoniko poza ezin izan eban bere kolkoan gorde. "Halakoren baten be, bide–modu jakintsuz ibilteko aukerea emon deuskulako Azkuek".

Pio Baroja eta Azkue

Pio Baroja be aitatu behar dogu, haren loba Juliok aukeratxu hori begi–aurrean jarri euskulako. Pio idazlearen lumea zorrotza zana ondo daki gure irakurleak. Honek eta Unamunok inoizka, euskaldunen kontra edo be, gauzak azaldu ebezela. Jakiña, baita euskaldunon alde be, sutsu eta bero. Zertu gura dogun honetan, Piok idatziriko lan batzuetako esakune gogor batzuk aitatu ebazan Azkuek hitzaldi baten, eta jarraian, halako gizonik Euskalerrian eukitea be, esaten ausartu zan. Don Pioren erantzuna, zeuek asmau zelako izango zan —gehitu eban Juliok—. Une honetan ez dakigu. Baina hauxe da kontua. Handik urteetara, hain zuzen be, gerrate ondorioko egun latz eta ilunetan, gizon biok Azkuek eta Barojak alkar ikusi eben, eta horra, egundoko barriketaldia nasai eta umoretsu egin be bai, egin–eginean agure biok umoretsuak ziralako. Adiskidetu zirean, eta ez eben geroago inoiz alkar ikusi.

Irakurleak jakin daki Barojaren "Santi andia" nobelako uritxua, Luzaro… gure Lekeitio dana, hainbat lerrokadetan agiri dagoan lez.

Eusebio Mariak asmau, eta semeak eta Sabinek jakin ez ebena

Eta azkenik, albista zahartxu bi barriztau. Resurreccionek gauza askoren barri izan eban. Horraitino bere aitaren lan guztiak ez eba-

zan jakin. Gehienakaz liburua atondu eban, dakigun "Parnasorako bidea". Eusebio bere jaioterrira 1861 g. urtean bihurtu zan, eta hurrengo urtean, 1862 garrenean poema bat hasi eban, eta lehenengo kantua bakarrik agertu izan da oraintsu. Zortziko txikiz egina da, bizkaieraz, beste haren bertso guztiak lez; 123 bertso ditu, hau da, 992 lerro. Bizkaiko musa bati buruz da, grezitar mitologiaren eremuan zeharo sartua. Resurreccion eta Sabino Arana jaio baino lehen idatzia, ez batak ez besteak horren barririk ez eben izan. Izan balebe... Harritu zaitez, irakurle maite, beste guztiok harritu ginan moduan. Poema horren izena? EUZKADIA da.

Sabinek asmautzakoa zan **Euzkadi** lekeitiar olerkari Eusebio Mariak 1862 garrenean asmau eban. Eta don Resurreccionek hori ez jakin.

P. Abaroaren gomutagarri; R.M. Azkueren gomutagarri

Orain 50 urte (1934–VIII–14–an) gure uri honeri eta hemengoei hainbat mesede egin eutsan lekeitiar eskuzabala zanari, Paskual Abaroari gure Lameran irudi ederra ipini jakonean eta jai jasekoa egin, harri morkoari aurrean berbak zulatu jakozan, eskeintzea adierazoko ebenak. Ba, berba horreek gure Azkuek idatzi ebazan. Geroago, euskal–kuku ziranak ezabatu eta gaztelaniaz jarri ebezan ordezkoak. Orain, barriro be lehenengotako antzean dago idazkune labur eta esanguratsu hori. Eta nork esango? 1984 urte honetan, ha bera jaio zaneko 120 urte betetean, kanpantorre aurrean gomutagarria ezarri jako, herriaren izenean. Eta norbaitek egin behar, eta neure buruak izan dau dedu eta ohore handi hori, zera, zabalik jarri deutsoen liburu horretan berba laburrez eskeintzea euskeraz egitea.

Guztion euskerearen eta guztion Lekeitio maitearen goran izan beitez bata eta bestea.

Eusebio Erkiaga

Lumentxa barrenean, 1984 udan.

AUGUSTIN ZUBIKARAI BEDIALAUNETA'ri OMENALDIA*

Lanegiñak, obrak gizonaren umeak direan giñoan, gizona bere lanen seme ei da.

Kezka larrien artean, gure gizon honek kezka txikerra baiña jarraikoa erabili oi dau. Bai ba; sarritan bere izena dan lakoa agertzen ez deutsoelako. Arean bere, Agustin ez dau bere izena, Augustin baiño.

Nor da Augustin? Zein dogu Zubikarai Bedialauneta hauxe?

Orain 71 urte, zemendiaren 3-an Ondarroan jaio zan, eta hantxe hazi be, uri hori zeharo euskalduna zanean. Orain baiño txiroagoa zanean.

Ugaritasun eta ondasun-aldiak kultureari lagun on izaten jakozala esan ohi da. Gure gertari honetan, ohiturei ta batez be, hizkereari dagokionez, horrelan ez dalakoan gagoz.

Hori, ostera, Euskalerri osoan jazo da. Ondasunak eta aukerak ugaritu egin dira, etorliarrak gehitu. Berbeta jatorraren egoerea, barriz, makaldu.

Mediku ebakuntzariak kirurgi-egiñetan arduratsu, arreta zoliz jardun behar dau. Noraezean izan ezik, ez dau ezer zulatu ez ebagi behar; ez dau landuzko zati arrotzik, protesis dalakorik ezarri behar. Abagune bakotxean, egokien danaz baliatzea dagokio.

Augustiñek kirurgi bitartez barik etxeko medikuaren antzera jardun dau. Euskerearen osasuna jagon guran, bizi danari bizirik eutsi guran, biziaren atalak eta zatiak be, arduratsu begiratuz, zainduz.

Euskerearen alorrean kirurgi bitartez hasteari, ekiteari ez deutsa egokiez premiñazko eritxi. Tokian tokiko hizkerea darabil egunero. Arean bere, bide horixe ez ete da aukerakoena, artezena, onuratsuena, bizirik dirauanari bizirik iraunerazoteko?

Izan be, herriaren berbetea ezin daiteke belaunaldi baten aldatu, brastadan bestelakotu, asmorik goitarrena izan arren. Ausaz, lardaskatu, egosgogor bihurtu, euskal gaiztoa zertu. Hizkuntz-aldaketea eta euskalkien trukadea be, luzaroko arazoa da. Eta ez hain erreza.

Kezka eta buruhauste astunetan gabiltz.

---

* *Karmel*, 2, 1986.

Euskalkiak jagon guran, batzuk. Baturako eredu barri hori ahalegiñez indartuta zabaldu guran, beste batzuk.

Bizkaierearen aldekook honen mesederako eta euskera beraren osasunerako jo ta ke dihardugula uste izanik geure lorrak ditugunean, hona hemen irakurri barri dogun agiri baten be beste batzuen kezka mingotsa. Euskera-arloko Erakunde nagusitzat daukagun horrek, bere egoneziña eta kezka nabarmen azaldu dau. Beste ikuspuntu bateko kezka samiña da, baiña gunean, mamiñean, guztiona da. Euskereak izan daikezan kalteekiko bildurra.

Entzun hitzez-hitz aldartzen dodan pasarte hau:

> «Komunikabideak gaur-egun duten eragina eta garrantzia hizkuntzen normalizapen arloan kontutan izanik, Euskal irrati eta telebistaren euskara maila salatu da. Zuzentzaile karguaren lana ganorazkoa ez bada, ondore oso txarrak ekar liezazkiokete tresna kementsu hauek euskarari. Kezka hau nabarmena izan da batzartuen artean. Galbahe estuago igaro behar lukete hizlari eta aurkezleek horrelako lanpostua lortzeko».

Horra, ba!

Baturantzako eredu barri hori berehala erabilteko griñea sortu da eta aizatu da. Horratiño, zer bat da erabiltea; bestea, euskera ez jakitea.

Eta orduen... zapata barriek min orpuen.

Jakingarria litzateke honelako txostenen bat. Zera, iragan zortziamar urtean, Bizkaiera eremuan, zehatzago esateko, ahozko euskera mintzatuari adi, eremu horretan baturantzako eredu barri hori nun eta zein heinetan sartzen hasi dan; gaztelania nun indartsuagotu dan; umetan euskaldun izan diran mutiko neskatoak erdaldunbarri zenbat bihurtu ete diran; jatorriko euskalkia nun makaldu dan, zelan lorrindu dan, zenbatean zapaldu dogun. Galdu-hurren nun dan. Gogoan izan orain hamar arte, Bizkaiera mintzatua %37,7 izan dala; Gipuzkera mintzatua, %37,6.

Egunkarietan ez da bizkaierazko lanik argitaratzen. Euskal telebistan -hain mesedegarri izan daitekean telebistan- ezin gure euskalkiaren doiñurik entzun. Horraitio, ikusi dogunez, pekatuak dakar

penitentzia. Urruneko intxaurrak. Horraitio, Augustiñek, oraintsu, Deba ibai inguruetatik sartalderantzekook «Agotak» ete garean itandu dau. Hizkerea, herriarena ez al da?

Euskaldun zaharrek, euren betiko berbeteari ekingo deutsoe. Umeek eta gaztetxuek, barriz? Euskera urbanoa deritxoen horrezaz jabetu baiño lehen, tokian tokiko berbetea galtzen badabe, bildur gara ortozik geratu, eta erdal-oiñetakoak ez ete dituen jantziko, behin eta betiko. Hortxe dago arriskua. Ikastolan edo eskolan, zelan halan, euskeraz, umeok. Kaleratu eta... gaztelaniaz parra parra.

Guk eta zuotariko askok, eskolan ez genduan euskerarik izan. Bestera; gaztelaniaz ikasi genduan. Erdaldunbarri bihurtu ginduezan. Baiña eskolatik kanporatu-ala, euskaldun txori kantariak giñan kalean, jolasean, etxean, eleizan.

Euskereak entzute handiago dauka munduan gaur dan egunean. Horraitiño, Estatuto ta guzti, arerioen saila handiagoa da adiskideena baiño. Lurraldeotan ditu arerioak; eta Sena eta Manzanares aldean diran uriburuetan, eta mila uriburutxutan. Azkenaren buruan, frantses kulturea ta hizkuntzea, eta gaztel-kulturea eta hizkuntzea gureen aurkariak direalako.

Augustin maisukuntzarako gertatu zan. Gaztetxutan ez eban osasun lar. Harrezkero, zorionez, Santa Kruz apaizaren antzeko gerta jakula esan giñei. Urtetsuago ta sendoago, morroskoago. Horraitiño, beti bake zale, ez eskopeta zale.

Gure elertian izlauez hasi zan. Harako «Euzkadi» egunkarian, eta «Ekin» «Euzko», «Argia» asterokoetan. Idazle txairoa etorren. Polemista garra be, agertu eroian. Izenordeak, eurrez «Arteta», «Gurutz», «Likona», «Itxasertz», «Amesti», Z-tar A. Erdal lanetan, «Kutuntxu de Artibai». Gure aldi haretan, euskal-idazleok izenordepean lan eta lan.

Arean Augustin gaztetatik, albistari jatorraren argi-izpiak dirdiz egiten eutsan bere bekoki zabal garbian.

Idazkuntzan, teatru-lanak egitea izan dau beti griñarik errotuena. Sarritan, testulari erako jarduera darakus, alkarrizketetan setati eta bero bero sartzen danean. Gatza ta ozpiña, Prai Bartolok, aiña. Euskal-antzertian, Labaien, Larzabal eta Zubikarai, hiru bateko.

Azken gerratean ia zortzi hilabetean, Augustin eta biok toki ta lan berean bizi izan giñean. 1936 zemendi-abenduan, «Guda-otsak» idazten. 1937 urtearen hasieran, «Eguna» oraiñarte izan dan euskal-egunkari bakarra atonduten. Beste lagunak «Abeletxe», Alex Mendi-

zabal, Ibon eta ahaztu-eziña dogun Jose Mari Arizmendi-Arrieta, baserritar unibersala. Bost hilabete ta erdian, astero sei zenbaki kalera. Matxinoak Bilbon sartu ziranean, «Eguna»-k kuku egin behar.

Augustiñek gudaldi aurretik, 4 antzerki idatzi zituan: «Aberrijagaz bizi», «Illobaren indarra», «Itxaslapurrak» eta «Itxasertzeko mutilla».

Harrezkero, olerti-zelaira agertu izan jakun. Bihotzondo emonkorra dauka, eta sentimen igurtzia daben olerki sailak egin ditu, eta sari mordoak merezi, harako Sangotsan, Zornotzan, Laukinizen.

Gerrate osteko teatru-lanak 13, eta eurotarik, 10 sarituak. Antzerti-estanpei musikea ezarri eta ederlan atsegin bihurtu ditu. Antzeztalde buru be sarri izan da eta ondarrutar jente azkarrak herririk herri erakutsi zituan antzerki entzungarriok. Baita euskal-zigorraldi anker haretako sasoi ilunetan be «Seaska inguruan», «Jaunaren bidetan», «Mariñelak», «Kresaletan». Toribio Altzaga Saria hiru bidar irabazi dau, 1963, 67 eta 69 g. urteetan: «Iru alaba», «Gizon on eta andre erre», «Mendu zaharrak». Eta «Mendia eta itxasoa» Markiñan, 1983; «Eskola maixua» Santurtzian, 1984 g.

Gipuzko saria beste hirurokaz: «Bizi garratza», «Lurrunpean» «Errekondoan». «Kirikiño»-ren eta Urruzunoren giroan be, zerak atondu ditu. Patxi Escuderoren «Gernika» operearentzat, ekintza bi.

Hizlaria be izan da, tribunetan eta irratietan. Arratia irratian unada luzean, Arraten eguenetan, Bilbo irratian egunero iñoiz. Hiztegi lanetan be ibilia da, gramatika zale ez dan arren.

Gerra-osteko prentsan, nun ez dau euskeraz idatzi? «Agur» (Zubegi), «Boga-Boga», «Zeruko Argia», «Egan», Euskera», «Zer», Olerti», «Karmel», «Goiz-Argi», «Redención». Donostia-ko «Diario Vasco»n be, urte bian. Hango irabazia ta ordaiña? Augustiñek mundu hau laga dagianean, Berrondo abade jaunak «Aitagurea» errezauko ei deutsa. Baiña... Berrondo lehenago badoa? Berrondo, purgatoriora; bai ba, zorra! Eta Augustin gurea... zeruko ate-aurrean zain eta zain, «Aitagure» baten premiñaz.

Zubikaraik hemengo «Deia» egunerokoan hainbat urtetan eurrezean ikusi ditu bere lanak. Bizkaian eta Gipuzkoan, orain be, gizon honen idatziak irakurteko irrikitzen dago, amurratuta. Eske ta eske. Zer?

Jo daigun laugarren saillera: ipuiñak, saiakerak, kontakizunak, nobelak. Emeretzi liburu argitaratu ditu. Euskeratuak beste bi ditu. Prest daukazanak, hiru. Honeen artean «Zaldupeko alaba».

Zubikaraik doe berezia dauka lehenetako giroa, aroa, ohiturak, bizimodua gure begien aurrean lanbrorik eta ilunik barik jarteko. Aro misteriotsu samar hareetan sortzen ditu notiñak. Hareen kanpoko taiua ta irudia agertuko deusku; gero, polito polito, hareen barrua edegi eta ezkutuan eukezan gurariak, griñak, asmo ta joerak, gorrotoak eta maitetasunak, eguzkitara aterako ditu. Entzuna, irakurria eta berberak asmaurikoa motrolloan jo ta zapaldu, eta jakinguraz beteko gaitu.

Aldia, lan batzuetan oraingoa, beste batzuetan, lehenetakoa. Tokia, gehienbat itsasondoa, eta batipat Ondarroa. Gure aburuz, honen nobelarik mardoenak, «Bale denporak», «Anton Guzurretxe» (Txomin Agirre Saria, 1979) eta «Itxastarrak». «Makillen egunak» eta «Esan eta esango» be, ez ditugu ahazturik. Azken honegaz Bilbon, 1978 g. Azkue saria lortu eban. Etxeita sariak be, 3 jaso ditu Mundakan.

Hainbat lanetan nobela historikoaren ikutu eta erakarpena dauka, unea zehaztu bage, eta notin gailenak gehienbat herri jentea izanik. Giroaren garratza, samiña eta gazigozoa be eskeintzen deuskuz. Irakurlea sarritan adurretan jarteko pasarteak eta esaldi zorrotz eta gustagarriak. Esturazko bizimodu latz eta arriskutsuen erakuspen ezbardiñak. Umezurtzen eta andra alargunen pasadixo nekatsuak agertzen maixua da. Adin guztietariko lagunak darabiltz hara ta horra bere sortzapenetan. Jente zaharra nahiz gaztea nahiz umea, nahikoan ezagutzen ditualako. Jakituri orniduz eraturiko zerak ditu, hasierea, korapiloa eta azkena dabenak.

Orrialdeetan zehar hainbat eta hainbat esate artez, pasarte mamintsu, azalpen bitxi, bai asmoari ta jazopenaren hariari doakonez, bai euskereari berari adi gagozala. Bizkaierazko material bila dabiltzanek, hortxe daukez kantera aberatsak.

Errealismuaren barrutian jokatu daroa gogara, trabarik bage. Egoera lazgarriak, jazoera bakanak, herri bizitza interesgarria, notin misteriotsuak. Hiztegia naro darabil. Berbak eta esaldiak argiro darakuse jazoera bakotxeko guna ta nabardurea; arean, berba apalak, berba gordiñak, ausartak, gure alorrean aspaldietarik ditugunak, jatorrak. Eta han hor hemen, zirikadak, eztena, zeharretako hizkerea, irudiak eta erkatzeak, eta eskukada eta gatz lodia eta piper miña. Egiaren antza blai, jatortasun erakutsia, izatearen jarraipena, ederraren eskuz apaindua.

Aldi hareetan gure portuetan zirean goseteak; *miseria* erdalitza hain sarri esana, hain sarri entzuna, oiñazezko letañea bailitzan. Arrantzaleen etxe hutsetako negu hotzak. Premiña gorrien artean, ostera, itxaropena, arima zal eta jorantsua, odei baltzen arteko argi xirrintea, iñoiz galdu ez daben bizigurako sena, odolaren taupadea, zanen dardarea. Eta bitartean, kresal-usaiña, itxasoaren marroa, traskotsa.

Gozagarri dakigun, eskuarki ostu dogun ataltxu hauxe, Augustinen «Itxastarrak» liburutik harturikoa, 39 g. orrialdean. Entzun.

> «Arrantzaleen edozein herri txikitan ainbat gizon eta emakume bakan eta berezi dagoz. Giroak eragiten dauana izan lei. Ez da berezkoa euren izaerea, baiña zeaztuten gaitz da. Indarkeria dabil bitartean. Giroko indarkeria. Behar bada, itxasoaren indarkeria. Origaitik, arrantzaleak beste iñor baiño bakezaleago dira. Errukiak ariñago joten ditunak. Eta zoritxarrak joten dituanean be, errezago gainduten dabenak, garratz eta larrienak izan arren. Ba daukez tartetan, itxasoan sortuten diran lako bat-bateko galerrenak. Baiña ori, ekaitzaldi bateko aizea da. Giroa, izatea, besterik da. Gertuta dagozalako, edo familietan orixe ikasi, entzun, igarri eta bizi izan dabelako... Oituren menpetasuna».

Gizona bere lanen seme baldin bada, bere lanak dira Augustin. Gai jakingarri ugari, histori ildoari jarrai, ekanduei loturik, gutarren onbideei eta makurrei adi, hizkera jator mamintsuak idatziak.

Lan sakonak, lan ariñak, iñoiz garratz, iñoiz atseginak. Etenik bako jardunean berrogetamar urtean buruturiko lanak, tarte bitarteetan egiñak, bere ogibide nagusia urte luzeetan, Mutrikuko arrain--lantegia izan daualako. Gauei ordurik franku ostuta, amesik be egin ezinik, Ames Nagusi, lilura azken bakoan. Kandelerioetan atxari ura lez, euskerea dario.

Ezkondu zan (orain, tamalaren handiz, alargun), sei semealaba daukaz. Euskaldunoi ehun liburu eskeiñi. Gure mendietan ziur asko, arbola landarak sartu ditu.

Eta zahartzaroa gorabehera, Bizkaiko Batzar Nagusietako eskudun jauna dogu, eta Ondarroako Kultura Etxeko artezkari; Euskaltzaindian urgazle, Euskerazaintzan, kide.

Igaz esan neutsan: —«txo»... halakoren baten goratuko zaitue baiña... hil zaitezanean.

—Hor daa, ba! —erantzun eustan.

Horraitiño, ez. Gaurko gorazarre hau, giro kutunean eta leku goitian, ordu onean ospatzen dogu.

Euskal-idazle asperrezin bati, bizi dala, omena.

Ez al da azkena izango! Urte on askotan, Augustin.

Eusebio Erkiaga

Bilbon, Bizkai Aldundiaren jauregian, 1986 apirilaren 18 gn.

ZUBIKARAI EUSKAL–IDAZLEARI GORAZARRE*

Berrogetamar urte ta gehiago euskeraz idazten hasi zala, eta Augustin Zubikarai ondarrutar idazleari omena egin deutsa aurtengo apirilean Bizkaiko Aldundiak Bilboko bere jauregian.

Berez urduria eta sortzapenean ugaria, gure elertiaren barrutian hainbat arlotan lan egin dau. Arean, albistari maila apalean hasi, eta geroago teatrulanak, ipuinak, olerkiak, saiakerak eta nobelak idatzi izan ditu. Irratian be, jardun izan dau, euskerearen alde.

Bizkaiera da gehienbat darabilen euskalkia.

Bere prosa errezaren pare, bertso neurtuen emoi samurra be, eskeintzen deusku Zubikaraik.

Gerrate aurrean idazle hasibarria, ez dau inoiz be totonik egin, porrotik. Zintzotasuneko ildoan sartu zan eta ez dau arean be, aldegiteko tentaldirik izan. Besteren hitzez, berberak berresan dau: «aspertu arren, ez laga; ekin». Izan be, hainbat geratu dira bide erdian. Guda zitalak eroan ditu, udazkeneko haize zorangeak orbela lez.

Gure elederreko joanari begiraldia egin, eta autorerik gehienek, bat, bi, hiru liburu idatzi izan ditue. Ba dira, zorionez, txorta luzean hainbat lan banako laga dituenak.

Lanegiñen txorta luze honeetarikoa dogu ondarrutar hau.

Zubikarairen alde onen artean, bere idazkera erreza, beherantz doan errekastoa, oztopo txikerrak aisa garaituz, garaituz. Horretan eta horrelan batzen ditu irakurleak. Arean be, Bizkai eta Gipuzkoako euskaldun askok gozaro irakurten ditue haren idatziak. Bai liburuetan, bai aldizkarietan. Egunerokoan baldin bada, gustorago. Bere gogoa be, horretara doa; zera, irakurleagaz, herriagaz hartu–emon estuagoa lortu ahal izatea. Idazle edozeinen griñea. Baina gure kasuan, euskaldunok geure erramintea erabili ahal izatea, zenbat eta sarriago hoba. Hainbat urtetan, besteren eta gure zabarkeriz, erdi baztertuta, ugerrak jaten euki izan dogun alkarrizketako erramintea, hizkerea: abereengandik bereizten gaituan zeretarik baliotsuena.

Edozein gairi oratuten deutsa, eta aukerapen horrek aberastasuna dakartso irakurlearen adimenari, eta bitarteko dan euskereari berari.

---

* *Idatz & Mintz*, 13/14, 1987.

Idazlea irakurle bakanen adiskide soil izan barik, irakurle ugariren lagun, gehienengoarentzat idaztea litzateke haren helburua. Harako Blas Oterok bere gaztel–eremuan gura ebanaren antzera.

Uriko albistak eta artikuluetaz bereiz, Zubikarairen lehenengo ekitaldia teatru–lanetan izan zan. Gerrate aurretik, hogetabi urte bete baino lehen, lau obratxu idatzi zituan. Gerratean, albistari, egunkariko gizona. «Euzkadi» egunerokoan lehenbizi; geroago, 1937, gerratealdi bete betean, «Eguna» euskal egunkari bakarra sortu eben, eta han lan egin eban. Augustiñen lagunak orduan, «Abeletxe», Mendizabal, I. Enbeita, Jose Maria Arizmendi–Arrieta, geroago abade eta Arrasateko ikaste eta industri sortzaile, ospatsu izango zana, eta neure burua. Bost hilabete eta aste betean iraun eban egunkari bakan harek, matxinoak Bilbon sartu ziranean, «Eguna» hondatu zan. Eta euskal–pizkunea be bai, berrogetaz urtean.

Zelanbaiteko bake kontrolpetua eratu zanean, hortik hemendik hasi zan barriro gure gizona euskeraz idazten, eta bestela baitakoan, argitaratzen.

Beste hamahiru teatrulan burutu ditu, eurotarik 10 sarituak. Sarion artean, Toribio Alzaga izeneko bi, eta aipamena. Donostiako «Gipuzkoa» sariak be, beste bi eta aipamena. Eta Biarritzen, Markiñan, Santurtzian.

Olerti–zelaian be, sariak lortu izan ditu.

Saiakera, ipuin, kontakizun, elebarri alorretan be, beredin lan sortu dau. Nobelan: Azkue saria Bilbon, 1978 g. «Esan eta Esango», kontakizun aroan. Txomin Agirre Saria, 1979 g. Harrezkero, Mundakan Etxeita Sariak, hiru.

Horraitino, irakurleak ez begi uste izan Zubikaraik sariak lortzearren soilik idazten dauanik, edo soldatea eskuratzearren. Bai zera! Euskeraz idazten emon dituan orduak, oraingo elektrodomestiken konpontzaileen urteera–orduak langoak izan balira… gizon eukitsua eitekean.

Hemeretzi liburu argitara ditu. Behar bada, lan au irakurgarri daitenean, hogeigarrena be jaioa izatea, leitekena da.

Antzertietan bere doe, prestaera, zuhurtasuna erakutsi ditu. Komedia antzekoak dira asko; ohitura kutsukoak hainbat. Batzuei musikea ezarri deutse, doinu barriak inoiz, kanta zaharrak batzuetan. Interesgarri bihurtu diran teatrulanak, arean.

Gorago aitatu dogun Tx. Agirre saria irabazi eban lana «Anton Guzurretxe» da. Honen parean ipini gineiz beste bi, «Bale denporak»

eta «Itxastarrak». Azkenen azaldua, «Garratz eta gordin» ez dot oraindino neure begien aurrean euki.

Aldia lehenetakoa eta oraintsuagokoa, Augustinen lanetan. Tokia, gehienetan, itxasertza; eta miñenik, bere Ondarroa ingurua. Errealismua sakon zabalean eredu harturik dabilela dirudi. Horrelan, egiantza eta erroa ta bizimoduaren agerpen benetakoa emoten deusku.

Eta hizkeran zer esanik ez. Jatortasunaren iturria edan daroa eta guri ur garbia, gardena eskeintzen.

Noizbait, IDATZ & MINTZ honetako kritikoek polito polito zehaztuko dabe Zubikarairen lana, joerea, estiloa ta eskolea. Ausaz, egileagandik hurreregi egon gu, eta zuhaitzek basoa ikustea galerazo.

Irakurleak, eta batez be, euskal irakurleak ez dau nekerik gura. Bistakoa da; gaur dan eguneko egunkarietan, badartza mamintsua baiño erdi larra dagoan lurzatia areago aurkitu daiteke ta. Ondarrutar honen idatziak irakurteko ez dabe nekerik izan eta izaten euskaldun zaharrek. Askok lehenengo begiraldia, Artibai amaierako idazlearen lanik ete dakarren. Zerk? Erosibarri dauan egunkariak edo aldizkariak.

Horregaitik, gorazarre honek adierazpen berezia izan dau.

Irakurleen gogoa eta borondatea ederto baten jaso Bizkaiko Aldundiak eta gure elertien langile zintzoak eta bihotz zabalak dirala, begiak erdi itxita dabiltzanei adierazo deutse. Hizkerea biziko bada, hizlariak, idazleak eta berbaegileak preminazko dira.

Idazlerik asko ez da egon erakundeen diru–laguntzei edo lortu legiezan sariei begira. Eurenez eta ezetariko ordainaren itxaropen barik sarri bai sarri lanari loturik jardun dabe.

Bizkarrean 71 urte izan arren, hona hemen, aurrerantzerako be lanerako prest Zubikarai. Idazle eutsiak eta tenkorrak, ekin bereari.

Urte on askotan honelantxe izan bedi. Euskerearen onerako, bizkaierea euskerearen atal handi eta indartsua izan da–ta.

Eta gomuten artean, «Eguna»–ko esperientzi birginea ezin guk ahaztu. Ai, «Eguna»–ko egunak, eta gau luzeak, kezkaz ta lanez beteak!

Eusebio Erkiaga

PATXI ANTXUSTEGI (G. B.) OLERTI LANETAN*

Aurtengoan be, bagil eder honek minaren zauria agertu deusku, adiskide on eta neurtitzetan kidea mundu honetatik errukirik baga eroan deskunean.

Betiko agur lezearen keinu iluna horren hurre geunkala uste ez genduanean, zirimolaren xistu bihurriak zuloa egin deusku arimaraino. Adiskide aspaldikoak, laguntzarrak, itsasaldekook esan ohi dogunez, joan joiakuz, asko ta asko zaharregi egin barik.

Honelantxe don Patxi. Algortan izan dau bere azken arnasea.

Noraezekoa dogula mundualdi bakotxarenaren azkena. Horraitino...

Hain lerden eta gaztegina, hain jorantsua, hain atsegina zan abadea ta adiskidea! Baina ez dago hemen; datorrena datorren lez hartu behar, gure gurasoen berbeta zaharrean sarritan entzuniko hitzez orain guk berresanik.

Eleizizlari eratsua zan, maila onekoa, euskeraz nahiz gaztelaniaz jardun izana. Frantsesa be, aldi baten, menpe eukan.

Albista ilun horrek, ostera, bertatik eroan nau haren zertxobait bilatzera. Arean, euskal-idazlea be, izan zalako, gazte denporan.

Zer hori kuaderno bat da, orain hiruzpalau hamarkada lehenengo irakurteko laga, eta geroago, behin ta betiko neuretzat emon eustana.

Neurtitzak hamalau dira, eta prosako hiru lan labur. Arlo honetan harrezkero ezer egin ete dauanik, ez dakit nik. Kuadernoaren lehenengo orrialdean, bekokian beraz, harek berak kolore biko tintaz eginiko letra txairoak, geriza puntuz ederraztatuak: PORRU SALDA. Abadegei gartsu zaneko urteetan buruturiko barru asazkaldiak, benetan.

Lehenen, «Itxas-ertzean» lana dago, 15 erdi ahapaldikoa, zortziko haundiaren erdizka moduz taiutua. Beste hizneurtu batzuek be, edu berean zertuak gehienbat. Lekeition 1936 g. urteko udan egina, arean, gerrate dunbotsak hasi baino lehen.

«Aitz aundi baten gañean nago
Itxasoari begira.
Ezin naiz ase ikusten beti
Olatuaren dirdira.»

---

* *Karmel*, 4, 1987.

Berba zabalez abestuten dau itsasoaren haundia, baina, zinez haundiagoa ta altsuagoa dala, dino, zeruetako Jainkoa. Ta Jaun horren esanera eta gogara jarri eban, betidanik antza, bere borondatea ta etorkizuna.

Hurrengoak 20 erdi ahapaldi, izentzat «Ero baten amaia». Giroa, hilerria eta hango hobiak eta bakartadea. Hor adierazoten dau harako «ilargi ta kanposantua maitale zarrak izaki». Ero gixaixoa heriotzeari deika hasten da, eta hari eskeintzen jako osoro.

«Ta illunpetatik laño zati bat
geldi geldiro zan jagi,
ta ero gaixoa illobi artan
betiko zuan ezarri.

Etzuan inor arri gañean
ero aren izenik jarri».

Ez dauka lekuaren eta itegunaren zehaztasunik. Firmea ostera, «Kurpilla», errubrika ta guzti.

Hurrengo lantxoak «Bethlehen» dau izena. Zazpi orrialde bete ditu, eta Bergaran 1937 g. Eguberritan kokatua. Azalpenak dira nagusi, epika keruz jantzi nahian. Aingeru, artzain, iretargi, gaua, gizona... «Xabiertxoren eriotza» irakurribarri eban, nunbait.

Gasteizeratu zan, eta 1940 g. ilbeltzaren 15-ean Oratioren «Beatus ille» izenburu, eta lehenbiziko lerroa: «Zoriontsu» Buru austeak aldera utzita / Urietatik igesi / Bai zoriontsu baso gizona / Mendiak oi dala bizi».

Jarraian daukan lanaren oiñean Ezpeleta'tar Gotzon izenpea: «Olerkaria negarrez». Arean, haren samurrenetarikoa.

Bigarren atalean dirausku:

«Amatxo bat nun... Ama gaxoa!
Ederragorik ba ote?
Biotz barrendik bera maite nun,
Biotzez berak ni maite.

Iltera amagaxoa...
Miruen eran, usoen aurka,
Bildotsen aurka otsoa».

Lantuilurik mingarriena ezarri eban horren ondoren:

«Ta ordutik ona atzerritar naiz
Neure etxe ta aberrian;
Otza, lañoa neure barruan,
Berorik ez biotzean...»

Bere burua bakar samar dagoala uste dau eta udabarri-gau batean goi-argiei adi jarri da. «Izar maiteok, erantzun, arren!» deadar egingo dau «Goi argi» olerkitxoan. Amaieran otoia dauka, eta bertan eskatu jaunari maitetasunaren argi izpiz biotza goritu dagiola, gogoa gartu ta barruko izotza urtu.

«Ama» atal bi dituan lantxo honetan Zeruko Ama eta lurreko ama darabiltz egileak bere hizneurtuetan. Sentikorra da. Umetan, amaren eskutik joaten zan baselizea azaltzen dau, muño tontorrean, eta behean, muño oinetan itsaso zabala.

Arrats giroz apaindu dau bizitza agerpena. Geroago, bihotza urratua, bakar bakarrik joango da baseliza zurira.

«Il zan gaxoa, erio beltzak
Aren bizia eten zun;
Ordutik ona nere gogoa
Beti negarrez, beti itun»

Zeruko Ama kutunari eskatzen deutsa gaiztakeria parkatu degiola, eta altzoan maitale hartzeko.

Hurrengoaren izenburua «Gaxoa» da, eta hori ez da besterik Ama euskerea baiño. Jantziak urratuta, ortozik, ezetariko pitxirik bage, goitik beheraino soineko baltza, alargun dirudiala...

Eskale antzeko horri etxeko ateak eta bihotza be, edegi gura deutsaz eta mosuka, zauriak sendatu. Zirrara haundiko autorpen hau, maitetasunez irakiten esango deutsa, goenean:

«Zu barik, ama, ezin ni bizi,
Ilgo naiz zu il ezkero.
Ez zaitez joan...»

Bere jaioterrian idatzi dau, 1940 g. Garrilean.

Handik egun gitxira, hurrengo olerkitxua, «Gogo miñ», norbaiten gomutan. Norbait hori maitetasunez hil zan, antza, baiña zauriz beterik, aberri maitale zintzoa izan zalako.

Senitarteko giro pospoliñean burutua jarriko neurtitza, «Osabaren poza», bere loba txikienari eskeiñia. «Atoz illoba laztan kutuna osabaren besoetara» esango deutsa. «Orain mosu bat; ein osabari, maite, pa... Beste bat, bestetxu bat... olan...».

Barriro be «Il-eresia» idatzi dau, guda-oiñean ildako lagun eban E.'tar B.'ri zertua. Ene ba! Maiuskula bi horreek neureak be, ba dira izan. Baiña, horraitino, anartean ez. Patxi bera ni baiño zazpi urte gazteagoa joan jat aurretik. Adiskide haundia galtze horrek, soinu ilunen erioa sortu eutsan bihotzean.

«Ordutik ez dau edertasunik
Pagadiaren itzalak.
Ez-eta ainbat maite genduan.
Erreka ondoko zelaiak.
Ordutik ona atsegintsu zait
Kanposantura bidea,
Eta an zure ilobi ertzean
Itz gozoz zuri deitzea».

Jolasti eta irudimen hegoak zapladaka erabiliz, «Maitasun ametsa» taiutu eban Gasteizen 1940 g. abenduan. Arazo politen sailean ipinteko lakoa, dogu.

«Goizalde batean
Itxaso ertzean
Itxasoari begira nengoan...
Barnean biotza
Zimel eta otza
Txorigabeko kabia dirudi...»

Halan be, txoria, txoriren bat agergarri edo agerkizun ez ete? Bat-batean itsasur ganean halako argitasun bakanak dirdiz egiten dauala dakus olerkariak. Arean, ontzi urdinean, eguzkia mendi tartetik da agiri, baina itsasoko argi berezi hori... Eta ontzian, horra!

«Goitik beeraño
Zuriz jantzia...
Urdin ederrak
Aren begiak...
Neskatxa

Zoragarria
Begira daukat,
Begira nauka
Ta alkarri begira onetan
Ia illik zegon
Maitasun garra
Biztu da nere zanetan.

-Itxaso erdian
Lañoa legez
Sortu zarean notiña,
Nor zera, arren
Esan zaidazu...!
-Nor naizen? Itsas-sorgiña!
Zorionaren
billa bazabiltz
Zatoz neurekin batean
Ba det zuretzat
Jauregi eder bat
Itxasoaren barnean.
Atoz nerekin,
Atoz maitea
Neure jauregi ederrera;
Bertan, biotza,
Alkar maitatzen
Zoriontsu izango gera.

-Ba nator bai!
Emen nozu,
Ene neskatxa zoragarri.
Au bai poza!
Nola ezeztu
Maitasunaren dei ori?
Berak lagunduaz
Ontzian sartu naiz

Eta bat-batean
Esnatu naiz».

Beste lan labur bat «Mendia» dau eta azkenez, hirukotx hauxe: «Pasce oves meas». Orain, A'tar P. izenpe antzera, itegunik bage; atalak «Oroiz», «Aldatz-gora» eta «Gero». Hamabi lerro ditu azken atal honek:

«Eldua zara... Zuri begira
Begiz begi dago Yosu,
Ta esku doneak zure buruan
Jarriaz mintza dagitzu:
-Tori, semetxo, artzai makilla,
Gaurtikan artzaña zera.
Tori... bazkatu nere bildotsak,
Eraman zeru larrera...

Apaiz...! Yosuren artzai-mutilla.
Zorioneko amets gozoak...!
Artzaigo orretan batu daiguzan
Lagun, alkarren gogoak».

Hizlauezko lanak hiru ditu, kuadernotik bereiz. Gizonaren biziaz diharduala, «Egunsentia», «Eguerdia» eta «Arratsa», 5 orrialde ta erdi. «Ameskari» izenordez «Izar biurtu nai», 4 orrialde. Eta «Itxusi», lapur ezagun baten zakarreriak eta heriotzea, 7 orrialdekoa. Iteguna 1941-1-3, eta Lekeition, Atar P. Izenpean.

Antxustegik gehienbat giputz-joerak agertu zituan; jakiña ba, aldi haretako ereduak Orixe ta Lizardi izan zituala, irakurle zuhurrak ikus daike, geuk susmatu dogun ainean. Eskuarki ez euken orduko gazteek liburu aukerarik. Azkenaren buruan bere jatorriko berbetea azalduten jako edonoiz, gipuz-ikutuak dituala. Edo alderantzira.

Hainbat bider esana, oraingoan be aipagarri. Etxegerrateak, beste kalte haundien artean, euskal-idazle mintegia uxatu, sakabanatu eta lorrindu ebala. Eta askok eta askok, euren artean eleiz gizonak, euskereak eskatzen eban lana, besteen bizkarretara ebela, hau zalako, edo hori zalako.

Patxik hain maite eban jaunak beuka otsein zintzoaren arimea bere zorionaren zorionean.

Eusebio Erkiaga
1987 Bagillean

OMENALDIKO AZKEN EGUNEAN*

Opera omnia 1988
Lekeitioko Udaletxean
1988 maiatzaren 28an

Jaun andreok, herrikideok, entzule oro,

Agintarien, herriaren, zeuen borondate onak eratu ditu aste bi honeetako egikunak eta gaurko jaialdi hai, eleizan lehen, plazan gero ta orain hemen, guztietan halako harrera eta abegi txeratsua egin deutsazue, egin deustazue herrikoseme nazan honi. Eskerrik asko guztioi. Eta eratzaileak gogoan ditudala, ganera, nire izen abizena izango dauan Ipuin Sariketa I goa, atonduteko asmoa agertu dozuelako. Milesker.

Jaurlaritzako Kultura Sailak urte honetako Euskal Letren Merezimenduko Saria eskeini deustanaz batera, jaioterrion berton be, txera samurra ta txaloak be, egin deustazuez. Eskerron zuei.

Horretara ezkero, oraingo hau batzar berezia da, beronen guna ta ardatza literatura arloa dalako, geure elederra hain zuzen. Literatureak adar bi ditu, bata idatzia da, beste ahozkoa.

Zorionez, bitarikoa dogu geure herri maite honetakoa be.

Euskal idazle lekeitiarrak

XVIII g. mendean (1777) Agustin Basterretxea, jesuitea. Bertso eder eta ugariak egin ebazan, ondo landuak, oraintsuko kritikeak be, egokitzat jo dituanak. "Jesukristori kendu ezkero / pekatuagaz bizitza / baldin ez badot negar egiten / harrikoa dot bihotza / Guztiok lagun / kanta dezagun…" horrelantxe hasten dira.

Mende ta erdian Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan be, kantau izan ditue bertsuok. Hemen, Garizumako azken asteetan, mutiko apostoluak abestuten zituen. Egongo da hemen apostolu izanikoaren bat edo beste.

XVIII g. mende berean (1751–1824) Jose Antonio Aboitiz. Ez jakin ziur hemengoa ala Ipazterrekoa zan, jaiotzaz. Hau, zirika ere-

---

* *Argitaratubakoa*, 1988.

duko bertsogilea izan zan. Pilo bat egin eban; baina "Peru Dubako" eta batez be "Txanton Piperri"–ren bertsuek emon eutsoen izenik zabalena. Harik larogei urtera edo, izen bereko operea egin eben Donostian, eta musika egilea hain zuzen be lekeitiarra, Buenabentura Zapirain. Oraintsu norbaitek idatzi dauanez (J. A. Zubikarai), lan horretako gaiakaz, opera bat baiño gehiago egiteko elementurik be, ba dagoala.

Bertso bi aitatuko doguz:

"Iru lagunek Ispasterren
apostua egin eben,
jango ebela goizik gauera
amar erraldeko txala,
neu laugarrentzat nintzala.

Lekeitioko kalean
besigu denpora denean,
ogei txitxarro eta geiago
eta guztiak gauean,
sartu ditut sabelean…"

Bertsuok, gure denporan ezagunak, baina batez be, gure aurrekoek sarri kantaurikoak herrian.

XIX g. mendean (1813–73) Eusebio Maria Azkue. Aita lekeitiarra, ama Zamudiokoa, hemen jaio zan eta mutiko zala aldegin eben; aita medikua zan eta Txorierrin hazi zan mutikoa. Eta haren berbetea, hangoa izango zan. Humanidades ikasi eban Bilbon eta itxasketa gaiak be bai. Pilotu eta kapitan ibili zan itsasoan eta geroago, Bermeon, Mundakan eta azkenik, Lekeitiko Nautikako eskolako maixu azkarra izan zan. Bertso asko egin zituan Griegoen mitologiako irudiak, latinetiko itzulpenak eta zertu ebazan. Orain hamabost urte hemen lehen esan nebana, berresango dot: Eusebio Mariak lirikarako baino zirikarako joera nabariagoa eukala. Zorrotzak, gazigozoak haren neurtitz ugari. Semeak haren lanak batu eta liburua atondu eban geroetan: "Parnasorako bidea" liburuaren izena. Harrezkero, paper gehiago agertu zan, Eusebio Mariak idatziriko poema baten atalak, eta harrigarria, poema horren izena "Euzkadia", haren asmoz, euskal–musea.

Kantarik ezagunena: "Arrantzaleak barua ausita / kanpora doiaz zintzorik… Otzaratxu bat, otzaratxu bi…"

(1864–1951) Resurrección de Jesus, Maria de los Dolores Azkue Aberasturi, Eusebio Mariaren semerik ospatsuena. Zer ez eban egin Azkue abadeak euskal–eremuaren barrutian? Sarritan eta hedatsu azaldu dira eta doguz haren lanak: gramatika, hiztegi, irakurgai, eskola–jardunak, zarzuelak eta operak, mila ta seirehun abestiz horniduriko kantutegia batu, "Euskalerriaren Yakintza". Orain lau urte egin genduzan azkenen, haren gorapenezko berbak. Gizon bakar batek egiteko, lan eskerga, ikaragarria. Ona izan zan.

Azkue horren kide adiñez, beste lekeitiar idazle bat, aita Kandido Basabe, jesuitea, herrimaite haundia, lekeitiar benetakua, bere izatez, bere berbetaz. Hiru liburu idatzi ebazan.

Lekeitiarra izan ez arren, hemen gure artean lanean beti, irakasten —latiñeko maixua zan—, idazten eta hizlari bikaiña izan zan abadea Juan Bautista Eguskiza Meabe, euskeraz nahiz gaztelaniaz nahiz frantsesez. Euskaltzain osoa, 1920 gn. urtetik, hil zan arte. Gizarte–arazoaz euskeraz egin izan dan lehenengo liburutxua, harek idatzi eban, estilo errez eta bizkorrean.

Euskeraz ez baiña, gure herritxu honetako arazo eta elederrez eta abarrez idatzi dabenak ditugu Juan Ajubita, Pako Okamika, Jose Miguel Ugartetxea, lekeitiarrak. Eta F. del Valle Lersundik gure inguruko geologiaz, eta Bizente Urkizak oraintsu gure Basilikeaz.

Neure garaikoa da beste lekeitiar bat, Anastasio Arrinda. Mutikoa zala hemendik aldegin eban; hainbat liburu idatzi ta agertu ditu euskeraz. Gazteagoa, ama lekeitiarra dauan Mario Onaindia; gure hizkuntzeaz zaletu da eta liburu batzuk argitara ditu.

Gazteagoa Miren Agur Meabe; orain urte bi liburu polita argitara dau. Promesa ezezik dagoaneko dogu heldu mailan jarria; bera adimenearen argia, asmamenaren distirak, sentimen samurren azalpenak, hain txairo dinosku sarreran bere bizipenak direala, orain vivencias esanak. "Uneka… gaba" liburu atseginaren izena. Esku–erakutsi txanbelina gure euskereari, euskaldunoi Miren–ek.

Hemen dogu gazterik irakasle diharduan Aitor Etxebarria be Labayru Ikastegian literaturazko ekinean; eta liburuen kritikaginen eta sariketa epai–mahaietan be, kide izaten dana.

Herrion berton euskaltzale mordoa, aspalditik "Sustraiak" papera noizean behin argitaratzen dauana; Azkue irakaskuntza Kooperatiba eta Euskara batzordea be. Eta ikasle gazteak, batzuk sariren batzuk lortu dituenak.

Ahozko literaturea

Bizitzea bera da sarritan literaturea. Ume izan gara guztiok baina geroago zarbo bihurtzen gara, lehorreko zarbo. Lehenengo, gauzak direan lez esaten ikasten dogu. Horraitino, geroago, gauzak ez direan lez esateko be, gai izaten gara. Eta horrelakoetan, guzurra ez hain zuzen be, baina egia, egia erdia, egia antza eta azpikoz ganekoa egia, geure berbetan txirikilan lez, erabilten doguz.

Zelanbaiteko eleder horretako gaiak esanak, ipuinak (upiñak hemen), pasariuak, kantak… hainbat agerpen. Pasariua luzea bada, eta horrezkero, leienda antzekoa, historiako zatia izan leiteke. Ipuina luzea bada, nobela edo elaberri izatera heldu daiteke.

Berba soilak, bakarrak, hainbat esangura ezbardin izan leikee. Esangura artezak, jatorrak. Horrez ganera, zeharkako esangurak, irudikereak emoten deutsena. Artezen tartean, berbarako: buia, treotzarea, tuntuxa, korasta ta koraskerea, arraiña (arrain ona, badaezpadako arraiña, ur handiko arraina).

Zeozeri erantzuna emoteko, erdi ganorabako edo esanmodu illunak be, eguneroko berbetan daukaguz: "Eria! eztago ama etxean… Olatuak Karraspion… Lauretan gabe eginda zagoz… Ai, alia! eztau kazu berekautakua makala!… Eguraldia ederra, ta jan nahi ez".

Ta maila internazionaleko hau? "Arduria yeutsak alemenari, barrakatxakaitik". Zelan argiro jakin esangurea bete–betean?

Emakume arrain–saltzaileak harako: "Aamen, aamen, pertsemikiya. Abariak eleizan kantaten dabena…"

IZENAK, ezizenak, izengoitiak, senitarte–izenak… hor geratzen dira sarritan, kantaren baten, esakeretan, upiñetan, pasariuetan. Herriko literaturea da eta gustau ala ez, ezin inork inori mozalik ipini. Ugari doguz horrelakoak. Lehenagoko ta oraintsuagoko.

Guk barriz, ez pertsona ta ez patari diranen izenak daukaguz, gauzak be, euki daukaguzalako. Gure aurretiko, lehenagoko lekeitiarrek euren asmamen eta irudimenaz sortu ebezan izenak eta abarrak.

Ta lehenengo ta bat, edozein lekitarrentzat munduan zehar Nortasun Agiria dana, karneta, nuntarra dan demostrau ahal dagian. Bai. Geure "Aittitta Makurra", "Aittitta Mokordo" (dokumentaturik Atxmokordo ei dago, hain urtetan). Aittita, bai maite genduala txikiñak ginanean. Ondarrera joan ezkero, ezin ba haren ondora heldu, hareri igurtziak egin, haren ganean jesarri edo haren ganean tente

para eta saltoka ibili barik etxeratu gu. Baina orduan, beti agiri, beti bistan egoten zan. Orain barriz, ezkutau egiten da. Honen zera Landabaso Makuesak daki. Bere inguruan hainbat gazte narrugorri ikusi, eta aittita… lotsatu egiten ei da. Eta bere burua ezkuta udan… harik eta geroago, udazkenean, maria–bizietan barriro agertzeko.

Eta islan?… Hor dago "Kaisparren zaldiya", hor "Prailiaren burua", hortxe isliaren surtzilluak. Eta Amandarrin, handiko mandarun "kulpittua", eta itsasorago, urabehera haundietan, Begizimarroren baxia.

Hor, Gernikara bidean eta Aitta Piedadera hasieran, be geunkan "San Pedron sillia", harrizko sofa ederra, haizebean, eguzki begitta neguan leku gozatua zana.

Esandako gauza guzti horeetaz, ipuinak eta leiendak izango dira bazterretan. Eta gure gazte jenteak batu daizala apurka apurka, zaharragoei itanduaz, paper antxinakoetan azterraldiak eginaz.

Ez genduan txikitan literatura eta humore baltzik. Horraitino, guri ikarea sartzeko elementuak egozan, umeok bildurtutekoak: sakamantekaz (Ondarruan gantzeruak deritxe), sorgiñak, lamiñak, andra–arraiñak, inpreñuko atsuak, arima pielak, damutuak…

Tsili sasoi baten… seiñerua izan zan. Ezer ez inoren bildur ez zana. Behin, gauerdi ostean, bere zeregiñetara Talara joan zanean, han Talagoikotik behera etorrena ikusi eban; hain gauza zera, baltzaren baltzaz ilunetan be, gerizea egiten ebana zan. Hemengo leienda baten hasierea da hau: herrikoa zan, harik–eta Jose Frantzisko Marurik Azkue abadeari azaldu eta honek idatzi eban arte.

Gero, leienda labur hori luzatu egin eban eta hain zuzen be, Bizkaiko lehenengo novelette dalako dogun liburua da: "Bein da betiko" bere izena. Oraindino ez diran ehun urte argitaratu ebala.

Azkue abadearen "Euskalerriaren Yakintza" II tomoan, ipuin eta abarren artean, hemen baturiko beste zazpi ipun–leienda dagoz: 7. Aldaztorren nengoan… 8. Alper andi… 38. "Diru" eta "Txori"… 56. Guarin (fantasi hutsa, dinot nik)… 129. Zatika abadegaia… 156. Egurra ta biraoa… 187. Zapatari izukaitza… Azken honen jazote leku zehatza dakar, Lekeition, eta… Bergara–kaleko etxe baten.

"Inplako baten altaria" be, ba geunkan. Estanpak eta irudiak ikusi ahal izateko, erakuslearen aurrean belaunako para, eta matarlak haizez puztu… eta harek plast! eta orduantza erakutsia. Dirurik ez baiña diruordea… matarlakua.

DIGLOSIA berba gogorra ta garratza sozio–linguistek asmau dabe oraintsu. Egora hori ezagutu genduan txikitan, baina diglosia, maixu eta maiestren aldetik egoan. Hareek euren mundu bakarra, gaztelania mundua; guk barriz, mutiko eta neskatuak, geure hizkuntzea bazterrean erdi laga eta harren mundura be, heldu egin behar, zelan edo halan. Hori, eta ganera gure hemengo fonetika berezia dala–ta, eskolan larra eta barregura antzeko "kometiak" izaten genduzan.

Ostantzean, herrian apurka, gaztelania ikasi eta elebitza edo bilinguismoan bizi izan gara mende honen erdi–aldetik goruntz.

Kantak, abestiak be apurtxu bat jorratu behar orain. Ausaz, literaturako pitxirik errezenak, ugarienak. Batzuk antxina asmatuak, besteak oraintsuago. Berto–bertokuak edo kanpotik sartuak.

Sehaska–abestiak edo umeei lo–eragitekuak. Batzarrak kanta horrelakoak. Hemengo jatorrean, guk uste, "Abaubatxua, ume laztana…" eta bere musika ederragaitik, "Txalopin txalo, txalo ta txalo…"

Gure arrantzaleak txalupetxeetan kanta luze eta bertso berriyak abestuten ebezan, giro nasai eta musikatsuan. Neskak eta neskatoek txikoten egiteko, gehienetan erderazko letradun kantak… "Matarile…", "Al gallollo…", "Y yo le rike, leré…", Lau ta tranpak be, egiten ebezan. Aldi baten, kanpohaizez edo, "kiskun–kaskun" berbetazkoak be. Esaterako, "Esandexé perepexé ludia parixé, esandexe perepexé ludia parixé…" eta geroago aldatuaz, esandexé repetibo…

Jokoan hasteko, neskatoak, griego edo dirudiana: "Kikura bikura lakirikon, zinko binko en galapon", neskato bat lo gelditu eta bestiak arin–aringo ezkutau.

Kiskun–kaskun horreek eta antzakoak, ba dira beste hizkuntzetan be, jerigonza, girigay, jerga ta abar berba izendunak.

Gabon aldean, Gipuzkoatik idatzi eusten eta gure "Anteron txamarrotia" horrezaz argitasun eske. Erantzun neutsen, eta izan be, daukaguzan kanta politetarik behar bada eskasena dala, bai musikeari dagokionez, bai berbei. Nortzuk? Ba, herriko gizon apal bi, bat arrantzale, beste eskulangilea. Kopla kanta gisakoa izan eitekena eta zortziko txiki–erdia be ez dana. Dana dala, folklore fitxan sartuko ebala eta jakingarritzat etsi, eta eskerrik askoak emon eustazan Instituto bateko irakasle horrek.

Elebitzakoak be izan dogu: "Si, si, andra Mariñasi…" Kanta ariñak "Torre de Torres", "Arispe", "Kalyzanpintto"… "Langrero ta…

Epika usainekoak be bai, "Zalduperen galdugordeko ibiliak", "Zirillo makiñista", "Kokomarro patro"... Aratusteetako kanta zoranga alaiak.

Kanta finen artean, maite–kantak, hiru aitatuko ditugu: 1. "Zorioneko jaketia ta..." 2. "Pasaten naixenian zuen atetatik", eta 3. "Ama zuenak niri bidean topauta..." Azken honen bai ironi fiña.

Amaitzeko, bost bertso kantauko ditut, oraingo gertu ditudana zortziko txikian. Gazigozoak egin nahi izan dodaz. Gustauko al jatsue!.

Bost bertso barri, zortziko txikian

Eskerrik asko bertsoz
agintariei,
jai-eratzaile eta
beste guztioi;
Euskera gurearen
inguruan adi
herrikotasuna guk
alkarren lokarri.

Umoretsua izan zan
herriyau antxiña,
orain be izan dedin
egin ahalegiña;
bai auma edo bai
saria nahi traiña,
bota barruna beti
datorren arraiña.

Lemakaiñaren ordez
hor dago timoia,
makiñadun ontziya
burrundaran doia;
urrun geratu dira
bale ta arpoia,
zuriya ta baltza da
gure tximiñoia.

Zuriya itsasuan
platerian baltza,
batzuk nahiago dabe
amuko lebatza;
ez galdu lekittarrok
umore ta gatza,
lihorrez ta itsasoz
gurasuen yasa.

Azkenengo bertsu hau
zorionen zori
eskeiniko deutsagu
geure bazter honi;
toki jakiñean gu
mundura etorri,
Lekitto da hain maitte
dogun jaioterri.

Eusebio Erkiaga

Lekeitioko udaletxean, 1988-V-28an.

AGIRRE ONDARRUTARRA*

Eun urteak laster iges egin dabe: Euskalerri zaarraren egunetan. Agirre ondarrutarrak euskaldunoi eskeiñi euskun usain gozoa, ostera, ez da galdu oraindiño gure usaimenean; ez aren berben soiñu atsegiñaren oiartzuna gure belarrietan.

Bizi zala ezagutu ez genduan arren, aren lerroetan beste idazle bizkaitarrengan aurkitu ez genduan alako zera sumau genduan gure gaztezaroan. Erriaren izkerea bera, jatorra, bizi–bizia, arrotz joskeraz naastau bakoa idoro genduan. Txomin Agirre–ren lerroak irakurri eta gure amama zanaren izkera entzun, bardintsu zan guretzat: itzurrenez, esanez, keraz, itz geigarriz, erri–aizez. Orretan bakana ta bakarra izan da, agian, Domingo gurea. Berbarako, Cervantes andiak bere aldiko izkera bizia, gaztelania aberatsa, txorta mardo ederrean batuta utzi baldin ba eban, gure artean orixe berberori egin izan dau Agirre ondarrutarrak.

Eta ori, ez dago edonoren esku. Bestelako aldea aren izkera sintaxis jatorrekotik, gaurko euskera idatzi lorrindu–samar onetara!

«Auñamendiko lorea», «Kresala» eta «Garoa»… orra or aren liburu nagusiak. Baiña ganerantzeko lan guztiak be, batzandu eta argitaratu egin bear litzatekez gure onerako.

Euskerearen saillean, Domingo Agirre zanak, ondo baiño obeto bete izan eban bere maisukuntzea. Aren liburu ederrak ez dira, bear bada, mamiñez gorenak eta oi ez lakoak, ain zuzen gai errezak erabili zituelako geienbat. Euskal–liburu gorenak oraindiño idazteko dagozala esan nai dogu. Baiña literatura errezean, erriko maillan emondako irakurgaietan, ez dogu izan aren parekorik. Aren idazkeran ez da errez biurrikeriarik aurkitzerik; are gitxiago sintaxis arrotzik. Ona emen aren izkuntzearen jatortasuna.

Leen bere, esanik dogu; Agirre ondarrutarrak auxe erakutsi ta agertu euskun: euskera ekiala.

Ta orixe dogu irakaspen goienekoa, erdal–lapikotik euskera sasikoa atarau eziñik lerrenak egiten ibilli ez gaitezan.

Asmoak nagusi dira, agian, elederretako lan askotan bere. Baiña asmo ta egoerak; gizakien izaera ta jardunak, toki, aldi ta gauzen

---

* *Ondarroa*, 1989.

gorabeerak azaltzeko, arako izkera bizi ta jator–usaiñekoa nai––tanaiezkoa da, literaturea eder izango baldin ba da. Teknika liburu aspergarria ta eleberria, ez ditu iñork edu bardintsuan zertuko.

Orregaitik ezin ulertu izan dogu, gure kritiku ta idazle batzuek izkera jator, artez ta indartsua ainbestean aintzat ez artzea zergaitik ete dan. Eta ez begi iñork aditu, izkera jatorra eta neologismu–tripakadea bardin direanik.

Labur esan, ez da errez beste iñorengan aurkitzea, Agirre gureak utzi euskuzan lako esanaldi artez eta biziak, ain ugari ta ain aberats. Ereduak ditugu benetan, ta ikas–liburuetara aldatzekoak.

Ezin giñei ontzat artu, arrautza zindo bako tortillarik. Eta arrautzok, zenbat eta ederragoak izan eta arriskuan, artoa jaten dabeen oilloengandikoak izan, oba. Ta Agirre ondarrutarrak opari orixe egin euskun: arrautza gorringo gorriz ta zuringo ugarizkoz maneaturiko arrautzopil gozo–gozoak.

Guraso euskaldun utsengandik artu eban izkera samurrean gerturiko ipuin, ames ta biozkadak; itxasoak eskeiñi eutsan kresal–usain parebakoa; basoko ira, bedar ta garoaren ezoa ta lurruna…

Euskaldun jator baten biotza, apaiz santu baten oparia, Jaungoikoak izentau eutsan sorterri maiteko izkera bakan eta garbian.

Eusebio Erkiaga.

AITA LINO AKESOLO*

Jaun–Andreok,

Bizkaiaren jauregi honetan kultura hariko gaurko jaian txeraz hartzen dogun aita Lino Akesolo, Oban jaioa da, Dimako auzoetarik baten. Diman, Baltzola koba dago; hantxe, berezkoa dan Jentilzubi be.

Inguru hareetan diabrua ezezik —"Beste mutila" zaharren berbetan— laminak eta sorginak be, nasai ibili izan dira gizaldietan. Dimako Petralandan batzanduten zirean Bizkaiko Akelarre batzarrak, zapatu gauetan.

Diman jaioriko beste gizon bat Simon Bernardo Zamakola izan zan, XIX g. mendearen hasieran, tamalgarriro ospatsu gertatua.

Labur zurrian esan daigun, aldi haretan Bilbo ta bere portuaren garapenaz, auzokoek, elizateek gaitziturik, ondamuz egozala, Bilbori oztopoak jartea egoki zala uste izan eben. Zazpi kaledun uria, zelan estutu, zelan sosegau? Beste portu barri bat eginda. Nun? Gernika haranean, zehatzago Mundakako barran. Asmo hori 1972 g. urtekoa izan arren, bederatzi urtean lo egon zan, Frantziako matxinadea zala ta. Ostera, 1801 goan, eta orduan Zamakola zan aurrena, portu hori Ibaizabalen, arean bere hementxe, Abandon egingo eben. Haren izena, "Puerto de la Paz".

Bilbotarrak larri, halakorik gerta ez zedin, ahaleginak egiten hasi zirean. Alperrik. Horrez ganera, harik hiru urtera, Zamakola urduriak soldautza–moduaren aldaketea aurkeztu eban eta Gernikako Batzar Nagusietan onartua izan zan.

Elorrioak!... Begoñarrek, mahatsorriek hasarre bizian Bilbora jatsi eta hor entzuniko argitasunek euren gogorik ez bete, ta euren fusilak hartzeko baimena lorturik, Abandoko Bizkai–armategian iskiloak hartu ebezan eta Bilboko kaleetan zehar harro harro, jentearen ikusgarri ibili. Hurrengo, abandotarrak be berotu zirean, eta Armategian euren fusilez jabetu, Bilbora joan, Bizkaiko agintari batzuk harrapatu, honuntz erakarri eta Albian preso sartu zituen. Horra hor Zamakoladea borbor irakiten, ganezka noiz egingo.

---

* *Karmel*, 2, 1989 / *Euskerazaintza*, VII, 1989.

Bilbotarrak lehen baino larriago, bakea zelan nondik egingo. Ostera, lasterrean, ondorio negargarria: beste lurraldeetarik Bizkaira tropak heldu ziren. Militarrek agintepide guztiak euren menpe jarri eta bakea zeharo lazkituz, bazterrak lorrindu.

Oraingoan, Bizkaiko Aldundiak deitua, Zamakola erdi–jauntxu urduria barik, Dimako beste seme bat heldu da Begoñatik Abandora, duintasunez ta gizabidez heldu be. Gizon zuzenzalea berau, horraitino, azken gerratean, hogetabost urte zituen eta, gudarien kapeillau izatea jazo jakon.

Gerrate ostean, galtzaileak ez ei dau ezetariko eskubiderik. Harako egunean, beste batzuekin, epaimahaikoen aurrera daroe. Aita Leon alboan, laguna lagun zakidaz. Botoidun eta ezpatadun epaileek egia osoa jakin gura. Aita Leoni zutundu daitela dinotsoe. Erantzuna "bai" ala "ez", besterik ezin.

—Zu zeu, nazionalista vasco izan al zara?

Eta aita Leon gizarajo haundiak, estu ta larri, erantzun motxa:

—Bai.

—Jezarri zaitez.

Hurrengo, aita Lino jesarlekutik jagierazo dabe. Itaune berori egin deutsoe. Erantzunak, motxa behar dau izan. Baina fraile horrek, eskuak eskapulariopean alkarganaturik, bare bare dino:

—Gure Ordeneak ez deusku…

—Ixildu zaitez. Erantzuna "bai" ala "ez". Itaune berbera, eta auzipetuak jardetsi:

—Ez deusku gure Ordeneak…

—Ixiltzeko! Bai ala ez, soilik. Zu zeu nazionalista…

—Barruko sentipenik agertzen, ez deusku…

—Zagoz ixilik! Jesarri zaitez!

Akesolo euskal–liburutegietako sagua dala esan daroe. Izan be, gure aurretikoek azken mendeetan idatzi ebezanak, eta galdu ez direanak, hau da, non zer dagoan, aspalditxutik dakiana da. Euskal–alorrean buru belarri ibili da, eta dabil. Etenik ez dauan jardunean. Lana ugari, txaloak urri, diru–laguntasunez erdimerdi, omenez aterri. Horraitino, urte bi laster, hor Derion Labayru Ikastegiak gorazarre egin deutso, udako euskal–ikastaroko eleder–jaian.

Linok idazle zereginean, hainbat arlo ezbardinetan jardun dau. Horregaitik ez da errez ordu lauren baten haren ekin luzea zehaztasun berezietan azaldutea.

Euskal–eremuko idazleak, laneginak, hizkera–eztabaidak etxeko izan jakoz; eta eremu besteriko lanak eta idazle asko be, ikasi ditu. Elertiarekiko lanak eta historiarekikoak be, euskeraz nahiz beste hizkuntzetan arakatu ta astindu ditu. Eta ahazturiko edo bazterturiko lanak be bai. Sinismen–gaiak, moralekoak, hemengo ta atzerriko pertsonaiak eta euren emoiak zuzen edo itzulpenez jorratu ta argiztatu.

Akesolok lanik ugari, bere izen abizenez lotuak argitara arren, beste hamazazpi izenorde firmatzat erabilia dogu. Lanen mordo hori… itzulpenak eta Hiztegia izan ezik, udabarri honetan, liburu handi bitan argitaratuko deutsoez. 1927 urtetik 1988 arte, 320 idatzi inguru.

Hiztegia, 9 liburuki, 16 urteko saila, izan dau buztarririk astunena, berez luzea ta azkenik ez dauana dalako. Hiru lagunek erabilen zeregina, harrezkero, zelanbaiteko beste laguntasunez, berak izan dau osorik eskeini ahal izateko zoria, nekea ta grazia.

Linok euskerea landu dabenen ezaguera sakon zabala dau. Idazleetarik bakotxak berak zein gai ikutu ta mamurtu dauan, ta zelako hizkerea eratu ta erabili. Ganera zelan, artez ta egokitazunez ala trakets eta baldarkiro. Arean, ikerketak edozein euskalkitan egin ditu.

Linoren prosa argia da, ulerterreza, jatorra, zalantzarik bakoa, oztoporik bage, irradan joan doana. Harako Demostenes totel–motel edo berbartuak bere hizkerea trebe bihurtu nahirik, ahoan harri koskorrak sartzen bazituan be, Akesolok bere hizkerea, mintzatua edo idatzia jasean erabilteko, ez dau harri koskor anaforikoen beharrizanik, bere pentsakera iturburua euskalduna dalako, ez itzulpenekoa, ez ekarria, etorria baino. Beraz, Linoren prosa, ezaguna da, beste inorenagaz nahastagatxa, zinez. Soinua maite dauanez, hizneurtuak be landu ditu, berenez edo itzulpenez.

Arean, gehienbat, ez dau bere burua eleder sortzaileen artean gailendu. Halan be, lan pitxi ta erakargarriak, mamintsuak laga deuskuz. Berbarako, "Atx–osterik Atx–ostera" kronikatxuan, zein lau, zein atsegin, zein gozaro diharduan! Entzun deiogun: "Niretzat txikitarik izan da entzuna Atxoste. Atxostekoa zan nik neure auzoan euki neban lenengo eskola–maixua, Otamotxa ezizenez. Atxoste aldeti ekarten euskue umeai Marie Basoko–ren ogia. Atxostetik agertzen zan, astean bein edo, asto ganean, ogi zuridun andrea. Atxostetik etorten jakun, urtean birritan gitxienez, gaztedi urduria, santzoka ta kantari, auzoko jaiai bizitasuna emoten. Zer zan guretzat Atxoste?

Erbestea, edo beintzat munduaren bestaldea. Gure mundua egunero begien aurrean ikusten genduana zan: gure erria baño askoz geiago ez. Mundu horren azkenengo mugak: Gorbea ta Orozko–aldeko mendi–errezkadak bateti, Serantes ta Ganekogorta, besteti, eta an, urrin baten, Burgos aldera edo, lausopean galtzen ziran lurren baltzunea, guretzat izan bakoa. (…) Mendian zear ibili oi ziran gure antxiñakoak. Olantxe egin ebezan ainbeste ezaupide, eta alkar ezagutuaz, ainbat ezkontza be bai, alderdi bi onein arteko lokarriak estuago ta maitagarriago egiteko."

Akesolo ikerlan amaibakoan ibili izan da, lan berekietarik bereiz. Hainbat idatziri buruz bere eritxia agertu, hainbat lan aztertu eta baita arteztu be. Arteztu ta zuzendu beharra dakusanean, zirujau itzela da. Merezi dabenei, lepo betena emoten ez da makala. Eta beharrik, zorionez, txaloak joten sarritan ez da azkena izaten.

Hizkuntza ta gramatika arloetan nekatuezina, gure elederraz eta idazleez artikuluak artikulu, labur eta luze. Zenbat hitzaldi, zenbat libururen hitzaurre, aitzin–solas, aurkezpen! Eta hizkuntza ezbardinetarik itzulpenak, elemania. Liturgia euskeraratze nekeetan zama astuna luzaro izan dau.

Bakotxari berea emoten zalea, hona hemen haren idazkitxu batzuen idazpuru zorrotzak: Txotxolokeriak salatu eta txotxolokeriak egin; Kontu, adarjotzaileekin; Itsuen errian... ikusi nai ez dauana errege; Jorratzaille batzuk jorratzen; Lauaxeta ez da ain erdal–bertsogille txarra, eta… Itzaldi luzeekin, kontu.

Ixiltzen direanen edota betiko ixildu direanen alde azaltzeko prest egon ohi da aita Linoren gogoa, eta bihotza. Labur zurrian, bere berbakaz, ohar jakingarri bi.

Don Manuel Lekuonak 1970 g. urtean, buru zan bileran harako *kontu ematea* egin ebala, baina egokion aldizkarian ez dala argitaratua izan. Bestalde, Liturgia euskeraz egiten hasi zireanean, Lekuona gertatu zan Batzordeko buru, ta Iparraldeko norbaitek, *Orduen Liturgia* lanetako euskereaz salakuntzea egin eban. Liturgia osoarekiko hizkereaz be, salakuntza bat eta geroago beste bat gogorragoa Lekuona aitatu eta gogor joten ebala, eta ez edozeinek egina, Koldo Mitxelenak baino. Mitxelenak erantzuna behar ebalakoan neuk urten neban Batzordearen eta Lekuonaren alde; eta irain hori zuzendu beharra, gogoratu neutsan Mitxelenari. Aztuta ete eukazan Arantzazuko Batzarreko berbok: "Batasuna… Liturgian ez… oraindik ez"?

Baina Akesolok hauxe be ganeratzen dau: "Eta esan daigun Mitxelenaren alde. Hurrengo artikulu baten, bere salakuntzea atzeratu egin eban, Batzordeak eginiko *Orduen Liturgiaren* euskerea ederra ta jatorra zala garbi autortuz. Asarrekortxoa zan noizik bein, baña ba ekian bere senera etorten eta oker esanak zuzentzen."

Bigarren oharra. "Azkue aita–semeen arazotxu ori, argi jarteko alegina orain amar urte egin genduan arren, alperrekoa izan da. Alan--olango kritikazko arri bat jaurtiten danean, batez be norbaitzuen aurka bada, bide luzea egiten dau, guzur argia ta uste ustela bada be." Horrezaz, Akesolok itaune estu eta mingots hau egin dau: "Nok idatzi ete dau Mitxelenaren izenean argitaratu dan Hiztegi Orokorrak aurrean daroan Bibliographia? (...) Hiztegi Orokorra argitaratzen asi barriari ez deutso mesede andirik egin, aren Bibliografian *Parnasorako Bidea*–ri eta aren argitaratzailleari dagokana idatzi dauenak. Egia eztanari indar barria emon deutso, eta R. Maria Azkue zanari, euskal–iztegigintza bide zuzenean ipini ebanari, bear ez dan iraiña egin. Ordu dogu "somero cotejo" egilleen eskuetatik auzi au ateratzeko."

Nozbait, hogetabost urte joan dira, Akesolo euskaltzain oso egin gura izan eben. Baina berak ezetz eta ezetz. Halan be, Euskaltzaindiari, urgazle da ta, hainbat lan eskeini daroatso. Ostera, ba dau kezka ta ardura jarraikoa beste gizatalde ikastun baten, arean bere, "Euskerazaintza"–n lemazaiña da ta.

Eta azkenik, laburminaren laburminez, guzti hau prosaiko edo berbeta lauezko izan ez dadin, beioakoz, urri, doinu barik, hiru bertso, zortziko txikian.

Jakingura zuzenez
lanerako erne,
urteak gorabeera
prest esku ta barne;
gure euskal–liburuez
irakasle errime
idazle zaharrak ziur
Linogaz konforme.

Egitadetan luze,
barriketan labur,
Bizkaiko burdiñeaz

esaera zuur;
alorra hautetsi ta
lur gogor nahiz samur,
goldea artez daroa
ez gatxera makur.

Agur eta oore
Bero ta goraki
adionez Dimako
seme argiari,
Jaungoikozale eta
euskal zerbitzari...
Bizitzea biontzat
Izan dau opari.

Eusebio Erkiaga

Abandon, 1989–IV–7.

EUSKALTZAINDIAREN HASIERATIK URGAZLE IZAN ZANAREN MENDEURRENA: MIGEL ARRUZA EGIA (1890-1966)*

Bilbo, 1990-11-23
Eusebio Erkiaga

Haren gurasoak, aita Mungiako semea, ama Gatikako alabea, Migel Bilbon jaio zan, hain zuzen Irakaskintzako 2. mailako Institutu etxean, aita hango kontserje zan eta.

Mutikoa, bost urte zituanean, aita hil eta umezurtz geratu zala, Algortako osabek eurenera eroan eben; ama Bilbon lotu zan.

Hamazazpi urte inguru zituanean, Migelek bizikaturea lortu eban "La Polar" aseguruen bulegoan, eta orduan amagana bihurtu zan. Geroago, lanbidea Banco de Comercio-n izan eban eta 28 urtekoa zala Klotilde Sopelanagaz ezkondu zan eta familia ederra izan eben, hiru seme ta hiru alaba.

Arruzak eta biok alkarren ezagupidea lehenengoz zertzean bilbotar euskalduna bailitzan agurtu ninduan. Horraitino, Bilboko euskalduna ete zan, susmoa, aierua sortu jatan kaskarrean. Izan ere, ondotxo dakizue euskaltzain jaunok, orainarte, euskaldun oro nonbaiteko euskalduna izan da, izan gara, txikitatik eta geroago ere, eta hain nabarmena izan da iraupen hori, atxiki hori, bada, Bonaparte printzearen entzumen finak eta adimen argiak, euskera modu anitzaz baliaturik, egin-eginean dialektologi sail adartsua burutu eben eta: lehenbizi euskalki nagusiak begi-ziztan ulertuz, hurrengo subdialektoak, eta jarraian, Jaungoikoa lagun, uri, ibar, haran, bailara, errekarte eta mendi giroko hizkera ta mintzabide berezi ugari entzun, aditu, ezagutu ta ikasi ondoren, hain egoki ta maisukiro, moeta ereduetan sailkatu zituala.

Arruza Bilboko euskalduna zala... Ez nintzan konforme geratu. Arean, XX mende erdian Bilbo barrutiko hizkereak ez dau, nire eritziz, herri-susterrik, arorik ez girorik izan, Bilboko euskerea gino esan

---

* *Euskera*, 2, 1990.

ahal izateko, doinutasun ta molde herrikoi berezirik izan ez daualako. Nire susmoak zutik iraun eban, eta Arruzarekiko ta euskerearekiko nire pekua ha bera hil ondoren argitu neban, harenera joan eta alabakaz berba egin nebanean; hain zuzen, nerabilen itaunea zorrotz egin neutsenean. Euskerea ahaztu... euskerea geroago ikasi.

Eta begira, lan hau gertetako esku artean izan ditudan paperen artean, orainarte jakin ez dodana irakurri dot. Arean, Mikel Zarate zana ere, susmo ta peku berberaz ibilia zala. Hona hemen haren esaldia: "Euskera asko daki Arruzak, baiña «euskaldun barri» usaiña darioe, batzutan, bere idazlanai" *(Bizkaiko Euskal Idazleak*, 203 orrialdea).

Guadianako uren ixtorio-mixterio dalakoaren fenomenoa hemen ere ez ete dogun, neure kautan esan izan dot. Ausaz, ezkutatu diran urak, barriro agertzean berberak ete diran; halako etenik gertatzen ez ete dan.

Eta honela, Guadianaren uren fenomeno hori, euskerearekiko, Arruzagan jazo ete zan, Lizardigan ere... Umetan euskaldun, mutikotan euskera ments izan... Eta barriro, euskalduntze saio eskergak.

Lizardi aipatu dogun ezkero, aldatu dagigun haren pasarte bitxi hauxe. Entzun: "Ara. Badet nik laguntxo bat. Errez-zale purrukatua da iñorena irakurtzekoan. Baña, bera idazten asten danean, luma biurritzen zaio, ta inork ez dio kolperik konprenditzen. Gertatu izan zaio iñoiz adiskideren batek lantxo bat eskatzea: Aizak i, itzaurre bat egin bear diak, erderazko teatro au traduzitu bear diguk... Baña!... (au eskua altxata) faborez!!, erreza izan dedilla, e?... Vanguardismorik ez diagu bear!... Kuitauak, bada, egiñalak egiten zitun, ni naiz testigu; ustez, aingeruak berak baño malizi gutxiagokin itzak yosten zitun: bere lantxoa eman eta zai gelditzen zan. (...) Noizbait ere, orratio, eman diote zearoko etsia. Gure olerkari baten bertso yator errikoi bat irakurriberria zan, eta egillea ikusi zuneko an diyoakio bostekoa estutzera. Besteak, lotsati-samar, ala esan zion: Eskerrik asko, eskerrik asko... Zuek bezela ez dakigu, baña... amaren bularretik aziak gaude beintzat... Zuek, berriz, iñork ba al daki nongo errapetik edoski zenuten? Ateraldi aretxek argi eman zion nere laguntxoari. Bereala, gorri-gorri eginda, izkide errikoiari aitortu bear izan zion baietz, bera etzala txikitan amarenetik aritu..., biberoiakin azia zala..." (ITZ-LAUZ 84-85 orr. Donostia 1934).

IRAKASLE

Arruzak berrogetaz urteak izango zituan euskal-irakaste maila jasora heldu zanean. XIX. mende azkenean Bizkaiko Aldundiak bere kabuz eta diru laguntasunez, lehenengo euskal-katedra sortu eban Bilboko Institutuan. Irakasle R.M. Azkue izan zan; honek, ordezko, Ebaristo Bustinza "Kirikiño" utzi eban. Errepublika denboran, ostera, lau ziran irakasleak: Jose Altuna, J. Gandariasbeitia, Tomas Agirre "Barrensoro" eta Migel Arruza. "Kirikiño" 1929. urtean Maiñarira joan zan, bere sasipera; ez saripera.

Arruzak Estaduko eskoletan be jardun eben euskal-klaseak emoten, berberako Ribera kalean unada baten.

LANAK

Euskeraz idazten hasi zanean 21 urte zituan. Prosaz eta baita izneurtuz be, eurrez idatzi eban. Non agertu be, izan eban, arean: Hermes, Aberri, El Bidasoa, Jesusen biotzaren Deia, Euzkadi egunkaria eta La Gaceta del Norte egunkaria. Azken honetan unada batez 1933-36 bitartean Euskal-atalaren arduradun gertatu zan eta bere lantxoak be, agertu zituan. Gerratean, 1937. urtean "*Eguna*" euskal egunkari bakarrera be, bialtzen euskuzan idatziak. Gerrate ostean, haren lanen argitaratzaile: *Euzko Gogoa*, *Egan*, *Karmel*, *Zeruko Argia*, *Olerti*.

Batik-bat bizkaieraz atondu zituan bere emoiak. Neurtitzez egindakoetan olerki harikoak be bai, baina alegiak batez be, harek arkamele esanikoak. Lexikoan, hitz arruntak, arkaikoak eta neologismoak estekatzen zituan. Joskera artezez idazten ahalegindu zan. Erabiliriko izenordeak: "Garbizale", "Garbizale zar", "Urratza", baina sarrienik "Arrugain".

Harek antolaturiko liburuak:

1. *Método Massé-Dixon*, euskeraz jarria (Bilbo 1923). 160 orr.

2. *Método práctico para aprender el vascuence* (Bermeo 1925) 146 orr., Gaubekaren irarkolan. Atzerri izkuntzetatik itzuli ta euskerari egokitua.

3. *Euskal-ikasbide erraza* (Bilbo).

4. *Euskeraz ikasteko bide erraza* (Bilbo 1934). Bigarren irarraldia, Verdes-Atxirikanean, 107 orrialde. Hitzaurrea R.M. Azkuek egina, orrialde bat.

5. "Etxe-kalte" (Bilbo 1934), Anton Truebaren "El Judas de Casa" ipuina, bizkaieraz ipinita, Verdes-Atxirikanean, 80 orrialde, Arsenio Beaskoetxearen edergarriak.

Lan honezaz Aingeru Irigaray-ren berbak: "Ondo ezaguna da «Arrugain» euskaltzaleen artean, *La Gaceta del Norte-n* bere euskal lanak xurga-xurgaka aogozatu ditzake-ta. "Etxe-kalte"-n darabilen euskera bizkaitar errikoia duzu: argi, zuzen, aratza, garbiegikeria gabe; edozein euskaldun zerbait dakianak, aixa irakurriko du Truebaren ipui au; ala ere, bear bada, gaur eguneko irakurleai lirismu laiñoegi batez jantzia irudituko zaie" (RIEV, XXV, 1934, 198 orr.).

Horraitino, Truebaren ipuin hori lehenago ere euskerara itzulia egoan; Antero Apaolazak egina eta "Patxiko Txerren" izenez Bergaran 1890. urtean argitaratua, hain zuzen Arruza jaio zan urte berean, alajaiña. Geroago, 1915 eta 1917 urteetan barriro ere argitaratua. Migelek lan hori adionez ikusi ete eban? Ez dakigu. Erkatze zeregina gazte ikastunen batek egin lei, bigarrenean lehenengoaren azterrenik aurkitzen ete dauan.

6. Jo (Bilbo 1966). Umeentzeko euskal irakurbidea, irudiz apaindua. Aita Lino ta Olabeaga anaia lagun zituala egina. Editorial Vasco-Americanaren irarkolan, 78 orrialde. Arruza hil aurretxukoa.

7. Irrati-saioak. Azken urteetan, Xabier Peña Albisu lagun ebala Bilboko Erri-irratitik Euskal Orduan zabalduriko saioak. Argitara bageak dira.

Aita Onaindiaren eritziz, Arruza langile porrokatua zan, euskal idazle amorratua. Euskerearen aurrerakuntzarako edozer jakon atsegin, eta besteen ahaleginei indar emoteko gertu egon ohi zan. Hil zanean, Euskaltzaindiko urgazlerik zaharrena bide zan.

Gerrate denboran —beste asko lez bildurrak jota, jakina—, Iparraldera ihesi joan zan, etxeko guztiakaz, eta 1937-40 bitartean Donibane Garazin eta Armendaritzen egon ziran, harik eta urte horretan eta orduan alemanen bildur—, Bilbora bihurtu ziran arte. Hona itzuli eta etorri barritan gorriak ikusi zituen, senperrak, lanaren bila, eta aurkitzen gatx, irabazpiderik ez... Halakoren baten "Harino Panadera"-ren bulegoan sartzea lortu, eta hantxe jardun eban zahar-mailako sari garaira heldu arte.

BIRRITAN ZADORLARI

1950 urte inguruan Krutwig euskaltzainak Bilboko urgazleei dei

egiten eutsen eta Euskaltzaindian hilero bilerak egiten hasi ziran. Juan Gorostiaga, Garro, Arruza, aita Lino... Garrok eroan ninduan ni hara. Aita Imanol Berriatua ere, etorten zan. Krutwig jaunak Julio Urkixo Filologi Elkhargoa sortu nahi eban, bera buru izango eta lehenbizikoan Arruza zadorlari. Erabiliko genduan lanabesa lapurdiera klasikoa izango zen: Axular, Etxeberri Sarako... Buru zanak lexiko eta aditz formen zerrendak atondu zituan. Gramatika egokia egingo genduan, asmo nagusiaren arabera, eta beste hizkuntzetako obra on eta ospatsuen itzulpenak egingo. Isidoro Fagoagak Buenos Airesen ateraten eban *Gernika* hiru hizkuntzatako aldizkarian agertzen genduzan lapurdieraz gure prosak, gure neurtitzak. Aldi hartan Arruzak Ateneuan ikastaro bat edo beste zertu zituan.

Aita Villasante euskaltzain oso egin ebenean, haren sarrera jaia Bilbon, Aldundiaren jauregian ospatu zan, eta sarritan lez orduantxe ere, euskerearen kukuek euren zitala agertu eben, euskaltzain barriaren hitzaldiari Krutwig-ek eginiko erantzuna amaitu zanean... "Txalo luzeegiak" entzun zirala ta. Horrez ganera, erantzun hitzaldi horren paperak han maipuruan egoanak Oleagari eskatu, eta bertatik Gobernari zibilari eroan eutsoezan. Ondorioz Krutwig euskaltzainak begiratuki Hegoe Euskalerritik hanka egin eban. Ganeko egunean harako "busca y captura" agindua iragarri eben. Eta hor amaitu zan jaiobarri genduan Julio Urkixo Elkhargoa.

Geroetan, euskal-giroa zelanbait berotu guran 1960. urtean edo, Bilbon "Euskaltzaindiaren Laguntzaileak" taldea antolatu nahi izan zan. Buru, Nazario Oleaga, ta hor ere Arruza zadorlari. Oker ulertzeak gertatu ziran eta ekintza hori be, bertan behera laga zan.

EUSKERADUN EGUNKARIAK

Arruzari norbaitek euskerearekiko kezkea sartu eutsan, eta horri atxikirik bizi izan zan, untzorria hormeari lez. Aldaketa joerek eta gazte ausartek eginiko erasoak jasaitean, arbindu egiten zan, erre, estutu, badaezpadako ekintza horreek euskerearentzako kaltegarriak zirala uste izaten eban eta. Akulua eskuar eukiten eban, ziki egiteko prest.

Bere sasoian egin zituan istudioen barririk ez dogu. Euskerara itsutu zanetik, gure elederraren ezagutzea be tamainan izan ebala leitekena da; eta gaztelaniar literaturarena ere bai. Gogoan dot harek, agirakako idatzi baten "culta latiniparla" aipatu ebala.

Dana dala, eta noizbait idatzia dot, ez eban eguno bere burua handitzat jo. Irakasle ezezik, kazetari ere izan zan. Bestek izan ez eban eretia gertatu jakon eta aukera hori ez eban alperrik galdu, ondo ustiatu eban: *La Gaceta* zalakoan, 1933-36 urteetan eta geroago 1956-58 bitartean euskal-atalaren arduradun suertatu eta bere lantxoak ere agertu zituan.

Ba zan Bilbon, eta ba da beste egunkari bat, zeinen tiradea gerrate aurrean txit urria izaten zana (izen bikoa, ta bigarrena *Euskal Herria)*, baina orain aspaldi tirada itzelak, ikaragarriak egiten dituana. Horraitino, eguneroko indartsu horrek —Axularren esate-moldez adierazoko dot—, euskerea... ez dau senide, ez dau etxeko, ez dau auzo, ez dau ezagun ez lagun; arrotz zaio, mamu zaio, atariko haizea aina ...

Barriro ere, Lizardi aipatuko dogu, honek 1930. urtean euskal--egunkaria albait lasterren atera beharrez eginiko istudio ta aurrekontuak ikusi izan ditut eta. Egunkariaren izena *BAI* izango zan (Aipatu beste egunkari indartsu horretan *BAI* versus *EZ*).

Oraingoan, euskal-egunkariaren haur-min eske dabiltz euskaltzaleak. Irakurleak non dira, perretxikoen antzera sortuko ete? Gainera zarauztarrak Euskerea haundiki soinekoz jantzi nahi izan eban.

Esanak esan, biok ondo merezi izan eben eta, degiogun gorazarre Lizardiri, degiogun gorazarre Arruzari.

BOLTXEBIKIAK, EGUZKITZA TA HONEN SAIO «GIZARTE AUZIA» BARRIRO*

Bai, jauna, Boltxebikeek eta euren senitartekoek —nork uste izan eban?— hirurogetamar urteko zigor–jaurriko erresumaldi ostean porrot egin dabenean hain zuzen, plazaratu da bigarren aldiz Juan Bta. Eguzkitzaren azken liburu hau.

Eguskitzak, saio barribera hau 1935 garren urtean argitaratu eban. Horraitino, 1937 garren urtean, gorriek barik eskumatar eritxenek sartu eben preso abade hori. Eta 65 urte besterik ez ebazanean, Lemoa bere jaioterrian hil zan bakardadean, apaltasunez eta beharrizenean.

Bera hain zintzoa izanik, sasoian egoanean, arerioak jarki jakozan. Abertzalea zala susmatu ebelako. Gerrate zitala hasi eta hurrengo urtean, 1937 g., arerioek jarki ostera be. Abertzalea zala susmatu ebelako. Hil eta gero be, haren begiko zamarraren bila ibili danik izan da.

Bigarren argitarapen honetan Andres Urrutia izan da eragile jaseko ta aitabitxi. Liburua Eusko Jaurlaritzaren gerizan, Klasikoak (42) txortan girotu dau.

Euskerazale ta irakurleek Eguskitza gehienbat ahaztuta daukela edota ezjakinean, emon deutsa senak eskribau gazte honi. Txalogarria beronen asmoa ta egitadea.

Urrutiak «Sarrera» labur baizen mamintsuan, hainbat alderdi erakutsi ditu: Eguskitza nor izan zan, haren grina langilea, jokabidea eta jarduna, eta utzi zituan lanak. Haren hitzaldi argi ta biribilak ixilak jan ditu, zoritxarrez.

Taket sendoa bailiren, xede bi lurrean sartu eta tente–tente jarri ditu Urrutiak:

a. Ordurarte euskerearen inguragian, erdi arlote, arrotz eta ezezaguna zan gizarte arazoa don Juanek zelan gure berbetaratu eban;

b. Euskaltzain jakintsu ta azkor horren hizkerea zein modutakoa izan zan; eta jakina, haren ideiak eta jardukizuna, berezko argi–ilunakaz, oraingoek jakin ahal dagiezan.

---

* *Karmel*, 2, 1991.

Izan be, belaunaldi biko irakurleak lemoarraren euskal–ekarpenaz baraurik dagoz eta.

* * *

Euskal–idazlerik gehienak abade eta fraile izan direana, jakina da. Ausaz, langile ugariago behar zan ardantzan, sail eskasa gertatu da. Are eskasagoa, ostera, kaltzadunen saila.

Gizaldirik gizaldi jente eskoladurik gitxi izan zala zurigarri bedi. Eta guztiz penagarri, euskerearen esparruan ikasitakorik banakaren bat baino ez izatea.

Horrek ekarri dau lau mendetan egin zirean, euskal libururik gehienak eleizako edukia izatea: Jaungoikoa, sinismena, aginduak, sakramentuak, birtuteak, arriskuak eta infernua. Ordurako labakitua egoana lubarri bihurtu nahi izan dabe idazle askok, eta moduren baten, bestek urraturiko bideari segi. Besterik egiterik buruak emon be ez. Arimearen ardurak, guztiz be.

Alabaina, hau da kontu zelebrea. Erlegino arloan sarturikoak izan dira, zori onez, euskal ele ta solasa ele idatzi bihurtu dabenak. Eurak izan dira gehienbat hiztegi eratzaileak, herri–jakintzea batu dabenak. Beste hizkuntzen eretzean berankor baina, gurean olerkari ta nobelagille goiztar izan direanak.

Eguskitza be abadea zan. Bere gardia ikastea ta irakastea. Oneraspen gaiak zuzpertzen ahalegin egin eban. Santuen bizitzak euskeraz jarri ebazan. Emakumeen mundua aztertu eban, artikulu jakingarriak idatzirik. Euskerea bera, sakonkiro arakatu eban.

Eta guzti hori, bere eguneroko lana, Lekeition Latinidadeko irakasletzea ardura zoliz beteaz.

Jan–edanetarako ez baina, lanerako eukan joereari amore emonez, aldi haretan bolbol irakiten ziharduan gizarteko ezinegonaren zioaren barri ta zarraparrearen barri jakin behar ebala otu jakon. Eguzkialdean paradisu gorria han egoan. Paradisuan, bai gero?

Irakasle gorritzakoen auzimauzi, esate ta abarrak jakin; eukitsuen eta goikaldekoan larregikeriak, eta bestalde langileria behartsu ta bizkarrean karga astunez… gizartearen ordurartekoa bizimodua iraulia izango zala zan entzutea; eta halanik, goikoak behera, ta behekoak gora, nahiz–ta hauxe ez jakin.

Osapidea izan eitekean doktrinea eskuar eukan. Arean be, Eleiza katolikoaren arnasan ebilena.

Une horretan Eguzkitzari jardukizun barrirako elementu laburrak, hitzak falta jakozan. Josteko, untzeak eta akerrak eta bandak falta.

Aldian aldiko, zorretan sartzea ez zan aro ona orduan. Oraintxe gagoz zorrez beteta, hizketan eta diruetan, eta danok nasai.

Elementuok euskal sutegiko junguran moldatzen ahalegin egin beharko.

Ordu onean edo txarrean.

Itaurrekorik be ez, aukeran. Seinak jaio behar, eta troxik ez. Halan be, beste lau hizkuntza jakin arren, arazo horretako lerroak euskeraz idatzi ebazan, pioneru bilakaturik.

Gurean, hizkuntzea ez da letra bihurtu beranduarte. Hor izan dira bertsolariak eta testulariak, ipuin esaleak, sermolariak, esatariak. Entzuleak nahikoa, irakurlerik gitxi, gizaldiak gizaldi. Uretan angulak lez, banakeria.

Berein liburutan deabrua protagonista. Honek bai izenak euskeraz: txerren, satsua, tuxuri, akilimarro, prakagorri, demonino, barraban, beste mutila… Deabruen antzerki pastoral bat egiteko aina lagun.

Pekatuen txirikordan batez be, seigarrena buru. Eta pekatarien artean, agurak hezeen. Gerotik gerorako horretan, atsoek maila apaleko dirudie, dinot ba. Eta «Axular» dot orain gomutan.

«Axular»… bai, ba. Gizonari, salbamena lortu egian, liburu jori baten lehenengo zatia eskini eutsan, egitez; bigarren partea idazteke lagan eban ezkero. Idazle nafarrak 87 urte zituen GERO liburua argitaratu ebanean, eta hurrengo urtean hil egin zan.

Nafarra «euskal idazlerik bikainena», «Orixe»–ren behinolako berbetatik. Lekuona zaharraren esatez, GERO latin kutsu ta guzti, euskal libururik aipatuena. Zera, gorringo bikoa, Bilbon esaten dakien lez. Koldo Mitxelenaren ustez, gehienbat goretsiriko liburua.

Askatasun haundiz maneatu eban urdazubiar apez jakitun eta bakunak bere orrien txortea. Askatasun haundiz —aita Granadaren edo besteren baten putza bai ala ez, hor konpon— hainbat gizon argiren eretxiak irabiatuz.

Esan dagigun nafarra, agurearen luzamenduaren bildur zala. Horraitino, aita Bartolo gazteen bildur zan; antza danez neska–mutilak abotxak lakoak izan eitezan gura eban. Abotxa odolbako arraina da, txikerra, bokartaren taiukoa.

Orain berrogei urte inguru, berandu, mihaztatu neban lehenengoz idazle nafarraren eztia. Gozaro ta harrimenez, hatan be. Eta harrezkero idazle hau estimadu dot, bere lanari euskal arnasa bedegarra dario ta. Euskaldun zaharraren oihartzuna. Maixua, erabat esan.

Horraitino zer jazo da, zer agitu da?

Maixu hain haundia izandakoak, ez ikasle ez jarraitzaile lerdenik lortu ez dauala.

Zelan? Belan ta kapelan —esakune antzinekoaren berbak.

Espanturik gerta ez dadin, besteren hitzez azalduko dot bertatik. Koldo Mitxelenak —hau be, maixua, noski— bere liburuan (Historia de la Literatura vasca, 1960, 74 orr.) jarri ebana, dagoen dagoenean landatuko dot: «La argumentación es clara y directa, los argumentos *ad hominem* están seleccionados y presentados con rara habilidad y el lenguaje es de una franqueza que ya no vuelve a encontrarse en los libros vascos de piedad».

Ta hiru mende iragan dira.

«Axular»–ek bere lanegin literaturatsuan ba ditu orraziak eta garrangak. Eguskitzak, bere ele gartxuan, langak. Arean bere, garbikerian… zikindu ete dan uste dauanik be, ba da ta.

Eta eutsi honi! Aita Uriarteri barriz, latin testuei lotuegitxu ari izan dala akometidu deutsoe. «Nagusi jauna, hauexen da lana…»

Barriro be, esan beharra da. Lemoarra batez be, hizlaria izan zala eta haren etorria berbaldian edota idazterakoen trenbide berberakoa izan ohi zala. Esale ona, argiro ta jasean amaitu ohi eban azaldu beharrekoa. Euskal hitzurren jatorrean; ardatzean ez egoan hondarrik, koipea baino.

Anaforikorik be ez, of course.

Etenik ez errenik ez haren ahoan. Errenak, orain ditugu. Alkarrizketetan, telebistako barriketetan entzulea lotsatuta geratzeko bestean… «eta bueno, eta ba… ba… ba, eta orduan… osea, ba… ba… ba… eta bueno»… Letania dinozu?

Euskaldunak totel edo berbartu bihurtuko ete dira?

Betoz prestamuak preminea danean, baina prosodia lorrinduten badogu, akabo artoak! Euskerea, latinaren antzean, paperetan soilik geratuko.

Eta azkenik, harira bihurtuz, «Orixe»–ren berba honeek Eguzkitzari buruz: «Gai zailetan eta argi euskeraz au baino obeki mintzatu denik ez dakit ote den Euskalerrian»

Eusebio Erkiaga
1991

ORDU ONEAN, AUGUSTIN*

Txikitako lagunak eta eskolako lagunak berba bigun eta samurberak izan jakuz, gure belaunaldian behintzat. Oraintxe be, eretia dogunean alkarreri gomuterazo eta pozarren jarri ohi gara. Txikitako lagun, betiko adiskide; edo horrelakoren bat.

Uri berberean jaio ez ginealako —bai, ostera, auzo auzuan— Augustin eta biok, zehatzean ez gara txikitako ez eskolako lagun izan. Horraitino geroago, hogei urtera heldu baino lehen —baina bakotxa bere urian, eta alkarregaz ez gorputzez— euskal eskola zabal eta sakabanatuan eskola mutil berezi bihurtu ginean.

Augustin gazterik hasi zan idazten eta zahartzaroan be, lan hori, ez dau laga. Gizonaren etorria! Irakaslerako eskolatu zan, eta bere bide hori ez eban itsumustuan edo arinkeriaz aukeratu. Halan be, bizitzaldian era ezbardinetako ardurak eta ekinak izan ditu.

Bere jita, kazetariarena izan da. Joera honek gogoa ta adorea ezezik luma bizkorra be eskatzen dau; eta erabili behar dan hizkuntzea sakon zabal ezagutzea be bai.

Euskal atala eukan egunerokora bialtzen zituan bere lehenengotako idatziak, bizitza arrunteko albistako eta ganerako esamesak. Harik lasterrean teatru lanak atonduten hasi zan. Kanpoko mundua bere barruko ganbarara eroango eban, eta hor lagunak, pertsonaiak, jazokune eta egoerak, apan eta garrak morapilotuta, elertiko emoi bihurtuko. Hurrengo urratsa kontakizunak, ipuinak, nobelak idaztea. Poesi mendiaren aldapan be saiatu izan da, eta kanta barrien letrak ezezik olerki sentigarriak be laga deuskuz.

Aitatu doguzan arlo guztietan han hor hemen izan direan batzaldi batzuetara bere lanak agertu eta urteetan sariak sari lortu izan ditu.

Idatzitako edozein lanek bere balioa dauka, gurari dagokionez. Baina jantzia, hizkerea be nahi–ta–nahiez aintzat eta aztertu behar. Hariari jarraitu ahal izateko azalpen eta deskribapenak jasean atonduko ditu, eta beste ikuspegia, alkarrizketak berebiziko nortasuna dabe Augustinen lerroetan. Herriagandik zuzenean harturiko hizke-

---

* *Augustin Zubikarai omenaldia*, Ondarroa, 1992 / *Zer*, 169, 1992.

rea dau–ta, gure haietako arrain bizi–biziak lakoak dira. Eztabada zorrotz eta batzuetan gordin zamarrak, irakurleak irribarreka beraganduten ditu, testulariaren gatza ta piparra daukelako.

Horrelan ba, edozetariko arrainak hartu ditu literatura itsasoan, baina arrainok —pita mehea edo lodia, zelan dan— banan banan harrapatu ditu, eta ez arrasteruaren sare transkilagaz brastadan. Argitaratu dituan liburuak hainbat dira. Bakotxetik bat hartu eta besuartean estutu ezetz!

Erlojuaren aurka diharduan gizona da. Gibel onekoa, ostera. Eginbeharrak arduraz hasita arduraz amaitzen dakiana. Augustinen errekan ura–beherak izan arren, bere ontzirik ez da sekula hondoa jota geratu. Beti azalean, beti aratinik, eta karelak garbi.

Bere idatzietan Ondarroa da gehienbat protagonista.

Eta itsasua…

Langelaratu, eta paper zuria eskura baino lehen, idazle honen buruan ordenadoreak lan egin dau. Ezin bestela hainbeste gauza ezberdin jorratu. Eta ederti orraziz orraztu.

Kontakizun ernagarriak maneatu ditu, gure aldikoak eta. Baina lehenagoko ele ta pasadio salmeratsuak be, zoragarri kontatu izan deuskuz. Aldi erbi bainotsuetako gertaera gazi gozoak, arrantzale herri behartsuaren arnasartean uretuak. Kortzeleku mamuen geriza luzeak eta itsasuaren marru berbots antzekoak sortuerazoak.

Horraitio Zubikari idazle bakarrik ez da izan. Irratietan eta jentaurrean hamaika hitzaldi egin dau. Teatro alorreko lan jasekoak be eratu ditu, eta ondarrutarrak antzerki eta kanta, herririk herri ibili izan dira, unada ilun eta bildurpekietan hartan be. Aspaldion Kultura Etxeko artezkari duzue eta eragile adoretsu.

Txomin Agirre mozal eta minberatsuak hogeigarren mende honen hasierako Ondarroa ezagutu eta kantatu eban; bere "Arranondo" kutuna.

Harrezkero Zubikarai Bedialauneta duzue haren jarraitzailea, uriko bizimoduaren esale nekaezina. Ganera, uri eta baserrietako historiak eta argitasunak batu, eta liburu asko agertu ditu. Inguruetako zokondoak be zehatz ezagutzen ditu, perretxiku zaleak bere bazter ezkutuak lez.

Hizkereari gagozala, behin eta barriro esan dau R. M. Azkueren hiztegi totoloan, Artibai amaierako berbarik asko ez dela sartu izan.

Oraingo aldian, filologo ugari da euskal–alorrean be. Augustinen lanak arakatu eta ha bera egiten hasi zan hiztegiñoa mardotuteko, hor dabe miats aberatsa, berberaren orrialdetan.

Zein gisa ta eder dan herriko seme zintzo bateri jaioterrian guztizko omena atondutea; eta beraz, euskereari.

"Ondarru, herri bera"… esaten, txikitatik dakigu.

Amatu duzue sasoi egokian, eta berotasun horretan iraun begi herriak.

Zeuen "itsaso bazterra" goratuten ez dau parerik izan hirurogei urte honeetan.

Ordu onean, Augustin.

Eusebio Erkiaga, 1992

EUSKARAREN INGURUAN
(gerra ostekoak)

EUSKARAREN HEL–OIHUA*

Unamuno zuzen othe zegoan?

Euskalzain batekin Euskararen oraiko mugaz mintzatzen hari nintzalarik oraindik orain, Bonaparte iakintsunak egin zuenez gure egunotan ere, euskal mapa baten egitea egoki lizatekeila adiarazi neraukon.

Bainan geroztik, nire baithan galdegin dut: erraz othe lizateke egun mapa horren egitea? Eta eginaz gero ere, zer obarik lekharkegu euskalzale bakhanoi bihotz min erdiragarria baizen?

Iphar eta goizerriko eskualdeetan, zorionez ba omen du indarrik orain dano euskarak. Bidaoaz hegoirantz, ordea, izurrite gorriak io du; gainbehera doaku errekara, hondamendira. Aspaldiko hamabortz urtheotan euskarak, ehuneko berrogei ta hamarr ez othe du galdu?

Eta, zer dela–ta galdu duela? Eta beraz, zer egin litekela euskararen alde? Galdera astun eta larri biok azterr ditzagun iraizez bedere, ez iakitun bezala, ezpait–gara, euskalzale soil anzo baizik.

* * *

Behinola «Lizardi» gureak erran othola —bai egoki ta zorrotza ere!— gogora dathort.

"Egia ikhus dezagun, ama!"

Euskararen erori beharr hau aintzinadanikoa dugu; gure mintzaira aspaldidanik dugu erkhintzenago, ithotzenago. Galbidean doan edozer gauzak, gaitz ithurri bia izatu ohi ditu maizenik. Bata, kanpotiko gaitza, gehienez bortxazkoa. Barruko edo barrnako gaitza, bertzea. Hauxe bethiere makhurrena, okherrena, zitalena.

Euskarak ere, ondikotz, gaitz bia hoik izan ditu. Enda tipi baten hizkuntza izaki, inguruko herri handiagoen, indartsuagoen eta iakintsunagoen mintzairek gero ta ithotzenago duten landugabe hau. Bertzalde, gure herriak galdu baitzuen beraren argitasuna, eztu nehoiz egokitasunik ukhan hizkuntzaren alde legebidez ezer egitekotz. Horra

---

* *Gernika*, 18, 1952.

gure arbasoen bekhatu larria. Ondorengoz, bertzeen menpean mintzo bikhoitzik ardiestea gauza zaila izan zaiku, eta orainez gero, zailago. Eztezagun zakhur ametsik egin. Eta barnako gaitzetaz, zer erran? Euskalari ta idazle aiphagarri ta goragarri oso gutiak eztira, nabaski, gure gaitzespen huntan barne: 200 bat aphez eta fraile eta 50 bat prakadun, "Orixe" hazkarrak berriki eta zehatz erran duenez.

Hirurehun urthe duela, Atsular handiak nigar egiten zuen euskaldunen zabarkeria ohartuki. Ordurarte egina deuseztzat etsi genezake; geroztik egin dena ere, berdintsu da hizkuntza baten iraupenerako. Izan ere, litteratura idatzirik eztugula diotenek, egiaren urbil dabiltz. Halarik ere, ezta hori larriena. Euskalduna buru–iakintza zale handi ezta izan. Eztu nehoiz Universitate baten egarririk suma. Ez lehen ez orain, ezpaitu nehork txintik atheratzen gai hortaz. Banaka batzuen asmo ta ahaleginak izan ezik, herritarrik gehienek jakintasun–gogo bizirik agertu eztute. Beraz, hekien iakintza bereziaren zaletasunik ere ez, eta ondorengoz, ezta hekien mintzairaren maitetasunik ere. Zertarako erabili du euskaldunak bere hizkuntza? Mintzatzeko soilik. Halabainan, XXgarren mende hunen hastapenean euskarak zenbait pizkunde ukhan du; zenbait diot eta ez aski…

Eta pizkunde hortan ere, buruz iokatu ahal dute euskalariek? Bai eta ez. Zorionez 1918 garren urthean, Euskaltzaindia, Euskal Akademia sortu zan. Sortu, bai, bainan zer indar, zer lotsa eta zeintzuk laguntzaile ukhan ditu Biltzar eder horrek? Gerthatu othe da nehun Akademia bat irazan eta geroz, hizkuntzalari anhitzek irakasgo horren aginduei iaramon egiteke ihardukitzea?…

Bertze okherdura handirik ere ukhan dugu: hizkuntza, bustina bai litzen eskuetan hartu dugu, eta bakhoitzaren nahimen–ariz taiutu eta moldatu gura izan dugu; erabaterako neologismu egarria, aditzak ere batbatean berrizkatu beharra, goizetik gauerako garbikeria kaltegarria, euskalkitargo gordinegia, eta syntaxis edo ioskerari buruzko arhinkeria ta axolarik eza. Lehenari irau–azi orde, berrikeria minak iorik ibiltzea. Eta gai huntan "Ni bekhataria" erran beharrik eztuena, zorioneko bedi…

Euskalduna, Azaolak berri erran duen bezala, ezta aphala, herabe eta harro baizen. Eta harrokeria hortan, euskara! baserritarren eta arrantzale behartsu eta ez–iakinen mintzo noharroin hori! zabartu eta baztarturik, bertze hizkuntzaz hari da. Eta huna, orain, ez arbasoena, geure, buruon bekhatu ahalkegarria baizik. Orain, nire ustez,

eztira euskaraz komunzki mintzatzen, erdara ongi eztakitenak baizik. Baserritarrak berak erdaraz ari dira. Naparroan, Bizkaian eta Gipuzkoan bertan, hiri nagusittoetan euskara hil hurran da. Hirixkaetan ere herio minak io du. Gure artean arrantzaleak bait ditugu iende ez–iakinena, hauk dira oraindano euskaraz mintzatzen direnak.

* * *

Zer egin bada, euskararen alde? Arazo latzgarria, lanbide gaizto. Lehengo euskadunak, gehienbat ez ikasi ta letragabeak ziren arren, halarik ere euskaraz ederki mintzatzen ziran. Egungo euskaldunei ordea, gaitz eta zail zaie euskararen ongi ikastea. "Aditzera lar, verbu adar eta adaxkaz bethe hori!" —erraiten deraukute. Zailegi bilhakatu othe da bada gure hizkuntza, hogeigarren mende huntako iende argientzat? Eztakit nik zer erran ere. Dena dela, euskalzaleek zerbait egin behar dugu euskararen aizatzeko eta zuzpertzekotz. Alla, etsipen ospak beza eta zapalduko gaitu?

Hirurezpalau urthez Iruña zaharrean bizi den ene herrikide bati galde deraukot: Eta Iruñen euskararik entzuten ahal da? eta ihardetsi zerautan: Bai, Bilbon baino gehiago behintzat. Izan ere, entzun dudanez, Naparroan ba ditute euskal–irakasgu bia. Bizkaian eta Gipuzkoan, zer?

Orraitino, oraindik orain, euskararen aldeko hitz mamitsu batzu entzun ditugu eta ez edonoren ahoz; Salamankako Irakasle argi Tovar iaunak egin euskal liburuaren hauxe derra: "Tamal eta penagarri lizateke Euskalherriko mendietan euskara zahar ederraren mintzo gozo bethierekotz galtzea. Ama bakhoitzak irakats bezaie bere haurreri hizkuntza zahar bikain hori. Españaren harrogailu dena aintzinako gauzen iakitekotz jakintza–giltz".

Huna hemen bertze kimu batzu ere. Donostiako "Amigos del País" delakoak, orain hirur urthe duela, aldizkari tipi bat egiten du litteratura hutsezkoa, "Egan" du izena eta erdia euskaraz agerten da.

Hiri hortan berton igazko San Thomas egunean Eukal–Olerti iaia izan zan "Educación y Descanso" delakoak antolatua, bertsolari–gudu ta guzti. Bilbon, orain berriki, Atheneu Berriko gazte batzu euskararen ikasten hasi dira. Hiri hortan, Seminario euskalzain iaunak garbiki eta biphil ihardukitzen du egunkarian noizik behin, euskararen alde. Urthe haukietan agertu liburu aiphagarriak ere ba

ditugu: “Euskaldunak” eta “Misala” “Orixe”renak; “Arantzazu” eta “Ama–Semeak” Mixelenarenak; Exaideren “Alostorrea” Amilaitzen kantak…

Laburzki erran: handizki, aberats eta iakintsuak hasi ziren lehenik euskararen ahanzten eta baztartzen. Orain, iarraibide okher hortaz, herria berdin hasi da. Anhitz herritako aphezek ere, utzi dute euskara, nahiz eta eliztarrik gehienak iakin eta mintza. Monjattoek aintzina utzi zuten…

Guzti hoik, goikoak alegia, berriz ere euskararen alde baldin hasiko ba lira —Kataluñan ehun urthe ta gehiago hasi ziren bezala— gure hizkuntza salbatua lizateke oraindino. Horixe dugu bide bakhar, Krutwig jaunak adiarazi duenez berriki, lehen bertze batzuek errana: “Euskara kultur hizkuntza bihur dezagun; aitzitik, laster hilen da”.

Zer egin? Lehengo “Euskararen Adiskideak” edo “Euskalzaleak” berpizi, eta Euskalzaindiaren arnasara bildu. Politika arloetaz landa, bakhoitzaren herriketa asmoen gainetik, Euskararen maitatzaleak alkhar besarkatu, elkharri eskuak eman, elkhar berotu, elkhar lagundu eta ugaritu, hedatu, zabaldu ta berretu.

Atsularren oihua galdu eztela adiaraz dezagun; Azkue iaunaren bizitza eta lanak alpherreko eztirela izan sinistaraz diezegun euskaldun guztiei lurbira osoan. Eta Etxeparen heiagoraren oiharzuna odol bilhaka bedi guregan eta gure semeakan: Euskara ilkhi hadi kanpora; habil mundu guztira!

ERKIAGARRE

ERABILTZEKE, EZTUGU EUSKARA LANTZEN AHAL*

Bai, Agramuntea iauna, "etimologitis" ere badugu.

Zuzen ari zara, Tristan zaldun hori, nor zaren eztakidan arren.

Badirudi, egitan ere, nehoiz euskal–gaiez deus idaztekotz lehenbizi egin behar dena etimologiaren bat agertu, hauteman eta igartea dela.

Bainan, ez othe dugu orainarte etimologiarik larregi eta sobera ukhan?

Nonbaiten gerthatuta erranen derautzuet.

Bazen herrixka tipi bat, menditartean edo basaburuan zetzan hiri irribera.

Udaran lagunik anhitz biltzen zan lekhu hartan; iende askok zuten ioera bazter atsegin hartara.

Hauien artean, zaldun buruiantzi eta ikasiak ere baziran: asmalari, lege–gizon, bai eta atxeter edo osagilerik aski ere.

Behindola, udazaleetariko andere eder, zabal koloregorri bat ondoezak io zuan, eta eri eta makhal zetzan. Lehenbizi, miriku adiskide bateri hotsegin zeraukoten. Udatiarretakoa, alegia. Hau, beharrik, espezialista zan, eta berehala andre eria mirikuak ikhusi zuenentz galdetu zuen.

—Ezetz, ba! hiriko osagilea hauzoan baitzan.

Eta begietako espezialista zenez geroz, andere eria zerbaixka ikhertu eta gaitzaren berri hauteman gabe, alde egin zuan.

Bertze atxeter ezagun bat erathorri zuten. Hura, eztarri–beharrietako baitzan, ikhus eta mikhus, ezeren ahantzik eman gabe ilkhi zan. Hirugarren osagile udazalea ere deitarazi zuten, eta.

—Mirikuak zer erran du? —galdetu zuan.

Hiriko osagilea kanpoan baita —ihardetsi zeraukoten— eztugu haren agerraldiaren ukhaiterik ardietsi.

Eta hirugarren espezialistak ere, X izpieri eta odol-analisiari buruz mintza ondorean, bere hartan utzi zuan andere gaisoa.

Handik geroetan itzuli zan hiriko mirikua. Apala, laua, hanpuruskeria gabea genuen gure gizona. Agian, ahalke zerbaitek zirikatu

---

* *Gernika*, 22, 1953.

zuan haren barna, hiri haundietatiko osagile bereixien aitzinean ager beharrez.

Hamaika haur ikhusi izan zuan iaioten! Hamaika zahar hiltzen! Hamaika gazte eta garatu osatzen eta sendotzen! Bertze espezialistak, agitz iakintsuak izan arren, etzekitena!... Eta heldu, eta ikhusi, eta garaitu! Andre eria ikhertuala, osabidean iarri zuan. Eta egun gutiren buruan, eder eta panpoxa ageri zan gure andere zabala.

Handik ziri, hortik uki, hemendik kilika, gure mintzairak ere baditu espezialistarik anhitz. Batak ioskerari buru ekin derauko; bertzeak, phonetikari buruz; hunek, aditzaren bihurkerak azaldu ditu; urliak, mintzosoinuak ikasi. Ederki, oso ederki; beharreko baiditugu, bioakioez ene txaloak.

Bainan, Jaingoikoarren, aski dugu etimologiari buruzko erdal–lanik! Espezialistak, teknikaren zorrozkeriaz eta lankailuen laguntasunaz ari diren artean, bada, eria, osasun osoaren behar den eria —¡euskara gaisoa!— osatzen ahal ezpaita.

Unerik larrienen dugu gure mintzaira, euskaldunok, eta ezta aski ahalegin theorizkoetan aritzea. Erabiltzeke, eztugu euskara aintzen ahal, eta geuk landu ezik, bertzek egingo eztu.

Bizpairu hilabethe duela, Iphar Ameriketan sorthu euskaldun seme bat heldu zan Bizkaira. Bazekien ingeles, nabaski, bainan baita euskaraz ere. Hiriburu huntako Banku–etxe batera io zuan, eta euskaraz mintza. Hango sehiak etzekian tutik bere odolaren minzorik. Eta Iphar–amerikarrak, harridura zerbait arindurik, ialki zeraukon bizi–bizi:

—¿Zer egiten duzue, bada, euskaldunok, zeuon hizkuntza alde?

—¡Etimologiñoak erdaraz, iauna!...

¡¡¡Guti ahal da, arranopola, ogeigarren mende iakinduriatsu hutan???

ERKIAGARRE

KEZKAK ETA KOXKAK*

Ba ditugu bai, oraingook, alde guztietatik. Batere gabe bizitea ere, gizonaren arioko eztalako. Bearrezko, beraz, zerbaiten ximiko ta atximurkada izatea. Bestelan, nagikeriak eta egongoxoak malgutu ta irotuko ginduzke–ta.

Batetik eragozpen, bestetik, naspil; andik setakeria, emendik ezune ta bagetasuna. Zer egin bear du gizonak, atzera? Kokilduta geldi lotu? Aurrera? Bai, beti aurrera, kemena dueno. Bakoitzaren… opetan argi–izpiñoa ezarririk.

"Artizarra zeruan
agertzen danean
ipurtargia ere
izar da, lurrean…"

Orra "Lizardi"–ren espabageko aapalditto bat. Giar, mardul, txukun.

Ba ditugu gure kezkak. Mundu au txiki bilakatu zaigu, eta erri aundietako agintari ta jakitunak ba dituzte beurenak. Beste mundutxu berriak sortu nai eta… norbaitzuek or eratu dute delako "Sputnik". Artean… besteak auxe esan bearko: eztut nik.

Gure zelaitxoan, or ere baditugu kezkak. Eta are, koxkak.

* * *

Ezagutzen dut nik Peillo bat. Auzoan bizi baita. Pakea utzi, ta geroztik pake–guraz dabillena. Orra, etxea urratu ta gero berria egiteko modurik ez. Aren amak onelatsu esan oi dio: "Ai, Peillo gurea, beti erdipurdi; leen utsegi eta orain beteegi."

Zertaz zegoala, baiñan, utsegi? Edonork omen zuan emaztegei panpoixa bat, eta Peillo gurea, ordea, gabe. Gabe eta triste, nunbait. Alabaiña, egunak joan egunak etorri, gauzak izan du beste arpegi. Orain neskatx geiegi omen ditu, sobera ta larregi. Zenbat? Eta zortzi, asteak dituan egunak baiño bat geiago.

---

* *Egan*, XI, 1958.

Astelenean, Pili. Astartean, Nini… eta iganderako, Nere eta Lore. Baiñan, zein goizean eta zein arratsaldean…? Or untzea.

Kezka omen zebillen andregairik etzuela–ta. Orra orain gaiñezka bildu. Maats mordoaren aleak iduri.

Kezkak sortu omen dio koxka. Abejondeiola!

* * *

Beste onek, ordea, andre bat izan eta pakean bizi, eta ezin alaz ere naikotu. Au, Txomin degu. Txomin Buskantz, alegia. Nik neuk, Txomin Saietsbiko deritzat.

Onek koxka zuen. Astia emateko aukerarik asko ez omen zuen, eta beti asperturik, gizarajoa. Etxe bateko gorabeerak gutxiegi izan arentzat. Ura bai mutilla! Eta, ez zalantza ta ez ximiko, beste baten billa ibili ondorean, aurkitu noski nai zuena. Bigarren andre, alegia. Ez ordea leengoa bezin merkea. Garesti–samarra ain zuzen ere. Baiña eztio…

Onek koxka kendu omen du. Orain batera bage, lasai bizi omen da.

Lendabizi, kezka kendu baitzuen. Errotik gaiñera.

Amaika amaika ta erdiko!—gure sorterrian jalkitzen dutenez.

* * *

Ba dugu bai gure kezka. Orrek garabiltz larri ta pozik gabe, geienbat, euskaltzaleok. Eta koxkak ez gutxi. Inguru ta barne, leen eta orain. Etzaio komeni arean, koxka auek ugaritzea, guztiok maite dugula–ta, esan ta esan ari geran oni. Ez gaitzala, arren, azalkeriak azpiratu. Ez gaiteala, otoi, arako illobi zurixkatu aien iduriko itzuli.

Euskal–miña barru–barruan dugula–ta, ara–onaka gabiltzanok, sentimentu utsez ezin genezake jokatu, ain zuzen, ogeigarren mende zorrotz ontan. Izugarriak dira koxkak, eta eztira naikoa borondate utsezko noizpeinkako saio bakanak. Ez. Eginbear zolia, egitarau ondo ikasia, argitasun, lankidego, gizarte–lagunak, almen ta dirua: ainbat eta ainbat zer bearrezko ditugu.

An, Nafarroako Leitzan oraindik orain alkarrekin emandako egun ederrean, ikusle entzuleen euskal–miña nabaritzea, zenbateraiñoko izan zitzaigun pozgarri. Etzan, aspaldi ontan egin ditugunak bezala, ildako euskalari iaioren baten goratzapen. Oraikoan, gure artean eta

bizirik dagoan euskal–langille maitagarriaren goratzapena izan dugu. Eta bai samurkiro eta laztanez, eskeiñi ere ORIXE aundiari bere zartzaro asieran, guztion elesari ta gorespena. Bearko, eta bearrik!

* * *

Egunean bizi bearra ta ari bearra dugu. Iragana iragan zen. Leengo moduak baliteke orain sarri askotan, egoki ta eragingarri ez izatea. Ta ez dezagun aaztu, gure urbil dagoan gero ortan, ba dukegula erantzupen larri.

Nafarroa ta Gipuzkoa bitarteko arako antziñako "Gaizkiñen muga" artaz igarotzean, odol batekoen banaketa ta ezin–ikusia gogoratzean, ximikoaren eztenkada zolia, erre–erre ta minberatu, zebilkigun barruan. Euskaldunok gutxi izan eta, alarik ere, etxeko ondasunak —guztienak, ez buruzagienak bakarrik— zipirri–zaparra galtzen ibiliak ziran. Ebangelioko seme iroile ta xautzailleak ez ote?

Oraintsuago ere izan da orrelako zerbait. Guzion ondasuna, batzuek galdu urren utzi, eta besteak ontzat eman.

* * *

Euskal–alorretan amaika eskualde oraindio landatu gabe. Idaztea bearreko zaigu, noski, ta literatura gabe zail izango zaiku ezer egitea. Eztugu bear ordea, nolanaikoa. Begoz zokoan alako erroillo ta lan gustogabeak. Irakurtzale ezta oraingo jendea. Are gutxiago nai du lan astun eta nekagarririk.

Orregatik, idazten zale diranak, gaia ta neurria, azal ta mamia, barne ta tankera aukerakoak asmatzen ta taxutzen alegindu bear dute.

Gerlari edo gudulari–sail bateri, bearreko zaio zentzua. Gure munizioak bestalde, eztira ugariegiak erruz ta zentzugabe iraungitzeko. Aurrera egin pausoa, ez dezagula, arren, berriz utzi ta galdu. Irakurlea asperrarazten baldin ba dugu, gure aldeko bat galdu dugu. Mille bidar esana gogora gabe ezin ba, isildu: Zer ote zedukan Txomin Agirre–k, zer grazi ta jas ta doai berezi, bere aldikoetaz gain agertzeko ta irakurleak zaletzeko…?

Pentsa dezagun eta buruz jokatu. Gaiak, gaurkoagoak izatea, noraezeko da, baiñan erriaren izkuntza jatorra ikastea, premiazkoen. Ez, gero, erriaren mintzoera guztia bearrekoa. Ereduak badira, ta

oiek dira artarakoenak. Ta eredu orren laguntasuna, ba dugu gure elertian. Baita arau egoki azalduak ere gure liburuetan. Euskera moldakaitza da *bear ez duguna*; bertso aldrebesak jatorrak ez diran bezela.

Irakurlearentzat idatzi dezagun, irakurle euskaldunarentzat, alegia. Janari goxo ta aukera ona eman ezkero, jango du, pozik artuko du.

Beste arloa zabalagoa da. Euskeraz mintzatu, eta… mintzarazi ta entzunarazi. Euskaldun motelen gogoa berpiztu bear dugu. Zaar ta sasoiko, oiek euskeraz egiten dute. Gazte ta aurrak, eta emakume ta jende ikasi: oiek irabazi bear ditugu euskerarentzat.

Biurtu gaitezan lapur. Ostu ditzagun biotzak euskerarentzat. Buruz, zentzuz, adimen zorrotzez, baiñan goxo, legun, txera ta palaguz.

Lapurrak ere, ain zuzen, ba dute beren teknika, isil, bigun, onuratsu. Ikas dezagun maiña ori, antze ori. Buruak argi, biotzak garbi; zuur ta loisintxaz. Tokiak, aldiak eta gizarteki bakoitzak eskatzen duan araura.

(BILBOTIK)

ERKIAGA, EUSEBIO

EUSKALTZAINDIAREN DEIA*

Euskal aldizkarien zuzentzaileei eskaria, idazle batzuen zabarkeriz

Euskaltzaindiaren bilkuran, maietzaren 26–an, ontzat artua izan zen Eusebio Erkiaga euskalzaiñak aurkeztu zuen txosten au zabaldua izan zedin gure aldizkarietara, euskeraren sustraikako jatortasunaren alde.

Euskaltzaleen arteko eztabaida batzuek, ezagunean ematu ta atzendu dirala, dirudi. Alegia, euskal–itzei buruzko eztabaidak. Euskal–itz zaharrak, gure iturburukoak; euskaldundutako itz aspaldikoak; itz sorberriak, zera, neologismu bildurgarri hoiek; eta azkenez, beste izkuntzetarik, maiz eta sarri, batere premia gabe, bolara hontan, nabarmen eta erruz artzen ditugun itzak.

Zeintzuk erabilli behar ote ditugu? Jakiña, esangura egokia duten itzak, gureak baldin baditugu, besteren alorretikakoak gusto zabarrez erabiltea, ez dirudi bidezkoa. Halaere, gazteak geienbat, erdal–iturri zale amorratu agertzen zaizkigu. Dakizutenez, ugoldean dakarzkite erdal–itzok idazlanetara. Maiz, gureak bazterturik eta iñoiz, zentzu ez egokia ta ez ohitua ezarririk, eta gure izkeran, euskaldun jatorrentzat, halako arrozkera ta euskal–gaiztoa sortuaraziri k.

Beti entzun izan duguna da hauxe: zera, euskerak iguin duala itza *r* soillez asteko. Eta lehendik, aldakuntza geigarriak egin izan ditu: Erroma, Erremon, erretolika, erremu, errebida, errespetu, errota, erloju, erligiño, errifa. Eta orain, ordea: rebeldia, relativu, redentore, relazio, eta abar hor dabiltz lasai eta arro. Beste zenbait itz, gaztelaniaz *o* dutenak bukaeran, batzuetan, *u* izan ohi dute azkentzat: mediku, erloju, erregu, errespetu, erreiñu, artikulu, azentu. Itz hoiek eta antzekoak, nola genituke jatorrago?

Halaere, lexiku arlo hori baiño ere arrisku andiagokotzat dugu, aspaldion gazteek itzurrenean darabilten aldrebeskeria. Ta hortaz

---

* *Anaitasuna*, 30, 1967.

gaiñera, eta *batez ere*, euskal–aditz formak aldatzean eta atzizkiei buruz, errespeturik gabe jokatzean. Ez ahal zenduten irakurri Urliaren artikulu doakabea, euskal–atzizkien kaltez? Duana ere, galdu egin behar ote du euskerak?

Ergatiku atzizkiaren beharrizanik eta –n atzizkiarekin ere ezpaidute erdal–izkeraz bizi diranek, letra hoiek ere, arriskuan bizi dira. Eta zer esan vokativu gizarajoari buruz? Laster garbituko du, noski dativu zoroak: «buruan jo dio» entzun ezezik, idatzi ere, askok egiten baitute gaur.

Baiña, hortaz oiu egin nahi dugu oraingoan. Zera, euskal–aldizkarien zuzentzailleak berarizko arreta izan dezatela, euskal–aditzaren formak zaintzeko eta batasun bidera apurka apurka erakartzeko. Artzen dituzten artikuluetan eta albistetan, zergatik ez ezin, argitara baiño lehen, txit premiazko diran aldakuntza tipiak?

Eta beste zer batzuetan, nabarmen, baldintzazko ustekizun formak, zera, potenzial supositivu diralakoak, ez ditugu behar bezela zaintzen. Eta hor dabiltz, zabarkeriaz jantzita: «banintzake, balitzake, banuke, bagenduke, bagiñako…» eta abar. Zergaitik ez «banintz, balitz, banu, bagendu, bagiña»?

Are geiago; beste forma hoiek ere: «bagenezakegu», «bazenezakezu» eta abar. Jaunok, ez ote da aski eta zuen «bageneza», «bazeneza» eta hola? Izkerari, berez duan muin eta indarra kendu nahi ote diogu?

Atzizkiei buruzko ixtudioa egitea ere komeni izango litzake, gaurko aldrebeskeriak ikusirik. Esaterako, «zure etxetik joango naiz» —zuenera joango naiz, edota etxera joango natzaizu esan ohi genduan guk, gure gurasoak bezela. «Goizetik, arratsaldetik»— goizean, arratsaldean, esan beharrean.

Euskal pentsabidetik atera bagaite eta erdal–pentsabidean zear abiatu, euskerak ez du izango, gure ustez, duan indar eta esangurarik.

Labur: itzurrena zaitu behar dugu, joskera arauak eta atzizkiak orobat, eta aditzaren formak. Osterontzean izkeraren indarra, izakera, moteldu, illundu, ta nahasmendu biurtuko dugu. Eta jakiña, konpreni eziña ditekean izkera ez du iñortxok ere ezertarako nahi izanen.

Eusebio Erkiaga
Euskaltzaiñak.

EUSKALTZAINDIAREN URRE–EZTAIAK, ERKIAGA JAUNAREN HITZALDIA*

Bilbon berton asiriko 50 gn. Urteurren luze samarra aundiro amaitu baiño leen, barriro emen, Bilbon, batu da gaur agirian Euskaltzaindia. Emen dozue, ba, Bizkai–semeok barriro bere, zeuen aurrean batzar errikoian.

Aurretikoen izen ona gogoratzea, aurretikoen lan eta nekeak bear dan lez aintzat artzea goragarri baldin bada, guk bere, gomutau eta oroitu egingo ditugu jai atsegin onetan, zeregin bardintsuan jardun eben gizonak. Eurenganako esker onekoak izan gaitezan.

Euskaltzaindiaren kanpoko joan–etorria, guztiok edo dakizue.

Durangoko Euskal–jaietan, 1886 gn. urtean, Aristides Artiñano jaunak, Euskerearen akademia zein eta zelako izan zeitekean azaldu eban.

Geroago, bien bitartean amaika aalegin alperreko egin ostean, geroago 1918 gn. urtean, Bizkaiko aldun ziran oneik, Kosme Elgezabal, Errotaetxe ta Landaburu jaunak eskabide zeatza egin eben, eta lau Diputaziño euskaldunak alkar–itundurik, Izkelzaingoa sortzea eta Eusko Ikaskuntzaren lenengo Batzar nagusian, an, Oñatin errotzea erabagi eben.

Bien bitarte orretako gorabeera ta azi–orrazi batzuk jakitea bere, atsegin izango jatzuelakoan, Urrats eta oinkada batzuk agertuko ditugu.

Aureliano Galarza diputau jaunak, 1887 gn. urteko azillaren 8–an, eskaria egin eutsan Diputaziñoari, onetaraxe idatzia (euskeraz jarri dogu).

> «Jaun agurgarri ori:
>
> Euskal–enda au berezi dauan izakirik jatorrenetariko bat, zalantzarik bage, bere antziñako izkuntzea dogu, itzetan aberats, joskeran bakana, izkeralari ospatuak arrituta laga dituana.
>
> Ta eskualde bakartadeko ta argi onetako erri–agintariak barreatzen eta zabaltzen aalegindu baldin badira, ba dirudi oraingo aldian iñoiz ez lez egiteko premiñan dagozala…

---

* *Euskera*, XVI, 1971.

Ori dala–ta (amaitzen dau eskari ori), izena ezarten dauan diputadu onek, Bizkaiko Institutuan Euskal–irakasgua sortzeko eskatzen deutsu, orretarako, urrengo urtealdian, bearreko dauan esku artea izentauaz.»

Andik lau urtera, R. M. Azkuek egin eban lenengo gramatikan —guztia euskeraz idatzia— 1891 gnean., agerturiko lenengo berbak bere, gogoragarri ditugu:

«Bizkaiko Ekautari:

Bizkaiak'beste askori legez'baituran emon eustan niri bere, izkeraa; nik ezdaut zelanbait arautu baino egin; liburu au ezdai, bada, nirea; Bizkaiakoa ta Bizkaiana da.

Nor dai ta non dago, baina, bere burutzat daukaguna?

Euskaldunak, gomutaratu atzo zintzazan guztia, gaur nortzun zaizan ikusi eizu; iruditu daigun ezelan albadaugu'biar *zer* izateko gagozan.

Zeu, Ekautu agurgarriok'lengo Bizkaian iaioriko seme zintzook, zeu zaiz Bizkai izanak itxiriko iarauntsi edo guruzkuian gordetzaileak: bere izkera zainak…».

Geroago, 1935 gn. urtean, Azkuek berak «Euskalerriaren Yakintza» lau liburuko sail ederraren itzaurrean 1897 urteaz iardua-la, ziñoan:

«Bizkaiko Aldundiaren (sic) orduko asmoa, gora andikoa izan zan, euskera zaarrari, indar berriak zainetaratzeko. Orduan asi ginan Arana–Goiri ta ni, ateko aldeari bizkarra emanez, barrura begira, nola edo ala lanari ekin ta ekin. Irakurleak atseginez ikusiko duala, uste dut, gure Aldundiak artarako erein zuen lenengo azia».

Baiña, goazan mende onen asierara bertara. Aldi aretan, Bidasoaz araindiko ta onaindiko euskalzaleak, artega ta urduri ibili zirean, alkartasuna, alkartasun lokarria egiteko aalegiñetan. Bateratzerik ez eben lortu, ta orduko asmoa, utsean gelditu zan.

Ango «Eskualzaleen Biltzarra» ta emengo «Euskal–Esnalea» (Esnatzaillea obeto), ez zirean naikoa izan Azkue gurearentzat. Onen buruan, etenbako amesa, loratu–urren ebillen: Izkelzaingoa sortu bear zan.

Gomutau daigun 1887 gn. urtean Bizkaiko Diputaziñoak eratu eban Euskal katedra aretako irakasle, Azkue bera izan zala, eta urte luzeetan izan bere.

Urteak aurrera, eta Azkue, Frantziako Tours–en ebillen, bere iztegi nagusia argitaratzeko arazoetan eta nekeetan. Antxe egiñiko gutun baten, 1905 gn. urtean, emengo Aldundiko buru zan Adolfo Urkixo zaldunari dirautsa (euskeraz jarri dogu atal au):

«Ene lagun on ori:

Berba egin genduan Juliok eta biok, beste zer batzuen artean, zure asmo eder orrezaz, ain zuzen aspaldiko gure asmoa bera; zera, Akademia sortzea.

Zeure kargu goiko orretan egiten dituzun aalegiñak, atsegiñez aitatu genduzan…».

Urrengo urtean, 1906 gn. otsaillaren 2–an, adiskide bati frantsesez egiñiko gutunean zirautsan (euskeraz jarri dogu):

«Txit interesgarri, euskal–akademiaz egin dozun artikulu ori. Noizean bein, akio–makio jardun bear dogu erriak premiña orixe jakin daian. Gauzak premiñazko direala siñistu ezkero, eurek bultzeragiten dabe.

Nik bere, orixe egin daroat, ezarian baiña etsibage aitatu beti, iragan zazpi–zortzi urtean, Euskal–akademia asmoa, labur baizen argi. Broussain–ek ba dau, uste, liburuxka ori».

Andik illabetera, 1906 aprillaren 10–ean, Azkuek karta bi egin zituan. Bata, Karmelo Etxegarairi; Daranatz kalonje jaunari bestea.

Biei, geienbat, gai berbera adierazoaz. Laster sortzeko zan izkelzaingoan, aulkidunak amabi izango zireala aurki, ta nortzuk izan zeitekezan. Deiturak eta abar izentatzen zituan.

Etxegarairi auxe geitzen eutsan:

«Zelan autetsi? Lenengo belaunaldia, labaldia, lau Diputaziñoak egin bearko. Gerorantz, orraitio, Zaingoak berberak, beste iñok eskurik ezarri bage, ez ongille ta ez agintari, Zaingoak berberak izentau ta jantziko ditu.

Aulkidunetaz ganera, laguntzailleak bere izango dira; baiña guzti oneik bere, Zaingoak autetsiak; eta baita deduzkoak bere, izango ditu.

Ez dau «garbitu, ezarri ta argitu» soillik egingo; izkuntzeari iraunerazo, ta izkuntzea zabaldu bere, egingo dau…».

Izkelzaingoaren billa soillik ez ebillen Azkue.

Lankideak bere, begiz jo zituan, bai emengoak, bai ango euskalzaleak. Aren eretxiz, Julio Urkixo bere, izkelzain izan zeitekean. Baiña merituak batu ostean. Orraitio, onen anai Adolfo, Diputaziñoko lendakari izan bitartean, ez.

Galbarriatu Ramon adiskideari, Köln–en egindako gutunean (1909–V–12), beste arazo batezaz diarduala, Azkuek, Eguskiza aipatzen dau: «gizaki betekoa, ikasia, doai bikaiñak dituana. Taldean artzeko, oso aukerakoa dogu Eguzkiza».

Bederatzi egun geroago (Köln, 1909–V–21) Azkuek Eleizalderi idatzi eutsan, eta atsegin giroz, zirautsan:

> «Araiñegungo zureari erantzuten deutsat, nire ederra egitearren artzen dituzun nekeakaitik esker ona agertu deizudan. Pepe Arriagari idatziko deutsat, Arana–Goirik asmau zituan itzen txortea eskatuaz».

Azkueran eretxiz, Arana–Goiri ta Broussain izan zirean orduan, itz barri asmatzailleen artean abillenak, gure barrutian.

Köln–en 1909–V–19 egindako kartan, Tradición Navarra aldizkariaren zuzentzailleari, Hilario Olazaran–i agerturiko aipamena da, Aranari buruzkoa.

Azkuek, 1913 gn. urteko martiaren 3–an, Bilboko Orfeon Euskeria–ko artezkariaz itzegin eban, eta bere operak agertzean, itaurrekotzat Sebero Altube gura ebala adierazo eutsan, eta ez beste iñor.

Begi zolia ebala erakusten deusku, billatu zituan gizonak aukeratzea.

Eta enparaukoak…

Campion ondo baiño obeto ezagutzen eban. Eta Txomin Agirre, barriz, auzoerrikoa ebanez ganera, Seminarioko ikaskide izana.

Indar ta asieraz Oñatin 1918 garren urtean eratua izan zan arren, Euskaltzaindia ez zan aldi aretan ibilten asi.

Urrengo udabarrian, kezkatsu ebillen barriro bere, Azkue gurea.

Hasparrengo alkate ta mediku zan Piarres Broussain–i, konfiantza beteko gutunean darakus artegatasun ori. Bilbon atonduriko kartan, ba ditugu atal jakingarriak:

Olabide, oso argia, baiña zailla; Campion, idazle fiñenetarikoa; ostera, biok euskaldunbarriak. Nafarra, lendakari izan zeitekeana da, baiña, batzarrak zelan euskeraz egin aal izango?

Eleizalde, txit azkarra, inspektore arazo barrian oraintsu zearo arazopetua. Urkixo, jo ta su euskeraz ikasi ta ikasi. Orraitio, Txomin Agirre, oso geiso. Karmelo Etxegarai, argia baizen adeitsua, baiña gure lanetarako… Zaarra bai gozoa! (Broussain–ez diardu, nunbait bere) Olabideren eta Azkueren kemena gozatzeko gai dana! Baiña, alkatetza ta geiso–ikerketak utzi egin bearko…

Olabidek, 12 euskaltzain naikoa dala diño; enparauok, ogei uste genduan. Baiña egia esan —jarraitzen dau Azkuek—, ainbeste izateko, «Amaika gabetako ipuiñetako» argimutil zoragarriaz igurtzi bearko!

Eusko–Ikaskuntzak, Oñatin izentau zan batzordeak agertu dauana, bereala ontzat artzeko eskatzen deutse gure lau Diputaziñoei. Oneik, Bidasoaz araindiko euskaltzaiñei bere, emengoei aiña sari eskeiñiko deutse. «Bi–iru illabete barru, Donostian alkar ikusiko dogula uste dot».

* * *

Esanak esan, 1919 iraillean batzandu zirean euskaltzaiñak Donostian.

Orduan agertzen da izen saillean, onexek daukaguz: Azkue, Urkixo, Eguskiza; Eleizalde, Altube, Intzagarai; A. Olabide; A. Campion, Aita Intzakoa; eta Bidasoaz araindikoak, Lacombe, Landerretxe ta Aita Lhande. Erdiak, elizgizonak.

Labur esan, Txomin Agirre ta Broussain ez zirean osoro euskaltzaindiratu; eriotzeak aldenduerazota, ainbarik geratu zirean euskaltzain lagunak. Agerrek eta Ademak, laga egin zituen eskiñitako aulkiak.

Bizkaiko orduko Urgazleak bere, aitatu daiguzan, eta esker onez egin bere: F. Belaustegigoitia, J. C. Ibargutxi, G. Manterola, N. Oleaga, A. Urriolabeitia, P. Zamarripa eta Aita Arriandiaga. Geroetan, eurotarik bi, Nazario Oleaga ta Paulo Zamarripa, euskaltzain oso izan zirean.

Lenen orduko euskaltzain osokoetarik, Aita Intzakoa bakarrik bizi dogu.

Azkue izentau eben lenengo lendakari, ta berau izan zan, illarteraiñoko guztian, Euskaltzainburu, otsemaille ta gidari.

Guztion lanak eta nekeak banan agertzeko betarik ez dogun ezkero, Luis Mitxelenak lendakari zanari egindako gorazarrearen atal batzuk irakurriko ditugu orain, eta euskaltzain guztiei opari–egin («Zeruko Argia», 1964–VIII–9an):

> «Garbi giroa garaikoa zuen, ez berea. Urkixo bera (nork esan?) etzebillen orretan ain urruti Azkuegandik. Orrexegatik, batez ere, etzan beiñere ausartu Landucci–ren iztegia edo Zuberoako pastoralak argitaratzen.
>
> Ongo egin dan lanak, ordea, askotarako balio du, egilleak berak uste duen baiño geiagotarako.

Orrexegatik, edozein kastatako jendeak Azkue–gana jo bear du egungo egunean ere, bere egarria berdintzeko. Orrera doaz euskal–idazleak itzez ornitzera, orrera izkuntzalariak euskal–itzen jatorria ta historia aztertzera. Or jakin dugu anitzek, antziñako aberastasun gutxietsien berri, or ditugu guztiok gure izkuntzaren batasunerako oiñarriak. Eta azkenik, Azkue h–zale etzalarik or ikusi dute askok (ikasi dugu esan ote dezaket?) letra ori noiz erabili bear dan, gure klasikoen eredura, eta noiz ez.

Iztegi orren ondorean aztertu nai dutenak euskal–literaturan, ar bitzate bi liburu, Azkueren kide zan Txomin Agirrerenak: «Kresala» ta «Garoa». Euskalkia gorabeera, itzetan duten aldea, eta ezta deus gutxikoa, Azkueren iztegi berriaren gidaritzari zor zaio, soil–soillik.

Geroztik etorri diranak (leen maillan Aita Lhande, ta beronen laguntzailleak) eztute Azkueren iztegia garaitu eta menderatu, berritu, geitu eta osatu baizik; zenbaitetan, gaiñera, neroni aurrelari naizelarik, zertxobait murriztu ere bai.

Azkuek lan miragarria egin zuen sail askotan. Eta alaz ere, orien artean zerbait aukeratu bear bagendu, aren iztegi aundia litzake, niretzat beintzat, arrigarriena ta bikaiñena. Are arrigarriagoa ta bikaiñagoa iduriko zaigu, gogoan badugu, 1905–1906–ean izan zala argitaratua, berrogei bat urte zituelarik, eta ez bear zukean bezela, bere bizi luzearen azken–buruan (Mistral–ek bere erriarentzat egin zuen lana; Madrilleko Akademiak gaztelaniarentzat 1726–37–an bete zuen eginkizuna). Eta euskal–literatura osoak agirian darama, geroztik, kopet ezurrean josia, Azkuek utzi zion seiñalea».

Oneraiño, Mitxelenaren itzak.

Eta amaitzeko.

Euskalzain zaar aek ez eben ezagutu oraingo egoera itxaropengarri samar onetan dakuskuna; esaterako, euskera liturgian sartuta, eta gobernuak oraintsu agertu dauan Liburu zuria.

Orrein aurre, ba dogu, tamalaren aundiz, alderdi makurra bere; zera, errian, erritxuetan, baserrietan euskera atzeraka doala, makalduaz, isilduaz, baztertuaz. Mingarri orixe euskaltzale guztientzat.

Egia da Euskaltzaindia oraingo aldian gaillegoekin, katalanekin, valentziatarrekin eta balearestarrekin artu–emonetan asia dala, guz-

tion alkartasunaz, bakotxa bere izkera bereziari laguntzeko ustez eta gogoz.

Baiña ez daigun, aaztu, orraitio, beste gizadi orrein berbetak, latiñaren ume direala, ta beraz, auzokideak. Gurea, barriz, ain desbardiña dogularik, aen nekearen ondoan gurea, larriagoa, aundiagoa, sakonagoa ta etenbakoagoa izan bear, izkuntzeari bizirik iraun–erazo gura baldin badeutsagu.

Euskaldun guztien arloa da, euskalzale guztien zeregiña ta ardurea: gure izkerea ikasi, ta irakatsi, ta indartu ta zabaldu. Baiña batez bere, erabilli, itzegin, mintzatu.

Euskerearen etorkizuna, euskaldunengan dago–ta.

EUSKAL-ANTROPOLOGIAZKO II gn. ASTEA*

Bigarren galderari erantzuna:

Galdera: **Iraupenaren alde behar litzekeen batasunak herri-mintzairen etsai dirudi; herri-mintzairen aldeko joerak, ordea, iraupenaren etsai, zenbaiten ustez. Ba ote da erdi-biderik? Batera jo nahi badugu, zein litzateke biderik egokiena?**

Erantzuna:

Sakabanatu egizuz eta irabaziko dozu, esan ei eban antziñeko gizon zuhur batek. Eta horra! Gure izkuntzea zatiturik eta banandurik dogu, ta inguruetako izkuntza indartsuagoek geroago ta bazterrerago daroaskue.

Batasunaren premiñan gabiltzana, ez dau iñork ukatzen. Baiña ez daigun uste izan batasuna dala oiñarria bakarra, euskereak iraun ahal daian. Erromatarren izkera arro ta mardoa, ez ete zan batua ta bakarra? Barruko gatxen batek ondatu ete eban, ala beste jazoera ta indar batzuek bultzeragin ete eutsoen, zatitu ta erkindu ta bestelakotu arte?

Izkuntzearen batasuna egiteko oiñarriak, izkelkiak izango dira, ziur asko. Izkelki horreek, errian bizi izan dira eta idazleak jaso ta erabilli izan ditue geroago. Euskalki horreek, ostera, makalduaz doaz, eta batzuk, galdutzat jo giñeikez.

Beraz, ba dirudi batasun-oiñarritzat, bizirik eta indartsu dirauen izkelkiak artu behar litzatekezala.

Batasunerako bide bakarrik ba ete da?

Ezetz dirudi. Iragan iru urte honetan, idazleek heurek bere, zenbait bide artu izan dabelako.

Agiri danez, izkuntzearen batasunaren asierako urratsak, elederrak emon behar ei ditu, batzuen ustez. Beste norbaitzuen eretxiz, eskoletatik letorke izkuntzearen erdibideratze hori.

Bakotxaren tokiko mintzaira arrunta jakiñaz, erabilliaz ta ikasiaz, beste errialdeetako izkerak bere, jakiteko bideak zabaldu ta erreztu

---

* *Euskal-Antropologiazko II gn. astea*, La Gran Enciclopedia Vasca, 1973.

leitekez. Horixe izan da oraiñarte, euskaldunek alkarren artean izan daben alkarpide egokiena euskalkiak ikasteko.

Españian bertan dogu irakaspena. Laterriak, gobernuak beti bai beti, gaztelaniari emon izan deutsa indarra ta babesa neurri ta mailla guztietan, irakaskintzan, agintari-maillan, prentsan, eta urte luzeetan hain zuzen.

Eta zer? Galdu egin ete dira babesik bako gallegua, Levante aldeko izkerak, Baleareskoa ta katalana? Behar bada, guzti horreek alkarren aizta izateak, alkarri lagun egin deutsee, uste uste barik.

Are gehiago. Gure egunotan, fonetikaz, andaluzismu bigun horrek daukan geroago ta indar aundiagoak alde batetik, eta amerikanismuak dakarren oldar zabalak bestetik, gaztelaniaren osotasuna, fonetika ta ortologia arrisku ikaragarrian ez ete dabe jarri? Oraintsu entzun ditugu, barriren barri, halako negar-intziriak, gaztelaniak dituan arriskuak aitatuaz. Gaztelaniak ez ete dau batasunik izan mende luzeetan, bere idazkeran ta gramatikan? Hala ta bere, errian ez da egin zeharoko batasun hori.

Gauza aundiak egin baiño lehen, bizirik dagoana ezin makaldu giñeike. Ta okerreko biderik itsumustuan artzea, ez litzakigu parkakizun.

Egia da oraingo beste fenomenu bat hauxe dala: zera, oraingo gaztetxu ta gazteak, ta ez hain gazteak bere, lotsatu egiten direala beste erri batzuetako ume euskaldunekin edo gazteekin euskeraz egiten, izkera ezbardiñak izanik, alkarri ez ulertzeko bildurrez edo. Alde horretatik, batasun-eskabideak indar ukatu eziña dau.

Baiña, zer jazoten da? Oraingo umeek eta gazteek, erdera dakiela. Gure gurasoen aldian eta gure ume denporan bere, euskera besterik ez genkian gaztelaniaz itzegiteko gertuerarik ez genduan, eta jakiña, euskaldunekin, ez genduan beste biderik alkarri ulertzeko, euskeraz egitea baiño. Orain, ostera, erdera dakielako, erderara joten dabe.

Batasunik ezaz ganera, horra or beste eragozpen bat. Zera, izkera arrotza, kanpotikoa, gurearen barrutian sarturik eta nagusitua dabillela.

Zergatik nagusitu ote da?

Labur agertzeko: esanak esan, euskera baturik ez dogu ezagutu ez lehen ez orain.

Euskera zaharregirik behar ete dogu, gaur dan egunean indarrik ez dauanik? Euskera asmaurikorik, egoki ete jaku?

Gaur hemen moderadore zeregiñetan diarduanak, maiz eta sarri aitatu izan deusku: dagoen dagoenean artu ta erabilli behar dogu gure izkuntzea.

Ta oraingo aldian, Bizkaian eta Gipuzkoan dau, gure ustez, mardotasuna ta adorea gure mintzaira zahar honek. Iraun-erazo daiogun, ta baita landu, osotu ta bateratze bideetan zear erabilli bere. Kultura arloetarako gertu, teknika-sailletarako prest jarri, ezarian ezarian.

Batasunerantz gogoz, orain hogei urte asi giñan, lilluraz beterik asi bere. Ez dakigu, ostera, orduan aukeraturiko bidea, zuzena edo egokiena ete zanik, Axular bidea. Azken urte honeetan jazo direanak jazota, sarri askotan Azkue gurearen asmoa gomutan izan ohi dot, eta haren ametsa, erdiko euskalkia, erdira bidea, erdiko adizkerak aukeratzea, batasunerantza goazalarik.

Zaharra izateak argitzen ei dau deabrua. Gu bere, euskerearen iraupenerako biderik egokiena argiago ikusteko, gertu gaizala. Ez deabruak, noski, zaharrago izate horrek baiño.

Laugarren galderari erantzuna:

Galdera: **Zein dira, zure iritziz, bereizkuntzarik baliotsuenak eta bateratzeko gaitzenak?**

Erantzuna:

Lenengo eta behin, jakiña, aditzean, aldiz-tankeretan ditugu euskaldun ezbardiñok, bereizkuntzarik baliotsuenak, larrienak, eta beraz, bateratzeko gatxenak.

Bigarren, itzurrena, esanaldien joskerea bere, arretazko zera da. Pentsamolde kontua da, nunbait bere. Idazleak eta izlariak, sarri askotan, erdal-esanaldien arauetan zehar dabiltz. Erritarrak bere, igarri bere egin barik, besteon antzera. Ez dakigu aldakuntza honeek noraiño elduko direan. Puntu honi gagokiozalarik, gaur dan egunean, Altube zanak bilduriko ta emoniko arauek, ez dabe batzuengandik estimatze aundirik.

Irugarren maillan izegia, ta fonetika kontua ta itzen azentua. Atzizkiak egoki erabilteak bere —deklinaziño ta abar— naikoa lan emoten deusku orain.

Iztegiari dagokionez, baserritarren eta arrantzaleen izkera apal hori, eurentzat soillik geratuko ei da. Urietan, ostera, munduko kul-

tura ta jakintza ta teknika sailletarako, beste izkera osoago bat da beharrezko. Itz askoren premiñan gagoz, beraz. Zeinbat iturri ete ditugu, itz barrien jabe egin gaitezan?

Guretik sortu, ala besterengandik artu behar. Izkuntza jakintsutatik gureratu, ala iparraldeko auzo-izkeratik eta egoeko auzo-izkeratik? Auzi zaharrak gure barrutian, oraindiño erabagi bageak.

Batasuna gogoan izanik, ez daigula bitasuneratz jo.

Bostgarren galderaren erantzuna:

Galdera: **Ze euskera modu da, ikastoletan eta, irakatsi behar litzakeena? Zein euskaldun berriei, aur eta haziei, eskaini behar zaiena?**

Erantzuna:

Batasun-bide aukeratze horretan, zalantzak, ezbaiak eta batera ez etorteak izan diranez, neke, mingostasun eta asarreak bere sortuerazo deuskuez. Oraingo galdera hau auzi bardiñaren beste alderdi bat baiño ez da. Euskera bakarra ta batua baldin bagendu, agur gure zalantzak!

Ikasleek ume ala nagusi, lenego ekiñaldean, lekuko euskalki ikastea, ta sendotzea dabela jomuga, dirudi. Horrelan, kalean eta etxean entzun leikeena, izkera bardin samarra izanik, ibilten asteko, berbetan asteko jakiña, ezagunago ta barrukoago izango jakelako.

Baiña etxean ez kalean euskera entzungo ez daben umeei ta ikasleei, zein izkera moduz irakatsi? Iñun bere entzungo ez daben izkera moduan? Adizkera barriez, ala oraindiño indartsu samar bizi dan euskalkiren batez?

Arroz izkuntzetarako, errikoseme-alabak eskatzen ditue edonun, zera, nativu diralakoak, jatorrak. Euskaldun barriak egiteko beste bide batez jokatuko ete dogu, izkera experimentalez?

Pedagogian ari diranak bekiguz argi-emoille.

Bilbon, 1971-IV-20-an.

REQUIEM ALTUBEREN ARAUEI*

Aurtengo abenduaren lehen gauean, ez dakit amets ala zorabio, zer gertatu den enegan. Liburutegi batean entzun itzaldiak, libro bilakatu bait nau.

Izlari, aita Villasante.

Gaia, Altube zenaren «Erderismos» deritzan liburuaren bigarren aldiko erakuspen solemnea.

Jauntto guziek bezala, bat–batean, azkenaren ukitu otza, igurtzi ilkorra sentitu izan dute, izlariaren epaien arabera, arako Sintaxis lege estu xamar aiek ere.

Eta brast! eroria izan baita behin eta betiko elementu Inkiridu zelako jauntto nabusi ori, anker alako ori, ...euskal–idazleak oro amnistia delakoaren kapa zabal amultsuaren azpian babestuak izan dira. Idazle–kumok ere bai.

Lege aiek, begoz izkribatzailleon eremu zabaletik urrun. Ez dagokio iñori, Altuberi ere noski, gure askatasun–joera txikerrenik ere, galerazterik.

Begoz aren lege estuok baserritarrentzat, arrantzaleentzat, jende arruntarentzat... nahi baldin badituzte.

Kolokialentzat... soillik.

Elkarri itzegiten eta bestetan ez dakitenentzat, bereziki.

Eta bertsolarientzat ere bai, aurki. Poto egiten ez dakitenentzat.

Orraitio, euskal–idazleentzat eta poto egiten dakiten bertsolaritzat, oientzat, askatasuna ta aukeramena bitez nagusi, idazte orduan eta kantatze–garaian.

Izkribatzaille euskaldunekin batean, betorz bertso aldrebesak egiten dituztenak, eta bertsolari potodunak (kontuz, inprenta–gizon!). Oiek gurekin libro, aske, aukerako izanen baitira, txoriak aidean bezala. Jadanik libro geure buruok, libra ditzagun idazlekideenak ere.

—Behera elementu inkiridua!

—Behera betiko!

—Gramatikeriak duen infernuko ondarrataraiño!!!

---

* *Egan*, 1–6, 1975

Eta Altube maixua zenarekin batean, oni burua argitu ta bidea erakutsi zion Azkue bera ere, galdera–erantzun taxua klarki ikusi ta exponitu zuena ere: ta Txomin Agirre garbizalea, Arrue maisu giputza, Eguskitza purista, «Orixe» urduria, Orkaiztegi gotorra, «Otxolua» estilista euskalduna, Zinkunegi miriku ta orazio subordinatuen masoia, argiña… Oiek zuten kopeta! Altubek dei eta aren aurretik eta ostetik, lege estuok guri, urrengo txorikumeoi ezarteko izan zuten ausardiagatik. Iñorante izugarriak, ainbat eta ainbat izkribatzaillek erabilli ez zuten erreminta ta artu ez zuten bideez barna jardun beharreko izandako gizon garun ttipikook!

Aize berria naro betor gure birietara, askatasuna adimenera, aukeramena egatsetara. Elementu Inkiridu ori zerraldo bilakatu baita, ondarea banatzeko tenorean gagoz. Luma zaharrek luma bezain arin bihur bitez, pixurik gabe; itzak aiña libro ta airos. Ez da legerik pentsatze–orduan; ez da legerik ez trabarik ordena kontuan ere, idazte–orduan. Laissez faire, lassez passer, le monde va de lui même.

Inkiridu zen nagusi anker orrek, arau bakar, zehatz eta burua zuen. Jadanik, ez da araurik batere. Zeiñek sentitzen du, inkiridu orren eragiña ta pixua, geroztik? Ori… kolokialak senti bezate, jende arruntek, baserritarrek. Eskritore baskoak ez dute zertan sentitu.

Au pixua kendu duguna! Au bai kendu dudan pixua! Idazten asi giñenik aurtengo abendu santu onetararte, lege astunaren azpian makurturik ari izan gara. Egun, astindu, lorrindu ta lurrera bota dut uztarri astun ori. Grabedadearen indarrak… leizean barna, beheak behera eraman du… gramatikarien infernuraiño.

Aitari beti entzuna, amari beti entzuna, aitona–amonei, osaba–izebei orobat, bai, ona daiteke… errijende arruntaz mintzatzean. Bertsolari jatorrekin aritzean ere. Gaiñerakoan…

Bertsolari potozaleekin mintzatzeko, ez da premiñazko. Ez eta aintz–erderakoekin jarduteko ere. Eta, jakina, idazteko ere ez.

Beraz, arauok irindu eta birrinduak izan direnez gero, aprobaz saia gaitean, bideberri lasai ta aukerako ortan! Bestelako bete eziña genduan lehen! Orain, dena errez, dena aizu.

Lehen saioa.— Orazio laburra ar dezagun: aita etxean da. Aita da etxean. Etxean da aita. Aita da etxean (Guzi oiek zaharkitu sunda dute, egitan). Da etxean aita (Kontxo! auxe bai idazle estilizatuarena). Da aita etxean (Eureka…!).

Orra ba, lehengo pausua: iru itz izan eta, sei esanmodu. Bat, bi, iru: faktorial 3! (3.2.1.) = 6

Bigarren saioa.— Arnas luzeagoko esaldia behar. Auxe: Nun dabil aitaren txakurra? Atera dezagun formula delakoa: faktorial 4! (4.3.2.1.) = 24. Ene ba! 24 modu ditugu onetarako. Asi gaitezen geure saillean.

Nun dabil aitaren txakurra?
Nun dabil txakurra aitaren? (Errefrau zaharra dirudi)
Nun aitaren dabil txakurra?
Nun aitaren txakurra dabil?
Nun txakurra aitaren dabil?
Nun txakurra dabil aitaren?

Bertsuak dirudite, baiña ez dira bertsuak. Agian, aldrebesak.
Dabil nun aitaren txakurra?
Dabil nun txakurra aitaren? (Au duk estilistaren airea!)
Dabil aitaren txakurra nun?
Dabil txakurra nun aitaren?
Dabil txakurra aitaren nun? (Zerean… aipatzeko ere?)
Dabil aitaren nun txakurra?

Jeurt–egin, ta beioa beste sasi–ahapaldi bat, aldrebesa noski.
Aitaren nun dabil txakurra?
Aitaren nun txakurra dabil?
Aitaren dabil nun txakurra?
Aitaren dabil txakurra nun?
Aitaren txakurra nun dabil? (Atsegiña belarrientzat, e?)
Aitaren txakurra dabil, nun?

Peillo Joxepe, bihotzekoa… bota emeretzigarrena!
Txakurra nun dabil aitaren?
Txakurra aitaren nun dabil?
Txakurra nun aitaren dabil?
Txakurra aitaren nun dabil?
Txakurra dabil nun aitaren?
Txakurra dabil aitaren nun?

Sintaxis anderearen Inkiridu seme arroa il duk! Bizi bedi illa! Bertsuen–orde, auek dituk askatasun–kantak!

Saioak, ez dira, ordea, bukatu, ta are arnasa luzeagokoaz jardun beharko. Experientziarik zoragarriena auxe dut euskal–idazlekuntzan. Hatxis eta marijuana gozoagorik!…

Esaterako, Altubek berak, azken–artikulu batean erabilia. «Debozioa zer den jakin gabez». Faktorial 5! (5.4.3.2.1) = 120 taxu ta itzurren, oker ez baldin bagagoz. Elorrioak ditugu! Esaldi au esateko, 120 modu izanik. Saia gaitean, saia, nahiz–eta Altubek eman erregelak baiño nekatsuago ta illunago gertatu. Ez ere!

Debozioa zer den jakin gabez.
Debozioa zer den gabez jakin.
Debozioa zer gabez jakin den.
Debozioa zer jakin den gabez.
Debozioa zer gabez den jakin.
Debozioa zer jakin gabez den.
Debozioa den zer gabez jakin.
Debozioa den zer jakin gabez.
Debozioa den gabez zer jakin.
Debozioa dan gabez jakin zer.
Debozioa den jakin zer gabez.
Debozioa den jakin gabez zer.
Debozioa gabez zer den jakin.
Debozioa gabez zer jakin den.
Debozioa gabez den zer jakin.
Debozioa gabez den jakin zer.
Debozioa gabez jakin zer den.
Debozioa gabez jakin den zer.
Debozioa jakin zer den gabez.
Debozioa jakin zer gabez den.
Debozioa jakin den zer gabez.
Debozioa jakin den gabez zer.
Debozioa jakin gabez zer den.
Debozioa jakin gabez den zer.

Aski ez ote da debozioaz? Orain, «zer» itzak du aldi.

Zer debozioa den jakin gabez.
Zer debozioa den gabez jakin.

Zer debozioa gabez…

Eta olaxe, 24 lerro eginarte. Utz diezaogun arlo oni, irakurlea asper–asper ez dadin.

Den debozioa zer gabez jakin.
Den debozioa zer jakin gabez.
Den debozioa gabez zer jakin…

Ta jarrai ezazu lan ontan, beste 21 tankera aurkitu arte. Eta azkenik, beste talde bi ditugu oraindio; talde batekoak, 24 oiek ere, gabez astekoak, onelatsu:

Gabez debozioa zer den jakin.
Gabez debozioa zer jakin den… eta beste 22 forma gehiago.

Jakin itzez astekoak, buruenik:

Jakin debozioa zer den gabez.
Jakin zer gabez den debozioa…

Eta abar, eta abar. Ametsen ametsezko askatasuna den eder! Araurik gabe, Inkiriduez libro, urre–aro berria asi da euskal–izkribatzailleen erresuman… 1975 garren urteko Abenduaren lehenengo egunetik!

Eskerrik asko, jauna.

Eusebio Erkiaga

Bilbon, 1975 abenduan.

ANAFORIKOAK ALDEZ EDO MOLDEZ*

Darabiltzanak aldaratzen ditu gauzak. Izkuntza ere, darabillenak mugiarazten du; itzegille, iztun, idazle, auek bait dituzu izkera–eragille.

Gogoan dugu arako istillua. Egun–bukaeran diruzaiñak, an egon dagoenaren azterketa egin du; eta orra ba; ez dator bat kontuarekin, diruments nabaria da, ez da behar lukeenik an ageri. Zorigaitz au artezkari jaunari adiarazteko garaia eldua denean, onek: —Nori gertatu zaio oker ori? —Azterkari jaunari ez —erantzuna diruzaiñak— neuri, neu bait nabil diruaz. Ondorio: erderaz ari denak, ez du noski euskerarik onduko.

Izkera–eragille bakoitzak, erabilliaz zaindu egiten du, gal ez dadin; landu egiten, gogor ez dadin; bestelakotu ere bai, aldatu apurka apurka, il ez dadin. Geldia eriotza izanik, oro aldakor den lurgain onetan, izkuntzek ere lege edo noraezeko indar izkutu orren atzaparkadak beurengan pairatuko nahi eta nahi ez.

Gizasemeek, premiari egokitu beharra izan ohi dute beuren jardun, lanbide eta joeretan. Iñoiz, benetako premiarik gabe ere, izaten dira aldaketa txiki ala larriagoak. Bizitzaren ibilliek beurek, gauzen eta arazoen joan–etorriek, gizadi belaunaldi berriek asmo ta asmakari bitartez ere, igitzen eta mugitzen dituzte zerik anitz.

Nolabait sortzaille den gizona, aldatzaille ere baita. Mudantzazale ere bai, maizenik. Are gaur den egunean.

Euskeraren iraupena opa dutenak erruz ugaritu dira azken bolara onetan. Zale aspaldietakoez gaiñera, gure mintzoz behiñere ari izan ez direnak ere euskalmiñak jo ditu, zorionez.

Elebitza delakoaren arazoa, bero ta gori, griña ta gar aundiz artu bide dute, ageriko zantzuak egiaren lekuko zintzo baldin badira, bai mintzatzaille eta emengo semeek eta bai erbestetik eldurik, gure Errion berton–goxo egin dutenen seme–alabek ere. Zuzentasunaren ukitua duen sentimendu au, ezin onuragarriago litzaioke Aitor ospatsuaren izketa oni.

Fenomenu gure artean ez ezagun au, ikasgarri dute, noski, gure soziologoek. Izkeralarientzat agian, arrigarri daitekeena; erriketarientzat, ez ordea.

---

* *Lekuona'tar Manuel Jaunaren omenezko idazki–bilduma*, III, 1977.

Mende luzeetan, mairu–aldiko kutsua duen arako "hable en cristiano", gure asaben asabek ere amaika bider entzunak ere, agian, iraultza izanen, gure izkuntzarekiko. Ailitz.

Alabaiña, gertakizun au, ez bedi izan aspaldiko esan arek daukan muiñekoa, nahiz eta alderantziz. Alegia, "erdera ahantzi, eta euskera ez ikasi". Bego ortxe gogoetagarri.

MINTZATUZ

Auxe izan du gehienbat bere ibilpidea euskerak mendez–mende: ahotik belarrira, maizenik —antziñeko berri zuhurrik ez dugu— bere bizikera ta iraupena. Mintzatzailleek iraunarazi diote batipat aillagiñean.

Izkribuzko laguntasuna euneko urri izan du, eta mende laburretakoa, irakurleak dakianez. Etxeko izkuntza izan da batipat, basetxekoa, kaiekoa, baserri ta uri txikietakoa, kaleetan, elizan, gizartean bizi izan dena. Uri txikietan diñogu, uriok aundi egin alean, erdalduntzen soma ditugu ta.

Lekuona zaharrak, GERO IV garren argitaraldiaren Aitzin–solasean aipatzen digun arako izkuntzaren jatortasuna, zera, gatz, grazi, bereiztasun, argi ta ez illun ez astun; erabat izkera bizia, bizidun eta beraz, euskera gazte, ta gazte bigun… dohain guzti oietaz ornitua eta txukundua ikusi nai genuke gerorantz ere mintzaira.[1] Egikor dea?

IRAUPENA

Euskeraren iraupen historia bitxia da, agian. Bidasoaz unaindi, berrogei urteko traba–bizimodua galerabide larri izan zaio, kaltea izugarri ezagutu du, gutxiespena, atzeratze, baztertze ta murrizte ikaragarria; agintarien jazargo nabarmenez eta erdal–elderiez gaiñeratu zaion galtzaia ez da nolanaikoa.

---

[1] Ezin ahantzi J. M. Mokoroaren barne oihu au ere: "...ausencia del "genio idiomático", el mortecino dejo de traducción que nos hace insoportables ciertos escritos, por otra parte correctos y sustanciosos..." (Genio y Lengua, "Ibar", 31 orr.). La salvación del euskera está en la defensa y vigorización de su genio (33 orr.).

Baiña, orratio, berrogei urteko jaurgoera jauntxukoia erori xamar deneko, jende jator ala erdal–jatorriko anitz, euskeraren alde aitortzen eta aldarrika. Mende onen asieran euskal–pizkunde azia ereiña zegoen, politikaz eta izkuntzarekiko.

Bidasoaz araindi, ordea, euskerak legeetarik laguntasunik izan ez badu ere, jazarpenik ere ez du izan, Egoe euskalerrietan ikusi dugun gisakorik. Zergatik baztertu eta murriztu ote da Ipar euskalerrietan mintzaira zaharra ain nabarmen, ain lazkarriro? Agian, iraupena, galtzaiaz ere, izan du nolabait; baiña ez pizkunde garrik.

Bitxia benetan, diñogu berriro ere.

Aldi berria ote datorkion ba. Egiazko aizarapen eta zuzpertze baldin bada, ala behar luke. Ez du txantxetako garaia izanen, burruka eta proba aldia baizik. Frogantza emateko aro ta epea.

Nor den edo zer den erakutsia eman beharreko une itzurieziña, eta alaere, experientzi aurreztikabea. Plaza gizona iduri, plaza izkuntza bilaka daiteke. Belarri zuhurrek Etxepareren oihua jasoteko une dardaretsua.

Burruka–zelaiera daramate oraingoan euskera, dakitenek eta are ez dakitenek. Orraitio, euskalmin erdi orokor onek, uberka eta ezaupide oiñarri egokirik ez baldin balu, ohidura izkera, aspaldikoa, arrunta erabat esan, erbail eta maingu bilaka daiteke, agian.

Esaterako, irrati–esale batek euskerarik ez baldin badaki, itz bakarka jakiteak ez dio, borondate ona gorabehera, euskeraz mintzatzeko eskubiderik ematen toki aretarik, erriari begira. Aurki, kalte egiten dio, nabarmen ari den bakoitzean. Eta ohar au bego izlari, idazle, irakasle eta andereiñoentzat ere; zera, euskeraz arlote xamar ari baldin badira, ez direla iñor jendaurren akats eta makets agertzaille izateko. Beste izkuntzenganako aiña errespetu eskatzen dugu euskerarentzat ere.

IDATZIZ

Estatu española delako erakunde orren esian dauden Errien artean, gureak du izkuntza zeharo berezia. Egoe euskalerrietako gizalabek eta gizasemeek, menderik–mende, izkera ofizial delakoaren uztarpean artu izan dituzte kultura eta jakitegaiak. Ortik ba, orain, euskaldun gazteek aurki daitekeen aukera berria; alegia, jakitegaillu, beuren asaben izkera erabilli ahal izatea.

Epe laburren bitartez beharko duen etorkizun ernagarria. Lan berri eta ugaria eskatuko duen lillurabide ainbat bider amestua.

Bidenabar aipa dezagun urrats–lan axola aundikoa or dagoela gertu; alegia, aditz laguntzaille bateratua deritzana, Euskaltzaindiak 1973 gnean. taxutua ta argitaratua.

Literaturarako batipat erabillia izan den izkera, jakite eta eder arlo edozeiñetarako trebatzea, erantzupen goreneko zeregiña dela aitortu beharko. Ortografia arazoa eta lexikoarena ere alderako dabiltzan arren, liztor izan orde erle maratz izatez gero, zubigilleak izan daitekez gure artean, geroko geroan mesiasi begira loak artzeke.

Pizkunde berriko goizabar onetan, moldezko letretan iñoiz baiño maizago ta usuago agertarazo ohi dituzte emen Bilbon, ere. Gehienbat, itzulpen–puxketak dira, lan laburrak, gizarte eta politika ohar eta deiadarrak, orri eta orrixkak, elebiko maizenik.

Lerro oietan barrena, erdal–itzak, udaberrian belardian txibirita zuriak gisa, erruz. Arrimenez galdetzen digute euskera ez dakitenek gure vernacula iztegia orren murritza eta urria ote den, testu modako oiek irakurtean, beurek ere poliki xamar ulertzen baitute. Jakiña, itzak; ez esaldiak.

Salba nahi dugunaren zati eta itz asko ez erabilliz baztertzen eta leizeratzen baditugu, dudan jarteko ez ote, zer salbatuguran ari garenz, gurea ala besteren izkera.

ITZULKETAK

Oker ez baldin bagagoz, itzulpen zeregin ugari izanen da emendik gorakoan, beste belaunaldi iñoizkoetan ez bezala. Lege, arautegi, agindu eta erabakiak, agintari maillan eta norbaitezkoan ere. Zabalkunde zeretan, alderdien eta taldeen agerpen eta komunikabideetan, ots, eguneroko prentsan, irratian eta abar; eta bestalde, irakaskuntzako zenbait arlotan, testu aldatze lana, itzuleen nekea, luze, astun eta maizenik, presaka egin beharreko izanen da. Ez oraiñarte bezala, eserita eta agian liburu mordoak eskuar izanik; sarri askotan zutik, telefonoz eta irrati–gelan berpertan eman beharrekoak ere susmatzen bait ditugu.

Itzulpen puntu au ikasi dutenak, eta oraintsu xamar, ba ditugu zorionez, euskal–eremuan. Zaharragoak aintzindari izan dira eta, bidezko dirudi aien onu eta esanak jasotea.

Arlo oni buruz, nahi ta ezkoa omen, anaforiko direlakoek aipatzea. Itzulpen zeregiñetan barna, mailla orretako elementu bilakatu baitira lehen edu onetako ez ziren itzak. Izan ere, beste izkuntzatiko lanak gureratzerakoan, euskararen jeinuz mamintzea ez da gero, auntzaren gaberdiko eztula.

Zera, itzulketa dexente xamarra egitea —gaztelaniaz de recibo deritzatena— are nekezago da, lumaren aidera idaztea baiño. Ildo eta erreten agindurikoan barrena joan beharra denez, tresna on, malgu eta landua eskatzen baitu, baiña tresna abillaz gaiñera, tresnaduna, au da, idazlea izkerajabe ta experientziduna beharko. Ondarrutarren arako zera gerta ez dadin: "Jakin bai, baiña praktika alu falta…".

Dena dela, guztia ezin ale, garau eta bihi izan. Galtzoa, lastoa eta… beruna ere, meazketan delako *ganga* antzo, nahasteko bidelagun beharko. Dena ezin ba, giar, urre ala zillar izan.

Gogoz eldu zion itzulpen zeregin orri, beste batzuen artean, Axularrek bere garaian. Eta gaietan aituak zirenengandik, arrakesta, izugarri iritxi. Lan ona eskeiñi zion euskerari, nahiz eta geroago, eta mende luzeetan eta are orain ere, obra gaillen ori irakurle gehienentzat autsez estalia egon. Arek eratutako liburu oni aurkitu izan zaizkion alde onak, gehiago dira eta goraipagarriago, akatsak baiño.[2]

Itzule, eta itzule onen premia gorria izanen du, noski, orain eta gero areago, euskerak. Irizleek erran ohi duten "itzule, saltzaille" ez dadilla gurean gerta.

Axularrek oparo ta zabalki ematen zituen sarritan itzulpenak. Bego aren lana asmatu eta burutu zuen gisa. Orraitio, oraingo aldian, ba dirudi parafrasiak eta, iztun edota eleder–lan ala epaikaritzako jardunetarako daitezkeela.

Eta eguneroko koxkak, argitalpenak, itzulpen zehatz, zuhur eta lan etorkunari atxikiak izatea noraezeko; okerrik eta utsik ezer laga gabe, zintzoa, uste bihurririk izan ez dezakeena, bete, originalari darraiona, erabat esan. Lege, arautegi eta erabakietan batez ere,

---

[2] "Zer dago baztertzerik Axularrengan, oraingo ustez? Hitzak, gutxi edo gehiago (*desplazer*, *desordenatu*, eta antzekoak), *ezen*, *nola*, *non* eta *zein batzu;* hitz ordena ere apur bat aldatu behar omen zaio, guztiok dakizkigun [guztiok, ote?] legeen arabera. Euskal-gramatikaren mamiari eta bihotzari gagagozkio, ordea, badaiteke iñoiz oker ibiltzea Axular, baina ez dut nik behinere huts aurkitu. (L. Mitxelena, Idazlan hautatuak, 352 orr.).

beste izkeraz eta euskeraz adiera berbera, esangura berdiña izan beharko bait dute testu elebitzakoek. Ez dugu norarik.

Gaiñera, damurik, gaztelaniazko originalak beurak ere, gero ta izkeraz bihurriago baitira maizkiro, —auzo–eremu orretan ere idazten ari diranak izkuntza bereaz iñorantzi mardulez izanik— asti eta beta aukerakorik izanen ez baitu bihurtzailleak, presaren mende, iraduaren bulkaz, testuen zatiketa eta analisirik astiro burutzeko.

Orain berrogei urte, Bilbon, 1937 urtarrilletik ekain–erdirarte, egunerokoa agerrazten zuen E. Alderdi jeltzaleak, euskeraz osoro. "Eguna" zan aren izena. Astegunetan banako arrunta, eta igandeetan, maiz, zenbaki berezia ta txairoagoa. Txeratsu ta maitakor A. Zubikarai erredaktoreburuak arestian idatzi bezala, lau arlotek ateratzen zuten egunkaria. Gerrate denbora zen. Goizeko laurak arte lan egin behar izaten genuen azken–orduko txandakoek. Ariñeketako itzulpenak orduan beharko, beste orduetan ez bezala, azken albistak, urruneko ala urreko, itzulpen ala idazketa, artikulu labur buru–zerrenda, egunsenti bakoitzak zekarrena. Lau begidunak ginen gehienok, mendirako eskasak.

Euskaldunek irakur zezaketen, euskaldun jaioak idazten zuten; au da, ez zuten eskurik sartu egunkari aretan euskaldun berriek, eta izkeraren gidaritzan ere ez; bestek oker usterik izan ez dezan diñogu. Ba dirudi aldi aretako norbaitzuen kexu–itzak jasoak izan zirela. Altube eta "Ibar" ditugu orain gomutan; erri–idazle soillen gain laga bait zuten jabeek, "Eguna" bizkaieraz eta gipuzkeraz argitaratzen zen, errez eta berezko bidez, fonetismuak gehienbat uxatuz. Irakurleek atsegiñez artu ta irakurten zuten, "argiagoa" bait zen.

ETXEKO ETA MAILLEGU

Izkera argia, erreza, egokia izatea komeni zaio idazleari. Ulerterreza bilakatzea, irakurleari. Beraz, idazleen eskola onuragarri daitekelarik, euskeratzailleena ere, noraezekoa dugu, nunbait. Arako Toledoko Itzuleen eskola datorkigu gogora; gureari buruz, jakiña.

Duguna aski ez denean, aldatuz edo sorberrituz, gureak zertuz eta mailleguak artuz, beharko.

Bidelagun oien artean ari izan dira, anaforikoen artean esan nahi dugu, euskal–idazle batzuek, bereziki, itzulpenlanen aurgintza miñetan. Orren premiñaz gertatu nunbait idazle aintziñekoak, eta urrengorik urrengo erabilli izan dute anitzek.

Beste batzuek, ordea, ez dute oien beharrizanik nabari izan, eta ez dituzte beuren gutun, idazki eta liburuetan sartu.

Baiña etxean sartuak dira eta, gure jakitunek esan dutenaz iruzkin labur egitea dagokigu.

Azkuek bere Morfologia mardoan, 365 gn. orrialdean diardu anaforikoez. Oien bitartez antolatu esaldiak, ez zaizkio batere atsegin eta begiko. Eta 490 orr. berriro doa arlo orretara, erdal–kalkodun elkargarriaz ari dela, eta dirausku: gure galdegai auek, *nor*, *zer*, *zein* eta abar, orixe dira ta besterik ez: beraz, eta adibidez, "Gero"–ko puxketa au erakartean, "zeren iduritzen zait ezen oraino bizi zarela…" doble extranjerismo, aldarrikatzen du, eta onela gehitu: la locución neta es "oraino bizi zarela iduritzen baitzait".

Lekuona zaharrak oraintsuago, Axularrek erabilli anaforikoez diardu, gorago aipatu "Aitzin–solas" aretan.

Bospasei puxketa sailkatuko ditugu, don Manuel–en leziño errez au azter dezagun. (Axularrek okasino, debozino, arrazoin eta abar darabilzki; baterantzarako amoreakgatik, badirudi *n* ori ere itzurti bilakatu behar ez dugula, etxerakotu baizik).

> "Zeren baitaki, ezein, baldin amak nahi ezpadu, eztioela zigorrak minik eginen". *Zeren* eta *ezen* oiek —azaltzen du Lekuonak— eztute leku oietan faltarik egiten. Euskaldun arruntak eztizu erabiltzen bere bizitza arruntean olako *zeren*–ik eta *ezen*–ik. Elizgizonak dira ola idazten eta peredikatzen dutenak; eta oiek ere ez, idaztietatik eta kulpitoetatik kanpora; oiek ere ez beren bizitza arruntean. Guzti au [olaxe, don Manuel, eta ez *au guztia*, belaunaldi berrikoek diotenez] *kulteranismoren* bat ote dan señale bait–da: latiñetik eta erderatik artuaren señale…".
>
> "Bi itz oiek gabe, zati ori ondo, oso ondo ere, dago, bere ortan. *Zeren*–ek esan nai duana, esana dago urrengo itzeko *bait*–orrekin (baitaki, bait–praefixum causale); eta *ezen*–ek esan nai duana, berriz, esana dago eztioe*la*–ren –la orretan (–la, subfixum consequtivum). Beraz, sobra dira biok.
>
> "*Zeren* au, geienean —jarraitzen dio oiartzuarrak— leku betegarri bezela erabiltzen du gure Axularrek; gutxi gora bera, latinoak beren *quidem*, eta greziatarrak beren *men* etab. erabiltzen zuten bezelatsu; ots, bear esturik gabe, expletive, lekubetegarri bezela".

"Beste zenbait aldiz, eztira sobra egongo… Adibidez: "Zeren, hartan ageri da ("Hartan ageri baita"–ren ordez).

"Begira orain *ezen* batzuk ere: "Kontsidera dezagun, *ezen*, Adanen seme guztiok… gorputz bat garela ("garela" dagon lekuan sobera bait da *ezen*); "Ediren duzu, ezen…, konpainia batzuetarik aldaratu behar zenduela… Halaber edirenen duzu, lehen zine*la* gerlan, eta orai zare*la* bakean (lenengo zatian *ezen*–ik gabe ondotxo bait legoke, bigarrena dagon bezela…).

"Ez *zeren* ez *ezen* Axularrek erabilliak eztira legezko urre…

"Ezta zein…, hain… non, hain… ezen, ponderativo oiek ere [...]

"Beste akats bat aizkenik "… ez pentsatu ere, batzuen gezurrak indar gehiago due*la* " (due*nik*–en ordez).

"Aipatu akatsok… ez ditugu Axular mendretzeagatik egin —bukatzen du ataltxo au Lekuonak—, aren liburuzko zenbait urre–aizun, legezko urretzat iñork artu ez dezan baizik, eta paperezko lorea lore jatortzat"

Gure elederrari buruz aspaldi don Manueli entzuna datorkigu gogora: Idatzi egin behar da, ugari idatzi, lan ugari atera, orixe baita eredu onak irixteko bide. Anitz galduko, agian lan kaxkarra dalako; baiña lanegin txukunek, taxuzkoek, lanon direnek iraunen dute izkuntzaren eta literaturaren onerako. Ona emen "Gero", diogunaren erakuspen mardul.

ALTUBEREN OHARRARAZPEN ZOLIAK

Itzulpenetan, batez ere gaztelaniatikoak baldin badira, aien esaldiko lehenbiziko itza, gurean azken daitekeela, argitzen digu Altubek. Erderatiko paragrafo, ots, beste pentsamoldez sortu esakerak, naturaltasunez eta malguki itzultzeari, euskerak gogor egiten diola, eta are naska ere. Beti ez dela jardun erreza izaten, izan ere.

Sarritan, aditz–formaz beste izkeraz ager daitekeena, gurean aditz–izen soillez ordekotzea, jatorki aritzea dela; eta alderantziz, erderaz aditz–izen egoeran datorrena, aditz–jokoz ezarri, gurean. Beste nonbait auxe ere ba dirausku: frase luzea, berez, euskeratzaille askorentzat opio loak–argarri ohi dela, mintzairaren sena ta jarraipen arruntaz ahanzten baitira.

Anaforiko morrosko oien susterrerago jo guraz, arrasatear maixu aren ohar oni gatzaizikio: J. Vendryes–en itzetarik, arako cuyo, al

cual, por el cual etab., esaldi–asierak eta oien kideak, izkuntza zenbaitetan jakintsuen literatura bitartez sartuak direla ar daiteke. Eta euskal–itzuleek ere, orretara jo izan dute, itzik–itzegi edo ixuriz, ordea.

> "Gizona, zeiñen alaba ezagutzen dedan.
> "Ugezaba, norentzat lan egiten dedan.
> "Eskekoa, nori limosna eman oi–diodan…"

Erdal–testuak gureratzean —gaiñeratzen du arek— trabak ematzeko, arintzeko, lehen eta behiñen auxe egitea artamendatzen da; zatitu, banatu, soildu ta laburtu, luze daitezkeen frase elkartu eta estekatuak, eta ain zuzen, itzulpena egiten asi–aurretik.

Arrotz esaldi luzeetan, ataltxo bakoitzak duen tokia zuhur aintzat artu ezaz, euskal–idazle lazo ta zabarrak izkuntzari egin diezaiokeen kalte izugarriaz bildurti izan gaitezen, eskatzen digu benazki. Eta ala, 172 orrialdean, eredu laburretan ere, argibideak ematen; berdin ez baita "bizi izateko jatea" ala "jateko bizi izatea", edota "irakasten ibilten" ala "ibilten irakasten"…

Au ere esanik du: arako euskaldunak bere izkera–sena gal baleza… el día en que ese pueblo vacilara en su acertada composición (inversa a la castellana en locuciones euskéricas) perdiendo la noción exacta y clara del valor morfológico que el orden de colocación de sus términos infunde a esas locuciones [tal como constante e inalterablemente sale de los labios del pueblo euskaldun] habría perdido el euskera su virtualidad para servir de medio de expresión.

Euskeraren jeinua goraipatzen du lehenik. Mokoroak ere berdin ziñoen, ikusirik dugu. J. Zinkunegiren "Irizpidea" lana, bost zentzunez egiña aztertzean, ohar zorrotzak benetan Altubek egiñak. Itzule berri daitezkeenak bioaz aren "Erderismos" liburu aipu aundikora.

Buruxketa lan ariñean bezala, erakusburu oiek, soillik.

Batzuetan, frase–atal biñako gisakoak, gaztelaniaren ordena berean doazela euskeraz ere, elkarkariz estekatuak direnean. Itzulpena, izan, zuzen xamarra izan daitekeela, baiña ez beti zeharo arteza. Eta baita au ere, zuzen itzuli arren, izkera batean balio bateko ta jakiñeko daitekeen itza, beste mailla batekoz itzulia izatea, izena ta aditza, aditza ta izena, eta abar. Elkarkiak gaztelaniaz, komunzki aurretik dioaztela; gurean, ordea, atzean; eta zidor arrotzez jardun izan dute-

la sarri askotan euskal–idazle zenbaitek, eta ola, itz auek: baizik, beraz, ba edo bada, noski, barriz, ordea… eta abar, asieran ezarriz.

Au ere jakiñarazi digu: erdal–moldez esaldiren bat egitean, *non* edo *nun* anaforikoaren ordez, gaitzerdiago dela *ze* jartea; adibidez: "ain geiztoa zan ze (non, nun) auzoko umeak ere…".

Erdal–kalkoz eratu esaldietan, aipatzen dituenen antzera egitean, *ze*, *eze* eta *ezen* erabiltea kalte apalagokoa dela, oien gisako esaldietan ezik, euskeraz funtziño zehatzik betetzen ez bait dute.

Eta emen dator jakingarritzat damaigun au ere. Altube irakasle artez den au, adikor, lagunegille eta amore–ematen dakiana ere, ba da. Ikus bestela; 191 orrialdeko oiñean ezarri ohartxoa: "Esaldi laburretaz kanpora, ohargarri da zer au orraitio; alegia (gaurko euskaldunentzat behintzat), elkarkari aiek aitzinean daramazkiten esaldiok, argiago ta ulerkorrago direla".

Goratxoago ikusi iru oraziño oiek azaltzean ere, luze xamar ari da eta beste izkerari lotuegi jardunaz itzuliak izan direla; eta olaxe, "gizona", "ugezaba" eta "eskekoa" esanaren atzera jaurtikitzen ditu, eta beste tankera onetan taxutu esaldiok:

> "Zeiñen alaba ezagutzen dedan gizona;
> "Norentzat lan egiten dedan ugazaba;
> "Nori limosna eman oi–diodan eskekoa…"

Oiengatik, bitxi ta bakan iritzi arren, euskal–sintaxiari menago daudela, dirausku. Eta ziri eta biri, beste taxuok ere ematen ditu, errikoiak direla gaiñeratuz:

> "Zein gizonen alaba ezagutzen dedan? ba gizon uraxe;
> "Zein ugezabarentzat lan egiten dedan? ba ugezaba orixe;
> "Zein laguneri limosna eman oi–diodan? lagun ura…"

(edota "zein lagunek limosna eman oi–dion? lagun ura").

Are gehiago. Aipagarri benetan Altuberen beste esan bakan, iritzi ernagarri au: "puede asegurarse, pues, que la utilización de la oración interrogativa como auxiliar de las ordinarias (tal fue el origen de las locuciones anafóricas *cuyo*, *al cual*, *por el cual*, etc., de que tanto partido sacan los idiomas indo–europeos) no es un recurso del todo extraño al euskera popular; así se comprueba por los ejemplos expuestos y los siguientes…".

Ororen buru, Azkueren aitorpen au, ain zuzen, Altubek bere liburura osorik erraldatua; akasdun lokuziñoei buruz ari delarik: "Lokuziño obendun oiek, eta orobat anaforikoak erabiltea, gehienbat itzulpenetan nabarmentzen da, ohargarri baita ez dela lan erreza oiek egitez, arrotz–kalko direlakoez baliatu gabe". (Morfol. 365 orr. eta Erderismos, lehen agerraldia, 229 orr.).

Eta orra ba, anaforikoen ipuia zelanbait kontatu, eta aldez edo moldez, erdi senitarteko ditugula jakin. Eta premiarik ez denean, zertan erabilli ez den bezala, beharrizana eta noraeza duenean... Jainkoak argi ta arnas, itzule esturaz ximurtuari, eta gustu ta eder–ukitu puxka, euskararenganako amodioz, egin gogo duen lanari estetika igurtzia ere, eman diezaion.

Bilbon, 1977 urtarrillaren 19 an.

IRAKURLEAK BAI, IDAZLERIK EZ*

ALDIZKARI honen eragileak, euskarazko lan gehiago ikusi nahi leuke BILBAO honen orrialdeetan. Horixe entzun deutsat.

Irakurlerik ba dala, aitatu dau, eta zerbait esan guraz edo, esan be bai; arean, euskeraz idazten dabenak, hau da, guk geuk adierazpen zabalez eta ernerazote gurean euskal–idazle deritxegunak, alper samarrak ete direan.

Eragile horrek ez daki euskerarik, eta bere sakoneko borondate onak aztertu beharra ete dauan esango neuke. Euskera ez jakiteak gure munduaz aparte dagoala adierazoten dau. Are gehiago, euskerea jakitea be ez da nahikoa, euskerearen munduaren edo mundutxuaren barri izateko.

Mundu berezi bat dalako, arau jakinen menpe jardun ez daualako, edo orain esan daroan lez, normalizatua ez dalako.

Gizaldiak gizaldi euskerea ez da eskoletan, ez txiker eta ez handi ta nagusietan, ez agintelekuetan ez negozioetan, ez da erabili izan. Orain, itsumustuan edo haren baten, edozein hizkuntzaren parean jarri gura izatea, gurari eskerga ta ikaragarria da.

Baina dana dala, alper samarra ala ez, idazleazko zerbait argitu nahirik, L. Akesoloren Hiztegi haundi ta barri horretako 5 g. liburukira jo dogu.

Eta, horra ba. Hitz horren sarreran, geure garaiko izan direan lagun biren berbak dagoz. Ikusi daiguzan.

«Irakurle gutxintzat, idazle gutxi» esan deusku Irazustak, Joanixio, 7. Eta jarraian, besteak. X. Lizardi zanak, kezka zorrotza agertu eban bere aldian. «Euskal–idazleak, edozein idazlek beste, tokia bear du. Lana non agertu ez–padu, eztu lanik egingo. Orra orduan, ez soilki idazle bat galdua, baizik aren ikasbide ona ere, idazlekumerik sortzeko bideak langatuz». (Itz–lauz, 69).

Euskeraz idatzi izan daben gehienek, ez dabe irabaziagaitik idatzi. Makalduz ta baztertuz joian hizkuntzearen alde zerbait egitearren idatzi izan dabe.

Ezin ba, ezegokiagorik, euskeraz idatzi daroenak alper samarrak ete direan aitatzea baino. Bestalde, mende honen hasieratik izan dogu

---

* *Bilbao*, 25, 1990.

idazlerik gehien gure alorrean. Idazlea, elementu barri antzekoa da gure faunan.

Begira. Izkiriatzalle berbea erabili izan dabe gure aurretikoek. Iragan larogei urtean edo, idazle hitza darabile gehienek. Idazle dalakoa, gure gizaldian eta gure eremuan, ugaritu ebana, harako «Kirikiño» izan zan.

Ondorengoz, idazle izenez ezaguturiko askok, lan bai, eta jan ez egin eben. Idazleak berezko ta ikasizko dituan doaiak izateke, egia da, hainbat eta hainbat euskaldun, eskolan ikasi ez eben hizkeran idazten hasi zan.

Ez egoan idazle alperrik. Tamalaz, sakonkiro eskolatuak ez zireanak bai. Pintoreak be, berbarako, eurenez hasten direan antzean, idazlea be, berez hasi ohi da zer edo ha idazten, prosaz edo bertsoz. Arlo honetan be, horraitino, gureei ezarri izan jake txalma edo bastokako hau: bertso asko, ta olerki gitxi.

Edota, bai; euskeraz ba daki, baina gazbako lanak egiten baino ez daki. Honetan agertu ohi dau bakotxak berak norbere oilartasuna. Eta oraindik orain, aspaldi esan ebena, barriro entzun dogu: euskeraz, zetarako idatzi?

Abertzaletasunaren giroaz gain hegan egiten dabenak be, hor dabiltz. Giro horretaz ederto baliatu direanik, argi ta garbi esango ete dabe inoiz?

«Kirikiño» gomutatu dogu, eta bedi harentzat idatzi honen azken alde hau. Maiñarin jaioa, hirurogei urte dira oraintxe, bere jaioterrian hil zala. Ebaristo Bustintza haren izen–abizenak.

Bustintzak Madrilen ikasi eban bere karrerea, ta horra ba, ez zan letren karrerea. Ondoren, han Mancha aldean hasi zan irakasle zereginetan. Bere berbetea, ostera, bere euskerea ez eban baztertu. Bai zera baztertu, benetan zaletu zan, eta erbestean bizi zan arren, hemengo euskal–munduaz, pizkunde munduaz aldendurik ez egoan.

Idazten ebanetik zerbait, Bilbon argitaratzen zan «Ibaizabal» aldizkarian. Hortik lortu eban R. M. Azkuegazko ezagupidea ta adiskidetasuna.

Haren bihotzean Euskereak eta Euskalerriak sekulako tiraina sortu eben, sekulako deia; eta honuntz bihurtzeko asmoak barruak grauskadea egiten eutsan.

Euskerean alde ta onerako lan egitearren, hango Irakastetxeko maisu ardurak bertan behera laga eta honuntz etorteko prestakizunetan hasi zan.

Azkueri hainbat karta idatzi ondoren, azkenengoa uste dogunez 1901 gnko. zezeilean, orduantxe abiatu zan Bizkairuntz.

Kapelea buruan, ttattar luze baltza edo txalinea idunean, horrelan ikusi daroagu erretratuan. Ez nintzan haren aurrean inoiz egon.

«Ibaizabal» horretan artezkari, eta geroago «Euzkadi» egunkarian jarraiko lanean, euskal–atalen arduradun batipat. Azkueren ondorengo lez, Bizkaiko Aldundiaren Euskal katedran be, irakasle izan zan.

Egunokaz, «Argia» astekarikoek «kazetari» zaharroi omen txeratsua egin deuskue. Baina kazetari pionerua, euskal–eremuan, «Kirikiño» izan zalakoan gagoz, hamabost urtean ia egunero idatzi ebalako.

Bera izan zan «idazle» gazteak zirikatu zituana, askoren lotsea ta alper usaina astindu eta euskeraz idazten jarri zituana.

Jan ez, baina lan bai. Horixe izan zan alperreria alde batera laga ebenen jokabide emonkor ta eskuzabala.

Bai. Euskerearen mundutxuan irakurlearen eta idazlearen arteko hartu–emona orain berton zelan dabilen ez dakigu.

Horraitino, Irazustaren berbak gogoan erabiltekoak izan daitekez.

ZAMARRIPAK EU—/AU— ADIZTAIU ALDAERA IXILA, BERE AZKEN GRAMATIKAN*

Eusebio Erkiaga

Laredon jaio zan Pablo Zamarripa Uraga 1877. urtean, baina txiki-txikitatik Bizkaiko Txorierriratu eta Sondikan, bere gurasoen jaioterria izan eban gehienbat bere egoitza. Gurasoak, Benardino eta Tomasa. Abade egin zan eta Bermeoko Zoroetxeko kapilau be, izan zan unada baten. Gerotan euskaltzain oso, jaiotze mendeurrenik ospatu bagea.

Euskerearen alorrean lanean gazterik hasi zan eta hilarterainoko guztian behargin, zal eta iraun handikoa gertatu ere.

Batipat, bizkai euskalkian jardun izan eban, hizlauez ta hizneurtuz idatziz. Haren lana alde bikoa da. Irakasteari dagokionez, gramatika arloan, eta berba eta esaldi jatorren saioetan ibili zan. Bere *Gramatica vasca* liburua sei bidar gino argitaratu eban. Azken etxegerratearen ostean, alerik ere ez egoen salgai. Euskal-girorik ere, egia esan, ez egoan. Arean ezin horrelako girorik gerta, jaurbideaz gogorrean jabetu ziranek gure Herriaren ezaugarrien zapaltzaile antzean jokatu eben eta. Ezaugarrion artean herriaren berbeteak ere, egundoko jazarkundea jasan behar izan ebelako.

Halakoren baten horraitino, harik hamabi urtera edo, arnasa apurra hartzeko eretia heldu jakon euskereari. Euskaltzaleentzako atsekabeen aringarri etorren. Zamarripa ere zirkin egitekotan egoan. Zazpigarren edizinoa egingo ebela, emon eutsan buruak. Horretarako Gasteizko eleiz-baimena 1950. maiatzaren 8an lortu eban. Zazpigarren irarkaldiaren barruko aurretikoena baino hobea izango zan, ikasleari bideak errezagotuz. Kolkoan gorgor eukan asmo hori idatzi egin eban, bere lehengusu Antoninori liburua eskeintzeko sarreran, Sondikan 1950. urteko San Pedro bezperan.

Horraitino, nork esango, harik hemeretzigarren egunean, uztailaren 17. hil zan Sondikan, Ganboa etxean.

Beraz, defuntu ederraren gogoa ta borondatea zertzea haren arreben eskuetan geratu zan; arean, zazpigarren irarkaldia egitea. Hone-

---

* *Iker-6*, 1992.

tara lau urte alperrik, harik eta 1955ean Verdes Atxirikarenetik dei egin eta asmoa azaldu eusten arte.

Irarkizun zana han euken, gramatikaren seigarren edizinoko banako bat. Han hor hemen, ikutuak, orraztuak, aldaera ta zuzenketak eskuz eginak. Nabari, orri bateri atxikirik egoan paper zuria, azpian estalirik geratzen zana ezereztuten ebana; Zamarripak eskuz idatzia, 28 adiztaiu jasean eta zerrendan paper zurin.

Irakurri eta harritu egin nintzan; azalpen bat ete egoan, eta bapere ez. Han egozan Conj. act. mixta izenekoan, gaur eguneko zer(nor)-nori-nork, indicativoko oraingo taiuak (itanozkoak beste bazter baten azaltzen zituan). Zamarripak anartean berberak (eta aspaldietako bizkai idazleek) erabili izan eban (d)eu erroa bazterrean lagaten eban zahartzaroan, eta (d)au— zan zazpigarren ekitaldiko bide erakusle.

Zerik zetara ete zan burubide hori, iraultza txiker hori? Begi-zizta, kasketaldia? Lagunik nahikoa (d)au zale zala ohartuta? Ziur asko R.M. Azkueren berben eraginez aldatu zala uste dogu. Hor egoan Morfologia vasca totoloa, 1923. urtekoa.

Aipamen luze samarra gerta daiteke, baina merezidu dau, edozeinek ahazturik dogunez gero, barriro ere gogartu dagigun. Orrialdea 703, eta 945 zenbakia.

> "Observaciones. (...) 2ª. Al pie del paradigma como segunda inicial que indica el carácter de cada flexión, se ha puesto una *r* con significación de recomendable. He aquí la razón de esta recomendabilidad. Al paso que en muchas flexiones objetivas de este mismo auxiliar el diptongo *au* es *o* en todas las localidades, excepto en el moribundo hablar de Zigoitia, en estas flexiones de recipiente *au* es para unos *au*, para otros *eu*, para muchos *o*, para varios *e*, para algunos *u*. *Egin daust* "me lo ha hecho" de Orozko y Baranbio es *deust* (B-g-l-nab-zean? -zig), *dost* (B-ber-oñ-sor-otx-ub-zean?), *desta* (B-eib), *dust* (B-aram-leg-mond-zean). Valernos en el primer caso de *dut*, *duk*, *dun*, por *dot*, *dok*, *don* que se oyen en todas partes, sería contraproducente. Elegir en el segundo *daust*, *daustazu* y *dauste* por salir de este conglomerado (repartido en diversas localidades) de *deust*, *dost*, *doste*, *desta* y *dust* parece razonable. Así lo hacen por lo general los escritores bizkainos de nuestros días y creo que con aceptación de los lectores".

Halan ere, Azkuek ohar hau laga eban: "Entre los antiguos raras son las flexiones con *au* que nos dejaron". Eta bakan horretan ere, egile berberak gehienbat *eu* erabili izana, ez dau ixildu. Halan Pedro Astarloa eta Pedro Ignacio de Barrutia, hain zuzen hiru mende lehenagoko idazlea.

Subjuntivoko orainaldi ereduan (Iragankorra, (nor-nork) Zamarripak "dagidan, dagizun, dagian..." taiuak daukaz. Geroago, aldi berberean baina zer(nor)-nori-nork arloan (141 orr.) "dagistasun, dagistan... dagiskuzun, dagiskun... dagiodan, dagion, dagitsudan..." Ez, arean bere, zaharren degistasun, de(g)idazun, de(g)ion, eta abar.

Bekargu, azken aipamenaren osagarri: (Morf. 1983 zenb.) "La tal *s* no se agrega a los elementos personales *n*, *o* y *oe*".

* * *

Arteraino, Zamarripak bere Gramatikan hiztegiaren atal bat ere, sartu ohi eban. Baina 1955 urte haretan zerau iradoki neutsen, eta ontzat emon eben senideek eta irargileek: gramatika hori soilik liburu bat eta bereiz, hiztegiño biekin, euskal-erdera ta erdal-euskera gutun apartekoa egin. Geunkan materialaren arabera frogak zertzen alegindu nintzan, baina iratxoek huts edo okerren bat bahean zehar arrainduten dabe. Zamarriparen Gramatica Vasca (Dialecto vizcaíno) 1955 abenduan kaleratu eben, Verdes Atxirika irarkolan egina, 302 orrialdekoa.

Beste liburuska hori, arean, *Vocabulario vasco-castellano y castellano-vasco* (Suplemento a su gramática del año 1955) harik urte bira, 1957 g. atera eben, irarkola berean; 164 orrialde eta gehigarritzat hiru apendize labur: s eta z letren aldea daben hitzak; umeek ohi dituen berbak eta izen bi dituen tokiak, gaztelaniaz mintzatu ala euskeraz egin.

Gramatikeak L lezino ditu. Bakotzaren amaieran ikaslearentzako zeregin lez, itzulpen lerroak atal bitan, euskal-erdera ta erdal-euskera. Honen osagarri, beste bazter baten "Clave de temas" txortea daukagu. Horregaitik ikasbide hau onurakorrago egiten da; lezino bakotxeko lanen testua alderantzira eskeintzen deutso ikasleari, eta ikasle liburu ere bihurtzen da.

Egilearen mundua batipat Txorierri zanez, elekundea ere, baserri girokoa da gehienbat, hau da, liburuko ariketen eta alkarrizketen guna. Aldian aldiko, ganera etorkigun euskera urbanoaren eremuaz, jakina, jai eukan abade zaharrak. Irakasbidea, didaktika arabera egokien danik ezin esan.

Beste liburu estimagarria ere, hor laga euskun, *Manual del Vascófilo* (libro de modismos, onomatopeyas, elipsis, etc., del vascuence vizcaíno). Bai liburu honetan eta bai gramatikan, hainbeste ohar eta argitasun emoten deutsaz euskaltzaleari, ikasbidea ondo hornidua geratu dadin. Bereiz, *Conjugaciones guipuzcoanas* zerrendak ere argitu zituan, hain zuzen ezagutu ez dodan lana.

Ustetsua eta baikorra zala, dirudi. Gramatikako testuan bertan ere, gogaro onaren erakusburu bi aitatu geinkez. Galdegaiaren auzia mahiganeratzen danean, 16. orrialdean, egileak ikasleari lau pertsonaia barri jarriko deutsaz begien aurrean: "Atendiendo a cuatro que protestan". Zeintzuk? BA baldintzazkoa, EZPA ezerako balizkoa, BA indartzailea eta EZ ukamenekoa. Jarraipenean, lau horreek, "enterados oportunamente de que se ha dicho que la palabra dominante en la oración vasca debe ir siempre inmediatamente antes del verbo conjugado..." auzitegian bailegozan, bakotxak berak banan dakar norbere auterestia ta urtenbidea.

Beste behin, 85. orrialdean daukan txantoan, —orrialdearen heren bat hartzen dauan kuadradua da—, zerau dino: "Un anuncio grato al lector. En la página 87 comienza la conjugación activa perifrástica (Iragankorra 1, nor-nork) cuya estudio le ha de ser, D. m., todavía más fácil que el de la neutra igualmente perifrástica que..."

Iraizean, idazle ginoan be, zertu dagigun. Ikutua besterik ez bada ere, Koldo Mitxelenak bere *Historia de la Literatura vasca*, 1960, 155 orr. idatzia, berralda daikegu: " La ficción no ha tenido gran cultivo entre nosotros, más allá del relato oral. Se han elaborado reiteradamente sin graves pretensiones literarias temas populares, muchas veces con tendencias moralizantes; así en los libros de los sacerdotes Urruzuno y Zamarripa".

Azken honen gogaroaren eretzean, horraitino, lehenengo Euskaltzainburua ere jarri geinke, Koldo Azkuezaz idatzirikoa gomutan dogula: "Tenía un humor amable y juguetón (como Larramendi) que le llevaba a menudo a llenar de chascarrillos las páginas más serias de sus obras" (143. orr.).

Txorierrikoa, baina don Pablo baino gazteagoa zan Mikel Zarateren berbak ere, jasogarri bekiguz, Sondikakoari buruz: "Beste inok baino obeto erakutsi deusku Bizkaiko Txorierri aldeko berbetearen berarizko usain gozoa. Izkeran argi jatorra, esakeretan aberats

eta errikoia; idazlanetan laua, gatz handi bako umoretsua" (BEI, 171).

Argitaratu zituan literatura liburuak aitatuko doguz beingoan. Artean, egunkarian ere euskaraz idazten eban, eta beraz, gaur dan eguneango berbakeraz, kazetari ere izan zan, lanak Bilboko *La Gaceta del Norte* zalakora bialtzen zituan eta. Bere laneginen zabalkundea, zelanbait, bere ziran beste liburuen bitartez egin ohi eban, liburuen azaletan zeintzuk eta zelakoak ziran, nasai agertzen ekian eta. Haren berbaz baliaturik, hona hemen:

Gora begira. Libro de poesías euskéricas de sabor religioso, patriótico y vascófilo (varias de ellas premiadas en concursos). (Agotada).

Anayak gara. Cuento catequístico en vascuence, con tres dibujos. Opúsculo muy indicado para regalo a niños euskaldunes.

Zaparradak eta. Libro de trabajos euskéricos en prosa y en verso, escritos en tono jocoso, para solaz de los amantes del vascuence. (Agotada).

Kili-kili. Otro libro de trabajos euskéricos en prosa y en verso, escritos igualmente en tono jocoso, para...

Firi-firi. Tercer libro de trabajos euskéricos en prosa y en verso, escritos asimismo en tono jocoso...

Zamarriparen umore gurako horrezaz K. Etxenagusia antologilari beharginak ere, aipamen egin dau. Gomutara jatort Nazario Oleaga euskaltzain eta gizon berba neurtuak esaten ekiana: "Zamarripa gurea bere artean esne bitsetan ibilten zan, eta ez zan konturatuten, ez zan sekula konturatu, arlo irritsu zirikari horretan idazle izateko... gatzik ez eukana".

Txosten hau amaitutzat, eskuar dodan liburu argitarabarriari begirada egitea otu jat: *Guda Nagusia 1914-1918* Sutondoa saila. Labayru Ikastegiak joan dan abenduan kaleratua. Hautsak eta sitsak zokondoan betiko hondatu baino lehen, 336 orrialdeko liburu jasekoan baturik "Kirikiño"-ren idatzi geiago, hain zuzen, urte horreetan, *Euzkadi* egunkariak agertuak. Begiradea egiten hasi, eta ene! *Zarrontzale* berbea dakar 44. orrialdean, idazpurua "Guzur-sasia". Orrialde barrenean (2) *Zarrontzale* = Pablo de Zamarripa y Uranga abadea. Beste hiru bidar ere, aipatzen dau orrietan zehar. Baina azkeneko aipamena, 122. orr.: "Nik inoiz esan dot euskaldunok alako

pillosopo parrastada bat badogula geure odolean: adibidez, or dozue *Zarrontzale* seme *argidotarra*, *sekuleko apizionea* dauana *polemiketara*, *dialeketikea* txirikillan erabilten dakiana". Hona, ba! Uste uste barik. "Kirikiño"-ren piper minaz topez egin dogu.

Nik neuk noizbait behar eta, Zamarriparen eu—/au— aldaereaz nekianaren testigantzea egina bego.

HITZAURREAK

ZIZKA–MIZKA ATSEGIÑA*

Alako gozotasun eta isuri samurra dauke liburutxu onen orrialde askotako lerroak, esaerak, itzak. Egilleak, ba dau ederraren gunaz artu–emon sakonik. Bitaño–k idazlearen sena erakutsi deusku lan onetan, eta baita pintore onaren zentzuna be.

Jazorikoetan eta aitatzen dituan gizaseme ta gizalaben irudiak —kanpoko azbegiak, barruko izaerea— ari meiez ta orrazi bigunez josi–orrazturik damoskuz. Asabeleen ao gozoa, agirikoa ta guztizkoa da.

Onetariko libururik eskas da gure artean oraiñarte.

Eder–ikutuaz batera, jakingarri–gaiak eskeiñi deuskuz. Elezaharretan, misterio–tanta gozoak emon deuskuz apurka, tintilka. Eta gure aldiko pertsonen joan–etorria eta urrun–urreragoko tokien arnasea ta taiua gure begi–aurreratu.

Jakiña, literatura baketsua da eskuetara deuskuna; burruka–deirik bagea, joandako belaunaldietan maitagarri izan ohi zana. Ez orraitiño, oraingo aldian geienbat, urduri ta aragi ageri jarten gaituanetarikoa.

Eder–lurrunaren igurtzi naroak azkortu ta mardulduak ditu idazlantxu txanbeliñak. Ori dala–ta, lehengo gauzen aurkibidea ta jakituriaz ganera, lanok ikusi ostean, egilleari, literatura–emoiak be, eskatzeko eskubidea dogula uste dogu. Idazle elduak ohi daukan arima–dardarea suma dogu irakurri–ala, iñoiz edo bein, orrialde errez ta txairo oneetan. Esaterako, «Irukoitza» atsegin eta zarradakorrean. Eta «Etxezarko zaldun zarra» lantxuan, etab.

Oraingoan, alperrik da, askok adierazo ohi deuskuena. Zera, euskerazko lanak irakurtea ta ulertutea, gatx eta neketsu dala.

Bitañok, bere sortalderdiko izkera muetea ta esanaldiak darabiltz sarri, eta orrek, berekoitasun guragarria ta koloretsua emoten deutsa orrialde zoragarri batzuei. Idazlearen arimea agertu deusku oraingoan, eta erriaren izkerea naiago dauala, gramatika–arauz zeatz eta estu ibiltea baiño.

Euskaldun jaiorikoak, Bizkai–aldekoak batez bere pozarren irakurriko ditu —guk geuk egin ditugun lez—, lerrokada errez ta

---

* *"Atalak" liburuaren hitzaurrea*, 1967.

jan–nagizuka dagozanok. Euskal–ikasleak be bai, bezuza ta emoi gustagarri izango dau, ikastaro bi edo iru onuraz egin ondoren. Eta baita ume azitxuak be.

Ondo etorria bedi gure eleder–zelaira, ta bekarz, bere ondoren, anaitxu ugari.

Eusebio Erkiaga
Bilbon, 1966 gn. zezeillean.

LAN ONEN AGERPENA*

Gure errikide onek irugarren liburua dakarsku. Osagille arazoa dau nagusi ta behiñen, bere eguneroko lanbidean. Orraitiño, orrezaz ganera, antxiñako gertariak jakiteko zaletasun bizi-bizia dau ta, aspaldion diardu arduratsu, jazoeren barri ta zertzeladak batu ostean, liburu ta idazlanetan argitaratzeko.

Orretara, bere jokera ta guraria gozaro daroiaz, ta bide batez, bere ahalegin izerdien ondorengo dituan lan barriok, ain zuzen be, eskeintzen deuskuz, ta ganera, erritarroi. Eta guk, bape neke barik, errez samar irakurri ta jakin giñei jazoriko asko ta asko.

Lenengo liburuan, geure ta bere jaioterria ta erritarrak izan zituan gai: *La Villa de Lequeitio* —ensayo histórico—. 1965'gn. urtean agertua, 292 orrialdekoa.

Arrezkero, igazlehenean, «Hombres de Vizcaya» deritxana, 319 orrialdekoa. Lan orregaz, kritika zehatz eta azterketa esturik ikusteke gagoz. Irurogeta bi autoreren lanak erabilli zituan ori burututeko.

Oraingo au barriz, ez da ain totolo ta mardoa, baiña bai zertzeladetan ugaria. Gaiak, esan ohi danez, gehienok iturrian bertan batu eta artuak ditu.

Irugarren liburu onen bitartez, geure denpora osoa jatorku gomutara, nabarien agertzen diran lagunak, geuk geurez ezagutu izan ditugulako. Azken berrogetamar urteotan gure jaioterriko gora-beherarik naikoa. Ezetariko griña ta alderdikeria barik agertu gura leukezala, diño asierakoan. Ez da ori errez beti. Historiaren idazleari, edonori lez, norbere sentimentuak otz-otz ta bare-bare esipean lotutea, gaix jakolako. Jakiña ba.

Urduritasuna agertzen dabe gure aldiko gazteek, historia egiazkoa jakin gurarik: gauzak eta zerak izan direan giñoan, aldakuntza barik, txarragotu baga, utsunerik jarteke, azala guzurrez apaindu barik. Idazleak ezin leiz bere gogara ta burueretara jarri joan-etorriak paperetan. Ez okerrik, ixildu, ez bidebage salatu, ta ezta guzurrik edo gezur-antzekorik siñistu-erazo be.

---

* *"Diez Lustros en la villa de Lequeitio 1925-1974" liburuaren hitzaurrea*, 1975.

Gogoan izatekoa da sarri gertatua. Historigille batek esana, geroago besteren batek zalantzan jarri edota, argibide barrien bitartez, aren esana beste era batera erakustea. Esaterako 1321'gn urtean giputzak eta nafarrak izan eben arako Beotibarko zelaiko burrukeaz, idazleak gudari nafarrak 70.000 inguru zirela iñoan; eta erantzunez edo, idazle nafarrak, 3.000 baiño geiago ez zireala izango, erakutsi gura izatea.

Antxiñako jazoeretan ziria sartzea errezago da. Oraintsuko etan ezin leiteke orrelakorik laketu. Ortik ha, gaurko idazleak zuhur eta garbi jokatu beharra.

Lan barri onetan, oraintsuko edestiazko urteetan zehar dabil Okamika. Aldiari begiratu ezkero, iru atal edo unada ditu. Lenengo, arako diktadura unea da, eta orduko gizonak eta jazoerak. Bigarren unean, demokrazi joeran asitako urte laburrak. Eta irugarrena, liburu onetako atalik eta aldirik luzeena. Eta gauza bakana, ogetamazortzi urte iragan, eta gero, ba dirudi jendea demokrazi billa dabillela barriro, aurkako izan direanak eurak be. Mundua biribilla da ta.

Jakiña, unada bakotxean irakurleak kontuan izan beharko, aldian aldiko gizonak eta legemoduak izan direala. Orregaitik, eretxien oiñarria, bardiña ezin izan leiteke. Azterketa ziurra ta kritika jatorra egin ahal izateko, ordu bakotxeko egoera ta jokabideak aztertu behar.

Orretarako, ala-alako aukera mamiña emon deutse erritarrei egilleak. Orra nundik nora ipini deutsen kritikagai bere burua, batetik alkate pasau lez, eta bestetik, liburu idazle lez.

Ogeigarren mende onen asieran, euskal-edestiaz arduratzen zireanak, kondaira monografi errikoien billa ebiltzan, nahi eta behar. Ona emen ba, orretariko liburu bat, historia ta estadistika saillak biok batera daukazana.

Gure jaioterri oneri buruz, Cavanilles-ek eta Aguado Bleyek egin zituen lantxu batzuk. Biok ditugu, ostera, erbestekoak. Arrezkero, errikoseme batek gure lehenaren eta oraintsuagokoaren kontu ta gora-beheren zertzeladak agertzea, eskergarri da benetan. Txalogarri da, beraz, Okamikak arturiko nekea. Ta jakingarri, guztiontzat atan be, aren lanaren gun, mamin eta azi-orraziak geure adimenei adierazotea.

Izan be, ez da bardin, ezta urrik emon be, idazleak literatura lanetan jardutea, ala historia sailleko arduretaz idaztea.

Ortxe ditu edestigilleak bere koxka ta kakoak, lorrak eta arnasestuak. Ango ta emengo, atzoko ta araiñegungo asmo, egitada eta

joan-etorriak, aztertu eta dendunean jarri ondorean, argi ta zehatz, paperetan jarteari ekin behar deutsa. Puntu illunik asko, textu-inguruetako tarte-bitarteetan utsune ta ixillekoak eta okerrune ta lardaskeriak ezartea, egindako lana baldar, urri, nahastau eta trakets bihurtu leitekeolako. Eta ortxe dauka bere arriskubidea plazara datorren historigilleak. Ixildu dauana eta oker jarririkoa, kritiku zorrotzak, gaur ala biar, errukigabe salatuko deutsa ta.

Dana dala, Historiak epaituko gaitu guztiok. Berba onexek esan izan ditu oraintsu Txileko Allende lendakariak be, tiroz il eben aurretxuan.

EUSEBIO ERKIAGA
Lekeition, 1975 udabarrian.

GOMUTAK ILUNTZEN DIRANEAN*

Joseba Agirreazkuenaga urduriak 1937 gko. urtarrilean EGUNA jaio zala ta, euskal prentsaren aurretikoa eta ordukoxe egoera zehaztu gura ditu, eta idazteke geratu diran gorabeherak metatu eta sailkatu. Esku–artean daukan arloaren garrantziagaitik, azterketa preminea nabari izan dau.

Horraitio, EGUNA–ko erredaktoreok, 1937 gn. "kazetari narrugorri» gengozan. Zaletu soilak besterik ez ginan, eta Joseba oraingo eraz eta teknikaz taiutu dan kazetaria dogu.

Izan be, EGUNA ez zan egunkari normala izan. Besteren ekipamenduz baliatu zan: idaztegela, paper, tipografi, erbesteetako albisten iturri... Kazetari–kumak, gudari auxiliarrak, osasunez erdi makal edo ikusmenean akatsak zituenak, 21–24 urteko gazteak inprovisazino moldakatxera behartuak. Goizetik gauera periodista bihurtuak. Giroa latza, mingarriena: etxegerratea, bestek hasia.

Eguneko ta gaueko ordu luzeetan lan ta lan jardun ondoren, barruko kritikarik egiteko aukera haundirik ez genduan izan, bost hilabete ta erdiko lanbide nekatsuan. Goitiko kontseilaririk izan genduanik be, ez dot uste. Hasi eta ekin: "Orainarte egin dozue; aurrerantzean be, egin beharko» —otxandioarrak esana.

Arean bere, jakintsu be ez ginala, euskeraz artez eta azkar idazten ikasi baino lehenago, erredaktore.

Hori dok hori!

Plantilla motxa genduan: kaleko lanetarako ia inor ez; guda–oinetara joateko, are ezago. Erbesteetan ez geunkan korresponsalik. Itzulpen lanen betegarritzat, mesedegarri genduzan kaleko lankideen idatziak, olerkiak, etab.

Intuizinoz egin genduan lanaren alabantzak egin ditu orain Josebak. Zer egiten genduan be asko ez genkiala, aurrerakuntzak burutu genduzala euskal kazetaritzan; zera, kazetal hizkuntza barri bat, labur, zehatz, aseptikoa.

---

* "Eguna" egunkariaren birargitalpena, 1990.

Nagiak uxatuta, adoretsu ta borondate onez egin genduan lanak, harik 52 gn. urtera gorapena merezi dauala jakitea, txit gozagarri izan jaku.

EUSEBIO ERKIAGA